

# EUSKAL HERRI ENBLEMATIKOA

ETOR - OSTOA

## PRENTSA, IRRATIA ETA TELEBISTA



**ZUZENDARITZA**  
Enrique Ayerbe Echebarria

---

**EGILEAK**

Francisco Garmendia  
Julián Beloki  
Juan Aguirre  
Xipri Arbelbide  
Luis M<sup>a</sup> Azpilikueta  
José M<sup>a</sup> Domench  
José Luis García



**ARGAZKIAK**

Iñaki Aguirre  
José Luis García  
Darío Garrido  
Artxihoa



**BESTE ZENBAIT KREDITU ETA ILUSTRAZIO**

Irrati eta Telebistako artikulak ilustratzeko, EITBko «Telebista»  
informazio aldizkariatik hainbat argazki har tu dugu.

Era berean, Auñamendi argitaletxeko «Enciclopedia General Ilustrada» eta Nafarroako Aurrezki Kutxak argitaratutako  
«Gran Enciclopedia Navarra» delakoetara ere jo dugu (192. orrialdetik 195.era bitarteko egunkari-goiburuak)



**ITZULPENA**

Jokin Aiestaran  
Luisma Larrañaga  
Amagoia Lizaso  
Euxebe Portugal



**MAKETAZIOA ETA DISEINU GRAFIKOA**

José León Huarte Ros  
Begoña Goikoetxea Amonarraiz

**Irudien tratamendua**

Ana Jubín Ábalos

---

**ARGITALETXEA**

© OSTOA S.A.

Pza. del Caddie, 1. Lasarte-Oria



**FOTOKONPOSAKETA**

OSTOA S.A. Lasarte-Oria

**INPRIMAKETA ETA KOADERNAKETA**

GRAFO S.A. Basauri

ISBN: 84-88960-97-2

Lege gordailua: BI-2679-03

EUSKAL HERRI ENBLEMATIKOA

ETOR - OSTOA

PRENTSA, IRRATIA  
ETA TELEBISTA

ETOR - OSTOA

---

## PRENTSA, IRRATIA ETA TELEBISTA

### KOMUNIKABIDEEN XEDEAK

*Francisco Garmendia*

BITARTEKOAK ETA XEDEAK .....	6
Perfekzioa komunikabideetan .....	6
Nahasketa komunikazio-prozesuaren xedeetan .....	6
Komunikazioaren subjektuak eta edukiak .....	6
KOMUNIKABIDE BERRIEN XEDEEI BURUZKO GALDERAK .....	6
«Zertaz bizi»	
eta komunikabide berriak .....	7
Konfiantzan oinarritzea .....	7
Elkarren arteko konfiantza .....	7
Konfiantza haustea .....	7
Konfiantza sortzea .....	8
Pertsonak, etika komunikatiboaren berme .....	8
«Zertarako bizi»	
eta komunikabide berriak .....	9
Komunikazioa eta balioak .....	9
Komunikazioa eta identifikazioa .....	10
Nongoa izatea: aldebereketasuna eta kanporatzea .....	11
Hizkuntza notasanaren erreferente gisa .....	12
Errealitate sozial bat izendatzeko modua .....	13
«Nola bizi elkarrekin»	
eta komunikabide berriak .....	13
Historia Versus Lurraldea? .....	15
Telekomunikazio berriak	
eta horien eragina espazioan eta denboran .....	15
Lurraldea irabazteko eta historia galtzeko arriskua .....	15

### EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK

*Juan Aguirre Sorondo*

EGUNKARIAK	
ERROTATIBAREN AURRETIK. XIX. MENDEA .....	18
Euskal prentsaren hastapenak .....	18
EUSKAL KAZETARITZAREN ALDI GORENA. 1900-1936 .....	22
Aldi gogoangarria .....	22
PRENTSAREN ZAT MOZALA. 1936-1976 .....	28
Gerraren ondorenak .....	28

EUSKAL PRENTSA. 1977 TIK AURRERA .....	32
EUSKARA PRENTSAN .....	40
ZIBERKAZETARITZA .....	42
EUSKAL KAZETARITZAREN ZENBAIT PERTSONA OSPETSU .....	46

### ALDIZKARIAK

EUSKAL KULTURA .....	52
ARTEAK ETA LETRAK .....	56
DIASPORAKO ARGITALPENAK .....	60
ERAKUNDEEN ALDIZKARIAK. ZIENTZIA ETA PENTSAMENDUA ...	62
ARGITALPEN POLITIKOAK .....	68
INFORMAZIO-ALDIZKARIAK .....	72
ALDIZKARI ERLIJIOSOAK .....	78
KIROL-ALDIZKARIAK .....	80
SATIRIKOAK, UMOREZKOAK, KOMIKIA .....	82
PRENTSA LOKALA .....	84

### IRRATIA

*Julián Beloki Guerra*

UHINEN MAGIA .....	88
--------------------	----

### EUSKAL HERRIKO IRRATIAREN

#### HISTORIARAKO OHARRAK

LEHEN URRATSAK. 1925 .....	92
Lehenbiziko irrati-emisoreak .....	92
Euskal Irratia .....	93
EAJ-8 Radio San Sebastián .....	93
EAJ-9 Radio Club Vizcaya .....	93
EAJ-11 Radio Vizcaya .....	94
Lehia eta norgehiagoka .....	94
Unión Radio .....	94
HAMARKADA ZAIL BAT. 1930-1940 .....	96
Irratiaren estatutu juridikoaren sorrera .....	96
DIKTADURA ETA ERBESTEA. 40KO URTEAK .....	102
Irratia, domeinu eta askatasunerako lanabesa .....	102
Euskararen errebindikazioa .....	105

ERREALITATE BERRIETARA ZABALTZEA. 50 ETA 60KO URTEAK	106
Baldintza tekniko, sozial eta politiko berriak	106
Radio Popularren irratiak	108
TRANSIZIOA	110
Telebistaren inpaktua	110
Kontrola eta zentsura	110
Irrati-entzule « klandestino»	110
Estilo berri bat	111
Udaberri informatiboa	111
Musika programak	112
Euskara uhinetan	112
Iparraldeko egoera	112
80KO URTEAK ETA MILURTEKOAREN AMAIERA	114
FMren booma	114
Euskal irratiaren eta prentsaren unea	114
Euskal Irrati eta Telebista. EITB	115
Beste irratiak	116
Albistegiaren espezializazioa	116
Musika-kateak	118
Euskaraz bakar-bakarrik	118
Irrati-espektroa	118
FMko diala	119
Irrati digitala	119
KRONOLOGIA	120
DIALA	128
ENTZULERIAREN BILA	134
Entzuleria neurtzea eta merkatu azterketak	134
XXI. mendera begira	138

## TEKNOLOGIA BERRIAK

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN MUGARRIAK	
<i>José Luis García</i>	140
ETORKIZUN DIGITALA	148
D.A.B.	150
BIBLIOGRAFIA (IRRATIA. JULIÁN BELOKI)	151

## TELEBISTA

*Juan Aguirre Sorondo*

TELEBISTA EUSKAL HERRIAN	156
KATEAK. TELEBISTA ESKAINTZA HANDIAGO	
TELEBISTA ESPAINOLA	158
Telebista espainola	158
Centro Territorial delakoa Euskal Herrian	158
Nafarroako Centro Territorial delakoa	159
EUSKAL TELEBISTA. IRAGANETIK ETORKIZUNERA	160
Lehenengo urratsa: 80ko hamarraldian	160
Lehenengo xedeak	160

ETB 1	162
ETB 2	162
Lehenengo etapa: 1986-1989	163
Bigarren etapa: 90eko hamarraldia	163
Pribatuak iritsi ziren	163
Profesionalak eta audientziak	163
PRIBATUAK	164
TELEBISTA LOKALAK	166
SATELITEA ETA DIGITALAK	168
Telekomunikazioen aro berria	168
Iparraldea. Web-telebisten fenomeno	170
Autonomia erkidegoan	170

## TELEBISTAKO EDUKIAK

INFORMAZIOA	172
KIROLA, IKUSKIZUNETAN NAGUSI	174
Kirol sustatzaile garrantzitsuena	174
HAURRAK 'TARGET' GISA	176
EUSKAL FIKZIOA	178
ENTRETENIMENDUA ETA ZERBAIT GEHIAGO	180
Talk-show	181
EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA	182

## TELEBISTAKO JENDEA

TELEBISTAKO PERTSONAIA BATZUK	186
-------------------------------	-----

## PRENTSA, IRRATIA ETA TELEBISTA NAFARROAN ETA IPARRALDEAN. ARGITALETXEAK

### PRENTSA, IRRATIA, TELEBISTA ETA INTERNET NAFARROAN

*Luis M<sup>a</sup> Azpilikueta eta José M<sup>a</sup> Domench*

Prensa	192
Irratia	194
Telebista	194
Internet	195

### PRENTSA, IRRATIA, TELEBISTA ETA INTERNET IPARRALDEAN

*Xipri Arbelbide*

Prensa	196
Irratia	199
Telebista	201

## EUSKAL EDITOREAK

*por Juan Aguirre Sorondo*

Irakurleak	202
Editoreak	203
Argitalpen-enpresak	204
Editoreen elkarteak	205

# KOMUNIKABIDEEN XEDEAK



**PERFEKZIOA BITARTEKOETAN ETA NAHASKETA XEDEETAN.** Definizioz, komunikabide bat are eta perfektuagoa izango da komunikazio-prozesuaren helburuak geroz eta hobekien asebeste. Xede horiek ezin dira komunikabidean bertan aurkitu, komunikazio-prozesu bakoitzean parte hartzen duten **subjektuetan** eta beren harremanetarako ezartzen diren **edukietan** baizik. Hemen azertu nahi duguna da nola eragiten duten komunikabide berriek euskaldunetan eragina duten komunikazio-prozesuetako subjektu eta edukietan, giza existentzian oinarritzekoak diren hiru galderei aurre egiterakoan eta erantzuterakoan: *zertaz bizi?*, *zertarako bizi?* eta *nola bizi elkarrekin?* Komunikazioaren baldintza berriek –interkomunikazioa eta inkomunikazioa–, ondorioz, pertsonen eta herrien garapen kultural eta ekonomikoaren baldintza politikoei buruzko eztabaida planteatzen da, ez hainbeste lurralde –edo espazio-terminoei dagokienez, baizik eta denbora– edo historia-terminoetan.

*Francisco Garmendia*

## ■ BITARTEKOAK ETA XEDEAK

Albert Einsteinek bere garaia honela definitu zuen: *“bitartekoen biperfekzioa eta xedeen nahasketa”*.

## ● PERFEKZIOA KOMUNIKABIDEETAN

Argi dago gizakiok hirugarren milurteko honen hasieran ditugun bitartekoak duela berrogeita hamar urte bakarrik imajinatu ezin zitekeen perfekzio bat izatera iritsi direla. Lurretik milioika argi-urteetara dauden galaxietako informazio eta seinale zehatzak jasotzea, eta antipodatan bizi direnekin nahiz espazio-ontzi batetan doazen pertsonekin pantaila baten bidez elkar ikusiz hitz egitea, hala nola etxean bertan dugun ordenagailuaren bidez milioika eta milioika artxibo (testuekin, irudiekin,...) kontsultatzea edo trukatzeko ahalbidetzen diguten tresnak ditu giza sistema komunikatiboak gaur egun. Komunikabideen garapen maila horrek Einsteinek horien perfekzioari buruz egindako diagnostia soberan berresten du.

## ● NAHASKETA KOMUNIKAZIO- -PROZESUAREN XEDEETAN

Gure buruari egiten diogun galdera, hala ere, bitarteko horiek zerbitzu ematen dieten xedei



GIZONA-MAKINA HARREMAN TELEKOMUNIKATIBOA



PERTSONA-PERTSONA HARREMAN TELEKOMUNIKATIBOA

buruzkoa da. Eta, hasieran, zentzuzkoa da perfekzio-maila bera ez dela existitzen aitortzea. Hain zuzen ere, harrigarria bada ere, komunikabideak taldeen arteko komunikazioa errazteko nahiz inkomunikazioa probokatzeko

erabili daitezke, egiazko informazioa igortzeko eta gezurrak zabaltzeko, gerrara bultzatzeko eta adiskidetasunera deia egiteko,... Bitartekoen erabileran ematen diren joerak, beraz, oso kontraesankorrak dira, eta, hain

zuzen ere, horiek aztertzen dituen nahastea eragiten dute.

## ● KOMUNIKAZIOAREN SUBJEKTUAK ETA EDUKIAK

Definizioz, komunikabide bat are eta perfektuagoa izango da komunikazio-prozesuaren helburuak geroz eta hobekien asebeste. Xede horiek ezin dira komunikabidean bertan aurkitu, komunikazio-prozesu bakoitzean parte hartzen duten **subjektuetan** eta beren harremanetarako ezartzen diren **edukietan** baizik.

Komunikabide nagusia gizaki bakoitza da. Hori horrela, erreflexibotasuna dela eta, aldi berean gure komunikazio-prozesuaren xede eta bitarteko gairela bereizi dezakegu gutako bakoitzean. Pertsonaren izaera kontraesankor hori gogoan edukitzea garrantzitsua da, bitarteko berrien perfekzioa subjektu bakoitzaren ahalmen edo

konpetentzia komunikatiboa perfektionatzen den neurrian bakarrik baita horrela.

## ■ KOMUNIKABIDE BERRIEN XEDEEI BURUZKO GALDERAK

Eta, zein da gizakiaren komunikazio-sistemaren xedea? Galdera horrek, errorarino eramanda, giza existentziaren ardatz izan daitezkeen galdera nahiz erantzunen izaera naturalki irekia adierazten digu. Hori horrela, komunikabideak kontraesanean dauden helburuetarako erabili daitezke.

Giza portaera gidatzen duten galdeen artean oinarritzotzat edo errokotzat hartzen ditudan hiru nabarmendu behar dira: *zertaz bizi?*, *zertarako bizi?* eta *nola bizi elkarrekin?*

D. Bell-ek2 adierazi zuen moduan, galdera horiek beren artean modu nahiko autonomoan antolatu dira mendebaldeko egungo gizarte garatueta. Ikuspuntu hori baliagarria da egungo euskal gizartearen, eta, bereziki, gudan eragina duten komunikazio-prozesuetan gertatzen dena aztertzeke.

Hemen aztertu nahi duguna da nola eragiten duten komunikabide berriek euskaldunetan eragina duten komunikazio-prozesuetako subjektu eta edukietan, giza existentzian oinarritzokoak diren hiru galderei aurre egiterakoan eta horiei erantzuterakoan: *zertaz*, *zertarako* eta *nola...*

#### • «ZERTAZ BIZI» ETA KOMUNIKABIDE BERRIAK

Gizakiaren historiaren globalizazio berriak dituen oinarrietako bat da *on-line* informazioen konektibitatea ahalbidetzen duten bitarteko zientifiko eta teknologikoak, ekoizpen-prozesu konplexuen zatiketa nahiz integrazioa sustatuz. Horrek guztiak garatutako gizartearen oinarri ekonomikoa, eta, bitartekoaren bidez, planeta osoko ekonomia sakonki eragin du.

Ezagutza aurreratua, eta hori berrikuntza teknologiko moduan aplikatzea, ekonomia berriak duen abantaila lehiakorraren funtsezko oinarrietako bat da. Eragile ekonomikoek, indibiduoak izan edo korporazioak izan, dituzten komunikabideen eta sareen kalitateak baldintzatzen du abantaila hori eskuratzea eta eguneratzea. Baina *ulertzen edo konprenitzen jakitea* edo *egiten jakitea* bezalako ezagutza ez da aurkitzen ez sareetan eta ezta bitartekoetan ere, pertsonetan, giza nodoetan, baizik.

#### KONFIANTZAN OINARRITZEA

*Kapital soziala, memoria instituzionala, komunikazio-kultura, antolamendu-klima...* Horiek guztiak egun enpresa aurreratuenetako aktibo estrategiko nagusiak dira. Kontzeptu horiek, hain zuzen ere, gehiago nabarmetzen dute eragile ekonomikoaren dimensio etiko eta nomikoa tekniko eta instrumentala baino. Berrikuntza tekniko ezinbestekoa da kontzeptu horiek adierazitako errealitateak garatu ahal izateko, baina ez da nahikoa.

Enpresa baren *kapital soziala* sortzeak eta garatzeak –eguneratzearen eta berrikuntzaren bidez– ezagutzak (egiten jakitea) eta balioak (jokatzen jakitea) kudeatzearen

## KOMUNIKAZIOEN BERRIKUNTZA TEKNIKO



erronka planteatzen du. Eta hori ez da bideragarria “memoria instituzionalik” gabe, egoera berriei metatutako esperientziatik aurre egitea ahalbidetzen duen orogarri dinamikorik gabe. Memoria hori sortzea eta mantentzea ez da zenbait protokolo jakin elkar trukatzeko diren artxibo digitaletara iraultzera murrizten. Memoria instituzionala

–soluzioen benetako iturri izan dadin– enpresaren historia bizia erazten duten pertsonen arteko konfiantzatik abiatu behar da.

#### ELKARREN ARTEKO KONFIANTZA

Konfiantza etikoa da, pertsona bakoitzaren aktibo nagusia antolamendua osatzen duten beste

pertsonekin banatzeko jarrera eta konpromisoa sortzen duen konfiantza: egiten jakitea, bakoitzak enpresan onarpen profesionala, soziala eta ekonomikoa jaso izatearen arrazoiak.

Enpresa ekonomikoaren hobekuntza lehiakorraren zerbitzura dauden memoria instituzionalak garatzeko egun dauden sistema eta komunikabideak modu aurreratuan erabiltzeak, ondorioz, arazo teknikoak planteatzeaz gain, proiektuetara atxikitzea birsortzeko erronka planteatzen du, ekoizpen-sare bakoitza osatzen duten pertsona guztiak inplikatu, konpartitzen den komunikazio-eduki etikoak dituen arauen arabera.

Enpresa-proiektu bakoitzak beste enpresakiko eremu komunak ditu (geroz eta globalagoak). Hori horrela, eremu komunak eta soilak ezin dira ez batzuk besteetatik berezita ulertu, ezta beren artean paralelo ere.

#### KONFIANTZA HAUSTEA

Mende aldaketarekin ekonomiaren munduak etikoki zitalak izan diren komunikazio-prozesuak bizi izan ditu.

Aurretik bizitako beste globalizazioen (adibidez, Mundu Berriaren aurkikuntzatik eratorritakoa) eta egungoaren artean dauden funtsezko desberdintasunetatik bat da aberastasuna sortzeko prozesu aurreratuetan ekonomikoki inplikaturako eragile guztiei informazioa ia denbora errealean eskaintzeko aukera teknikoak.

Paradoxa nagusia da aukera hori, alabaina, bezeroak eta akziodunak desinformatuta mantentzeko erabili dela. Enron, WorldCom edo Ahold-ekoak bezalako enpresa-iruzur kasuen oinarrietako bat da baliabide finantzarioak inuzurpean eskuratzeko politika, beren albistegiak Nikkei, Dow Jones edo Nasdaq indizeen bilakaeraren berri emanaz irekitzen dituzten komunikazio-agentzia handien bidez publiko desinformatuta mantenduz.

Porrot guztiak iruzurrezko komunikazio-prozesuetan oinarritzen ez badira ere, EEBBetan, 2000 eta 2002 urteen artean, teknologien sektoreko 30 enpresa adierazgarri baino gehiagok lau bilioi dolar galduz porrot egin izanak sinestarazten digu beren aurrezkiak enpresa horien esku jarri zituzten pertsonak ez zutela informazio egokia jaso.

Merkatu-ekonomiaren bihotzean bertan gertatutako porrot horien eragin sozialak, nolahi ere, ez dira benetako sozialismoko herrialdeetako estatu-ekonomiek bizitako porrot orokortuak bezain mingarriak izan biztanleriaentzat.

Enron-en porrotak ez zuen arazo larrikeragin bere bezero kopuru handiari energi hornitzailekoan, zerbitzu horretan berehala ordezkatu izan baitzen merkatuko beste enpresengatik. Ezin da baina gauza bera esan Errusiari buuz, bere sistema sozialistaren porrota aitortu zenetik urte asko igaro badira ere. Enpresa handien eta estatuen megaporrotek ez digute ahaztarazi behar negozio txikietan ere ematen direla miniporrotak komunikazio-iuzurra dela eta. Ez du esan nahi kasu horietan komunikazio-teknikak falta izan direnik, nagusiki etika komunikatiboak huts egin dutela baizik. Hori dela eta, prozesu ekonomikoei dagozkien arazo komunikatiboek ondoko erronka hau planteatzen digute: komunikabide berriak xede zintzotarako balio izateko ibilgu etikoak aukitzea. Erronka hori berria dela esan dezakegu, alderdi berritzaileak baititu globalizazio ekonomiko berriaren testuingurua. Hala ere, gizakiaren historiari heltzen badiogu, alderdi iraunkorra ere badu.

Behar bezala antolatutako azoka publikoa duten herrietan jaio garenok eta gaztaroaren mende erdia gaingitu dugunok arazorik gabe gogora dezakegu ondoko hau zioen iragarki-oharra: *"Pisu-eta neurri-sorta bat dago publikoaren eskura"*. Hori zen pertsona orok salerosketaren xede ziren produktuen pisua edo neurria benetan hitzartutakoa zela frogatzeko beharrezkoa –ez nahikoa– zuten baldintzetako bat. Baina produktu bakoitzak, forma-pisu-neurriaz gain, eduki-substantzia-dentsitatea du. Horregatik, antzinako azokei erreferentzia egin behar diet berriz ere, eta gaztelarazko aforismo ezagun bat gogorarazi behar dut: *"Me las han dado con queso"* (Gaztarekin eman dizkidate). Hori esan ohi dugu Aginagako izenez Frantziatik ekar tzen dizkigutenean. Aipatutako atsotitzaren jatorria oso adierazgarria da. Ardandegi-jabeak ospintzekotan zegoen ardo bat ondolik kendu nahi zuenean, bezeroari eskaintzen zion aurretik gazta min bat probarazi ondoren. Horrela, ahoak esker tu egiten zuen gazta jan gabe ezatsegina izango zen hori.

Joko-arau batzuen errespetua (pisuak eta neurriak) da, hain zuzen ere, beharrezko baldintza, baina ez da nahikoa, ezta lurreko produktuak eta ardo bezalako produktu hain nabariez ari garenean ere. Iruzurra beti da posible, eta horregatik inoiz ez litzake mesprezatu behar prebentzio arduratsua. Hori dela eta –eta ez hain urrutiko iragan batekin amaitzeko– gomendatzen da erloju eta bikotea

## ERREFLEXIBOTASUNA



«Pentsatzailea». Rodin.



Arrantzale zaharra. Mutriku.



"Fumeur". Cézanne.

Erreflexibotasuna dela eta, aldi beran gure komunikazio-prozesuen xede eta bitarteko garela bereizi dezakegu.

## KOMUNIKAZIO-PROZESU PROBLEMATIKOAK



«Maitaleak». Magritte.

"La lectrice soumise". Magritte.



fundamentuz fidatzekoa den jendearen artean eskuratzea.

## KONFIANTZA SORTZEA

Konfiantza elkarren artekoa ez bada ez dago konfiantzarik. Komunian sentitu, ezagutu edo bizi daitekeena konpartitzen da. Espazio, eremu, erreferentzia, sentimendu, ezagumen et balio konpartituen sokuntza prozesu komunikatiboaren emaitza da. Beti egon dira besteak baino konfiantza gehiago merezi duten azokak, dendak, hornitzaileak edo bezeroak. Era beti egon dira ezustekoak. Hori dela eta, konfiantza egunegun irabazten joan behar ko den errealitatea da, eta hori komunikazio-prozesuen arduradunen xede nagusia izango da.

Aldatu egin dena –eta asko– gizarte aurreratuenen prozesu ekonomikoak eratzen dituen faktore-multzoa da. Objektuen, materien edo gaien ezagutzaren menpe dago prozesu ekonomiko baten konfiantza. Horrek baldintzatuko du inbertitzeko edo ez inbertitzeko erabakia, erosteko edo saltzeko erabakia, edo eskari bat formalizatzeko erabakia. Objektu, materia edo gai horiek hainbeste eraldatu dira, prozesu komunikatibo orotan behar den konfiantzaren oinarri izango diren sare komunikatiboak birsortu behar ko direla.

Egun, eta batez ere ekonomia aurreratuenetan, aberastasuna sortzen duten edukiek formatu geroz eta birtualagoak dituzte, eta, gainera, edukiaren zati garrantzitsu bat ezagutza da (zientzia gisa nahiz egiten jakite gisa). Horrez gain, lanak egun duen nazioarteko dibisioak eta horren globalizazioak –geroz eta gehiago eskumen ukiezin eta subjektiboetan oinarritzen den dibisioak– inplikaturako eragileak pertsonalki ezagutzea, oraingoz, gauzatu ezin daitekeen utopia dela dirudien merkatuetan integratzen gaituzte.

Gainera, komunikazio-sistema berriek errealitate birtualak sor ditzakete, paisaia eraiki ez diren etxeak jarriz edo inbertitzeko aukera berriak eskaintzen dituzten horien buruan besterik existitzen ez diren produkzio-prozesuen bisionamendua eskainiz.

## PERTSONAK, ETIKA KOMUNIKATIBOAREN BERME

Gaur egun modan dago ezagutzaren kudeaketa. Iruditzen zait pertsona askoren buruan dagoela *ezagutzaren kudeaketak* (ezagutza propioak edo besteena), ez gutxitan, besteen *ignorantziaren kudeaketa* barne hartzen duela. Besteek ez dakiten eta ezagutzen ez duten, baina nik badakidan, ezagutzen dudana, menderatzen dudana eta aplikatu dezakidan zerbaitez baliatzea da merkatu berdinean jarduten diren



pertsona eta taldeen arteko lehiakortasun naturalaren funtsezko lege bat da.

Testuinguru honetan nahitaezkoa da arazoari buruzko posizio etikoa hartzea. Etika beren jokabideen eta beren omisioen erantzule diren subjektuekin hasten da. Eta ekonomiari dagokionez, orokorrean, hor banatzen dira bitan orientazio eta joera pertsonalak. Merkatu-ekonomien eremuan, batzuek nahiago dute erantzukizun etikoa erakunde publikoetan kokatzea (erakunde horiek arautzaile eta arbitro gisa jardungo lirake), eta beste batzuek, berriz, prozesuan parte hartzen duten pertsonen erantzukizun indibiduala nabarmentzen dute.

Du ekonomiaren parte aktiboa gara, eta bertan objektu manipulatu baino subjektu protagonista izatea gustatuko litzaiguke. Ekonomia horren baldintza berri horietan, *aurkitu al dirizakegu "pisu eta neurriak", eta engainatuak izan ez gaitzen laguntzen diguten printzipio eta irizpide orientagarriak?*

Lokalki nahiz globalki aldaketa sakonetako prozesuen barnean gaude, ez guk munduan dugun egoera pertsonal eta soziala aldatu dezaketen konmozioetatik at. Horri dagokionez Daniel Bell-ek aurkitutako kontraesan kultural eta etikotara itzultzen naiz.

Gure harreman ekonomikoaren arauak antolatzerakoan eduki erlijioso positiboko tradizio etiko komun batetara itzultzea posible ez bada ere –neurrigabekeria eta iruzurra geldiarazten delarik, lehenengo kapitalismoan bere liderren tradizio kristau-kalbinistari esker gertatu zen bezala–, gutxienez ondoko printzipio hau bezalako printzipioak operatibo bilakatzeko sarean zirkuluak ezarri beharko genituzke: engainatuak izan nahi ez badugu, ez dezagun engainatu.

Eraikitze saio positibo horretan komenigarria da gogoraraztea iturri etikoa ez dela araua, ez legea, ezta instantzia administratiboa ere, naturalki arduradun sozial eta indibidual den pertsona baizik.

Geroz eta gehiago faktore subjektiboek zehazten duten gizarte batetan, nagusiki subjektibotasun horren ethos arautzailean bilatu behar da irtenbidea. Irtenbide hori, ondorioz, inoiz ezingo da prozedura mekaniko eta burokratiko-administratibo batetara murriztu, eragile ekonomikoaren arteko gizarte-harremanari dagokionez baldintza publiko zehatz batzuk oso beharrezkoak izanda ere.

Pertsonalki nabarmendu nahiko nuke beharrezkoak direla erantzukizun indibiduala eta horretatik erortzen diren ondorio guztiak beregain hartzen

## KOMUNIKAZIOA, INTERKOMUNIKAZIOA ETA INKOMUNIKAZIOA



«Deslaitua». Díaz de Olano.



José Arrue.



«Amaren aholkuak». D. de Olano.



José Arrue.



*Bitarteko berrien perfektzioa ez da subjektu bakoitzaren komunikazio abalmena edo eskumena perfektzionatzen duen heinean bakarrik.*

dituen pertsona zehatzen oinarri etikoa, eta, gainera, argitasunez ezartzea produkzio eta merkataritza-prozesu bakoitzean eragindako eragileen arteko joko ekonomikoak eduki behar dituen baldintza publikoak (arauak).

Testuinguru horretan onar tezina da askatasun indibiduala erreklamatzeko eta erantzukizuna erakunde publikoetan edo organismo erregulatuzailetan eskuordetzea.

### ● «ZERTARAKO BIZI» ETA KOMUNIKABIDE BERRIAK

Xede izateagatik legeztatzen diren balioetarako atxikipen pertsonalean erazten da zehaztaren etikoa, eta xede horiek gauzatzeko pena merezi du bizitzea. Atxikipen hori tradizioz, afektioz nahiz konbikzioz sor daiteke. Pertsona bakoitzaren errealitate indibidualan, orokorrean, zaila da hiru faktoreak bereiztea: tradizioz oinarritutako jaso dituen zenbait balio bizi dituen pertsona afektiboki lotua dago balio horietara, eta horien balioz konbentziturata dago.

Kasu bakoitzean gertatzen dena gertatzen dela, balioetarako atxikipena modu jakin batetara sentitzen, pentsatzen eta jokatzeko duen *komunitate* batetan integratzeko prozesuagatik gauzatzen da. Gaur egun, Joxe Migel Barandiaranek euskal gizarteaz esan zuen bezala, komunitate historikoen *«sentitzeko, pentsatzeko eta jokatzeko moduetan sakontasuneko nahasmendu bat»* bizi dugu.

Komunitate bakoitzaren kohesio historikoa belaunaldi desberdinak eratzen direneko komunikazio-prozesuen bidez bermatzen da. Prozesu horiek oso zehatzuta eta baldintzatuta egon dira lurraldearengatik. Komunitate bakoitzaren kokaleku geostrategikoek beste bizitza-eredu batzuekiko harreman handiagoa edo txikiagoa eragiten zuten. Nolanahi ere, zenbait balioetarako atxikipena nahitaez besteen existentziaren berri ez izateak zehatzen duela zalantzan jarri behar da. Balio batzuekiko preferentzia (tradizionala, afektiboa nahiz erabakitakoa) hobeto azaltzen du pertsona batek ezagutzen dituen balio hobereak izatearen estimazio subjektiboak.

### KOMUNIKAZIOA ETA BALIOAK

Komunikabide berriek, zentzu bat baino gehiagotan –eta gainera kontraesankorrek–, gizakiaren jokabidea gidatzen duten sistema nomikoen ezagutza eragiten dute.

Bitarteko horiek, alde batetik, bizitza-estiloetan nahiz balio tipikoetan homogeneizazioak eta okortze masiboak burutzeko balio izan dute. Jantzeko, abesteko, edateko, jateko eta abarretako moda edo moduetan

estandar unibertsal zehatzak sortzea ezingo litzake imajinatu ere egin komunikabide berrien laguntzarik gabe (irratia, telebista, zinea, bideoa, internet, CDR, DVD,...).

Baina komunikabide berriek, halaber, berariazko komunitateen arteko komunikazio-fluxuak sortzeko aukera eskaintzen dute. Numerikoki oso murrizta den hizkuntza-komunitate batetako kideek, komunikabide berriek esker, interneten bidez oso merke eduki dezakete beren literatura osorako (ahozkoa nahiz idatzia) sarbidea.

Eztaba daezina da bitarteko berriek jaio gineneko eta haziak izan gareneko bizimoduetatik oso urrun dauden bizitza-esperezia eta eredu tarako sarbide azkar eta erraza eskaintzen digutela. Hori baliagarria da gizateria osoarentzat, baina are gehiago herrialde garatu entzat.

Euskal gizartearen kasuan, fluxu komunikatibo anitz eta kontraesankorren ekintza bizi eta zabala bizi dugu, beren diskurtsoetan eta ikuskeretan gizatea osatzen dugun pertsonak integratzeagatik lehiatuz.

Euskal gizarteak hizkuntza desberdinekiko duen atxikipena aldakorra da, balio etiko tarako atxikipena aldakorra den bezala. Eta horrela aditzera eman da Deustuko Unibertsitateko Balioen Talde Europarretik egiten etorri garen inkesta desberdinetan. Desberdintasunak daude ondasun komunitarioak sortzeko eta bizitzeko moduetan. Ondasun komunitario horiek dira, azken buruan, komunikazio-prozesuen giza errealitate biziduna. Beraz, bi komunitate edo gehiagoz hitz egin behar al da?

#### KOMUNIKAZIOA ETA IDENTIFIKAZIOA

Gaiak behar lukeen bezala arrazoitzeko beharrezkoa den espazioa ez badugu ere, euskal gizartearen eragina duten komunikabideek eratzen dituzten diskurtso ideologiko eta arauemaileak ez dira benetan euskal gizartearen osatzen duten pertsonak bizi eta desio dituztenak bezain integratzaileak.<sup>3</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan (NFE) pertsonen buruz hitz egiten denean, euskal nahiz nafar baldintzaren edukari dagokionez ulertzen dena ulertzen dela ere, indibiduen gutxiengo batek bakarrik (%9) baztertzan du bere autoidentifikazio nazionaletik edo nortasun nazional berearen zehaztapen subjektibotik euskal edo nafar erreferentzia (1. taula). EAEn bizi direnen artean euskal erreferentzia da nagusi, eta NFEen bizi direnen artean, berriz, nafar erreferentzia. Baina erreferentzia espainiarra bietako gehiengo batek



Euzkadi egunkaria imartzeko kartela.. E. Verdesen litografia - Bilbo. (1930)  
Legenda: Euzkadi euzkotarren izparringija da.



konpartitzen du maila desberdinean.

#### BI ALDERDI

Alderdi kuantitatiboetan aurrera egin aurretik, gai horrekin lotutako bi alderdi kualitatibo nabarmendu nahi ditugu.

Lehenengoa subjektu politikoan, horien eraketaren, hala nola beren betebeharrak eta eskubideen baldintza indibidual eta kolektiboari buruzko eztabaidari lotua dago. Ohikoa da euskal gaiari buruzko eztabaida publikoan *indibiduo*, *herria*, *nazioa*, *lurraldea*, *estatua* eta abar bezalakoak aipatzea, kategoria horietakoren bat gainerakoan gainetik egon behar duen instantzia subirano gisa absolutizatuz. Horrela, adibidez, *indibiduo* bakoitzaren eskubideak *herri* baten eskubideetara kontrajartzen direnean. Pertsona bakoitza bere ondasun sozialekin –lokalagoak nahiz globalagoak edozein delarik ere giza existentziaren eremuak (linguistikoak, ekonomikoak,...)– identifikatzen den modua ekintza indibidual nahiz komunitarioa da, indibiduo bakoitzaren aukera izanda ere komunitatean duen garapena eragiten baitu. *Indibiduo* eta *nazio* kategoriak giza dimentsio errealek ulertzeko balio dezaketen kontzeptuak dira, baina horietako inor, kategoriei dagokionez, ez da giza errealitate osoa barnean hartzeko gai. Pertsona bat unibertso osoaren zentroa izan behar duen indibiduo cartesiarren kontzeptu modernoaren (*cogito, ergo dum*) neurri murriztea, gainerakoak zerbitzu eman beharko dion aurretiaz ezarritako osotasun sozial batekin (klasea, arraza, gizateria,...) nahastea bezain artifiziala da. Indibiduen garapen integralerako eskubidea ezin da planteatu beren nortasun komunitarioen (bizilagun-komunitateak, komunitate kulturalak, erlijiosoak,...) garapenerako eskubidea onartu gabe, biak baitira pertsona zehatzek berdin eragiten dieten alderdiak. Zentzu horretan, arazo kolektibo asko nortasun sozial desberdinak garatzea xedetzat duten pertsonen arteko desberdintasun indibidualen espresioa dira. Bigarren alderdiak, hain zuzen ere, Baskoniako biztanleek, nafar, euskal nahiz espainiar baldintzarekiko fideltasunari buruz galdetzen zaizenean, beren nortasun nazional subjektibo zehatzeko duten moduetan dauden desberdintasunen funtsari eragiten dio. Duela bi mendeetatik Baskonia Penintsularreko biztanleak unitate nazional espainiarrean integratzeagatik politika aktibo asko gauzatu badira ere, ez da lortu estatuak desio duen homogeneizazioa nazional subjektibo. Eta Baskonian, XX.

mendean zehar, kontzientzia nazional subjektibo espainiarra duten ehunka milaka inmigrante auzotu badira ere, XXI. mendean hasieran ikusi dezakegunaren arabera ez da espero asmo homogeneizatzaile hark arrakasta izatea. Duela 25 baino gehiagotik, euskaldunen nortasun nazional subjektibo lehenetsiari buruzko inkesta kontrastatuen sortak ditugu, eta EAEn *espainiar bakarrik* edo *espainiar euskaldun baino gehiago* sentitzen den pertsona kopurua ez da %15era iristen. Berdina gertatzen da Nafarroan, bertan lehenesten den aukera nafar sentitzearena delarik.

#### DATU KUALITATIBOAK

Behin ohar horiek eginda, zenbait datu kualitatibo emango ditugu.

Homogeneizazio nazional espainiarrean murriztuak izateari zaion errefus subjektiboak, eta Baskoniako biztanleek beren buruarentzat aldarrikatzen duten identitate nazionalen euskalduna eta/edo nafarra dena erlatiboki barne hartzeak, estatuari dagokionez berariazkotasun politiko kutsu bat duen harreman sozialen eremu bilakatzen dute lurralde hau. Baina, aldi berean, gertaera sozial bat da gehiengoak bere buruari egozten dion nortasunean erreferentzia espainiarra ere barne hartzen duela. (1. taula).

Inkestatutakoen %14,9 espainiar bakarrik sentitzen da, edo espainiarra sentitzen da euskaldun/nafar sentitzearen gainetik; %35,7 euskaldun/nafar bezain espainiar sentitzen da; eta %42,7 euskaldun/nafar sentitzen da espainiar sentitzearen gainetik, edo euskaldun/nafar bakarrik sentitzen da. Azken talde horretan dago pertsona-kopuru handiena, subjektiboki baztertuz espainiar nortasunaren erreferentzia, edo espainiar nortasun hori euskaldun/nafarraren menpe utziz. Bigarren lekuan euskaldun/nafar izaera eta izaera espainiarra bateragarri egiten dituzten pertsonen multzoa dago. Pertsona-multzo txiki batek besterik ez du nortasun espainiarra euskaldun edo nafarraren aurretik kokatzen. Nolanahi ere, euskal/nafar sentimendua inkestatuen gehiengo handi baten oinarrian kokatzen da, eta, ildo beretik, inkestatutako pertsonen %75,8 harro edo nahiko harro dago biztanle euskalduna/nafarra izateaz.

Inkestak, halaber, ondokoa galdetzen du: *zein multzo geografikoren partaide zarela esango zenuke?: Herria, Autonomia Erkidegoa (Euskadi edo Nafarroa), Espainia, Mundu osoa.*

Inkestatutako pertsonen %51,5ek, batez ere, bizi den udalerrri, herri edo hirikoa dela erantzuten du, eta %23,4k Euskadi edo Nafarroa aukeratzen du. Lehenetasun horiek posizioz aldatzen dira bigarren



Aguinecheren estatutuaren aldeko kartela. Unión gráfica SL. Tolosa.  
Legenda: Eup! Todos por el estatuto. Eup! Guziok arraudi alde.



lekuan nongoak diren galdetzen zaienean. Kasu orotan, identifikazio-lehenetasunak bi identifikazio-moten artean mugitzen dira. (2. taula)

Penintsulako Baskonian eskuratutako emaitzan Espainian eta European eskuratutakoekin alderatuz gero, desberdintasun bat nabarmentzen da: batez ere Euskadi edo Nafarroako espazioarekin identifikatzen den portzentaia Espainiako eremu geografikoarekin lehenetasunaz identifikatzen den portzentaia baino altuagoa da. Ez da gauza bera gertatzen ez Espainiako estatuan eta ezta European ere. Hori Euskalerrian dagoen atxikipen nazionalen eztabaidaren datu adierazgarria da. Hala ere, zenbateko horietatik ezin dugu ondorioztatu aipatutako eremu horiei ematen dieten esanahiaren eduki errealetan inkestatuek duten kointzidentzia-maila.

#### NONGOA IZATEA: ALDIBEREKOTASUNA ETA KANPORATZEA

1995 eta 1999 artean ikusten diren portzentaia diferentziak (1. eta 2. taulak) handiestea gustatzen ez bazaigu ere, ikuspuntu bikoitz batetatik interpretatzera ausatzen gara:

- Aldi berean eta positiboki toki desberdinetakoak izatearen edo autoidentifikazio pluralaren onarpen sozial handiagoa.
- Kanporaketagatiko lehenetasun erlatiboa autofirmatzeko behar txikiagoa.

Leku batetako izatearen sentimenduen bateragarritasun edo bateraezintasun-maila desberdinak multzo ugari sortzen ditu. Multzo horiek, metodologikoki, bi, hiru edo lau multzora murriztu daitezke, baina hiritarren errealtate pertsonal zehatzak biderkatu egiten ditu.

Nolanahi ere, azken hamarraldian autoidentifikazio nazionalak bizi izan duen bilakaeraren azterketatik ondorengo hau ondorioztatzen da: dauden autoidentifikazio nazionalen pluraltasunaren egonkortasuna.

Gainera, euskaldun/nafar edo espainiar bakarrik sentitzen diren guztiak ez dute zergatik izan behar, termino kuantitatibo eta kualitatiboetan, nortasun-atxikipen bera. Nazio terminoetan nortasun kolektibo zehatz batetako izateari ematen zaion garrantzia erlatiboa da indibiduoak, hiru galderak planteatzen eta horiei erantzutean (*zertaz, zertarako eta nola bizi elkarekin*), pertenezia eta identifikazio desberdinak azaltzen dituen une beretik.

Era berean, lehenetasunaz zein lurraldetakoa den zehaztean Euskadi edo Nafarroa hautatzen dituenak Espainiaren baxterkeria ideologiko batengatik,

gertuagoko harreman-eremu batekiko afektu tradizionalagatik, edo berehalako interes pertsonalagatik (adibidez, osasun-laguntzako sistemaren arreta) izan daiteke. Horren arrazoia da galdera berak historia pertsonal desberdinetatik interpretatua izatea ahalbidetzen duela, eta, hori dela eta, erantzunak balio desberdina izan dezake kasu bakoitzean.

Hori horrela, gure iritziz, azterketa horretatik atera daitezkeen ondorioak bi dira nagusiki:

- a) Identifikazio nazional mota desberdinekiko harremanari buruz jardutean, hiritar guztien identifikazio positibo komuna aurkitzea zaila dela.
- b) Gertuago dauden nortasun-eremuetarako atxikipen positiboaren garrantzia —erreferente komuna euskalduna edo nafarra delarik— eta urrunago dauden barne-hartze positibo txikiagoa ukazina da.

### HIZKUNTZA NORTASUNAREN ERREFERENTE GISA

Komunitate-fideltasunaren aniztasuna, era berean, testuinguru honetan interesgarria den beste galdera baten erantzunetan islatzen da: *Aukeratu ahal izango bazenu, zein hiru hizkuntza jakin nahiko zenituzke? Eta zein zure seme-alabek jakitea?*

Hizkuntzak, aldi berean, erremintak eta sinboloak dira, tresna erabilgarriak eta zentzu-erreferentziak, bitartekoak eta xedeak. Hizkuntza bat edo beste lehentasunez aukeratzeak esanahi hauek izan ditzake: historikoki hizkuntza horretan igorritako tradizio kultural jakin batetarako atxikipena, nahiz saltzeko edo hezteko edo hizkuntza horretan espresatzen diren pertsonak ebanjelizatzeeko interesa. Eta atxikipen positiboak ukatze baten edo ukatze ugari en adierazpen sinbolikoa izan daiteke.

Baina —aukera bakoitza hautatzearen arrazoiak edozein direlarik ere— hizkuntza anitzeko espazio sozial batetan, hizkuntza komunitarioen hierarkizatze erlatiboak pertsona bakoitzak identitate kolektiboekin duen harremana eragiten du. Hori da gure kasua. (3. kasua)

%44,7k, lehenengo hizkuntza gisa, euskara hautatzen du, eta %47,7k gaztelania aukeratzen du; bigarren lekuan, %29,4k euskara aukeratzen du, %34,7k gaztelania eta %26,7k ingelesa.

Lehentasunak utziz goazen heinean esanahi desberdina izan dezaketen beste hizkuntza batzuk azaltzen dira. Izan ere, hizkuntza horiek ez baitira nortasun-prozesuaren orduan kokatzen. Kasu horretan, hizkuntza-lehentasunek leialtasun

1. TAULA Autoidentifikazio Nazionala			
Autoidentifikazio Nazionala	1990	1995	1999
Euskalduna edo nafarra bakarrik	34	23,1	23,4
Euskaldun edo nafarra espainiar baino gehiago	15	26,7	19,3
Berdin euskaldun edo nafarra eta espainiarra	29	33,8	37,5
Espainiarra euskaldun edo nafarra baino gehiago	2	7,2	6,2
Espainiarra bakarrik	15	4,1	8,7
ED	5	5,0	4,8
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

2. TAULA Autoidentifikazioa pertenezia-eremu sozio-komunitario desberdinekin					
	Baskonia	Penints.	Espainia		Europa
Urtea	95	99	95	99	99
Herria	56,8	51,5	51,5	45,0	47,1
Autonomia, eskualdea	20,2	23,4	14,5	16,3	12,5
Espainia	11,4	13,2	24,3	26,5	26,7
Europa	0,7	1,7	2,1	1,7	3,1
Mundu osoa	10,0	8,2	6,7	9,3	6,3
ED/EE	0,9	1,8	1,0	1,3	4,1
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>



3. TAULA Lehenetsitako hiru hizkuntzek hierarkizatutako aukera 1. aukeraren arabera antolatuta				
Aukeratzten den hizkuntza	1. aukera	1. aukera	1. aukera	3 auk. batura
Gaztelania	47,7%	34,7%	4,1%	86,3%
Euskara	44,3%	29,4%	10,0%	83,7%
Ingelesa	5,8%	26,7%	56,5%	89,0%
Frantsesa	0,9%	4,0%	11,9%	16,8%
Alemana	0,2%	1,5%	7,9%	9,6%
Katalana		0,1%	0,5%	0,6%
Galiziera		0,3%	0,8%	1,1%
Beste bat	0,3%	0,3%	1,0%	1,4%
ED/EE	0,8%	3,0%	7,5%	

*Inkestatutakoak guztira: 1.204. Inkesta: 1999.  
Oharra: 99 Balioren Inkesta Europarrean, galdera horri hiru erantzun-aukera eman zitzaizkion.*

4. TAULA Lehenetsitako lau hizkuntzek hierarkizatutako aukera 1. aukeraren arabera antolatuta					
Lengua por la que opta	1ª Opción	2ª Opción	3ª Opción	4ª Opción	Suma 4 op.
Gaztelania	52,9	33,3	02,3	01,4	88,19
Euskara	41,6	30,3	07,1	06,4	84,14
Ingelesa	03,9	27,0	52,9	10,1	92,19
Frantsesa	01,3	05,0	21,6	39,8	66,17
Alemana	01,0	01,8	08,7	28,7	38,22
Katalana	00,8	01,0	01,4	01,0	3,12
Galiziera	00,3	00,5	01,6	02,4	3,18
Beste bat	04,2	00,7	00,8	02,4	0,08

*Inkestatutakoak guztira: 2.205  
Inkesta: 1995*

komunitario eta nazionalen eztabaida ere islatzen dute.

Aukera guztien batura kontuan hartuz gero hizkuntzarik hautatuena ingelesa dela ikusi dezakegu. Ia euskara eta gaztelania gainditzen ditu. Zentzu horretan, hiru hizkuntzek jasotzen duten legitimazio garrantzitsu bat. Hori bai, ez dira ez maila berekoak eta ezta jatorri berekoak ere. Egoera horietan, hain zuzen ere, da baliagarria hiru galderak bereiztea (zertaz, zertarako eta nola bizi elkarrekin). Hizkuntza bakoitzak posizio eta funtzio desberdinak okupatu ditzake hiru galderen eremu bakoitzean. Ingelesa ez da lehenengo nortasun-aukera, baina funtsezko aukera da komunikazio globaleko eremu batetarako sarbidea izateko bitarteko gisa (komunikazio globaleko eremu horretan ebatzen da geroz eta gehiago herrialde garatuak ekonomia). Euskararen eta gaztelaniaren kokapen soziala eta ingelesarena funtsean desberdina da. Bi hizkuntza horiek, funtsean, biztanleriaren zati garrantzitsu baten sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko moduen isla dira, eta, gainera, eguneroko komunikazio-funtzioa betetzen dute. Ikuspuntu nazionaletik, ezin da homogeneizazio soziala gauzatu identitate-leialtasun komun bat sortzen duen hizkuntza bakarraren bidez.

1995. eta 1999. urteen artean ez dago, datuen arabera, desberdintasun garrantzitsurik. (6. taula)

Mota orotako nortasun-atxikipenaren eta hizkuntza-aukeraren arteko harremana aztertuz gero, datuek ez dute orain arte esandakoa azpimarratu besterik egiten. Inkestatuak euskalduna/nafarra denarekin bakarrik lotzen diren inkestatuek lehentasunezko aukera orokortuz hartzen dute euskara. Hori bai; prozesua alderantzizkoa denean eta inkestatuek beste nortasun-aukerak lehenesten dituztenean, euskara hautatzen duen pertsona-kopurua askoz ere txikiagoa da. 6. taulako datuei jarraiki, euskal-nafar nortasunean bakarrik kokatzen diren horiek %87,8an euskara aukeratzen dute; zifra hori %12ra murrizten da Espainiarekin identifikatzen diren horiek kasuan. Hala ere, inkestatu askok tarteko espazio bat okupatzen duten atxikipenak azaltzen dituzte, eta, horietan, euskara lehentasunez aukeratzen dutenek garrantzitsu bat okupatzen dute.

Atxikipen kultural komunitarioen errealtate plural horrek soziologikoki komunikabideek euskal gaiari buruz egiten dituzten diskurtsoetan azaltzen dutena baino zentraltasun handiagoa duela adierazi dugu.

ERREALITATE SOZIAL BAT  
IZENDATZEKO MODUA

Gaia azaltzen asko zabaltzeko espaziorik ez badugu ere, datu batetara mugatuko gara: komunikazio-fluxu publikoen osakerako hiru egunkari garrantzitsuek errealitate sozial hori izendatzeko duten modu desberdina.

Ezin da azalpenik eman edukirik adierazi gabe eta gauzei "beren izenez" deituz. Ikuspuntu etiko eta demokratikotik askoz ere funtsezkoagoak diren kontuak alde batetara utziz, nola izendatu behar da aurreko taulatan aipatu ditugun datuak eskuratzeko egin ditugun inkesten xede den errealitate soziala? *Euskalerrria? Vasconia? Pueblo Vasco? País Vasco? País Vasco Navarro?, Vascongadas y Navarra? Euskadi? Euskadi y Navarra?, Comunidad Autónoma Vasca y Comunidad Foral de Navarra?...*

Espresio batzuk edo besteak lehenetasunez erabiltzearen bidez –eta horri dagokion bazterketaren bidez– agintari politikoei nahiz komunikabideek, horiek lurralde horietan bizi den jendearentzako desio duten etorkizun politikoari buruzko ideien arabera, espresio batzuk edo besteak hautatzen dituzte.

Froga gisa, nahikoa da jorratzen ari garen testuinguru horretako hiru egunkari garrantzitsuetako editorial-artikulu multzo zabal bat hartzea: DEIA, EL CORREO eta GARA.4

Argi dago editorial-idazle desberdinek guk penintsulako Baskonia izendatu dugun lurralde-edo gizarte-eremua izendatzeko Euskalerrria (edo Euskal Herria), Pueblo Vasco, País Vasco, Euskadi, País Vasco eta Navarra, Euskadi Sur, Euskalerrria Sur, Comunidad Autónoma Vasca eta Comunidad Foral de Navarra eta abar bezalako terminoak modu desberdinean erabiltzea autoreen posizio politikoak baldintzatzen du (kasu horretan, komunikabideetako arduradunen posizioak). (5. eta 7. taulak)

Bitarteko bakoitzean maiztasun erlatibo gehien duten bi aukerak kontuan hartzen baditugu, euskal errealitate sozialari buruzko zehaztapen ideologikoetatik at ez dauden desberdintasunak ageri dira. Guk hiru multzotan sailkatu ditugu:

- DEIAk lehenetasunez Euskadi erabiltzen du (%48), nahiz eta bi adiera desberdinetan erabiltzen duen:

- a) Pirinioen alde bietara dauden lurraldeek osatutako Euskal Herriaren adierazpide nazional gisa.
- b) Euskal Autonomia Erkidego gisa (%13), Euskalerrria edo Euskal Herriaren bultzatzaile ekonomiko, sozial eta kultural gisa hartzen duena.

5. Taula. Baskonia identifikatzeko lehenesten diren terminoak eguneroko prentsako editorial-artikulu sorta esanguratsu batetan						
	Editorial kopurua	Euskal Herria	Pueblo Vasco	País Vasco	Euskadi	C.A.V.
Deia	1614	81	116	114	778	218
El Correo	1282	62	42	416	483	37
El Diario Vasco	1073	34	19	213	305	40
Gara	1537	883	26	46	66	99
Abc	1094	45	89	539	55	10
El Mundo	1008	34	45	387	186	58
El País	761	51	21	288	254	6
La Razón	536	16	30	256	18	5
La Vanguardia	668	14	33	299	212	1
	9573					
	% Editorialak	Euskal Herria	Pueblo Vasco	País Vasco	Euskadi	C.A.V.
Deia	100	5,02	7,19	7,06	48,2	13,51
El Correo	100	4,84	3,28	32,45	37,68	2,89
El Diario Vasco	100	3,17	1,77	19,85	28,42	3,73
Gara	100	57,45	1,69	2,99	4,29	6,44
Abc	100	4,11	8,14	49,27	5,03	0,91
El Mundo	100	3,37	4,46	38,39	18,45	5,75
El País	100	6,7	2,76	37,84	33,38	0,79
La Razón	100	2,99	5,6	47,76	3,36	0,93
La Vanguardia	100	2,1	4,94	44,76	31,74	0,15



6. TAULA Didentitate-mota desberdinak eta euskara lehenengo hizkuntza gisa hautatzea		
	1. Aukera Euskara 95	1. Aukera Euskara 99
Euskal-nafar nortasuna	82,2	87,8
EAE/Naf sentimendua	61,9	60,0
Sentimendu nazionalista euskalduna	57,9	68,9
Nortasun euskal-nafarra gehiago	55,4	56,4
Herrikoa izatearen sentimendua	50,4	48,8
Europakoa izatearen sentimendua	38,5	35,0
Mundu osokoa izatearen sentimendua	38,0	33,3
Sentimendu nazionalista nafarra	27,3	14,4
Nortasun euskal-nafarra nahiz espainiarra	23,7	25,7
Nortasun espainiarra gehiago	20,9	17,6
Espainiar nortasuna	19,7	17,0
Sentimendu nazionalista espainiarra	16,7	14,0
Espainiakoa izatearen sentimendua	13,6	12,0

7. TAULA Baskonia identifikatzeko lehenesten diren terminoak eguneroko prentsako editorial-artikulu sorta esanguratsu batetan						
	Editorial Kopurua	Euskal Herria	Pueblo Vasco	País Vasco	Euskadi	C.A.V.
Deia	1614	81	116	114	778	218
El Correo	1282	62	42	416	483	37
Gara	1537	883	26	46	66	99
	%	%	%	%	%	%
Deia	100	5,02	7,19	7,06	48,2	13,51
El Correo	100	4,84	3,28	32,45	37,68	2,89
Gara	100	57,45	1,69	2,99	4,29	6,44

- GARA egunkaria da aztertutako epean bere ildo editorialean Euskal Herria (%57) terminoaren erabilera erlatibo handiagoa egiten duena. Hori bat dator argi eta garbi 90eko hamarraldiaren hasieran ENAMeko zuzendaritzak euskal alorreko kontraesan nagusia adierazteko moduari buruz gauzatutako birzehaztapen ideologikoekin: herria versus estatua, Berlingo harresia behera bota ondorengo nazioarteko testuinguru berrian.
- EL CORREOren lehenetasunak País Vasco eta Euskadi espresioak dira, orokorrean Euskadiko Autonomia Erkidego gisa ulertuta.

EL CORREO egunkariak, EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO izenetik eratortzen denak, bere ildo editorialean *pueblo vasco* (%3) hain gutxi erabiltzeak harritu egiten gaitu. Era berean, GARAK, ENAMen kidekoa den egunkariak, eta bere ideologoei esanda Euskadi ta Askatasuna gertaera sortzaile gisa duenak, euskal gizarteaz jarduteko Euskadi ia ez erabiltzea ere deigarria da.


Euskal errealitate sozial eta politikoa adierazteko modu desberdin horiek bere etorkizuna norabide desberdinetan orientatzeko borroka nabarmentzen dute. Eta komunak ez diren proiektu horietatik hiritarren komunikazio publikoa baldintzatzen duten egunkariak, bere borondatea kontuan hartu gabe, klima edo testuinguru sozialean duen eraginarekin, aldi berean inkomunikatu egiten duten komunikabide bilakatzen dira.

Bitarteko berriak dira, dudarik gabe, pluraltasun hori integratzea bideratzeko aukera. Baina aukera hori bitarteko horiez baliatzearen erabaki etikotik bakarrik existituko da. Bitartekoek, dudarik gabe, lokala globalarekin eta globala lokalarekin konbinatzeko aukera sumagaitzak eskaintzen dituzte, bereziki hasierako nahiz jarraikako trebakuntza-sareen bidezko integrazio komunitarioen prozesuetan.

• «NOLA BIZI ELKARREKIN» ETA KOMUNIKABIDE BERRIAK

Gizakiok geroz eta sistema, programa eta zerbitzu telematiko gehiago erabiltzen ditugu gure artean eta gure ingurune desberdinekin komunikatzeko. Horrek alor ekonomiko eta kulturalean eragina izateaz gain, gure existentzia indibidual eta kolektiboa osatzen duten harreman sozialak ere eragiten ditu. Ez da arraroa berrikuntza historiko horien garrantziari buruzko kontzientzia soziala, halaber, geroz eta handiagoa izatea.

# ERREALITATE BAT ETA LURRALDE-IRUDIAK IZENDATZEKO MODUAK



Goian eta behean: Errealitate bera izendatzeko erabili diren modu desberdinak adierazten dituen mapen xehetasunen hautaketa.  
 Erdian: Espazio-lurralde lotura eta integrazio kasuak adierazten ditu.  
 Erref. Graf.: Geografía de Euskal Herria. 8. alea. Ostoa argitaletxea.15-17 eta 83, 107, 85 orrialdeak.

## HISTORIA VERSUS LURRALDEA?

Gertaera sozialak komunikatzen diren subjektuen arteko harreman-gertaerak dira. Giza komunikazioa espazio eta denbora batetan gertatzen da. Espazioa eta denbora ordainzka subjektu sozialen existentzi zehatzean baldintzatzen badira ere, orokorrean –gutxienez gaur egun mendebaldean dagoen tradizio menderatzailean–, prozesu sozialak identifikatzerakoan, garrantzi handiagoa ematen zaio espaziori denborari baino. Horri dagokionez, ohikoagoa da *espazio sozialez* (espazio ekonomiko, kultural, politikoez) jardutea baino. Prozesu sozial zehatzak identifikatzeko “espaziori” “denboraren” aurretik ematen zaion lehentasunak, besteren aitean, ondoko faktoreak bultzatu dituzte:

- Espaziala egonkor bilakatu duten zenbait tradizio kulturalen pisua, denbora aldakorren denarekin identifikatu den bitartean (tempus fugit).
- Espazialki urrun zeuden pertsona eta taldeen artean denbora komun bat konpartitzeko zailtasunaren giza esperientzia; denbora komuna izan da espazio berekoak ziren horientzat bakarrik, edo espazio komun horren (etxea, auzoa, herria,...) tradizio edo herentziara atxikita jarraitzen zuten horientzat. Errazagoa zen –kulturalki– espazio berean errotutako arbaso eta ondorengoen arteko lotura kontinente desberdinetan bizi ziren garaikideen artekoa baino.
- Konpartitutako denbora batetan gertatzen diren gauzei buruz hitz egiteak identifikazio lokalaren bitartez bereizketa bilatzea erraztu dezake (leku hartan edu beste horretan gertatu da).
- Ekonomia tradizionalaren lurralde-muga (garraio eta komunikazio arazoak direla eta) soziala denaren eta eduki erlijioso, linguistiko edota ludikoa duten harreman sozialen hautemate espazial horren faktore determinatzaileetako bat izan daiteke baita ere. Testuinguru horretan ulertu behar da *“cuius regio eius religio”* adierazpena. Horrek aditzera ematen du espazio bat okupatzeak harreman sozialak, baita izaera erlijiosoa dutenak ere, kontrolatzea bermatzen duela. Gauza bera esan daiteke hizkuntzari buruz, hots, biztanleen harreman soziolinguistikoei buruz. Horrela, Nebrijak bere egingo luke: *cuius imperium, eius lingua*.

- Izaera ekonomiko nahiz kulturalako prozesu sozialen antolamendu politikoa –aginte edo botere egiturekin–, oro har, botere subirano bat lurraldearen gainean gauzatzean oinarritu da, eta, lurraldearen bidez, biztanleen ekoizpen, merkataritza, hizkuntza eta abarren harremanen gainean gauzatzean. Lurraldearen okupazioa, horrela, esku-hartze sozialera orientatutako politika ororen balizko estrategikoan bilakatu da. Espazioaren –lurraldearen– zaindariak lurralde horretako harreman sozialen edukien zaindariak ziren.

## TELEKOMUNIKAZIO BERRIAK ETA HORIEN ERAGINA ESPAZIOAN ETA DENBORAN

Telekomunikazioari eskeri subjektu historikoen (indibiduoak, familiak, herriak,...) komunikazio soziala saihesten eta oztopatzen zuten muga espazial batzuk gainditu ditzakegu, eta, horrekin, harreman sozialen eta elkarbizitzaren giza unibertsoa sakonki aldatzen ari da.

Espazioan (eta baita denboran ere) urrun dauden esperientzian arteko komunikazioa eguneratu ahal izatea, gaur egun arte

antolamendu libreraino). Telekomunikazioak dituen aukera ger oz eta anitzagoek errotik aldatu dezakete espazioaren okupazioaren eta espazio horretan bizi direnek beren denbora kultural eta ekonomikoki okupatzeko baldintzen arteko harremana. Komunikazioko baldintza berri horiek –interkomunikazioa eta inkomunikazioa–, beraz, pertsonen eta herrien garapen kultural eta ekonomikoaren baldintza politikoei buruzko eztabaida planteatzea aholkatzen dute, ez hainbeste lurralde –edo espazio-terminoetan, denbora– eta historia-terminoetan baizik. Ziu rrenik, lurralde batetarako eskubideari buruzko eztabaida, gauzatze historikorako denbora batetarako eskubideari buruzko eztabaidan, hots, eskubide historikoei buruzko eztabaidan bilakatuko da (egiteko modu bati jarraikortasuna emateko edo egiteko modu bat aldatzeko, askatasunetik etorkizuna eraikiz).

## LURRALDEA IRABAZTEKO ETA HISTORIA GALTZEKO ARRISKUA

Telekomunikazioaren aurrerapenean –espazio hain urrunetik esku-hartzea eta interferitza, nahiz denborak

Testuinguru horretan telekomunikazioak induzitutako prozesu sozial berriak identifikatzeko erronka onartu behar dugu, harreman sozialeko, indibidualizazioko eta sozializazioko, bakartasuneko eta konpainiazko, askatasuneko eta mendekotasuneko, komunikazioko eta inkomunikazioko, interkomunikazioko eta antikomunikazioko prozesu berriak aurkituz. Erronkek nahiz aukerek gizalegez kritikoa den egoera baten aurrean jartzen digute. Badakigu giza existentziaren baldintzak aldatzeko xedearekin potentzia itzeleko bitartekoak aplikatzen ari garela, gure ekintzatik eratorri daitezkeen eraginen jakitun izan gabe. Hans Jonas-ek aitortzen duen bezala, aktiboki gauzatutako eta konpartitutako erantzukizun pertsonalak bakarrik lagundu gaitzake bitarteko hain boteretsuen erabilera zitala saihesten. Bitarteko hain boteretsu horiek, zuhurki eta zintzoki erabilia, dudarik gabe, gure elkarbizitza ekonomikoa, kulturala eta politikoa askoz ere gehiago gizatiartzen lagunduko dute.

## ■ OHARRAK

<sup>1</sup> A. Einsteinek (1879-1955) ideia hori esaldi desberdinen bidez adierazi zuen: «Wir leben in einer Zeit vollkommener Mittel und verworrenen Ziele» edo «Perfektion der Mittel und Konfusion der Ziele kennzeichnen meiner Ansicht nach unsere Zeit» beste batzuen artean.

<sup>2</sup> Daniel Bell-ek “kapitalismoaren kontraesan kulturaleri” buruzko azterketan kapitalismoaren egungo gizarte aurreratuaren hiru ardatz axial bereizten ditu. Formulatu ditudan hiru galderak hiru ardatz horiei dagozkie, bakoitzak arazo desberdin bat planteatzen duelarik, erantzunak linealki batetik bestera eratorri ezin daitezkeelarik.

<sup>3</sup> Argudio horren garapen zabalagoa F. Garmendia eta X. Barandiaranen aurki daiteke: *Política y valores en Vasconia*, in: J. Elzo (zuzendaria) eta besteak: *Los valores de los vascos y navarros ante el nuevo milenio*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo 2002, 227-299 orrialdeak. Aipatzen dudana testuaren zati bat eta datuak hitzez hitz ateratu ditut artikulua horretatik.

<sup>4</sup> Ematen ditugun datuak 1995/1/1 eta 1999/9/14 artean ondoko egunkari hauetan argitaratutako editorial-artikuluen azterketan oinarritzen dira: DEIA, EL CORREO, EL DIARIO VASCO eta GARA (edo EUSKADI INFORMACION edo EGIN), ABC, EL MUNDO, EL PAIS, LA RAZON eta LA VANGUARDIA. Guzti horietan azaltzen da eusk..., vasc... edo aipatu ditugu lurralde historikoetako baten berariazko aipua.



KOMUNIKAZIO  
TELEMATIKOAREN TRESNA

harreman sozialak gidatu dituzten baldintzatan faktore asaldatzaile bat sartzearen baliokidea da. Denbora-unibertsuak globoaz haraindian dauden puntuetatik elikatu eta atzerailikatu daitezke (espazio-ontzietatik etab.). Horrekin, pertenezko espazialean oinarritutako integrazio –edo desintegratio– prozesuek, errotze–edo deserrotze–prozesuek eragin handiak jasango dituzte. Komunikazio telematikoez gizarre-harremanen antolamendu politikoen eragingo dituzten aldaketak oso sakonak izango dira. Subjektu sozial batek (indibiduala edo kolektiboa) bere borondatea –kultural eta ekonomikoki– libreki gauzatze baldintza politikoen eskaria nagusiki espazio eskaeran zehaztu da (etxearen bortxaezintasunetik hasita lurralde zabalago edo murriztagoaren

konpartitzea ahalbidetuz– funtsezko egi honen jakitunagoak egiteko balio izan digute: pertsona bati edo herri bati ez dio ezertarako balio munduko espazio guztia irabaztea, bere denbora historiko galtzen badu.


Pertsonen eta herrien arima errealitate historikoa da jaiotzen diren, hazten diren, bizitzen diren eta etorkizuna duten denboran. Giza hizkuntzen eta lengoaien bizitza soziala horiek erabiltzen edo berpizten (komunikaziorako baliabide gisa, existentziaren erreferentzia sinbolikoko unibertso estetiko eta poetiko gisa,...) dituzten pertsonen bizi-denborak baldintzatzen du. Erakundeek (ekonomikoez, erlijiosoez, politikoez,...) ere bizitza soziala dute, pertsonen eta herrien bizi-denbora baldintzatzen duten neurrian.







# ERROTATIBAREN AURRETIK



XIX. mendea

*Euskal kazetaritzaren historia laburra*

**EEUSKAL KAZETARITZA** 1789ko Iraultzaren ondotik frantziar baionetekin Europan zehar hedatutako ideia eta bizimoduaren ondorio da. Prentsako enpresa modernoak XIX. mendearen azken laurdenean jaio ziren.

## ■ EUSKAL PRENTSAREN HASTAPENAK

Euskal kazetaritza 1789ko Iraultzaren ondotik frantziar baionetekin Europan zehar hedatutako ideia eta bizimoduaren ondorio da. Aurreko mendeetan ezohiko gertakariak buruzko kronikak eta idazkiak argitaratu baziren ere, eta aldizka gaurkotasuneko argitalpenak – hala nola *Pedro de Ugarte* inprimatzaile donostiarraren *Noticias verdaderas del Norte*– ateratzen ziren arren, oro har onartuta dago penintsula aldeko Euskal Herrian kazetaritzaren generoa inbasio napoleondarrean zehar Bizkaia, Nafarroa eta Gasteizko gobernadorek ateratako aldizkari ofizialekin (*gacetas oficiales*) hasi zela. Aldizkari horiek, edukiz politiko eta informatiboak, aldizkakotasun finkoa zuten, baina iraupen ezberdina (1808 eta 1813 bitartean).

Frantsesek alde egitean, 1813. urtearen amaiera eta 1814. urtearen hasierako tartean, guztiz bertakoak ziren lehen aldizkariak sortuko dira.

Gipuzkoan, Vicente de Lardizábal doktoreak *Periódico de San Sebastián y Pasages* argitaratuko du, behin bakarrik inprimatuko zena, eta *Papeleta de Oyarzun* eta *Papeleta de Irún* ere argitaratu emango dira.

Arabian, aitzindaria *El correo de Vitoria* izan zen, eta Bizkaian, berriz, kazetaritza bilbotarraren sorrera astean bi aldiz argitaratzen zen *El Bascongado* «abertzaleak» markatuko du.



Nafarroan beranduago sartuko zen informazioaren ofizio berria, nahiz eta erresuma zaharrean, 1762an jada, *El Duende especulativo sobre la vida civil*, Iruñea eta Madrilan argitaratua, ateratu zen. 1810ean *Gazeta Oficial de la Navarra* napoleondarrak argitaratu emandako 37 aleen ondoren, hamarkada bat beranduago *El Patriota del Pirineo* eta *El Imparcial liberalak* aterako dira, Hirurteko Konstituzionaleko gobernuaren alde eginez.

## ■ ABSOLUTISTAK ETA LIBERALAK

Cádizko Gorteetatik (1810) Fernando VII.aren heriotza (1833) bitarteko aldian, liberalen eta absolutisten, erregimen konstituzionalistaren ideia ilustratuen eta Erregimen Zaharraren defentsaren arteko borroka gogorra biziko da. Gatazka hori prentsan islatuko da, Cádizko Konstituzioak ezarritako prentsa askatasunari esker.

Hirietan, mekataritza librearen aldeko burgesia berri baten gotorlekua, *El Liberal Guipuzcoano* bezalako egunkari garrantzitsuak argitaratuko dira. Aipatu egunkariak Espainia osoan barrena harpidedunak izango ditu, eta frantsesek edizio bat ere izango du («garai hartan, Espainian zen kazetaritza enpresa interesgarrietako bat», Díaz Noci irakaslearen esanetan).

Bien bitartean, absolutisten alorretik agintean dagoen liberalismoaren aurkako altxamendua –1823an emango dena– bultzatzen da, *La Verdad contra el error y desengaño* de

incautos medio. Horrakoa, erregezale nafarren talde batek ia klandestinitate baldintzetan sustatua, prentsa antiliberalaren aurrekari bitxia da.

Gerra hasita, 1833ko udazkenean, estatu nagusi karlistak, prentsaren eragite-ahalmenaz ohartuta, zenbait egunkari iragankor argitara eman zituen, hurrenez hurren: **Boletín del Ejército** – hasieran Frantziatik eta gero Nafarroatik –, **Gaceta Oficial** – Tolosan inprimatua –, **Gaceta de Oñate**, eta **Boletín de Navarra y Provincias Vascongadas**.

Erantzun moduan, alderdi liberalak Estatuaren propaganda ahalmena (*Aldizkari Ofizialak*) baliatu zuen, eta hainbat ekimen pribaturen laguntza ezin eskertukoa izan zuen, hala nola Donostiako **Correo del Norte**, Iruñeko **El Patriota del Pirineo**, edo **El Bilbaíno** egunkariena.

■ ALDERDI IDEOLOGIKO ETA MATERIALAK

1839ko abuztuko Bergarako Itunak, lehen karlistadari amaiera eman ziona, euskal eta nafar foruak nabarmen murriztu zituen. Auzi horri dagokionez, euskal liberalismoa moderatu eta aurrerakoien artean zatitu zen: lehenek erregimen tradizionala defendatzen zuten, eta bigarrenek, berriz, konstituzioaren ondoriozko berdintasuna.

Euskal Herrian 40 eta 50eko hamarkadetan sortu ziren aldizkari eta egunkarien norabidea foruen gaineko jarrerak markatuko du. Garaiko prentsa helduago eta iraunkorragoa da, aurreko gerran ikusitako panfleto tankerako gehiegikeriarik gabea, eta editore eta langileen jarduera bateratuari esker mantentzen da (nahiz eta, aldi hartan, egunkariak zuzendariak pertsonalki idazten zituen, gehienez ere erredaktore laguntzaile batekin).

Eredu horri lotuko zaio **El Observador Navarro**, 1842koa, eta haren segidako **La Opinión Nacional**, biak ere foruzaleak, Bilboko **El Vascongado** bezala. Azken hori Delmas familiarena zen, Bizkaiko prentsaren historian abizen sonatua.

Lehen karlistadaren ondorengo urteetan euskal prentsa asko haziko da, bai egunkari kopuruari bai horien hedapenari dagokienez. Hazkunde horretan zerikusi handia izango du paperaren merkatzeak, paper jarraituko lehen fabrikak ezartzearen ondorioz. Izan ere, egunkariak inprimatzen paper jarraituak harizkoa ordezkatu du.

Bestalde, egunkariak gero eta maiztasun handiagoz aterako dira. 1841ean jada Irungo **El Faro de los Pirineos** egunero argitara emango zen arren, berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkada arte ez dira «egunkariak», egunero



ateratzen zirenak alegia, bermatuko, garraio eta posta zerbitzu azkar eta erregularren ezarpenari esker. Eguneroko egunkari aitzindari gisa gogora ekar daitezke 1858ko **Villa de Bilbao** tradizionalista, eta 1865eko **El Progresista Navarro** liberala.

■ PRENTSA BURGESETIK DOKTRINALERA

Bizkaiko kapitalismo industrialak aurrera egin ahala, meatzaritza eta siderurgiarekin dibidenduak metatuz, klase menderatzaile berriarentzat Bilboko prentsak gero eta balio handiagoa izango zuen. Londres edo Parisen bezala, Bilboko prentsari portuko mugimenduen, banku-eragiketen edo trenbide berria egiteko lanen berri ematea egokitu zitzaion, hiriaren aurrerabideak eta burgesiaren bizimodua ahaztu gabe.


Hastapenetan zegoen kontsumo-gizartea ere komunikabide modernoetan islatu zen, horiek azken orrialdean publizitatea jartzeari ekin ziotelarik. Irakurle berri baten zerbitzura zegoen prentsa haren eredu garbia izan zen **Irurac-Bat**, **Juan Ernesto Delmas**ek zuzendutako egunkari liberal foruzalea, hedapen handikoa, 1856 eta 1885 bitartean Euskal Herriatik kanpora ere zabaldu zena. 1868an, iraultza batek Isabel II.aren erregealdi luzeari amaiera emango dio, eta Espainia nahaste eta desgobernu egoeran utziko du, prentsa ideologikoari eta satirari bazka oparoa eskainiz. Alabaina, 1872an II. Karlistada hasten denean, bi Espainien, bi Euskal Herrien arteko liskar doktrinal zaharrak gogotik indarberrituko dira: batetik, Erregegaiaren gorroteak Lizarran argitaratutako **El Cuartel Real** bezalako egunkari karlistak; bestetik, Iruñeko (**Hoja Volante**), Bilboko (**La Guerra**, **El Noticiero Bilbaíno**) edo Donostiako (**Diario de San Sebastián**) egunkari liberalak.

■ FORALISMO ISILARAZIA

Karlismoak ostera porrot egingo du, eta hondoratzean foralismoaren azken hondarrak berekin eramango ditu. 1876. urtean gaude. Prentsan Cánovas del Castillok ezarritako «batasun konstituzional» gogorraen aurkako ahotsak entzuten dira. Ahots horiek are eta itzal handiagoa zuten, karlismoaren aurkako borrokan nabarmendutako pertsonenak izaki. Agintarien presioa, ordea, igarri egingo da, komunikabide foruzaleen aurkako zigor eta galarazpen moduan.

Kontrol horri ihes egiteko, intelektualen multzo zabal batek **La Paz** arratsaldeko egunkaria





Egunkari garrantzitsua **El Anunciador Vitoriano** zen, «liberala azpiegitura aldetik (hedapena eta ekoizpen industrialaren aldeko jarrera) eta kontserbadorea gainegitura aldetik (batik bat erlijioari eta tradizioari dagokienez)», Nicolás Xamardok egunkari horri buruzko bere ikerlanean dioenez. Fondo eta formaren arteko harmonia handiagoa ageri zuen **La Libertad** arratsaldeko egunkari liberal-foruzaleak, egunkaria egiten eta hedatzen irizpide modernoak ezarri zituen aurreneko egunkari arabarra, zeinari buruz geroagoko atal batean arituko baikara.

Azkenik, 1885az geroztik gipuzkoarrek egunkari errepublikazale moderatu bat izan zuten, **La Voz de Guipúzcoa**, bere joera berritzailean «El Noti»ren kidekoa. Errotatiban inprimatu zuen (1920an, Echevarría familiak

baino 24 urte beranduago) eta eskelak argitaratu zituen lehenengo egunkari gipuzkoarra izan zen.

«Dios, Patria, Rey» goiburuean, **El Fuerista** katolikoa produktu berritzaile bat bezala nabarmentzen da mende amaierako kazetaritzan, bere alderdi tekniko eta formalengatik.

#### ■ PRENTSA POLITIKOA

Prentsaren aniztasuna gizarteko indar-harremanen isla baino ez da. Horrakoa gizarte demokratikoetan funtsezko printzipio bat da, inon aplika daitekeena. 1883an Prentsaren lege berria promulgatu zen, hauteskundeetan lehiatzen ziren alderdi guztiek adierazpen-organoak izateko aukera zabaldu zuena. Ondorioz, egunkari berri mordo batek merkatua gainzkatu zuen, egunkari bakoitzak bere babesle

politikoa zuelarik: karlistak, integristak, errepublikarrak, sozialistak, monarkikoak, liberalak, foralistak, nazionalistak...

Garai hartako egunkarien nahas-mahasetik **La Lucha de Clases** gailentzen da, «Espainian izan den zahar, iraunkor, serio eta borrokazaleena» bezala definitua, **El Socialista** dekanoaeren atzetik. *La Lucha de Clases* egunkarian hasi zen, paketeak egiten, Indalecio Prieto izeneko mutil bat, eta orrialde haietan idatzi zuten Tomas Meabek, Miguel de Unamunok, Pablo Iglesiasek...



Nazionalismoa ere lotu zitzaion prentsa politikoaren mugimendu horri, hainbat astekari, kultur aldizkari bat eta lehen egunkari nazionalista, **El Correo Vasco**, argitaratuz. Egunkaria Sabino eta Luis Arana Goiri anaiek sortu zuten, 1899ko ekainaren 4an, ideia *bizkaitarrak* sustatzeko. 103

zenbaki baino ez zituen argitara eman.

#### ■ PRENTSA KONFESIONALA

Mende amaierako krisi betean, prentsa nazionalista eta sozialistaren nahiz errepublikar erradikalaren agerpenak alderdi kontserbadoreenak erne jarri zituzten. Eliztarrei pulpituetatik komunikabide jakin batzuen irakurketa galaraztea eta horien zuzendariak elizaren aurkako ideiak sustatzeagatik eskumikatzea nahikoa ez zindiularik, 1898an Asociación de la «Buena Prensa» (Prentsa Onaren Elkarte) sortu zen Sevillan, egunkari katolikoaren sorrera bultzatzeko. Bi hamarkada geroago, hiriburu guztiek egunkari konfesional bat zuten. Euskal Herria ez zen salbuespena izan. Baina hori beste historia baten zati da: XX. mendeko kazetaritzaren historiarena.

# EUSKAL KAZETARITZAREN ALDI GORENA



1900-1936

**XX. MENDEAREN HASIERAN**, Euskal Herriko biztanleriaren %60 inguruk ez zuen egunkari bat irakurtzeko adinako heziketa maila. Hala ere, ideologiak gero eta pisu handiagoa zuen gizarte batean, komunikabide publiko bakarra idatzizko argitalpenak ziren. Izan ere, gizartea pixkanaka jabetzen joan zen, telefonoa eta telegrafoa medio, eta garraioen arintasun handiagoaz, gertaerek espazioan eta denboran zuten elkarloturaz eta horiek eguneroko bizitzan duten oihartzumaz.

**GERRA ZIBILA BAINO LEHENAGO ERE** baziren Euskal Herrian egitura kapitalista sendo batean oinarritutako egunkariak.

## ■ TESTUINGURU SOZIOPOLITIKOA

1898an azken koloniak galdu ostean, Espainia krisi sozial eta politiko sakon batean murgilduta geratuko da. Errestaurazioaren eredu, alderdi liberalaren eta kontserbadorearen arteko txandakatzean oinarritua, ahitu egingo da, eraberritze mugimenduak sortuko dira, nazionalismo periferikoak indartuko dira, eta ezkerreko alternatiba apurtzaileak suspertuko dira, errepublikanismoak bezala.

Gertatzen ari zen gizarte bilakaera, mende berriarekin politikan garbiri islatuko direnak, euskal herrialdeetan ere nabarituiko da, eskuin dinastikoen (kontserbadoreak eta liberalak) nagusitasunak –Gipuzkoa eta Arabako integrisismoa eta Nafarroako karlismoaren aurkartzak orekatu– egonkortasun erlatiboa ekarri arren.

Euskal sozialismoa, 1886an Bilboko taldea sortu zenetik ahuleziak jota, indarrak bilduz joango da, batik bat Bizkaian eta Gipuzkoako lantegi guneetan, eta 1918an Gortetara lehen diputatua bidali ahal izango du, kazetari bat hain zuzen: Indalecio Prieto.

Urte horretan nazionalistek hauteskundeetan abantzu handia egingo dute, lehen ziren 20 aulkietatik 7 lortuz eta, horrenbestez, lehenengo aldiz euskal politikaren ardatz bilakatuz.



Hauteskundeetako emaitzak islatuz, garai hartako euskal prentsa gehienbat eskuinekoa eta katolikoa izango da (nazionalista, monarkiko alfonsotarra, integrista edo karlista), ezkerreko komunikabide gutxi, baina ez bazterreko, batzuk ezik. Beste behin, erroratibek gizartearen erritmopean bira egingo dute.

## ■ ALDI GOGOANGARRIA

XX. mendean hasieran, Euskal Herriko biztanleriaren %60 inguruk ez zuen egunkari bat irakurtzeko adinako heziketa maila. Hala ere, ideologiak gero eta pisu handiagoa zuen gizarte batean, komunikabide publiko bakarra idatzizko argitalpenak ziren. Izan ere, gizartea pixkanaka jabetzen joan zen, telefonoa eta telegrafoa medio, eta garraioen arintasun handiagoaz, gertaerek espazioan eta denboran zuten elkarloturaz eta horiek eguneroko bizitzan duten oihartzunaz.

**Politikak eta kazetaritzak** bikote biribila osatzen zuten. Prentsak iritzieta eragiteko zuen ahalmenagatik, egunkariak uneoro bultzatu edo jazarriak izan ziren, botereerikiko edo, hobeki esanda, botereerikiko, zuten jarreraren arabera.

Gobernu ezberdinek adierazpen-askatasuna murrizteko erabili zituzten bide guztiekin (*elizako zentsura* mende hasieran, *aldez aurreko zentsura* Primo de Riveraren diktaduran, eta Errepublikaren Defentsarako Legea ezarri ondoko *galarazpenak*

30eko hamarkadan), euskal egunkariak –batzuek eskuinak eta besteek ezkerak defendatzeagatik– iritzi librea adierazteko orotariko oztopo eta eragozpenak jasan zituzten.

Hala ere, euskal kazetaritzak ez zuen sekula, ez aurretik ez ondoren, tamainako bizitasunik ezagutuko. Bilboko erredakzioetan batik bat, baina baita gainerako euskal hiriburuetakoetan ere, gaztelarazko kazetaritzaren historian kapitulu aparta, epikoa, idatzi zuten eta euskarazko informazio estiloaren oinarriak ezarri zituzten profesional handiak aritu ziren.

Izan ere, XX. mendean lehenengo hiru hamarkadetan, herri hau kazetari bikain eta idazle zolien haztegi izan zen. Paregabeko belaunaldi bat izan zen, arrazoizko politikoa medio sarritan egunkarietan liskarrean aritzen zena, baina ia beti, erredakzioetako eta kafetegietako tertulietako lagun-giroan, kazetaritzarekiko grinak lotzen zuena. Hiru hamarkada horietan, egunkariak iritzi publikoan eragin handia izan zuten, eta profesionalak egunero forma aldetik kazetaritza modernoa, ekonomikoki lehiakorra eta politikoki zorrotza egiten ahalegintzen ziren. Hitz batean, aldi gogoangarria izan zen hura.

#### ■ INFORMAZIOAREN ETA HAUSNARKETAREN ARTEAN

Aurreko orrialdeetan ikusi dugunez, Gerra Zibiletik jada baziren Euskal Herrian egitura kapitalista sendo batean oinarritutako egunkariak. Askotan, argitaletxeak partzuergoetan elkarturik zeuden, eta paper-industrian akzioak zituzten.

José M<sup>a</sup> Salaverria 98ko belaunaldiko kazetari ospetsuak bizirik zegoela argitaratu zuen azkenekotako artikulu baten izenburua *El arte del artículo* izan zen, eta han bere esperientzia kontatzen zuen: «1900 inguruan, egunkariak, alderdi politiko baten edo pertsona itzaltsu baten zerbitzura egon ordez, euren baliabideekin bizitzen eta enpresa industrialak bilakatzen hasi ziren, idazlearen lana dirutan ordaindu ahal zutenak. Garai hartan saiogile eta artikulugile libre handiak hezi ziren, zeintzuk Primo de Rivera jeneralaren Diktaduran goitena iritsi baitziren».

#### BALIABIDE TEKNIKOAK

Kanpotik begira, egunkariaren erredakzioa aldatuz joan zen, pixkanaka baina ezinbestean. Aurreko mendeko tailer zaharrak, erdi artisauek artean, nostalgieraren mende geratu ziren, eta orduko teknologiak eskaintzen zituen makineria berriak sartu ziren



(tirada handieneko egunkariak errotatibak zituzten, gero etorriko ziren linotipiak, telefonoak, posta zerbitzuak, fotografia erreproduzitzeko sistemak; 1909an, *La Gaceta del Norte* egunkariak lehen orrialdean fotograbatua sartu zuen, egunkarietako argazkiek I. Mundu Gerra bukatu ondorenean lortuko zuten arren nolabaiteko kalitatea). Horrenbestez, erredakzio eta inprimategiak lantegi itxura hartzen joan ziren, non afanean aritzen baitziren ofizial, idazle, argazkilari eta indigile proletarioak, boroika sindikalen abangoardian beti tipografoak zeudelarik.

#### EDUKIAK

Edukiari dagokionez, XX. mendeko egunkariak aurreko mendekoan estilo hanpatua baztertu zuten, eta informazioa zein erreportajeak lehenetsi zituzten, gertueneko gertakariak arreta eskainiz, kaleko zarata bilduz eta inguruko hiri nagusietako berriemaileek telefonoz bidalitako kronikak jasoz.

Alabaina, joera horren aurkariak ere baziren. Adibidez, Miguel de Unamunok «hutsala» irizten zion, eta sakontasun nahiz pentsamendu gehiagoko prentsa bat amesten zuen. *Nieblaren* egilea ez zen bakarra: 1913an, lehen alean, *Euzkadi* egunkari nazionalista irakurleen aurrean aurkeztu zen garaiko informazio deitoratuz, argudiatuz bereak «helburu jasoagoa zuela, berri-emate hutsala baino askoz prestantiagoa».

#### ■ BIZKAIAN

II. Errepublikan arte, Bilbo espainiar kazetaritzaren hiriburua izan zen. Hiriaren gizarte eta kultur bizitasunak, garapen ekonomiko handiarekin batera, Bilbo arrago bihurtu zuten, non galdatu baitzen gaztelarazko nahiz euskarazko kazetariaren belaunaldi aski garrantzitsu bat.

1900. urtean, Bilbon sei egunkari argitaratzen ziren: irakurriena, aurretik aipatu *El Noticiero Bilbaíno*, haren arerio *El Cuartel Real*, karlista, 1910 baino lehenago desagertuko zena; *La Voz de Vizcaya*, 1880an sortu eta 1902an desagertua; errepublikarren bozeramailea *El Norte* zen.

Arratsalde partean, kaleak lanaldia bukatutako enplegatu eta langileez betetzen zirenean, bi egunkari monarkiko saltzen ziren: *El Nervión* eta *El Porvenir Vasco*.

Egoera nabarmen aldatuko da 1901ean *El Liberal*, «Bilboko lehen egunkari handia» eta, segidan, *La Gaceta del Norte* sortzean. Horiek izango ziren, 1936 arte, hiriko bi egunkari nagusiak.

● EL LIBERAL ETA LA GACETA DEL NORTE

«Prensa bilbotarrak *El Liberal* ezer zor badio, lozorrotik esnatzea eta dialektika zorroztea izan zen, horrek eman ziolarik hiriarri Espainiako kazetaritza-girorik interesgarriena», dio Alfonso Carlos Saiz Valdivielsok. *El Liberal* Madrilgo «trust» batek sortu zuen, ordurako Estatu osoan barrena zenbait egunkari zituen, denak ere joera demokratiko eta erregezelekoak. Bere ibilbidean, alabaina, errepublika aldera lerratu zen, eta Indalecio Prietok erosi zuenean, 1923an, sozialista bihurtu zen, eta Pablo Iglesiasek sortutako alderdia Bizkaiko Aldundian sartzean eragin handia izan zuen. *El Liberal* egunero 8.000-10.000 ale saltzen zituen, eta grebako egun gatazkatsuetan bi halako.

*El Liberal*en sorrerak Bizkaiko sektore kontserbadoreen etan kezka piztu zuen. Loiolako jesulagunen gomendioz, burgesia katolikoaren zenbait gizon itzaltsuk, José M<sup>a</sup> Urquijo eta Luis Lezama Leguizamón buru zituztela, *La Gaceta del Norte* sortu zuten hilabete batzuk gerago, 1901eko urrian.

*La Gaceta*, bizialdi luze baten ondoren laurogeiko hamarkadan modu penagarrian zendua, «Prensa Ona» delakoaren printzipioetan oinarrituta jaio zen. Vatikanoren doktrina jarraituz, politikaren alorrean eskuineko indar guztien batasuna bultzatu zuen, ezkerriari eusteko, eta joera euskaltzalea agertu zuen. Komunikabide berria zuzentzeko, talentu handiko Irungo kazetari gazte bat izendatu zuten: Aureliano López Becerra, prentsaren historian «Desperdicios» ezizenaz sartua.

● EL PUEBLO VASCO

Antonio Mauraren gobernuaren politika erregenerazionista defendatzeko, 1909an Alderdi Kontserbadorea sortu zen Bilbon. Alderdiaren buru Fernando de Ybarra jarri zen, bi urte lehenagotik Gorte orokorretan Bizkaiko ordezkari zena. Ybarratarrek uste zuten iritziak hedatzeko euskarri bat behar zutela, beren ekimen politikoekin aurrera egiteko; hots, egunkari bat.

Donostiako *El Pueblo Vasco* hautatu zuten, Rafael Picaveak hain egoki editatua, ezen 1903az geroztik katoliko tradizionalistek eta kontserbadoreek hauteskunderatan bat egin zezaten aurrerabide handiak egin baitzuten. Hortaz, Ybarra anaiek Picaveari Bilboko *El Pueblo Vasco* editatzeko eskubideak erosi zitzioten, eta zuzendaria fitxatu zuten, Juan de la Cruz Elizondo, López Becerra bezala irundarra eta kazetari handia. Ybarratarren



egunkaria Bilborentzat gauza handia izan zen, egunero Eugenio d'Ors, Ramiro de Maeztu edo Azorinen eskuz idatzitako orriak iristen eta argitaratzeko ziren, *El Pueblo Vasco* beste artikulugileekin batera, hala nola José M<sup>a</sup> Salaverría, Mourlane Michelena eta Lyon d'Or kafetegiko –letra espainiarretan mito bihurtua– zenbait solaskide. Gaur egun, *El Pueblo Vasco* Bizkaiko egunkari zaharrena da, Gerra Zibiletik eta *El Correo Español* falangistarekiko fusiotik bizirik irten ondoren. Hurrengo orrietan gai honi buruz arituko gara.

● EUZKADI ETA PRENTSA NAZIONALISTA

1899ko *El Correo Vasco* iragankorraren ondoren, prentsa nazionalistak ugo gorra bizi izan zituen, ideia arnastak hedatzeko komunikabide bat bermatu nahi eta ezinean. Paradoxikoki, **Euzkadi** azkenik Bilbon tirada handienetakoa zuen egunkaria bihurtu zenean, Engracio de Aranzadi «Kiskitza»k zuzendutako argitalpenak aberrikoen kritika gordinak jaso zituen, sektore honek ez baitzuen gogo onez ikusten *Comunión Nacionalistaren* –mugimenduaren alderdi moderatu eta posibilista– ideien aldeko egunkari bat.

*Euzkadi*ko irakurleen idazle maiteenetako bat «Imanol» zen, Manuel Aznar Zubigarayren ezizena. Kazetari nafarra nazionalismo sutsuenetik kastizismo zaharkituenera pasa zen, eta erregimen frankistaren arrimuan amaitu zuen, zeinak idazle eta diplomatiko gisa gailurrera eramane baitzuen (azterlan honen azken kapituluan «Imanol»en bizitza eta ibilbidea jasoko dira). Haren biloba José María Aznar Espainiako gobernuko presidente izan zen XX. mendearan amaieran eta XXI.aren hasieran.

Nazionalismoak, halaber, **La Tarde** arratsaldeko egunkaria bereganatu zuen. 1914an sortu zen, «Diario independiente» bezala, baina 1927az geroztik *Euzkadi*ren argitaletxe Euzko-Pizkundiak hartu zuten, Javier Gortázar editorearen bidez Euskal Herriko lehenengo kirol-egunkaria ere sortu zuena: *Excelsior*. Jacinto Miquelarena kazetari bizkaitararen zuzendaritzapean, egunero 20.000 ale saltzen zituen. 1931. urtean, nazionalismoaren baitako liskar gogorrek egunkariaren jabegoa alda zedin ekarri zuten, eta *Excelsior* izenaz jarraitu zuen.

■ GIPUZKOAN

Euskal kazetaritzan, XIX. mendearan amaiera arte Gipuzkoan izan zen herrialderik aktiboena, bi produkzio-gune zituelarik:



Donostia eta Irun. Mugako hirian joera eta korronte orotako astekariak (El Bidasoa kasu, 1880 eta 1963 bitartean aldizka argitaratua) eta egunkariak argitaratzen ziren, eta erredekzioetan idazle bikainak bildu ziren: Aureliano López Becerra «Desperdicios», Juan de la Cruz Elizondo edo Mourlane Michelena, «el cisne del Bidasoa».

● EL PUEBLO VASCO

Kontxako badiaren inguruan, laurogeiko hamarkadaz geroztik prentsaren alorrean La Voz de Guipúzcoa egunkaria zen nagusi. Irakurle gehien izanik ere, ez zen El Pueblo Vasco -Ybarra anaiak Bilboko egunkari homonimoa sortzeko erdutzat hartu zutena- bezain eragin politikoa handikoa, eta ezta profesionalki hura bezain itzaltsua ere. Alfonso C. Saiz Valdivielsok begi onez «joeraz eskuinekoa, erredekzioan ezkerrekoa» definitutako egunkariaren historian Picavea y Leguía editorea eta Juan de la Cruz Elizondo eta Felipe Urcola lehen bi zuzendariak sartu dira.

Agidanez, Madrilgo tertulietan El Pueblo Vasco irakurri eta eskatu ohi zen (izan ere, egunkariko idazle ziren Azorín, Maeztu, Baroja edo Grandmontagne), eta kazetaritza ziharduten euskal idazleen gogokoena zen.

● BESTE EGUNKARIAK

La Voz de Guipúzcoa eta El Pueblo Vascoren inguruan beste egunkari txiki asko zebiltzan, denak ere ideologiaz eskuinekoak eta errentagarritasun urrikoak: 1897 eta 1936 bitartean galerak pilatuz joan zen La Constanzia integrista-foruzalea; El Correo de Guipúzcoa, tradizionalista (1898-1911), eta haren ondorengo El Correo del Norte (1912-1916), edo Gipuzkoako lehenengo arratsaldeko egunkaria, Crónica (1910-1915).

Euzkadi Gipuzkoan izan zuten oihartzun apala kontuan izanik, 1930ean El Día sortu zen, «joera erlijioso eta euskaltzaleko» egunkari nazionalista, «irizpide katoliko zuzen eta hertsia batek eta sentimendu zintzo eta leialki euskaltzale batek» gidatua. Egunkari interesgarri haren lumarik zoliena José Ariztimuño «Aitzol» apaizarena zen, Gerra Zibilean fusilatua gertatuko zena. Azkenik, 1934an El Diario Vasco jaio zen, gaur egun Gipuzkoako prentsako egunkari zaharrena, zeinari buruz egungo kazetaritza buruzko kapituluari arituko baikara.

■ ARABAN

Arabian 1887an argitaratzen ziren hamaika egunkarietatik hiru bakarrik heldu ziren mende berrira. Baliteke prentsak herrialde horretan eragin ahalmena galdu



izanaren arrazoiak izatea, hein batean bederen, XIX. mendean amaierako krisi politiko etengabeak eta desengainua.

1900 eta 1936 bitartean, arratsaldeko bi egunkarien arteko aurkiritza zen nagusi, El Heraldo Alavés / El Pensamiento Alavés eskuindarraren eta La Libertad liberalaren arteko alegia. Mende hasierako prentsaren bereizgarri ziren gatazka horietakoa izan zen, grinsatsua eta bortitza, kazetaritza haratago zihoana.

● LA LIBERTAD

«Liberala eta foruzalea». 1890az geroztik, La Libertad «herriaren interes sakratuak babestera» irten zen, eta Espainia zein Euskal Herriko arazoak konpontzeko itenbide demokratikoak sustatu zituen, fouzaletasun integratzaile batetik. Gasteizen aurrerabide materialaren defendatzailea, La Libertadk Elizarekiko begirunea erakutsi zuen, baina haren gehiegikerien aurrean kritikoki agertu zen, eta komunikabide errepublikar suharra izaten amaitu zuen, iraganeko Primo de Riveraren populismoaren, Lerrouxen erradikalismoaren edo Canalejasen liberalismoaren aldeko jarrerak alde batera utzita.

El Pensamiento Alavés aierioak bezala, egunkariak koherentzia «noren aurka borrokatzen zen, eta ez noren alde zegoen» erakutsita lortzen zuen (Antonio Rivera adituaren hitzetan).

Bi egunkariaren eragina parekoa zen. Egutero 3.000 ale inguru saltzen zituzten, baina La Libertadko irakurleak gehienbat hiritarrek ziren, eta El Heraldo/El Pensamiento, berriz, Araba landatarreko bizilagunen artean harrera hobea zuen.

● EL HERALDO ALAVÉS / EL PENSAMIENTO ALAVÉS

Arabako eskuinaren bozeramailea 1901ean sortu zen, El Alavés karlistaren oinordeko zuzen gisa, baina planteamendu moderno eta erakargarriagoaz. «Katoliko independente» etiketaz, Arabako eskuin osoa biltzea lortu zuen: karlista, nazionalista eta kontserbadorea.

Egunkaria José Luis Oriolek erosi zuen, eta 1932az geroztik, El Pensamiento Alavés izen berriaz, Oriolen alderdiaren -La Hermandad Alavesa- zerbitzura zegoen egunkari tradizionalista zaratatsu batean bihurtu zen. Nazionalistek, aurreko etapari erredekzioan ugariak, egunkaria utzi zuten, eta 1933tik aurrera Euzkadi bilbotarraren herrialde mailako edizio bat bultzatu zuten (Euzkadi en Araba), emaitza bikainak lortuz. Beraz, Heraldo zaharretik Pensamiento berrirako aldaketan, egunkariak bere ondasun nagusia galdu zuen:





Arabako eskuin guztien atxikimendua. Errrepublikak *El Pensamiento* aldi baterako geldiarazi zuen, haren gehiegikeriengatik, baina Araban Oriolen egunkariak bakarrik biziraun zuten Gerra Zibilari. 1967an birsortu zen, *Norte Express* bezala.

■ NAFARROAN

XIX. mendeko azken laurdenean, Nafarroako prentsaren merkatuan *El Eco de Navarra* nagusitu zen. Egunkari antizarlista eta moderatua, Alderdi Kontserbadorearen inguruko jarretatik liberalismo doktrinal apal baina, paradoxikoki, molde zaharretan ainguratu batera

(hainbestearino, ezen salneurria errealetan jartzen baitzuen) lerratuz joan zen. Eskuinera, integristek *La Tradición Navarra* argitaratzen zuten (1894tik 1932ra), «egunkari katoliko-politiko», zeinak karlismoari, eta batik bat haren bozeramaile *El Pensamiento Navarro* egunkariari, garbitasun doktrinalik eza leporatzen baitzion.

Egoera zurrin samar hartan, *Diario de Navarra* egunkariaren agerpenak, 1903an, giroa freskatu eta berritzeaz gain, irakurleen banaketa nabarmen aldatu zuen: lehenengo urtean, *Diario de Navarra* 2.000 ale saltzen zituen, *El Eco*k 3.000, *El Pensamiento Navarrok* 1.800 eta *La Tradición*ek

mila ale eskas. 1913an, *Diario de Navarra* *El Eco* xurgatuko du, gaurdaino sendo mantendu duen nagusigoari hasiera emanez. «Garcilaso»k zuzendutako egunkariak, jarrera liberal-kontserbadoreetatik eta maurismoarekin bat eginik, Nafarroan langile mugimenduaren hazkundera eta ideia sozialisten hedapena geldiaraztea zuen xede. 1918an nazionalismoari uko egin ondoren, Zapateria kaleko egunkaria erradikalizatu egingo da, jarrera antieuskaldun eta nabarristak, eskuin mesianikoaren parekoak, agertuz. II. Errepublikan, *Diario de Navarra* eta *El Pensamiento* egunkariak Errepublikaren Defentsarako Legearen eztenkadak pairatuko

dituzte, galarazpenak jasanez. 1936ko uztailean, biek ala biek bozkarioz hartuko dute Mola jeneralaren altxamendua. Izan ere, bi egunkariak, ideologikoki eta materialki, altxamendua bultzatu zuten. Mende hasierako Nafarroako prentsaren gainbegiratu azkar hau osatugabea litzateke prentsa liberal bat bermatzeko ahaleginak aipatuko ez bagenitu. Aldi hartako egunkari garrantzitsuen 1904ko *El Demócrata Navarra* izan zen, duina eta enpresako jarraibideez eratua, baina bizialdi laburrekoa. Berebat, 1923an nazionalistek *La Voz de Navarra* sortu zuten, 1936ko uztailean Falangeak espoliatua. 1900-1936 Apogeo del periodismo vasco.



# PRENTSARENTZAT MOZALA



1936-1976

**GERRA HASTEAN**, 1936ko udaran, mende oso batez kostata ezartzea lortutako informazio-aniztasuna erabat galduko da. Euskal kazetaritzaren egin du: arrakastatik tragediara igarotzen da. Diktaduraren 40 urteetan, egunkariak bi prentsa-legeren mozalpean bizi ziren. Zentsurak isiltasun politiko, sozial eta, zenbaitetan, baita kulturala ere, ezarri zuen, eta, ondorioz, egunkari guztiek gauza bera gutxi gora behera modu berean kontatzen zuten.

## ■ GERRAREN ONDORENAK

Gerra hastean, 1936ko udaran, mende oso batez kostata ezartzea lortutako informazio-aniztasuna erabat galduko da. Euskal kazetaritzaren egin du: arrakastatik tragediara igarotzen da (Alfonso C. Saiz Valdiviolsoren azterlan bikainaren izenburuak definitu bezala).

1936ko uztailaren 17an, Marokoko indar armatua Err epublikako gobernuaren aurka matxinatu zen. Hurrengo egunean, Nafarroako gobernadore Mola jeneralak probintzian gerra egoera deklaratu zuen, eta ordu gutxitan boterearen baliabide guztiak bereganatu zituen, komunikabideak barne, jakina. Altxamenduak arrakasta duen Espainiako probintzi guztietan, falangistek ezkerreko, nazionalista edo errepublikarrak ziren egunkarietako errotatibak konfiskatuko dituzte, eta kideko propaganda-argazkiak jarriko dituzte. Lehena Iruñeko **Arriba España** izango da, 1936ko abuztuaren 1ean, *La Voz de Navarra* nazionalista usurpatu ondoren.

Aldi berean, kolpeak porrot egin zuen lekuetan, Errepublikaren aldeko indarrek eskuineko komunikabideak itxi eta haiek alderdiko egunkariekin ordezkatu zituzten.

**Donostian**, *La Constanza* eta *El Diario Vasco* galaraziak izan ziren, eta bigarrenaren tailerretan **Frente Popular** inprimatu zen, nazionalak

hartu zuten arte hirian argitaratutako egunkari bakarra. Nazionalak, era berean, *El Día*, *La Prensa*, *La Voz de Guipúzcoa* eta

*Guipúzcoa Obren* egunkariaren instalazioak hartu zituzten, eta 1936ko irailaren 16tik aurrera arratsaldeko **Unidad** egunkaria eta

goizeko **La Voz de España**, tradizionalista, atera zituzten. **Bilbon**, uztailaren 18an berean, *El Pueblo Vasco* ondasun, akzio eta eskubideez gabatu zuten, altxamenduaren prestakuntzan parte hartzea leporatzen zitzaizolarik. *La Gaceta del Norte* eta *El Nervión* ere agintari errepublikarren esku geldituko dira, eta horiek kideko alderdi eta sindikatuen zerbitzura jarriko dituzte. Erregimen frankista ezartzean, 1937aren erdialdean, Bilbok zortzi egunkari galduak ditu jada, horietako batzuk aski ospetsuak, *Noticiero Bilbaino* historikoa edo Indalecio Prietoren *El Liberal* kasu. *El Pueblo Vasco* eta *La Gaceta del Norte* berrargitaratuko dira, garbiketa eta neurri zorrotzak jasan ondoren, eta bi egunkari berri aterako dira, Falangearen ospe eta zorionerako: **El Correo Español**, eta **Hierro** arratsaldeko egunkaria, *Euzkadi* eta *El Liberal* zendutako tailerretan inprimatuak.

**Araban**, matxinatuek *La Libertad* konfiskatu zuten, bizialdi laburreko (1937ko urtariletik 1940ko urrira) Norte «Egunkari Nazional-Sindikalistaren» mesedetan.

## ● PRENTSAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN MENDEAN

Gerra aurreko euskal egunkari gehienak bata eta bestearen intolerantziak «erailda» zendu ziren; beste batzuk, nekatu eta akituak, katastrofeak garaitu



zituen, ez baitzuten ostera altxatzerik lortu. Alde batean zein bestean, gerrak iraun zuen hiru urteetan kazetarien jazarpena eta fusilamendua obsesio tragiko bat izan zen. Borreroaren begietan egunkari baten amaierak edo kazetari baten heriotzak haien ideien amaiera sinbolizatuko balu bezala.

1938ko apirilean, erregimen garaileak Prentsako Lege berri bat ezarri zuen, Joseph Goebbels erregimen naziko propaganda eta informazio ministroaren legean inspiratua. Aurrerantz, komunikabide guztiak, publikoak nahiz pribatuak, boterearen zerbitzura egongo ziren. Botereak kontsignak, komunikabide ofizialak, ildo editoriala ezartzen zituen, eta, gainera, argitaletxeek proposamenak egin ondoren, zuzendariak izendatzeko eskubidea zuen, eta Prentsako Zuzendaritza Nagusiaren (*Dirección General de Prensa*) mendeko Informazio eta Zentsura Negoziatuei (*Negociados de Información y Censura*) ahalmen osoa ematen zion.

1939 eta 1977 bitartean, Espainian egunkari publikoak, «Prensa del Movimiento» deitua, eta egunkari pribatuak egongo dira. Azken horiei, Errepublikara garaietan izan zuten jarreगतिक, informazio jarduerarekin jarraitzeko baimena eman zieten. Horrez gain, herrialde bakoitzeko Prentsa Elkarteak *Hojas del Lunes* izenekoak argitaratzen zituen. Egunkari publiko eta pribatuen elkarbizitza bitxi horrek uztailearen 18ko erregimenaren izaera misto eta kontraesankorra islatzen du.

Falangista buruberoenen lehen asmoa prentsa monopolizatu eta aniztasun mota oro suntsitzea zen. Rafael García Serranok kontatu zuen Iruñean «los flechas» deituek *Diario de Navarra* konfiskatu nahi izan zutela, Raimundo García «Garcilaso» egunkariaren zuzendariak altxamenduarien aurreko konspirazioan parte hartu zuen arren. Azkenean, Molaren itzalak *Diario*ren independentzia gorde zuen, eta kapitalaren bitartekotzak Donostiako *El Diario Vasco* eta Bilboko *El Pueblo Vasco* babestu zituen. Ybarratarren egunkariak, alabaina, *El Correo Español* falangistarekin bat egiteko eta «Diario de Falange Española Tradicionalista y de las JONS» berragertzeko laidoa pairatu behar izan zuen.

Egunkari ofizialen katea (Prensa del Movimiento) berrogei egunkarik baino gehiagok osatzen zuten, eta horietako lau Euskal Herrian argitaratzen ziren: Iruñeko *Arriba España*, Donostiako *La Voz de España* (goizeko egunkariak), Donostiako *Unidad* eta Bilboko *Hierro* (arratsaldeko egunkariak). Komunikabide horien ezaugarri nagusia joera ideologikoa da, diktaduraren goresle nekazekin, eta ia lehiaketa akuilu eta

estrategiarik eza. Boterearen interesen mende, diruarenak baino, gehienak Estatuarentzat oso defizitarioak izan ziren.

Hirugarren maila batean zeuden komunikabide tradizionalistak, karlismoaren inguruan zebiltzanak. Horrelakoak ziren *El Pensamiento Navarro*, *El Pensamiento Alaves* eta *La Gaceta del Norte*. Azken horrek, egunkariaren sustatzaile José M<sup>a</sup> Urquijo gerran immolatu arren, bere iragan foruzalea justifikatu beharra pairatu zuen.



● ZENTSURA ETA AUTOZENTSURA

Diktaduraren 40 urteetan, egunkariak bi prentsa-legeren mozalpean bizi ziren: 1938ko Serrano Suñer-ena, jada azaldua, eta 1966ko Manuel Fragaena, zeinak zentsura komunikabideetako zuzendarien esku utzi baitzuen. Zuzendariak, erregimenak onar ezakeenaren muga asmatu ezinean, etengabeko kezkarakin bizi ziren, beti zutabean bariena labain zitekeen ezin xehetasunengatik espediente zigortzaile bat jasotzeko beldur. José Javier Uranga, «Ollarra», 1962 eta 1990 bitartean *Diario de Navarra*ko zuzendari izanarik gogoratu bezala, «Inork ez zekien askatasuna noraino tenka zitekeen. Pozik eta seguruen zeundean, sokatik tira eta... to espediente». Zentsurak isiltasun politiko, sozial eta, zenbaitetan, baita kulturala ere, ezarri zuen, eta, ondorioz, egunkari guztiak gauza bera gutxi gorabehera modu berean kontaktzen zuten. Profesionalek, lana betetzeko, batez ere eguneroko bizitzako alderdiak, kirolak, gizartea, herriko bizitza eta kazetaritza literarioa jorratu zituzten. Gipuzkoan lokalismoa nagusitu zen (joera horretan *La Voz de España* nabarmendu zen gehien), eta Bizkaian, berriz, irakurleen erakargarri nagusiak informazio kanpainak izan ziren (batez ere *La Gaceta del Norte*).

Hautabidea hain murrizta izaki, lehia alderdi tekniko eta formaletan zegoen. Alor horretan, Movimientoko egunkariak oso atzera geratu ziren, askoz arinagoak ziren argitaletxe pribatuen aldean. Horregatik izan zuen prentsa ofizialistak barneratze-maila hain apala, eta galera izugarriak pilatu zituen. Ondorioz, pixkanaka egunkariak itxiz joan ziren, 1975ean hasi, *Arriba España*ren itxieraz, eta 1983ko otsailen *Hierro* desagertu zen arte. Bi data horien artean, 1978ko Konstituzioak, 20. artikuluan, adierazpen eta informazio askatasuna bermatu zuen.



# EUSKALDUNA

JAUN-GOIKUA ETA LAGI-ZARA

ANO XII

Bilbao 20 de Julio de 1937

NUMERO 503

## ¡GORA EUZKADI!



La voz realista el domingo ilustra por los correspondientes temas del día grande. Los correspondientes temas del día grande, que cubren el campo de la cultura, de la política, de la economía y de la vida social, se ocupan de proporcionar al lector las co-

mo en la teoría del Nazismo y traslado del Nazismo para llevar una pugna y un combate decisivo de la alta y tributarle el homenaje de su admiración y aliento, dentro del campo que allí congrega alrededor de las ideas del realismo y puesto el ejemplo de Hitler, cuando el mundo nazco y agitado se pautaba a los hechos parados del momento dentro del Pío Estado de la Sociedad Española, basándose en



EN EL CAMPOSANTO DE SUKARRIETA

presente que se muestra ante el problema. Se trata de levantar la memoria de Nelson de Arana-Olivero, y los estadistas que según sus doctrinas se venían haciendo en España. En esta ocasión, con la voz realista, a la vez que se muestra la dignidad que sólo puede respirar aquel que se identifica con la vida de la Patria, nos enseñó el camino, nos mostró la vida que debemos seguir todos para la recuperación de la legítima y verdadera libertad. El día real, dentro del campo que se ocupa

Ante don José María de Larrea, que al depositar sobre la tumba de Arana-Olivero la hermosa corona de flores nacionales que dedica a su memoria los vascos de la Argentina, prometió desde que se puso al alma de los vascos, dentro del campo que pesa, que debía ser conocido por esta aquella sepultura que guarda los restos del representante de Euzkadi, dejando respatos sobre ella que un día, quizá sea día, que siempre quedará en la memoria algo grande, muy grande, dentro del cam-

# La Voz de España

Diario Tradicionalista

Se acerca al fin. Nuestras fuerzas en las proximidades de Bilbao y Toledo



Reserva España

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

Reserva España. El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

La Voz de España es ya la voz de España... que en este momento glorioso de lucha por la Libertad es ya, con fuerza, en la voz del mundo.

ne légui de trapt air mes le Roll sidat Pau ise. l' de pu vons facer

# LA VOZ DE ESPAÑA

Diario Tradicionalista

Carácter ministerial del viaje papal

## ULTIMA JORNADA DE PABLO VI EN SIDNEY

Ordenó al primer obispo nativo de Papua



El papa visitó la ciudad de Hong-Kong

## BEAUCOUPEAU DE CONVERSACIONES



## LA GUERRA

En Bilbao

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

El ejército español, que se acerca al fin de la guerra, se muestra en las proximidades de Bilbao y Toledo. Las tropas marchan con orden y disciplina, demostrando su moral y su capacidad de combate.

# EL DIARIO VASCO

LA VOZ DE Euzkadi - LA VOIX DES BASQUES

Nº 217 - Paris, 30 Juin 1945 - 11, Avenue Marceau, (Paris 16<sup>e</sup>)

## LOS SANJOS Y LOS INFORTUNADOS MADRUGADA

Los Sanjos y los Infortunados Madrugada. Los Sanjos y los Infortunados Madrugada. Los Sanjos y los Infortunados Madrugada.

Este número ha sido visado por la censura

Una familia de los Sanjos y los Infortunados

Francisco es un hombre que ha vivido en la sombra de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler.

Francisco es un hombre que ha vivido en la sombra de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler.

Francisco es un hombre que ha vivido en la sombra de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler. El mundo de hoy es un mundo de Hitler.

# Euzko Deya

LA VOZ DE Euzkadi - LA VOIX DES BASQUES

Nº 217 - Paris, 30 Juin 1945 - 11, Avenue Marceau, (Paris 16<sup>e</sup>)

## FRANCO NE SERA PAS ADMIS AU SEIN DES NATIONS UNIES

Le Comité des Nations Unies pour l'Europe occidentale a décidé de ne pas admettre Franco au sein de l'Organisation des Nations Unies. Le Comité des Nations Unies pour l'Europe occidentale a décidé de ne pas admettre Franco au sein de l'Organisation des Nations Unies.

Le Comité des Nations Unies pour l'Europe occidentale a décidé de ne pas admettre Franco au sein de l'Organisation des Nations Unies. Le Comité des Nations Unies pour l'Europe occidentale a décidé de ne pas admettre Franco au sein de l'Organisation des Nations Unies.

## LA MÈRE DU DR. NEGRIN EST MORTE

La mère du Dr. Negrin est morte. La mère du Dr. Negrin est morte. La mère du Dr. Negrin est morte.

La mère du Dr. Negrin est morte. La mère du Dr. Negrin est morte. La mère du Dr. Negrin est morte.

# "PRINCIPE DE VIANA"

REVUE MENSUELLE DE LA REVUE "PRINCIPE DE VIANA"

San Migel Ainguerua, Agur eta Ongietorri, Mundu Zabalean, España Aldean.

# EL CORREO DEL NORTE

REVUE MENSUELLE DE LA REVUE "EL CORREO DEL NORTE"

Centre Culturel, Niveo Aldean, Espal Estarado.

# ALDERDI

EVZKO-ALDERDI-JELTZELIAK' REN DEYM

BOLETIN DEL PARTIDO NACIONALISTA VASCO

## IRATXE

REVUE MENSUELLE DE LA REVUE "IRATXE"

## IZPIJURA-SUMARIO

REVUE MENSUELLE DE LA REVUE "IZPIJURA-SUMARIO"

Le mur de sa com. également. Et il s'est décidé, future organisation. Et il s'est décidé, future organisation. Et il s'est décidé, future organisation.

Le mur de sa com. également. Et il s'est décidé, future organisation. Et il s'est décidé, future organisation. Et il s'est décidé, future organisation.

L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe.

L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe. L'axe de l'Europe.

Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe.

Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe.

Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe.

Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe. Le monde qui fait l'axe.

# EUSKAL PRENTSA



1977TIK AURRERA

**DIKTADURAREN GAU LUZEAN ZEHAR**, oro har gizartearen eta zehazki kazetaritzaren ilusiorik handienetako bat adierazpen askatasuna berreskuratzea izan zen. Xede hori, pixkanaka eta aldizka ikaraldiak jasanez, 1976az geroztik betetzen joan zen. 1977tik euskal kazetaritzaren merkatuak eraldaketa sakona ezagutu du, hiru aldi kronologikotan azter daitekeena. **LEHEN ALDIAN**, 1977 eta 1984 bitartean, egunkari zahar asko (prentsa instituzionalean nahiz pribatuan) itxi eta beste batzuk jaioko dira. **BIGARREN ALDIAN**, laurogeiko hamarkadaren erdialdean hasia, euskal egunkarien egoera egonkortuko da, eta irakurleen merkatuan birbanatze prozesu bat emango da. **HIRUGARREN ALDIAN**, laurogeita hamarrek hamarkadaz geroztik, gerra aurreko urteetatik aurrera sortutako euskarazko lehen egunkariarekin, eskaintza ugaldtu egingo da.

«Prentsarik gabeko gobernu baten eta gobernuak gabeko prentsa baten artean aukeratu beharko balitz, zalantzarik gabe azkena aukeratuko nuke». Duela bi mende idatzitako Thomas Jeffersonen adierazpen horrek gaur ere, segurtasuna edo interes komuna aitzaki harturik, askatasuna eta informazioa kontrolatutako dagoen erregimen bat bateragarriak direla sinestarazi nahi diguten politikariengandik gordetzen gaitu. Ez dago demokraziarik prentsa liberrik gabe, eta ezta prentsa liberrik ere demokraziarik gabe. Adierazpen askatasuna, mugagabea izan ez daitekeen arren, hiritarren burujabetzan oinarritutako gizarteetako zutabe eta funtsa da. Diktaturaren gau luzean zehar, oro har gizartearen eta zehazki kazetaritzaren ilusiorik handienetako bat adierazpen askatasuna berreskuratzea izan zen. Xede hori, pixkanaka eta aldizka ikaraldiak jasanez, 1976az geroztik betetzen joan zen.

## ■ MCSEAREN DESAGERPENA

Diktadura amaítzean, penintsula aldeko lau euskal herrialdeetan hamaika egunkari inprimatzen ziren: Araban, Norte Expres; Bizkaian, El Correo Español-El Pueblo Vasco, La Gaceta del Norte, Hierro arratsaldeko egunkaria eta La Hoja del Lunes; Gipuzkoan, La Voz de España, Unidad, El Diario Vasco eta La



**Hoja del Lunes; Diario de Navarra** eta **El Pensamiento Navarro** erresuma zaharrean.

Hamar urte geroago hiru bakarrik geratzen ziren, hiru arrazoi nagusi medio: estatuko katearen desagerpena, *Hojas del Lunes*en eskusibitatearen amaiera, eta *La Gaceta del Norte* eta *Norte Expres* egunkari historikoek egoera berriari egokitzeko ezintasuna.

Horretarako, «tar dofranquismo» deitutako garaian Mugimenduko Prentzari eskaintutako baliabideak apur bat arrazionalizatu ziren, laguntza horietan dirutza izugarria xahutzen baitzen. Traidor etzat

hartu izateko arriskua beregain hartuz, Emilio Romerok, prentsako ordezkari nazionala zenean, komunikabide garestientzako dirulaguntzak kendu zituen. Horien artean zegoen prentsa falangistaren dekanoa, Iruñeko *Arriba España*, 1975ean desagertua.

Diktadorea hilda, **Medios de Comunicación Social del Estado** zaharrek, izen berria hartuta, agintari berrien kontrol politikoean jarraitu zuten, zeintzuek egunkariak ixten edo zabaltzen baitzituzten, denak desagertu ziren arte.

## ● «LA VOZ DE ESPAÑA»REN KASUA

1977an, MCSEko tirada handieneko egunkaria kirioletako *Mara* zen, 92.000 alerekin, eta segidan ziren Oviedoko *La Nueva España*, Valentziako *Levante* eta Donostiako *La Voz de España*, hiruek errentagarritasun maila dezentetaz. Horrek ez zituen, ordea, *La Voz de España* eta *Unidad*en itxierak eragotzi, 1980an, ustekabean. Arrazoi ekonomikoek arratsaldeko egunkari kaudimengabearen itxiera justifikatu lezakete, baina *La Voz*en kasuan arrazoiak politikoak izan ziren. Orduan erabaki haren zioez asko eztabaidatu zen. Batetik, susmagarria da Gipuzkoako lehen egunkaria aurreneko legebiltzar autonomikoa eratzeke bezperan desagertzea; izan ere, legebiltzarrak, zalantzarik gabe, euskal instituzioak komunikabide publikoez hornitu nahi zituen, horien artean egunkari falangista zaharrak. Beste arrazoi bat, agerikoa hau ere, Donostiako egunkarietako langileria Ricardo de la Cierva Kultura Ministroaren ildoaren aurka publikoki manifestatzea litzateke, Donostian pertsonalki jakinarazi zioten moduan, ministro historialariak egunkaria itxi baino egun batzuk lehenago.

## ● «HIERRO»REN KASUA

Hortaz, 1980tik aurrera garai batean boteretsu izandako estatuko prentsa katetik *Hierro* bakarrik geratzen zen, Bilboko



arratsaldeko egunkari pobrea, bere bizitzako azken hamar urteetan 300 milioi pezeta inguruko zorra pilatu zuena (Begoña Zalbidea Bengoa irakaslearen kalkuluen arabera). Zaharkitu eta akutua, 1983an hiltzen utzi zioten.

Bere epitafioan, gogoratu beharko litzateke hiru hamarkadetan egunero literaturako orri bat mantendu zuen euskal egunkari bakarra izan zela.

## ■ HIRU EGUNKARI TRADIZIONALISTA

Ikusi dugu Euskal Herrian, XIX. mendeko lehen libelo karlista edo antiliberalen garaitik, prentsa tradizionalista errotuta zegoela. Caudilloa eta haren erregimen autokratikoa desagertzeko uanean, joera tradizionalistako hiru kazetaritza-enpresa pribatu argitaratzen ziren: Iruñeko *El Pensamiento Navarro*, Gasteizko *Norte Expres*s eta Bilboko *La Gaceta del Norte*. Hiruak ia aldi berean zendu ziren, 1981 eta 1984 bitartean, Trantsizioak ekarri zituen aldaketa sozial eta politikoetara egokitzeko gai izan ez zirelako.

1897ko *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistak euskarri izan zuen oinarri sozial, katoliko eta tradizionalistaren krisi sakonaren ondorioak pairatu zituen, eta azkenerako elizako agintariekin liskarrean sartu zen.

*Norte Expres*s 1967an sortu zen, *El Pensamiento Alavés* berritzeko operazio batean, azken horri *El Correo Español-El Pueblo Vasco*ren Arabako edizioa irakurleak kentzen ari baitzitzaizkion.

Ideologikoki, *Norte Expres*sék uztailearen 18ko erregimena leial eta irmo defendatu zuen, eta hori eragozpen garbia izan zen, erregimena gainbehera zetorrela ikusi zenean. Horrenbestez, 3.000 ale inguruko tiradez eta laneko gatazka sakonetan murgilduta, 1982ko udaberrian argitaratzeari utzi zion, eta Araba bere egunkari bakarra gabe geratu zen. Egoera hori 1996an *El Periódico de Alava* jaio arte luzatuko zen.

Alabaina, euskal prentsarentzat galerarik mingarriena *La Gaceta del Norte* egunkariarena izan zen, 1984an, jaio eta 83 urte pasa ondoren. Euskal Herrian hedapen handiena izandako egunkariak – hirurogeiko hamarkadan 100.000 ale inguru saltzen zituen, eta Araba zein Nafarroako edizioak ere arrakastatsuak ziren– izen bereko Iruña eta Gasteizkoen autismo bera pairatu zuen, eta ultramontanismo zaharkitu batean ainguratuta geratu zen, hain muturrekoa ezen, adibidez, zinemako ikuskizun sailari ez ikusiarena egiten baitzion, argitaratzaileen moralarekin bat ez zetozen filmak ageri zirelako, «ikurriña» hitza galarazi baitzuen

edo katolizismoa nahiz nazioaren batasuna aldarrikatzen ez zituzten alderdi politikoen iritziak isilarazten baitzituen (ondorioz, egunkariaren orrialdeetan Democracia Cristiana Vasca eta Alianza Popular baino ez ziren agertzen). Horrenbestez, 1975 eta 1980 bitartean 40.000 irakurle galdu zituen.

Azken urte horretan, Rafael Ossa Etxabururen zuzendaritzapean, *La Gaceta del Norte* José M<sup>a</sup> Urquijo fundatzaileak emandako ezaugarriak berreskuratzen ahalegindu zen: Euskal Herriko foruen eta bereizgarri historikoen defentsa. Alabaina, ahalegin horiek ezin izan zuten egunkariaren etengabeko gainbehera gelditu, eta 1984ko maiatzaren 6an itxiko da, batez beste 16.000 aleko hedapena zuelarik. Zenbait hilabete geroago, azaroan, *La Gaceta* kioskoetara itzuli zen, enpresa berri baten babesaz eta nazionalismotik hurbileko ildo editorialaz, baina



ekimena ez zen mamitu, eta 1987an behin betiko desagertu zen.

## ■ LA HOJA DEL LUNES

1925ean, prentsako langileek igandeko atsenden derrigorrezkoa ezartzea lortu zuten, eta ondorioz astelehenetan egunkaririk ez zen. Sektoreko bahitetxea finantzatzeko asmoz, Prentsa Elkarrekin astearen lehen eguneko hutsunea bete zuten eskusiboki. 1931z geroztik, Bilboko Prentsa Elkarrekin *La Hoja del Lunes* argitaratu zuen, eta gauza bera egingo zuten Donostian eta Iruñean ere.

Hegemonia osoz eta lehiaren akuilurik gabe, *Hoja del Lunes* haietan kirol kronikak eta kolaborazioak nagusitzen ziren, baina informazio aldetik eskasak ziren.

Trantsizioak, normala denez, ofizioaren egitura

instituzionalengan ere eragin zuen, eta kazetari gazteak boterearen itzalpean patxadan bizi izan ziren Prentsa Elkarrekin aurka altxatu ziren. Testuinguru hartan, Madrilo *Diario 16* izan zen astelehenetako biljila hausten lehena, eta gurean *Deia* izan zen, 1982ko irailean. Hilzorian, Prentsako Elkarrekin banan-banan desagertuz joan ziren: Donostiako *La Hoja del Lunes* 1983ko ekainean, eta Bilboko 1984ko urtarrilean. Horrela amaitu zen 50 urteko bizialdi erosoa.

## ■ HIRU EGUNKARI HANDIAK

Diktaduran zehar hainbat egunkari zendu zen. Ia probintzi guztietan, prentsaren merkatua berregituratu egin zen, eta estatukoaren artean 1975 aurreko bi egunkari bakarrak biziraun dute: Bartzelonako *La Vanguardia* eta Madril eta Sevillako *ABC*.

Euskal Herrian, gauzak ez ziren ezberdinak izan. Hiru egunkari bakarrak eutsi diete Errepublikari eta Gerra Zibilari, Diktadura eta trantsizio demokratikoari: Bilboko *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, Iruñeko *Diario de Navarra* eta Donostiako *El Diario Vasco*. Hiru egunkari hauek enpresako kudeaketa sendoa dute bereizgarri nagusia, eta gaur egun ere Espainiako prentsa hedapeneko zerrendan oso goian daude.

José M<sup>a</sup> Caminos irakasleak enpresa horiek xeheki aztertu ditu, eta atera dituen ondorioen artean honakoa dago: «eredu propio bat garatu dute, eta bertako gauzei arreta handia eskaintzen dion probintziako prentsa mota bat bermatu dute». Politikoki eklektikoak eta ideologikoki orekatuak –*Diario de Navarra* ez hainbeste–, beste egunkari batzuek agortutako ideiak gogor defendatzen zituzten urte erabakigarrietan aldaketarako gogoarekin bat egin zuten, eta gizartearen berrikuntzarako nahiaen isla bihurtu ziren.

## ■ PRENTSA NAZIONALISTA BERRIA

1977ko hiru hilabete eskasetan, prentsa nazionalistaren baitan, berrogei urteko nahitaezko etenaren ondoren, bi egunkari sortu ziren: *Deia* eta *Egin*.

Konkurrentziaren kontserbadorismoaren aurrean, bi komunikabide horiek nolabaiteko haustura zekarten, hala barneko egituraketan nola kanpora begira, euskal prentsaren gaztetze interesgarri bat eraginez.

Egituraketari dagokionez, *Deiak* eta *Eginek* inbertitzaile txikien partaidetza bultzatu zuten, joera nazionalistaz baina alderdi jakinei



lotu gabe. Informazioa euskal geografiaren testuinguruan jorratzen zuten, Euskal Herria batasun politiko eta identitate kultureko eremu bezala hartuz, errotatibako landutako berriak lehenetsiz, agentzia eta iturri ofizialen kaltetan. Bi egunkariak jaiotzarekin, euskara informazio ataletan sartu zen, eta euskal politikak eta kulturak pisu handiagoa hartu zuten.

Hasieran salmenta dezenteak lortu bazituzten ere (1978an *Deiak* egunero 50.283 ale saltzen zituen, eta *Eginek* 45.731), aurreikuspenak baikorregiak suertatu ziren. Sustatzaileek pentsatu zuten eskaintza zabaltzarekin prentsa tradizionala gogoko ez zuten irakurle berri ugari erakarriko zituztela. Aurreikuspen horiek, ordea, erratuta zeuden, eta laster ikusi zen *Egin* eta *Deia* batik bat *La Gaceta del Norte*ko irakurleez (urtebetean 21.000 irakurle baino gehiago galdu zituen), baina baita *La Voz de España*, *El Correo Español*-*El Pueblo Vasco* eta *El Diario Vasco*ko ere (egunkari horiek 1976tik eta 1978ra irakurleen %23 eta %20 bitartean galdu zuten). Ia ez zuten irakurle berriak lortu.

Bi egunkari nazionalisten bermatzea ez zen samurra izan, eta independentziari uko eginda bakarrik lortu zuten euskal prentsan bidea egitea. Gaur egun, *Egin* -1999ko itxieraren ostean *Gara* bihurtuta- eta *Deia* bermatuta daude, nahiz eta salmentak jakitea erraza ez den, biak ala biak OJD (Oficina de Justificación de la Difusión) prentsa espainiarreko erakunde independentearen kontrolerik kanpo baitaude.

## ■ IRAUPEN LABURREKOAK

Laurogeiko hamarkadan, lau herrialde kulturalki euskaldunetan iraupen laburreko zenbait egunkari sortu ziren, hemen aipatzea merezi dutenak.

Bilboko sozialista batzuek *Tribuna Vasca* bultzatu zuten, euforia handiko une batean, PSOE 1982ko hauteskunde orokorretan garaipena lortzeaz baitzegoen. Egunkariak, hasiera batean Eduardo Sotillosek zuzendua, *La Gaceta del Norte*ekin tailerrak eta zenbait langile partekatzen zituen. Urte horretako martxotik hurrengo urteko uztailera bitartean atera zen.

1982an halaber, maiatzean, *Navarra Hoy* jaio zen, «trantsizio demokratikoan sortutako prentsan eredu, merkaturatu iraungo duena baina proiektuaren iraunkortasuna bermatuko dion behin betiko hazkunde lortuko ez duena» (J.M<sup>a</sup> Caminos). *Diario de Navarra* kontserbadorearekin bat



ez datozen balizko irakurle multzo bat erakartzeko planteamendu ezagunaz, orduan Foru Komunitatean agintean zegoen sozialismora hurbilduz joan zen. 1986tik aurrera abiatutako berritze eta berregituratze ahaleginek porrot egin zuten, eta azkenean enpresaren jabetza aldatu zen, langileen esku geratuz. 1994an, Zeroa Multimedia elkarteak *Navarra Hoy* itxi eta errautsetatik egunkari berri bat - *Diario de Navarra* - sortzeko erabakia hartu zuen.

*La Voz de España* gobernuaren aldeko egunkaria itxi ondoren, langile batzuek elkar hartu zuten, Gipuzkoako lehen egunkaria izandakoak utzitako hutsunea bete nahian. *La Voz de Euskadi* euskal esparruko egunkari independente bat zen, profesionalak egin eta

José Reyk zuzendua, 1983ko maiatzetik 1985eko martxora. Autogestioak eta estuasun ekonomikoek kudeaketa eragotzi zuten, egunkariak ausardia eta irudimena falta ez zituen arren.

1983an, *La Voz de Euskadiren* argitaletxe berak *La Tarde de Euskal Herria* arratsaldeko egunkaria sustatu zuen, baina hedapenik apenas izan zuen, eta aste gutxi batzuen buruan desagertu zen.

*Gaur Express* egunkariaren patua ez zen oparoagoa izan. Eusko Alkartasunaren ideiak zabaltzeko sortutako egunkaria *Navarra Hoy*ko tailerretan inprimatu zen, 1989ko apirila eta azaroa bitartean. Hasieran 25.000 ale inguru saltzen zituen, baina ixteko garaian 15.000 aleko tirada baino ez zuen.



## ■ XXI. MENDEKO EGUNKARIAK

### ● DIARIO DE NAVARRA

Mende bateko adinaz, *Diario de Navarra* euskal esparru kultureko egunkari zaharrena da. Bere sorrerak, 1903ko otsailaren 25ean, prentsa nafarrari bultzada handia eman zion, enpresako kazetaritza bat, ez alderdikoia eta xede ekonomikoa zuena, ezartzean. Ezaugarri horiek *El Eco de Navarra* bere lehiakide nagusian ere ageri ziren, baina *Diario de Navarra* sorrerako ideia funtsezkoen zati ziren, zazpi adjektibotako laburbilduak: egunkari «batik bat hezigarri» eta informatiboa, katolikoa, alderdi politikoekiko independentea, moralari dagokionez kontserbadorea, foralista eta iriztutan inpartziala.

Argitaletxea, La Información, 56 akziodunek osatu zuten, batik bat enpresaren mundukoak eta profesional liberalak, horietako batzuk Antonio Mauraren Partido Conservador alderdikoak. *Diario* Mauraren politika erregenerazionista bultzatu zuen, baina bere independentzia saldu gabe. «Geure berezko erregimenaren defentsa sutsuak», hau da, foruen babesak, egunkariaren norabidea markatu zuen hasieratik. Hain zuzen ere, egunkariaren bizialdiko lehen gabonetan, harpideei almanaka bat oparitu ziren, non Gernikako arbolaren eta Iruñeko foruen monumentu dotorearen irudiak jasotzen baitziren. José Javier Sánchez Aranda eta beste zenbait egileren arabera, egunkariaren sorreran «nabarrismoak» konpromiso erlijiosoak baino pisu handiagoa izan zuen, horrek azalduko lukeelarik 1906an erredakzioak Iruñeko apezpikuarekin izandako eztabaida garrantza.

Informazioari dagokionez, Cor dobillako egunkaria probintzi barruko eta inguruko hirietako berriak argitaratzeko berehalakotasunagatik nabarmendu zen. Berriemaileen zerbitzu batek kronikak argitaratzen zituen «Información telefónica y telegráfica» izeneko sailean.

Horrenbestez, lehenengo urtean *Diario de Navarra* 2.000 irakurle erakarri zituen (*El Eco de Navarra* baino mila gutxiago, baina *El Pensamiento Navarrok* baino gehixeago).

*Diario* hamarkada bat baino gutxiago behar izan zuen Nafarroako prentsan nagusi izateko, *El Eco* xurgatu zuen eta Errepublikaren bosturteko bizirik atera zen, gobernuaren aginduz bi aldiz itxi zuten arren, 1931 eta 1932ko udaretan, errepublikaren aurka egin zituen kanpaina gogorren kariaz.

Mende erdiz zuzendari izan zuen Raimundo García «Garcilaso»ren gidaritzapean, *Diario de Navarra* eskuin antikapitalista zurrun batera lerratu zen (Burtsako kotizazioak ez zituen argitaratzen), eta erregimen frankista nekagaitz defendatu zuen.

Lehiakide bakarrak gainbehera batean sartu zirenean –*Arriba España* falangistak lur jo zuen, eta *El Pensamiento Navarro*k iparra galdu zuen, mugimendu karlista osoak bezala–, *Diario de Navarra*k berritze eta zabalkunde prozesu bati ekin zion. Eskualdeko egoeretik arretatsuago, merindade mailako lau gehigarri ateratu zituen, horrek Nafarroa osoan zehar barneratzea ahalbideratu ziolarik. 1976an 40.886 aleko hedapena bazuen, gaur egun 64.000 ale ingurukoa du. Espainiako informazio orokorreko egunkariaren artean hamargarren postuan dago.

1992an *Diario de Navarra, S.A.* argitaletxea sortu zen, La Información, S.A. egunkariko akziodun bakarraren argitalpen jarduerari lotutako aktiboak insuldatzearen ondorioz; orduz geroztik, azken horrek holding instrumental gisa funtzionatzen du.

Zortzi urte geroago, La Información S.A. Taldeak Interneten produktu eta zerbitzuen eskaintza bultzatzeko elkarte bat sortu zuen: *Navarra Interactiva S.A.*, zeinaren kargu baitago *diariodenavarra.es* ataria. Navarra Interactivak *pamplona.viapolis.com* aisialdi eta entretenimenduko gida ere, Viapolis sarean sartuta dagoena, ezarri du. Argitaletxeak, gainera, *Epoca* informazio aldizkarian partaidetza garrantzitsua du.

● EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO

Fernando, Emilio eta Gabriel Ybarra anaiek *El Pueblo Vasco* sortu zuten 1910ean, monarkia katolikoa defendatzeko. Egunkari apal eta motel samar bat zen, Luis Bellok 1935ean zorroztz definitu bezala: «Egunkari metalurgiko eta monarkiko bat, koroaenganako fedea berrituz jarraitzen duena eta irakurlerik gabeko egunkariaren miraria bizi duena». Alabaina, 1936ko uztailean egunkariko tailerren konfiskazioa ekidingo zuen miraririk ez zen izan.

Horrenbestez, hasiera batean Frente Popularraren propaganda egin zuen, eta abenduaz geroztik Eusko Jaurlaritzaren zerbitzura egon zen.

Bilbo erori ostean, «Diario independiente» izan zena oihukarien eskuetara itzuli zen, ordukoan «Diario nacional» bezala. Egun horretantxe (1937ko uztailearen 6an) jaio zen *El Correo Español*, egunkari falangista bat,



zeinarekin 1938ko apirilaren 13an bat egin beharrean egon baitzen, alkandora urdinekoen diziplina eta zuzendaritzapean. *Pueblo Vasco* zahar eta aristokratikoaren sustatzaileek apalkuntza moduan ikusi zuten batasun antinatural hura.

1945ean Alemaniak eta Italiak Bigarren Mundu Gerra galdu ostean, Falange Española Tradicionalista erregimenarentzat oztopo bilakatu da, eta hark pribilegioak murriztuko dizkio, eta baita komunikabideetan zuen presentzia ere. Urte horretan, Manuel Echevarriak 1875ean sortu eta Gerra Zibila arte egunerokioskoetan izan zen *El Noticiero Bilbaino* egunkari bikainaren editore izan zen argitaletxea Administrazio Kontseiluan sartuko da.

Hasieran gerente eta 1951tik aurrera zuzendari moduan, *El Correo Español-El Pueblo Vascon* bilakaeran pertsona garrantzitsua Alejandro Echevarría izan zen, don Manuelen biloba, kazetari gisa «El Notic» eta *Hiero* arratsaldeko egunkarian hezia. Harekin hedapen handiko aldi bat zabalduko da, 1945ean hasiko dena, Arabako edizioa ateratzean –herrialdean bertako komunikabide baten indarrak errotuko zen– eta aurrerago Bizkaiaren aldameneko eskualde gipuzkoarretan, Miranda de Ebron eta Errioxan.

1949an, enkante bikoitza medio, Bilboko taldeak Donostiako *El Diario Vasco* kontrolpean hartuko du, Espainian informazio orokorreko prentsan nagusi izango den taldearen eraikuntzan lehen harria ipiniz: *Grupo Correo*, gaur egun *ABC*ren jabe, eskualdeko hamabost egunkari, aldizkari ekonomikoak, prentsa amerikarrean eta agentzietan partaidetzak, irratia, banaketa eta publikitateko enpresak, eta teknologia berrietan askotariko inbertsioak dituen.

Zenbait ekimen arrakastatsuri esker –hala nola ziklismoko I. Espainiako Bira antolatzea, hiruerogeiko hamarkadan Sapisa Agentzia, geroago Colpisa, sortzea, edo 1965ean izara formatua utzi eta tabloide tankerako beste batez ordezkatzeko aldaketa iraultzailea egitea–, *Correo* prentsa espainiarrean erreferente bihurtu zen, herrialde mailan *La Gaceta del Norte* nagusi jarraitzen zuen arren.

1975ean diktadorea desagertzean, *El Correo*k baldintza sozial eta politik berrietara egokitzeko gaitasun handiagoa erakutsi zuen, eta Antonio Barrena nekagaitzaren zuzendaritzapean bere lehiakide zaharra atzeman utzi zuen. Bi egunkari nazionalisten (*Egin* eta *Deia*) sorrerarekin beheraldi bat jasan ostean, egunero 100.000 aleren zenbaki magikoa gainditzea lortu zuen.



Euskal prentsan duen nagusitasuna 1982an islatuko da, erredakzioa informatizatze eta errotatiba aldatzeko berrikuntza teknologiko sakon bat eginez, eta Ezkerralde eta Eskuinaldean, Kostaldean eta Durangaldean eskualdeko edizioak ataraz.

Bere arrakasta informazio lokalaren bidez irakurlearengana hurbiltzean datza, eta jatorrizko printzipioak jarraitzen dituen norabide editorial koherente batean (moderazioa eta autonomismoa) nahiz askotariko edukiak jasotzeko diseinu moderno batean.

Azken datuen arabera, *El Correo* batez beste 131.383 aleko hedapena du. Gaur egun Estatuko informazio orokorreko seigarren egunkaria da (aurretik *El País*, *El Mundo del Siglo XXI*, *ABC*, *La Vanguardia* eta *El Periódico de Catalunya* bakarrik ditu).

### ● EL DIARIO VASCO

*El Diario Vasco* 1934ko azaroaren 27an jaio zen, porot egindako Urriko Iraultzak politikoa eta sozialki ernegatutako giro batean. *El Diario Vasco* bere ideia kontsebadore, monarkiko eta fouzaleak entzunarazi nahian zebilen, egunkari ugariaren artean, zehazki zazpi, 350.000 pertsona baino gehixeago zituen herrialde baterako.

Egunkaria ezaugarri komuna monarkikoak izatea zuten prentsa, politika eta negozioetako pertsonak sustatu zuten: Ramiro de Maeztu, Román Lizarriturry, Jorge de Satrustegui, Joaquín Churrua, Federico Oliván, José Manuel Brunet, José Múgica, José M<sup>a</sup> de Areilza edo Luca de Tena anaiak. Azken horiek, ABCren editore Prentsa Españolaren bidez, gaur egun prentsa gipuzkoarraren dekanoa den egunkariari sostengu tekniko eta ekonomikoa, eta baita gizon-emakumeena ere, eman zituen.

1936ko uztailaren 18an, artean bi urte bete gabe zegoela, *El Diario Vasco* itxi egin zuten, eta tailerrak konfiskatu zituzten, *Frente Popular* inprimatzeko. Hura izan zen, hain zuzen ere, altxamendutik karlista nafarrek hiria hartu zuten arte Donostian argitaratu zen egunkari bakarra. Irailaren 13an, egunkaria kalera itzuli zen, orri moduan, «iraultza nazionala» betatasunez ospatuz eta *Frente Popularrak* azken hilabeteetan Donostian eraildako pertsonen zerrenda jarritz.

Alabaina, hasierako itxaropenak laster mikaztu ziren eta *El Diario Vasco*k, Falangek kontrolatzen ez zituen beste hainbat komunikabide bezala, itxiera mehatxuak pairatu zituen, isunei aurre egin behar izan zuten, eta Ministerioak izendatutako zuzendari ugari ezagutu zituen, horien artean, tarte laburrez bada

ere, Manuel Aznar eta Dionisio Ridruejo.

Berrogeiko hamarkadaren amaieran, Prentsa Españolak bere akzioak Bilboko *El Correo Español-El Pueblo Vasco*ren jabe Bilbao Editorial enpresari salduko dizkio, eta gerente Alejandro Echevarría izendatuko dute. Gerente berriak egunkaria kudeatu zuen garaian ekin zitzaion lehenengo berrikuntza tekniko eta administratiboari.

Ideologia handirik gabeko egunkaria, eta beti irakurleen gertuko informazioari arreta handia eskainiz, frankismo garaiko berrogei urteetan *El Diario Vasco* prentsa probintzialeko bere ereduari lotu zitzaion. *La Voz de España*ren –Gipuzkoako lehen egunkaria, eta Cadena de Prentsa del Movimiento-n errentagarria zen bakarrenetakoa– atxean

Kopuru horrek, 673.000 biztanle dituen Gipuzkoa gisako herrialde batean, 1.000 biztanleko 139 egunkariko barneratze ahalmena ematen du, ia Europako mailara iritsiz.

Iragarkiak jartzen dituztenentzat, *El Diario Vasco* Espainiako egunkari errentagarriena da, *El Correo*, *La Vanguardia* eta *Diario de Navarra*ren aurretik. Datu hori egiaztatzeko erabiltzen den neurria mila aleko iragarkiaren kostua da, OJDaren (organo independentea) kontrolaren arabera.

### ● DEIA

40 urte luzez prentsa nazionalistari gabe egon ostean, 1977ko ekainaren 8an offset errotatibak ostera biratzen hasi

bikaina eta tratamendu grafiko, ordena eta maketazio arretatsiak. Bestetik, *Deiak* orduan nagusi zen eredu probintziala hautsi zuten, eta Euskal Herri osorako edizio bakar bat eskaintzen zuten, herria unitate kultural bakar bat bezala hartzen zuelarik (geroago eremuko edizioak banatu zituen). Horrez gain, egunkariaren sail guztietan euskara ageri zen.

*Deiaren* irteera bizkorrak, bereziki aproposa zen une batean, 50.000 irakurle inguru ekarri zizkion; egunkariaren %65 Bizkaian saltzen ziren, eta Nafarroa eta Araban apenas zuten presentziarik. Salmenta maila horietan egonkortuta, eta irakurleak gero eta gehiago Bizkaia aldekoak zituelarik, merkatuan bideragarri izan beharrik independentzia arriskuan jarri eta gobernuko alderdiarekin engaiatzera eramanez. Laurogeiko hamarkadaren erdialdera alderdi jeltzalea hautsi eta Eusko Alkartasuna jaio zenean, engaiamendu hura eragozpen handia gertatu zitzaion. Aldi berean, nazioarteko eta Espainiako informazioak pisua galduko du, Autonomia Erkidegoko berrien mesedetan.

Laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, 44.000 ale inguru hedapena zuenean, *Deiak* OJDaren kontrol ofizialeko uko egin zien.

### ● EGIN / GARA

Trantsizio politikoaren garaian sortutako egunkari guztien artean, ez zegoen bat *Egin* baino interesgarriagoa zenik. Asmoa teknikoki akatsik gabekoa eta diseinu modernokoa –*El País*en tankerakoa, orduan eredu nagusia zena– izango zen egunkari bat, ezkerrekoa eta nazionalista, alderdietatik independentea, Euskal Herri osoaren estaldura geografiko eta kulturala eginez informazioa lantzerakoan plurala eta irekia izango zen egunkari bat matxan jartzea zen. Zati garrantzitsu bat euskaraz idazten zen. Erredakzioan batez ere jende gazte eta grinatsua zegoen, irratitik zetorren zuzendari ospetsu batek gidatzen zuena: Mariano Ferrer.

Orain, S.A. argitaletxearen kapital soziala hiru zatitan egituratuta zegoen: 120 milioi bazkide talde batek inbertituak, beste 120 milioi kredituetan, eta 100 milioi gehiago 12.500 partaidek jarriak. Osagai horiekin egin zen *Egin*, zainaren lehen zenbakia 1977ko irailaren 29an atera baitzen.

Baina *Egin*en kasuan, *Deiarekin* gertatu bezala, kalkulua baikorregiak egin ziren, eta laster ikusi zen joera nazionalistakoa prentsa bat eskatzen zuten «irakurle berriak» egunkari bat mantentzeko, baina ez bi. Egunkariaren lehen kontrolak 48.731 aleko hedapena eman zion,

Euskal Autonomi Erkidegoko komunikabideen irakurleria, 2001. urtea (%)				
	CE.H.A.E.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
PRENTSA GUZTIRA	52,4	49,4	49,4	58,7
El Correo Español	26,4	38,4	38,2	1,5
El Diario Vasco	16,4	0,7	0,6	49,9
Gara	6,2	5,4	4,4	9,6
Deia	5,4	2,6	8,3	1,4
Marca	5,2	5,1	5,2	5,3
El Mundo del País Vasco	3,2	3,9	3,7	2,1
El País	2,1	2,5	2,2	1,6
Egunkaria	2,0	1,6	1,5	3,0
El Periódico de Alava	0,6	4,5	0,0	0,0
Beste batzuk	1,7	2,2	1,9	1,3

Iturria: CIES.

bigarren maila batean, *El Diario Vasco*ko akziodunen artean dibidenduen banaketa eskasa izaten zen, eta kapital zabalkuntzak, berriz, ugariak.

Hala ere, hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, Sociedad Vascongada de Publicaciones egunkariaren editoreak enpresa, finantza eta teknologia mailako egiturak zabaldu eta berritzeko anbizio handiko prozesu bati ekin zion, eta horrek 1976-1979 aldirian balantze negatiboak eragin zituen. 1980an, Suárezen Gobernuak *La Voz de España* eta *Unidad* itxiko ditu, eta *El Diario Vasco*

Gipuzkoako prentsan nagusi bilakatuko da. 1979an batez beste 29.000 aleko hedapena bazuen, urtebete beranduago 52.545 alera helduko da, Euskal Herrian bigarren lekua hartuz, aurretik *El Correo Español-El Pueblo Vasco* kidea bakarrik duela. 2001ean, bere batez besteko hedapena 94.000 aletan bermatu zen.

ziren *Deiaren* lehen zenbakia inprimatzeko. Egunkari nazionalista moderatua zen, baina hasiera batean behintzat sigla zehaztatetik aparte zegoen. *Egin* irakurle mota berari zuzentzen zitzaionez, kioskoetara aurrera iristeko borrorak *Deiaren* presazko jaiotza ekarri zuten, lehen hauteskunde demokratikoak baino astebete lehenago.

Iparragirre argitaletxea bere izenkide gipuzkoarraren antzera eratu zen: hau da, akziodunen oinarri batetik abiatuta (25 bazkide, horien artean Eusko Alderdi Jeltzaleko zenbait pertsona garrantzitsu), 1.000 pezetako harpidetzekiko eskaintza publiko bat atera zen.

Egunkariko langileak batik batik *La Gaceta del Norte* edo *Hiernon* aritutakoak ziren, eta proposamena berritzailea zen, zenbait alderdi formal nahiz funtsari zegozkionak medio. Batetik, inprimatze-kalitate

sustatzaileek espero baino askoz gutxiago. Bi urte geroago, 41.000 ale eskas saltzen zituen.

Arazo ekonomikoei barne gatazkak gaineratu zitzaizkien, nazionalismo gogor bati atxikitako zuzendaritza batzordearen eta Euskadiko Ezkerrako ideietatik hurbilago zegoen erredakzioaren artean. Oihartzun publikoa izan zuen lehen gatazka egunkaria agertu eta hilabetera sortu zen, Augusto Unceta Bizkaiko Aldundiko presidentearen hilketa salatu zuen editorial baten ondorioz, zeinak zuzendariaren kargugabetzea ekarri baitzuen. Urtebete geroago, 1978ko abenduan, sektore moderatuenak *Egin* utziko du, eta orduz geroztik egunkaria Herri Batasunaren inguruan bildutako ezker abertzalearen bozeramaile nagusia izango da, 1998ko uztailean Baltasar Garzón Entzutegi Nazionalako epaileak itxi zuen arte, ETA talde terroristaren egitura finantzarioarekin zerikusia zuelakoan. Urtebete geroago kautelazko itxiera kendu zen, baina bost urte pasa ondoren bista ez da oraindik burutu.

1999ko urtarrilaren 30ean, *Eginek* hitza berreskuratu zuen, *Gan* bihurtuta. Ixkitako egunkariko langile eta kolaboratzaile gehienak osera bildu zituen, baina bere norabidean moderazio handiagoa nabari da, zalantzarik gabe ezker abertzalearen barne eztabaida islatuz. *Gan*ren hedapen mailari buruzko datu fidagarriak ez dago (2000. urtean, Eustatek 100.000 irakurle baino gehixeago ematen zizkion, baina tirada zein hedapenari buruzko kalkulurik eskaini gabe).

#### ● EUSKALDUNON EGUNKARIA / BERRIA

Gerra Zibilaren ondorengo euskarazko lehen egunkaria (aurreko azkena *Eguna* izan zen, 1937an), sortze luze eta nekeza izan zuen, euskarazko prentsa oraindik orain komertzialki bideragarria ez delako, eta ondorioz fondo publikoen mende dagoelako.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, kazetari talde batek euskarazko eguneroko prentsaren lehen proiektua martxan jarri zuen, hasiera batean *Egunkaria Sortzen* deitu zena.

*Argia* taldearen inguruan egituratuta zegoen aurreneko talde hori baztertua izan zen, 1986an Gasteizko gobernua *Deia* eta *Egin* egunkariak sustatutako bi astekariri diruz lagundu zienean. Horrela jaio ziren *Hemen* eta *Eguna*, 1990 arte iraun zutenak. Aldi berean, baztertuak Egunkaria S.A.ren kapitala osatzeko kanpainari ekin zioten, amestutako egunkaria ateratzeko



asmoz. 1990eko abenduaren 6an agertu zen, talde sustatzaileak eta partaideek (500.000 pezetako akzioak eta 5.000 pezetako partaidetzak saldu ziren) emandako bultzadari eta eragiketan sartutako kultur eta gizarte egitura zabalaren engaiamenduari esker.

*Euskaldunon Egunkaria* muga ekonomiko, tekniko eta informatibo handiekin jaio zen, instituzioen laguntza eskasaz, baina euskal merkatuaren tarte bat hartzeko gai izan zen. 2001. urteko kontrolak 14.396 aleko eguneroko hedapena eman zion,

aleen erdiak Gipuzkoan saltzen ziralarik.

2003ko otsailaren 20an, Entzutegi Nazionalak egunkariaren itxiera eta haren erantzuleetako batzuen auziperatzea aginduko du. Une horretan, instituzioetatik eta gizartetik elkartasunezko mugimendu handi bati ekin zitzaion, eta horri esker hilaren 21etik aurrera egunkari apal bat atera ahal izan zen, *Egunem*, euskarazko egunkari berri bat martxan jarri bitartean hutsunea bete zezan. Azkenean, egunkari berria, *Berría* izenekoa, 2003ko ekainaren 21ean atera zen.

#### ● DIARIO DE NOTICIAS

1982ko maiatzaren eta 1994ko urtarrilaren artean Navarra Hoy argitarara eman zen, joera nazionalistako komunikabide bat, Foru Komunitatean orduan gobernuan zegoen sozialismoaren laguntza bilatu zuena. Egunkaria itxi eta hiru hilabete geroago, argitaletxe berberak, Zeroa Multimedia S.A., eta erredakzio berberak *Diario de Noticias* aurkeztuko dute.

Bere aurrekoak baino enpresa, kultura eta politika mailako interes askoz zabalagoak uztartuz, *Diario de Noticias*ek irakurle euskaltzale eta aurrerakoien artean *Diario de Navarra* uztan duen hutsunea beteko du. *Diario de Noticias*ek irakurle mota ezberdin bat izango du jomuga, hala diseinuagatik, berritzaile eta lehiakidearen zurruntasunetik erabat aldentua, nola edukiengatik; kultura, kirola, ekologia edo aisialdiari arreta handia eskaintzen zaie, informazio lokala edo eskelak alde batera utzi gabe.

Apalki bada ere (ia 14.000 irakurle), *Diario de Noticias*ek Nafarroako prentsari nolabaiteko pluraltasuna ekarriko dio.

#### ● EL PERIÓDICO DE ÁLAVA

Berrogeiko hamarkadaz geroztik Araban edizio bat duelarik, *El Correo Español-El Pueblo Vasco* nagusitasun eroso eta sendoa du herrialde horretan. Are gehiago kontuan hartzen badugu 1982an *Norte Express* itxi zenetik 1996ko abenduaren 14an *El Periódico de Alava* aurkeztu zen arte, Araba prentsa propiorik gabeko Estatuko probintzi bakarrenetakoa zela.

Bete beharreko hutsune bat zegoela ulerturik, zenbait enpresari eta sozietate pribatu komunikabide arabar bat sortzeko elkartu ziren, atxikimendu politiko zehatzik gabea eta hiru irizpide nagusitan oinarritua: Arabako pluraltasun ideologiko eta politikoarekiko errespetua, informazio hurbilenekoa jasotzea eta, kudeaketari dagokionez, neurritasuna gastuan.

Proiektua ez da behar bezala mamitu, eta *El Periódico de Alava*ren bizialdi laburra kezka eta ezustekoza bete egon da: kapital zabalkuntzak, bazkide berrien sarrera, aldaketak zuzendaritzan, nazionalismorako orientabide ideologiko berria... Iruñeko *Diario de Noticias*ekin eta *Deiaren*kin lankidetzara harremanak ditu.

Oficina de Justificación de la Difusión (OJD) delakoaren kontrolik izan ez bazuen ere, hasieran 15.000 ale inguruko hedapena izango zuela kalkulatu da.

■ ESKUALDEKO EDIZIOAK DITUZTEN ESTATU MAILAKO EGUNKARIAK

● EL MUNDO DEL PAÍS VASCO

Gobernuan zegoen sozialismoaren gainbeherako urteetan garatutako ikerketa eta salaketazko kazetaritza abiapuntu harturik, Diario 16ko zuzendaria izandako Pedro J. Ramírezek tarte laburrean bere komunikabidea informazio orokorreko artean hirugarrena (El País eta ABCren atzetik) izan zedin lortu zuen.

Euskal merkatuan ere indartsu sartu zen, eta horrek egunkaria 1991ko maiatzean eskualdeko edizio bat sortzera bultzatu zuen, El Mundo del País Vasco, zainaren jabea Editora del Pueblo Vasco baita. Madrilgo egunkariak eskaintako sostengu teknikoaz eta orrialdeen horniketaz, El Mundoren Bilboko erredakzioak lehen orrialdeko berriak eta atal nagusietan orrialde egokituak eranstean ditu, eta baita zutabegile propioak ere. Lehen urtean edizio bakarra bazen ere, geroago herrialdeko edizioak moldatu ziren.

Hasieratik, El Mundoren bereizgarri bat iritzi-espekto zabal eta plurala izan da. Egunkariaren beste tasun bat aurkezpen grafikoa eta diseinua da.

El Mundo del País Vascoren hedapena, zenbait gorabehera medio, 15.000 eta 18.000 ale artean ibili da.

● EL PAÍS

Trantsizio politikoa martxan zegoela adierazten zuen sinboloetako bat El Paísen aurkezpena izan zen, demokraziako lehen egunkari moduan. Bere kalitate materialak eta argitasun ideologikoak lidergora eramane zuten, eta gaur egun ere nagusitasun hori eroso mantentzen du.

1997ko maiatzaren 29an euskal edizioa zabaldu zuen. Hiru hiriburuetan du erredakzioa, non 8 edo 12 orrialdeko erdiguneko koaderno bat egiten baita.

OJDaren 2001eko kontrolak egunero 14.276 aleren salmenta ematen dio.

● MARCA

Marca, negozio-bolumenagatik nahiz irakurleen kopuruagatik (aleko irakurle gehien dituen) Espainiako egunkari herrikoiena, Donostian sortu zen 1938an, Gerra Zibil betean, Prensa del Movimiento kateko kiroletako komunikabide bezala. Gerra amaituta, Madrilera aldatuko da,



PSOE e IU se quedan solos en su propuesta contra los transfugas

El PNV saca adelante una resolución de apoyo a las víctimas del terrorismo



Sharon permitirá a Arafat salir de su encierro para viajar a Gaza

Sharon permitirá a Arafat salir de su encierro para viajar a Gaza

Un candidato por cobalto preside el Cabildo de Lanzarote con los votos del PP

Un candidato por cobalto preside el Cabildo de Lanzarote con los votos del PP



PURA ENVIDIA



eta astekari izatetik egunkari izatera pasako da. Franco hiltzean, saldu egin zuten, Medios de Comunicación Social del Estado ziren beste komunikabide guztien moduan. Gaur egungo jabea Grupo Recoletos da (Expansión egunkari ekonomikoaren jabe ere dena).

Esan denez, Estatuan tirada handieneko egunkaria da, informazio orokorrekoen gainetik, egunero 400.000 ale inguru saltzen dituelarik (kiroletakoen artean, segidan duen As egunkariak baino bi halakotik gora).

Euskal Autonomi Erkidegoan emaitza interesgarriak ageri ditu: batez beste 20.722 erose eta 92.000 irakurle. Horrenbestez, laugarren egunkari irakurriena da, aurretik El Correo, El Diario Vasco eta Gam dituela. Nafarroan 4.000 ale inguruko eskaria du. Azken urteetan edizio bat, lehen orrialdea eta hasierako orrialdeekin, Lehen Mailako euskal taldeei eskaintzen die.

■ IPARRALDEKO EGUNKARIAK

● SUD OUEST

1944an sortua eta Bordelen argitaratua, 345.000 alerekin Frantziako eskualdeko bigarren egunkaria da, Ouest Francaen atzetik. Egunero 20 edizio ateratzen ditu, Girondaren arrotik Pirinioetara bitarteko zortzi departamentuak hartuz.

Sud Ouest hegoaldean estatuko prentsatzat hartzen dugunaren antzeko eredu bati lotzen zaio. Izan ere, eskualde zabal bati buruzko informazioa ematen du, eta Euskal Herriari, Biarnori eta Landei tarte aski murrizta eskaintzen die, Bordeletik datozen berriei, Parisko egoera politikoari buruzkoei edo nazioarteko gertakizunei baino askoz txikiagoa. Oraindik orain izara formatuari uko egin dio, eta igandeko edizio bat argitaratzen hasi da. Bere ikurritza honakoa da: «Gertaerak sakratuak dira, iritziak libreak».

Sud Ouesten jabe GSO taldeak beste lau egunkari dauzka, guztira 432.000 aleko hedapena dutenak. Grupo Correorekin akzio gurutzatuak ditu, eta elkarrekin zenbait proiektu garatu dituzte, hala nola Viapolis.com ziber-zerbitzuen sozietatea.

● LE JOURNAL DU PAYS BASQUE

Le Journal du Pays Basque 2001eko udazkenean jaio zen. Frantsesez argitaratu baina euskara eta gaskoizko kolaborazioak dituen egunkaria Donostian inprimatzen da.



Picca cree que el Tribunal Penal Internacional «será una entidad más política que jurídica»

El etimólogo asegura que este organismo nació «después de la caída de Estados Unidos»



El etimólogo asegura que este organismo nació «después de la caída de Estados Unidos»

*Le Journal du Pays Basque*ek batik bat hurbileneko esparru sozial, politiko, kiroltako eta kulturalari erreparatzen dio. *Sud Ouest*en kazetaritzako ereduari erantzunez, *Le Journal du Pays Basque*ek aldarrikatzen du Euskal Herria «ez dela postal tankerako herri bat, eta ezta mina-eremu bat ere. Bizitza sozial, kultural, politiko, ekonomikoa du. Gertatzen dena hobeto ulertzeko, bertako ekimenak ezagutu eta onartuak izan daitezten, bereizkeria eta bidegabekeriak adierazi daitezten eta bazter utzi ez daitezten, langileen, enpresarien, nekazarien, langabetuen aldarrikapenak prentsan jaso daitezten... edo, besterik gabe, gutxiengo demokrazia, adierazpen askatasuna bermatzeko, prentsa anitza egon dadin bermatzeko».

2003ko hasieran, egunkaria krisi sakon batean murgilduta zegoen, etorkizuneko bideragarritasuna arriskuan jarri zuena. Desagertu ez zedin, harpidetza kanpaina bat burutu zen, hileko 20 eurotan, gutxienez 1.000 harpide lortzeko. «Pertsona orori zabaldukatoko egunkari bat egin dugu; pertsona orok ahal duena egin dezala, *Le Journal*ek zabalik jarraitzeko», eskatu dute editoreek.

## ■ ERANSKINA

### ● BERRI AGENTZIAK

Euskal Herri mailan komunikabide berriak agertzearekin batera, Transizioko urteetan berri agentzia euskaldun bat sortzeko ahaleginak egin ziren. **Euskadi Press** eta OPE-EPI agentziek, lehena ezkerreko sektore nazionalistek lotua eta bigarrena EAJri, ibilbide laburra izan zuten.

1982ra arte ez zen Euskal Herrian berri agentzia bat bermatu, Antonio Petit Caro Bilboko *La Gaceta del Norte*ko zuzendari izanak gidatutako kazetari talde baten ekimenez: **Vasco Press**. Enpresako egituretatik kanpo profesionalak sustatutako lehen agentzia izan zen, esparru geografiko mugatu batean: Euskal Herria.

Hogei urte baino gehiagotan, **Vasco Press** agentzia bizkor eta ongi antolatu bat bezala agertu da, bere bezeroei –gehienbat Euskal Herriko komunikabideak, baina baita Estatuko zenbait ere– produktu ugari zerbitzatzen dizkiena. Vasco Press berri zerbitzuak batez beste 500.000 hitz ditu urteko, eta horiek 10.000 berri baino gehiago moldatzen dituzte. Informazioa analisi eta datu-base zerbitzuarekin osatzen da, «Crónica» medio, Euskal Herriari buruzko informazio eta dokumentazioko



astean behingo buletina. Gaur egun, dokumentazio eta datu-base zerbitzuak 1.000 txosten baino gehiago dauzka, guztiz eginak eta erabiltzaileen eskura daudenak, eta urtero 3,5 milioi hitzeko dokumentazio kopurua hartzen du.

1985az geroztik, **EFE** berri agentzia ofiziala Euskadin modu autonomoan ezarrita dago, eta

horrek Bilboko lotunetik informazioa sortu Espainia osora banatzeko ahalmena ematen dio. Horrenbestez, euskal jabetzako agentzia izan gabe, Euskal Herrian informazioa hedatzeko gune nagusienetako bat da.

2002ko urtarrilaren 1ean **Argazki Press** informazio grafikoko agentzia martxan jarri zen, batez ere *Gam*, *Egunero* eta *Le Journal*

*du Pays Basque* elikatzen dituen. Bulego nagusi bat du Donostian, eta ordekaritzak Euskal Herriko lurralde guztietan. Bere egiturak kalitateko inudiak azkar eta modu eraginkorrean eskaintzea ahalbidetzen dio.

Azkenik, aipatu beharra dago eskualde arteko lehen berri agentzia, **Colpisa**, sortzeko ideia Javier de Ybarra eta Luis Bergareche Bilboko *El Correo Español-El Pueblo Vasco* editoreena izan zela. Agentzia sortu zenean, 1967ko abenduan, Espainiako hamabi egunkari lotu zitzaizkion «informazio berezi eta eksklusiboa» bermatzeko xedez. Urtebete geroago, Luis Bergarechere zuzendaritzapean, hemeretziziren **Colpisan** bildutako eskualdeko egunkariak. 1972 eta 1982 bitartean, agentzia Manuel Leguineche kazetari bizkaitarrak zuzendu zuen.

## ■ ONDORIOAK: ITXAROPENETIK KEZKARA

1977tik, euskal kazetaritzaren mekatuak eraldaketa sakona ezagutu du, hiru aldi kronologikoetan azter daitekeena.

**Lehen aldia**, 1977 eta 1984 bitartean, egunkari zahar asko itxi (prentsa instituzionala nahiz pribatua) eta beste batzuk jaio ziren, bi baino (*Deia* eta *Egin*) errotu ez baziren ere.

**Bigarren aldia**, laurogeiko hamarkadaren erdialdean hasten dena, euskal egunkariaren egoera egonkortzen da, eta irakurleen mekatuan banaketa berria ematen da. 1984-85tik aurrera, prentsa nazionalistak pixkanaka behera egingo du, egonkortasun oinokorraren barruan, eta enpresako hiru egunkari handiek (*El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Diario de Navarra*) hazkunde historikoa ezagutuko dute.

**Hirugarren aldia**, laurogeiko hamarkadaz geroztik, eskaintza aberastu egingo da, gerraosteko euskarazko lehen egunkariarekin, *Euskaldunon Egunkaria*, eta Gasteizko *El Periódico de Alava* zein Iruñeko *Diario de Noticias* egunkariarekin nahiz *El Mundo* eta *El País*en euskal edizioekin.

Azkenik, gogoratu behar da bost urteko epean epailearen erabakiz agindutako bi egunkariak –Egin eta Egunkaria– itxierak eragin zuen gizatearen astinaldi eta arbuioa, auzi politiko, sozial eta kultural garrantzitsuak tarteko.

# EUSKARA PRENTSAN



**ERABAT EUSKARAZ ARGITARATUTAKO BI EGUNKARI BAKARRIK IZAN DIRA** eguneroko euskal prentsaren historian: Eguna, 1037ko urtarrilaren 17ra, eta *Euskaldunon Egunkaria*, 1990ko abenduaren 6an atera zena, eta epailearen aginduz itxi, 2003ko otsailean. Euskarazko prentsaz aritzeko, beraz, esparrua egunero atera ez diren argitalpenetara zabaldu behar da; izan ere, horiek izan dira euskarazko kazetaritzaren ohiko euskarriak.

## ■ BETETAKO ASMOA

Erabat euskaraz argitaratutako bi egunkari bakarrrik izan dira eguneroko euskal prentsaren historian: Eguna, 1037ko urtarrilaren 17ra, eta *Euskaldunon Egunkaria*, 1990ko abenduaren 6an atera zena, eta epailearen aginduz itxi, 2003ko otsailean. Euskarazko prentsaz aritzeko, beraz, esparrua egunero atera ez diren argitalpenetara zabaldu behar da; izan ere, horiek izan dira euskarazko kazetaritzaren ohiko euskarriak.

Javier Díaz Noci irakaslearen – euskal kazetaritzan aditua – arabera, euskarazko kazetaritza 1834an hasten da. Urte horretan *Correo del Norte* argitaratuko da Donostian, egunkari liberal bat, bi zenbakitan euskarazko testu bana sartu zituen.

Baina erabat euskaraz ateratako lehen argitalpena *Uscal Herriko Gasetta* izan zen, 1948ko udaran. *Jose Augustin Chaho* erromantikoak idatzi zuen, hauteskundeetan diputatu aukera zezaten sustatzeko.

## ■ XX. MENDEKO ALDIZKARI ETA EGUNKARIAK

II. Karlistadaren ondoren euskara berpiztu egingo da, astekari eta aldizkari ezberdinen eskutik. Horietako gehienak elebidunak edo himeeldunak ziren, eta bertako ikerlanen eta kultur sustapenaren oinarriak ezarriko zituzte: Baionako *Eskualduna*,




Iruñeko *Revista Euskara*, Donostiako *Euskal Erria*, Gasteizko *Revista de las Provincias Vascongadas*. Mendearen bueltan, *Euskalzale* eta *Ibaizabal* astekariak, *Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue* argitaratuak, «euskarazko argitalpen batek lehenengo aldiz kazetaritza modernoari dagozkion baliabideak erabiliko dituzte (argazkiak, zutabeak, tar tekiak, tituluak, eta abar)».

Donostiako *La Unión Vascongada* katoliko eta erregezale alfonsotarra (1891-1903) egunkariaren historian sartu zen euskarazko artikulua, erregularki ez izan arren, argitaratzen lehena izan zelako, baina *Euzkadi* nazionalista izan zen 1913az geroritik atal egonkor bat zabaldu zuten aurrenekoa, *Evaristo Bustinza*, «*Kirikio*»ren zuzendaritzapean.

## ■ EUSKARAZKO EGUNKARI BATERANTZ

Euskarazko egunkari bat ateratzeko ahaleginak 1920an hasi ziren, artean jaioberri zen *Euskaltzaindiak* Bilboko egunkari nagusiak testuez elikatuzko erredakzio bat martxan jarri zuenean, euskarazko egunkari elebatar baterako hazia izateko itxaropenaz. Hutsunea, Gipuzkoan bereziki agerikoa, euskal hiztunen kopuru handiena zuen eta duen herrialdea izaki, *Argia* astekariak bete zuen 1921ean. «Euskarazko prentsaren aitzindariak», Díaz Noci irakasleak definitu bezala, hedapen dezentea





izan zuen (10.000 ale hogeiko hamarkadan), tratamendu grafiko moderno bati eta irakurle ugarirentzat ulergarria zen euskara mintzatuaren hurbileko hizkera bat erabili izanari esker.

Behin bermatuta, *Argia* egunkari bihurtzea pentsatu zen, baina asmo horrek ez zuen arrakastarik izan. Hala ere, Primo de Riveraren diktaduraren amaieran sortutako egunkari nazionalistek, hala nola *El Día* eta, II. Errepublikaren bitartean, *Tierra Vasca* argitalpenek, euskarazko orrialdeak sartzen zituzten euren ataletan.

#### ● GERRA ETA DEBEKUA

1936an, ikastoletako geletan euskara zen nagusi, hizkuntza aldizkari, egunkari eta argitalpenetan irakurri ahal zen, eta eguneroko bizitzaren zati zen, landako eremuetan ez ezik hiritarretan ere bai.

Gerra Zibilak joera hori apurtu zuen. Gatazka betean, 1937ko urtarrilaren 1ean, Eusko Jaurlaritzak euskarazko lehen egunkaria martxan jarri zuen, *Eguna*, *Ziarsolo* kazetariaren eta *Agustín Zubikarai* idazle gaztearen gidaritzapean. Matxinatutako soldaduak Bilbora sartzean, *Eguna* desagertu egin zen. Zenbait hilabete geroago, Burgosko Gobernuak euskaraz mintzatu eta idaztea debekatu zuen.

1946an, Donostiako *El Diario Vasco*, garai hartan *José Berruezok* zuzendua, bere orrialdeetan Axularren hizkuntza berreskuratzen ahalegindu zen, baina Prentsaren Zuzendaritza Nagusiak baimena ukatu zuen.




Hamarkadaren amaieran, Fernando Artola *Bondarik* euskarazko lehen atala zabaldu zuen, erregulariki ez bazen ere, eta horri baseritarrei eta igandeko ebanjelioaren iruzkinari eskainitako astean behingo orrialde bat gaineratu zion. 1966aren amaieran, Donostiako egunkariak euskarazko bere lehen editoriala argitaratu zuen.

#### ● NORMALTZE BIDEAN

1977an *Deia* eta *Egin* atera izanaren ondorio nabarmenetako bat euskararen agerpena izan zen egunkarietako orrialdeetan, informazio politiko, kultural eta sozialaren euskarri moduan, 40 urtez baztertua egon ostean. Egunkari nazionalistek orduan martxan zeuden aldizkari euskaldunetatik kolaboratzaile eta erredaktoreak erakarri zituzten, eta horiek euskaraz estilo propio bat sortzea animatu zituzten. Denboraren joanarekin, gaur onartu beharra dago *Deia* eta *Egin*en elebitasunak –garai hartan lehiakideek kontuan hartu ez zutena, ez ikusiarena eginenez, eta zenbait euskaltzale zorroztzegik nahikoa ez zelakoan kritikatu– euskal prentsan euskara normaltzearen alde egin zuela. Euskal prentsak euskarazko egunkari lebakar bat izan du, **Euskaldunon Egunkaria**, itxi zuten arte hedapen dezentekoa. Egunkaria ixtean, langileek beste egunkari bat martxan jarri zuten, **Egunero** izenekoa, egunkari berri bat sortzea deliberatu artekoa. Azkenean, 2003ko ekainaren 21ean **Berria** atera zen.



# ZIBERKAZETARITZA



## KAZETARITZA ELEKTRONIKOA, TELEMATIKOA, DIGITALA, LINEAN, INTERNETEZ...

izen ezberdinak fenomeno berarentzat: multimedia informazioa ziberespazioan. Ziberkazetaritza. Aldaketak abiada zorabiagarrian datozen arren, gaur sarean dagoen kazetaritzak zerikusi handiagoa du tinta eta beso-erdiarekin etorkizuneko komunikabide interaktibo, multimedia eta hipertextualekin baino. Etorkizunean, ziberinformazioaren negozioak zuzenean ekoizpen elektronikoa espezializatutako unitateen esku egongo da, horiek dutelarik lineako kazetaritzak eskaintzen dituen abantaileri (informazio azkarra, hedapen globala, kostuen murrizketa, informazio eta zerbitzuen gune bat osatzea) ahalik eta etekin handiena ateratzeko ahalmena.

### ■ BILAKAERA TEKNIKO BATEN MUGARRIAK

Kazetaritza elektronikoa, telematikoa, digitala, linean, Internetez... izen ezberdinak fenomeno berarentzat: multimedia informazioa ziberespazioan. Ziberkazetaritza.

Pantaila elektronikoa laurogeiko hamarkadaren hasieran sartu zen egunkarietako erredakzioetan, idazmakinak bazter utzi zirenean, testu-prozesaketako eta orrialde-diseinuko sistema informatiko baten mesedetan.

Hurrengo urratsa, erabakigarria, hamarkada bat geroago emango da, produktua bera, egunkaria alegia, euskarri informatiko gisa egiten denean, CD-ROM bezala edo Internet bidez hedatua izateko, bertsio inprimatuaren osagarri telematikoa moduan.

### ● KAZETARITZA KLASIKOA EUSKARRI FUTURISTETAN

Azken urteetan aldaketak abiada zorabiagarrian datozen arren, kazetaritzatik sortu baina kazetaritzaren kontzeptu tradizioaletik aldentzen den informatzeko modu berri baten historiaurrean gaude oraindik. Diaz Noci irakasleak bere *La escritura digital* aski gomendagarrian adierazten duenez, gaur sarean dagoen kazetaritzak zerikusi handiagoa du tinta eta beso-erdiarekin etorkizuneko komunikabide interaktibo, multimedia eta hipertextualekin baino.

Prensa Interneten		
	Bisitak eguneko	Orrialdeen batezbestekoa bisitako
El Mundo**	564.281	7,77
El País***	440.720	8,64
El Correo*	26.030	10,74
El Diario Vasco*	12.906	8,30
Diario de Navarra*	8.815	7,28

\* 2002ko abenduko OJDaren datuak, \*\* 2002ko azaroko OJDaren datuak 2002, \*  
\*\* 2002ko otsaileko OJDaren datuak

Egoera hori azaltzeko lau arrazoi daude: **lehen arrazoa**, erreferentziako eredu baten falta (ezein komunikabide jaioberriren sortzetiko muga); **bigarren arrazoa**, etxeko ekipamenduen muga teknikoak, segundo batzuetan bereizmen txikiko testu

eta irudiak deskargatzeko baino gai ez direnak; **hirugarren arrazoa**, komunikabideen jabetza, gaur egun esku berdineta daudenak, hau da, egunkari inprimatuaren argitaratzaileenetan, horiek egunkarietan jasotako informazioa Interneten jartzera mugatzen direlako; eta **laugarren**

**arrazoa**, kazetari eta profesionalen inertzia bera, gehienak ziberinformazioaren berezko eskakizunetara gutxi egokituta baitaude.

Ondorioz, gaur egun Interneteko egunkariak zabaltzen ditugunean, inprimatutako produktuaren erreproduktzioa ikusten dugu, inprimatua izatea eskatzen duen paper bat pantailan jarria. Hots, egunkari elektronikoa bat.

### ● EKOIZPEN ETA ERABILERA ELEKTRONIKOAREN ERRONKA

Gaur egun komunikabide elektronikoa komunikabide arruntan esku berdineta badaude, eta beraz egiazko lehiarik ez badago, badirudi etorkizunean ziberinformazioaren negozioak zuzenean ekoizpen elektronikoa espezializatutako unitateen esku egongo dela, horiek dutelarik lineako kazetaritzak eskaintzen dituen abantaileri (informazio azkarra, hedapen globala, kostuen murrizketa, informazio eta zerbitzuen gune bat osatzea) ahalik eta etekin handiena ateratzeko ahalmena.

### ● PRENTSAKO KAZETARITZAREN HERIOTZA?

Horrek zer esan nahi du, berriak hedatzeko modu berriek paperezko prentsa tradizionalari tokia kenduko diola, edo hura zaharkituta utziko dutela? Ez









dirudi kioskoetako egunkariaren etorkizuna arriskuan dagoenik. Hala ere, zalantzarik gabe aldatu egingo dute, garai batean irriatiak eta telebistak paperari zirrara sorrarazteko ahalmena kendu zioten bezala, ikus-entzunezko komunikabideen berehalakotasun handiagoa medio.

Sareak kazetaritza idatziari bizkor tasun handiagoa emango dio, orain gertaeren berri gertatu ahala eman ahal baita; alabaina, kazetaritza idatziak orain arte izan duen abantaila nagusia gal dezake: hausnarketa lasaia, azterketa eta sakontasuna.

■ EUSKARRI BERRIAREN EZAUGARRIAK

● «EGUNKARIA»REN AMAIERA

Aukera berri eta orain arte ezezagunak eskaintzen dituen informazio tresna berri bat daukagu, *egunkari* izena egokitzen ez zaiona, eta aldizkako argitalpena ere ez dena (izan ere, berriak ez dira ez egunero ez aldizka bertitzen, etengabe baizik, gertakizunak jazo ahala). Euskarri horrek munduko edozein lekutan edozein unetan pilatutako informazio guztia eskuratzea

ahalbidetzen digu. **Aldizkakotasunaren haustura** deitutakoa da.

● MULTIMEDIA INFORMAZIOA

Ziberespazioan egindako kazetaritzaren beste ezaugarri bat bere **multimedia** izaera da. Kazetaritza tradizionalarekin testua eta irudi grafikoak ditu komunean, baina horri soinua, irudi mugikorak, datu-baseak, norberak egikaritzen dituen programak eta osagai interaktiboak gaineratzen dizkio.

● INFORMAZIO HAUTATUA

Diskurtso digitalaren berezitasun nagusia **getaera-segidaren haustura** da, hipertestu (testu aukerak) eta hipermedia (informazio testual, grafikoa eta soinuzkoaren aukerak) loturen bidez.

Komunikabide digital oro, definizioz, **interaktiboa** da, eta horrela mass-mediaren norabide bakarreko diskurtsoa gainditzen du. Orain irakurleak posible du aukerak hartzea, hautatzea eta elkarriketaren jardutea. Apur bat urrunago, *kartako* kazetaritza bat bistaratu ahal da, irakurleari bere terminalean bere interesei egokitzen zaizkion berriak

bakarrik izango dituen egunkari bat jasotzeko aukera emango diona.

■ GAUR EGUNGO EGOERA

Internetz edizio bat argitaratzen lehena Kataluniako *Avui* egunkaria izan zen, 1995eko apirilaren 1ean, eta segidan etorri ziren *El Periódico de Catalunya* eta *La Vanguardia*.

Kataluniatik kanpo, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariak estatu mailako komunikabide guztiei aurre hartu zien, eta 1995eko urte berean euskal prentsa digitalari hasiera eman zion.

Estatu mailan, lehen komunikabide erabat elektronikoa, *La Estrella Digital*, Bilbao Bizkaia Kutzarekin elkartu zen, 2001eko urtarrilean **Euskadi Digital** sortzeko. Bi urte bete gabe zituela itxi zen, galera ekonomiko handiak metatu ondoren. Egunkari hura desagertu eta gero, euskal kazetaritza telematikoa kioskoetako egunkariaren mende egongo da, eskualde mailako zenbait komunikabide salbu, hala nola **Uribe Kosta Digitala** edo **Bilbao Información**.

XXI. mendearen hasieran, egunkarietako web orriak

ziberespazioa bisitatuenetakoak dira.

■ ZIBERKAZETARITZA ORDAINDUA

Gaur egun, ez dirudi egunkaria doan eta etxetik irten gabe irakurtzeko aukera paperezko euskarriaren lehiakide handia denik. Prentsa lineari irakurtzeak, oraingoz behintzat, desabantaila handiak ditu: kargatzeko hutsarteak, hartzearen kostua, mugikortasunik eza, irakurketaren individualizazioa... Horregatik, paperezko egunkarietako irakurleek batez beste 35 minutuz irakurtzen duten bitartean, egunkari elektronikoen bisitariak 13 eta 15 minutu bitartean erabiltzen dituzte.

Eragozpenak gorabehera, 2002aren amaieran *Diario de Navarra*, *El País*, *ABC*, *El Mundo* edo *Expansión* bezalako komunikabideek doakotasuna kentzea erabaki zuten, sareko edukietan sartzeko tarifak ezarri. Badirudi Espainiako komunikabide nagusiek erabaki horrekin, ziberkazaritzaren etorkizunaren alde egin baino, papera pantailak eragin diezaiokeen higaduratik babestu nahi dutela.



Ignacio Diaz Olanoren  
«La descarriada» koadroren xebetasuna.

Ignacio Diaz Olanoren  
«Vendedora de frutas» koadroaren zatia.


ANTONIO TRUEBA, MIGUEL DE UNAMUNO, KIRIKIÑO, FRANCISCO GRANDMONTAGNE, JOSÉ M<sup>a</sup> SALAVERRÍA, RAMIRO DE MAEZTU, AURELIANO LÓPEZ BECERRA «DESPERDICIOS», INDALECIO PRIETO, RAIMUNDO GARCÍA «GARCILASO», PEDRO MOURLANE MICHELENA, MANUEL AZNAR, RAFAEL SÁNCHEZ MAZAS, JOSÉ M<sup>a</sup> AGIRRE «LIZARDI», ESTEBAN URKIAGA «LAUAXETA», JOSÉ DE ARTECHE, MANUEL LEGUINECHE ETA MANUEL HIDALGO.

■ ANTONIO TRUEBA  
(1819-1889)

Euskal kazetarien lehen belaunaldian, Antonio Truebak, «Antón el de los Cantares» ezizenez, begirune berezia merezi du ofizioaren patriarka gisa, bere idazkiak, mende bat baino gehiago igaro den honetan, negartiak eta melengak iruditzen arren, bigarren mailako erromantizismoaren estilo jori eta apainegian. XIX. mendearen erdialdetik, Madrila joandako bizkaitarraren idazkerak ospea lortu zuen hiriburuko aldizkari eta egunkarietan argitaratutako poesia, ipuin eta artikuluetatik. 1876tik hil zen arte, «Probintziako Aita» deitutako ezin konta ahala lan argitaratu zuen *El Noticiero Bilbaino*ko orrialdeetan, zeinaren literatur ataleko zuzendari izan baitzen.



Antonio de Trueba.  
Artetaren erretratua.



Migel Unamuno.  
Juan Echevarriaren erretratua.

gatasketan sakontzeko, saiakerak aurkeztu, paisaiak deskribatu eta gizarteko kronikak egiteko euskarri aproposa zela uste zuen, beti ere ikuspegi «unamuniar» batetik, hau da, bitxia. Horrek nagusitzen hasi zen korrontearen kontra igeri egitera eraman zuen.

■ KIRIKIÑO (1866-1929)

*Euzkadi* aldizkari «Euskal Aitola» izenekoaren lehen zuzendaria *Kirikiño* izan zen, Evaristo Bustinzaren ezizena. *Ibaizabal* aldizkarian Resurrección Marfa de Azkueren kolaboratzaile izana, 1913an lanleku zuen meatzaritza-enpresa utzi eta letrei buru-belarri ekin zien. *Euzkadi* aldizkarietik, garai hartako egunkari garrantzitsuenetako bat, euskararen garbitasuna defendatzen zuen korronte arantaren buru jarri zen. *Euzkadi* eta *Eusko Deyan* artikulua, ipuinak eta kronikak idatzi zituen, batik bat euskaraz baina baita gazteleraz ere.

■ MIGUEL DE UNAMUNO  
(1864-1936)

Adiera hertsian euskal kazetaritzako profesionalen artean sartzea guztiz egokia ez bada ere, ezin da ahaztu Unamuno mende arteko Espainiako prentsaren artikulugile garrantzitsuenetako bat izan zela. 1880an *El Noticiero Bilbaino* bere lehen artikulua, «La unión hace la fuerza» izenburukoa, argitaratu zuenetik, Unamunoren obraren zati dezentte bat jatorrian prentsarentzat idatzia izan zen. Izan ere, pentsaera adierazteko eta arimaren

Evaristo Bustinza «Kirikiño».  
1866-1929.



Francisco Grandmontagne.



■ FRANCISCO GRANDMONTAGNE  
(1866-1936)

Azorínek, Machadok, Varelak, Gómez de la Sernak edo Azañak, besteak beste, Francisco Grandmontagne Otaegui 98ko euren belaunaldiko kazetari onenetakoa bezala goraiatu zuten. Emakume gipuzkoar baten eta iparraldeko olagizon baten semea, Barbadillon (Burgos) jaio

arren, haurtzaroaren zati bat Hondarrribian igaro zuen, Claudio de Otaegui bere osabaren babespean, zeinaren eskutik Luis Luciano Bonaparte printzea eta Victor Hugo ezagutu baitzituen. Mugako herrian pasa zituen egunen eraginez hartu zuen bere lehen ezizena: *Luis de Jaizquibel*.

20 urterekin Argentinara joan zen, eta han, 1893an, *La Vasconia* sortuko zuen, Plata ibaiaren ertzean bizi zen euskaldunen kolonia ugariari zuzendua. Orrialde horietan Atlantikoaren bi aldeetako kideen estimazioa erakarri zuten hainbat artikulua argitaratu zituen. 1903an Donostiara joan zen bizitzera, eta Espainiako (*El Sol*, *El Pueblo Vasco*) zein Amerikako (Buenos Airesko *La Prensa*) prentsako egunkari nagusietan kolaboratzaile arituko da. 1936ko uztailaren 10ean hil zen, 69 urterekin.

■ JOSÉ MA<sup>A</sup> SALAVERRÍA  
(1873-1940)

98ko Belaunaldiko kidea, nobelagilea, literatur kritiken eta saiakeren egilea, artikulugintza bizibide egin zuen. Haren iritziz, «bizitza modernoan, artikulua oso baliagarria da, batez ere gurea bezalako herri batean, non jendeak ez baitu liburuak irakurtzeko joerarik».

Bustoa hiriko Udaletxeari begira duen adopziozko kazetari donostiarraren orrialde onenetako batzuk Donostiako *El Pueblo Vasco* eta *La Voz de España*, Madrilgo *ABC*, Bartzelonako *La Vanguardia* eta Buenos Airesko *La Nación* egunkariak argitaratu zituzten.

■ RAMIRO DE MAEZTU  
(1874-1936)

Aita euskaldun eta ama ingeleseko gasteiztarra, bidaiari eta enbaxadorea, itzal handiko intelektuala eta jakintsu handiko garai batean (XX. mendeko lehen herena) jakintsu handienetako bat. Prentsan lehen urratsak Bilbon eman zituen, Paris, Kuba eta Ipar Amerikako bere bidaietatik itzuli ondoren. Azorín eta Barojarekin «Los tres» taldea sortu zuen, 98ko Belaunaldia izango zenaren hazia, non kazetaritzako literaturari egin zion ekarpenagatik nabarmendu baitzen. 1905 eta 1919 bitartean Londresen bizi izan zen, Espainiako eta Buenos Airesko egunkarien korrespondentia moduan, aliatuen lubakietatik I. Mundu Gerraren berri emanez.

Gazte denborako grina anarkistatik jarrera erabat kontserbadoreetara lerratu zuen, eta aldi berean karrera diplomatikoa hasi zuen, Primo de Riveraren Argentinako ordezkari gisa, eta 1933an politikan sartu zen, Acción Española alderdi monarkikoaren Gipuzkoako diputatu bezala. Hurrengo urtean



Jose Maria Salaberria.



Ramiro Maeztu.  
Gustavo de Maezturen erretratua.



Aurelio López Becerra.

Indalezio Prieto.



Rafael Sánchez Mazas.



Donostiako *El Diario Vascon* sorreran parte hartu zuen. Gerra Zibilararen lehen egunetan hil zen, asasinatua.

■ AURELIANO  
LÓPEZ BECERRA,  
«DESPERDICIOS»  
(1880-1955)

Aureliano López Becerrak, Juan de la Cruz Elizondo eta Pedro Murlanerekin batera, gerra aurreko kazetaritza irundarraren hinukote ospetsua osatu zuen. Irunen jaio zen, eta aita aduanako langilea zuen. Bilbon Injineritza ikasten ari zela, egunkari txiki batean lan egin zuen, *La Cruz*, eta tintak eta plomuek ezinbestean erakarritu eskuaira eta kartaboia utzi zituen. 20 urterekin *La Gaceta del Norte*n hasi zen, eta 74 urte zituen arte han jarraitu zuen. Zezen kronikekin eta umorezko orrialde atsegingarriekin nabarmendu zen, zenbait antologia liburuetan jasota daudenak. Saiz de Valdivielso «teknikaren eta lanketaren iraultzaile bat» bezala definitu du «Desperdicios».

■ INDALECIO PRIETO  
(1883-1962)

8 urterekin egunkariak saltzen zituen Bilboko kaleetan, 15ekin *Lucha de clases* aldizkarian zintak itsasten eta fardelak lotzen zituen, 16ekin *La Voz de Vizcaya*n sartu zen erredaktore takigrafo bezala, eta 18 urterekin *El Liberak*ko erredakzioan hasi zen. Hain zuzen ere, egunkariak bere jarduera politikoa abiaraziko du, eta denboraren joanarekin, gainera, haren zuzendari eta jabe bihurtuko da. Arrazoiketari eta polemista aski trebea, Prietok prosa argi eta zuzena erabiltzen zuen, heziketa apaleko irakurleei zuzendua, eta ezaugarri horiei esker bere garaiko kazetari estimatuenetako bat bilakatu zen. II. Errepublikan zenbait ministerioetan buru izan ostean, Gerra Zibilararen amaieran erbestera, Mexikora, joan zen, eta han zendu artean prentsako kolaboratzaile gisa jarraitu zuen.

■ RAIMUNDO GARCÍA,  
«GARCILASO»  
(1884-1962)

*La Gaceta del Norte*ren historia «Desperdicios»en bizitza eta kazetaritza lotuta dagoen bezala, *Diario de Navarra*ren eta mende ediz haren zuzendari izandako Raimundo García García, *Garcilasoren* biografiak are lotuago daude. Madrilen jaioa, 18 urterekin Iruñera joan zen *El Eco de Navarra*ren aprendiz aritzera, eta 27 urterekin *Diario*a pasa zen, non igoera oso bizkor batek urtebetean zuzendaritzara eraman

baitzuen, Marokoko gerran kronista izan zen, eta horregatik probintziak «Nafarroako adopziozko seme» izendatu zuen. 1933 eta 1936an Gortetako diputatu akta irabazi zuen eskuineko blokeko independente gisa, eta bitarteko zibil moduan 1936ko uztailaren 18ko Mola jeneralaren altxamendua bueltatu zuen. Francok Isabel Katolikoaren Enkomendia eman zion, eta Juan XXIII.a Aita Santuak San Silvestreko Ordenaren Zaldun Komendadore izendatu zuen.

*Garcilasok* zorrotz islatu zituen egunkariaren joera politiko gorabeheratsuak, hasierako maurismotik gerraosteko frankismora, eta fozuzetasun erreakzionarioa tarteko, egun batean hutsik egin gabe, eta hainbat ezizen erabiliz – «Amezitia», «El Bordari», «Mikelo» edo «Juan de la Rochapea», besteak beste – argitaratzen zituen testuetan. Enpresaren ikuspegitik, *Diario de Navarra* egunkari errentagarria bihurtu zuen, Nafarroan nagusi zena.



Mourlane Mixelena.

#### ■ PEDRO MOURLANE MICHELENA (1885-1955)

«Bidasoako zisnea, dandy, buhame, mosketari eguneratua, ilaje bikain eta janzkera dotorekoa, txanbergoa eta txalina soinean. Eruditua, metaforikoa, hizlari nekaezina, hanpatu eta tentea, dogmatikoa eta goranahien madarikatzailea». Alfonso Carlos Sainz de Valvidielsok, Pedro Mourlane Michelenari buruz egin duen deskribapen xehetuetan, *El arte de repensar* lanaren egilearen nortasun paregabea iradokitzen du, baina ez du inundarrak idazle moduan zuten talentu berezia jasotzen. Izan ere, Primo de Riveraren Falangeak letra onen harrotasuna bazuen, Mourlane, zalantzarik gabe, literato nabarmenetakoa izan zen.

Adiskide min izan zuen Indalecio Prietori esker dakigu Mourlaneren herritartasuna frantsesa zela, baina urtetan lur errepublikarra zapaltzea ekidin zuen, han soldaduska egitera behartzen baitzuten. Valladolideko Unibertsitatean letrak eta historia ikasi ondoren, kazetaritza profesionala hartu zuen ogibide. 1910ean Bilboko *El Pueblo Vasco*ren lehen erredakzioa osatu zuen. Orduz geroztik, poesia eta arteari buruzko bere artikulu bikainek *Novedades*, *Hermes*, *Vida Vasca*, *Esfera* edo *El Bidasoa* bezalako aldizkarien orrialdeak tintaz bete zituzten. Azken aldizkari hori Irunen argitaratzen zen, non Pedro kronista ofiziala baitzen. Testu haietako batzuk bere lehen liburuan jaso ziren, *Discurso de las armas y las letras*, I. Mundu Gerraren ingurukoa, eta kazetaria aliatuen aldeko agertu



Jose Mª Agirre «Lizardi».



Esteban Urkiaga «Lauxeta».

zen. Bere pentsaera askea prosa jaso eta eruditu, landu eta arin, zenbaitetan borondatez dekadentean adierazten zuen. Estimazio berberaz hartzen zuten Boulevardeko kafetegiko liberalen tertulian eta Lyon d'Or kafetegiko erreakzionarioenean.

Primo de Riveraren diktadura betean, Bilbon *La Noberen* zuzendari izan zen, joera kultural eta intelektualeko egunkaria, Madrilgo *El Soken* tankeran. «Egunkari monarkiko, liberal, aristokrata moduko, barrako, pixka bat voltairezale eta kalitate handiko» (Saiz Valdivieso) hark ekonomikoki porrot egin zuen. 1926 eta 1931 bitartean Prietoren *El Liberal* ere zuzendu zuen. Errepublikak heldu zenean, jada Madrilan, José Antonioren taldera hurbilduko da, eta beste euskaldun batzuekin, hala nola Jacinto Miquelarena, Juan Tellería edo Rafael Sánchez Mazas «bilbainista», Espainiako Falangearen oinarri estetiko eta literarioa eratzen lagunduko du. Gerran zehar *Vértice* aldizkarian idatziko du, eta Arriba egunkaria sortuko, zeinaren zuzendari izatera iritsiko baita. Madrilgo Prentsa Elkarteke lehendakariorde izan zen, eta erregimen frankistak zenbait sari eman zizkion.

#### ■ MANUEL AZNAR (1894-1975)

18 urte eskas zituela hasi zen kazetaritzan, *La Tradición Navarra* egunkari integristan. Gero Bilbora joan zen bizitzera, eta han *Euzkadi* egunkari nazionalistan aritu zen, «izendegi aranistatik» hartutako «Imanol» ezizenaz.

Nazionalismoaren sektore erradikaleko kide, bere sumin antiespainiarra prentsan nahiz teatroan islatu zituen. I. Mundu Gerrako kronista moduan «Gudalgai» ezizenaz sinatzen zituen bere analisi militar zoliengatik nabarmendu zen.

Gerra amaitzean, Madrilan *El Soleko* zuzendari izan zen, eta II. Errepublikan itzuli egingo zen, hainbesteko arrakastaz ezen estatuko egunkari itzaltsuenetakoa bat bihurtu baitzuen. Gerra Zibilean matxinatuaren aldeko kronika militarrik idatzi zituen, eta «La España de hoy» artikulu bilduman erregimen berriaren bikaintasuna goratu zuen, horri esker Francisco Franco Kazetaritzako Sari Nazionala irabazi zuelarik.

Hainbat komunikabidetan – Donostiako *El Diario Vasco* kasu – zuzendari ibili ostean, karrera diplomatikoan sartu zen, zenbait herrialde amerikarrerako enbaxadore gisa. 1954 eta 1962 bitartean kazetaritzan aritu zen ostera, EFE Agentziako eta Bartzelonako *La Vanguardia* egunkariko zuzendari bezala.



■ RAFAEL SÁNCHEZ MAZAS (1894-1966)

Madrilen jaioa baina Bilboko familia batekoa, bere obrak beti Bilbo izan zuen erreferente, non jesulagunekin zuzenbidea ikasi baitzuen. *Hermes* aldizkariaren, Lyon d'Or kafetegiko tertuliaren eta Escuela Romana del Pirineo zenaren inguruan bildutako intelektual taldeko kide izan zen.

1917tik aurrera, hiru egunkari handiren bitartez nabarmendu zen kazetaritzan: Madrilgo *El Sol* eta *ABC*, eta Bilboko *El Pueblo Vasco*. Azken horrek gerrako korrespondentsal moduan Marokora bidali zuen, eta *ABC*rentzat, berriz, faxismoaren gorakada eta nagusitasunaren berri eman zuen Erromatik (1922-1929). Espainiara itzultzean, Espainiako Falangearen jaiotzan eta eraketa erretorikoan lagundu zuen. Gerra ondoren, hainbat pribilegioz gozatu zen, erregimenean eragin handia zuen pertsona ospetsu bezala. Bere obran, gehienbat sakabanatua, kazetaritzako lan ugari daude, maisutasun handikoak eta artikulugintza literarioko eredu gisa estimazioa dutenak.

■ XABIER LIZARDI (1896-1933)

José Mari Agirre Egañaren ezizena. Lengoia poetiko modernoaren sortzaile handia. Idazle biribila, antzerkirako lanak egin eta itzuli zituen, eta poeta aparta bezala gailendu zen, nahiz eta kazetaritza izan ospe handiena eman ziona. 1927 eta 1933 bitartean kultura, literatura eta politikari buruzko ehun artikulua baino gehiago (*Itz Lauz* antologian jasoak) argitaratu zituen.

Lizardi euskara landu, jaso eta praktikoa bat moldatzeari lotu zitzaion. Artikulu batzuk prosa dotore eta zuzenaz egiten zituen, eta beste batzuk eguneroko hizkeraren xumetasunaz. *Argia* astekaria abiapuntu harturik, 1929an erabat euskarazko lehen egunkaria sortzea proposatu zuen, baina azkenean asmo hura ez zen beste. Heriotza goiztiarrak bere ametsa egikarrituta ikustea galarazi zion, 1937an *Eguna* agertu zenean.

■ LAUAXETA (1905-1937)

Hazi zen Mungiako baserritik hartu zuen Esteban Urkiagak bere kazetaritzako ezizena: Lauaxeta. Jesulagunekin hezi zen eta nobiziatua hasi zuen, hura 1928an utziz, politikari, kazetaritza eta hezkuntzaren sustapenari heltzeko. *Euzkadi* astekari nazionalistarekiko kolaborazioak areagotuz joan ziren, eta 1931n euskararen atala beregain hartu zuen, garai hartan hizkuntzaren aldetik zalantzarik gabe euskal prentsaren orrialde

garrantzitsuenak. Aldizkarian iritzi-testuak hartu eta eguneroko gaiak, kulturalak eta artistikoak sartu zituen. Lauaxeta etorkizun oparoko euskal letren izen adierazgarrienetako bat zen, baina gerrak bortizki eraman zuen.

■ JOSE ARTETXE (1906-1973)

Irakurle gipuzkoarren hirurogei eta hirurogeita hamarrekoko hamarkadetako artikulugilerik maiteena, José de Arcechek ofizioa bere kabuz ikasi zuen, eta 21 urte

zituen arte ez zen idazten hasi. Bere lehen bokazioa pintura izan zen, eta lantegi horretan xehetasunak, itzalak eta profil argiak zituen gogoko. Kazetaritzako bere ibilbide luzean hainbat alderdi jorratu zituen, hala nola saiokak, sakonak eta humanismo indartsu bat zeriena, pertsona, paisaia eta gertaeren deskribapena, gaztelera eta euskara erraztasun berberaz erabiliz. Azken hizkuntza horretan, irakurle ugari erakarri zituen apaingarririk gabeko estilo apala baliatzen zuen. *La Voz de España* eta *Hoja del Lunes*



Jose Artetxe.



Manu Leguinetxe.



Manuel Hidalgo.

egunkarietan eta *Zeruko Argia* astekarian idatzi zuen, besteak beste.

■ MANUEL LEGINETXE (1941)


XX. mendeko kazetaritza espainiarreko izen handienetako bat, bere lantegian maisu erabatekoa. Deustuan zuzenbidea ikasi zuen, eta ikasketak Frantzian osatu zituen. Gerra eta bakean, koroatze eta estatu-kolpeen lekuko izan da. Colpisa, Lid eta Fax Press agentzietako zuzendari, hainbat egunkarietan aritu da, besteak beste *La Gaceta del Norte* eta *El Diario Vascon*. Espainian kazetari baten amets litzekien sari guztiak (Kazetaritzako Sari Nazionala 1979an, Urrezko Luma, Cirilo Rodríguez, Godó, Julio Camba, Ortega y Gasset...) jaso dituen arren, bere lanak ez duela asebetetzen dio: «Toki batera joaten zara, drama izugarri bat bizitzen duzu, eta azkenean, espazio faltagatik, zure kronika murrizten dute. Kazetaritzan, 300 hitz baino gehiago idazten dituen nobelagile bat da. Etorkizunean gutxiago idatzi eta gauzak gehiago zainduko ditut».

Akaso Manuk berak ere ez du jakingo bere berrogei urteko lanbidean zenbat liburu argitaratu dituen. Liburu horiek, beraentzat, «kazetaritzaren luzapen bat» dira.

■ MANUEL HIDALGO (1953)

Bere jaioterrian, Iruñean, hezitako kazetaria, Manuel Hidalgo azken urteetan zutabegile bikain moduan agertu zaigu *El Mundo del Siglo XXI* egunkarian (zeinaren Iritzi saileko alboko zuzendaria baita) eta hainbat gaurkotasan-aldizkarietan. Aurretik *Diario 16en* aritu zen zinemako kritikari bezala, eta 1986 eta 1988 bitartean telebistako programak aurkeztu zituen. Artikulugile gisa duen estiloa eta kalitatea bi antologiatan ikus daiteke: *Sobre Daniel y otras cosas de menos importancia* (1998) eta *El cutis de las monjas* (2002). 1999an, Fundación Institución Española (FIES) delakoak X. Kazetaritzako Saria eman zion. Manuel Hidalgorentzat, artikulua moldatzeko sekretua ideia bat labur garatu eta hura amaiera egoki batekin errematatzeko gaitasunean datza, irakurleak erakarriko dituen izenburu bat jaitzeaz gain.

Zinemari buruzko zenbait liburu eta sei nobela argitaratu ditu, eta filmetako gidoigilea da. Hain zuzen ere, 1988ko *La mujer del prójimo* filmarekin Colón de Oro saria irabazi zuen Huelvako Zinemaldian.



# ALDIZKARIAK

*Juan Aguirre Sorondo*

DE  
HOLLANDSCHE  
REVUE

v. Caspel



# EUSKAL KULTURA



GAUR EGUN, ALDIZKARIAREN KONTZEPTU TRADIZIONALA SAKONEAN BERRAZTERTZEN ARI DA. Seguruenik urte batzuk barru aldizkariak paperean ez dira inprimatuko, eta molde elektronikoan bakarrik banatuko dira. Trantsizioaldi honetan, bi garaien arteko uanean, egokia dirudi Euskal Herriko aldizkariaren egoera zein izan den eta zein den gainbegiratzeak aniztasunak lantegi hau biziki eragozten duela jabeturik. Aldizkariak aurkezterakoan egindako sailkapena zorizko samarra da, baina aldizkari bakoitzaren edukien aniztasunak egituraketa zurrumagoak egitea galarazten du. Nolanahi ere, aurkezpen honekin argitalpenen mundu zabal horretara hurbiltzeko aukera izango dugu.

## ■ AURKEZPENA

Azken urteetan, informazio idatzia industria aldaketa sakon bat jasaten ari da, bi gertakizunen ondorioz; bata, ekonomikoa: enpresen kontzentrazioa; eta bestea, teknologikoa: edizioaren teknologia merkatzea eta, aldi berean, paperik gabeko transmisio euskarri berriak garatzea.

Kontzentrazioa begi-bistakoa zaio kioskora hurbildu eta salgai dauden aldizkariaren erdia baino gehiago dozena bat argitalpen taldek ateratzen dituztela egiaztatzen duen edonori. Eskaintza zabala eta anitza da, bai, baina lehia itxurazkoa baino ez da, ekimen pribatu txikiak nahikoa irakurle erakarri eta horrela biziraupena bermatzeko aukera oso murriztak dituzten merkatu batean.

Euskal kulturaren esparnua, gauzak ez dira oso ezberdinak. Korporazio handiek (Grupo Correo, Sud Ouest, Diario de Navarra) hedapen handiko aldizkariak dituzte merkatu nazionalan: ekonomikoak, aisialdiko eta bidaletakoak, informazio orokorrekoak.

Beheragoko maila batean, urteen joanarekin eremu espezializatuetan aldizkariak sendo ezarri dituzten zenbait argitaletxe daude.

Sailkapen honetako hirugarren taldea osatzen dute kioskoko merkatuaren borroka desorekatuan parte hartzeari uko egiten dioten eta irakurlearekiko harreman zuzen eta hurbilago bat nahi duten elkarte, asoziazio eta «frankotiratzaileek» sustatutako



hainbat aldizkari. Talde aparteko bat osatzen dute bestela bizirauterik ezingo luketen sektore publikoak bultzatutako argitalpenek: zientifikoak, kulturalak, euskarazkoak, eta abar.

Gaur egun, aldizkariaren kontzeptu tradizionala sakonean berraztertzen ari da. Seguruenik urte batzuk barru aldizkariak paperean ez dira inprimatuko, eta molde elektronikoan bakarrik banatuko dira. Alternatiba horrek, gastu ekonomikoa (eta baita ekologikoa ere) arintzeaz gain, aldizkariaren argitarapena demokratizatzea eta horien moldeak aniztea posible egingo du, eta aldi sortzaile berriker gero eta zabalagoa den eremu bat aberastea ahalbidetuko du.

Trantsizioaldi honetan, bi garaien arteko uanean, egokia dirudi Euskal Herriko aldizkariaren egoera zein izan den eta zein den gainbegiratzeak, aniztasunak lantegi hau biziki eragozten duela jabeturik.

## ■ AITZINDARIAK, XIX. MENDEA

II. Karlistada amaitzean, Euskal Autonomi Elkarteak eta Nafarroako erauk murriztu ziren, erreinuarren «batastun konstituzionalaren» mesedetan. Ondorio gisa, kontzientzia euskaltzalea piztuko da, eta hainbat argitalpen agertuko dira, zeintzuen bidez bertako *intelligentsiak* «herri honi dagokion orotan hedatzen diren errakuntza ikaragarriak» —Fermin

Herranek adierazi moduan, **Revista de las Provincias Euskaras** fundatu zuenean— aurre egin nahi baitzien.


Horrenbestez, mendaren azken bi hamarkadetan ezin konta ahala aldizkari euskaltzale sortuko dira, eta horien bidez euskal ikasketak berpiztuko dira: Iruñean Arturo Kanpionen **Revista Euskara** izango da, Donostian Jose Manterolaren **Euskal Erria**, Gasteizen aipatu **Revista de las Provincias Euskaras**, eta Baionan **Eskualduna**.

Aipatutako guztien artean garrantzitsuena, zalantzarik gabe, **Revista Euskara de Navarra** izan zen. Asociación Euskara de Navarra (Nafarroako Euskal Elkarte) izenekoaren hilabetekaria, bere xedea zen «hizkuntza, literatura eta historia euskal-nafarra mantendu eta hedatzea, legeria ikastea eta herriaren ongizate moral eta materiala bermatzen saiatzea». Aldizkariaren eta Elkartearen atzean Arturo Kanpion Nafarroako euskaltzalearen patriarka zegoen. 1878tik 1883ra sei zenbaki argitaratu ziren, batik batik literatura jorratzen zutenak, euskaraz eta gazteleraz (duela urte batzuk Eusko Ikaskuntzak bilduma osoa berrargitaratu zuen). **Revista Euskara**-k, betiereko ukitu erromantikoaz, etorkizuneko euskal nazionalismoaren nortasun-ikur sinboliko, mitologiko, folkloriko eta historiko-kulturalen ezarpena faboratuko du.

Gasteizen, 1878. urte berean, Fermin Herran abokatua, liberal-foruzaleen Tertulia Vitorianako kide, **Revista de las Provincias Euskaras** sortuko du. Hamaboskariak 1889 arte bere biziraupena segurtatu zuen, Diputazioen laguntzari esker. Iruñea eta Donostiako izenkiek bezala, Gasteizko aldizkaria kolore ugariko magazin bat izango da, non landuko baitira historia, kronikak, artea, kondairak, berriak, bidaiak...

Fermin Herran berak Bilbon zuzendutako **Revista de Vizcaya** hamaboskariak ere (1885-1889) joera kulturazale bera izango du; aldizkarian idatziko dute, besteak beste, Miguel Unamunok, Sabino Aranak, Clarín-ek edo Antonio Truebak.

**Revista Euskara**-ren Donostiako ordezkaria, Jose Manterola folklorista, mugimendu horri lotu zitzaion **Euskal Erria**, **Revista Vascongada**-rekin, herrialde mailako zenbait erakunderen eta Asociación Euskara de Navarra beraren babespean. 1880 eta 1918 bitartean, aldizkariak Euskal Herriko tradizio herrikoiak, historia eta literatura zabaldu zituen, joera foruzaleko pentsamendu politikoaz —«euskalerrriko» deitua izan zena— gaindi. **Euskal Erria**-k irudigile bikain bat izan zuen: Angel Pirala.



## ■ IPARRALDEAN

### ESKUALDUNA

Joera ezberdinekoa baina aurrekoen ahaide da euskal apaizek sortutako Baionako **Eskualduna** «journal basque français» delakoa.

### LE REVEIL BASQUE

Gehienbat euskaraz idatzitako *Le Réveil Basque*-k hedatutako ideia errepublikar berriei aurre eginez, **Eskualduna**-k 1887az geroztik joera katolikoko euskal kulturaren apologia egin zuen.

**Eskualduna** desagertu ondoren, *Le Réveil Basque* aldizkariak nagusitasun osoa izan zuen, eta hainbat urtez Iparraldeko euskarazko komunikabide bakarra izan zen. Francoren estatu-kolpearen alde agertzeaz gain, okupazio garaian jarrera lotsagarria erakutsi zuen, Hitler-en diskurtsoak euskaraz argitaratu zituelarik. Mundu gerra amaitzean, aldizkaria itxi egin zuten.

### HERRIA

Hutsunea betetzeko, 1994an Lafitte Abadeak, Alejandro de la Sota eta Telesforo Monzonen laguntzaz, **Herria** sortu zuen, zeina oraindik ere astero argitaratu ematen baita (eta astean 3.000 ale inguru saltzen ditu). Gai kultural eta politikoak jorratzen ditu, hizkera argi, lau eta laburreraz, irakurle asko erakartzeko egokia.

### EUSKALTZALE

Ez dezagun ahaztu, ordea, osoki euskaraz idatzitako lehen aldizkaria **Euskaltzale** izan zela, Resurreccion M<sup>a</sup> Azkue argitaratua, 1898 eta 1899 bitartean; nolahi ere, gobernuaren aginduz artikulu guztiak itzuli egin behar ziren.

## ■ XX. MENDEKO ALDIZKARIAK

Arturo Kanpionek 1907an Euskal Esnalea Elkar tea sortu zuen, «Gora euskara maitagarria!» ikurriztaz. Hurrengo urtean, Tolosan, **Euskal Esnalea** argitaratzeari ekin zitzaion. Aldizkaria euskal literaturaren komunikabide nagusia bihurtu zen, argitalpenak orotariko gai eta auziak jorratu arren, euskaraz hizkuntza jaso homologagarria bihurtzeko ahaleginetan.

### EUSKAL HERRIAREN ALDE

1911n **Euskal Herriaren Alde** agertu zenean, **Euskal Esnalea** haren

literatur gehigarria bilakatu zen. *Euskalerrriaren Alde* kultura sustatzeko erakunde bat ere izan zen; 1911tik aurrera euskal festa ospetsuak antolatu zituen, eta idazleen belaunaldi berri baten jaiotza bultzatu zuen. 1931n desagertu zen.

#### EUSKERA

Euskaltzaindiak, Oñatiko Eusko Ikasketen I. Biltzararen ondotik sortua, 1920az geroztik bere argitalpen ofiziala editatu zuen: **Euskera**, *Euskaltzaindiaren Lan eta Agiriak*. Urteetan barrena (1936 eta 1953 bitartean geldirik egon zen aldi salbu), aldizkariak euskal hizkuntza eta literaturari buruzko eta erakunde akademiko honi buruzko kontsulta eta ikerketarako behar-beharrezko materialak pilatu ditu.

#### ARGIA

Iparraldeko *Eskualduna* eredu hartuta, 1921ean **Argia** agertu zen Donostian, euskal hiztunei bertako komunikabide bat eskainiz. *Argia*-ren atzean, besteak beste, Gregorio Mujika zegoen, *Euskal Eснаlea* eta *Euskalerrriaren Alde*-ko zuzendari izandakoa. Historialariek adierazi dutenez, *Argia*-k hizkera estandar bat bermatzeko meritua izan zuen, eta horrek irakurleko ugaria ekarri zion, asteen 10.000 ale saltzen zituelarik (garai hartan, *El Liberal* edo *Euzkadi* bezalako egunkari handiek 25.000 ale inguru saltzen zituzten). *Argia*-k, gainera, «hasieratik egiazko mass-media bilakatu zuten orotariko baliabide tipografiko eta grafikoak erabili zituen» (J. Diaz Noci). Gerra Zibilaren aurreko urteetan, *Argia*-k inprimatzeko prozedura modernoak sartu zituen, hala nola kalitate handiko argazkiak erreproduzitzeko errotograbatua, zeinari esker *Life* edo *Paris Match* bezalako aldizkari grafikoan eredura hurbildu baitzen.

#### GURE HERRIA

1921ean inprimatu zen, halaber, **Gure Herria**-ren lehen alea, Baionako izen bereko Elkartearen kultur aldizkaria. Blazy apaizaz gain, bultzatzaile nagusietako bat Ainxuberri izan zen, fundatzaileetako bat, 1925az geroztik zuzendaria eta 1950eko berragerpena posible egin zuena, hamaika urteko isilaldiaren ondoren. 1976an utzi zion argitaratzeari.

#### YAKINTZA

*Euskalerrriaren Alde* eta *Euskal Erria*-ren oinordeko zuzena **Yakintza** izan zen. 1933az geroztik idazle eta irakurleen belaunaldi berri bat jaso zuen, Ariztimuño, «Aitzol» apaizaren gidaritzapean. Nazionalismo sabindarraren hurbileko argitalpena, 21 zenbaki editatu zituen, Gerrak bizitza



erauzi zion arte, zuzendariari erauzi zion moduan.

#### ■ GERRAOSTEA

1939an matxinatuak irabazle suertatu zirelarik, euskal aldizkariak – salbuespen urri batzuk tarteko – galaraziak izan ziren, eta editore gehienek «barne erbestea» jasan zuten edo atzerrira alde egin zuten, beren lanari ostera ekiteko. Erakunde erlijiosoen bitartez baizik ez ziren ernatu, astiro eta herabeki, garai batean oparoa zen kultura euskaldunaren agerraldi berriak: Tolosako aita frantziskotarren **Anaitasuna** 1945az geroztik, Zornotzako karmeldarren **Karmel** 1951z geroztik (**Oleri** bere Euskal poesiaren Koaderno bikainarekin), edo **Jakin**.

#### JAKIN

*Jakin*-ek, 1956az geroztik Arantzazuko frantziskotarrek argitaratutako aldizkari erlijiosoa, 1967an aldi berri bati ekin zion, luze gabe agintari frankistek debekatu zuten arren. Juan Mari Torrealdairen zuzendaritzapean, Jakinek leku itzaltsua har tu du euskal argitalpenaren munduan. Liburu formatuaz eta euskaraz, hiruhilabetekari gisa sortu zen, baina 1989tik aurrera bi hilean behin argitaratzen da.

Bitxikeria gisa, atal honetan **izenbururik gabeko aldizkari bat** aipatuko dugu, argitaratzaileen siglez ezaguna dena: EMBOR (Manuel Eguileor, Bordazale eta Jose M<sup>a</sup> Errazti). Kultur eta politika gaiak jorratu nahi zituen, bai euskaraz bai gazteleraz, eta horrexegatik agintariek debekatu egin zuten. Hala ere, bederatzi zenbaki banatzea lor tu zuten, 1961eko urtarrila eta 1964 bitartean.

#### ● EUSKALDUNTZEA

#### AIZU

Duela hogeitau urte baino gehiagotik AEK-k **Aizu!** *Euskamzko Oinarrizko Aldizkaria* argitaratzen du, euskalduntzea, sustapena eta alfabetatzea helbur u. Batik bat euskara ikasleei zuzendutako hilabetekari bat da, eta informazio orokorra, elkarrizketak zein orotariko erreportajeak eskaintzen ditu. Testuak hobeto ulertzeko hiztegi txiki bat ere eskaintzen du.

#### ZUTABE

1983an **Zutabe** agertu zen, HABE-ren (Euskeraren Hizkuntza Zerbitzua Didaktika) lehen hiztegia. 2001etik **Hizpide** lau hilabetekaria erantsi zaio. Hizkuntza eta bere ikaskuntza ditu gai nagusiak.

## HABE

Bestalde, ikasle helduei zuzendutako hilabetekari bat bada: **Habe**, *Euskeraz ari garenon aldizkaria*. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak 1992az geroztik argitaratzen du denbora-pasako aldizkari hau, zeinak ikasleentzat informazio interesgarria ere eskaintzen baitu.

## EUSKALTZALE

Gure helburua aldizkari guztiak xeheki aipatzea ez delarik, zerrenda labur hau **Euskaltzale**, *Euskaltzaleen Kazeta*-rekin osatuko dugu. Argitalpen horrek euskarak gizartearen esparru ezberdinetan – osasungintzatik unibertsitateara – duen tratamendua aztertzen du.

## ● FOLKLOREA PAPEREAN

### BERTSOLARIYA


Gipuzkoako Errenteria herrian, Xenpelar handiaren jaioterri, bertsolari buruzko euskarazko astekari bat argitaratu zen 1931 eta 1932 urteen bitartean: **Bertsolariya**. 54 zenbaki zabaldu zituen. Berriki, 1991n, lekukoa **Bertsolari** aldizkariak hartu zuen, Zarautzen Bertsozaleak Kultur Taldeak argitaratu eta Joxean Agirre kazetariak zuzendua. Hiri-hilabetekari honek, osoki euskarazkoa eta paperaren kalitatean, diseinuan eta argazkietan itxura zaindukua, bertsolarien alderdi ezezagunenak erakusten ditu, elkarrizketa eta erreportaje gizatiarren bidez.

### TXISTULARI

Euskal folkloerari buruzko argitalpen klasikoa da **Txistulari**. 1918an jada aipatu Eusko Ikasketen I. Biltzarra burutu aurretik, txistua gainbehera betean zegoen. Tradizio musikala galdua zen, eta baita eskulangintzakoa ere. Oñatiko bilera historikoen egindako alarma-oihuaren ondotik, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak (Asociación de Txistularis del País Vasco Navarr) osatu zen, eta horrek txistuaren ernaberritzea posible egin zuen. 1928an, Elkarteak aldizkari bat atera zuen, *Txistulari*, musika-trisna hori sustatu eta ezagutarazteko. 1936 arte, erredakzioak zenbait aldiz egoitza aldatu zuen. 1955ean hasitako bigarren aldian Donostian ezarri zen.

### DANTZARIAK

**Dantzariak**, *Boletín de Euskal Dantzarren Biltzarrak*-en 1995eko 52. zenbakia azkena izan zen. Donostian sortu zen, 1970ean, aldizko periodikotasunez eta gaztelarazko zein euskarazko testuekin. Zenbait dantzen partiturak, eta koreografiaren deskribapenak, eskaintzen zituen.



## ● EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA

### KARDABERAZ

Manuel Lekuona poligrafo gipuzkoarraren zuzendaritzapean, 1924an euskarazko kultur aldizkari garrantzitsu bat jaio zen Gasteizen: **Kardaberaz**, *Euskereak bunua jasotzea Jaungoikoak nai du*. Gerra Zibilari jarraitu zitzaion nahitaezko isiltasunaren ondoren, 1972an berriz eratu zen, Idazleen Elkartearen babesaz eta berriro ere Manuel Lekuona zuzendari zuela. Urtekaria zen.

### HEGATS

Euskal Idazleen Elkarteak **Hegats**, *Literatur Aldizkaria* argitaratzen du, Donostian. 1989an agertu zen, formatu handian, monografikoekin, hainbat euskal idazleri eskaintako zenbaki bereziki, eta irudiekin. Zenbait atal ditu, hala nola *Kritikabideak* eta *Literaturbideak*, eta beste herrialdeetako egileen lanak jasotzen ditu, beren jatorrizko hizkuntzetan.

### SUSA

Beste literatur aldizkari interesgarri bat **Susa** izan zen. Donostian, 1980ko urtarrilaz geroztik, ehun orrialde trinko eskaintzen zituen, formatu txikian (gero handitu zena). «Literatur aldizkari» gisa agertu arren, interes anitzak zituen eta kulturaren alorra osoki hartzen zuen, beti ere euskaraz. *Susa*-ren 33 zenbakiak irakurtzen dituenak, hasierakoetan Joseba Sarrionandia, Jon Kortazar edo Koldo Izagirreren izenak topatuko ditu, eta azkenekoetan Harkaitz Cano, Xabier Ganzarain, Josu Goikoetxea, Lierni Ibargutxi edo Asier Serranorenak, beste zenbait poeta eta narratzaileen artean. 1994 aite biziraun zuen, aldizko periodikotasunez. Bere baitatik sortu zen *Susa* argitaletxea.

## ● SAREAN

**Euskonews & Media**. Eusko Ikaskuntzako Euskomedia Fundazioak astero (ostiraletan) editatzen duen aldizkari elektronikoa. Doan bidaltzen da, posta elektronikoa bidez, eta astero hainbat gai sozial, kultural, antropologiko, historiko, artistiko... jorratzen ditu. Zenbaki guztiak elkarrizketa batekin hasten dira, eta zenbait atal finko ditu, irratiko tertulia batez gain. Hilean behin ale berezi bat argitaratzen du, monografikoa. Astero 15.000 irakurle inguru ditu. <http://www.euskonews.com>

# ARTEAK ETA LETRAK



HERMES, VÉRTICE, JERARQUÍA, CHAMPA, PREGÓN, RÍO ARGA, EGAN, VÉTERES, KURPIL Y KANTIL, LISTELA, GAIK, OH! EUZKADI, POTT, CLOC, ZURGAI, MAIATZ, ARBOLA, PÉRGOLA, BILBAO, PAMIELA, PASAJES, ELGACENA, KULTURA, TEXTURAS, NOSFERATU, ZEHAR, ARTEZ, DEABRUAK, HORIZONTAL, ARMIARMA.

## ■ KULTUR ALDIZKARIAREN EREDU BAT

### ● HERMES (1917-1922)

*Hermes* aldizkaria historian sartu da kultur aldizkari bikainaren eredu gisa. Ekimen aski interesgarri hau Jesus de Sarria abokatu nazionalistari eta Ramon de la Sota ontzi-industrialariari zor zaie. Aldizkariak XX. mendeko bigarren erdialdean Euskal Herrian emandako kultur berrikuntza islatzen du.

Nazionalismoa eta sozialismoa agertzean, gizartearen egitura politikoak apurtzen ari ziren garai batean, *Hermes*-ek diferentzia balio positibo bezala ikusten asmatu zuen, eta bere orrialdeetan garaiko artista eta intelektual bikainenak bildu zituen, joera ideologikoak alde batera utzita. Dohain hori bera izan zuten gaur egun bizirik dirauten beste kultur ekimen batzuek ere: Julio Urquijoren *Revista Internacional de Estudios Vascos* eta Eusko Ikaskuntza. «Guretzat –zioten Hermes-ko editoreek– euskaldunak baizik ez daude. Euskaldunaren gure kontzeptutik kanpo euskaldun izateari uko egiten dion hura besterik ez dago». Editoreek Hermes, elokuziaren eta komunikazioaren jainkoa, hautatu zuten aldizkariak euskal kulturaren berpizkundeari egin nahi zion ekarpena agertzeko sinbolo moduan. Diseinu grafikoaren arduraduna Aurelio Arteta pintorea izan zen, eta testuak idazle gazteek paratzen zituzten, 98ko belaunaldi



euskalduneko hiru maisuen –Unamuno, Baroja eta Zuloaga– eragina jasotako europazale petoek. Zenbaitek «17ko Belaunaldia» deitu izan die: Mourlane Michelena, Sanchez Mazas, Joaquin Zuazagoitia, Ramon Basterra, Jose Felix Lequerica edo Juan de la Encina arte-kritikari handia (Ricardo G. Abascal ezizenez).

*Hermes* Bilboko kultur geografia estuaz haratago hedatu eta Madrila heldu zen, non estimu handiz irakurtzen baitzen.

Arrakastak behartuta, 1918 eta 1920 bitartean hila betekaritik hamaboskarira pasa zen. Bien bitartean, gailentzen ari zen bizkaitarrismoak aldizkarian gero eta indar handiagoa hartu zuen, eta horren ondorioz kolaboratzaile baliotsuenetako batzuk galdu zituen. Baina 1921ean aldizkariak bere izaera literario eta artistiko aratza berreskuratu zuen, ikuspegi asko unibertsalago bati lotuz: frantses eta ingelesezko literatur testuak itzuliko ditu, Chesterton, Salvador de Madariaga edo

Eugenio d'Ors bezain izen itzaltsuei bide egingo die, eta irakurleei Hispanoamerikako literatura aberatsa hurbilduko die. Aldizkaria hain ospetsu bihurtuko da, ezen Oxford eta Cambridge-ko uniber tsitariok artikuluak zenbait itzulpen izango baitituzte, honako oinarekin: «*Hermes* bere eremuan munduko aldizkari onenetako bat da».

1922ko uztailaren 27an, Jesus de Sarriak bere buruaz beste egin zuen. Harekin jaio zen *Hermes*, eta harekin hil: «Aldizkariaren bizialdi laburra aski ederra izan zen, baina bukaera tristea, oso tristea», laburbildu zuen Alejandro de la Sotak.

Sabino Arana Fundazioko hausnarketarako organoak *Hermes* izena hartu du, *Pensamendu eta historia aldizkaria / Revista de pensamiento e historia* azpitituluz.

## ■ KULTURA FRANKISMO GARAIAN

### VÉRTICE

Literatura frankista, bere mailarik gorenean, Donostian hasi zen nagusitzen, 1936an, *Vértice* *Revista Nacional de la Falange* aldizkariarekin. Bertan zorroztu zituzten beren lumak, bai oneten gisan, hainbat idazle falangista ospetsuk: Dionisio Ridruejo, Eugenio Montes, Josep Pla, Eugenio D'Ors, Manuel Aznar, Pedro Lain, Jacinto Miquelarena... «Hitzaldi politiko sutuak eta gerrako berri eta argazki militarrek agertu arren, *Vértice*-n tonu literario eta artistikoak nagusitzen dira, kolaboratzaileen balio



intelektualari esker», adierazten du Félix Marañá idazleak.

### JERARQUÍA

Gerra egun haixetan jaio zen, halaber, **Jerarquía**, *Revista Negra de Falange*, Jose Antonioren jarraitzaileek hain maitea zuten estetika mussoliniarraren azalean ageri zenez. Angel Maria Pascual eta Rafael Garcia Serrano nafarrek idazle bikain baina gatazkak basati bihurtutakoen tropel bat gidatzen zuten: Agustín Foxa, Giménez Caballero, Luis Rosales, Jose M<sup>a</sup> Peman, eta *Vértice*-ko ohiko kolaboratzaileak, zeinarekin *Jerarquía* ideologikoki eta materialki lotuta baitzegoen.

### CHAMPA

*Vértice*-ren oinordeko gisa eta joera doktrinal berari eutsiz, Bilbon zenbait aldizkari argitaratu ziren, Sindicato Español Universitario izenekoaren kontrolpean. Interesgarriena, askogatik, 1951 eta 1955 bitartean martxan egondako **Champa** izan zen. Aldizkariaren pluraltasunaren adierazgarri da bertan idatzi zuen idazle multzoa: Sanchez Mazas eta Alfonso Sastre, Luciano Rincon eta Damaso Alonso, Manuel Chiapuso anarkista eta Rafael Morales. Horacio Martínez Prieto Errepublikako ministro ohi anarkistak *Champa*-ri buruz esan zuen gerraostean Bilbon egindako aldizkari onena izan zela.

### PREGÓN


Frankismo nafarraren kultura ofiziala, bere muga ziztrinekin, **Pregón**-en islatu zen, z eina ia erregimenak adina iraun baitzuen: 1943tik 1977ra. Iruñeko kulturaren eta gizarte-bizitzaren irudi papalote bat eskaintzen zuen, gopespen nazional-katolikorako joeraz eta literaturari begiratu mozoloa emanaz, nahiz eta txepelkerien artean garaiko idazle saiatueneren testuak agertzen ziren.

### RÍO ARGA

*Pregón*-en agonia betean, idazle horietako batzuek **Río Arga** sortu zuten, 1976tik aurrera nolabaiteko ospea izandako poeta nafar guztiak hartu dituen txoko poetikoa. Euskal kultur aldizkaririk zaharrena bezala bizirik dirau.

### EGAN

Urte latz haixetan, Bilbon jaio baina Donostian bizi zen Jose Miguel Azaola intelektualak literatur aldizkari elebidun bat argitaratzeko burutazioa izan zuen, Euskal Herriaren Adiskideen Errege-Elkar tearen (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País) –erregimenak debekatu gabeko kultur erakunde euskaltzale bakarra– babesean. **Egan** izena zuen, eta lehen zenbakia 1948an atera zen. Euskal kultura aberasten duten korronte oro barne hartzen zuen aldizkaria,



*Egan* izan zen Errepublikako garaietatik euskarazko sorkuntzari bultzada handia eman zion lehena, han idazle aski ezberdinek idatzi zutelarik, hala nola Blas de Oterok, Manuel Lekuonak, Gabriel Celayak, Gabriel Arestik edo Luis de Castresanak.

### VÉTERES

Aipatu beharra dago, halaber, Gipuzkoan idazle berrien prestakuntzan izan zuen eraginagatik, **Véteres** aldizkaria, berrogeiko hamarkadaz geroztik Jesulagunen Ikastetxeko Ikasle Ohien San Ignazio Zirkuluak argitaratua; izan ere, aldizkaria «Donostia Hiria» ipuin-lehiaketaren antolatzaile zen.

### ■ TRANTSIZIO

#### GARAIKO EKIMENAK


Hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan, kultur aldizkariak goraldi handia izan zuten Estatu osoan. Kasik ez zen hiri edo barrutiko bururik, poeta, narratzaile eta marrazkigile talderik ez zuenik, literaturako argitalpen baten inguruan bildua eskuarki iraupen aski laburrekoa, ia beti formalki zaindua, askotan kalitate dezentekoa, baina ia beti boluntarista, eraginkorra baino. Agertu/desagertu ziren argitalpenen anabasan, hemen hautaketa labor eta arbitrarioa egingo dugu.

### KURPIL ETA KANTIL

Arte eta letrei dagokienez, hirurogeita hamarreko urteak **Kurpil** eta **Kantil**-ek bete zituzten, ezberdinak izaki lantalde bakar eta gogo sortzaile berbereko bi aldizkari. Formalki interesgarriak eta literatur nahasketaren aldetik anbizio handikoak, biek ala biek poesia, antzerkia, musika, kritika, elkarrizketa... barne hartzen zituzten. Aldizkarian izen ospetsuak (Raul Guerra Garrido, Jorge G. Aranguren, Rafael Castellano, Pablo Antoñana, Ramiro Pinilla) eta hasiberriak tartekatzen ziren, eta *Kantil*-en zenbaki bakoitzean irudiak artista ezberdin batek jartzen zituen: Jorge Oteiza, Ricardo Ugarte, Carlos Sanz... Zalantzarik gabe, Gipuzkoak izan dituen azken literatur aldizkari handiak.

### USTELA

Bernardo Atxagak eta Koldo Izagirrek sortu zuten **Ustela**, 1975 eta 1976 bitartean hiru zenbaki baino eman ez zituen literatur aldizkaria, baina formatu eta diseinuan agertutako izaera apurtzaileagatik gogoangarria. Bere garairako aski aurreratua, poesia, antzerki minimalista eta ipuina jorratzen zituen. Zenbaki bakoitzak izenburu ezberdina zuen: «Pamplina Ustela», «Zorion Ustela!» eta «Mermelada Ustela».



### GAIAK

Leopoldo Zugaza nekazinak, gure herrian hainbat kultur aldizkariren sustatzaile, **Gaiak** atera zuen 1976an, euskarazko eta gaztelarazko zientzia eta kultur aldizkaria. Durangon argitaratzen zen, hiru hilean behin, eta sustatzaileen artean Jose Luis Zumeta zegoen. Sorkuntza eta ikerketa euskaldunen heziketa zientifiko eta humanistikoaren zerbitzura, hainbat gai lantzen zituen, hala nola filosofia, erlijioa, hizkuntzalaritza, zientzia hutsak, zientzia aplikatuak, geografia eta historia, eta arte ederrak. Lau zerbaki atera zituen, azkena Gernikako bonbardaketari buruzkoa, hainbat egileren – Alberti, Arrabal, Basarri, Guinovart, Lete, Monzon, Neruda, Otero, Picasso edo Ruiz Balerdi– testu eta irudien antologia jasotzen zuena.

### OH! EUZKADI

Gehienbat euskaraz idatzia, hizkuntza zainduaz, eta gaztelarazko ukitu bakan batzuekin, **Oh! Euzkadi** 1978an agertu zen, triptiko handi baten moldean eta garai hartako beste argitalpen batzuen aurrean aski modernoa. Apurtzaile eta berritzaile, garaiko arauak hausten zituzten izenburuekin, laborategi esperimental moduko hark 1983ko martxoaren 15a arte baizik ez zuen iraun, baina geroago zinean eta literaturan nabarmendu diren hainbat egileren lan interesagarri ugari utzi zituen: Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Ibon Sarasola, Ramon Etxezarreta, Ramon Saizarbitoria, Juanba Berasategi portaden ilustratzaile gisa, Javier Aguirresarobe argazkilaria gisa eta Joxean Muñoz maketagile moduan.

### POTT

Garai bertsuan, aipatu egileetako batzuk Donostian eta aurrekoa bezala euskaraz argitaratutako beste literatur aldizkari batean ere aritzen ziren: **Pott**, literaturako tailer esperimental hartan parte hartu zuten izen ugarien laburdura. 1978 eta 1980 bitartean sei zerbaki atera ziren, formatu ezberdinez eta honako izenburuekin: *Pott bandaren berriemailea*, *Pott bandaren blaga*, *Pott bandaren braga*, *Pott bandaren pmka*, *Pott bandaren plaga* eta *Pott bandaren 'pott tropikala'*. Espezia ugari egindako plater haren sukaldari izan ziren Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Jon Juaristi, Manu Ertzila, Joseba Sarrionandia edo Jimu Iturralde, eta haiei gaineratuz joan zitzaizkien Pablo Antoñana, Iñaki Uriarte, Jose Luis Merino, Javier Aguirre Gandarias, Koldo Izagirre, Miguel Sanchez Ostiz eta Jon Kortazar, eta Juan Carlos Eguilleor marrazkigilea.

### CLOC

Trantsizioa probokazio ugari ernatu zituen aldi apurtzailea izan zen. Horien artean, komunikabide moduan zarata handia atera zuen **Cloc**, *Revista de Arte y Desarte*, Donostian erroto eta Nafarroa,artzelona, Zaragoza eta Madrilen adarrak zituen aldizkari literario-kultural-subertsiboa. Abentura urratzaile hartan bildu ziren gaur egungo literatur kritikak estimazio handian dituen bi nobelagileren biografia gazteak: Fernando Aramburu eta Alvaro Bermejo.

### ZURGAI

1979. urtetik dago martxan **Zurgai**, *Euskal Herriko Olerkaren Aldizkaria*, *Poetas por su pueblo*. Kultur eta literatur izaerakoa,

Pablo Gonzalez de Langarikak zuzentzen du, eta leku handia uzten die gai monografikoei eta poeta jakinen ikerketari.

### MAIATZ

Iparraldeko testuinguru sozial, politikoa eta kultural ezberdinean, 1982aren hasieran mendearen amaiera/hasierako argitalpen garrantzitsuenetako bat jaio zen: **Maiatz**. Luzien Etxezaharreta izan zen, Iparraldeko idazleen belaunaldi berri batekin (Manex Lanathua, Aurelia Arkotxa, Eñaut Etxamendi, Mayi Pelot, eta abar) harremanetan jarrita, testuak aurkezteko sorkuntza-eremu berri hau sustatzaile nagusia. Luzienek honako hitzekin adierazten du: «Zalantzarik gabe, idazteko gogo irmoa zegoen. Baina sentitzen genuen, halaber, literatur mundu berri bat sortzeko nahia, herriaren egoera berriari lotua, ematen ari ziren gizarte aldaketa garrantzitsuei jarraiki». Bi hamarkada baino gehiago daramatza **Maiatz**-ek Iparraldeko egile euskaldunen lanak argitaratzen. 1990az geroztik baino ez du lortu Institut Culturel Basque-ren dirulaguntza. «Ez dio axola –dio Etxezaharreta Gure Irratia-ko kazetariak–. Gure euskarri nagusia idazteko gogo da».

### ■ 80KO HAMARKADAKO ALDIZKARIAK

#### ARBOLA

*Hermes*-en eragina XXI. mendera luzatu da kasik, German Yanke kazetariak zuzendutako **Arbola** (1986-1987) bezalako aldizkarietan islatuz, zeinak lotsarik gabe bere burua Jesus Sarriaren aldizkariaren jarraitzaile

aitortzen baitu. Formatu handian eta kalitate oneko zuri-beltzean, Bizkaiko Aldundiak ordaindua, lokalismoari ihes egiten dion joera kulturalaz, *Arbola* «urte haietan Euskal Herrian agetuko den kultura hutseko, eta jakintza-alor arteko, lehen aldizkaria» izan zen (Felix Maraña).

#### PÉRGOLA

Zuzendari berak **Pérgola** sortuko zuen segidan, oraingoan Udalaren babesaz. 1988 eta 1991 bitartean 26 zerbaki atera zituen.

#### BILBAO

1987az geroztik, Udalak **Bilbao** argitaratzen du, informazio, historia eta sorkuntzako aldizkari ederra. Egitura bikainekoa, hiriaren ondare historikoa, adierarik zabalenean, berreskuratzeko iturri zoragarria da.

#### PAMIELA

Nafarroara salto eginez, **Pamiela** dakarkigu gogora, Iruñeko Auzolan liburu-dendako apalen artean sortutako aldizkaria. 1984az geroztik argitaletxe garrantzitsu baten hazitegi izan zen, gaur egun erabat bermatua eta lan literario eta historikoetan espezializatua. 1983tik 1990era, **Pamiela** literatur aldizkariak 15 zerbaki argitaratu zituen, horietako batzuk monografikoak eta eskuarki kultur eduki zabalekoak, asmo berritzaile baten baitan.

#### PASAJES

**Pasajes**-en buru Miguel Sanchez Ostiz egon zen, 1985 eta 1987 bitartean ateratako zortzi



zenbaketan. Aldizkari trinkoa, despistatuei aukerarik ematen ez ziena, *Pasajes* Príncipe de Viana Erakundeak mantentzen zuen, baina horrek ez zion literatur ekumenismoa ahultzen, lehen zenbakia Maria Zambranorekin hasteak edo Ezra Pound eta Juan Peruchori monografikoak eskaini izanak egiaztatzen duten moduan. Jose Maria Romera kritikoak Nafarron egindako literatur aldizkari bikainena bezala definitu zuen.

#### ELGACENA

Lizarrako aldeak kultur periferia izaten jarrai ez zezan, 1982an bi poetak, Angel de Miguelek eta Jose Ramon Corpasek, *Elgacena* sortu zuten, urteak joan eta urteak etori Euskal Herriko letren eta arte plastikoen izenik behinenak biltzen dituen aldizkaria.

#### KULTURA

Arabako kulturak elikatzen zuen, bere aniztasun osoan, *Kultura*, Foru Aldundiak argitaratua 1981 eta 1987 bitartean (hamaika zenbaki), eta bigarren aldi batean, 1990tik 1993ra (sei zenbaki). Aldizkariaren orrialdeak irakurrita, historiari, zuzenbideari, arteei eta letrei buruzko ikerlan interesgarriak topatzen ditugu.

#### TEXTURAS

1989tik, *Texturas*, *Nuevas dimensiones del texto y de la imagen* aldizkariak euskarazko, gaztelarazko eta frantseseko testuak jasotzen ditu, eta ikuste-poemak, poesia diskurtsiboa, kontakizun laburrak, artikulua eta, atal nagusi moduan, monografiko bat, hautatutako pertsonaiaren eta haren lanaren argilunekin. Formalki Gasteizen izan diren aldizkariaren artean interesgarriena da, Angela Sernari eta EHUKO

letra frantsesen departamentuko beste zenbait pertsoneri esker.

#### ■ ARTE BISUAL ETA ESZENIKOEN ALDIZKARIAK

Literatur aldizkarietako grina pasa zen. Orain, bizirik dirautenak eta sortu berri direnak alde batera utzita, arte bisualei buruzko aldizkarien sarrera oldartsuarekin kultur argitalpenen mundua aniztu egin da.

#### NOSFERATU

1989az geroztik, Donostiako Kulturako Udal Patronatuak maila handiko zineari buruzko monografiak bilduma bat argitaratzen du: *Nosferatu*, zine-klubaren izena ere badena. Izan ere, argitalpen honek – zeinetan zine-kritikari itzaltsuek kolaboratzen baitute– zine-klubak ziklo moduan antolatutako programazioa osatzen du.

#### ZEHAR

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arteleku Arte Garaikideko Zentroak *Zehar*-eko orrialdeak eskaintzen ditu arte-munduaren eta gizartearen arteko zubi gisa, truke eta eztabaidarako eremu zabal baten bitartez. Gainera, inguruko eta nazioarteko kultur jarduerara garaikidea dokumentatzen du.

#### ARTEZ

1997tik, *Artez*, *Revista de las Artes Escénicas / Arte Eszenikoen Aldizkaria* argitaratzen da Elorrión, Carlos Gil Zamorak zuzendutako hilabetekaria. Gizarteari euskal sorkuntza eszenikoa hurbiltzea du xede, kultur esparru guztietatik eta genero guztietan: antzerkia, dantza, musika, ikus-entzunezkoak. Ikuskizunen

zerrenda bat eskaintzen du, eta bekei, liburuei eta lan-eskaintzei buruzko informazioa. Euskaraz eta gaztelaraz idatzita dago. 2001eko Txema Zubia Saria irabazi zuen, antzerkia sustatzeko burutu lanagatik.

#### ARCHIVOS DE LA FOTOGRAFÍA

Jada aipatutako Leopoldo Zugazak *Archivos de la Fotografía* zuzentzen du, aldizkaria agertu zenean bere iritziz behar bezala islatu gabe zegoen eremu bibliografiko bat osatzeko asmoz sortua. Argazkigintzaren historiari buruzko azterlanak argitaratzen ditu, ikerketa eta testuen berreskurapena sustatzen ditu, eta

argazkigintzarekin zerikusia duten ekitaldiei buruzko berri laburrak eskaintzen ditu. Horrez gain, aldizkariaren argitaratzaile den Zarauzko Photomuseum-aren jardueren berri ematen du.

#### ■ ALDIZKARIAK INTERNETEN

#### DEABRUIAK

Alber Vazquez-en adibideak Sorkuntzako kultur aldizkariaren etorkizuneko bilakaera argi lezake. 1998an *Deabruak* martxan jarri zuen, *shareware*-n banatzen zen literatur koadernoa; hau da, alea doan jasotzen zen eta, behin aztertu eta gero irakurleak interesgarria irizten bazion, erosi egiten zuen; bestela, hartzailea alea deuseztatzea behartuta zegoen.

#### HORIZONTALA

2002ko urriaz geroztik, Alber Vazquez errenteriarak, kolaborazio eta laguntzarik gabe, *Horizontale* argitaratuko du, formatu digitalean eta doan banatzen duen aldizkaria.

Hedapen eta periodikotasun aldakorrek ditu, eta edukiak (testuak, irudiak eta diseinua) editoreak berak egiten ditu osoki.

<http://www.deabruak.com/horizontale>

#### ARMIARMA

Bestalde, *Armiarma web gunea*, *Proyecto Ibiñagabeitia* gunetik XX. mendeko Euskal Herriko hainbat kultur eta literatur aldizkari deskarga daiteke:

*Gernika* (1945-1953)

*Euzko Gogo* (1950-1959)

*Oleri* (1959-1995)

*Igela* (1962-1963)

*Ustela* (1975-1976)

*Pott* (1978-1980)

*Oh! Euzkadi* (1979-1983)

*Susa* (1980-1994)

*Xaguxarra* (1980-1981)

*Idatz & Mintz* (1981-2001)

*Maiatz* (1982 ...)

*Sultifem Navis* (1982-1983)

*Pamiela* (1983-1993)

*Txistu y Tamboliñ* (1983-1993)

*Kandela* (1983-1984)

*Korrok* (1984-1989)

*Ttu ttuá* (1984-1985)

*Txortan* (1984-1985)

*Porrot* (1984-1990)

*Plazam* (1985-1992)

*Literatur Gazeta* (1985-1989)

*Zintzhilik* (1986-1994)

*Enseiucarrean* (1986-1999)

*Mazantini* (1991-1993)

*Garziarena* (1992-1994)

*Zantzoa* (1996-1998)

*Vladimir* (1997-2000)

*Garziarena Berria* (1997-1998)

<http://www.armiarma.com/andima>

# DIASPORAKO ARGITALPENAK



# Euzko Deya

LA VOZ DE EUZKADI - LA VOIX DES BASQUES

X<sup>e</sup> année -- Num. 217 -- Paris, 30 Juin 1945 -- 11, Avenue Marceau, (Paris 16<sup>e</sup>)

## FRANCO NE SERA PAS ADMIS AU SEIN DES NATIONS UNIES

Nous ne savons pas si Hitler s'était fait des illusions sur le million de baloutettes que Franco lui avait promises publiquement. Mais nous savons que Franco, avant mis ses plus grands espoirs dans le mur de l'Atlantique, pour sa propre stabilité.

Franco n'a pas envoyé à Hitler les balouttes promises et Hitler n'a pas pu conserver le « mur » que les fascistes de toute l'Europe considéraient comme leur dernière défense.

En conséquence, Franco n'est lié à toute sorte d'évolutions et rapprochements dont certains sont publiés d'autre part. Evolutions apparentes et destinées à l'exportation, car le régime demeure immuable dans son essence, son origine et ses desseins.

Il s'agissait de rechercher les faveurs des puissances anglo-saxonnes et de susciter dans les Républiques américaines, une sympathie d'origine historique qui fit oublier l'antagonisme politique de l'heure présente. De cette façon, l'Espagne de Franco s'imaginait

alliée des Nations Unies. Les millions qui restent ont le droit de partager notre victoire, une victoire qui est également la leurs.

M. Quintanilla a lu ensuite le télégramme de félicitations que le général Franco envoyait en 1947 à Mussolini à l'occasion de la prise de Bilbao et dont le texte a été publié dans « Euzko Deya ». Il a rappelé qu'en septembre 1941, l'ambassadeur allemand à Madrid avait décoré le général Franco en insistant sur « les liens intimes qui unissent les armées allemande et espagnole ».

« En décembre 1942, a ajouté M. Quintanilla, quand la bataille décisive de Stalingrad s'engageait dans toute sa violence, le général Franco envoyait à Hitler un télégramme lui disant qu'il priait pour son triomphe. Deux jours plus tard, à Séville, le général Franco s'écriait : « Si un jour la route de Berlin est en danger, l'Espagne enverra un million d'hommes s'il le faut pour la défendre ».

« La Délégation du Mexique estime que la

posée par la force des armes allemandes et italiennes.

M. Kisielew, délégué de la Biélorussie et Commissaire aux Affaires Étrangères, ajoute : « L'Espagne est devenue un refuge pour les fascistes en fuite. Durant cette guerre, plusieurs braves soldats de mon pays ont été tués par les fascistes de la Division Bleue combattant avec l'armée allemande. Comme le disait le grand Président Roosevelt, nous devons agir pour justifier la foi de ceux qui sont morts pour que vive la démocratie ».

Le Dr. Ewart, représentant australien et Ministre des Affaires étrangères, après avoir rappelé que Franco avait envoyé la Division Bleue contre l'U. R. S. S. et que cela seul devait suffire à lui fermer les portes des Nations Unies, conclut :

« Je me souviens de ce 14 juillet 1938 où le peuple de Paris réclamait des canons pour l'Espagne. Depuis cette date l'Espagne franquiste a été notre ennemie. Nous ne devons pas lui permettre de venir prendre sa place



**ALDIZKARIEK FUNTSEZKO ZEREGINA IZAN ZUTEN LOTURA SENDO GISA,**  
Amerikako erbeste urrunerako bidea hartu zuten haiek akuilatatu eta animatzeko. Trantze hartan, argitalpenak denbora-pasa nahiz heziketa- edo informazio-tresna baino gehiago ziren, eta deserrituaren komunitaterako lotura sendo bihurtzen ziren. Izan ere, letra idatziaren bidez atzerritatuak beren tradizio eta ideal berberak zituen komunitate bateko kide sentitzen ziren, jaioterritik hain urruti egonik ere.

### ■ AITZINDARIAK

#### Laurak Bat (Uruguaia)

1876ko gabonetan, Montevideooko Club Literario Artístico Uruguayo-ren egoitzan, Laurak Bat elkarte osatu zen, zeinaren helburua baitzen lau euskal herrialdeetako «etorkinak babeste» eta emigrazioaren seme-alaben heziketa orokorra eta beren kulturaren ezagutza partikularra bultzatzea. Diasporako lehen euskal elkarte hura 1.114 bazkide izatera heldu zen, Uruguain milioi erdi pasa biztanle baino ez zegoenean. Bere adierazpideak, *Laurak Bat, Revista de la Sociedad Vascongada de Montevideo* aldizkariak, Ekialdeko Err epublikaren gizarte-bizitzan eragin itzela izan zuen 1877az geroztik.

#### Laurak Bat (Argentina)

Uruguaiako herrikideen ekimenari jarraiki, 1877ko martxoan Buenos Airesen bizi ziren 13 gazte euskaldunek Argentinako Laurak Bat sortu zuten, zeinak zenbait hilabete geroago bere *Revista de la Sociedad Vascongada de Buenos Aires* atera baitzuen. Buenos Airesko Laurak bat-ek ia mende bat iraun zuen, nolabaiteko erregulartasunez. 1973an *Centro Laurak Bat, El hogar de los vascos* hilabetekariak ordezkatu zuen.

#### KALIFORNIA

1885 bezain urte goiztiarrean, Los Angelesen bizi ziren euskaldunek aldizkari komunal bat sortu zuten, *Escualdun Gazeta*, zeinari 1893az



geroztik *Califoniako Eskual Herria* jarraitu baitzitzaion, eta geroago *Eskual Herria*.

#### LA VASCONIA

Baina akaso Gerra Zibilaren aurreko Amerikako diasporaren

aldizkariarik interesgarriena *La Vasconia, Revista ilustrada euskara americana* izan zen, Francisco Grandmontagnek eta Jose R. de Uriarte tipografoak Buenos Airesen sortua, 1893an. Bederatzi urtez, euskal jatorriko idazleak historia, literatura, artea eta

tradizioei buruzko ezin konta ahala artikulu argitaratu zituen *La Vasconia* edo *La Baskonia*-n, 98ko Belaunaldiko kazetari bikainetakoa izatearen ospea ekarri zituenak. Grandmontagne 1902an Donostiara bizitzera etorri bazen ere, bere aldizkariak 1943 arte jarraitu zuen argitaratzen.

### ● ERBESTEIA ETA ARGITALPENAK

#### Euzko Deya

Bilbo erori ostean, 1937ko erdialdean, erresistentzia politiko eta kulturala Iparraldera aldatuko da. Erbesteko Euzko Jaurlaritza eratuko da, eta honek 1936ko azarotik *Euzko Deya* argitaratuko du Parisen. Lau hizkuntzako aldizkari hura 1940an Wehrmacht-a Parisen sartu arte banatu zen, ondoren euskal agintariak Estatu Batuetara joan beharrean izango direlarik. Eta Buenos Airesen, 1939ko maiatzetik 1975eko abendura (hau da, diktadurak iraun zuen denbora osoan), *Euzko Deya*-ren 668 zenbaki inprimatu ziren, Euzko Jaurlaritzako ordezkartzaren bozeramaile gisa; 1943tik 1971era goi-buru aldizkari bat argitaratu zen Mexikon, *La Voz de los Vascos en México* bezala.

#### BASQUES

New Yorken, Manuel de la Sotaren zuzendaritzapean, *Basques, Bulletin of the basque delegation in the USA* argitaratuko da, Jose Antonio Agirrek, Jon Bilbaok eta Anton de Iralak idatzia.

Aldizkariak funtsezko zeregina izan zuten lotura sendo gisa, Amerikako erbeste urrunerako bidea hartu zuten haiek akuilatu eta animatzeko. Trantze hartan, argitalpenak denbora-pasa nahiz heziketa edo informazio-tresna baino gehiago ziren, eta deserrituen komunitaterako lotura sendo bihurtzen ziren. Izan ere, letra idatziaren bidez atzerriratutak beren tradizio eta ideal berberak zituen komunitate bateko kide sentitzen ziren, jaioteritik hain urruti egonik ere.

● 'GERNIKA'TIK 'EUSKO GOGOA'RA

BATASUNA

1941az geroztik Txileko Santiagon, Bernardo Estornes Lasak *Batasuna, Revista de Divulgación Vasca* zuzendu zuen.

EUZKADI

Geroago, *Euzkadi* aldizkaria martxan jarri zen, Manuel de Irujo, Jesus Galindez eta Mariano Estornesen babesaz. Caracasko Euskal Zentroak izen bereko aldizkari bat atera zuen, 1942 eta 1950 bitartean 70 zenbaki argitaratu zituen.


GERNIKA

Aztergai dugun garai osoan barrena, «*Gernika*» izenburuko – basakeriaren sinbolo unibertsal izan zen eta den hiri martiriaz – zenbait goi-buru izan ziren, Panaman (1943), Donibane Lohitzunen (1945, 1948), Baiona (1975)...

Horien artean, edukietan aberatsena *Instituto Vasco de Extensión Cultural «Gernika»*-rena izan zen, berrogeiko hamarkadan intelektual multzo batek osatua, euskaldunen arteko elkar-ulertzea faboratzeko.

Rafael Picavea editore irundarrak (Gerra aurretik Donostiako *El Pueblo Vasco*-ren eta *Novedades* aldizkariaren editorea) Parisen zuen inprimategiari etekina atereaz, 1945eko urrian Institutuak bere aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu zuen. Erredakzioan parte hartu zuten Isidoro Fagoaga tenore eta idazle gipuzkoarrak, Aita Barandiaranek, Lacombek eta Orixek.

Picavea hiltzean aldizkariaren jarraipena arriskuan zegoen, eta Isidoro Fagoagaren nekaezintasunari –eta aurrezkiei– esker 1948an Donibane Lohitzunen berragertu zen, *Gernika. Cahiers Collectifs de Culture Humaniste* izenburuaz. Gazteleraz, euskaraz eta frantsesez, aldizkariak «euskal humanismo herrikoia» zegoela adierazten zuen, eta azalean Iparragirreraren «Eman da zabalzazu» neurtitz ospetsua ageri zuen. Fagoagak bere aldizkaria



itsasoaz bestaldera eraman zuen, bere liberalismo ezagunaren aldarrikapen garbi moduan, eta Buenos Airesen argitaratzen jarraitu zuen, 1953 arte.

EUZKO GOGOA

Ordenarekin desadostasun politikoa zituelako abituak utzi zituen jesulagun bat, Jokin Zaitegi, izan zen *Euzko Gogoa* aski garrantzitsua arduradun nagusia. 1949tik 1955era, aldizkaria Guatemalan argitaratu zen, eta geroago Baionan, 1956tik 1959ra. Koldo Mitxelena 1977an honakoa idatzi zuen: «*Euzko Gogoa* Aitzolen eta haren belaunaldiaren obrari jarraitzen zaio, baina, halaber, etorkizuneko ibilgailu ere bada: gerraosteko belaunaldi berriarekiko ezinbesteko zubia. 1920ko *Euzko Deia* alde batera utzita, *Euzko Gogoa* joera erabat erlijioso ez duen eta edukiz nahiz nortasunez maila ona ageri duen euskarazko lehen aldizkaria da. Jauzi kualitatibo bat ekarri zuen, Elbira Zipitriak gerraosteko lehen ikastola sortzean emandakoaren antzekoa; horretan zalantzarik ez dago».

Mitxelena esanetan, Zaitegi bere diru guztia aldizkariaren xahutu zuen, eta Orixeri idaztetik bakarrik bizitzeko aukera eman zion. Filologo handiak honakoa ondorioztatuko du: «Gerraosteko lehen aldi hura *Euzko Gogoa*-k markatuko du, eta horrek, era berean, bigarren aldi bat egon dadin ahalbidetuko du».

● GALIR EGUNGO HIRU ALDIZKARI

ELGAR

1934ko udatik argitaratzen da, Frantziako hiriburuan, *Elgar, Journal des Basques de Paris* hilabetekaria. Formatu txiki eta orrialde gutxikoa izanik ere, euskal komunitateko kideen arteko komunikazioa eta harremanak errazten ditu. Testuen %10 eta %20 bitartean euskaraz argitaratzen dira.

EUSKALDUNAK-LOS VASCOS

Juan de Garay Fundazio Eusko-Argentinarrak lau hilabetekari bat ateratzen du, euskal kulturaren gai orokorrak jorratzen dituena. *Euskaldunak Los Vascos* fundazioko kideen artean doan banatzen da, eta harpidetza interesdun orori zabalik dago.

EUSKAL ETXEA

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak hiru hilean behin *Euskal Etxea* argitaratzen du, mundu osoan barrena barreiatutako euskaldunen jardueren berri emateko.

# ERAKUNDEEN ALDIZKARIAK



## ZIENTZIA ETA PENTSAMENDUA

EUSKO IKASKUNTZA, PRÍNCIPE DE VIANA, SANCHO EL SABIO, ARANZADI, EUSKAL HERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, NAFARROAKO UNIBERTSITATEA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA, DEUSTUAKO UNIBERTSITATEA.

### ■ ERAKUNDEEN ALDIZKARIAK

#### ● EUSKO IKASKUNTZA

##### ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE

*Eusko Ikaskuntza* 1918an fundatu zen, Oñatin burututako Eusko Ikaskuntzaren I. Biltzarrean


Bere lehen argitalpena **Anuario de Eusko Folklore** izan zen, Gasteizen sortua, 1921ean, Jose Migel Barandiaranen babesaz, Gizartearen Etnologia Laborategiaren (Laboratorio de Etnología de la Sociedad) aldizkari gisa, **Eusko Folklore: materiales y cuestionarios** aldizkariarekin batera. Lehen aldian 14 liburuki argitaratu ostean, argitalpenak Eusko Ikaskuntzaren patu berbera jasan zuen: Gerra Zibila helduan jardueraren eten egin zen, Jose Migel Barandiaran eta haren kolaboratzaileak erbesteratu zirelarik.

1955ean, Aranzadi Zientzia Elkarteak **Anuario** ber egain hartu zuen, eta 1981 bitartean 17 liburuki atera zituen. 31. zenbakitik aurrera, Eusko ikaskuntzak argitalpena berreskuratu zuen, 1988an Jose Migel Barandiaranen Fundazioari utzi zion arren, fundazio-ondasun moduan. **Anuario de Eusko Folklore**-k etnografiaren gaineko ikerketak jasotzen ditu batik bat, eta bildumak euskal kultura tradizionalari buruzko material baliotsuenetako bat osatzen du.



### JAKINTZA ETA IKUSKA

Barandiaranek, zeinak Gasteizko Seminarioan jada aldizkari zientifiko-literario bat (*Gymnasium*) zuzendu baitzuen, Iparraldeko erbesteratuak beste bi argitalpen zientifiko abiarazi zituen: **Eusko Jakintza**, *Revista de Estudios Vascos*, hilabetekari hirueleduna (1947-1958), eta **Ikuska**, *Giza ikaskuntza*, euskaraz, ikerketa antropologikoari buruzkoa (1946-1951).



### REVISTA INTERNACIONAL DE LOS ESTUDIOS VASCOS

Eusko Ikaskuntza baino lehenago sortu zen, gerora haren baitako izango zen arren, **Revista Internacional de los Estudios Vascos**, 1907an Julio Urquijok sortua. Lehen aldian estimazio handia izan zuen, batez ere hizkuntzalaritzaren alorrean. Lau hamarkadaz baino gehiagoz isilik egon ondoren, 1983an RIEVek bere ibilbide berriari ekin zion, Julio Caro Barojaren zuzendaritzapean, sei hilabetekari gisa eta egitura berrituaz. Antropologoa hiltzean, ordu arteko koordinatzailea, Juan Garmendia Larrañaga, buru jarri zen, 1996 eta 1997an. Gaur egun, Gregorio Monreal Zia zuzendari duela, RIEV etapa berri batean sartu da, zeinetan bere nazioarteko izaera azpimarratu nahi baitu, ingelesezko lanak argitaratuz.

SAILETAKO KOADERNOAK

1982an, Eusko Ikaskuntzak koaderno-bilduma bat abiarazi zuen, Atal zientifiko bakoitzean ikertzaileek burututako azterlanak eta landa-lanak ezagutarazteko. Serieran antolatutako argitalpen horietan zerbaki monografikoak ere badira, non ekitaldien aktak, omenaldiak eta ikerketako bekak jasotzen baitira.

**Azkoaga**, Gizarte zientzia eta ekonomia saileko koaderno

**Azpilcueta**, Zuzenbidea saileko koaderno

**Fórmula**, Fisika-Kimika eta Matematika saileko koaderno

**Ikastaria**, Hezkuntza saileko koaderno

**Ikusgaiak**, Zinematografia saileko koaderno

**Isturitz**, Prehistoria-Arkeologia saileko koaderno

**Jentilbaratz**, Folklorea saileko koaderno

**Mediatika**, Komunikabideak saileko koaderno

**Musiker**, Musika saileko koaderno

**Naturzale**, Natur Zientziak saileko koaderno

**Oihenart**, Hizkuntza eta Literatura saileko koaderno

**Ondare**, Arte Plastikoak eta Monumentalak saileko koaderno

**Osasunaz**, Medikuntza saileko koaderno

**Vasconia**, Historia Geografia saileko koaderno

**Zainak**, Antropologia Etnografia saileko koaderno

ELERIA

1996an **Eleria**, *Euskal juristen aldizkaria* jaio zen, bai unibertsitatean eta bai praktikaren munduan euskaraz egiten den zuzenbidea bultzatzeko.

Eusko Ikaskuntza **web orriari** bere fondoko artikulu guztiak (7.000 baino gehiago), argitalpenen aurkibide osoak eta, jada bere osotasunean, **Ondare, Arte Plastikoak eta Monumentalak saileko koadernoak** bilduma. Guztira, orotariko gaiet buruzko 140.000 orrialde baino gehiago dira.

<http://www.euskomedia.org>

● **PRÍNCIPE DE VIANA ERAKUNDEA**

PRÍNCIPE DE VIANA

**Príncipe de Viana** aldizkaria 1940an sortu zen, Príncipe de Viana Erakundearen organo ofizial bezala. Lau hilean behin arte, historia, dokumentazio, literatura, hizkuntzalaritza, bibliografia eta abarri buruzko testuak argitaratzen ditu. 1966 eta 1983



bitartean, hilean behin euskara sustatzeko gehigarri bat eskaintzen zuen, 159 zenbaki eman zituen.

CUADERNOS

Etnologia eta etnografiaren gaineko argitalpenen gabeziari aurre egiteko, 1969an **Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra** sei hilabetekariaren lehen zenbakia agertu zen.

FONTES



Urte horretan jaio zen, halaber, **Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta**, euskal filologia eta hizkuntzalaritzari buruzko lau hilabetekaria.

TRABAJO

1979tik urtean behin argitaratzen den **Trabajos de Arqueología Navarra** aldizkaria arkeologia, historiaurrea, protohistoria eta antzinako historiako gaietan espezializatuta dago.

SUPLEMENTO

Azkenik, 1981ean **Suplemento de Ciencias** sortu zen, hainbat alorretako lanak –natur zientziak, geografia, medikuntza, geologia...– biltzeko xedeaz. 1998az geroztik **Suplemento de Ciencias Sociales** izena hartu zuen. Urtekaria da.



● **RSBAP ETA ARANZADI**

Erreinuko lehen elkarte zientifikoa Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País) izan zen. 1764ko abenduaren 24an jaio zen, Azkoitiko Insausti etxean.

EGAN

Jada aipatu dugu Azkoitiko «zalduntxoek» **Egan** bultzatu zutela, gerraosteko kultur basamortuan lore bihurtutako argitalpen biziki garrantzitsua.

BOLETÍN

1945az geroztik **Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País** argitaratzen da, hasieran hiru hilean behin eta 1974tik aurrera sei hilabetekaria.

MUNIBE

Buletinaren Natur Zientziei buruzko gehigarria zen **Munibe**, Aranzadiko Zientzia Taldeak 1949az geroztik argitaratua, eta gerora elkarte zientifiko independente gisa eratuko zena. Aldizkariak, urtean behin 300 orrialde baino gehiago eskainiz, Aranzadiko kideen zein kolaboratzaileen lan eta ikerketak biltzen ditu, eta nazioartean ospe handia du.



1985az geroztik bi zatitan banaturik dago: *Munibe* (*Antropologia Arkeologia*) eta *Munibe* (*Natur Zientziak*).

ELHUYAR

Adiskideen Elkarteko beste kimu bat da *Elhuyar*, 1974an jaiotako hiru hilabetekaria. 1985ean, Donostiako Injinerutza Eskolan sortutako izen bereko Kultur Elkartearen bozeramaile bihurtu zen. *Elhuyar*, *Zientzia eta Teknika*, euskarazko aldizkari zientifiko eta akademiko guztien aitzindaria da.



- **BESTE ZENBAIT ERAKUNDEREN ALDIZKARIAK**

BAIONAKO MUSEOAREN BULETINA

1924an, Baionako Euskal Museoak *Bulletin du Musée Basque* argitaratzeari ekin zion, II. Mundu Gerraren kariatz utzi ziolarik. Hirurogeiko hamarkadan berpiztu zen, hiruhilabetekari bezala. Gaur egun, aldizkariaren arduradunak Museoaren Adiskideak dira.

SANCHO EL SABIO

Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioak *Sancho el Sabio, euskal kultura eta ikerketako aldizkaria* sustatzen du. 1991 eta 1997 bitartean urtekaria, gaur egun bi urtetik behin argitaratzen da. Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaiera aldera sortutako *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*-ren jarraipena da.

Caja Vital Kutxa-ren babesaz, aldizkariak zinez euskalduntzat jotzen du Euskal Herriari buruz edozein gairen inguruan hausnartzen duen idazle ororen obra eta produkzioa, edukia eta ikuspegi ideologiko edo kulturala alde batera utzita. Horrez gain, unibertsitateko ikasleen eta adituen belaunaldi berriei beren ikerketen emaitzak aurkezteko aukera eman nahi die. Zerbaki bakoitzean, *Sancho el Sabio*-k arte, historia, hizkuntza, literatura, zuzenbidea, soziologia eta abarri buruzko ikerlanak jasotzen ditu.

LURRALDE

*Lurralde* «Andrés de Urdaneta» Euskal Institutu Geografikoaren Ikerketa eta Espazioko aldizkaria da. Donostian, 1978az geroztik argitaratua, geografia eta ingurugiroari buruzko artikuluak hartzen ditu. Bere esparru nagusia, bakarra ez bada ere, Euskal Herria eta honen ingurunea da.

BAT

*Bat*, *Soziolinguistika eta Glotodidaktika Aldizkaria*-ren zuzendaria Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*, da. 1990ean sortua, argitalpena Euskal Kulturaren Batzarrak argitaratzen du, aldizko periodikotasunez.

EGUZKILORE

Kriminologiako Euskal Institutuak *Eguzkilore* aldizkarian adierazpide bat du, bere irakaskuntza eta ikerketa lanaren osagarri eta laguntza gisa. Izenburuak euskal baserrietako atean eguzkiaren irudikapen bezala eta gaitza uxatzeko jartzen den sinbolo tradizionala gogora ekartzen du. Aldizkariaren lehen zenbakia 1976ko urriaren argitaratu

- **ANTROPOLOGIA-  
-ARKEOLOGIA-  
-ESPELEOLOGIA**

ESTUDIOS DE ARQUEOLOGÍA

Arabako Foru Aldundiko Kultura Kontseiluak *Estudios de Arqueología Alavesa* argitaratzen du, liburu formatuan. 1963az geroztik, aldizko periodikotasunez, Arabako lurraldearen ondare arkeologikoa ezagutaraztea du helburu.

OHITURA

Erakunde berak ateratzen du *Ohitura*, *Revista de Estudios de Etnografía Alavesa*, Arabako herriei buruzko ikerlan etnografikoak jasotzeko 1987an sortua.

ANKULEGI




Antropologia aztergai bakarra du *Ankulegi*. *Gizarte Antropologia Aldizkaria/Revista de Antropología Social* argitalpenak, 1994az geroztik izen bereko Euskal Antropologia-Elkartek argitaratua. Bere mintzagai nagusiak ikerketa antropologikoaren arazo teoriko eta metodologikoak dira. Antropologiari buruzko ikerketetan interesa duen ororentzat topaleku, eztabaida, lankidetzeta eta lanerako gune izan nahi du.

KOBIE

1969an, Bizkaiko Espeleologia-Taldeak *Kobie* argitara eman zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz. Laurogeiko hamarkadatik aurrera gai anitzak jorratzen ditu: natur zientziak, kultur antropologia, arte ederrak, etnografia, paleontologia, eta abar.

KARAITZA

Donostian, Euskal Espeleologoek Elkargoak *Karaitza* argitaratzen du. Urtekaria da, eta espeleologiaren tratamendu zabal eta askotarikoa eskaintzen du, lurrairean erraie argazki eta irudiak ere aurkeztuz.





zen, baina 1987an bermatu zen urtekari gisa. Irakurleari ikerketa teoriko eta enpirikoari buruzko ikerketak eskaintzen dizkio, eta Antonio Beristainek zuzentzen duen Institutuan burutzen diren dibulgazio jasoko lanak, jardunaldiak, biltzarrak, ikastaro monografikoak, mintegiak, eta abar.

■ PENTSAMENDUKO ALDIZKARIAK

CUADERNOS DE ALZATE

**Cuadernos de Alzate**, *Revista Vasca de la Cultura y las Ideas* pentsamenduko euskal aldizkariaren klasiko bat da. Miguel de Unamuno Kolektiboak sortu zuen, 1984an, «adimenaren, itxaropenaren eta bakearen aldeko proposamen» gisa, eta gaur egun Madrilen egoitza duen Pablo Iglesias Argitaletxeak editatzen du, bi urtean behin.

Aholkularitza Batzordean joera politiko anitzeko intelektual aurrerakoi itzaltsuak daude, «Konstituzioak eta Gernikako Estatutuak ezarritako demokraziaren arauak onartzea beste mugarik gabe, eta demokrazia espainiarraren barruan Euskadiren nazio-proiektuarekiko leialtasuna, berariaz onartua, beste konpromisorik gabe».

BITARTE

Javier Mina idazlea da 1993tik Donostian argitaratzen den **Bitarte**, *Revista de Estética y Antropología* lau hilabetekariaren zuzendari eta bultzatzaile nagusia.

TALAIIA

Soziologoak, ekonomistak edo idazleak hurbildu dira **Talaia**-ren orrialdeetara, izen bereko fundazioaren eztabaidarako aldizkaria. Hausnarketaren ildoari lotuta, oro har gizarte garaikideak eta bereziki euskalduna arduratzen eta kezkatzen dituzten gai guztiak jorratzen ditu. Liburu tankerako formatuaz, lehen zenbakia 1997an atera zen, zuzendaria Kepa Aulestia zuela.

SAIOA.NET

Fundazio horrek berak babesten du **Saioa.net**, *ideien ataria*. Atarian pentsamenduaren alorrean Euskadin egiten den guztia eskaintzen da, gure herritik kanpoko materialen sorta bat jasotzen da gaikako hemeroteka moldean, eta komunikazioa zein ideia eta ezagutzen trukea faboratzen da.

Saioa.net atariaren bitartez honako argitalpen hauen harpidedun egiteko zein horiek erosteko aukera dago:



**Bakeaz** (Bakerako Ikasketa Zentroaren bihilabetekaria. 1998az geroztik defentsaren ekonomiari, segurtasun politikei, bakerako hezkuntzari, ekologiari eta abarri buruzko lanak argitaratzen ditu)

**Bitarte**

**CDD** (Ikerketa, esperientzia, mintegi eta abarri buruzko bibliografia eta berri laburren buletina, drogamenpekotasunaren alorrean)

**Círculo de Empresarios Vascos**, argitalpenak

**Cuadernos de Trabajo de Hegoa** (Nazioarteko Garapen eta Lankidetzari buruzko Ikaskuntzen Institutua)

**Eguzkilore** (Kriminologiako Euskal Institutua)

**El escéptico** (arrazoia eta zientzia sustatzeko aldizkaria, Pentsamendu Kritikoaren Aurrerabiderako Elkarteak argitaratua)

**Emakunde** (Emakumearen Euskal Institutuak argitaratutako hiruhilabetekaria)

**IDHPA** (Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe, Deustuko Unibertsitateak 1997an sortua)

**Inguruak**

**Miguel Sánchez Mazas Katedra** (zientzia eta teknikaren sorrera eta egiturari zein horiek gizakia eta gizartearengan duten eraginari buruzko auzien gaineko elkarriketa politikoa bultzatzeko sortutako katedra)

**Talaia**

**Theoria**

**Zehar**

**Zer**

**Zerbitzuan** (Dokumentazio eta Ikasketen Zentroaren aldizkaria, 1972an sortua eta ongizatearen alorrean dokumentazio eta ikerketa jardueretara emana)

<http://www.saioa.net>



■ UNIBERTSITATEKO ALDIZKARIAK


● NEVADAKO UNIBERTSITATEA

Renon lekututako Nevadako Unibertsitateko Basque Studies Program-ek **Newsletter**, *A publication of western studies center* argitaratzeari ekin zion, 1968ko azaroan. Seihilabetekari hau doan banatzen da, eta ingelesko testuek aipatu unibertsitate iparramerikararen euskal kulturaren gainean buntzen diren ikerlanak biltzen ditu. Aldizkariaren sorreran William A. Douglass dago, Estatu Batuetan euskal ikasketen bultzatzaile nagusia.



● EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Hastapenetan, «Julio de Urquijo» Euskal Filologiako Mintegia Euskal Herriaren Aldeko Adiskideen Elkarteko atal bat zen. 1967an, Koldo Mitxelena eta Manuel Agud mintegiko *Anuario*-ren buru jarri ziren, zeinak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes ekonomikoa baitzuen. Bost urte baino gehixegoz Eusko Ikaskuntzaren eskuetan egon ondoren, **Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo** EHUrena da egun, eta euskal filologia, hizkuntzalaritza eta literaturako ikasketei buruzko argitalpenik aktibo eta dinamikoena da.



alderdi historikoei arreta berezia eskainiz. Seihilabetekaria da.

JOURNAL

Nazioarteko kalkulu bibliometrikoen arabera, **The International Journal of Developmental Biology** Espainiako argitalpen zientifiko, tekniko eta mediko guztien buru dago. Garapenaren biologia aztertzen duen aldizkari honek zerbaki erregularrak eta zerbaki berezi monografikoak ditu. Kalitate bikaineko paper ezko edizioaz gain, bertsio elektronikoan ere eskuragarri dago (<http://www.ijdb.ehu.es>).

CURSOS DE DERECHO

Gasteizko **Cursos de Derecho Intemacional** zuzenbidezko nazioarteko auzien gaineko hausnarketara emandako argitalpen erregular apurretakoa da, eta ikerlari nazionalak zein atzerrikoak biltzen ditu. Urtekaria da.



LAN HARREMANAK

Lan-munduaren inguruko hausnarketa ezaren hutsunea betetzeko, EHUk **Lan Harremanak**, *Revista de relaciones laborales* sustatzen du.

EKAIA

**Ekaia**, *Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Aldizkaria* osoki euskaraz idatzitako eta heziketa zientifikodun irakurleei zuzendutako dibulgazioko seihilabetekari bat da. **Ekaia**-k zientziaren eta teknikaren alorrean euskararen estandarizazioa bultzatzen du, eta alor horietan euskara erabiltzeak sor ditzakeen auziak jorratzen ditu.

FABRICART

**Fabrikart**, *Arte, Tecnología, Industria, Sociedad* arte plastikoetan, arkitekturan eta injenerutzan aplikatutako arlo industrial, mekanizista eta teknologikoetako ideiak, kontzeptuak eta ikonografia biltzen dituen nazioarteko argitalpen bat da.



INGURUAK

Euskal unibertsitate publikoaren Soziologiako fakultateari argitalpen garrantzitsu bat zor diogu, jada desagertua baina oraindik ere irakurria: **Inguruak**, *Soziologia eta Zientzia Politikoaren Euskal Aldizkaria / Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política*. Lehen zerbakia 1986ko abenduan atera zen, eta azkena bost urte gerago.

SKRIBUAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologiako Departamentu berak eztabaida-leku berri bat du: **Skribuak Working Paper**. Helburuak eztabaidarako materialak sortzea eta aniztasun metodologikoa praktikan jartzea dira.

GOGOIA

**Gogoia**, *Euskal Herriko Unibertsitateko Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuak* euskaraz argitaratzen da.

TANTAK

**Tantak**, *Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*. Hezkuntzari buruzko seihilabetekaria, osoki euskaraz idatzia eta irakaskuntza maila guztietako euskal hezitzaileei nahiz irakasleak heztekako eskoletako ikasleei bereziki zuzendua.

GUINEANA

**Guineana**, *Revista de Botánica*. Botanikako gaiet buruzko argitalpena, zerbaki bakoitzean hedadura handiko monografiak eskaintzen dituena.



THEORÍA

**Theoría**, *Revista de Teoría e Historia y Fundamentos de la Ciencia* EHUko aldizkari ospetsuenetako bat da. Madrilen jaio zen, 1952an, Miguel Sanchez Mazas irakaslearen ekimenez, baina 1985ean egoitza Donostian duen Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofiako Fakultateko Zientziaren Logika eta Teoriaren Departamentuko Zuzenbidezko Logika era Informatikaren Análisi-Zentroak bereganatu zuen. Aldizko periodikotasunekoa, batik bat espainieraz eta ingelesez argitaratzen du, baina baita beste hizkuntzetan ere, eta bere aztergaiak Logika, Zientziaren

HISTORIA CONTEMPORÁNEA

**Historia Contemporánea**. Tuñón de Lara irakasleak 1988an sortua. Historia garaikide sektorial eta orokorrari buruzko ikerlanak jasotzen ditu, Euskal Herriko



Filosofia eta Historia, Hizkuntzaren Filosofia eta Zientzia Kognitiboa dira. Lau hilean behin ateratzen da, eta Javier Echeverria irakasleak argitaratzen du.

VELEIA

**Veleia**, *Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueología y Filología clásicas*. Instituto de Ciencias de la Antigüedad/ Antzinate Zientzia Institutua-k argitaratzen du, 1984az geroztik, Gasteizen. Urtekaria da, eta, liburu tankerako formatuaz, aldizkariaren hirurehun orrialdeetan irudirik ez da ageri. Artikulu generikoak baztertu gabe, Euskal Herriari eta inguruko eremu buruzko gaietara berezia eskaintzen die.

ZER

Azkenik, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak **Zer** seihilabetekaria ateratzen du. Azpigituluak dioenez, *Komunikazio Ikasketen Aldizkaria* da.

● DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Argitalpenen Departamentuaren helburua Deustuko Unibertsitatearen ikerketa eta irakaskuntzako lana hedatzea da. Ildo editoriala, XIX. mendearen amaieran hasia, ikasketa humanistikoetan oinarriturik dago. Ikerlan zientifikoak unibertsitateko adar eta irakasgai ezberdinak hartzen dituzten bildumetan antolatuz daude, eta gazteleraz eta euskaraz argitaratzen dira.

ZUZENBIDEA

Zuzenbideko arloak lankidetzako zuzenbideari buruzko **Lankidetzako Ikaskuntzen**

**Urtekaria** argitaratzen du, eta honen osagarri den **Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo**.

Zuzenbide europarraren alorrean, bi urtetik behin **Cuadernos Europeos de Deusto** argitaratu ematen da.

Aldizkakotasun bera dute **Estudios de Deusto** soziojuridikoak eta giza genetikari buruzko **Revista de Derecho y Genoma Humano** agerkariak.

EKONOMIA

Ekonomiako eta enpresako ikasketak egiten dituztenek **Boletín de Estudios Económicos** eta **Estudios Empresariales** dauzkate eskura.

HUMANITATEAK

Juan Plazaola irakasleak 1975ean sortu zuenetik, **Mundaiz**-ek itzal handia du literatur kritikako aldizkariaren artean.

Beste hainbeste esan daiteke literatura, hizkuntzalaritza eta historiari buruzko **Letras de Deusto** hiruhilabetekari aski entzutetsuak.

Euskal Filologia eta Literaturako ikasle eta irakasleen Batzordeak **Enseiukarrean** urtekaria ateratzen du.

Deustuko Unibertsitateak Ediciones Mensajer o-rekin hitzarmena du, bere argitalpenak merkaturatzeko.

● NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko bost aldizkari-bildumek izenburu bera daramate, Juan Huarte San Juanen izena hain zuzen. Huarte mediku eta

humanista 1529an jaio zen, Nafarroa Beherean, eta Bepizkundeko zientziaren obra gailen bat idatzi zuen: *Examen de Ingenios para las Ciencias* (1575). Bildumek Unibertsitateko irakasle eta ikasleek egindako testuak jasotzen dituzte, eta honakoak dira:

- Huarte de San Juan. Derecho.
- Huarte de San Juan. Filología y Didáctica de la Lengua.
- Huarte de San Juan. Geografía e Historia.
- Huarte de San Juan. Psicología y Pedagogía.
- Anales de Derecho. Colección Huarte de San Juan.

● NAFARROAKO UNIBERTSITATEA

ANUARIOS

**Anuario Filosófico** aldizkariak zientziaren alorreko lankidetzara eta komunikazioa bultzatzeko tresna izan nahi du. 1967az geroztik etenik gabe argitaratua, 335 egile espainiar nahiz atzerritarren ikerketak jaso ditu, 500 ikerlan eta 600 aipamen baino gehiago eskainiz. Lau hilabetekaria da. 1992az geroztik, zenbaki gehienak monografikoak dira, eta bi urtetik behin gai ezberdinekiko zenbaki bat argitaratzen du. Horrez gain, monografia filosofikoen serie bat editatzen da, **Cuadernos de Anuario Filosófico** izenburuaz. **Anuario de Historia de la Iglesia** Nafarroako Unibertsitateko Teologiako Fakultatearen Elizaren Historiako Institutuaren urtekaria da. 1992az geroztik argitaratzen da. Nafarroako Unibertsitateko Europa Taldeak **Eurobox** hilabetekaria argitaratzen du,

Europako Batasunari buruzko informazio eguneratua hedatzeko helburuaz. Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak, enpresariak eta erakunde publikoak ditu jomuga.

Nafarroako Unibertsitatearen beste zenbait argitalpen:

- Anuario de Derecho Internacional *Bit a Bit* (Internetez)
- Cauces de Intercomunicación *Comunicación y Sociedad*
- Cuadernos de Arqueología
- Cuadernos Doctorales/Canon Law,
- Día a Día desde la Clínica Universitaria
- Entrada Este* (Ekonomiako Fakultatea)
- Estudios sobre educación*.
- Excerpta et dissertationibus in Sacra Theologia
- Fidelium Iura Humana Iura
- Ius Canonicum
- Lecturas Filosóficas
- Limo* (Boletín del Laboratorio de Investigación y Multimedia en Humanidades)
- Memoria de Proyectos de Arquitectura
- Noticias de la Clínica Universitaria
- Nuestro Tiempo
- Persona y Derecho
- Publicaciones de Biología. Serie Botánica
- Publicaciones de Biología. Serie Zoología
- Redacción
- Revista de Edificación
- Revista de Medicina
- Rilce
- Scripta Theologica
- State Ecclesiastical Law
- Vida Universitaria

# ARGITALPEN POLITIKOAK



LA LUCHA DE CLASES, EUZKADI SOCIALISTA, BIZKAITARRA, EUSKALDUNA, BASERRITARRA, EUZKADI, LA PATRIA, ABERRI, GIPUZKOARRA, NAPARTARRA, ARABARRA, EUZKO DEYA, EUSKO GASTEDIJA, ABERRI, NACIONALISTA, ACCIÓN VASCA, TIERRA VASCA, GUDARI, LAN DEYA, ENBATA, EKAITZA, ZUTIK, HAUTSI, ERRI, EUSKADI OBRERA, AZKATASUNA, HEMEN ETA ORAIN, IRAULTZA, KIKA, HITZ, HEMENDIK, HERRIA EGINEZ, EZPALA, GARAIA

## ■ KARLISMOA

Euskal esparruan, karlismoa prentsa idatzia limurtze eta propagandaren zerbitzura jarri zuten lehen mugimendu politikoak izan zen. 1931n Lehen Karlista hasi zenean, karlistek komunikabide bat sortu zuten, **Boletín Oficial del Ejército**, bigarren gerran **El Cuartel Real** izena hartuko duena.

Karlistek, bi mendetako historia luzean, egunkari garrantzitsuak eta aldizkari ugari izan ditu kontrolpean: **Ausarki**, **Boina Roja**, **Carlitas**, **La Cruzada Española**, **Chapel Zuri**, **Tradición Vasca**, **El Fuerista**, **El Jaimista**, **Montejurra**, **Insurgencia**, **La Esperanza** (aldizkari hori noiz aterako zen jakitea kasik ezinezkoa zen, ezen, goi-buruan zioenez, «gogoak ematen digunean aterako da»), **Informacion Mensual**, eta, gaur egun, **El Federal**.

## ■ SOZIALISMOA

### LA LUCHA DE CLASES

Alfonso C. Saiz de Valdivielso euskal prentsaren historialariari adierazi duenez, «Madrilgo **El Socialista**-ren atzetik –alderdiaren organo ofiziala–, **La Lucha de Clases** Espainian izandako egunkari zahar, serio eta borrokalariena izan da.

Han arituko dira estatuko idazle sozialista garrantzitsuenak, Indalecio Prietok ere han idatziko du bere lehen artikulua, eta Miguel Unamunok, ezizenarekin



edo inicialak jarriz, 1904 arte lanak bidaltzen jarraituko du». **La Lucha de Clases**-en zailduko da Tomas Meabe idazlea, «mistiko gorria», zeina aldi batez zuzendaria ere izango baita. **La Lucha de Clases** 1894tik 1937ko ekainaren 16ra bizi izan zen.

### EUZKADI SOCIALISTA

Diktaturako urteetan, Euskadiko batzorde sozialista nagusiak eta Unión General de Trabajadores sindikatuak **Euzkadi Socialista** argitaratu zuten, hilabetekari ibiltari bat, bitarteko gutxierekin Toulouse, Bordele eta Mexikon inprimatu zena.

## ■ NAZIONALISMOA

### BIZKAITARRA

XIX. mendeko azken hamarkadan, Sabino Arana euskal nazionalismoaren fundatzailea bere ideiak hedatzeko komunikabideak sortzeari buru-belarri lotu zitzaion. Aurrenekoa **Bizkaitarra** hilabetekaria izan zen, eta 1893tik 1895eko iraila bitartean iraun zuen, gobernuaren aginduz galarazi zutenean. Elebiduna zen, eta bere editore eta idazle Arana Goiri anaien ikuspegitik garaiak auzi politikoak berri ematen zuten. **Bizkaitarr**-k erlijioaren eta euskaldunen etsaiei gupidagabe erasotzen zien, baina baita erabat erlijiosoak eta foruzaleak ziren euskaldun batzuei ere, bizkaitarismoak areriotzat zituenak: Donostiako **Euskal Erria**



aldizkariarekin zuten harremanagatik euskalerrriako deituak, zeintzuen gainean lehenago ere aritu baikara.

### EUSKALDUNA BASERRITARRA

Joera posibilistako nazionalistak, euskalerrriakoak 1896az geroztik **Euskalduna** astekariaren inguruan bilduko dira, 1909 arte EAJren adar liberalaren bozeramaile gisa biziraungo duena.

*Bizkaitarra* bortxaz itxi eta urte eta erdira, Teofilo Guiard Sabino Aranarekin batuko da, elkarrekin **Baserritarra** ateratzeko. Astekari horrek, bere aurrekoaren oztupoak gainditzeko, joera aranistak ezkutatu zituen, eta forzale euskalerrriakoen aurrean neurritsuagoa agertu zen.

### EUZKADI, LA PATRIA, ABERRI

«Euzkadi» neologismoa, Aranak 1896an asmatua, behin betiko bermatuko da 1901. urtean izen bereko aldizkaria agertzen denean. Hasiera batean zientziak, arte ederrak eta letrak zituen gai nagusiak, baina luze gabe eduki erabat politikoetara lerratu zen. 1910 arte **Euzkadi** zuzendu zuen Sabino Aranak berak **La Patria** sortu zuen 1901ean, 1903an **Patria** izena hartuko zuen, eta 1906an **Aberri**.

### GIPUZKOARRA, NAPARTARRA, ARABARRA


Nazionalismoa Bizkaian baino beranduago sartu zen gainerako euskal herrialdeetan, eta, masa mugimendua bihurtu aurretik, prentsa idatzia lehenetsi zuen jarduera eremu gisa. Alderdi sabindarraren lehen aldizkariak **Gipuzkoarra** (1907 eta 1913 bitartean), **Napartarra** (1911 eta 1918 bitartean), eta **Arabarra** izan ziren.

### EUZKO DEYA, EUZKO GASTEDIJA

**Euzko Deya** hilabetekaria, 1916tik EAJrena eta bigarren aldian (1921-1923) **Euzko Gastedija**-rena, euskal prentsaren historian sartu da, nolabaiteko garrantzia izan zuen eta erlijioaren eragin bakarra ez zuen euskara hutseko lehen aldizkaria bezala.

### • ABERRI

Hogeiko hamarkadako nazionalismo erradikalaren zatiketari «aberriano» deitu zitzaion, bere aldizkariaren izenburuari jarraiki. 1916 eta 1920 bitartean, Aberri Euzko Gaztediren organoa izan zen, eta EAJ-Aberriren bozeramailea, 1921ean Comunion Nacionalista-k aipatu taldea egotzi zuenetik. Comunion-ekoek beren ideiak **Euzkadi**-ren bitartez hedatzen zituztelarik, 1923an nazionalista ortodoxoek *Aberri*



egunkari bihurtu zuten. Primo de Riveraren estatu-kolpearen ondotik, egunkari berria debekatu izan zen.

1930ean, komunio eta aberrikoek «Bergarako besarkada» propioa eman zioten elkarri, Gipuzkoako herri horretan, Euzko Alderdi Jeltzale bakar batean bilduz.

### NACIONALISTA, ACCIÓN VASCA, TIERRA VASCA

Alabaina, zatiketa berri bat emango da, talde ez konfesional eta apur bat ezkerreko batek alderdia uztean: Acción Nacionalista Vasca. ANVk bizitza laburreko bi astekaritan hedatuko ditu bere ideiak, **Nacionalista** eta **Acción Vasca**, **Tierra Vasca** egunkaria moldatu arte. Egunkari ona zen, joera aurrerakoi eta intelektualekoa, ez baztertzaila, «nazionalismoaren iritzi egurastu eta liberalena ordezkatzan zuena», Saiz Valdiviolsoren esanetan.

Faxistek Bilbo hartu ondoren, *Tierra Vasca* Baionara aldatu zen, eta han, Juan Carlos Basterraren zuzendaritzapean, 16 zenbaki inprimatu ziren, 1946 eta 1947 bitartean. Egunkariaren lehen zuzendari izandako Jose Olivares Larondo «Tellaorriak Buenos Airesen ardura nagusia hartu zuen ostera, 1956. urtean. 1975eko iraila arte, Acción Nacionalista Vasca-ren organoaren 231 zenbaki argitaratu ziren erbasteen.

### GUDARI

Berebat, Euzko Alderdi Jeltzaleak Europan eta Amerikan barrena barreiatutako aldizkari bat mantendu zuen diktadurako berrogei urteetan: **Gudari**. Bilboko Euzko Gaztediren jardueren berri ematen hasi zen, 1936ko azaroan, eta 1937ko martxoan, Lauaxeta zuzendari zuela, «Euzko Gudaroztearen astekari grafikoa» bihurtu zen. Gerraren bilakaerari buruzko berriak eskaintzen zituen, euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez. 1961 eta 1974 bitartean *Gudari*-ren 67 zenbaki atera ziren Caracasen, Euzko Gaztedi/Resistencia Vasca-ren eskutik. Zuzendariak Alberto Elosegia eta, 1969az geroztik, Iñaki Anasagasti izan ziren.

### LAN DEYA

Euzko Langileen Alkartasuna / Solidaridad de Trabajadores Vascos sindikatu kristau-demokratik 1933ko abendutik 1937ko ekainean Euskadin Gerra amaitu zen arte (urte horretako otsailen egunkari bilakatu zen) **Lan Deya** bere informazio sindikaleko organoari eustea erdietsi zuen, eta gerora ere inprimatzen jarraitzea lortu zuen, bai barne erresistentziaren barruan bai erbesteko edizioetan, Biarritz, Baiona eta Caracastik.



## ■ ENBATA-TIK ZUTIK-ERA

### ENBATA

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, adiskide euskaltzaleen talde batek (Ximun Haran, Michel Labeguerie, Pierre Larzabal, eta abar) Enbata mugimendua sortu zuen, Europa batu baten baitan zazpi euskal herrialdeen federazioa, Frantzia euskal departamentu bat eta euskararen onarpena hizkuntza ofizial gisa bultzatzeko xedeaz. 1964an, Etcheverry Ainchart Enbatako hautagaia Baigorriko herrian zinegotzi hautatu zuten. Baina taldea erradikalizatu zelariek, Michel Labegueriek eta sektore oso batek Enbata utzi zuten, desadostasuna argudiatuz, «ez helburuen gainean, metodoen gainean baizik». Izan ere, nazionalista iraultzaileen aurrean jatorriko ideal kristau-demokrata ahuldu egin zen. 1968an, Enbata aldizkariak, 1961az geroztik martxan zegoena, ETari zerbaki monografiko bat eskainiko dio. Zerbaki debeku abisu jaso ondoren, 1974ko urtarrilean mugimendua legez kanpo utzi zuten, eta urtebetez baino gehixeagoz astekaria desagertu egin zen. *Enbata* gaur egun ere argitaratzen da, eta batik bat harpidetzaz banatzen da. Edukiaren %15 inguru euskaraz idatzia da.

### EKAITZA

Baionako rue des Cordeliers berean beste astekari batek, *Ekaitza*-k, du egoitza. Informazio politikozko aldizkariaren merkaturuan *Enbata*-ren lehiakiderik handiena da.

### ZUTIK

Berrogeita hamarreko urteetan mugimendu iraultzaile bezala antolatu ondoren, ETAK *Zutik* sortu zuen, erredakzioa erbesteko euskal nazionalismoaren gune ezberdinetan –Bilbo, Caracas, Mexiko eta Argentina– izango duen argitalpena. 1970ean ETA V eta ETA VI.aren arteko lehen zatiketa emango da, eta alderdi bakoitzak bere *Zutik* aldizkariari eutsi zion, norbere burua jatorrizko izpirituaren zilegizko oinordekotzat hartuz.

### HAUTSI

1972an, ETArene fronte kulturalak *Hautsi* hiruhilabetekaria sustatu zuen Donibane Lohitzunetik, eta 1975ean aldizkariaren ardura «polimiliek» (V. Asanbladako ETA politiko-militarra) hartu zuten. 1981ean amaitzen den azken aldi horretan, *Hautsi*-k adieraziko zuen «Estatutua independentzia eta sozialismoaren aldeko urrats bat dela».

## ■ EUSKAL EZKERRA

### ERRI

Klandestinitateko urte gogorretan, Euskadiko Alderdi Komunistak, Errrepublikara garaietan *Erri* aldizkari elebiduna argitaratu zuena, ekintzarako ahalmen handia agertu zuen, eta ekintza horien artekoa zen liburuxka, paskin eta aldizkari ugariaren argitarapena.

### EUKADI OBRERA

*Euzkadi Obrera* ezkutua samarrean baina erregulatasunez ateratu zen. Aurrena hilabetekaria eta 1972az

geroztik hamaboskaria, gazteleraz eta euskaraz idatzitako zegoen, eta 1957 eta 1977 bitartean Bilbon zein Parisen inprimatu zen.

### AZKATASUNA, HEMEN ETA ORAIN

*Azkatasuna* (1969) hilabetekaria ere elebiduna zen, eta indar dezentekoa, *Hemen eta Orain* (1973tik aurrera) teorika politiko eta kulturalera aldizkaria bezala.

### IRAULTZA

1976an, OIC EKE Ezkerreko Komunisten Erakundea *Iraultza* argitaratzen hasi zen, aldizko periodikotasunez. 1980an aldizkaria EMK Euskadiko Mugimendu Komunistak beregain hartu zuen. Lehen zerbakiak aurrekari zuzena izan zuen *Zer Egin?* aldizkariaren hamargarren urteurrenaren inguruko kolaborazioak jasotzen zituen.

### KIKA

EMK-k eta LKI-k bat egin ostean, 1991n *Hika* jaio zen, formatu handiko hilabetekaria. Euskal Herriari nahiz nazioarteari buruzko gai politikoen gainean dihardu, eta kultur gaietako gastronomiari eskainitako atalak ere baditu. Bere ezaugarri nabarmenenak jarraipena, erregulartasuna, akabera formala eta testuen aniztasun eta kalitatea dira. Ez da argitalpena mugatzen, eta aldi-aldi hitzaldiak eta biltzarrak antolatzen ditu.

### HITZ

Euskadiko Ezkerrean *Hitz* aldizkariak (1979-1984) borroka

politikoari buruzko hausnarketa proposatzen zuen, euskal ezkerrearen ikuspegitik. Aldizkariak uneoroko gai interesgarriak (NATO-n sartzea edo Abortuaren legea kasu) xeheki eta sakonean aztertzen zituen.

### HEMENDIK

1992an *Hemendik*-ek hartu zuen txanda. Bere zikloa oso laster amaitu zen, Euskadiko Ezkerrek PSE-EErekin bat egin ostean.

### HERRIA EGINEZ

2002ko martxoan Herri Batasuna legez kanpo utzi zutenean desagertu zen *Herria Eginez*, bederatzi urte iraun zuen hilabetekari elebiduna.

### EZPALA

*Ezpala*-k bizialdi laburragoa izan zuen (hamahiru zerbaki 1996 eta 1999 bitartean). Ezker abertzalearen aldizkaria zen, Donostian hiru hilean behin argitaratua, batik bat euskaraz, nahiz eta gaztelerazko eta frantseseko testuak ere eskaintzen ziren.

### GARAIA

2001aren hasieran *Garaia* berragertu zen, bere bigarren aldiari, «kontrainformazio eta formazio fronte bat sortzeko xedeaz, zure aberastasun kultural eta politikorako nahiz eguneroko bizitzaren borrokarako baliagarri izango zaizkizun kritika konstruktiboekin, irakurleen iritziekin eta gaiekin». Euskaraz eta gazteleraz idatzia, komikiak, informazio artikulua eta historia barne hartzen ditu.



# INFORMAZIO-ALDIZKARIAK



NOVEDADES, VIDA VASCA, AZUL Y BLANCO, GRAN VÍA, LAR, EUSKAL NEWSMAGAZINES, PUNTO Y HORA, BERRIAK, GARAIA, ERE, ARGIA ZERUKO ARGIA, GOIZ ARGI, SASKI NASKI, EGUNA, HEMEN, ZABALIK, PUTZ

## NOVEDADES

Espainian argitaratutako lehen astekari grafikoa **Novedades**, *Revista Semanal Ilustrada* izan zen, Rafael Picaveak argitaratua, Donostian, 1909 eta 1916 bitartean. Bigarren aldi batean Bilbora aldatu zen, hogeiki hamarkadaren amaieran.

## VIDA VASCA

*Hemes* kalitateko literatur aldizkariaren eredu den bezala, **Vida Vasca** gai anitzekiko aldizkari grafikoa eredu da. Lehen aldiz Bilbon argitaratu zen, 1924an, baina Gerra Zibilaren ondorioz erredakzioa eta zuzendaritza Gasteiza aldatu ziren. Heliodoro Gonzalez ideologia monarkiko eta liberaleko editoreak argitalpenaren estiloan bere arrastoa utzi zuen. Aldizkari koloreanitza eta tradizionala zen edukietan, publizitate ugariakoa, estetikoki erakargarria.

*Revista Regional Española (Turismo de las Provincias Vascongadas y Navarra)* azpituilua zeraman aldizkarian guztia eta ia guztiak kabitzen ziren. Gai anitzekiko aldizkaria, orrialde batean informatiboa, hurrengoan zenei buruzkoa, poetikoa segidan eta ia beti artistikoa, Jose Arrue eta Hombrados Oñatibia irudigileen lanari esker. Urtean behin argitaratzen zen, eta banaketa bikaina zuen, doanekoa, hiriko gizarte-bizitza pil-pilean zegoen leku orotan. 1981 arte iraun zuen.



## AZUL Y BLANCO ETA GRAN VÍA

Informazio-argitalpenen eta argitalpen orokorren azaleko gainbegiratu honetan aipatu beharrekoa da **Azul y Blanco**, 1907 eta 1912 bitartean Bilboko burgesiak estimazio handiz irakurtzen zuen hilabetekari ilustratua. Asmo berbera zuen 1956 eta 1960 bitartean atara zen informazio grafikoko **Gran Vía** astekariak ere.

## LAR

Donostian, Jose Miguel Azaolak –zeina *Egan* literatur aldizkariako editore gisa aipatu baitugu jada– **Lar**, *Revista para la familia* bultzatu zuen berrogeiki hamarkadan, eta hogeiki hilabeteko bizialdia izan zuen.

## ● 'EUSKAL NEWS MAGAZINES'

Francoren erregimena amaitzean, prentsaren mundua erabat aldatu zen. Errealitatea pertzepzio ezberdinez eta jarrera kritikoz interpretatzen zuten komunikabide berriak agertu ziren, 1939az gerotik muturreko eskuin espainiarrak zuen monopolioa urratuz.

Itolarri luze eta mingarri bat leuntzeko ihesbide moduan, Euskadin, 1976 eta 1979 bitartean, informazio orokorreko lau astekari (news magazines) eta bi egunkari jaio ziren. Segidan aipatu astekariak izango ditugu hizpide.





**PUNTO Y HORA**

**Punto y Hora de Euskal Herria** 1976ko apirillean sortu zen, *Le Monde*-ren antzera erredaktoreen elkarrekin gisa antolatua, «askatasun osoa lortzeko ahaleginean, zeinaren baitan kazetariek irizpide propioak jarraitzen baitzituzten, elkarrizketa sakonak, analisia eta eztabaidak eskainiz». Bigarren zenbakian «scoop» grafiko bat (lehen berria) erdietsi zuen, urte horretako Montejurra karlistako istiluekin. Pistola zeraman «gabardinako gizonaren» argazkiak mundu osoan barrena hedatu ziren. 1980an, aldizkaria *Egin* egunkariaren editore zen Hernaniko Orain S.A.k erosi zuen. Hamar urte geroago desagertu zen.



■ **EUSKARAZKO ALDIZKARIAK**

**ARGIA-ZERUKO ARGIA**

1980ko urrian, **Argia** merkatura itzuli zen. Osoki euskaraz argitaratutako astekariak 1919an zuen jatorria, urte horretan aita kaputxinoek *Zeruko Argia* sortu zutelarik. 1936 eta 1953 bitartean galazia, eta ostera 1961 eta 1962 bitartean, hamarkada hartan euskaltzaleen erreferentziako aldizkari bilakatu zen. 1976an, *Zeruko Argia* informazio omokorreko astekari bihurtu zen.

1979an, azken krisiaren kariatz, komunitate erlijiosoak proiektua, non ordurako esku hartze eskasa baitzuen, utzi zuen, eta horrela birjaio zen *Argia*, formatu modernoaz, egitura profesionalaz eta berri politikoaren presentzia handiagoaz. Gaur egun, *Argia*-k irakurle kopuru egonkorraz dirau, eta web gune aski interesgarria du, bere fondo editoriala barne hartzen duena. Kontsultak egiteko:

<http://www.argia.com/>

**GOIZ ARGIA**

Hedapen aski herrikoiaz eta aurkezpen xumeaz, baina eduki politiko garbi eta originalak agertuz, *Goiz-Argi Burujabetzaren alde* aldizkariak batik bat 70 eta 80ko hamarkadetakoa eztabaida politiko eta kulturalen muinean egon zen. Gaur Interneten bizirik dirau, honako helbidean: [www.goizargi.com](http://www.goizargi.com)

**SASKI NASKI**

**Saski Naski** hilabetekari bezala jaio zen 1980an, baina zenbait urte geroago, 1999ko azaroan, arazo ekonomikoak medio, tirada urteko lau zenbakira murriztea erabaki zuen. Euskaraz argitaratua, Donostian, mundu euskaldunaren inguruko gaiak lehenesten zituen.

1980ko urte horretan, euskarazko bost aldizkari nagusiek (*Argia*, *Anaitasuna*, *Jakin*, *Saski Naski* eta *Herria*) kanpaina bat antolatu zuten, «Euskal prentsarik gabe ez dago Euskal Herririk» ikurritza zuna. Elebakartasuna bultzatzeaz gain, helburua aldizkari bakoitzerako lau mila harpide lortzea zen. Helburu handinahiegia zen, gero egiaztatuko zenez. Euskarazko kazetaritzak behera egin zuen nabarmen, eta zulotik ateratzeko urteak behar izan zituen.

**EGUNA Y HEMEN**

Laurogeiko hamarkadaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak bi astekari sortzeko lehiaketa publikoa iragarri zuen: Iparragirrek (*Deia*-ren editorea) **Eguna** jarri zuen merkatuan, eta Orain-ek (*Egin* zeraman enpresa), berriz, **Hemen**. Lehenak 2.500 ale

**BERRIAK**

«Euskal Prentsaren Urtea» deklaraturako 1976. urte berean heldu zen kioskoetara **Berriak**, *Semanario vasco de información-en* lehen zenbakia. Sustatzaileak kazetaritzaren hamar profesional izan ziren, eta ehun pertsonak baino gehiagok mantendu zuten ekonomikoki. *Berriak* Euskal Herrian egindako «taldeko kazetaritzaren» lehen esperientzia izan zen. urte bereko abenduaren 9an 16. zenbakia, azkena, atera zen.

**GARAIA**

Izenarekin jolasean, **Garaia** astekariak bere lehen zenbakiaren azalean hitz-joko bat egin zuen, «Bazen/Bada Garaia», eta bere burua «herriak behar duen astekaria egiteko prest dagoen euskaldunen talde bat» bezala definitzen zuen. 1976 eta 1977an Donostian argitaratutako astekaria, hainbat gai jorratzen zituen, hala nola kronika politiko eta sindikala, tribuna irekia, euskal kultur bizitza, nazioarteko informazioa, emakumeen gaiekiko orrialde bat, eta Estatuko gainerako nazionalitateei buruzko atal bereziak.



**ERE**

1979ko irailean, estatutuaren gaineko erreferendumen kanpaina betean, **Ere** jaio zen, Donostiako beste astekari bat. Bere aurkezpenen iragartzen zenez, «gure ideiak agertzea alferrikakoa iruditzen zaigu: gure egintzengatik, gure hitz idatziengatik, ezagutuko gaituzue. Aurretiaz onberak izan zaitezte». *Ere* bi urte geroago itxi zen, eta, bere esperientziari begira, Euskal Herriko informazio omokorreko aldizkariari patu beltza iragartzen zien: «Astero aldizkakotasuna egunerokotasunaren erritimoak berak gainezkaten du, batak bestea gainezkatzeko duen gertakarien gupil biziki bizkorra, bakoitza, bere horretan, ikusgarria gerta daitekeen arren».










# LITERATUR ALDIZKARIAK





# ALDIZKARI ERLIJIOSOAK



**EUSKAL HERRIAN, PRENTSA ERLIJIOSOAK** eragin handia izan du, produkzioa bezain sendoa. Ordena, eskola, institutu eta zentro erlijiosoen babesean argitaratutako aldizkariak banan-banan aipatzea ia ezinezkoa litzateke. Horrenbestez, hemen horietako batzuk baino ez ditugu aipatuko, aurreko ataletan aipatu aldizkariak gaineratu beharko zaizkienak.

Euskal Herrian, prentsa erlijiosoak eragin handia izan du, produkzioa bezain sendoa. Ordena, eskola, institutu eta zentro erlijiosoen babesean argitaratutako aldizkariak banan-banan aipatzea ia ezinezkoa litzateke. Horrenbestez, hemen horietako batzuk baino ez ditugu aipatuko, aurreko ataletan aipatu aldizkariak gaineratu beharko zaizkienak.

## MENSAJERO

Aspaldikoa zelako eta euskal etxetan barneratze-maila handia zuelako, **Mensajero**, *Revista popular, familiar, cristiana* aparteko kasua da Euskal Herriko aldizkako argitalpenen historian. Deustuko jesulagunen *El Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkaria Bilbon hasi zen inprimatzen, 1883. urtean. 1915ean, Mensajero argitaletxe garrantzitsua jaio zen. Berrogeita

hamar orrialdetan, hilero (abuztuan ezik) gaurkotasuneko gaiak, ez erlijiosoak bakarrik, landuko ditu. Mendi erdiz baino gehiagoz (1910-1961), *El Mensajero*-k denbora-pasako gehigarri bat zuen, **De bromas y de veras**, «irakurketa serio nahiz alaiak» hilabetekaria, eta berrogeiko hamarkadan **Favores del Hermano Gárate** izenekoak gehitu zuen.

## LA AVALANCHA

Bizitza luzeko beste aparteko kasu bat **La Avalancha** aldizkariarena da. Hamaboskari ilustratua, Biblioteca Católica Propagandista integristak 1895az geroztik argitaratzen zuen, Iruñean. 1950ean desagertu zenean, arazo ekonomikoek behartuta, *La Avalancha* 1.312 zenbakira heldu zen.

## ARANZAZU

**Aranzazu** harpidetzak familiaren bitartez eta belaunaldietan barrena berritzen dituen aldizkari erlijioso horietako bat da. Arantzazuko frantziskotarrek idatzi dute, Oñatin, 1921az geroztik, eta gaztelera nahiz euskaraz. Azken aldiak euskal elizaren eta mundu osoan barreiatutako misiolarien egoerari buruzko informazioa, pertsonaia ospetsuen gaineko berri laburrak, gaurkotasuneko kronikak eta iruzkinak, Andre Mariaren kontakizunak, eta Estatu espainiarrean burutzen diren ekitaldi erlijiosoen berri ematen du.

## ANAITASUNA


**Anaitasuna** aldizkaria, Tolosako Aita Frantziskotarrek 1953an sortua, beste nonbait aipatu dugu jada. Aldizko periodikotasunekoak,

«hirugarrendarren maisua» gai erlijiosoei buruzko euskarazko argitalpen bat zen, zerbait literatur kolaborazio zituena (han hasi zen Bernardo Atxaga delako bat).

Diaz Noci irakasleak dioenez, «euskal komunikabide guztietatik, akaso *Anaitasuna* aldizkaria izan zen 60ko hamarkadaren amaieran, hau da, euskararen aldaera batua egin berritan, hura erabiltzea erabaki zuen lehena. Euskara batuan idatzitako lehen testuak 1970ean agertu ziren *Anaitasuna*-n, eta hori arrisku bat eta aurrerapauso bat zen aldi berean, Xabier Kintana eta Gabriel Arestiren lanak ezagutzera eman zituzten, eta, gainera, ortografia berria, aski eztabaidatua, itsumustuan onartu zuten».

1976an bere ildo aldatu zuen, eta aski politikoa bihurtu zen. Zuzendaritza Juan Mari





Torreldaik hartu zuen eta, hurrengo urtean, fundatzaileek aldizkaria langileen enpresa batzordearen esku utzi zuten. Beren burua abertzale eta sozialista bezala definitzen zuten. 1983an argitaratzeari utzi zion, eta kazetariari zati handi bat *Argia*-n txertatu zen.

### KARMEL

Oraino argitaratzen dena **Karmel** da, Larreako karmeldarren formatu txikiko euskarazko aldizkaria. 1931n hasi zen, *Karmen'go Argia* bezala. Hamabost urteko etenaren ostean, 1951n *Karmel* izenarekin ateratu zen. 1959 eta 1969 bitartean, hiru hilean behin, Aita Onaindiak zuzendutako gehigarri poetiko bat, **Olerti**, argitaratzen zuen. Gaur egun, *Karmel*-ek

gaurkotasuneko kultura, gizarte eta elizako gaiak zein iritzi artikulatuak eskainiz jarraitzen du.

### IRATZAR!

**Iratzar!** (1976/78). Euskal Erlijiosoen aldizkaria. Lazkaoko aita beneditarrek euskaraz argitaratutako urtekarria da.

### HERRIA 2000 ELIZA

«Komunitate kristauen eta bere burua eliz herrikoia deitutakoari lotua sentitu duen pertsona ororen adierazpide eta topaleku izateko» xedeaz jaio zen 1978an **Herria 2000 Eliza**, Euskadiko Kristauen Asanbladaren ekimen politiko-erlijiosoa. Bere orrialdeetan euskal gizartearen planteatzen diren gai nagusiak aztertzen dira, gizartearen eraldatzeko ikuspegi batetik.

### JAUNAREN DEIA

Erljioa aztergai duten aldizkariaren artean, **Jaunaren Deia** teknikoki teologiko eta pastoralena da, pentsamolde zabal batekin. Euskaraz egindako hausnarketa erlijiosoen eta hizkuntza erlijioso bat moldatzearen eredu bat da.

### EGUTEGI-SORTAK

Argitalpen multzo bat badago, ezinbestean urtekarria izan behar duena: **egutegi-sortak**. Data bakoitzeko orri bat daukate, egunero kentzen dena.

**Arantzazu**-koa eta **Jesusen Bihotza**-rena ezagunak dira, eta lehen orain baino gehiago. Aldizkako argitalpen erlijiosoen barruan sartzen baditugu, edukiak urte donosten dutelako eta egutegien filosofiak denboraren

erabilerearen zentzu moral bat gordetzen duelako da.

### SANTIAGO BIDEA

*Actividades Jacobeas. Boletín de la Asociación de Amigos de los Caminos de Santiago en Gipuzkoa* (Gipuzkoako Santiago Bideen Adiskideen Elkarteko Buletina)

*Bourdon* (Bulletin de liaison des Associations Régionale et Départementales des Amis de Saint Jacques en Aquitaine)

*Codex. Boletín de la Asociación de los Amigos del Camino de Santiago de Alava* (Arabako Santiago Bideen Adiskideen Elkarteko Buletina)

*Estafeta Jacobea. Boletín bimensual de la Asociación de Amigos del Camino de Santiago en Navarra* (Nafarroako Santiago Bideen Adiskideen Elkarteko Bihilabetekaria)

# KIROL-ALDIZKARIAK



EXCELSIOR-EXCELSIUS, PYRENAICA, MARCA, KIROL-GEHIGARRIAK, CLUB, MUTXO, PILOTARI

## HASTAPENAK

Kirol-prentsaren hastapenak honako argitalpenetan daude: **Sport Vasco** (Bartzelona, 1911), **Los Deportes**, *Revista Ilustrada de Sport* (Bilbo, 1915), **Sportsman**, astekaria, (Bilbo, 1923), **Guipúzcoa deportiva y aristocrática**, *Revista Ilustrada de Deportes, Turismo y Gran Mundo*, urtekaria (Donostia, 1926).

## EXCELSIOR, EXCELSIUS

Kirol-tako lehen euskal egunkaria **Excelsior** izan zen (Bilbo, 1924). Javier Gortazarrek argitaratu eta Jacinto Miquelarena kazetari bizkaitarrak zuzendua, egunero 20.000 ale saltzen zituen. 1931n, nazionalismoaren barne-borroken ondorioz, jabetza aldatu zuen, eta **Excelsius** bilakatu zen. Gerra Zibilaren etorrerarekin desagertu zen.

## PYRENAICA

**Pyrenaica**. Euskal Mendizaletasun Federazioaren hiruhilabetekaria, 1926az geroztik Bilbon eta orain Tolosan ateratzen dena. Mendiaz interesatutako irakurleei zuzendua, senderismoari eta eskaladari buruzko erreportajeak, xeheki markatutako ibilbideak, aisialdirako proposamen ezberdinak eta informazio orokorra eskaintzen ditu, argazki eta mapa ugariz lagunduta.

## MARCA

Prentsa espainiarrean gehien saltzen den egunkaria, **Marca**, Donostian jario zen 1938an, Gerra Zibil betean, «Kirolen Astekari Grafiko» bezala. 48



zenbaki atera ondoren, 1939ko abenduan Madril aldatu zen, eta Mugimenduaren Kateko (Cadena del Movimiento) eguneroko prentsaren baruan sartu zen.

## MUNDO DEPORTIVO

Ibilbide luzeko kirol-egunkari bat da, eta egunero Euskal Herriko edizio bat ateratzen du.

## KIROL-GEHIGARRIAK

Estatuko lehen egunkari falangistak, Iruñeko **Arriba España**-k, kirol-tako astekari bat atera zuen 1945az geroztik: **Stadium**.

**Sprint**, *Semanario Deportivo Vasco Navarro* (Madril, 1952).

**Meta**, *Semanario Gráfico de los Deportes* (Bilbo, 1952-1953).

**El País Vasco Deportivo**, *Revista Anual Ilustrada* (Donostia, 1954).

**Frontón**, Revista Informativa de la Pelota (Iruñea, 1968).

**Norte Deportivo** (Iruñea, 1968).

**Estadio**, bisemanario (Bilbo, 1969-1970).

**Pilota**, *Revue de la Federation Française de Pelote Basque*, bimensual (Baiona, 1970).

**Kirolak**, *Revista Deportiva del País Vasco* (Donostia, 1972-1975).

**Revista de Información Deportiva** (Bilbo, 1971).

## CLUB

1998az geroztik, Euskadi eta Nafarroako Automobil Klubak (Real Automóvil Club Vasco Navarro) **Club** hilabetekaria argitaratzen du bere bazkideentzat. Automobilaren erabiltzailearentzat gai interesgarriak jorratzen ditu, eta azken nobedadeen berriak, bidaietako erreportajeak eta elkarriketak eskaintzen ditu.



## MUTXO

**Mutxo**. Pilota-aldizkaria, ez oso lodia baina kirol horretaz bakarrik arduratzen dena, bere aldaera ezberdinetan: esku-pilota, erremontea eta zesta-punta, eta Europa zein Amerikako pilota-jarduerak.

## PILOTARI

Euskal Herriko Pilota Federazioak **Pilotari** argitaratzen zuen Oñatin (1990). Bigarren aldi batean, 1994az geroztik, tabloide formatuan eta aldizkari tankerako paperez agertzen zen. Gerora formatua murriztu egin zen, eta kolorea sartu, beti ere kalitateari eutsiz.





# SATIRIKOAK, UMOREZKOAK, KOMIKIA



COMICTiva, EL CHIMBO, EL DANZARÍN, EL MENTIRÓN, EL RUIDO, EUSKADI SIOUX, HORDAGO, IPURBELTZ, KILI-KILI, LA AMETRALLADORA, LA TRINCHERA, NAPARTHEID, TMEO

1868ko iraultzaren ondotik Isabel II.ak tronua galdu zuenetik 1876ko Err estauraziora bitarteko aldi horretan, satira politikoa irakinaldi betearen zegoen. Aldizkariak eta egunkariak sortu ziren edonon, oro har bizialdi laburrekoak, garaiko politikarekin umorea eta burgesia berriaren usadioekin satira egiten zutenak.

## EL MENTIRÓN

Gure artean, Tertulia Vitoriana-ko adiskideek grina bereziz heldu zioten kazetaritza trufariaren generoari. 1868 1869 biurtekoan, Ricardo Becerro de Bengoak **El Mentirón** sortu, zuzendu eta moldatu zuen.

## EL DANZARÍN


Esperientzia hura errepikatu egingo zuen, Fermin Herranekin batera, **El Danzarín**, *Chismografía dominguera* argitalpenean.

## EL CHIMBO

II. Karlistada amaitu berritan, 1876ko abuztuan, Anselmo Guinea apartak umore bilbotarreko astekari bat sortu zuen: **El Chimbo**, zeinak azpтитuluan iragartzen baitzuen: «Astero hegaldutako da, edo egoki irizten diorean».

## EL RUIDO

Bilbotik atera gabe, hamar urte baino gehiago (1900 1911) iraun zuen –datu aski harrigarria, prentsa mota horri, esan denez, iraupen aski laburrekoa izan ohi baitzen– astekari satiriko bat



bazen: **El Ruido**, *Petando dominguero con mucha sal y salero*.

## LA TRINCHERA, LA AMETRALLADORA

Donostian, Gerra Zibil betearen, Miguel Mihura komediagileak **La Trinchera** zuzendu zuen, gerora **La Ametralladora** (*El semanario de los soldados*) deitua. Aldizkariak frogatu zuen gerra egoeran ere umorea, eta kalitatekoa, egin daitekeela. Aldizkaria zenbait hamarkadaz diktadorearen agindupekoen arnas apur bat eman

zuen **La Cordoniz** mitikoaren aitzindari zuzena izan zen. **La Ametralladora**-ko kolaboratzaile izan ziren Tono, Edgar Neville, Alvaro de la Iglesia edo Enrique Jardiel Poncela aparta.

## HORDAGO!

Gerraostean broma eta alaitasun gutxi zegoen arren, Marc Legasse idazlearen (**Gastibeltzako karabinak** ahaztezinaren egile) adimen nekaezinetik aldizkari satiriko-politiko bat atera zen Donibane Lohitzunen, 1946an:






*Hordago! Bulletin des Muslari consacré aux touristes, Kaskoinak, Beharri motzak et Zazous.*

## EUSKADI SIOUX

1979ko otsailaren 1ean, ezohiko paper baten agerpenak kioskoak astindu zituen. Azalari berari anarkismoaren usain nahastezina zerion, eta izenburua trazu handiz ageri zen: **Euskadi Sioux**. Seguruenik Trantsizio garaiko aldizkariarik ausartena, «bere eite grafiko eta estilografikoagatik», eguneko gai politiko eta kulturalak umorez eta ozartasunez jorratzen zituen, neurrigabekeria jausi gabe. Aldizkariaren tonu orokorrak, ordea, ez zuten beste zenbait gairen tratamendu serioa eragotzen. Argitalpena Antxon Olariaga eta Juan Carlos Eguilleor marrazkilariek egiten zuten, eta erredakzioan Rafael Castellano *Falete* eta Garikoitz Zabala zeuden, zeintzuek lehen zenbakian iragarri baitzuten «iraun behar zuena iraungo zuela»; oso gutxi, alegia.

Duela uite batzuk **Euskadi Sioux**-i buruz Bilbon egindako erakusketa baten kariaz, Juan Carlos Eguilleor-ek adierazi zuen: «Herri honetan nolabaiteko postmodernitateaz, oraindik ere osatu gabea, hitz egin badaiteke, edo ez, uste dut **Euskadi Sioux**-ek, horretarako asmorik gabe, ekarpenik egin zuela, anitza eta mestizoa bultzatzen zituen heinean, itxia eta dogmatikoaren aurrean».

**Euskadi Sioux** osoa sarean dago: [www.euskadisiooux.org](http://www.euskadisiooux.org)



● HAURRENTZAKO KOMIKIA

KILI-KILI

**Kili-kili** haurrentzako aldizkariaren aitzindaria da, 1966an jaio zelarik. Jose Antonio Retolazaren ardurapean, Bizkaitik Euskal Herri osora hedatzen da. Bere helburua eskolako haurrei euskarazko magazin bat eskaintzea izan da. Askotariko edukiak ditu, hala nola komiki zerrendak, txistek biñetetan, kirol edo kulturako berri hautatuak, lehiaketak, eta hizkuntza irakasteko atal txikiak.

IPURBELTZ

Euskal Herriko komikirik zaharrena **Ipurbeltz** da. 1977an

aldizkari didaktiko moduan sortua, Julen Lizundia, Anjel Lertxundi, Antton Olariaga eta Jon Zabaletaren ekimenez, komiki tradizional bat bezala hasi zen, baina gerora haurren partaidetza bultzatu zuen, ipuinak argitaratuz. Hilabetekari honen bertuterik onena irakurle multzo handi bati zabalik egotearena da. Erein-ek argitaratzen du.

● HELDUENTZAKO KOMIKIAK

TMEO

1987az geroztik, **TMEO** barregarri eta adeigabeak bizitza modernoaren gertakari guztiak, Euskal Herrian nahiz mundu osoan zehar, txantxetan hartzen

ditu. Urte batzuk lehenago Gasteizen argitaratutako **Hamelin** fanzinearen oinordekoa, **TMEO** bi hilabetean behin ateratzen da, Mauro Entrialgo (Herminio Bolaextra eta Angel Sefija-ren sortzailea), Alvarez Rabo eta Mikel Valverde bezalako egile ospetsuen lanekin.

NAPARTHEID

Euskaraz eta Nafarroatik, **Napartheid** 1988an sortu zen, erresima zaharreko kaskarkeria, itxurakeria eta kontserbadorismoa irrigarri aurkezteko. Aldizkariak arrakasta handia izan zuelarik, Euskal Herri osoan zehar agudo hedatu zen, eta «Napartheid» etiketako produktuak ugartu egin ziren. Kantitatea eta kalitatea,

eskatologiarako joera eutsiezina gorabehera.

COMICTIVA

Bilboko **COMICTIVA** argitarapen proiektu interesgarri bat izan zen, eta handik atera zen Euskal Herriko Komiki Sortzaileen lehen Elkarte. 1994an, **COMICTIVA** fanzine moduan agertu zen, Bilboko Udalaren dirulaguntzari esker, baina laguntzak ez zuen askorik iraun. Jendea gogaitzen jarraitu ahal izateko, Natxo Allende, Borja Crespo, Alex de la Iglesia eta enparauek merkatuan tarte bat aurkitzeko modua egin zuten, publizitatea txertatuz eta banaketako sare on bat ezarri. **COMICTIVA** komunikabide nazional handietara helduko ziren zenbait marrazkilariren lorbideta izan zen.

# PRENTSA LOKALA



PRENTSAREN MUNDUAN, AZKEN URTEOTAKO GERTAKARI DEIGARRIENETAKO BAT udalek edo herrietako gizarte edo kultur taldeek argitaratutako agerkari lokalen eztanda izugarria izan da. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaiera aldera bildutako datuek diotenez, aleko irakurketa maila 2,5 irakurlerena da; horren arabera, gure herrian 600.000 pertsona inguruk irakurtzen dute aldizkari mota hori.

## ■ GERTAKARI KULTURAL GARRANTZITSU BAT

**Prentsaren munduan, azken urteotako gertakari deigarrienetako bat** udalek edo herrietako gizarte edo kultur taldeek argitaratutako agerkari lokalen eztanda izugarria izan da. Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaiera aldera bildutako datuek diotenez, aleko irakurketa maila 2,5 irakurlerena da; horren arabera, gure herrian 600.000 pertsona inguruk irakurtzen dute aldizkari mota hori.

Aldizkari gehienak elebidunak dira, euskara-gaztelera, baina elebakarren kopurua handitzen ari da. Azken horiek ditu aztergai Joxemari Muxikak, Eusko Ikaskuntzaren *Mediatika. Komunikabideen Koaderno*-ren 9. zenbakian argitaratutako ikerlan batean.

Euskarazko prentsaren bizitasun handiaren adierazgarri, 1960 eta 1999 bitartean 237 agerkari argitara eman dira, eta horietatik 179k bizirik diraute.

Eskuarki, euskal aldizkari lokalak astekari edo hamaboskariak dira, A4 formatukoak, doan banatzen dira, eta dirulaguntza publikoetz finantzatzen dira, publizitatearekin diru-sarrerara osagarriarekin.

### EIBAR ALDIZKARIA

Aldizkari zaharrenetako bat, eta oraindik argitaratzen dena, *Eibar Revista de un pueblo* da, berrogeita hamarreko urteetan Pedro Celaya apaiz dinamikoaren ekimenez sortua.

Hasieratik, euskarak leku nabarmena izan du. Gaurkotasuneko berriak ematen

zituena, herriaren argazki-memoria, pasadizo herrikoiak eta gertakarien historia nahiz herriko seme eredugarrien istorioak berreskuratzen zituena. Gerora, edukien formula hori ohikoa izango da herriko aldizkarietan.

### ARRASATE PRESS

1993an euskarazko lehen aldizkari lokalizat hartutakoa jaiotzen zen, *Arrasate Press*, doaneko astekari bat, egunkariaren formatu eta paperean egina.


### FEDERAZIO BAT


Hamarkada horretan berrogeita hamar inguru izan dira Arrasateko aldizkariak hasitako ibilbideari lotu zaizkionak, eta *Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa* sortu


da. Federazioak Euskal Herriko 36 aldizkari biltzen ditu, hilean guztira 160.000 aleko hedapena dutenak; aldizkariak bidalketa pertsonalizatuaz banatzen dira.

Aldizkariaren erdia baino gehiago, eta baita irakurleak ere, Gipuzkoak bizi dira. Finantzaketa dirulaguntzen eta publizitateko diru-sarreraren –aldizkari bakoitzak bere espazioaren herena publizitate txertatzeko gordetzen du– bitartez lortzen da.

Aipatu federazioaren datuen arabera, aldizkari horien tirada orokorra 100.000 ale ingurukoa da, eta irakurle kopurua, berriz, 300.000 ingurukoa. Kopuru horiek neurritz gainekoak balira ere, bistakoa da aldizkari lokalak gertakari aski garrantzitsua direla euskal kulturaren jardueraren barruan.








# IRRATIA

---

*Julían Beloki Guerra*



# UHINEN MAGIA



## MUNDUEN GERRA.

1938ko urriaren 30ean, Halloween eguna, «Sorgin Gaua» alegia zelarik Estatu Batuetan, CBS-ren entzuleak beldur ikamán jarri ziren arratsaldeko zortzietan, irrati-emisorearen informazio saioretako batean emandako albistea entzun onduko; izan ere, Martitzetik zetorren ontzi begalarien inbasioa gertatzen ari omen zen. Irrati-antzerkiko errepresentazio bat zen, Orson Welles-ek zuzendua, baina honek ezin zuen imajinatu ere egin gizarte estatubatuarrean albiste hark eragingo zuen izua. Programa honek betiko markatu zuen irrati-difusioaren historia...

**IRRATIA ELEKTROSFERA GIZATARTU BAT DA,** unibertso kaleidoskopiko bat, musikaren supermerkatua. Irratia XX. mendeak herentzia gisa utzi zigun asmakizun eder hori da, eta bere hastapenetik beretik belaualdi askoren paisaia emozionala itxuratzen lagundu du.

## ■ SARRERA

«Irratiak denoi betetzen zигun bizitza. Gauza politen bilduma ederra zen, beti bizirik mantendu behar den zerbait, denbora igaro arren. Ez baitago gauza zoragarriagorik, zuzenagorik, zoliagorik... Horregatik, irratiaren sekretua ez da beti norbenak nahi duena egitea, baizik eta egiten dena maitatzea»

(Paco Marqués –«La radio que nos parió»– 24. or. –itzulia–)

## ■ IRRATI BIDEZKO KOMUNIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko hamar herritarretatik sei ohiko irrati-entzule omen zen, 2002an entzuleriari buruz eginiko ikerketan jasotako datuen arabera –datu hau Euskal Herri osora zabaldu daiteke–. Hau da, egunean batez beste 104 minutuz irrati entzuten zuten. Irrati bidezko produktu, programa eta eduki sorta handi eta askotarikoaz,

ikerketa egin zen garaian esku-eskura baikenuen hargailu finko eta eramangarrietan, automobileko sintonizadorean, telebista bidez (satelite bidez), ordenagailu pertsonalean Interneteko konexioaren bidez eta baita telefonia mugikorren modelorik aurreratuenean ere, irrati-eskaintza soinu, mezu eta jenero, formatu eta estilo guztietako komunikazio-eskaintzen supermerkatu erakargarri eta oparoa zen.

Ahots, melodia, soinu-efektu, diskurtso eta interpretazio konbinaketa hori, hitzaren arteaz eta musika bidezko eskulangintzako girotzeaz, eguneroko bizimoduak soinu-inguruaren beste elementu bat zen, XXI. mendearen hasieran, milioi bat eta erdi pasatxo euskal hiritarrentzat, Pirinioen alde banatan, eguneroko irrati-entzuletzat baitzuten bere burua.

Maxwelek 1865ean energia elektromagnetikoaren teoria



Guillermo Marconik mugarri bat ezarri zuen haririk gabeko telegrafian, 1901ean, morse lengoaia erabiliz mezu bat igorri zuenean Atlantikoan zehar, Cornualletik Ternura hain zuzen ere.

enuntziatu eta haren portaeraren formulak finkatu, Hertzek 1887an esperimentu bidez uhin elektromagnetikoen izatea egiaztatu, eta Marconik, 1895ean, irrati-uhinen lehenbiziko generadorea eraiki zuenetik XX. mendearen amaiera aldeko DAB (Digital Audio Broadcast) emisioetarako hargailu digital berrietaraino, milaka milioi entzulek gozatu dute irrati mundu zabalean, askotan emozioz beterik jasotako mezuengatik, eta

oso estimu handian har tuz gainera uhinetak komunikatzaileen ahotsa aldamenen lagun eduki ahal izatea.

Kablerik gabe distantzia handitan komunikatzeko modua aurkitu izanak hankaz gora jarri zuen mundua, guzti-guztia txikiago eta hurbilagoko agertu baitzen; aldi berean, XX. mendearen garapen eta gizarte-ongizateari gehien eman zioten jarduerak teknologiko-industrial eta ekonomikoetako bat sortu zen.

## ■ INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA ENTRETENIMENDUA

Informazioa, prestakuntza eta entretenimendua, hauek ditugu irrati bidezko komunikazioaren





oinarrizko hiru axiomak, bere esanguren zentzurik aberasgarrien eta elkarri lotuenean harturik betiere; eta hiru hauek, irratiz igorritako hitzaren bidez, komunikazio mundu magiko eta elkarrekintzazko bat sortarazi zuten, maila pertsonaletik kolektiborako etengabeko iragaitzan, maila familiarretik unibertsalerakoan, eta mundu mailakotik toki mailarakoan.

#### ● GERTAKIZUNA EMOZIOZKO HITZ BIHURTUA

Harenga militarrek, deklarazio solemneak, kirol emanaldiak, hiritarren salaketak, elkartasunezko mezuak, larrialdiko abisuak, legebiltzarreko saio amaigabeak, filosofi gogoeta ezin sakonagoak, lehiaketak eta zozketak, eztabaida politiko bero-beroak, mezak, diskurtso politiko, akademiko eta sindikalak, eskelak, beldurrezko eta fikzio-zientziako historiak, elkartasunezko karruselak, poesia errezeptaldiak, insurrekzio deklarazioak, sorospen eta laguntzarako larrialdiko zerbitzuak, serial eta irratinobela amaigabeak, alfabetatze ikastaroak, kontzertu gogoangarriak, informazio orokorreko albistegiak, musika-sustapenak, maitasun deklarazioak, burtsaren indizea, kontakizun handiak, agurrak eta eskaintza pertsonalak..., horiek guztiak irratia kaleidoskopioaren zati dira, hitzaren bazarraren parte, irratia dugun asmakuntza eder horretako uhin elektromagnetikoen supermerkatuko gai; eta XX. mendeak utzi zigun ondare horrek bere hastapenetik beretik lagundu du belaunaldi askoren paisaia emozionala itxuratzen.

#### ● SOINUIEN UNIBERTSO MUGAGABEA

Askorentzat irratia izan da, eta izaten jarraituko du, beharbada bakarra ez baina bai inguratzen gaituen bizi-eremu konplexuaren nabarduretako asko bereganatzeko modurik garrantzitsuen eta eskuragarrienetako bat; osterantzean, irratia era guztietako mugak kendu dizkio aipatu bizi-eremu horri.

Irratiak esnatzen gaitu, irratia proposatzen dizkigu eguneko informazio-gaiak eta igogailuan edota bulegoan izango ditugun hizpideak, irratia bizitza pozten digu umorearen bidetik, eta hausnarketan laguntzen digu, modako soinuak kantarazten dizkigu, gure arreta gure osasun egoerara begira jartzen du, edota, besterik gabe, gogorazten digu gure autoan egin behar dugun bidaiaren gauzarik garrantzitsuen goazen tokira iristea eta atzera bueltatzea dela.



*Irrati eta telebista eramangarriek etxeko espazio bihurtzen dute naturako edozein toki. Naturan bentan ere, zeruan zein lurtean publizitate-ikonoak ditugu nonahi. Binean ikusten dugunez, norbanakoa bakartu eta isolaturik dago, publizitatearen eskaintza eta eskariz inguraturik ordea.*

### UHIN EN MAGIA



Hedabideak eta aisi eta entretenimendurako aukerak gero eta ugariagoak diren arren, irratia jarraitzen du bizitza askoren filma musikaz giroten duen enkantu eta magiazko mundu hori birsortzen eta mantentzen. Izan ere irratia soinu atsegingarri, erakargarri, entretenigarri eta ezinbestekoa da, eta orduen joanean, eguneroko eginkizunetan eta bakardade unetan poza eskaintzen digu.

Horrela ez beste inola uler daiteke entzuleak gizon eta emakumeei, profesionaleri, hots, bere erakarpenean eta pertsuasio botere osoz irratia bidezko ahozko komunikazioari mamia ateratzen jakin duten adiskide-ahots horiei dien mirespen pertsonal eta leialtasun anonimoa.

#### ● EGUNEROKO SOINU-ESPATZIO ATSEGINA

Gidatzea, irakurtzea –are ikastea ere–, paseatzea, lo-kuluxka egitea –eta baita lo egitea ere–, gizakiok eguna ematen dugun ohiko eginkizun eta betebeharrak asko eta asko irratia soinuez osatu eta soinu honetara batera garatu dira. Ildo honetatik, irratia bere hastapenetatik belaunaldi askoren soinu-ingurua eraldatu zuen hedabidea izan zen XX. mendean zehar, telegrafoa, telefonoa eta pertsonen arteko komunikazioarekin lotutako beste aurrerapen teknologikoak baino urrunago helduz inolaz ere; eta pertsonen espazio publiko eta pribatuen soinu-eremuak urruneko ahots, kontakizun, musika eta soinu limurtzailetarantz hedatu zituen. Hitzaren eta musikaren magia da, suge sorgintzaile bihurturiko uhin elektromagnetiko ikusezinen gaineko bidaiaren doana.

#### ■ EMISOREAK ETA HARGAILUAK

Etxetan joan zen mendearren 20ko hamarkadaren erdialdean agertu ziren estereoino irratia-hargailuak, elektrizitate gabe funtzionatzen zuten galena-irratia edo bateriak behar zituzten lanparazko irratia haiek, bospasei orduko entzunaldiak eskaintzen zituztenak alegia. Hasiera batean berrikuntzaren entusiasta gutxi batzuen ekimenez iritsi ziren hargailuak, ezjakintasunaren garaipean aldarrikatzen zuen maiseatzaile bat edo beste ere bazelarik inguruan, baina orduko elementu nagusia gizartearen berehalako eragina eta sartzeko indarra duen aurrerapen zientifiko eta teknologiko ororen inguruan izan ohi den xarma magikoa zen.

Gure inguruan instalatutako lehenbiziko irratia-emisoreak Radio Club Vizcaya, EAJ 9, Radio

Vizcaya, EAJ-11 eta Radio San Sebastián, EAJ-8 izan ziren, hauek guztiak 1925eko maiatz eta abendu bitartean instalatuak, artean hargailua zekuten etxeak oso-oso gutxi ziren garaian.

1930az geroztik hedapen prozesua modu esponenzialean hasi zen. 50eko hamarkadaren amaiera aldean, frekuentzia modulatu eta transistorea heldu eta automobilaren industria bizkortu zelarik, aurre egin ahal izan zion telebistaren agerpenak eragindako krisialdiari.

XXI. mendea estreinatu berri honetan, Uhin Ertainaren eta Frekuentzia Modulatuaren dialak programazio-eskaintzaz beterik daudela eta ia-ia etxe guztietan batez beste hiruzpalau hargailu daudela, informatikaren eta telekomunikazioen bat egiteak ezinbesteko eta berehalako digitalizazioaren ateetan jarri dute irratia.

Dagoeneko satellite bidez emititzen duten irradi-emisoreez gain (2002an Radio Euskadi eta Euskadi Irratiak Astra satellitearen bidez emititzen zuten dagoeneko Mendebaldeko Europako zati handi baterako), irradi-emisore pila handi bat hasi da lurreko teknologia digitalaz emititzen modu esperimentalean (Eureka 147 proiektu europarrak garatutako emisio-protokoloa, DAB –Digital Audio Broadcast– akronimoaz bataiatua), nahiz, beste behin, horietarako oso hargailu gutxi egonik merkatuan zenbait zoritxar-igarle ere badelarik ingunuan, sistemak ezarpenerako dituen aukera errealean ingunuko zalantza ere baden.

Urte gehiago beharko dira merkaturak aldatuta teknologikoaren eskakizunetara molda dadin, eta irratia behin betiko pausoa egin dezan bere emisioen digitalizatorantz, horrenbestez kanal gehiago eta dialean are eskaintza ugariago eta askotarikoagoa ager dadin ahalbidetuz.

#### ● SAREAREN ERRONKA

XX. mendearen amaiera aldeaz geroztik irratia sarean sarean, Interneten alegia, sartu izanak irratia nahierara kontzeptua iradoki zuen; izan ere posible da kable bidez zehar irratia diren edukiak hedatzea, multimedia mailako beste batzuekin batera. Irrati-edukietara heltzeko beste aukera bat da azken batean, eta honek bar egin duelarik botere publikoek gizarte Sarean murgiltzeko argi eta garbi markatu duten ildoarekin, irratietako kudeatzaile eta programatzaileek komunikazio-eduki berriak planteatu behar izan dituzte, elkartruke elektronikoarekin ohituago dauden erabiltzaile eta bezeroen merkatura begira.



*Telebistaren irudiak eta irratiko hitzak gure bizitzaren lekuko eta antolatzaile dira.*

*Irratia beti informazio, kultura eta politika lanabes garantzitsua izan da. Goian Orwell, «Anai nagusiaren» abotsaz irratia nonahikotasunaren sinboloa izan daitekeen idazlea, BBC-ren mikrofonoaren aurrean agertzen da, lan egin baitzuen irradi-emisore ospetsu horrentzat. Behean, Gilda Meir politikaria mikrofono-sorta itzela duela parean. Irratiaren politikarako ama gisako erabileraren sinboloa izan daiteke.*



#### ■ IRRATI BIDEZKO KOMUNIKAZIOAREN FUNTZIONALITASUN INDARTSU ETA ASKOTARIKOA

Uhin Motzetik Uhin Ertainera (UM-tik UE-ra) eta Frekuentzia Modulatuak sateliter, DAB-era (Digital Audio Broadcast) edo Internetera, irratia munduan izan diren aurrerapen teknologikoak, hala emisoreei nola

hargailuei zuzenduak, etorkizuneko garantien zati nagusi bat dira gizarte komunikazio eta kohesioaren, informazio eta entretenimenduaren, prestakuntza eta zerbitzu publikoaren elementu nuklear izan den eta izaten segituko duen hedabidearentzat. Azken batean, horiek dira bere izateari zentzia ematen diotenak: hitzaren magia, ahozko komunikazioaren indarra, mezuak

modu indibidualean interpretatzeko gaitasuna eta elkarrekintzarako aukerak, entzule guztien eskura baitaude, eguna joan eguna etorri irratia leihoa zabaltzen dutelarik –dugularik– ahots eta soinuak mundu magiko horretarantz; eta sarritan horixe izaten da guretzat informazio, prestakuntza eta entretenimendu iturri lehen edo behina. Horrelaxe izan behar du, *irratian esan dute eta*. Eta hala bedi, urte askoan.

#### ■ IRRATIA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herrian irratia egin duen bidearen historia egiteko unean, hiru errealitate politiko-administratibo desberdinak hartu behar dira abiapuntutzat: Iparralde eta frantziar estatuko irradi-difusioa, Nafarroa eta bere eraketa politiko-administratiboa, espazio irradi-erabileraren erabileraren kudeaketara heltzen baita, eta Euskal Autonomia Erkidegoa, bere autonomia politikorako prozesuez eta bere hedabideen garapenera begira zertzen duen lan erabakigarriagoaz.

Honek guztiak hiru garapen-lerro baldintzatu eta itxuratu ditu irradi-difusioan, beronen bilakaera historikoan eta egungo egoeran bertan, oso ezaugarri desberdinekoak elkarren artean. Eskuarteke ikerlan honetan, inolako zalantzarik gabe azterketa eta ikerketarako eremu erakargarria izan daitekeenaren lerro nagusi eta orokorrenak jasotzen dira bakarrik; eta oso-oso interesgarria izango litzateke, gainera, bere bizitzan zehar irradi-entzule –seguruenik bakoitzak bere irratia entzule-izatearen plazeraz gozatu duten pertsonen lekukotasun, bizipen eta esperientziak biltzea, kudeaketaren eta komunikazioaren profesionalenekin batera, hemen gogora ekartzen ditugun gertakizun asko eta askotan faktore aktiboak izan baitira.

Beste hainbeste esan liteke euskarak irratian izan duen historiari buruz. Historia hori etorkizunera begira jarri zen 80ko hamarkadaz geroztik, batez ere EITB-ren hedabide publikoak agertu zirenetik, baina komeniko litzateke patxadaz eta zehaztasun handiagoz aztertzea historia horren iragana, Euskal Herriko irradi-difusioaren fenomeno orokorren baitan, XX. mendearen bigarren hamarkadan abiatu zenetik. Eginkizun dauden lanak ditugu horiek, eta seguruenik lan hau abiapuntua besterik ez da izango ikerketa zorrotzagoak eta metodologian zein zientzian oinarrituagoak egiteko. Izan ere, lerro hauek lanean segitzeko gonbidapen bat dira.

# Euskal Herriko irratia- ren historiarako OHARRAK



# LEHEN URRATSAK



1925

Ezkerrean, Donostiako El Pueblo Vasco egunkarian 1936ko lehen hiruhilekoan argitatuak iragarkia.

Goian, EAJ-62 Radio Vitoriaren lehen transmisioa. Urte haietako irrati-emisore gehienetan bezala, Radio Vitoria-EAJ 62ren transmisio ekipoa ere emisorearen estudioen aldamenean zegoen instalatuta. Denbora igarota, emisio-ekipoak eta antenak urrundu egingo ziren hiriguneetatik, inguruko mendi edo munitan kokatzeko.

Radio Vitoria-Gasteiz Irratiak utzitako argazkia..

IRRATI-DIFUSIO KOMERTZIALAREN LEHENBIZIKO EMANALDI erregularrak ez ziren hogeiko hamarraldiaren erdialdera arte iritsi, 1923ko irailean Madrilen Radio Ibérica lanean hasi arte alegia. Estatuako hiriburu askotan eta, noski, Europako hiribururik garrantzitsuenetan gertatzen ari zen moduan, Euskal Herrira ere iritsi zitzaigun Marconiren asmakuntza. Ia-ia une berean iritsi zen Bilbo eta Donostiara. 1925eko martxo eta azaro bitartean hiru irrati-emisore agertu ziren, Bilbon bi [Radio Club Vizcaya, EA]-9, eta Radio Vizcaya, EA]-11] eta Donostian bat [Radio San Sebastián, EA]-8].

## HASIERAN AHOTSA ZEN

### LEHENBIZIKO IRRATI-EMISOREAK

Lehenbiziko irrati-emisio erregularrak Amerikako Estatu Batuetan izan ziren 1920an, ekitaldi politiko baten emanaldiaz, hautagai errepublikar baten aukeraketaz hain justu. Hain bi urte besterik igaro ez zirela irrati-estazioen ugalketaren booma gertatu zen, 450 emisore baino gehiago sortu zituzten eta.

Europako lehenbiziko irrati-emisoreak 1921ean instalatu ziren. Frantzia, zehazki, irrati-difusioa lehenbiziko emisioak 1921ean egin zituzten, Eiffel dorrea baliatuz horretarako, eta enpresa pribatuei instalazio eta emisio esperimentaletarako baimendutako estereinako emakidak 1922ko ekainean izan ziren. 1920 arte, Marconik [Fisikako Nobel Saria 1904an] errematatu zuen asmakuntzaren garapenerako lehenbiziko proba teknikoak esperimentalak izan ziren.

Spainian, Armadaren Centro Eléctrico y de Comunicación izenekoak eta Telegrafo Atalak 1904an egin zituzten lehenbiziko esperimentuak, irrati bidezko lehenbiziko komunikazioak finkatzen.

### RADIO IBÉRICA

Baina irrati-difusio komertzialaren lehenbiziko emisio erregularrak ez ziren hogeiko hamarkadaren lehen erdialdera arte iritsi, 1923ko irailean Madrilen Radio Ibérica



Edisonen lehen fonografoa.



sortu zutenean alegia De la Riva anaiak; hauek 500 wateko emisio-ekipo bat instalatu zuten. Radio Ibéricaren emisioak modu erregularrean mantendu ziren urte hartako udazken osoan zehar, eta irrati-difusioa lehen esperientzia haiek 1923ko Eguberrietan jo zuten goia, Loteriaren Zozketa eman zutenean.

### EAJ-1 RADIO BARCELONA

Radio Ibéricak noizean behin emititzen jarraitzen bazuen ere, gaur egun Espainiako irrati-difusioan Radio Barcelona-EAJ1 jotzen da emisore dekanok (EAJ siglele telekomunikazioen antolamendurako nazioarteko nomenklaturari dagozkio. Lehenbiziko bi hizkiak [EA] emisorearen herrialdearen identifikaziorako ziren, kasu honetan Espainia identifikatzeko. J hizkia irrati-difusio komertzialeko emisoreei zegokien). Bere emisio erregularrak, baimen ofiziala zutenak, 1924ko azaroaren 12an hasi zituen, eta hilaren 26an dagoeneko egin zuen bere lehenbiziko kanpo-emanaldia, musika klasikoko kontzertu bat eskainiz Bartzelonako Werner aretotik. Egun haietan artean ez zegoen irrati-difusiorako inolako arategi espezifikorik, eta komunikazio elektrikoa, irrati-telegrafia, klabea eta telefonoa estatuaren monopolio gisa zeuden antolatuta, Correos y Telégrafos zeritzoten esparruari loturik juridikoki.

■ EUSKAL IRRATIA

Estatuko hiriburu askotan eta, noski, Europako hiribururik garrantzitsuenetan gertatzen ari zen moduan, Euskal Herrira ere iritsi zitzaigun Marconiren asmakuntza. Ia-ia une berean iritsi zen Bilbo eta Donostiara. 1925eko martxo eta azaro bitartean hiru irrati-emisore agertu ziren, Bilbon bi [Radio Club Vizcaya, EAJ-9, eta Radio Vizcaya, EAJ-11] eta Donostian bat [Radio San Sebastián, EAJ-8].

● EAJ-8  
RADIO SAN SEBASTIÁN

Azken hau, euskal emisoreen artean dekanotzat hartua bera diamante-ezteiak lanean igaro dituen bakarra delako, Sabino Uzelaietaren ekimenez jaio zen. Sabino merkataria eta negozio-gizona zen, eta Donostiako alkateorde izatera iritsi zen 1894 eta 1897 bitartean.

Behar zuen baimena 1907ko urriaren 26ko Legearen arautegi erregulatzaileraren pean eman zioten; izan ere lege horrek estatuko gobernuari ematen zion baimena, irrati-telegrafia, kable eta telefono zerbitzuak antolatzeko eta garatzeko. Are gehiago, 1908ko urtarrilaren 24ko Errege Dekretuak estatutaren monopolioa ezartzen zuen hedabideen gainean, irrati-difusiorako sistematarako monopolio erreserbari buruzko aurreikuspena eginez, garai hartan artean esperimentazio fasean baitzeuden.

Sabino Uzelaietak, lehen-lehenik, Donostiako Udalera jo zuen irrati-emisore bat instalatzeko behar zuen baimena eskuratzeko, baina udal instituzio gorenak ez zuen inolako interesik agertu asmakuntza berritzaile eta, hastapenetan egon arren, dagoeneko mendebaldeko mundu guztia hankaz gora jartzzen ari zen hura abian jartzeko.

Udalak ezetz esan ziolarik, ekimena berak garatzea erabaki zuen, eta frekuentzia bat eskatzeko izapideak egiten hasi zen. Behin betiko lizentzia 1925eko azaroaren 24an eman zioten, baina lehenago hasi zen lanean Igeldo menditik, 3 Kw-ko emisore batez eta EAJ 8-Radio San Sebastián izenaz. Izan ere irrati-emisorea 1925eko irailaren 29an inauguratu zuten, behar zuen baimena eman baino bi hilabete lehenago alegia. (Beste iturri batzuek diotenez, 1924ko abenduaren 14an eman zioten baimena).

Lanean bi urte osatu baino lehen, 1927ko ekainean, lizentzia hori Unión Radio-ri eman zioten. Hau enpresa multzo bat zen, atzerritarrak gehienak, eta batzuk gainera oso-oso ezagunak, esate baterako AEG-Telefunken, Compañía General de Electricidad, Teléfonos Bell, etab.



«Irratiak gure eskura jartzen du mundua». Horrelaxe ikusten zuen lehen uneetako publizitateak ere.



Hauexek osatuko zuten gero, hogeita hamarreko urteetan zehar Espainian izango zen irrati-kate pribatu garrantzitsuenaren hodia, egungo SER Katearen jatorrizko sorburua. Ez ziren kazetariak izan, ezta intelektualak ere, lehenbiziko irrati-estazioen instalazio eta ustiapeneko aitzindariak. Fenomeno hau askoz lotuago egon zen merkatariei eta, batez ere, hargailu fabrikatzaileei, Unión Radio haren akziodunen multzoan ongi asko ikusten dugun moduan. Ildo honetatik, gure inguru honetako errealitatea hainbat urte lehenago Iparramerikan eta Europa mailan orduantxe gertatzen ari zenaren isla izan zen. Lehenbiziko irrati-emisioak, alde batetik, izaera estatal, militar edo esperimentalekoak izan ziren baina, batez ere, merkatuak bilatzeko, audientzia lortzeko ahalegin bat, difusio eta komunikaziorako euskarri tekniko haren ondorio logikoa horixe baitzen, berritzaile eta iraultzailea izaki orduan irrati-telegrafia eta telefoniaren, puntuz puntuko komunikazioaren esparruan zegoenarekiko. Irratiaren bidez distantzia handitako komunikazioa lortzen zuten, kable beharrik gabe, eta mezu bera jende askori helzten zitzaion; horrenbestez, mundua gero eta txikiagoa zela zirudien. Eta ez da harritzekoa fenomeno hark Sabino Uzelaieta bezalako pertsona ekintzaileen interesa erakarri izana.

● EAJ-9  
RADIO CLUB VIZCAYA

Lehen esan dugun moduan, Donostia ez zen egunean-egunean etxe gehiagotan sartzen ari zen asmakuntza horrekiko interesa erakutsi zuen euskal hiri bakarra izan. Bilbon, 1924an, irratizale batzuk biltzen hasi ziren, Bizkaiko hiriburuan irrati-emisore bat instalatzeko asmotan. Aldi berean, Bilboko dendak irrati-hargailuz betetzen hasi ziren, eta hauetan aukera eskaintzen zuten Londres eta Parisko emisore handiak entzuteko.

1925aren hasieran hasi ziren Radio Club Vizcaya EAJ-9ren emisio-probak, eta emisio erregularrak urte horietako martxoaren 30ean hasi ziren. Irrati-emisore honi jendeak 'Carlton Hoteleko emisorea' esaten zion, han egon baitzen kokatuta.

Unión Radio. Eratu eta bi urtera, 1927ko abuztuan, Radio Club Vizcaya, EAJ-9 eta beste emisore batzuk, esate baterako Radio Barcelona, EAJ-1, Unión Radio Madrid, EAJ-7, Radio Sevilla, EAJ-5, eta Radio Salamanca, EAJ-22, elkarrekiko lehenbiziko transmisioak egiten hasi ziren; halaz, sendotu egin zen Unión Radiok Espainiako irrati-kate pribatuen artean zuen lehen toki.

• EAJ-II RADIO VIZCAYA

Eta Bizkaiko hiriburuko irradi-emisore bakarra ez zen Radio Bilbao, EAJ-9 izan. 1925eko urtarrilean Bilboko prentsak dagoeneko aipatzen zuen emisore berri bat instalatzeko obraren hasiera; **Radio Vizcaya**, EAJ-11 izango zen, Madrilgo konpainia baten jabetzakoa.

Unión Radioren zati ziren irradi-difusioeko estazioen elkarrekiko emisioei dagokienez, aipatzeko modukoa da, bitxikeria argigarri gisa bada ere, 1928ko uztailaren 7an irradi-emisore donostiarrak Txofreko zezen-plazatik eskaini zuela Pauliko Uzkudun eta Haymann-en boxeo borrokaldi ospetsua, kateak Bartzelona, Madril eta Salamancan zeuzkan entzuleentzat.

• LEHIA  
ETA NORGEHIAGOKA

Euskal irratiazen hasierako perspektibak onak izan arren oso epe laburrean hiru emisore eratu eta lanean jarri zirenean –Bilbon bi baitzeuden, eta beste bat Donostian–, irradi-difusioaren errealitatea oso urrun zegoen jarduera finkatua izaterik.

Izan ere zailtasun teknikoak zeuden –ongi entzun ahal izatea ez zen gauza segurua–, exeteetan artean hargailu gutxi zegoen, lehenbiziko gidoilari eta esatariek apenas zuten esperientziarik –entzuleak, aldiz, neurri batean dagoeneko liluratzaren hasita zeuden Uhin Motzean Paris eta Londresko programak entzuten zituztela, varieté programez, lehiaketez eta kontzertu handien emanaldiaz–, eta 20ko urte haietan publizitatea ere ez zegoen artean oso garatuta. Ondorioz, merkatariek ez zituzten garbiegi ikusten hedabide berriaren potentzialtasunak.

Gauzak horrela, irradi-emisoreen sarrerak irradi-entzuleen elkartetatik heltzen ziren, kuota bidez finantzatzaren zutuzten-eta irradi-estazioen jarduerak eta ustiapen-kostuak. Baina hau guztia muga handia zen garapenerako, batez ere Bilbon, zeren eta sortu berriko bi emisoreen arteko borroka oso-oso gogorra baitzen. Lehiak eta aipatu ditugun zailtasun horiek guztiek programazioaren gainbehera ekarri zuten berekin, eta hurrena irradi-difusio lokalaren eskaintzarekin publikoa aspertzea etorri zen.

• UNIÓN RADIO

Penintsulako geografia osoan, Unión Radio izan zen espainiar irradi-difusioaren hasierako egoera zail hari aurre egin ahal izan zion finantza-talde bakarra. Taldea 1924ko abenduaren 19an eratu zuten, Ricardo Urgoiti bide



Conchita Piquer 1945ean, Unión Radio-ren emanaldi batean.



Irratian hitza hedapen errazeko ahots bihurtu zen. Irratian ahotsak hitza kantatu zuen entzuleria ezin hobe baten aurrean. Irratian musikak hitzari lagundu zion, eta diskoa eta magnetofonia ezinbesteko bihurtu ziren.



injineroak zuzendutako proiektu teknikoak eta bere jarduera eta programazioa Madrilgo Gran Via-tik –hau baitzen Unión Radio Madrid, EAJ-7ren egoitza nagusia, Alfonto XIII.a erregeak 1925eko ekainaren 17an inauguratua– estatuko hiri guztietara zabaltzeko asmoz.

Halaz, hainbat emisore erosi zituen, besteak beste Radio Barcelona, EAJ-1, Radio Sevilla, EAJ-5, Radio Cádiz, Radio Salamanca, EAJ-22, etab.

**Euskadin** 1927an erosi zituen orduko hiru emisoreak, hau da, *Radio Club Vizcaya*, EAJ-9, honen lehizatzaile zuzenena zen *Radio Vizcaya*, EAJ-11, eta baita, lehen esan dugun moduan, *Radio San Sebastián*, EAJ-8 ere. Beharrezko lizentzia eta frekuentziak eskuratzeko prozesuaren ondoren, Unión Radiok erabaki zuen EAJ-11, Radio Vizcaya ixtea, eta honen pertsonal guztia Bilboko lehen emisorearen plantillara igaratu zen. Madril, Bartzelona eta Sevilla bezalako hiriburuetan jarraitutako prozesuaren oso antzekoa izan zen; izan ere aipatuotan bina emisore erosi zituen, horietako bat berehala itxiz barne-lehiarik izan ez zedin. Ondorioz, Bilbo ere emisore bakar batez geratu zen.

Programazio bakarreko kate izaera edukiko zuen emisore-sare bat itxuratzeko prozesuan, Unión Radiok, modu orokorrean, hiru operazio handi burutu zituen. Lehena, 1925ean, katearen firma eratu bezain pronto, dagoeneko irradi-difusiorako estazioak bazeuzkaten hiri nagusienetan finkatzea izan zen; horretarako programaziorako eta instalazio teknikoan elkarrekiko erabilerarako akordioak egin zituen.

Bigarren operazioa 1927an izan zen, irradi-difusioeko jardueran aritu ahal izateko emisio-lizentziak eta administrazio-emakidak erositik eta eskualdatuz. Eta hirugarrena, 1929an, errentagarritasun kaxkarreneko estazioak ixtea izan zen, orduko Unión Radio eratzaren zuten eta kasuan kasuko inguruan entzun zitezkeen emisoreetan biltzearen ahalegin nagusiak.

Aldi berean, hedabidearen ezarpen eskasari aurre egiteko eta hasierako urte haietan publizitateak zuen eragin txikia kontuan harturik, finantzaketa-arazoei aurre egitearren Unión Radiok bere Irrati-entzuleen Elkarteak sortu zuen; honen kuoten bidez ordaintzen zituzten ustiapen-kostuetako asko eta asko. Irrati-entzuleen Elkarteak 11.000 bazkideetik gora izatera heldu zen 1928an, eta aldizkari bat ere sortu zuen, **Ondas** izeneko hura hain zuzen, lotura eginkizuna betetzeko.

Erosketa, traslado, irekiera eta itxiera prozesuaren ondoren, Unión Radiok emisore-sare garrantzitsua zeukan 1930eko




Wikipedia Commons, 1930 - General Electric, 1934



Euskal Herriko irrati-transmisioen hasierari buruzko 1926ko umorezko bineta.



RCA Victor, 1936



Publizitatearen hitzek itxuratzen dute irratiar en munduaren tonu emozionala eta inguru instrumentala: abotsa da, magia, gauza miragarria, sentsazio berria, zoriona.



RCA Victor, 1934


urtearen hasieran. Guztietan buru Unión Radio Madrid zen, eta ostean bazirenartzelona, Sevilla eta Donostian kokatutako estazioak ere.

Ordurako Bilbon emisorerik ez edukitzearen arrazoiak zorte txarreko kontu bat izan zen,

teknika mailan. Izan ere, Radio Club Vizcaya, Radio Bilbao, EAJ-9k matxura handi-handi bat izan zuen, eta 1928ko apirilaren 28an bere emisioak eten behar izan zituen. Etenaldi tekniko erabatekoa inolaz ere, sekula ez baitzuen atzera emititserik izan.



# HAMARKADA ZAIL BAT



## 1930-1940

*Irrati-estudioa irrati-difusioaren hasieran. Hasiera batean mikrofono guztiahaldun batek seinale guzti-guztiak jasotzen zituen. Elementu aipagarri bakarrak piano bat, girotzeko, eta gong bat gauzak adierazteko. Emisioak zuzenean eta publizitate ugaz egiten ziren. Handik gutxira gramofonoa erabiltzen hasi ziren 78 e.m. diskoetarako. Emisioaren aurretiko grabazioak askoz geroago helduko ziren. Sarritan kanpo-emanaldiak erabiltzen ziren, musikakoak batez ere. Radio Vitoria-Gasteiz Irratiak [EITB] lagatako argazkia.*

II. Errepublika heldu zenean irratiak Espainian erabilera ideologiko eta politikoa ezagutu zuen, beste inon baino nabarmenago seguruenik. Irratiak, urte haietan, loraldi espero gabekoa izan zuen, gizarte-mailako beste faktore batzuen artean politikariek egin zuten irratiaren erabileraren ondorioz. Esate baterako, Errepublika aldarrikatu zen une beretik Alcalá Zamorak erabili zuen hedabide berria, eta baita Sanjurjo Jeneralak ere Unión Radio irrati-emisorearen kasuan.

### ■ IRRATIAREN ESTATUTU JURIDIKOAREN SORRERA

II. Errepublika heldu zenean irratiak Espainian erabilera ideologiko eta politikoa ezagutu zuen, beste inon baino nabarmenago seguruenik. Irratiak, urte haietan, loraldi espero gabekoa izan zuen, gizarte-mailako beste faktore batzuen artean politikariek egin zuten irratiaren erabileraren ondorioz. Esate baterako, Errepublika aldarrikatu zen une beretik Alcalá Zamorak erabili zuen, edota Sanjurjo Jeneralak berak Sevillako Unión Radio irrati-emisorearen kasuan, 1932ko abuztuaren 10ean burutu zuen estatu-kolpe ahaleginean.

Bigarren Errepublika eratu eta egun gutxira, 1931ko apirilaren 14an, Konstituzioa bera onartu aurretik [1931ko abenduan onartu zuten], Gobernu berriak **Komunikazio Ministerioa** sortu zuen. Hau zuzentzeko Diego Martínez Barrio izango zen, Alderdi Erradikaleko kidea bera, eta honexi eman zizkioten irrati-difusioaren arloko eskumenak.

Ministerio berriak hartu zuen lehen neurrietako bat Irrati-komunikazioaren Ikuskaritzarako Batzorde Teknikoa eta Irrati-difusiorako Zerbitzu Nazionala antolatzen zituzten 1929ko uztailaren 26ko Errege Dekretuak baliogabetzea izan zen; horretarako, 1931ko apirilaren 25eko Dekretua eman zuen.

Komunikazio Ministerioak, 1932ko abenduaren 8an, Dekretu



### Irratia paisaian.

*EAJ-8 Radio San Sebastiánen antenak, Igeldon kokatuak, urte askoan zehar izan ziren Donostiaren paisaiaren zatia.*



bat eman zuen, honen bidez Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiari ahalmena emanez partikularrei irrati-difusiorako potentzia txikiko [200 watt gehienez ere] eta maila lokaleko estazioak instalatzeko baimena eman ziezaien; estazio hauen estaldura-eremuak ezin zuen 30 kilometrotik gora hartu, eta gainera emisore bakarra baimenduko zen herriko.

Dekretu honen babesean sortu ziren 1933an **Radio Bilbao** eta **Radio Pamplona, EAJ-6**, eta 1934an **Radio Vitoria**; hauxe dugu, Radio San Sebastián-en ondotik, Euskal Herriko irrati-emisorerik zaharrena.

Handik gutxira, Tuterak ere bere emisore lokala eduki zuen, **Radio Tudela, EAJ-66**, baina sortu eta berehala behin betiko itxi zuten.

Maila lokaleko emisoreetarako administrazio-emakiden bide honi jarraiki, espainiar estatuan irrati-difusiorako 59 instalazio antolatu ziren guztira 1934aren amaierarako.

Urte horretan bertan, eztabaida politiko ugazaren ondoren, II. Errepublikako presidentek ekainaren 26an berretsi zituen Irrati-difusiorako Lege berriaren zortzi artikuluko [1934ko uztailaren 26ko Dekretua]; honexek finkatu zituen geroko antolamendu juridikoaren oinarriak.

Dekretuaren arabera, irrati estatutuak kontrolatu eta garatutako zerbitzu publikoa izango zen. Horretarako, estatuak berretzat gordetzen zuen nazio eta nazioarte



mailako irrati-difusiorako jarduera [Dekretuak berariaz lagatzen du bazterrean 1932ko ekaineko Dekretuko xedapenek araututako maila lokaleko irrati-difusioa], prestazio-borondate nabarmenaren eta titularitate-monopolioaren arrastoa argi eta garbi markatuz.

Ondorioz, nazio mailako Irrati-difusiorako Zerbitzuaren estazioak estatuak berak instalatuko zituen, eta urtean-urtean zabaltzeko gutxieneko estazio-kopuru bat finkatu zuten, hain zuzen une hartan indarrean zeuden nazioarteko itunek espainiar estatuari emandako frekuentzia-kopurua osatu arte.

Alderdi teknikoetan ez zen urte haietan aldaketa garrantzitsurik izan. Irrati-jardueraren oinarrian zuzeneko emanaldiak ziren oinarria, normalean musikazkoak ziren ekitaldien transmisioarekin batera.

#### ● GIZARTE EZARPENAREN BALDINTZAK

1934 izan zen Radio Barcelonak Alemaniatik lehen grabagailua ekarri zuen urtea; Porpavoz etxearena zen. Grabagailu hark aukera ematen zuen soinua 80 cm-ko diametroa zuten azetatoko disko batzuetan jasotzeko.

Baina, irratiaren garapena, aurrerapen teknikoak zirenak zirela, bere gizarteratze maila eta ekitaldi politiko, sozial eta kultural handietako presentzia aktiboaz finkatu zen. Lorenzo Díaz-ek, bere "La radio en España 1923-1997" liburuan<sup>1</sup>, esaten digu 1933an guztira 153.662 hargailu kontatu zirela, hau da, dagoeneko biztanleetatik %0,4k bazeukaten aparatua, eta gainera, hiru urte besterik ez zen behar izan hargailuen kopurua bikoitz zedin, 1936rako jada 300.000 aparatua ziren eta.

Kopuruek argi eta garbi adierazten digute hedabidea gizarte mailan lortzen ari zen tokiaren eta garrantziaren norainokoa, baina aldi berean beste egiaztapen bat eskaintzen digute, erran nahi baita artean ez zela kontsumo orokorreko, zeharo unibertsal bihurturiko produktu bat. Lehenbiziko irrati-emisoreak jarri zituztenetik eta baita geroago ere, 30eko hamarkadaren hasieran, hargailu bat erosteak oso zerikusi handia zuen familien erosteko ahalmenarekin. Horregatik, oso ohikoa zen jendeak hargailuak piezaka erostea, ondoren eskuliburu-tako jarraibideen ildotik aparatua muntatzen joateko.

Denda espezializatuetan eskaintzen zituzten hargailuen artean, produktu-sortaren maila, neurri handi batean, luxuzko artikuluen artean kokatzeko modukoa zen. Serieko fabrikazioaren kontzeptua ez zegoen hain orokortuta. Kronikek



Agirre lehendakaria.



Francisco Largo Caballero.



Portela Villadares 1936an.



Queipo de Llanos sistematikoki enabli zuen irrati propaganda politikorako elementu garrantzitsu gisa.



diotenez Goebbels-ek<sup>2</sup>, Hitlerren erregimenari gizarteraren laguntza ahalbidetu zion propaganda-aparatuaren sortzaile handia, irratiaren botereaz ongi asko jabetuta zegoela, fabrikatzaile alemaniar guztiak behartu zituen modelo estandar bat mekaturatzera, garai hartako 35 markako prezio merke samarrean —prezio hau une hartako hargailuek balio zutenaren azpitik zegoen nabarmen—; eta lelo batez osatu zuen bere asmoa: "hargailu bat familia bakoitzean". Horrenbestez, irratiaren behin betiko finkapenari sekulako bultzada eman zion.

#### ● EUSKAL IRRATI-DIFUSIOAN

Gure ingururik hurbilenean, hedabide berria lortzen ari zen indarraren adibidea dugu 1934ko apirilaren 24an onartu izana *Agrupación Vasca de Experimentación en Radio* [AVER] izenekoaren arautegia. Elkar te honetan partaide izan ziren dagoeneko eraturitako emisoreak, teknikari eta irratizaleak, eta garapen bidean zeuden beste proiektu batzuk.

#### ● ARANTZAZUKO MEZAREN EMANALDIA

Eratu eta Unión Radiori elkartutako emisoreetako bik, Radio San Sebastián eta Radio Bilbaok, urte horretan bertan ekimen bat jarri zuten abian, irrati euskal gizartearen, elementu erlijiosoan artean oso pisu handikoa zen euskal gizarte hartan lortzen ari zen ezarpen gero eta handiagoaren isla gisa: 1934ko irailaren 9an, Arantzazuko Andre Mariaren egunean, Unión Radioren mikrofonoak Arantzazuko Santutegira iritsi ziren, handik bertatik meza santua eskaintzeko Bilbo eta Donostiako bi emisoreentzat; horrenbestez abian jarri zen, hainbat gorabehera izan arren Radio San Sebastiánen kasuan 1983 arte jarraitu zuen ekitaldi bati. Izan ere, igandeko mezaren emankizunetan Arantzazuko tradizio bihurtu zen.

Garai hartako kronikek diotenez, Arantzazuko Santutegiaren inguruan egun hartan "chunka automobil" bildu zen. Eta "alde askok, eguraldi aldakorraren aldarre txarnari aurre eginez, oinez egin dute igoera. Gorteetako diputatu Manuel Irujo eta Telesforo Monzón jaunak ere iritsi dira"<sup>3</sup>. Radio San Sebastián eta Radio Bilbaoren bidez irratiz eskaintako estreinako meza hartan —seguruenik espainiar estatu osoan lehena izango zen—, Bilboko Santa Cecilia Schola Cantorum-en zuzendari Victor Zubizarreta organo-jolea eta Santutegiko Frantziskotarren abesbatza aritu ziren, Aita Jose Maria Arregien zuzendaritzapean azken hauek. Koruak, beste

batzuen artean, S. Rachmaninoff-en *Laudes Mariana*e eta *Sancta Maria* kantatu zituen, eta bere errepertorioa luzatu beharrean izan zen, Andoaingo parokoak eskaintako sermoiaren denbora guztia bete ahal izateko. Honek bazuen bere arrazoa, hain zuzen hilabete batzuk lehenagotik gobernari errepublikarrek galarazpena ezarria ziotela diskurtsoak irratiz emateari.

Izan ere, II. Errepublikaren Gobernuak 1934ko otsailaren 9an agindu bat eman zuen, Komunikazio Ministerioaren bidez, berariaz debekatuz izaera edo eduki politiko eta sozialeko diskurtsoak eta propaganda-espazioak emititzea. Garai hartako giro soziopolitiko nahasiaren adierazpen garbia zen, inolako zalantzarik gabe; kontu egin dezagun, handik bi urtera 36ko gerra zibila hasi zela. Sermoirik gabe izan arren, Radio San Sebastiánek 1934ko irailaren 9 hartan Arantzazutik lehen aldiz eskaini zuen meza santuaren eta koruaren kantuen emankizunak Santutegiko arduradunen oniritzia izan zuen. Kronikagileak honelaxe utzi zigun jasota, egun hartan bertan idatzitako orrian:

“Unión Radio de San Sebastián-ek bere laguntza eskaini du, galanto, gaur goizeko ekitaldia irratiz eman ahal izateko, hain zuzen Arantzazu eta musika erlijioso maite dutenek gozatu ahal izaten ezaten, etxetik bertatik izan arren, bazter bedeinkatu honetan eskutadaka aletutako harmonia”<sup>4</sup>.

Urtebete geroago, berriro ere Gipuzkoako zaindariaren festa egunean, Alipio Marín jaunak zuzentzen zuen Unión Radio San Sebastiánen mikrofonoak Andre Mariaren eguneko liturgi ekitaldien lekuko izan ziren.

40ko hamarkadako lehen urteetara arte, Arantzazuko Santutegitik egiten ziren emankizunak noizean behingoak izan ziren, gauza puntualak, beti-beti eliz egutegiak apartekotzat seinalatutako egun eta gertakizunetara mugatuak. 40ko hamarkadaren hasieran, Radio San Sebastiánen zuzendaritzak meza santua igandero emateko aukera eskaini zuen, eta 1943an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren pataidetza zuzenaz, hori horrela egiteko baldintza tekniko eta ekonomikoak finkatu zituzten.

● OMENALDI BATEN EMANKIZUNA

Radio San Sebastiánek Arantzazuko Santutegitik lehenbiziko emankizun erlijiosoak egin zuen irail hartan bertan abiatu zen **Radio Vitoria, EAJ-62**: adinekoei eskaintako omenaldi bat eman zuen Gasteizko Nuevo Teatro-tik, egungo Principal



Gernika suntsituta alemaniarrek bonbardatu ondoren, eta gami hartako egunkaria, irratiz emandako salaketaren berri ematen duena.



Antzokitik alegia, bezperan, 1934ko irailaren 29an, Prudencio Maria Berastegi kaleko estudioak inauguratu ondoren. Hilabete gutxi batzuk lehenago jabe eta zuzendaria zen Francisco Hernández Peña jaunak Madrilo Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiak igorritako idazkia zuen jaso, Telegrafo Ataleko Gasteizko Zentro Probintzialeko ordezkari-buruak izenpetua, eskatutako irratiz-jardueraren ustiapena hasteko baimena ematen ziona.

Garai hartako prentsaren kronikak diotenez, ekimenak oso oihartzun handia izan zuen gizarte mailan, Lancero liburutegi ospetsuak egun haietan zehar prentsan jarritako bi iragarki hauek lekuko:

«Para conmemorar la inauguración de la Emisora Vitoriana ofrecemos por unos días detectores de galena a 2 pesetas. Para oír en alta voz, receptores de lámparas auriculares y piezas sueltas para la construcción de aparatos a precios baratísimos». «Visiten la exposición de los nuevos modelos para 1935. Receptores «Pilot». Asombroso funcionamiento. El primer receptor de ondas cortas con el cuadrante iluminado de aeroplano. Fabricados en la ciudad de Pilot, los mayores edificios del mundo dedicados a su fabricación».<sup>5</sup>

Abiatu eta bi urtera, 1936ko irailaren 4an, Gerra Zibila hasi berrikan alegia, Ingalaterran bizi zuen ikasle gasteiztar batek

errepezio-parte bat igorri zuen irratira, adieraziz emisorea entzun zuela hain urruneko tokietan egon arren. Seguruenik, irradi-emisorea hartzeko ahaleginek zerikusi handia izango zuten Espainian azken orduetan gerra zela-eta gertatzen ari zenari buruzko azken orduko albisteak jasotzeko nahiarekin. Ildo honetatik, eta I. Mundu Gerran sartutako beste herrialde batzuetan gertatu zen moduan, Espainian ere gerrak indarra eman zion irratitari.

● IRRATIA, GERRARAKO ARMA

Gerra Zibila lehertu zenean, borrokan ari ziren alderdi biek, bai Gobernuak eta Errepublikaren aldekoek bai altxamendu militarren protagonista eta jarraitzaileek, irratia erabili eta bultzatu zuten beren jarduerak sendotzen zituzten albiste eta kontsignei zabalkundea emateko; propaganda arloan ere arma bikaina izan zen. Jendeak, ondorioz, arreta handia jartzen zien argailuei eta gertatzen ari zenari buruz irratik ematen zituen albisteei. Albisteen kolorea, dena den, entzuten zen irradi-emisoreak altxamendu militarren ondorioekiko zuen egoeraren arabera izango zen beti.

Afrikako Armada Errepublikaren aurka altxatu bezperan, eta 1936ko uztailearen 18ko bertako lehen orduetan zehar, Unión Radioren mikrofonoek, orduko irratiz-kate bakarra baitzen, Casares Quirogaren Gobernuaren “lasaitasunezko” oharrak eman zituzten, Madrilen Gobernazioaren Ministerioan instalatutako mikrofonoaren bidez.

Uztailearen 18an bertan, arratsaldeko lehen orduetan, Unión Radio San Sebastiánen mikrofonoek Euzko Alderdi Jeltzaleko diputatu Manuel Irujo eta Jose Maria Lasartek izenpetutako ohar bat zabaldu zuten; hauek, ohar horretan, herri subiranotasunaren aukera zilegi bakarizat zutenaren, hots, Errepublikaren aldeko jarrera adierazi zuten. Gauza bera egin zuen handik egun gutxira Radio Emisora Bilbainak, EAJ-ren izenean.

Irratia, beraz, hiritarrei arlo militarreko kontuen bilakaeran garrantzitsu edo beharrezko jotzen zirenen berri emateko erabili zuten, baina baita aginduak emateko eta, batez ere, kontsignak zabaltzeko, aldekoak haingatzeko eta, estaldura-eremuak aukera emanaz gero behintzat, etsaien gudarosteen morala suntsitzeko ere. Irrati-difusioak oso-oso eginkizun garrantzitsua bete zuen gerran zehar. Orduko erakutsia zuen bake garaian hirietako biztanle-multzo handien gainean eragiteko zuen gaitasun itzela,

baina orain are nabarmenago ari zen agertzen biztanleria zibilarengan eta borroka-fronteetan zuen inpaktua. 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarretik oso hilabete gutxira, urte bereko urrian alegia, Espainiako Legebiltzarrak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako estreinako Autonomia Estatutua aldarrikatu zuen, baina Gerra Zibilari berari lotutako gertakizunen martxa zela eta bakar-bakarrik Bizkaian eta beste bi lurraldeetako zati batzuetan egon ahal izan zen indarrean. Estatutuak hedabide propioak edukitzeko ahalmena jasotzen bazuen ere, hain berandu onartu izanak eta gerrak ematen zituen definiziorako posibilitate urriek bertan behera laga zuten – gerran bertan erabilera militarreko proiektu eta sortutako zerbitzuen kasuan izan ezik – irrati-difusiorako zerbitzu normalizatu bat garatzeko aukera oro.

● EUZKADI IRRATIA

1936ko uztailaren 19an, altxatutako militarren aldeko indarrek ordu batzuetan zehar okupatu zuten Unión Radio San Sebastiánen egoitza; ondoren, Fronte Popularreko indar errepublikarrek berreskuratu zutenean, gerra hasi eta lehenbiziko 10 egunetan Gipuzkoako hiriburuan halako normaltasun batez lanean jarraitu zuen hedabide bakarra izan zen. Horretatik aurrera euskal erresistentziak lehenbiziko “Radio Euzkadi – Euzkadi Irratia” eduki zuen, hasieran Gipuzkoan lanean [seguruenik Radio San Sebastián, EA]-8ren konfiskazioaz] eta Itziarren egonaldi labur bat egin ostean, lehenik Bilbotik [Radio Bilbaok Carlton Hotelean zeuzkan estudioetatik] eta, geroago, Getxoko Galea Lurmuturretik emitituz.

Gerraren zurrumbilboa indar bizi-bizikoa zenean bultzatutako irrati-difusiorako ekimen hauen inguruan irrati-difusiorako zerbitzua eratu zuten –honek bazuen halako ukitu ofizial bat– Euzkadiko Jaurlaritzaren Propaganda zerbitzuen estamentuen inguruan. Edonola ere, irrati-zerbitzuak izan ziren gerrako parteak eta herritarrei zuzendutako komunikatuak zabaldu eta larrialdiko informazio eta propaganda jarduerak garatu zituztenak.

● J.A. AGIRREREN DISKURTSOA

Lehenbiziko Euzkadi Irrati hark gerra zibilaren garaian eskainitako emisioen artean, garrantzi berezikoak izan ziren, inondik ere, Jose Antonio Agirre lehendakariaren diskurtso eta interbentzioak. Interbentzio horietako bat 1936ko abenduaren



Bonifacio Echegarayk irrati-zalatu zuen Gernikako sarraskia. Euskadi egunkariak salaketa horren berri eman zuen Radio Emisora Bilbainaren estudioetan kokatuz salaketaren tokia.

*Prentsan, emisio historiko bati buruzko albistea.*

Anoche, a las diez y media, tuvo lugar en los estudios de Radio Emisora Bilbaina la emisión especial dedicada a Gernika y organizada por el Departamento de Cultura del Gobierno de Euzkadi.

La emisión fue hecha en castellano, en francés y en inglés.

Quería el Departamento de Cultura al organizar este interesante acto expandir por el mundo la verdad del monstruoso atentado que hizo desaparecer del mapa a la villa de Gernika, solar de Euzkadi y símbolo de las libertades vascas. Y quería, sobre todo, que la verdad llegara a los vascos que, dispersos por el mundo, siguen anhelantes las trágicas vicisitudes que la guerra ha proporcionado a la patria y a los vascos, que esperan el día de la liberación, obligados a convivir con los incendiarios de pueblos y sicarios de muchedumbres pacíficas.

La emisión tuvo resonancias de una democracia sin mácula, representada en la persona del alcalde de Gernika, elegido por el pueblo euzkoldun, el que conoció su libertad mucho antes que los demás pueblos de la tierra; de espiritualidad, encarnada en el sacerdote vasco don Eusebio de Arronategi; de cultura, en la ilustre personalidad de don Bonifacio de Echegaray, y de justicia, en el consejero del Gobierno vasco señor Leizaola.

Antes de dar comienzo la emisión fue radiado el himno vasco.

Salaketa historiko baten lekukotasuna; honetan prentsa eta irratiak elkarren osagarriak izan ziren.

22an izan zen, Autonomia Estatutua aldarrikatu eta bi hilabete eta erdira, «Un Gobierno joven del viejo pueblo de los vascos» izenburuaren pean. Honela hasi zuen:

«A todos cuantos a través de estas ondas escuchan mi palabra, tanto aquí, en Euzkadi, como en el resto de la república y en el mundo, legue el saludo preñado de esperanzas del Presidente de un Gobierno joven, representante del viejo pueblo de los vascos».

Irrati bidezko diskurtsoa, gertakizunen logikari jarraiki eta bizitzen ari ziren gerra egoera oso gogoan zuela, euskal miliziei zuzendutako animu hitzez amaitu zuen:

«Pozik nago zuekin gudari maiteak.

Jarraitu bide oztatik, jarraitu ba, zure eskuetan lagata dago Aberri maitearen itxaropena eta zorientasuna.

Euzkadi' ren ixenian zubei danori mila esker.

Gabon ona igaro.»<sup>6</sup>

● GERNIKAREN BONBARDAKETA

Agirre lehendakariak Euzkadi Irratiaren uhinetan izandako interbentzio nabarmenetako beste bat, apirilaren 26ko aire-bonbardaketak pairatu zituenean Gernikan izandako genozidiotik egun gutxira uhinen bidezko salaketa egin zueneko izan zen; honetan mundu osoari babesa eskatu zion, Bilbon babestuta zeuden Euskal Herri osoko emakume eta haurrentzat. Gernikako bonbardaketari dagokionez, Radio Bilbaok [Radio Emisora Bilbainak], Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren ekimenez, programa berezi bat egin zuen, eta honetan bonbardaketan bizirik ateratako batzuek, politikariek eta Eusko Jaurlaritzaren hainbat kidek hartu zuten parte.

● IRRATIA 1936KO AUTONOMIA ESTATUTUAN

Irrati-emisioak 1937ko ekainean utzi zion emititzeari, Bilbo erori ostean. 1936ko urrian Autonomia Estatutua onartu zenetik Eusko Jaurlaritzak boterea zertu ahal izan zuen denbora laburrean, eta gerrak irrati-difusiorako zerbitzu autonomoen antolamendu normalizatua eragotzi zuen arren, euskal irrati-difusio zerbitzu publikoa izan ahal izango zatekeenaren lerro nagusiak definitzera iritsi ziren. Horrelaxe jasota geratu zen euskal nazionalismoaren artxibo-fondoetan, hots, Sabino Arana Fundazioaren museoaren egoitzan artean bildutakoetan:

«Iratia gaur egun palankarik ahalmentsuenetako bat da



gubernuen eta herrien bizitzarako. Ondorioz, baliabide honi, izaten ari den hedapen-prozesuaz gure Herriaren bilakaeran eginkizunik garrantzitsuenetako bat beteko duen baliabide honi arretarik eta ardurarik handiena eskaini behar diogu».

«Baina gure herrian, Euzkadin, ar garrantzi handiagokoa da irrati bidezko zerbitzua, jaiotze berriak baikara, estatuaren politikari aurre egin behar baitiogu, eta nazioarte mailan ez baikaituzte ezagutzen».

Hori guztia zela eta, irrati-difusioko jarduerak hiru taldetan antolatzea proposatzen zen. Talde horiek egoerak eragindako behar edo betekizunen arabera izango ziren:

«Ikus dezagun:

**Lehen taldea:** Soil-soilik izaera belikoko parteak, oharrak eta jarraibideak transmitituko dituzten emisoreak.

**Bigarren taldea:** Literatur eta musika programak (horrela esan

dezagun) eskaintzen dituzten emisoreak, publizitatea ere tartekatuta dutenak. Hauen bidez propaganda bizia egin liteke: albisteak espainieraz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez emango lirarteke.

**Hirugarren taldea:** *Komunikazio zerbitzura bideratutako emisoreak (Telefono-konferentziak Madril, Bartzelona, Valentzia eta abarrek)*

#### ● PROIEKTU ARTISTIKO MUSIKALA

1937ko urtarrilaren 8ko data duen eranskin batean, «Euzkadin dauden irrati-emisoreetanako proiektu artistiko-musikalaren txostena» delakoa lantzen da. Agiriaren hasieran deklarazio tinko bat ageri zaigu:

«Oso garbi dago Radio Bilbaok eta Euzkadi lurraldean dauden bestelako irrati-estazioek emititzen dituzten musika-programen edukia

ez datorrela bat euskal herriaren kultura eta maila artistikoak eskatzen dituen izaera, izpiritua eta interesarekin».

«Beraz, (...), egiazko arte-esangura duten arauak ezarri behar dira, literatur eta informazio arloan ere ezar daitezkeen bestelakoekin batera...»<sup>7</sup>

Eta horretarako, txostenaren erredaktoreak hainbat neurri proposatzen zituen, zazpi ataleko plan batean jasota; hauetan, orkestra sinfoniko baten sorrera eta dagoeneko bazen Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin akordioak egitea proposatzetik «*hirian kokatutako Banda Militarren*» mikrofono aurreko emanaldi plan bateraino iristen zen, haurrentzako musika programazio espezifikoko gain.

● **ESTATUTUIAREN AMAIERA ETA LEGE ARAUKETA BERRIA**

Euskadiko Autonomia Estatutua berehala balio gabetzeak, Bizkaia eta Gipuzkoa probintzia traidore deklaratu izanak, erakunde politiko eta sindikal guztiak legez kanpo geratu izanak, eta ezarri berriko erregimen politikoaren izaera diktatorialak berak, eragotzi eta galarazi egin zuten ordurako irrati-hargailuak bazeuzkaten euskal etxetara iristeko moduko irrati-difusioa inolako jarduerarik behar adinako informazio eta komunikazio askatasunez garatzeko aukera oro.

Estatu mailako arautegiari dagokionez, gerra zibilaren denborak eta boterera diktadura erregimen berria heltzeak eragin zuten indarrean zeuden xedapenak erregimenaren behar politiko eta militarren mende jartzea, eta erregimenaren behar horiek oso egoera sorta zabal batean gauzatu ziren: zentsura agertu zen, interbentzio militarren erregimena, irrati-difusioan arauen mende jartzea, etab.

Maila zehatzean, azpimarratzekoa da irrati-difusioaren arloa erregulatzeko inolako arau materialik ez izatea. Are gehiago, indarrean mantendu zen II. Errepublikaren garaian ezarritako arau-multzoa, xedatutakoa erregimen berriaren interesekiko kontraesan edo interes horien aurka egon ezean, jakina. 1936ko abenduaren 18ko zirkular baten bidez, instalazio irrati-elektroko guztiei Komunikazio Ikuskaritza Nagusiak emandako baimena exijitu zieten, baina obligazio honetatik kanpo geratu ziren bai izaera militarrekoak bai EAJ bereizgarria zutenak, hauek lehenagoko emakida bat zeukaten eta.

Arautegi honen babesean agertzen joan ziren Falangeren emisoreak, F.E.T. siglen pean emititzen zutenak. Irratiak jada eskuratua zuen ezarpen eta garrantzi mailaren eta erregimen berriak

horretaz egiten zuen erabileraren ondorioz, etengabeko nahasketa ematen baitzen informazioaren eta propagandaren artean, irrati estaldura ideologikorako lanabesik eraginkorra bihurtu zen.

1937ko urtarrilaren 19an Salamancan inauguratu zuten *Servicio Nacional de Radiodifusión* haren lehenbiziko emisorea, **Radio Nacional de España [RNE]** epigrafeaz. Estazio mugikorra zen, kamioien gainean instalatutako emisorea zeukan, eta 20 kilowatteko potentzia, eta Francisco Francok berak inauguratu zuen. Pixkanaka-pixkanaka finkatuz joango zen Radio Nacional de

albisteak zeuzkaten informazio programen debekuarekin batera Madrilgo Radio Nacional en albistegiekin konektatu beharra etorri zen, eta informazioaren monopolio hau 1977ko urriaren 25era arte mantendu zen indarrean.

Gerra zibila amaitu ondoren, estatuko geografiako emisoreen panoraman funtzionatzen ari ziren irrati-estazioak ehun eskas izango ziren. Gehienak pribatuak ziren, komertzialak, EAJ indikatiboak emititzen zutenak; Uhin Motza eta eremu lokala erabiltzen zuten hogeit bat emisore ere baziren, FET indikatiboak, erregimenak Falange y de las



*Irratia jarduera eta propaganda klandestinatorako baliabidez hartu izan zen.*

Españaren errealtatea, izaera publikoko eta erregimenaren zerbitzupeko kate estatal gisa.

● **ZENTSURAK ETA OBLIGAZIOAK**

Burgosko Radio Nacionalek gerraren amaiera [1939ko apirilaren 1a zen] iragartzen zuen kuartel jeneraleko parte eman eta hilabete gutxira, 1939ko urriaren 6ko Aginduak zentsura ezarri zuen, izaera orokorraz, irrati-emisore komertzial guztientzat eta, aldi berean, maila lokala, probintziala edo erregionala gaintzen zituzten albisteak ematea debekatu zuen. Nazio edo nazioarte mailako

JONS-i emandakoak, oso izaera ideologiko-propagandistiko agerikoak. Gainera, Radio Nacional de Españaren lehenbiziko bost irrati-emisoreak zeuden, Madril, Huelva, Bartzelona, A Coruña eta Malagan hain justu, sortu berriak.

● **GURE HERRIALDEAN**

Euskal Herriari dagokionez, Gerra Zibilaren uiteetan eta hurrengoetan, diktadura dagoeneko boterean finkatuta zegoela, oso aldaketa gutxi izan ziren, edo batere ez, estatuen administrazio-emakiden mende jartzearen panoraman; aldaketa

bakarrak, izan ere, arau eta ezarpenen arloan etorri ziren, aurretik zeuden irrati-emisoreen programazio-ildoak baldintzatu zituzten eta.

Bestelakoan, lanean jarraitu zuten Gerra Zibila hasi aurretik sortutako irrati-estazioek. Hiriburu bakoitzak berea zuen: **Radio San Sebastián [1925]**, EAJ-8, Primo de Riveraren diktaduran zehar Unión Radio kateak, estatuan zegoen kate bakarrak, eskuratua; EAJ-28, **Radio Emisora Bilbaina**, gero **Radio Bilbao** izango zena, 1933ko urriaren 31n inauguratua; EAJ-62, **Radio Vitoria**, 1934an Francisco Hernández Peñak sortua; eta EAJ-6, **Radio Navarra**, 1933ko maiatzean inauguratutako emisorea.

Bigarren Errepublika [1931-1936] garai berean Europako beste herrialde batzuetan zeuden hedabideetarako sistema demokratikoen antzekoak aplikatzeko ahalegin bat izan zen moduan, frankismoak sistema autoritarioa ezarri zuen, eta horretan hedabideen eginkizuna erregimenaren ideologiaran transmisio lana zertzea zen, alderdi desberdinetan. «*Testuinguru horretan* –diosku Santiago de Pablo historialariak Radio Euskadi-La voz de la libertad liburuan argitaratutako artikuluan–, oso logikoa zen pentsatzea Espainiak, politika erregimen diktatoriala zuela, irratien monopolio publikoa ezarriko zuela. Alabaia ez zen horrela gertatu, eta paradaxikoki Espainia frankistak irrati-difusioa zeukan lege erregimena, enpresa mailan, garai hartako beste herrialde demokratiko batzuetan, hala Frantzia nola Britainia Handian, zegoena baino liberalagoa zen». Honen eraginez, irrati-difusioarako erregimen misto batek indarra hartu zuen, emisore publiko eta pribatuak zudela.

**OHARRAK**

1 Díaz, Lorenzo. «La Radio en España. 1923– 1977». Alianza Editorial. Madril 1997. 134. or.

2 Joseph Paul Goebbels, 1933 eta 1945 bitartean, Informazio eta Propaganda ministroa izan zen Hitlerren gobernuan.

3 ARANZAZU aldizkaria, 1934ko iraila. 285. or.

4 ARANZAZU aldizkaria. 1934ko iraila. 285. or.

5 Gasteiz Irratia. Radio Vitoria: 50 años en las ondas. Gasteiz 1984.

6 Euskadiko Gobernuaren Propaganda atalak argitaratua. Sabino Arana Fundazioaren Artxibo eta Dokumentazio Fondoak. Artea.

7 Sabino Arana Fundazioaren Artxibo eta Dokumentazio Fondoak. Artea.

# DIKTADURA ETA ERBESTEA



## 40KO URTEAK

*Irrati estudioa 40ko urteetan. Irrati txikietan sarritan gertatu ohi zen jarraipeneko esatariak autokontrola egitea, bemiak mikrofonoak eta bestelako soinu-iturriak maneiatzea, eta aldi berean animatzaile eta aurkezle lanetan aritzea. Disko-biragailuak zeuzkaten 78 erreboluzioko arbelezko diskoetarako. Emisioek zuzenean izaten segitzen zuten, nabiz hari-magnetofoiak erabiltzen hasiak ziren, grabazio batzuk egiteko aukeraz. Radio Vitoria-Gasteiz Irratiak [EITB] lagatako argazkia..*

**ERREGIMEN FRANKISTA** saiatzzen zen atzerritik egindako emisioak indargabetzen. Espainiarzko zerbitzuak emititzen zituzten europar irrati-emisioaren artean aipagarrienak BBC eta Radio París ziren. 1946ko abenduaren zirean hasi zen lanean Radio Euzkadi-La Voz de la Resistencia Vasca. Venezuelako oihanean sortu zen atzera, 1965ean, «Radio Euzkadi, La voz de la Resistencia Vasca – Euzkadi Irratia, Eusko Erresistentziako Gudarien deia».

### ■ IRRATIA, DOMEINU ETA ASKATASUNERAKO LANABESA

Erregimen diktatorialaren egiturak itxuratzeko eta finkatzeko prozesu politiko-administratiboetan, irrati zerbitzuen antolaketa jardueri dagokienez, aipatzeko modukoa da, inondik ere, 1941eko urriaren 10eko Dekretua, 1939az geroztik Gobernazio Ministerioaren eskutan egondako irrati-difusioaren arloko eskumenak *Delegación Nacional de Radiodifusión* sortu berriari eskualdatu zizkiona; aipatu ordezkari haur, bere aldetik *Vicesecretaría de Educación Popular* izenekoan txertatuta zegoen.

### ● IRRATI-DIFUSIORAKO ESPAINIAR SAREA

Emandako eskumenek irrati-difusioaren alderdi politiko, juridiko, tekniko, ekonomiko eta administratibo guztiak hartzen zituzten. Hau da, instalazio-emakidak ematea, ikuskaritza, hargailuetarako lizentziak ematea, emisio orokorren zentsura eta irrati bidezko publizitatearena, zehapenak ezartzeko boterea eta, azkenean, integrazioa eta zuzeneko ustiapena edota horietarako propio sortutako erakunde bidezkoa, hauek guztiak 1942an sortutako *Red Española de Radiodifusión* haren pean geratutako ahalmenak izan ziren. Pixkanaka-pixkanaka Radio Nacional de España espainiar lurralde osoan finkatuz joan zen,



*Frankismo garaiko irratiaren irudi adierazgarri bat: inguru adeitsua diktadorearen atzean, eta irratiaren mikrofonoak aurrealdean, domeinu instrumentu gisa.*

eta 1945ean Uhin Motzean emititzen hasi zen Latinoamerikarako; aldi berean, Francoren erregimena ahalegintzen ari zen atzerritik egiten ziren erregimenaren aurkako emisioak indargabetzen.

### ● BBC, RADIO MOSCU, RADIO PIRENAICA

Espainiarzko zerbitzuak emititzen zituzten europar irrati-emisioaren artean azpimarragarrienak BBCren emisioak ziren. Honen uhinetan II. Mundu Gerra osoan zehar entzun ahal izan ziren *Aita Olasoren* –*Pedro Alberto*

*Onaindiaren ezizena* zen– irrati bidezko hizketaldiak.

Espainiar erbesteratuen arreta bereganatu eta Francoren erregimenari kezka bat baino gehiago eragin zioten emisioetako beste batzuk **Radio Moscú**-renak izan ziren, espainiarzko bertsioa bazuten eta, eta baita **Radio España Independiente**-renak ere – “Radio Pirenaica”–, *Dolores Ibarruri* komunistaren zuzendaritzapean lehenik Moskutik eta ondoren Bukarestik [1955] emititu baituzten. Hiri irrati-estazio horiek 1941ean hasi ziren emititzen, Francoren

gobernuak Servicio de Interferencia Radiada zerbitzua sortzea erabaki zuenean hain justu; zerbitzu horren eginkizuna atzerriko irrati-emisioetatik egiten ziren aipatu beste horien emisioak aurkitzea eta indargabetzea zen, erregimenaren aurkakoak zir elako.

### ● RADIO PARÍS

Urte batzuk geroago, 1946tik aurrera, **Radio París**en emisioak ere nabarmendu ziren. Honen emisioen zuzendariak espainiar erbesteratuak ziren, eta 23:30 eta 24:00 bitartean izaten ziren.

Radio Parísen kanpo-zerbitzuek eskaintzen zituzten informazio zerbitzu haien esparruan, 1946ko apirilaren 20a bezalako egun seinalatuetan, Aherri Eguna bezpera baitzen, euskal erresistentziarekin lotutako albisteez eta euskal musikazko emisioez gain, hainbat diskurtso ere entzun ahal izan zen, Telesforo Monzonena edota Jose Antonio Agirre lehendakariarena berarena ere.

Europar irrati-difusioak zeukan programazioko espainiarzko kanpo-zerbitzuen artean, indar berezia izan zuten Alberto Onaindia apaiz markinarraren [Markina, 1902 – Donibane Lohitzune, 1988], uhinen munduan **Dr. Olaso** apaiza balitz bezala agertzen zen haren emisioek, euskal eta espainiar iritzi publikoaren hainbat sektoretan izan zuten eraginagatik, irrati profesionalen, kulturako

jendearen eta ordezkari politikoen artean lortutako ospeagatik eta, ondorioz, Francoren erregimeneko propagandistei sortarazi zieten kezkatik.

BBCko irrati-jarduera utzi eta gero, haren espainiarazko kanpo-zerbitzuetan "James Masterton" ezinenaz aritu baitzen, 1946an bere komunikazio-bokazioari eta erregimen diktatorialaren aurkako erresistentziari zerbitzua emateari heldu zion atzera, astean bitan eskaintzen zituen solasaldiez, larunbat eta astelehenetan izaten baitziren; emisio hauek inolako etenik gabe mantendu ziren 1946ko udazkenetik 1957ko urriaren 21era arte.

Dr. Olasok bere irrati bidezko hizketaldietan bidegabekeriak etengabeki salatzeak eta giza askatasunaren defentsan jarduteak eragin zuten Francoren erregimenaren presio diplomatikoek hainbat ondorio izatea, eta azkenean haren ahotsa betiko isildu zen frantziar irrati-difusio publikoaren espainiarazko zerbitzuetan.

Noizbehinkako emisioetatik programazio-zerbitzu egonkorrago bat sortzera igarotzea izan zen hurrengo pausoa, eta Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean, besteak beste Telesforo Monzón, Javier Landaburu eta Jose Antonio Durañona arduratu ziren Radio Parisetik zerbitzu hori antenara eramateaz, "Euskal Irrati Ixilla" izen espezifikoa.

Erbesteko Eusko Jaurlaritzari lotutako irrati bidezko informazio zerbitzu hauen esparruan azpimarratzekoak dira Jesus Insausti "Uzturrek" Radio Parisetik eginiko gidoi eta errealizazioak. "Paristik Euskalerrira", "Paristik Mundu Zabalerara" eta "Actualidad Vasca" Jesus Insausti "Uzturrek" Radio Parisen Espainia eta Latinoamerikarako kanpo-zerbitzuetan 1960 eta 1964 bitartean antenan jarritako irrati-programak izan ziren.

Baina 40ko lehen urteetan Radio Parisen abian jarritako emisioen benetako bultzatzailea lehenbiziko Eusko Jaurlaritzaren Defentsa Idazkari izandako Joseba Rezola izan zen [EAJ-PNV - Ordizia, 1900 - Donibane Lohitzune, 1971]. Hasieran Burgosen heriotza zigorra ezarri ziotela, Seguritasuneko Zuzendaritza Nagusiaren sotoetatik beretatik mamitu zuen erresistentziarentzako emisore bat sortzeko ideia eta, aske geratu zenean, bera izan zen proiektuaren kudeatzaile eta bultzatzaile nagusia.

● «EUSKO ERRESISTENTZIAKO GUDARIEN DEIA»

Horrelaxe sortu zen, Euskal Irrati Ixilla Radio Parisen emisioen



Radio San Sebastiánen aktore taldea 40ko urteetan.

Ezkerretik eskuinera: aurrean, Manuel Espinosa, Mercedes Gómez, Ángel Ibáñez; bigarren ilaran, Ely Bueno, Pedro Oria, Petra Tamayo, Arturo Rey, Carmen Cardenal, Pilar Bueno; azkeneko ilaran, Gerardo Cercadillo, Juan Cuberta (zuzendaria), Leopoldo Esteller, Ángel Molina, Javier Navajas, José Manuel Setién, Fernando Berrueto, Antonio Larzabal.

Erref. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Argazkiak, III. alea.



Irrati sari handi bat Cadenan, Donostian emana Bobby Deglanek zuzentzen zuten «Melodía Misteriosa» ospetsuaren lehen irabazleari.

Argazkian, ezkerretik eskuinera, Ángel Molina esataria, lehiaketaren irabazlea, Félix Gamara, Domecq firmaren ordezkaria, eta Radio San Sebastiánen orduko zuzendari Benito Gandasegui.



Radio San Sebastiánen aktore taldea 40ko urteetan.

Argazkiak eta dagozkien oinak, 103, 104 eta 105. orrialdeetakoak, Radio San Sebastián - Cadena SER-ek argitaratutako Javier M<sup>a</sup> Sadaren «Retrato de una ciudad con Radio - Hiri Irratidun baten erretatua» liburutik hartuta daude.

ildotik, Euzkadi Irratia, Eusko Erresistentziako Gudarien deia proiektua. Agirre lehendakariaren eta frantziar gobernu buru eta Kanpo Gaietako Ministro zen Georges Bidault-en arteko harreman onek posible egin zuten euskal erresistentziak frantziar gobernuaren oniritzia edukitzea, bere lurraldean legez kanpoko emisore bat instalatzeko, emisioak euskal lurraldeetan barrena hedatzeko asmo garbiaz inondik ere.

Joseba Rezolaren eskariz Estatu Batuetan erosi zuten beharrezko ekipamendu teknikoak, eta Mugerrera, Baionatik hurbil, eraman zuten ondoren.

Konfiantzazko jendea lan teknikoetan eta esatari gisa trebatzeko beharrezko prestakuntza ikastaroak egin ostean, 1946ko abenduaren hasieran egin zituzten emisiorako estreinako proba teknikoak, hain zuzen beren mezuak entzuleria multzo nagusiari, hots, funtsean Pirinioen hegoaldeko euskal erresistentziari modurik egokienean iristeko bereizmenik onena eskaintzen zuten Uhin

Motzeko frekuentzia aukeratzearren. Bigarren lantalde bat Donibane Lohitzuneko Villa Bresies-en kokatu zutelarik, Euzkadi Irratia, Eusko Erresistentziako Gudarien deia 1946ko abenduaren 21ean hasi zen emititzen. Proiektuari sostengua ematen zion Erresistentzia Batzordeak eta kudeatzaile zuzenena zen Joseba Rezolak hirutan definitu zituzten irrati-emisorearen helburuak. Euzkadi Irratiak Erresistentziaren organo bat izan behar zuen, euskaldun guztientzako lotune eta indargune frankismoaren kontrako borrokan, euskal kultura eta, batez ere, euskara sustatzeko lanabes eta, gainera, totalitarismo komunistaren aurka ere borrokatu behar zuen; halaz, SESBetik emititzen zuten irrati komunisten sarearekin lehian ari zen emisore klandestino bakarra zen.

Motzeko frekuentzia aukeratzearren. Bigarren lantalde bat Donibane Lohitzuneko Villa Bresies-en kokatu zutelarik, Euzkadi Irratia, Eusko Erresistentziako Gudarien deia 1946ko abenduaren 21ean hasi zen emititzen. Proiektuari sostengua ematen zion Erresistentzia Batzordeak eta kudeatzaile zuzenena zen Joseba Rezolak hirutan definitu zituzten irrati-emisorearen helburuak. Euzkadi Irratiak Erresistentziaren organo bat izan behar zuen, euskaldun guztientzako lotune eta indargune frankismoaren kontrako borrokan, euskal kultura eta, batez ere, euskara sustatzeko lanabes eta, gainera, totalitarismo komunistaren aurka ere borrokatu behar zuen; halaz, SESBetik emititzen zuten irrati komunisten sarearekin lehian ari zen emisore klandestino bakarra zen.

INTERFERENTZI GERRA

Asko eta asko izan ziren emisoreak 1946tik 1954 arte aurre egin behar izan ziren zailtasun tekniko, ekonomiko eta politikoak. Zailtasun teknikoak, alde batetik, emisio-puntuaren eta estaldura-eremuaren arteko hain tarte txikiak izatean Uhin Motzak difusiorako behar dituen ezaugarri eta eskakizunetatik etorri ziren.

Baina, bestetik, Francoren gobernuak 1941ean sortutako Servicio de Interferencia Radiadak barnealdetik egiten zituen interferentziak zeuden. Interferentzia hauetako batzuk Donostiako Andia kaleko Telegrafoen eraikinetik zetozen. Interferentziek sortutako emisio-zailtasunak handiak izaki, Euzkadi Irratiaren arduradunek erabaki zuten pairatzaile huts izateari laga eta beraiek interferentziak sortzera igarotzea

Euskadin diktadorearen oniritziaren lanean ari ziren irrati-emisoreei zuzendurik. Halaz, 1948ko uztailean 18an Radio San Sebastiánen emisioak interferitzea lortu zuten, egurdiko hamabietan, Arantzazuko Santutegian esandako meza nagusiaren emanaldia amaitu ondoren. Egun horretatik aurrera interferentzi ekintzak errepikatuz joan ziren, sarri samar, eta aipatzeko modukoak dira frankismoak antolatutako "hauteskundeak" zirela eta 1948ko azaroan eginikoak.

#### ZAILTASUN EKONOMIKOAK

Maila ekonomikoan, berriz, Euzkadi Irratiaren finantzaketa-zailtasunak zerikusia izan zuten egoitza aldatu beharrekin, Mugerretik Donibane Lohitzuneko Villa Briseis-era aldatu baitzen 1949an; hauez gain, material teknikoak birjarri beharra eta mantentze, erredakzio, lokuzio eta administrazio lanetan ari ziren langileen ezinbesteko kostuak zeuden.

Erbesteko Eusko Jaurlaritzak berak diru kontuetan zuen egoera kaxkarraren eraginez, 1947aren erdialdean Jose Maria Lasar tek, Eusko Jaurlaritzaren Gobernazioko sailburuak, Joseba Rezolari idatzi zion, azpimarratuz Radio Euzkadirekiko interesa berpiztu beharra zegoela, nahikoa barrera jota baitzegoen seinalea hartzeko etengabeko zailtasunengatik; izan ere, lortutako emaitzek oso zerikusi txikia zuten eskatzen zuten giza zein diruzko ahaleginarekin.

Baina, zailtasunak metatzen ari zirelarik, baziren aldeko faktore batzuk ere, hala nola emisio batzuek lortutako arrakasta, beste irrati-emisore batzuen gainean zertutako interferentzien eraginkortasuna, eta Francoren gobernuaren kezka erreakzioak eta jazarpena bera; horrenbestez, Euzkadi Irratia, Eusko Erresistentziako Gudarien deia-k jarraitu zuen horrelako proiektu garrantzitsu batek behar zituen borrokarako eta zailtasunak gainditzeko izpirituari eusten.

#### PRESIO DIPLOMATIKOAK

Horregatik, azpimarratzekoa da Francoren gobernuak etengabeki frantziar gobernuaren aurrean egin zuen presio politiko eta diplomatikoa, hain zuzen Euzkadi Irratiaren jarduerak geraraz eta galaraz zitzan; presio honen osagarri gisa, barnean bizi ziren irrati-emisorearen laguntzaileek jazarpena eta atxilotetak pairatu zituzten.

Frantziar gobernuari Euzkadi Irratia itxi zezan eginiko presio politikoak areagotu egin ziren 1949az geroztik, emisorea Mugerretik Ziburura aldatu zen urtean alegia. Espainiar gobernuak emisorea ixtea eskatuz frantziar gobernuaren aurrean izapidetutako komunikazio diplomatiko eta txosten teknikoak ugari izan arren, Jose Antonio



Aktore taldea.



Luz Maitagarria (Feli Fructuoso) eta Maravillas Aztia (José Luis Lafuente) Radio Vitoriaren «Chavales» programan. 1946 eta 1950 bitartean. Roberto Oñarreta Ramírezen eskaintza.

Aktore taldea.



Agirre lehendakariaren beraren zuzeneko gestioek ahalbidetu zuten Bidault jaunak, Segurtasuneko zuzendari nagusiak alegia, 1949ko urriaren 23an baimena ematea, idatziz, Euzkadi Irratiak Ziburutik emititzeko.

Barne-zailtasunen eta kanpo-presioen aurkako etengabeko borroka egoera hau 1954ko abuztura arte luzatu zen; orduan, Kanpo Gaietako ministro Mendés France eta Barne Gaietako ministro François Mitterrand zirela, frantziar gobernuak Euzkadi Irratiaren behin betiko ixtea agindu zuen. Orduan ez ziren ezertarako izan François Mauriac poeta eta kazetariak irratia ixtea eragozteko egin zituen gestioak, ezta Agirre lehendakariak emisioak atzera abiarazteko eginiko ahaleginak ere.

#### VENEZUELAKO OIHANETIK

Joseba Rezolak, Euzkadi Irratiaren erbesteko lehen aldi honen bultzatzailea izaki, ez zuen proiektua utzi harik eta, EGIko gazte belaunaldi berri baten eskutik, irratia berpiztu zen arte Amerikako lurretan, Venezuelako oihan tropikalaren bihotzean, Caracastik 50 km-ra.

Lehenbiziko emisioak 1965eko uztailean 10ean egin zituzten. Emisio eta irismenari buruzko lehenbiziko kalkulu teknikoek Mendebaldeko Europa osora ongi iristeko posibilitatea jasotzen bazuten ere, bidean topatutako zailtasunak asko eta asko izan ziren.

Joseba Rezolak berak defendatzen zuen moduan, hiru ziren euskaraz eta gaztelaniaz 1965ean Venezuelako oihanean berpiztutako "Radio Euzkadi, La Voz de la Resistencia Vasca – Euzkadi Irratia, Eusko Erresistentziarako Gudarien deia" irratiaren programazioari etsi behar zioten zutabeak (Demokrazia, Erresistentzia eta Eusko Jaurlaritza). Eginkizun hori xede, Euzko Gudariak Gera-ren oinarritzko notak eta orduko lehendakari Leizaolaren mezu emanaz, Euzkadi Irratiaren inaugurazioko emisioa 1965eko irailaren 15ean izan zen.

Euskal erresistentziari frankismoaren aurkako borrokan zerbitzua eskaintzeko borondate ezin sendoagoaz, eta antolamendu egonkor eta iraunkorraz, erresistentzia horretatik gai baitzen zailtasun tekniko, ekonomiko eta politiko guztiei aurre egiteko, Euzkadi Irratiak bizirik etsi zion itxaropenaren suari, abertzaletasunaren ideien aldeko eta frankismoaren aurkako borrokan, Franco 1975ean hil eta gero ere.

Venezuelako oihaneko emisioak 1977an eten ziren betiko. Apirilaren 30ean izan zen. Jose Antonio Agirre lehendakariak, gerra zibilaren zurr-unbiloan, Bilbon Euzkadi Irratiaren uhinen bidez Gernikako sarraskia eta genozidioa salatu eta berrogei urtera, hain justu.



## ■ EUSKARAREN ERREBINDIKAZIOA

Euskal irrati-difusioan 40ko urteetan zehar izandako beste gertakizun aipagarri bat Arantzazuko Santutegiaren inguruan izan zen, meza santuaren igandeko emanaldia hasi zenean Unión Radio San Sebastián entzuleentzat; Radio Bilbaoren entzuleentzat, berriz, San Bizente Elizako meza ematen zuten. Radio San Sebastián 1946ko uztailean hasi zen emisio horiekin, Donostian Gipuzkoako Batzar Eukaristikoa ospatu eta hilabetera. Zenbait emanaldi biak alderatu zituen. Jesus Dacusak Bizkaitik, Getxotik hain justu, bere lehentasunak argi eta garbi azaldu zituen, Arantzazuko Frantziskotarren Komunitatearen Agiritegi Historikoan gordeta dagoen gutun honen testuan ongi ikusten den moduan:

“Lerro hauen helburu nagusia (...) nire zorionik beroena ematea da, igande eta jaiegunetako meza nagusian bikain kantatzen duzue eta; izan ere, irrati entzuten ditut mezak. Beheraxeago Bilbao entzuten da, San Bizenteko meza, baina sekulako alde dago gauza guztietan, ahotsetan, harmonian, gustuan eta zuek daukazuen bestelako guztian. Gainera, ebanjelioa hain ondo eta hain modu praktikoak predikatzen digun Aita ere zoriondu behar dut.”<sup>1</sup>

Gainera, Radio San Sebastián Arantzazuko Santutegitik egiten zituen emanaldi erlijiosoen inguruan, 40ko hamarkadaren amaiera aldean gutun bidezko eztabaida bat egon zen, eta nahiz garai hartako hedabideetan islarik izan ez, eliza barruan eragin zuen kezkarik. Ia-ia bakarrik latinez egiten zen meza haietan, egiazko komunikazio ekintza bakarra meza-emaielen prediku edo sermoiak ziren, eta meza irrati ematekoa zela eta, beti-beti gaztelaniaz egiten zituzten. Font Andreu gotzain katalana bikariotza donostiarra heldu orduko, bere bulegoan honako idazki hau jaso zuen, Tolosako fededun batek igorria:

«Asko eta asko dira bere gaixotasuna, adina edo elbarritasuna dela eta, eta dagokien elizatik oso urrun daudela eta, erlijio urtearen garai honetan praktikatzeko den gogo-jardunetara joaterik ez duten erlijio ueste sendoko pertsonak. Horixe da, esate baterako, nire ama gaixoaren kasua, ezen bizitza osoan zehar erlijio praktika sendo eta sarrikoa eduki duelarik, orain ezinezkoa zaio etxetik irtetea, dagoeneko laurogeita hamar urte baditu eta. Pertsona horietako batzuentzat ez dago, neurri batean, arazorik irratiari esker. Ez dakizu ondo nolako pena ematen didan, bere desirarik onenaz irrati hurbildu... eta entzuten duena ulertzen ez



Jorge Sepúlveda Radio San Sebastián.



Bueno abizpak, 40ko urteetako esatariak.

Los Xey musika taldearen postala, Radio San Sebastián eskainia, «la querida emisora que nos inició en los primeros pasos artísticos».



duenean. Zenbat aldiz entzuten ote diot esaten, tristeziak beterik, euskaraz noski: Zein penagarria den niretzat eta beste askorentzat izpirituzko kontsolamendurik bategi ez edukitzea, hain zuzen gehien behar dugunean, nire azken egunetan nagoen... eta inork ez du hartzen gogoan gugana jotzea, dena gaztelaniaz egiten dute eta. Esaten didazue sermoiak ederrak eta jardunaldietako hitzaldiak interesgarriak direla... baina ez ditut ulertzen, ez dira guretzat. Ez dago urteen eta sufrimenduen pisua arindu dezakeen ezer. Zergatik ez da Eliza gurekin gogoratzen?»<sup>2</sup>

Prelatuaren erantzunak elebiduntasunaren praktikan zoko ateak zabaldu zituen, halako orke batez, euskara erabiltzeko aukera eman ez ingandean goizetan irrati eskaintako mezetan:

“A. Zaindaria estimatua: Duela egun batzuk emakume batek bisita egin zidan, eta eskatu ea zerbait egin nezakeen Arantzazutik igandean irrati ematen duten meza eta sermoia euskaraz eta gaztelaniaz izan daitezkeen. Bere desiraren alde argudiatu zuen adineko pertsona asko daudela, gaztelaniaz ez dakitenak eta baserrietan bizi direnak, gaixorik daudelako edo oso urtetsuak direlako parrokiara joaterik ez dutenak eta, beraz, Jainkoaren hitza entzutearen kontsolamendua ez dutenak.

Zuen iritzira jartzen dut eskari hau, nire aldetik adieraziz oso arrazoizko eta egingarri ikusten dudala, gaztelaniazko emanaldia ere mantenduz gero.

Agurtzen eta bedekatzeko zaitu Jaimek, gotzainak».<sup>3</sup>

Radio San Sebastián, ordugei aldaketa batzuekin eta zuzeneko emanaldien eta grabaziorako aukeren eskakizunekin lotutako beste zenbaitekin, igandeko meza emanaldiak mantendu zituen, baita emisorea SER, Sociedad Española de Radiodifusión Katearena izatera igaro eta gero ere; aipatu kate horrek aldatu egin zuen 1927az geroztik Espainiako lehenbiziko irrati kate pribatua izan zen eta Bilbon eta Donostian irrati elkartuak zituen Unión Radio haren izena. Eta urte batzuk gero Gasteizen txanda izan zen, Radio Vitoria SER Katearen programazio-diziplinaren mende geratu zenean; eta akordioa 1985 arte iraun zuen, hain zuzen EITB Irrati Taldea sortu eta Eusko Jaurlaritzak ordura arte Gasteizko Aurrezki Kutxaren jabetzako izandako Radio Vitoria erosi zuen arte.

### OHARRAK

<sup>1</sup>Arantzazuko Agiritegia. Korrespondentzia, VI. liburua, 126. agiria.

<sup>2</sup>Arantzazuko Santutegiko Agiritegia. 5. arm., 37. karp. 10. agiria.

<sup>3</sup>Arantzazuko Santutegiko Agiritegia, eskutitza, 5. arm. 37. karp. 9. agiria.

# ERREALITATE BERRIETARA ZABALTZEA



## 50 ETA 60KO URTEAK

50 eta 60ko urteetako irrati-estudioak.  
Cesáreo Elgarresta jauna.  
Segura Irratia. 50eko urteak.

**IRRATIAK ESPAZIO BERRIAK BEREGANATU ZITUEN**, espazio fisiko berriak, eta horrenbestez baita gizarte presentzia ere. Halaz, toki guztietara laguntzen zigun adiskide zintzo hori izan zen, inguratzen gaituen airean gurekin bizi den hondoko soinu hori, musikazko girotze hori azken batean. Euskal espektro irrati-elektrikoan irrati-emisore batzuk hasita zeuden euskara erabiltzen 50eko urte haietako programazioan, nahiz oso modu apalean izan.

### ■ BALDINTZA TEKNIKO, SOZIAL ETA POLITIKO BERRIAK

Francoren gobernuak, 1951ko uztailaren 19ko lege-dekretuaren bidez, Informazio eta Turismo Ministerioa sortu zuen, eta bertan kokatu zuen Irrati-difusioaren Zuzendaritza Nagusia, jarduera honen gainean *Subsecretaría de Educación Popular* izeneko hark zituen eskumenak ere emanez. Informazio eta Turismo Ministerioaren Irrati-difusioaren Zuzendaritza Nagusiari zegokion irrati-difusio jarduerarekin lotutako gai guztien antolamendua, estatuaren titularitateko irrati-zerbitzuen kudeaketarekin batera.

Irrati-difusioaren Antolamenduaren oinarri berrien bidez 1952an abiatu zen epeko gauza nabarmenenetako bat, estatu-sarearen irrati-emisoreen, hots, Radio Nacional de Españaren eta R.E.M.en sartutako beste irrati-estazioen arteko behin betiko bereiztea izan zen.

Epe berri honetako beste gauza erabakigarri bat Uhin Ertaineko irrati-emisore lokalak Frekuentzia Modulatuako emisore bihurtzea izan zen; azken hau 1958tik aurrera hasi zen gertatzen.

### ■ FREKUENTZIA MODULATUA

1952an izenpetutako *Stockholmeko Irrati-difusioaren Nazioarteko Itunak* espektro irrati-elektrikoko 81 kanal esleitu zizkion, guztira, espainiar estatuari, irrati-difusio Frenkuentzia Modulatuako emisioetarako. Emisio teknika

### SEGURA IRRATIAREN ESTUDIOAK



berria zen, Bigarren Mundu Gerran iparramerikarren armada eta irrati-difusoreek garatu eta landua, eta nabarmen hobetzen zuena emisioen kalitatea, batez ere estereofonia sartu zenez geroztik. FM-ko emisoreen ezarpenak, estereofoniaren estandarizazioak

eta Bell konpainiaren eskutik 1954an merkatuan transistorea, hargailu mugikorra alegia, sartu izanak irauli egin zuten irratiaren panorama Iparramerikan, eta handik mundu osora zabaldu zen fenomeno, oso denbora epe laburrean zabaldu ere.

Emisio teknologia berriak, Frekuentzia Modulatuak, konpondu egiten zituen, besteak beste, Uhin Ertaina erabiltzen zuten emisoreen ugaltzeak eragindako interferentzien arazoa. Hauxe izan zen arrazoï nagusia, Madrilen egindako Telekomunikazio Injineruen I. Biltzar Nazionalak frekuentzia horren erabilera espainiar estatuan ere orokortu beharra planteatu zezan. Estatu mailako lehenbiziko proba eta emisioak 1957an egin zituzten, eta handik urtebetera, 1958ko abuztuaren 8ko Dekretuak xedatu zuen 'eskualdeko emisore' kalifikazioa ez zeukaten Uhin Ertaineko irrati-emisoreek FM-ko emisore bihurtzeko eskaria egin beharra, gehienez ere 5 urteko epea izanik horretarako.

Emisoreei ezarritako baldintza tekniko berriaren neurri osagarria, eta ezinbestekoa gainera ezartze prozesuak aurrera egin zezan, handik urtebetera eman zuten, 1959ko abuztuaren 18an hain zuzen: hargailuen fabrikatzaile guztiei exijitu zieten FM jasotzeko aukeraz hornitzea 1960ko abuztuaren 1etik aurrera merkatura iristen ziren aparatu guztiak.

FM, transistore, rock and roll eta automobila izan ziren irratiaren eraldaketarako eta irrati telebistaren agerpenak eragindako lehia gogorreko egoera berriari egokitzeko motoreak.

Irratiak espazio berriak bereganatu zituen, espazio fisiko berriak, eta horrenbestez baita gizarte presentzia ere. Halaz, toki guztietara laguntzen zigun adiskide zintzo hori izan zen,

inguratzen gaituen airean gurekin bizi den hondoko soinu hori, musikazko girotze hori azken batean. Garai hartako publizitate-iragarkietako batek ongi asko adierazten zuen:

«Mendian, hondaritzan, futbolelan, etxean, bulegoan, lantegian eta toki guztietan, musika hobea eta emanaldi garbiagoak entzungo dituzu DOSOND/ Junior transistorearekin...» Hau 1962an gaztelaniaz eginiko iragarki bat da.

Epe horretan zehar, hau da, ia-ia 50eko hamarkada osoa eta 60koaren hasiera hartuz, arautegi berriak jasango dituen berrikuntza teknologiko eta aldaketak tarteko direla, bat baino gehiago dira irratia panoramaren orokorrean, eta bereziki Euskal Herriari dagokionean, azpimarratzeko moduko aldi eta aldaketak.

1953tik aurrera mugimenduaren irradi haiek instalatzen hasi ziren: REM, *Red de Emisoras del Movimiento*, CAR, *Cadena Azul de Radios* eta CES, *Cadena de Emisoras Sindicales*; horrenbestez, ordura arte Hegoaldeko euskal probintzietan lanean ari ziren 4 irradi-emisoreez osatu talde kaxkarra handituz joan zen. Dena den, gobernuak eraturako kateak ziren, betiere gizarte mailan ezarpena lortzeko eta propaganda ideologikoa egiteko zituen interesen bidetik zertuak, eta izaera instituzionala eta komertziala zuten aldi berean, hau da, publizitatea onartzen zuten finantzaketarako iturri osagarri gisa.

Euskal Herrian instalatu ziren emisoreak honakoak dira:

- **La Voz de Álava** (1953)

- **la Voz de Guipúzcoa** (1956)

- eta **la Voz de Navarra** (1957), geroago *Red de Emisoras del Movimiento* (REM) haren mendean geratu zirenak.

Hauetz gain:

- **Radio Juventud de Bilbao** (1954)

- eta **Radio Juventud de Eibar** (1953), *Cadena Azul de Radiodifusión* CAR-en jabetzakoak zirenak.

Bosgarren irradi-estazioa **Tuteran** instalatu zuten 1954an, eta zuzen-zuzenean zegoen *Cadena de Emisoras Sindicales*, CES-en mendean..

## ■ PARROKI IRRATIAK

Osterantzean, 50eko hamarkadaren bigarren erdialdean, Jainkoaren hitza zabaltzen eta eliztarrei beste informazio zerbiztu batzuk eskaintzen interesatutako apaiz batzuek bere pulpitu mediatikoak sortu zituzten, parroketako kanpandorrean antenak instalatuz horretarako. Parroki irratia izan ziren, eta hiri handietan zein herri txikietan kokatuz joan ziren. Halaz, eliz organoen erdi ezkutuko desira bat



José M<sup>a</sup> Pérez Salazar Radio Navarra-n, hots, Nafarroako lehenbiziko irradi-emisorean. 1957.



Jacinto Benavente Radio San Sebastiánen, 1945.

hasi zen azaleratzen, aspaldikoa baitzuten irradi-difusiorako baliabide propioak eskura izateko nahia, irratia gizarte ezarpenerako lanabes gisa zeukan botereaz ongi jabetuta zeuden eta. Seguran, Gipuzkoako herri txikia bera, *Cesareo Elgarresta* apaizak interesa adierazi zuen Goierriko herritarrei meza santua eta arrosarioa eskaintzeko. Halaz, 1956ko apirilaren 12an **Radio Segura** sortu zen; uhin ertainean emititzen zuen, 1500 Khz-tan.

*Pedro Gorostidik*, antzeko kezkak zituen beste apaiz bat bera, **Radio Arrate** emisorearen sorrera bultzatu zuten; hau 1959ko abenduaren 23an inauguratu zuten.

Ez ziren bakarrak izan, zeren eta garai bertsuan lanean hasi ziren, besteak beste, **Radio Tolosa**, **Arrasateko Lanbide Eskolaren irratia**, **Radio Irurita**, **Radio Aranaz** edo **Radio Bernete**. Irrati hauen emisioetan, eguneroko arrosarioko oitotzez eta meza santuaren emanaldiaz gain, eskaintako kantuak izaten ziren, baserriarrei zuzendutako landa munduaren inguruko solasaldiak,

misiolarien sermoiak elizaren egun seinatueta, bertso eta kontakizun ez osatutako programak, etab.

Irrati-emisore hauetako asko hedabide honetan euskararen erabilera normaltasunaren bidean abiatzeko modua izan ziren; egia da, dena den, pitinka-pitinka heldu zela normaltze hori, zentsurak zorrotasun handiz joka baitzezakeen gai honetan, eta diktaduraren zehapen erregimena ere ez zen ahanzteko modukoa.

## ■ BASQUE PROGRAM

Euskal Herritik milaka kilometrorra, Estatu Batuetako Wyoming estatuan, Buffalo hirian hain justu, *Jeanette Ezponda Maxwell*-en ekimenez 1956an abiatu zen Johnson konderriko euskal artzainei eskaintako programa bat: **Basque Program** zen, KBSS irradi-emisorearena. *Domingo Martirena* baigorriarra izan zen euskal artzainen kolektiboari euskaraz aster o-astero zuzentzen zitzaion estreinako esatarietako bat, eta ahalegina

egiten zuen herrimaren eta herri baten partaide izatearen sentimenduaren garra bizirik mantentzeko lotune bat ezartzen. *Jean Cinquambre*, *Jeanne Etchamendy* eta *Rosita Ibarra* izan ziren berrogei urtetan zehar programari bizia eman zioten esatarietako batzuk. Programa honek 1996an eman zuen azkena, eta euskarazko irradi-esperientzia hartako egileek euskal instituzioen omenaldia jaso zuten 1997ko udaberrian, Wyoming estatuko euskal kolektibitateari eskaintako irradi-zerbitzuagatik.

## ■ EUSKARA SARTZEA

Euskal espektro irradi-elektrikoan emisore batzuk hasita z euden euskara erabiltzen 50eko urte haietako programazioan, oso maila apalean izan arren.

SER katearen **Radio San Sebastián** ek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Aurrezki Kutxa Probintzialaren ekimenez, 1949az geroztik astero emititzen zuen baserri munduko gizon-emakumeei zuzendutako «*Charlando con los baserritarras*», *Jose Artetxe*, *Beolegi* eta *Patxi Juaristik* zuzendu eta errealizatu; dena den, eduki gehienak gaztelaniaz ematen zituen.

Red de Emisoras del Movimiento [REM] harena zen **La Voz de Guipúzcoa**k, bere aldetik, 1956an eguneroko audientzia batzuk eskaini zituen, *M<sup>a</sup> Dolores Agirre*, *Enrique Zurutuza*, *Manu Oñatibia*, *Nemesio Etxaniz*, *Maria Pilar Gezala*, *Atxukale* edota *Inazio Eizemendi* «*Basarri*» bertsolariarekin; hauek oso-osorik izaten ziren euskaraz, eta Aurrezki Kutxa Municipalak eskaintzen zien babesa.

*Don Antonio* albaitariaren eta *Jaxe Miel* baserriararen pertsonaien arteko hizketa eta solasaldiek izugarriko arrakasta izan zuten baserri munduko jendeen artean.

Baina, euskara irradi bidezko emisioetan sartzeari dagokionez, 1961eko otsailaren 11n sortu eta *Juan Lekuona* jesuitak zuzendutako **Radio Loiola** izan zen bultzada sendorik eta nabarmena eman zuena, ez baitzituen soilik espazio edo kolaborazio txikietara mugatu, oso bestela, emisio osoagoak egiten zituen, gaztelania zein euskara erabiliz, hau da, hizkuntza biak txandakatuz inolako arazorik gabe eta erabateko normaltasunez.

Euskara, horrenbestez, kirol emanaldietara iritsi zen, elkarriketa, serial, lehiaketa, publizitate eta ohiko beste hainbat irradi-programatara. Alabaina, batez ere elizjendearrekin lotutako emisoretatik zetozen euskararen aldeko mugimendu haiek kolpe larria hartu zuten, 1964an dekretu bat atera baitzuten Uhin Ertaineko irradi lokalaren kopurua mugatuz.

## ■ UHIN ERTAINEN PLAN IRAGANKORRA

Izan ere, 1964ko abenduaren 30ean diktaduraren gobernuak onartu egin zuen Uhin Ertainen Plan Iragankorra, horrenbestez amaiera eman ez estatuak ustiatutako irrati bidezko zerbitzuak eraldatzeko prozesuari. Plan horren benetako asmoa Uhin Ertaineko irrati kopurua murriztea zen, eta horietako asko eta asko, gainera, Frekuentzia Modulaturako emisore bihurtzea halaber.

Plan Iragankorrek lau taldetan sailkatu zituen orduko emisoreak:

**Lehen taldean** estatuaren jabetzako emisoreak zeuden [Radio Nacional eta Radio Peninsular].

**Bigarren taldean** Mugimenduaren emisoreak zeuden; hauei buruzko arauketa juridikoa eginda zegoen dagoeneko.

**Hirugarren taldean** Apezpiku Batzarraren irratiak zeuden. Praktikan, Apezpiku Batzarrari emisore baten ustiapena eman zioten probintziako, eta lau frekuentzia eta emisore zentral bat Madrilen. Eta hauen kudeaketaz arduratu zen erakunde juridikoa COPE izan zen, Cadena de Ondas Populares de España alegia, honen estatutuak urtebete geroago onartu baitzituzten, 1972ko ekainaren 22an.

**Laugarren taldean** irrati lokalak zeuden, 1958ko abuztuaren 8ko dekretuaz geroztik Uhin Ertaina utzi eta Frekuentzia Modulaturako emisore bihurtzeko agindua zutenak.

Garai hartako irrati-difusioaren panorama itxuratu zuen eta, batez ere, FM-ko emisoreen instalazioari behin betiko bultzada eman zion erregulaziorako ahalegin honen ondotik ez zen arau eta erregulazio mailako aldaketa garrantzitsu berririk izan, 70eko hamarkadaren erdialdera arte.

Uhin Ertaineko irrati lokalak FM-ko emisore bihurtzearekin lotutako alderdi hauek guztiak, eta Uhin Ertaineko Plan Iragankorrek, bere isla eta ondorio zuzena izan zuten, halaber, gure inguruko irratiaren panoraman.

### ● ELIZAREN EMISOREEN ERREGULAZIOA

Lehen ere aipatu dugun moduan Gobernuak, izaera orokorragoko konkordatu-arau batzuen bidetik, eliza katolikoarekiko akordio batera iritsi zen. Honen bidez, elizari aukera emanen zitzaion hainbat irrati edukitzeko, baldin eta truketan parroki irrati deitutako guztiak ixteko agindua ematen bazuen. Manuel Fraga Iribarnek, orduko Informazio eta Turismo ministroak, esan omen zuen «nahikoa da emisoretan jolasteaz» esaldiak izugarriko



«E.A.J.-62 Radio Vitoria irrati-emisorea oso baliabide abaltsua da zabalkunderako, eta Aurrezki Kutsaren Kultur Ekintzaren zerbitzuan dago, bizitza arabarraren izpirituzko gonatzean laguntza emaginkorra eskaintzeko».



«La voz de Guipúzcoa» irratiak, 1956an, euskarazko programak eskaini zituen, baserri munduari zuzenduta.

kaltea egin zuen kateei lotu gabeko irrati-difusiorako ekimen guztietan.

Parroki irrati deitutako haietako askok itxi egin behar izan zuten, 50eko hamarkadaren amaieratik aurrera lanean aritu eta gero Gipuzkoa eta Nafarroako hainbat herritan.

Maila zehatzean, **Radio Segurak** 1964an utzi behar izan zituen bere emisioak, eta ez zen 1972ra arte antenara itzuli. **Radio Arrateren** aktibitate gabea epeak 1982 arte iraun zuen.

### ■ RADIO POPULARREN IRRATIAK

Uhin Ertainetako Plan Iragankorrek ezarritakoaren aplikazioaz, trukean euskal elizak lizentziak eskuratu zituen Donostian, Bilbon eta Iruñean emititzeko, eta horrelaxe agertu ziren Radio Popularren emisoreak. Hiru irrati hauek 1960 inguruan sortu ziren. 1959ko abuztuaren 4an **Radio Popular de Pamplona** jaio zen, urtebete geroago **Radio Popular de Bilbao**. 1961eko

otsailaren 11n airera ateratzen zen **Radio Popular de Loiola**, eta 1962ko abuztuaren 15ean inauguratu zituzten **Radio Popular de San Sebastián**en estudioak, hiriburua donostiarreko Bengoetxea kalean.

Ildo honetatik, inauguratu eta urte gutxira Radio Popular de Loiolak – 1961ean abian jarri zenetik Juan Lekuonak zuzentzen zuen– pairatu zuen itxialdi hura Uhin Ertaineko emisioak Frekuentzia Modulatura pasatu beharraren ondorio bat izan zen. Ixtea 1965eko uztailaren 22an etorri zen, eta 1966ko uztailaren 31n hasi zen atzera emititzen. Itxiera teknikoak izan zen. Legeak ez zuen aukerarik ematen irrati kate batek, COPEk kasu honetan, probintzia berean emisore bat baino gehiago edukitzeko Uhin Ertainean.

### RADIO LOIOLA

Gipuzkoan ezaugarri hauek betetzen zituzten bi emisore zeuden, **Radio Popular de San Sebastián**, Apezpikutegiaren jabetzakoak, eta **Radio Loiola**, jesuiten jabetzakoak. Hau izan zen espektror irrati-elektikoaren erabilera aldatu behar izan zuena, eta bere emisioak Frekuentzia Modulatuan abiatu zituen ondoren.

Banda hau, garai hartan, oso gutxi ustiatuta zegoen, izan ere oztopo handi bat bazuen, hau da, etxeetan FM-ko hargailurik apenas zegoela. **Radio Popular de Loiolak**, oztopo hau gainditzeko, «entzuleen klub» bat sortu zuen, eta 4.800 bazkide edukitzera heldu zen. Hauxe gain, beste hainbeste familiak konpromisoa hartu zuten, konpromiso aktiboa hartu ere, FM-ko banda zeukaten hargailuak erosteko.

Irratiko langileek bere ere hainbat lan egin zuten FM-ko hargailuak eta behar zituzten antenak instalatzeko, emisoreak eta Irungo Askar-Philips etxeak izenpetutako akordio baten bidetik. Aipatu enpresa hori zen eskakizun tekniko eta legezko arau berriei egokitutako hargailu berriak fabrikatzen eta banatzen zituena.

### RADIO ARANAZ

Sortu ziren parroki irratiaren artean, atentzia ematen duen adibide bat, zeharo ezohiko ezaugarriak zituen-eta, **Esteban Irigoienek**, Arantzeta-Aranazko parroki izendatu berriak bere elizako sakristian 1964an instalatu zuen emisore txikia izan zen. Mugarri garrantzitsua izan zen zeren eta, besteak beste, Euskal Herriko eremu geografikoan emititzen zuten irratiaren artean bera izan baitzen, seguruenik, euskara normaltasun osoz erabili zuen lehena bere emisio guztietan, bere inguru demografikoaren parametro soziolinguistikoei zegokien moduan hain zuzen ere.

Egia da, hala ere, astean ordu gutxi batzuetan eskaintzen zuela bere programazioa, baina horietan, eguneroko arrosarioa edota igandeko meza eskaintzeaz gain, izaera sozial handiagoko beste zerbitzu batzuk eskaintzen zituen, esate baterako maila lokaleko albiste eta oharra, prentsako titularren irakurketa eta eskaintako kantuen espazioak; hauetan, eskaintza bakoitzak hamar pezetako kostua zuen, eta finantzaketa iturri txiki honen bidez aurre egin ziezaiokeen diskoak eta behar zituen beste ekipamendu tekniko batzuk erosi beharri. Are gehiago, partaidetzarako espazio bat ere sortzera iritsi zen, eta horretan Gerra Zibila nola garatu zen eta herrian zein ondorio izan zituen kontatzen zuten.

Erreportajeak ere emititu zituen, parrokoak berak egiten baitzituen, etorkizun bila inolaz ere herritik alde egin beharra zeukaten gazteen artean: nesken kasuan, esate baterako Baiona, Biarritz edo Donostiara neskame joan beharra zen nagusi, eta mutilen biderik normalena, berriz, Iratiko basoetan basomutil gisa jardutea zen.

Zenbaitek ez zuen oso begi onez ikusi Esteban Irigoienek parroki irratia komunikazio lana. Fraga Iribarnek, orduko Informazio eta Turismo ministroak, ekimena bertan behera laga zezan emandako ahozko hainbat oharren ondotik, behin betiko itxeko agindua eman zuen 1969an. Eta polizia batzuek bete zuten agindua, Iruñetik Aranatzat joan baitziñen horretarako, antenaren konexiorako kableak moztuz eta, ez oso modu ortodoxoan teknikari



Alberto Onaindia Zuloaga.  
Erref. «Muga», 16. zk. (1981).

begiratuta, kolpeka txikituz produkzio eta emisiorako material teknikoaren parte handi bat.

#### ■ PROGRAMAK

Sare nazionalarenak edo mugimenduarenak ez ziren irratien eremuan, 1939az geroztik diktaduraren gobernuak ezarritako moza informatiboak programatzailerak behartzen zituen entretenimenduaren arloa eta lagun gisako irratia ondo lantzerako, eta gero eta musika programa gehiago zegoen, produkzio fonografiko hazkor batean oinarritua bera; dena den, beti-beti zegoen zentsurak ezarritako muga hertsia gainditu beharra.

**Lehiaketak.** Ondorioz, bai maila lokaleko emisioetan bai kate

produkzioan, emisoreek zorrotz jokatu behar izan zuten, eta lehiaketak eta irradi-nobelak produzitzeari ekin zioten. Lehiaketen urrezko garaia izan zen, eta orduan etxe guztietako atek prest zeuden, parez pare zabalduta eta gaseosa-botilaren papertxo edo txokolate-tabletaren azala erakusteko, edota eskatzen zuten hitz klabea esateko, kontua baitzen inolaz ere ez galtzea egunero zozketatzen ziren sarietako bat. «*Se lo lleva o repite*», «*Ni sí, ni no*», «*Agudice su ingenio*», «*Haga usted lo que sepa*», hauek dira garai hartako uhinen bidez izugarri zabaldutako lehiaketako batzuen izenak.

**Antzerkia.** Irrati lokalen aktore taldeek antzerki obra asko jarri zituzten antenan, irratirako egokiturik —esate baterako «*Don Juan Tenorio*» ezaguna—, eta

irratirako berariak prestatutako literatur piezak ere bai, esate baterako Quintero anaiek Radio San Sebastiánentzat idatzitakoa, edota orduan emisoraren zuzendari *Felix Gamarrak* idatzitako ipuin unibertsalen sorta.

**Haurrentzakoak.** Eta, noski, haurrentzako obra asko. Irrati guztiek zeuzkaten bere maitagarri eta aztiak, eta bere gidoiak zuzenean interpretatzen zituzten gainera, haur pila bat zutela aurrean auditorietan bilduta. Garai honen amaieran, 70eko urteetan oso aurrera egin arte, *Paco Sagarzazuk* eta Radio Popular de San Sebastiánen lagun izan zituen profesionalak sortu edo egokitutako pertsonaia maitagarriak eta literatur obrak izan genituen.

Era berean, **kantu eskainien** programak oso arrakasta handia izan zuten. Esate baterako «*Club de Amigos*» (40 urte baino gehiagoko bidea egin zuen Radio Vitoriaren programazioan), «*Usted hace el programa*» edo Loiolako Herri Irratiaren «*Ezbeharrean zorion*» programak entzule pila handia bildu zuten.

Maila lokaleko programa hauei guztiei gehitu beharko litzaizkieke **irradi-nobela** handiak (*Ana Rosa*, *La sangre es roja*, etab.), Aireko Antzerkiak, eta Madril edoartzelontatik estatu osorako produzitzen zituzten show handiak (*Cabalgata Fin de Semana*, *El Show de Pepe Iglesias «el Zorro»*), SER eta Radio Nacional de España kate handietan edo REM eta CAR-en emisoraren bidez emititzen zituzten eta.

Ismael Fernández Pellicer. *La voz de Guipúzcoa*ren esataria, 1990.



## 24 orduak euskaraz



### Trantsizio politikoa

Irrati-estudioa 80ko urteetan.

**40, 50 ETA 60ko LEHEN URTEETAKO IRRATIAK** bere urrezko aroa ezagutu zuen, familia osoa irradi aparatua handiaren inguruan biltzen zuten lehiaketa, irradi-nobela, irradi-antzerki eta gaueko show handien eskutik. Maila lokalean, aktore taldeak oso garrantzitsuak izan ziren. Baina telebistaren sorrerarekin, neurri handi batean, entretenimendurako programak ikus-entzunezko baliabide berrirantz lerratu ziren. Irratia maldan behera abiatu zen, arinki, bere programazioaren ohiko lanabesetako batzuk galtzean, informazioaren esparruan ere hainbat muga bazituen eta.

#### TELEBISTAREN INPAKTUA

40, 50 eta 60ko lehen urteetako irratia bere urrezko aroa ezagutu zuen, familia osoa irradi aparatua handiaren inguruan biltzen zuten lehiaketa, irradi-nobela, irradi-antzerki eta gaueko show handien eskutik. Gogora dezagun, esate baterako, Radio Madriderik 1952an 60 aktore zituela, eta garai hartan egunean 8 irradi-nobela emititzera heldu zela. Beste hainbeste gertatzen zen Bartzelonan, Radio Barcelona edo Radio España bezalako irratien kasuan.

Maila lokalean ere oso garrantzitsuak izan ziren aktore taldeak, esate baterako Radio San Sebastiánek 50eko hamarkadan eduki zuena, tartean baitziren *Arturo Rey*, *Leopoldo Estellé*, *Juan Cuberta*, *Eli* eta *Pilar Bueno* ahizpak, *Vicente Oria* edota *Carmen Navajas* esatari aipagarriak.

Baina telebistaren sorrerarekin, neurri handi batean, entretenimendurako programak ikus-entzunezko baliabide berrirantz lerratu ziren. Irratia maldan behera abiatu zen, arinki, bere programazioaren ohiko lanabesetako batzuk galtzean, informazioaren esparruan ere hainbat muga bazituen eta.

#### KONTROLA ETA ZENTSURA

Nazio zein nazioarteko albisteak Radio Nacional de Españak berretzat zuen kontu bat zen.

Estatuko irradi-emisore guztiak Radio Nacional-ekin konektatu behar zuten 14:30 eta 22:00etan, ahozko informazioen, hau da, jendeak «parte» esaten zien haien zabalkunderako. Maila honetan, irradi pribatuaren gaineko kontrola erabatekoa zen, halako mailan ezen zentsuraren erakundeak aurkeztu egin behar izaten baitzizkieten programazio-parteeak, gidioak eta, batzuetan, Radio Popular de San

ez zedin. Era berean, Informazio eta Turismo Ministerioaren ordezkariak en bulegoetatik aldian-aldian igortzen zituzten galarazitako kantuen zerrendak, programatzaileek halako kanturen bat debekatuta zegoenik ez zekitelako esateko aitzakiarik izan ez zezaten. Donostiako Herri Irratian 1975eko irailean, Franco hil bezperan alegia, zegoen kantu debekatuen zerrendan, besteak

Egoera hartan, kolore bakarreko informazioa zegoela eta erakunde ofizialek ematen zutenaz aparteko inolako albisterik jasotzeko modurik ez zegoela, entzule askok eta askok kanpora begiratu zuten informazio bila. Horrenbestez, Londresko BBC-ren edo Radio France-ren albistegiak oso entzute handikoak ziren informazioa eskuratu nahi zuten euskaldunen artean. Era berean, **Euzkadi Irratiak** ere bere ekarpena egiten zuten Venezuelatik, egunean hainbat programa emitituz.

Beste emisore mitiko bat **Radio España Independiente** izan zen. *Radio Pirenaica* esaten zioten, eta Errumaniatik emititzen zuten, Espainian gertatzen ari zenari buruzko bere ikuspegia eskainiz.

Informazioarentzako uhin horiek eten egiten zuten albistegi ofizialen monotonia, baina oso zaila zen jende kopuru zabalei heltzea, zeren eta Uhin Motzeko emisio horiek sintonizatzeke egin behar zen ahaleginak arazoizko maila guztiak gainditzen zituen.

Zentsuraren aginduek eta zentsuraren jarduerak oso zorrotz jokatzera behartzen zituzten irradi publikoen kontrolpean ez zeuden irradi komertzialak gidoigile eta programatzaileak, eta zentsuraren mugei iskin egiteko moduak bilatu behar zituzten, informazio arloan bereziki. Entzuleei begira bere nortasun ezaugarriak garrantzitsuenetako bat «*Simplemente María*» [1974] bezalako irradi-nobelek izaten segitzen bazuten ere, SER Katea dagoeneko abiatuta zegoen gaurkotasunezko gaiez osaturiko programa batzuk eskaintzen 70eko



Sebastiáni noizbait gertatu zitzaion moduan, baita programak ere, emititu aurretik grabatuta.

Informazioari aplikatutako zentsurari musikari aplikatzen zitzaiona erantsi behar, inolaz ere. Garai hartan, emisoreetako diskoteketan disko kopuru handia aurki zitekeen, kantu batzuen azetatozko ildoak zorrotz eta gogorren batez zeharo markatuta zituztela, edota beste zerbaitekin egina zutela, hain zuzen kantu horiek eskaintzeko inolako aukerarik izan

beste eta adibide gisa, Julian Lekuonak kantatzen zuten «*Agur, agur, ilargira noa*» abestia zegoen.

#### IRRATI-ENTZULE «KLANDESTINOAK»

Radio Nacional de Españak informazioaren monopolioa zuelarik, Mugimenduari loturiko instituzioek kontrolatzen zituzten beste irratiek ez zuten errealitate soziopolitikoa islatzen zuten inolako informaziorik eskaintzen.

hamarkadaren hasieran, esaterako «*Matinal Cadena Ser*», eta «*Hora 25*»; hauetan, toki mailako informazioa babes gisa erabiliz, beste albiste mota bat ere eskaintzen zuten, zailtasun askorekin izan arren.

## ■ ESTILO BERRI BAT

**Donostiako Herri Irratian** «*Radio Reloj*» programa jarri zuten martxan, goizetan. Lehen orduko programa honen zuzendaria **Mariano Ferrer** zen, eta idatzizko prentsan jasotako albisteen eguneko errepasoa egiteko aitzakiarekin, beste informazio eta iruzkin batzuk tartekatzen zituen politika eta gizarte mailako gaurkotasuneko kontuen inguruan. Etengabeki erretorikarik zoliena erabiltzen zuelarik, isilune iradokitzaileak eta ironia fina lagun, Mariano Ferrerrek komunikazio estilo berritzaile eta zeharo pertsonala sortu zuen, garai oso bat markatuz euskal irratidifusioan; are gehiago, estilo horixe mantendu du irratian egindako ibilbide profesional osoan zehar, gaur egun arte.

1974 eta 1975 urteetan etengabe heldu ziren Donostiako Herri Irratiaren zuzendariari jarritako zehapenak, prentsa ez komentatzea exijitzen zioten eta, hain zuzen ere. Honen guztiaren azkena 1975ean etorri zen, irratia zuzendari **Juan Lekuona** kargutik kendu zutenean, hiru hilabeterako hasieran eta seirako gero; are gehiago, betiko kargugabetzea izateko bidean izan zen, zeren eta Franco hil ondoren ahanztura administratiboaren kutxan geratzeko arriskuan egon baitzen.

## ■ UDABERRI INFORMATIBOA

Francoren heriotzak, 1975eko azaroaren 20an gertatuak, trantsizioaren ateak zabaltu zituen, eta honekin batera euskal irratidifusioarentzako udaberrir informatibo berri bat iritsi zen. Artean urte pare bat itxaron behar izan zen, 1977ko urrira arte, Radio Nacionalek 1939az geroztiko lege-agindu batez zukan informazioaren monopolioa behin betiko hautsi eta egiaz desagertu zen arte; gogoratu behar dugu monopolio hark debekatu egiten zela irratik lokalei maila lokala gainditzeko zuten eta boterearen esparruan edo legez kanpoko oposizioaren jardura politikokoan sartzen zen informazio oro ematea.

Radio Nacional de Españaren parteekin derrigorrean konektatu beharra desagertu zenez geroztik, irratiek bere informazio departamentu eta zerbitzuak sortzeari eta garatzeari ekin zioten, uhinetara programa eta albistegi berriak igoriz.

**SER Kateak**, bere ohiko *Matinal Cadena SER* eta *Hora 25* haiez gain, *Antena del Norte* programa erantsi zion bere programazio

lokalari, arratsaldeko ordu bietan, *Hora 14*, berriz, ordu bi eta erdietan, eta *Hora 20* arratsaldeko zortzietan. Bitxia bada ere, SER Kateak bere informatibo baten bidez bete zuen, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Radio Nacionalek utzitako hutsunea, honek ordu erdi aurreratu zuelarik bere albistegia, 38 urtetan zehar derri gorrean konektatu beharreko hura alegia.

emititzen zuten, baina beste herri irratien kolaborazioak ere jasotzen zituen. Horrenbestez, handik gutxira albistegi osagarri baten beharra planteatu zen, arratsalderako, eta **Euskadin Gaur** izenpean egiten hasi ziren **Bilboko Herri Irratitik**; honen zuzendari eta aurkezleak **Juan Jose Romano** eta **Arantza Lezamiz** izan ziren.

Informazio zerbitzuen garapena eta honek berekin ekarri zituen

informatzaileak hartuz, aldiz, lanerako.

## ■ ESATARIARENGANDIK INFORMATZAILEAGANA

Era berean aldatzen hasi zen *esatari* kontzeptua. Garai bateko esatari haiek protagonismoa galtzen hasi ziren, eta desagertzen, edota rol profesionala aldatzen bestela, *kazetari-informatzaileak* zuzenean iristen ari ziren bitartean mikrofonora, beraiek produzitzen eta erredaktatzen zituzten albisteak eskaintzeko.

Hau guztia asko antzemango zen profesionalen ahotsean. Radio Nacional de Españaren eta beste irratidifusio batzuen esatari haiei ahots inperialak pisua galduz joango ziren, antenan zeukaten presentziari dagokionez, eta tokia utziko zieten, berriz, albistetik eta hedabidearen berehalakotasunetik hurbilago zuden beste profesional batzuei. Eta bide honetan, ezinbestean, irratiko ahotsen batez besteko kalitateak behera egin zuen, nahiz informazioaren kalitateak, berehalakotasunak eta errealitate soziopolitikoarekiko hurbiltasunak gora egin zuten.

## ■ MOSAIKO PROGRAMAZIOTIK GAURKOTASUNEN MAGAZINERA

Garai honetan, emisoreak mosaiko programazio deitua utziz joan ziren. Programazio honetan halako saio motz batzuk izaten ziren emisio osoan zehar banatuta. Mosaiko honen ondotik, edukiontzi programa edo gaurkotasuneko magazin handiak etorri ziren, elkarrizketa, erreportaje eta lehiaketaz horniturik eta oso pertsona ezaguna eta entzuleentzako erakargarria izaten zutelarik gidari.

Hauxe dugu Luis del Olmo, Iñaki Gabilondo, Jose Maria Garcia eta beste zenbait komunikatzaile protagonismo berezia bereganatzen joan ziren garaia. Pertsona ezagun hauek tokia kendu zieten beste batzuek idazten zutena irakurtzeko eginkizuna zuten ahots askotan anonimo haiei. Formatu berri hauek agertzen eta gaiak entzuleen eguneroko errealitateko oso hurbil egotean, irratiek irabazi egin zuten, bai sinesgarritasunean bai gizarte eraginean.

Kirol informazioak ere oso garrantzi handia hartu zuen garai hartako euskal irratietan. SER edo COPEren emisore zentraletatik iristen ziren kirol informazioaren arloko espazio handien aurrean, maila lokalean ere gero eta garrantzitsuagoak izango ziren bertako kirol espazioak, hala nola **Donostiako Herri Irratiaren** «*La movida deportiva*» Tito Irazustarekin, futbol emanaldiak (**Joséan Alkorta**, **Manolo Fraile**, **Jose Irigorri**), txirrindularitzakoak (**Rafa Olarra**, **Tito Irazusta**), eta estropadei, saskibaloari, pilotari, herri kirolei, are zaldi lasterketei eskainiak ere.



*Irratia gizarte, politika zein erlijio arloko gertakizun guztietan ageri zaigu.*

Euskal irratidifusioaren komunikazio esparruan, aldiz, **Radio Popular-Herri Irratiak** mugarri bat ezarri zuen *Informativo de la Una* programa [13:00] abian jarri zuelarik. Honen zuzendari eta aurkezlea Jose Ramon Beloki zen, eta Donostiako Herri Irratiaren estudioetan produzitu eta bertatik

ustiapen gastuak irratidifusio handietako aktore taldeen kaltean izan ziren. Hala eta guztiz ere, 1976tik aurrera emititu zen irratidifusio arakastatsuenetako bat, «*Saga de Los Porretas*» dibe tigarri hura hain justu, SER Katean. Baina pitinka-pitinka emisore handiek utzi egin zituzten aktore taldeak, kazetari

■ MUSIKA PROGRAMAK

Osterantz ean, Frekuentzia Modulatuako emisoreak, FM-ak, garatuz joan ziren, batez ere musika programak ematen zituztela.

Ildo honetatik, SER Katearen FM-ak azpimarra ditzakegu, zeren eta «*Los 40 principales*» irrati-formula eskaintzeaz gain, maila lokaleko beste programa batzuk ere emititzen hasi ziren, esate baterako «*Salsa Picante*» **Radio San Sebastián** FM-an, *Juan Pedro Calvo* eta *Pedro Martín* en eskutik.

**Gipuzkoako Herri Irratian**, *Gregorio Gálvez* ek *Club 44* eskaintzen zuen gaueko 11etan, musika desberdina eskainiz; eta mikrofonoak entzuleei zabalduz, bakoitzak bere musika aukeratu eta aurkeztu ahal izan zezan, *Rafa Briz*-ek «*Populandia*» espazioa zeukan.

**Radiocadenaren** 2. kanalak programa askotarikoak eskaintzen zituen, bere uhin ertainekoen alternatiboak, harik eta *oldie* musikari eskainitako «*Compás*» irrati-formula emititzen hasi ziren arte.

Bestetik, **Radio Nacionalen** hitugarr en programak formula berri eta iraultzaile bat jarri zuen abian, gazte jendeari begira. Emisioaren izena «*Radio 3*» izan zen, eta gauean izaten zen, 21:00etatik aurrera.

■ EUSKARA UHINETAN

Diktaturaren azken urteetan eta Trantsizioaren lehenetan alor soziopolitiko eta informatiboa bizitasun berezikoak izan ziren bezalaxe, azpimarratu beharrekoa da, inondik ere, euskal irrati-difusioari dagokionez behintzat, herri irratiek euskal hizkuntza eta kulturaren alde egindako lana.

**Bilboko Herri Irratiak** euskarazko emisioak jarri zituen martxan 1973ko urrian, halaz estreinako pausoak emanez luzera **Bizkaia Irratiaren** programazio ildo oso bat izango zena itxuratzeko.

Ikastola sortu berrietako eskolaratze munduarekin baterako euskararen aldeko herri errebindikazioak, helduak euskalduntzeko ekimenek, Euskaltzaindiak hizkuntzaren batasunerako bidean emandako lehenbiziko urrats sendoek eta sormenezko beste hainbat kultur adierazpenek ere bere isla izan zuten euskarazko hedabide propioak izateko gizate exigentzia eman zedin.

*Jose Ramon Beloki* ren ekimenez, **Donostia eta Loiolako Herri Irrati** etako giza talde osoak 24 orduko euskarazko programazio bat jarri zuen martxan, etenik gabe, «*24 orduak euskaraz*» izeneko ekitaldian, 1976ko martxoaren 27an.

Handik hilabete gutxira, 1977ko ekainaren 11n, **Loiolako Herri Irratiaren** Itxumendiko emisio zentroak atentatu bat jasan zuen, bomba bat jarri zioten eta; orduan Batallón Vasco-Español delakoak hartu zuen bere gain ekintzaren ardura.

Bilbo, Loiola eta Donostiako herri irratiek euskal hizkuntza eta kulturaren sustapenarekin



Jose Ramon Beloki ren ekimenez, Donostiako eta Loiolako Herri Irrati giza talde osoak 24 orduko euskarazko programazioa jarri zuen antenan, etenik gabe, «*24 orduak euskaraz*» izenaren pean, 1976ko martxoaren 27an. Handik hilabete gutxira, 1977ko ekainaren 11n, Loiolako Herri Irratiaren Itxumendiko emisio-zentroak atentatu bat jasan zuen, bomba bat jarri zioten eta. Orduan, Batallón Vasco-Español deituak hartu zuen bere gain ekintzaren ardura.



zuzenean lotutako programazio produktuak antenan jartzeko garatutako ekimenek bat egin zuten, denboran, COPE Katearen zentralizatze politikarekin; honek berekin zekarren, inolaz ere, autonomia editorial eta programatikoa galtzeko arriskua. Arazo honek ez zuen hainbesteko eraginik izan Iruñeko Herri Irratian, baina 1978an milaka pertsona bildu zituen Donostian, manifestazio batean; izan ere, ekitaldi honetan bat egin zuten bi errebindikazioek, hau da, hedabide propioen eskariak, zentralizazioaren aurka alegia, eta euskarazko hedabideen eskariak,

euskal hizkuntza eta kulturaren sustapenaren bidean aurrera egitearren.

■ IPARRALDEKO EGOERA

Orain aipamen labur bat egingo dugu 1978an **Loiolako Herri Irratiaren** inguruan azaleratu zen ekimen bati buruz, Ipar Euskal Herriako irrati programa espezifikoei lotuta baitago.

telebista programen zabalkunde eta produkzioak ORTF [Office de Radiodifusión 'Televisión Française'] erakundearen monopolio zeharo zentralizatua izaten jarraitu zuen.

Alabaina, Frantzia inguratzen duten estatu txikietatik emititzen hasi ziren beste hainbat irrati, esate baterako Radio Andorra eta Radio Luxemburg, frantziar entzuleriari zuzenduta. Irrati hauen arrakasta ikusirik, Frantziak emisore-sare periferiko eta paraestatal bat sortzea erabaki zuen. Horrela sortu zen **SOFIRAD**, *Radio Montecarlo*, *Radio Europe 1* eta *Sud Radio* biltzen zituen erakundea; eta honek, aipatu besteekin batera, entzuleriaren multzo handi bat bildu zuen, frantziar publizitate inbertsioaren bolumen garrantzitsuarekin batera.

Gauzak horrela, Ipar Euskal Herriak ere askotxo itxaron behar izan zuen, bere irrati espezifikoak edukitzeko garaia heldu arte. Dagoeneko 60ko urteetan, **Radio San Sebastián** Uhin ertainean emititzen zuen, goizeko 6etan, ordu eta erdiko programa bat, *Radio Océan* izenaz, *Jean Bonis*-ek zuzendu eta aurkeztua, baina SER Katearen programazioaren etengabeko handitzeak programaren desagerpena eragin zuen azkenean.


Geroago, 80ko lehen urteetan jada, Radio San Sebastián FM-ak frantseseko ordubeteko programazioa berreskuratu zuen, egunean, *Sonya Kefir*-en zuzendaritzapean.

1978an, frantziar irrati-difusioaren zerbitzuak aipatu egoeran zeudela, *Alexander de la Cerdá* kazetaria aztertzen ari zen Iparralderako irrati espezifiko bat sortzeko ideia, baina frantziar arautegi zorrotzak galarazi egiten zuen frantziar lurraldetik beretik emititzea. Horregatik, beharbada irrati periferikoan arrakasta gogoan eta ongi ezagutzen zituela Radio San Sebastiánetik garatutako esperientziak, **Loiolako Herri Irratiaren** bidez emititzeko ideia otu zitzaion; izan ere estaldura oneko emisorea zen, eta bikain entzuten zena gainera beste aldean. Halaz, *Radio Adour-Navarre* izenaz egunean bi programa emititzen hasi ziren, goizeko 7etan lehena eta arratsaldeko 6etan bigarrena, ordu erdikoa bakoitza. Programazioan, funtsean, zuzenean egindako informatibo bat eta ondoren kirol, elkarriketa eta musika programak izaten ziren, Baionako estudioetan grabatuak azken hauek, gero Loiolatik emititzeko. Emisoreak frantsesa eta euskara erabili zituen, bata zein bestea, bere emisioetan.

Geroago, irrati-difusioaren monopolioari porrota iritsi zitzaionean, Ziburun kokatutako emisore batetik hasi ziren zuzenean emititzen, eta **Radio Adour-Navarre** Frantziako lehenbiziko irrati libreetatik bat izan zen. RTL talde luxemburgar indartsuak erosi zuen emisore hau 1981ean, eta kate honen emisore lokal bat izatera igaro zen.



heuk  
 heu  
 NI NI BU DEU DEUK...  
 NI NI  
 neu  
 neuk  
 HAZABAL



Arza anaiak  
 Jean Michel Bedaxagar  
 Lurdes Iriondo  
 Gorka Knör  
 Mikel Laboa  
 Laja-Iturbide  
 Benito Lertxundi  
 Xabier Lete  
 Lupe  
 Gontzal Mendibil  
 Baztango Mutildantza  
 Oskarbi  
 Peio eta Pantxoa  
 Sakabi-Egañazpi  
 Iturengo Ttuntturroak


**24 orduak**  
**euskaraz**

**27 Martxoa 1976/Arratseko 9-etan**  
**PALACIO MUNICIPAL DE DEPORTES**

**JAIALDIA**  
**DONOSTIAN**

**ANTOLATZAILE/DONOSTIA ETA LOIOLAKO HERRI IRRATIAK ELKARTEEN LAGUNTZAZ**

# 80KO URTEAK ETA MILURTEKOAREN AMAIERA



90eko hamarraldiko irrati-estudio bat.

## 80KO HAMARRALDIAN FM IRRATIAREN BOOM IZUGARRIA ETA GARAPENA GERTATU ZEN.

Banda hori bereziki musika-programetara xedatu zen, *Loiola Herri Irratia* bezalako irratietan salbu. Izan ere, irrati hori goiz goizetik saiatu zen FM ohiko irrati gisa ezagutarazten. Baina, orokorrean, irrati-espektroa FMn irekitzeak, emisio-lizentzia berriak emateak, eta irrati-jarduera ezagutarazteak, eduko «oso» edo ohikoa zuten FM kateak sortzea eragin zuen, programazio-formatuen aukera, sustatzeko argudio nagusi izan zen horren, hots, estereoko musika emisioen, haraindian zabalduz.

### ■ FMREN BOOMA

#### ● OHIKO PROGRAMAZIOAK

80ko hamarraldian Frekuentzia-modulazioaren *boom* izugarria eta garapena gertatu zen. Banda hori bereziki programa musikaletara xedatu zen, **Loiola Herri Irratia** bezalako irratiak salbu. Izan ere, Loiola Herri Irratia goiz goizetik hasi zen, 1965eko uztailearen eta 1966ko uztaile bitartean 1964ko Uhin Ertainen Dekretuaren eraginez itxiera tekniko bat jasan ondoren, FM ohiko irrati gisa ezagutaraztearen alde borrokatuz. Herri Irratia beti saiatu zen Frekuentzia-modulazioan ohiko programa-formatuak eskaintzen, batez ere **Donostiako Herri Irratiarekin** batu zenetik. Bi irrati horiek programazio-orduak konpartitzen zituzten, batez ere informazioko programak.

#### ● MUSIKA ESTEREOAN

Baina, orokorrean, irrati-espektroa FMn irekitzeak, emisio-lizentzia berriak emateak, eta irrati-jarduera ezagutarazteak, eduko «oso» edo ohikoa zuten FM kateak sortzea eragin zuen, programazio-formatuen aukera, sustatzeko argudio nagusi izan zen horren, hots, estereoko musika emisioen, haraindian zabalduz.



Horrela sortu zen *Antena 3*, *Cadena SER* eta *Radio 80* ahalguztidunak gainditzeko unera iritsi arte.

### ■ EUSKAL IRRATIAREN ETA PRENTSAREN LINEA

1979 eta 1980 euskal irrati-hedakuntzaren panoraman inflexio-urte garrantzitsuak izan ziren.

Lehenik eta behin, **Gernikako Estatutua** onartzeak komunikabide publiko batzuen etorkizuneko garapenerako oinarriak ezarri zituen, 19. artikuluan ezartzen zena garazetik abiatuz:

#### 19. artikulua

1. Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarriko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.
2. Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dagokionez, goiko paragrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatuarenakin koordinatuko da.
3. Artikulu honetako lehen paragrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta

atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

Une horretatik aurrera, euskarazko komunikabideak –irratia, prentsa eta telebista– sortzearen aldeko herri-aldarrikapena prentsa idatzi sortu-berri baten agerpenarekin berretsi zen. Prentsa horrek izaera nazionalista zuen, DEIA eta EGINek nagusiki. Aldarrikapen hori, bestalde, etorkizuneko irrati eta telebista euskaldunarentzako profesionalak trebatzeko eta gaitzeko egiturak eta jarduerak sortzeko erabakiarekin ere berretsi zen. Erabaki hori *Ramon Labaien* jaunak (EAJ) zuzentzen zuen Kultura Sailaren bidez hartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

### ● EUSKARAZKO PROGRAMAK

Ekintza horiekin batera, ezarrita zeuden irratiei programazioko zenbait ordutan euskaraz emititzeko aukera emateko erabakia etorri zen. Irrati horiei, euskaraz emititzeagatik, antenan jartzeak suposatzen zuen esfortzua arintzeko laguntza ekonomikoak ematen zitzaizkien. Ekimen horiei esker, irrati eta telebistako aurkezle gisa eta bikoizketa-aktore gisa trebatzeko gela sortu-berrietan trebatu ziren hizketa-erik praktika errealak izan zituzten mikrofonoaren aurrean. Gainera, horietako askok horrela ekin zioten beren ibilbide profesionalari.

Bide horretatik, *Donostiako Herri Irratia*, *Radio San Sebastián* *Cadena SER irrati FM*, *Espainiako Irrati-kateko La Voz de Guipúzcoa* eta beste euskal irrati asko zenbait ordutan berriaz euskaraz emititzeko abenturan murgildu ziren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Foru Aldundien babes finantzarioarekin.

Zuen intentsitatea dela eta *Donostiako Herri Irratiko «Sei orduak euskaraz»* programa nabarmendu zen. Programa hori astelehenetik ostiralera emititzen zen, arratsaldeko seietatik gauerdira, 1980 eta 1982 bitartean. Euskal irrati-panoraman ospetsuak diren profesional euskaldun askok euskal irrati publikoaren ekimen aitzindari horietan eman zituzten beren lehenengo pausoak.

Bide beretik baita ere, *Bilboko Herri Irratia* 1973an hasitako bidea indartzen joan zen. Geroz eta euskarazko eduki gehiago barne hartzen joan zen, eta, *Bizkaia Irratiaren* bidez, aurrerago euskaraz bakarrik igortzen zuen programazio-ildo bat sortzea ahalbidetuko zuen profesional-talde bat eratu zuen.



### ■ EUSKAL IRRATI ETA TELEBISTA. EITB

Euskarazko irrati-programazioko orduak sustatu zituzten ekintzen bultzada abiarazi eta handik bi urtera, 1982ko maiatzaren 20an, Carlos Garaikoetxea buru zuen Eusko Jaurlaritzaren ekimenez, Eusko Legebiltzarrak *Euskal Irrati eta Telebistaren Erakunde Publikoa, EITB, S.A.* Sortzeko Legea onartu zuen. Lege horrek irrati eta telebista publikoko zerbitzuak bete behar zituzten oinarriko printzipioak zehazten zituen. Horrela zioen hirugarren artikuluan:

#### 3. artikulua

Autonomia-Elkar tearen jabetzapeko gizarte-adierazpideen ihardunak honako oinarri-irizpide hauek izango ditu:

- Berri-emankizunetan gauzak diren bezala ikustea, egitasuna eta alderdikeriarik eza.
- Berri-emankizunaren eta iritzieren arteko zehazketa eta bereizketa, azken honek adierazten dutenak nor diren hertsiki eskatuz. Merkataritzari buruzko berri-emankizunak erabilera zehatz eta berezi bera eskatuko du hertsiki.
- Berdintasun-arauarekiko, politika, erlijio, gizarte, kultura eta linguistika-aniztasunak ekiko begirunea.
- Orotariko interesaren alde, Autonomia-Estatutuan eta Konstituzioan onartutako elkarbizitzaren herri-balioen aldezen eta sustapena.
- Konstituzioak eta Autonomia-Estatutuak onartzen dituen eskubideekiko begirunea.
- Pertsona ohorearekiko, izen onarekiko begirunea eta, bereziki, urkotasun eta berriazko irudirako eskubidearekiko.
- Gazteriaren eta haurtzararen babesa.
- Kulturaren eta euskararen sustapena, euskara erabiltzearen xedetarako, oinarriko egitarau-arauak ezarri, orotariko eskaintza mailan Elkarte Autonomiadunean euskaraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik.

### EUSKADI IRRATIA

Legea abiarazi eta garatzearekin batera, 1982ko azaroaren 23an, **Euskadi Irratiak** bere emisioak ofizializatu zituen.

1983. urteko martxoaren 31n berdina egin zuen **Radio Euskadik**, eta, handik gutxira, **Radio Vitoriak**. Azken irrati hori Eusko Jaurlaritzak eskuratu zuen

Legea onartu aurretik, 1981 amaiera aldean. Ondoren oso osorik integratu zen Erakunde Publikoaren, EITBren, irrati-taldean, urtetan zehar SER katera lotu zuen konpromisoa behin betiko bertan behera utziz.

#### ELISKADI GAZTEA

Zenbait urte beranduago, 1990eko martxoaren 21ean, **Euskadi Gaztea** abiarazi zen. Taldeko irrati-formula musikal gazteak hasiera batean paraleloan igortzen zuen euskaraz nahiz gazteleraz, baina 1994an euskarazko irrati musikal baten eskaintza eta aukera bakarrean fusionatu ziren.

1990ean, Euskadi Gaztea abiarazi izanarekin batera, SER kateak Espainiako Estatu osora zabaldu zuen *top* formulak, Los 40 Principales irratiak, gorantz egin zuen. Irrati horrek, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Euskadiko hiriburu bakoitzerako FM frekuentzia bana esleitzea lortu zuen.

#### ■ BESTE IRRATIAK

Euskal irrati publikoaren, hots, Eusko Irratia SAren lehenengo

antena instalatu zirenetik, 80ko hamarraldiko lehenengo urteetatik, marka berriak ezagutzera eman ziren euskal irrati-espektroaren dialean.

**Radio Miramar** bezalako irratiak, ondoren **Cadena 100** irratiaren bilakatuko zena; **Onda Ceo**, **ONCEk** sortua; **Nerbioi Irratia** eta **Gorbeia Irratia**, musika oso herrikoia zuten irratiak; eta, noski, irrati *piratak*

–frekuentzia erabiltzeko emakida administratiborik gabe zeudenak dialean–, emisio-lizentzien zain zeudenak, bereziki Bilboko hirigunean; eta baita *libre* izenekoak ere, izaera lokala zutenak eta programazio alternatiboa, gehienetan euskaraz, emititzen zutenak. zutenak.

Hori zen **Hala Bedi** irratiaren kasua. Gasteizko irrati paradigmaticoena zen. Izan ere, **Hala Bedi** irratiak zenbait arazo izan zituen hasieran, baina 1984. urtean ekin zion emititzeari, ia etenik gabe igorri eta programazio-formula egonkorrekin XXI. mendea hasi eta harantzago.

Horiek guztiak irrati Espainiako Estatuan bizitzen ari zen hedakuntza eta ezarpen sozialaren

isla besterik ez ziren; sektorearentzat, horrek, diktaduraren amaieraren hasiera suposatu zuen, 1975eko azaroaren 20an Franco hil ondoren eta Trantsizio Politikoak egunez egun sortzen zuten informazio-tentsioa zela eta.

**Gertaera ahaztezin bat** izan zen, dudarik gabe, 1981eko otsailaren 23ko *transistoreen gaua*. Izan ere, Madrilgo Diputatuen Kongresua Teniente Koronel Tejeroren buruzagitza zuten Guardia Zibilek unitateek okupatu zuten, eta horrekin porrot egin zuen estatu-kolpe bat eragin nahi izan zuten.

#### ■ ALBISTEGIEN ESPEZIALIZAZIOA

Zentzu horretan, 80ko eta 90eko hamarraldiak ohiko irratiaren espezializazio informatiboko urteak izan ziren, bai Uhin Ertainean eta baita Frekuentzia-modulazioan ere. Kirol ekitaldiei buruzko informazioaz gain (gai horretan jadanik bazegoen tradizio luze eta sendo bat), beste

informazio-errealitate batzuk irratiak kalera ateratzea, berehalakotasuna bilatzera, gertutasuna zaintzera eta iritziak kontuan hartzea eragiten zuten.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, batez ere irrati publikoak, **Radio Euskadi**, **Radio Vitoria** eta **Euskadi Irratia** batez ere, eta neurri txikiagoan **Herri Irratiak** eta **Egin Irratia** bezalako herri-irratiak, 1998an desagertu ziren arte, eta baita **SER Euskadi** eta **Nafarroako** lurralde-egiturak, **Grupo Correo** taldearen irratiak, eta **RNEko** eskualdeko deskonexioak ere, bakoitzak dituen bitarteko-eskuragarritasunarekin eta programazio-autonomia ahalmenarekin, euskal dialaren komunikazio-errealitatea eratuz joan ziren informazioaren bidez.

XXI. mendera iragatean, irrati informatiboaren ikuspuntutik irmoki finkatuta zegoen errealitatea Radio Euskadi eta Euskadi Irratiak osatzen zuten. Irrati horiek eragin handiagoga zuten Euskal Autonomia Erkidegoan, baina, aldi berean, Nafarroa eta Iparralderako ere proiektio garrantzitsu bat zuten.



euskadigaztea

# GIPUZKOA OSOA GURE UHINETAN



## URTEETAN EUSKAL HERRIA GURE UHINETAN

**Herri  Irratia**  
**RADIO POPULAR**

<b>DONOSTIA</b>	<b>LOIOLA</b>
Garibai, 19	20730 AZPEITIA
20004 DONOSTIA	Gipuzkoa
Tel. 943 423 644	Tel. 943 814 458
Fax 943 429 567	Fax 943 150 354

E-mail: [publi@herri-irratia.com](mailto:publi@herri-irratia.com)  
[www.herri-irratia.com](http://www.herri-irratia.com)

*40. urteurrena*

## ■ MUSIKA-KATEAK

XX. mendeko azken bi hamarraldietan irratiaren mundua animatu zuen faktoreetako bat musika-kateen arrakasta izan zen.

*Los 40 Principales* programa, lau hiriburuetak bakoitzean irrati banaekin, *Kiss FM*, *Onda Cero Música*, *Euskadi Gaztea*, euskaraz bakar-bakarrik 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera, *Nerbioi Irratia* eta *Gorbeia Irratia*, *EITB irratia*, *Radio 3* eta *Radio 2*, musika klasikokoa, *Cadena 100*, *Europa FM*, *Fórmula Hit* eta beste irratiak, horietako batzuk gehienbat musika-programazioarekin.

Beste irrati batzuk programazio mistoa zuten, informazioa eta musika tartekatuz [*Arrate Irratia*, *Segura Irratia*, *Euskal Irratiak*, *Xorroxin Irratia* eta beste irrati pirata eta librea asko], eta irratiaren diala imajinatu zitekeen azoka musikal zabalena bilakatu zuten. Hori esponentzialki hazi zen, satelite bidezko kanalak eta Interneteko musika-irratien hazkuntza etxe guztietara iristen ziren heinean.

## ■ EUSKARAZ BAKAR-BAKARRIK

Aipu berezia merezi dute, aukera estrategiko eta programazio-aukera gisa, euskararen erabilera normalizatuaren eta eskusiboaren aldeko apustua egin zuten irratiak, *EITB*, *Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztea* irrati publikoak sortzeak suposatu zuenaren haraindian.

**Arrate Irratia.** Hori da **Arrate Irratiaren** kasua, jardunik gabeko epe luze baten ondoren, 1982an berriro ekin zion jardunari **Bernardo Ibarren** zuzendaritzapean.

Arrate Irratiaren esperientzia asko nabarmendu zen baita ere ekonomikoki kudeatzeko zuen metodoa zela eta. Izan ere, publizitateagatiko finantzazioaz gain, beste irratiak arestian esperimentatu zutena mantendu zuen: «entzulearen elkar tea». Urtero egiten zuten ekarpen ekonomikoarekin finantzazio-gastuen zati bat ordaintzen zen.

## ■ IPARRALDEAN

Urte bere horretan, 1982an, Frantziako gobernu sozialistak, François Mitterrand buru zuela, irrati libreak edo elkarte-irradiak sortzea onartu zuen. Frantziako irrati publikoaren monopolioa hausteak Frantziako Estatuak irrati libreak sortzeko mugimendu zabal bat eragin zuen. Horrela, Iparraldean ere euskarazko irrati-hedakuntzarako hiru irrati-ekimen garrantzitsu sortu ziren.

**Irulegi Irratia**, Irulegin [Nafarroa Beherea], **Xiberoko Boza**, Maulen

[Zuberoa] eta **Gure Irratia**, Baionan [Lapudi].

Hiruak, Frantziako legedian elkarte-irradi gisa katalogatuta dauden irratiak, berezko programazio-eskaintza gisa finkatzen joan ziren. Baina, aldi berean, esfortzuak eta lana batzeko beharra ikusirik, 90eko hamarraldiaen bukaeran programazio bateratuko ekimenak sustatu ziren, **Euskal Irratiak** epigrafearen menpe.

Era berean, *Arrosa proiektuaren* sustatzaileak ziren, proiektu komun zabalgoranzko loturak sortzeko helburuarekin. Proiektu horrek egoitza Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta

Iparraldeko irrati lokalen espektro zabal baten arteko irrati-jarduera integratzaile bat sortzeko xedea du. Bestalde, *Gure Irratia* irratiak Hendaian **Antxeta Irratia** izenarekin deskonexio lokalak dituen ordezkartiza bat sortu zuen. Horrela, bere emisioak eta programazioa Hendaia, Hondarribi, Irun eta ingurutako hiriguneetarantz enfokatzen saiatu zen.

## ■ NAFARROAN

Jarduketa-ildo berean, euskaraz bakarrik igorri, Baztango Bailarako **Xoxorri Irratia** (1985) eta Iruñako **Euskal Herria Irratia** irratiak sortu ziren. Azken hori 1884. urtean sortu zen, Iruñako

Komunikabideak SA elkarteko 50 kideen ekimenez. Hasiera-hasieratik, berezko produkzioa edo beste irratiak elkarlanean gauzatutako produkzioa eta Euskadi Irratiak Iruñarako eta ingururako igortzen zuten seinalea konbinatu zituen.

Bi irratiak, Euskal Herria Irratiak nahiz Xoxorri Irratiak, Nafarroako Foru Gobernuak ematen zituen FM frekuentziak lortu nahi izan zituzten. *Xoxorri Irratiak* 1998an lortu zuen emakida, Lesakara esleitutako frekuentzia bat bazen ere, eta ez irrati kokatuta zegoeneko lekura esleitutakoa. Bestalde, *Euskal Herria Irratia*, iragarpen ororen aurka, 1998ko esleipenetatik kanpo geratu zen. Administrazioaren erabakia errekurritu zuen, baina, azkenean, 1984an sortu zenetik okupatzen zuten frekuentzia ustiatzeko baimenik gabe geratu zen.

## ■ IRRATI-ESPEKTROA

Euskal Autonomia Erkidegoko irrati-espektroa okupatzeari dagokionez, gogoratu behar da Administrazio Zentralaren azaroaren 11ko 240/1986 Dekretuak ezartzen zuela Soinu Irratia Frekuentzia-modulazioan igortzeko frekuentziak esleitzeko prozedura. Dekretu horren 3. atalean zehazten da emakidak 10 urtetarako emango direla. Emakida horiek luzatu egin ahal izango dira, esleipendunek horrela eskatuko balute, eta Administrazioak onartu beharko luke. Frekuentzia horiek esleitzea eta balizko luzapena gauzatzea Administrazio Autonomikoen eskumena da.

Zentzu horretan, Eusko Jaurlearitzako Kultura Sailak, 1987ko eta 1989ko emakida-przesuen bidez, 1992an gauzatu zen behin betiko ebazpenaren bidez, 36 frekuentzia eman ziren. Frekuentzia horien artean, Estatu Espainiarrean irrati-hedakuntzaren hastapenetatik historikoak ziren 6 emakida barne hartzen ziren.

Euskal Autonomia Erkidegoko dialaren irrati-panorama EITBko irrati guztientzako planifikatutako 55 frekuentziekin, programazio-ildo desberdinetako Espainiako Irrati Nazionalaren 40 frekuentziekin, eta Bizkaia eta Gipuzkoa artean banatutako 6 udal irratiarekin osatzen zen.

Zifra horiek 1992ko emakiden errealitateari erantzuten zieten. Panorama erreala, 2002 urtean, oso desberdina zen. Irrati publikoek, autonomikoek nahiz estatalek, frekuentzia gehiago zituzten; eta udal irratiak eskaintako espektroa, 107,0 eta 107,9 arteko bandan, irrati ilegalek, irrati libreak eta beste irrati seinale asko okupatzen joan ziren, modu gutxi gorabehera jarraituan eta egonkorrean. [Ikus 01 taula]



Udal irratiei dagokienez, irradi *libre* mugimenduarekin gertatu zenaren eta Katalunia edo Andaluzia bezalako Autonomia Erkidegoek zehaztu zuten joeraren aurka, Udal oso gutxi, Nafarroan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan, hautatu zuten irradi lokalak ustiatzeko bide hori.

Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoren 1994ko martxoaren 22ko emakida-erregimenak, Udal Erakundeentzat frekuentzia-modulazioko uhin metrikoetako irradi-hedakuntzako zerbitzu publikoari buruzkoak, ez zuten arrakasta handirik izan.

Igortzen zen itxurazko potentziaren arabera, hiru igorgailu-mota desberdin zehaztu ziren, A, B eta C izenekoak. 500 W-ko itxurazko potentzia igorria (50.000 biztanletik goragoko hirietarako), 150 W-ko itxurazko potentzia igorria (10.000 eta 50.000 bitarteko biztanle-kopurua duten hirietan), eta 50 W-ko itxurazko potentzia igorria (10.000 biztanle baino gutxiagoko herriak) dituzte.

Hizkuntza-politikaren ikuspegitik, horiek guztiak EUSTATEk argitaratutako urtekari

estatistikoaren arabera udalerrri bakoitzarentzat atera litezkeen portzentajeetara doitu behar ziren minimo batzuk bete behar zituzten. Horrela, gazteei eta alfabetizazio- nahiz eskalduntze-programetara zuzendutako ekintza positiboa lehenesten zen.

#### ● FMKO DIALA

80ko hamarraldiko bigarren erditik aurrera, irradi *libre* izeneko horiek antenara irteteko esperientzia horien agerpenarekin, FMko diala aurkako norabidean dinamizatu zen.

Irrati-frekuentziak ustiatzeko baimenak Udal gutxiak eskatu zituzten bitartean, mota orotako kolektiboak programazio alternatiboko proposamenak egiten joan ziren. Proposamen horiek, lotura administratiborik gabeak ziren, kasu gehienetan baliabide tekniko eskasekin, eta orientazio ideologiko edo politiko oso zehatzekin batzutan, eta aldarrikapen oso zehatzekin bestetan.

#### ● IRRATI DIGITALA

903ko hamarraldiaren amaieran, satelite bidezko emisioak hasi ziren, eta irradi-ekoizpenaren tratamendu digitala sartu zen. Soinuaren kudeaketa digitalak ahotsezko nahiz musikazko soinu-dokumentuak grabatzeko, editatzeko, biltegitratzeko eta berreskuratzeko lanak sinplifikatu egin zituen, irradi-espazioaren erabilgarritasunaren haraindian irratia sortzea ahalbidetuz.

Informatika, digitalizazio eta telekomunikazioen arteko konfluentziak baldintzatzen duen testuinguru teknologiko berrian, satelite bidezko emisioen ugartzeari, hazkunde esponentzialeko izaerarekin, irradi-igorpenak gauzatzeko Internet erabiltzea gehitu zitzaion. Internet bidez, gainera, irradi-igorpenei irudien eta datuen gehigarri multimedialak gehitzen zaizkio.

#### ● D.A.B.

Europako agintariak, uhin ertaineko eta frekuentzia-modulazioko bandatan jadanik espazioa falta

zela kontuan hartuta, laurogeita hamarrek hamarraldiaren hasieran, emisiorako protokolo digital baten ikerketa bultzatu eta sustatu zuten. Ikerketa horren fruitu izan zen D.A.B. [Digital Audio Broadcasting], irratiko emisio digitalek protokoloa.

EITBko irradi publikoak izan ziren 1998ko martxoan Eusko Jaurlaritzako Informatika eta Telekomunikazioen zuzendaritzak Arabako Zaldian mendian dituen instalazioetan ezaugarri horietako multiplex bat instalatzearekin batera emisio digitalera gehitu ziren lehenengo irratia.

Espainiako Irrati Nazionala bezalako irradi publikoak eta estatu-mailako irradi-kate pribatu garrantzitsuenak 1999tik emititzen zuten jadanik formatu digitalean. DAB protokoloa emisio digitala gauzaten duten multiplex-ak okupatzeak, gainera, Radio Marca, Radio Mundo eta abar bezalako beste irradi-eskaintzak agertzea ahalbidetu du. Irrati horiek guztiak Alderdi Popularraren Gobernuak 1999ko udaberriko hauteskunde onkorren bezperatan egin zituen frekuentzia digitalen esleipenen ondorio dira.

Hona hemen EITBren aurpegi berriak

Logoak: eitb euskal irradi telebista, etb euskal, canalvasco etb e e t, etb e e e e, radioeuskadi, radiovitoria, euskadigaztea, euskadirratia

www.eitb.com

Estas son las nuevas caras de EITB



## 1925

## 2003

### GURE HERRIKO IRRATIAREN HISTORIAKO EFEMERIDEAK, GARRANTZI GEHIAGO EDO GUTXIAGOKOAK.

1925. Maiatzak 1 **Radio Club Vizcaya** EAJ-9ren lehenengo emisioak. 1927an *Cadena Unión Radiok* eskuratu zuen. Handik gutxira itxi egin zen [1928]
1925. Irailak 30 **Radio Vizcaya** EAJ 11ren lehenengo emisioak. 1927an *Unión Radiok* eskuratu zuen, eta 1928an emititzeaz utzi zuen.
1925. Azaroak 24 *Sabino Ucelayetak*, Donostiako Alkateorde izan zenak, irrati bat abiarazteko beharrezkoa den lizentzia eskuratu zuen [beste iturri batzuen arabera baimena 1924ko abenduaren 15ean eman zitzaion]. Emisio-ekipoa, Wester Electric Company estazioa, Igeldon instalatu zuen. 1925eko azaroaren 29an ekin zion bere bideari **Radio San Sebastian**, EAJ-8k.
1927. Ekainak 26 *Cadena Unión Radio* delakoak [1924ko abenduaren 19an eratua, eta etorkizuneko Cadena SER irratiaren hastapena] Euskadin zeuden hiru irratiak eskuratu zituen: **Radio Club Vizcaya**, EAJ-9, eta horren arerio zuzenena, **Radio Vizcaya**, EAJ-11, hala nola **Radio San Sebastián**, EAJ-8 [azken hori, zehazki, 1927ko ekainaren 26an].
1928. Uztailak 7 **Radio San Sebastián** irratiak Paulino Uzcudun eta Haymann-en arteko boxeo-borrokaldi ospetsua eman zuen Txofreko Zezen Plazatik Union Radio irrati-entzuleentzat, Donostiako, Bartzelonako, Madrilgo eta Salamancako irrati-instalazioen bidez.
1928. Apirilak 28 **Radio Club Vizcaya**, EAJ-9 irrati matxuratu egin zen, eta hori dela eta igorpenak eten egin behar izan ziren. Behin betiko bilakatu zen isilune tekniko bat, inoiz gehiago ez baitzuen igorri.
1932. Abenduak 8 Komunikazioen Ministerioak Dekretu bat eman zuen. Dekretu horren bidez Telekomunikazioen Zuzendaritza Orokorrari ahalmena ematen zitzaion, partikularren bidez, potentzia txikiko irrati-estazioak [200 watt gehienez ere] eta 30 kilometro baino gutxiagoko estaldura-erradio bat duten izaera lokaleko irrati-estazioak instalatzeko baimenak emateko. Bestalde, udalerrri bakoitzeko irrati-emisio bakarra baimentzen zen. Dekretu horren babesean, 1933an **Radio Bilbao**, EAJ-28, eta **Radio Pamplona**, EAJ-6 sortu ziren, eta 1934an **Radio Vitoria**, EAJ-62 sortu zen. Handik gutxira, Tuterak ere izaera lokaleko irrati propioa izatea lortu zuen: **Radio Tudela**, EAJ-66.
1932. \*\* **Radio Tudela**, EAJ-66 irrati abiarazi zen. Irrati hori *Aurelio Hernándezi* eman zitzaion. Denbora gutxi funtzionatu zuen. 50eko hamarraldi erdialdean Beste Radio Tudela bat sortu zen, *Sindikatu-irratien Sarea [CES]* delakokoa. Ondoren, *Irrati-kate Espainiarra [RCE]* delakoan sartu zen. Eta, azkenik, RNEko errepikagailu izaten bukatu zuen.
1933. Maiatza **Radio Navarra**, EAJ-6 sortu zen. Irrati hori *Unión Radio* katean sartu zen.
1933. Urriak 31 Proba-denboraldi baten ondoren, EAJ 28-**Radio Bilbao** igortzen hasi zen. Gerra zibilean izen desberdinekin jarraitu zuen: *Radio Requeté*, *Radio España*, *Radio Euskadi* edo *Radio Bilbao*. 1943an, estatusan finantzario larriak jasan ondoren, lehendabizi SER kateak alokatu zuen, eta ondoren kate horrek berak eskuratu zuen.
1933. Maiatzak 27 **Radio Navarra** sortu zen. Hasiera batetan 200 Watts-eko irrati txiki bat zen, Zaragozako *Ismael Palacios Bolufer* argazkilariak sortua, Kale Nagusiko 43.ean. Gerra Zibilean irrati Gerra-junta Karlistaren eskutetan egon zen, eta *Radio Requeté de Nava-*



- rra* bilakatu zen. Izen horrekin EAJ 6 adierazgarria jaso zuen, hasiera batetan Madrilgo Radio Ibérica delakoari eman bazitzaion ere. 1958an SER katera elkartu zen. 1975ean S.A. Radiodifusión Navarra delakora transferitu zen, eta 1984ko maiatzaren 1ean izenez aldatu zen, **Radio Pamplona** izena jasoz.
1933. Urriak 31 Bizkaiko lehenengo irratia EAJ 9 izan zen. 1925eko urtarrilaren 12an *Radio Club Vizcaya* delakoari eman zitzaion, eta Carlton Hotelean ezarri zen. Irrati hori *Union Radio*ra saldua izan zen 1927ko maiatzaren 28an, eta 1928ko apirilaren 28an emititzeaz utzi zuen. Egungo **Radio Bilbao** 1933ko martxoan *Daniel Urquijori* eman zitzaion kontzesio bat izan zen, 1933ko urriaren 31n EAJ 28 *Radio Emisora Bilbaina* bezala irekiz. Igorpenak ez zuen minutu batzuk besterik iraun, matxura bat dela eta 1933ko azaroa erdialdera arte geldirik utzi baitzuen. 70eko hamarraldian zehar Bilboko Rodríguez Arias kaleko 6.ean kokatu zen. 1982an Banco Urquijok bere akzioak PRISAri saldu zizkion.
1934. Irailak 9 Lehendabizikoz, **Radio San Sebastián** eta **Radio Bilbao** – *Union Radio* katekoak biak– irratiaren bidez, ospakizun erlijioso musikal bat eman zen, Arantzazuko Saindutegitik, Amabirjinaren egunarekin bat eginez.
1934. Irailak 30 **Radio Vitoria** – EAJ 62 irratiarren lehenengo emisio ofiziala. Irrati-estazio hori *Francisco Hernández Peña* doktoreak sortu zuen. Frekuentziaren emakida 1932ko abenduaren 8ko dekretuan xedatutakoaren babesean eman zen.
1934. Apirilak 24 **Agrupación Vasca de Experimentación en Radio [AVER]** elkarteak arautu zuen Araudia onartu zen. Elkarrekin horretan jadanik eratutako irratiek, hala nola teknikariek eta irradi-amateurrek parte hartu zuten.
1934. Uztailak 26 Bigarren Errepublikako Gobernuak **Irratiaren Legea** onartu zuen. Lege horrek ordenamendu juridikoaren etorkizunaren oinarriak ezartzen zituen. Dekretuaren arabera irratia Estatuak kontrolatzen zuen eta garatzen zuen zerbitzu publiko gisa eratzten zen. Ondorio horietarako, Estatuak berezkat erreserbatzen zuen eremu nazionalerikoa nahiz nazioarteko eremuko irradi-jardura.
1934. Otsailak 9 II. Errepublikako Gobernuak, Komunikazioen Ministerioaren bidez, irratiaren izaera edo eduki politiko eta sozialeko propaganda-diskurtsoak eta –espazioak ematea berariaz debekatzen zuen Agindua bat promulgatu zuen.
1936. Uztailak 18 Gerra zibilaren hasiera. Uztailaren 18an bertan, arratsaldeko lehenengo orduetan, **Unión Radio San Sebastián** irratiko mikrofonoak Eusko Alderdi Jeltzaleko diputatu ziren Manuel Irujo jaunak eta Jose Maria Lasarte jaunak sinatutako ohar bat zabaldu zuten, beren iritziz herri-subirano-tasuneko legezko aukera bakarraren alde, hots, Errepublikaren alde, azalduz.
1936. Abenduak 22 Behin gerra zibila hasita, Autonomia Estatutua aldarrikatu zutenetik bi hilabete eta erdira, **Jose Antonio Agirre Lehendakaria** euskal herriari zuzendu zen, eta, bereziki, gudariei, «Euskaldunen herri zaharraren gobernu gazte bat» izenburua zuen mintzaldi batekin.
1936. Urria Espainiako Parlamentuak lehenengo Autonomia Estatutua onartu zuen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat.
1939. Ekaina Bilbo erori ondoren, **Eusko Jaurlaritzak** sortutako **irradi-zerbitzuak** emititzeaz utzi zuten.
1939. Urriak 6 Diktaturako Gobernuak, izaera orokorrean, irrati komertzialen **zentsura** eta, aldi berean, tokiko, eskualdeko nahiz probintziako eremua gainditzen zuten albisteak ematea debekatzea ezartzen zuen Agindua bat promulgatu zuen. Albiste nazionalak nahiz nazioartekoak ematen zituzten albisteak debekatu izana, **Madrilgo Irrati Nazionalerikoa hitz egindako egunkarietara konektatzeko obligazioarekin** batera etorri zen. Informazio-monopolio hori indarrean egon zen 1977ko urriaren 25 arte.
1941. \*\* *Radio Moscu* irratia, bertso espainiarrean, eta *Radio España Independiente* irratia, «Radio Pirenaica» delakoak, Dolores Ibarruri Komunistaren zuzendaritzapean, lehendabizi Moskutik, eta, ondoren, Bukarestetik [1955] igorri zuenak, beren emisioei 1941ean ekin zieten.
1943. Irailak 9 **Radio San Sebastián** Arantzazuko Saindutegitik Meza Saindua ematen hasi zen erregulari. Ohitura horrek 1983 arte iraun zuen.
1946. Abenduak 21 **Radio Euskadi** – **Euskadi Irratia**, «*La Voz de la Resistencia Vasca*», irratia lehenengo emisioak aieratu ziren, uhin motzean, Mouguerrerren [Lapurdi] gaitutako emisio-ekipo bati esker.
1946. Udazkena Denboraldi batetan **BBC** britainiarrean jardun ondoren, **Alberto de Onaindia** apaiza [Markina, 1902 – Donibane Lohitzune, 1988], **Dr. Olaso** ezizenarekin, astero mintzaldiak hasi zen, irrati publiko frantziarrek zerbitzuek zituzten gaztelaniazko emisioetan.
1947. Abenduak 2 **Radio Vitoria**, EAJ-62 irratia *Caja de Ahorros de Vitoria* eskuratu zuen, eta Olagibel kaleko estudio berrietara lekualdatu zen.
1948. Uztailak 18 Irrati-zerbitzu frankistek sortzen zizkieten interferentziei erantzunez, **Radio Euskadi en el exilio** irratia **Radio San Sebastián** bezalako irratiei zuzendutako aldizkako interferentzia-ekintzak abiarazi zituen. Lehenengo interferentzia-ekintza egun horretan burutu zen, eguerdiko hamabietan, Arantzazuko Saindutegiko Meza Nagusiaren igorpena amaitu ondoren.
1952. Azaroak 17 Hitzarmen bat sinatu zen, eta hitzarmen horren bidez *Caja de Ahorros de Vitoria* en **Radio Vitoria** – EAJ-62 irratia **Sociedad Española de Radiodifusión [SER]** delako-

- ra elkartu zen. Hitzarmena sinatzean SER kateko Zuzendari Nagusi gisa *Virgilio Oñate Sanchez* jauna azaltzen da, eta Radio Vitoriako Kontseilari Ordezkarri gisa, berriaz, *Vicente Botella Altube* jauna. Hitzarmenak zuzendaritza teknikoarekin, programazioarekin, publizitatearen kudeaketarekin eta aholkularitza juridikoarekin lotutako gaiak biltzen zituen.
1953. \*\*  
**Radio Juventud de Eibar** irratiaren abiarazi zen. Irrati horrek uhin ertainean emititu zuen, 1964. urtean Uhin Ertainen Dekretua iritsi zen arte. 1940. urtean Radio Juventud izenarekin sortu ziren irratiaren partaidea zen. Irrati horiek guztiak *Irrati-hedakuntzako Kate Urdina [CAR]* delakoarenak ziren. Irrati horiek Franco Jeneralaren diktadurako aparatu ideologiko eta propagandistikoak eratuta zuen erakunde-sarea osatzen zuten. Irrati-kate Espainiarra (RCE) eta Espainiako Irrati Nazionala (RNE) fusionatu zirenetik desagertu egin zen emisio-gune gisa, eta RNE-leko errepikagailu bat gehiago izatera pasa zen. Data horren inguruan sortu zen baita ere **Radio Juventud de Bilbao**.
1953. Abuztuak 8  
**Radio Alava** emititzen hasi zen. Irrati hori *Rafael Gutiérrez Benito* doktoreak sortu zuen. Handik gutxira **La Voz de Alava** izena izatera pasa zuen eta, horrela, REM [Mugimenduko Irratien Sarea] sarean sartu zen.
1954. Abuztua  
Frantziako gobernuak, diplomazia espainiarraren presioei erantzunez, **Radio Euzkadi en el exilio** irratiaren instalazioak ixtea dekretatu zuen.
1954. Otsailak 20  
**Radio Tudela** ireki zen. Irrati hori *Sindikatu-irratien Katea [CES]* kateko partaidea zen. Eremu lokalerako emititzen zuten irratia ziren, kate gisa identifikatzen zituen izen komunika gabe. Horri dagokionez, kokatzen zireneko eskualdearen edo hiriarren izena hartzen zuten. 1964. urtean, Uhin Ertainen Dekretuaren aplikazioan, uhin ertainean emititzeaz utzi zuen, eta Frekuentzia-modulazioko [FM] espektro radioelektrikoa erabiltzera moldatu behar izan zen. 1978ko Dekretu batek *Sindikatu Bertikaleko Sindikatu-irratien Katea [CES]* katea Kulturako Ministeriora transferitu zuen, ondoren *Irrati-kate Espainiarra (RCE)* barne hartzeko. *Irrati-kate Espainiarra (RCE)* delakoa 1972. urtean sortutako zen REM [Mugimenduko Irratien Sarea] katea eta CAR [Irrati-hedakuntzako Kate Urdina] katea fusionatu ondoren. Ondoren, 100.000 biztanle baino gutxiagoko hirietako ekoizpen-guneak itxi eta gero, Espainiako Irrati Nazionalako errepikagailu bat gehiago izatera besterik ez zen igaro.
1954. Abuztua.  
Gobernu frantziarrak, Kanpo Arazoetako Ministro Mendés France eta Barne Arazoetako Ministro François Mitterrand zitue-larik, **Radio Euzkadi** behin betiko ixtea agindu zuen. Erbestean, ez zuten ezertarako balio izan François Mauriac poeta eta kazetariak itxiera saihesteko egin zituen gestioek, ezta Agirre Lehendakariak emisio horiei berrekiteko egion zituen saiakerak ere.
1956. Apirilak 2  
**Segura Irratiak** lehendabizikoz emititu zuen uhin ertainean [1.500 Khz]. Irrati hori Ekintza Katolikoko Kontziliaria zen *Cesareo Elgarresta* apaizak sortu zuen. Irratia itxita egon zen 1963 eta 1971 bitartean. 1972. urtean FMn emititzeari ekin zion, eta 1977. urtean SA bilakatu zen.
1956. Abuztuak 22  
**La Voz de Guipúzcoa E.FE.-23** irratiaren emisioak berreskuratu ziren. Irrati horren estudioek auditorio handi bat zuten, eta hortik jendaurreko programak egiten ziren. Mugimenduaren menpe zegoen irrati bat izateko, bere kudeaketa eta programazioa nagusiki komertzialak ziren.
1956. \*\*  
Euskal Herritik milaka kilometrora, Ipar Ameriketako Wyoming estatuan, Buffalo izeneko hirian, *Jeanette Ezponda Maxwell* andreaken ekimenez, Johnson konderriko artzain euskaldunei eskainitako programa bat abiarazi zen: **KBSS irratiak Basque Program**. Antenan mantendu zen 1996. urtera arte. 1997. urtean Euskal Erakundearen esker ona jaso zuen, Buffalon bertan ospatutako omenaldi batetan.
1957. Apirilak 1  
**La Voz de Navarra** jaio zen. «La Voz de...» izen komunari erantzuten zion irratiaren, eta, hori horrela, *Mugimenduko Irratien Sarea [REM]* sareko partaidea zen. 1971n FMn igortzera pasa zen, eta, ondoren, *Radiocadena Compás* irratiaren bilakatu zen. Irrati hark «oldie» formatu musikala zuen. 1995etik aurrera irratiaren RTVEko irratien birmoldaketan integratu zen, eta RNEko **Radio 5** –«all news – albisteak bakarrik» formatua – bilakatu zen.
1957. Urriak 21  
**Dr. Olasok, Alberto Onaindía** apaizaren ezizena, irrati publiko frantziarreko irrati-hitzaldiak eten behar izan zituen, 11 urtetan zehar etengabe jardun ondoren, diplomazia espainiarraren presioak zirela eta.
1958. Abuztuak 8  
**Uhin Ertainen Dekretuak** xedatu zuen eskualdeko gisa sailkatuta ez zuden uhin ertaineko irratiek FM irratiara moldatzea eskatu behar izatea, gehienez ere 5 urteko epe batean.
1959. Abenduak 23  
**Arrate Irratiak** lehendabizikoz igorri zuen uhin ertainean. Irrati hori *Pedro Gorostidi* jaunak sortu zuen. Hori ere apaiza zen, garai hartan zuden asko eta asko bezala, ezinegon kultural eta erlijiosoekin, eta irratiaren beren egiteko kultural eta ebanjelizatzailea gauzatzeko aukera ikusi zuten. Irratia Arrateko Saindutegiko Sakristian zegoen instalatuta. 1964ko maiatzean itxi zen, eta 1978ko uztailaren 3an berrekin zion jarduerari. Berrito itxi zuten 1978ko azaroaren 13an, eta jarduerarik gabeko denboraldi luze baten ondoren, 1982ko abenduaren 30ean hasi zen FMn eta euskaraz bakarrik emititzen, *Bernando Ibarra* ren zuzendaritzapean.
1959. Abuztuak 18  
Dekretu berri bat promulgatu zenez, hargailu-fabrikatzaile guztiek FM hargailuak sartu behar izan zituzten 1960ko abuztua-

- ren letik aurrera merkaturatzen ziren aparatu guztietan.
1959. Abuztuak 4 Emititzen 1958an hasi bazen ere, **Iruñako Herri Irratia** ofizialki 1959ko abuztuaren 4an ireki zen. 1993an *COPE-Navarra* izatera pasa zen.
1960. \*\* Bilboko Gotzaindegiak **Bilboko Herri Irratia** sortu zuen. Gobernuaren eta Elizaren artean Konkordatua sinatu zenean, irratiak *Cadena COPE* sortu berriko parte izatera pasa zen. Irrati horrek beti izan zuen kontutan euskararen erabilera eta euskal kulturaren sustapena. Ildo horretan, 70eko hamarraldian, irratiako zuzendaritzak eskualdeko irismena zuen irrati bat eratzearen aldeko apustua egin zuen. Horretarako bere FM igorgailuaren potentzia areagotu zuen, eta horri esker Euskal Herriko puntu askotara iritsi ahal izan ziren. 1994ko irailan *COPEtik askatu zen*, ibilbide programatik berri bati ekinez, *Loiolako eta donostiako Herri Irratiak* bezala. 2000ko urriaren 8an, goizeko 07,30ak inguruan, uhin ertaineko zentro igorleak gasolinadun atentatu bat jasan zuen, eta hori dela eta jardunik gabe geratu zen. Handik gutxira 92.2an [FM] igortzen hasi zen.
1960. \*\* **Radio Paris**: «*Paris'tik Euskalerrira*», «*Paris'tik Mundu Zabalerara*» eta «*Actualidad Vasca*» izan ziren 1960 eta 1964 bitartean **Jesus Insausti** «*Uzturrek*» Radio Parisetik Espainiarentzat eta Ertamerikarentzat zituen kanpoko zerbitzuetan sortu zuen irratiako programa batzuk.
1961. Otsailak 11 **Loiolako Herri Irratia** jaio zen, Loiolako Saindutegian ezarritako antena txiki batekin. Handik hilabete gutxira uhin ertainerako 2 kw-ko Collins transmisore bat jarri zuten Erlepate mendian. 1964ko Uhin Ertaineko Dekretuak ixtera behartu zituen, eta FMn igorri zuten urtebete berandua-go.
1961. Urriak 1 **Espainiako Irrati Nazionala (RNE) Donostian** irratiak sortu zen. RNEk Euskal Herrian zuen eskualdeko zentro berria izan zen. Zentro horrek antena nahiko altua zuen, eta hori RNEren euskal erreferentzia izan zen. Denbora pasa ahala, bere antolamendu eta programa-sarean *Irrati-kate Espainiarrara [RCE]*, *La Voz de Guipuzcoa - EFE 23* eta *Radio Juventud de Eibar - EFJ 42* barne hartzen joan zen.
1962. Abuztuak 15 Donostiako Elizbarrutiak sortua eta *Feliz Monederok* sustatua, **Donostiako Herri Irratia** jaio zen, Donostiako Bengoetxea kaleko estudioetan. Donostiako Gotzaindegiaren menpe egon zen 1970. urtera arte. Urte horretan Jesusen Lagundiak eskuratu zuen. Jesusen Lagundiak ordurako jardunik bere esku zuen Loiolako Herri Irratia. 1974. urtean Bengoetxea kaletik Donostiako Garibai kaleko 19.eko egoitza berrira lekualdatu zen. Loiolako Herri Irratiarekin batera *utzi zuen* COPE 1993ko azaroaren leian.
1964. Abenduak 30 Diktadurako Gobernuak Uhin Ertainen Aldi Baterako Plana onartu zuen. Planak
1964. \*\* Uhin ertaineko irrati kopurua murriztu nahi zuen, horietako asko FM irrati bilakatzeko.
1964. \*\* Uhin Ertainen Dekretuak, Frekuentzia-modulaziora migratzeko aginduarekin, irrati asko ixtea eragin zuen. Hori gertatu zen, besterik artean, **Segura Irratia**rekin. Ez zen antenan egon berriro ere 1972 arte, baina orduan FMn.
1964. \*\* **Radio Vitoria** irratiak *Euskal Jaia* programa abiarazi zuen. Programa hori euskal musikari buruzkoa zen, eta *Jose Maria Sedanok* errealizatzen zuen. 1992ko ekaina arte egon zen antenan.
1965. Uztailak 22 Uhin Ertainen Dekretuak eskualdeko irratiak Frekuentzia-modulaziora eraman zituen. **Loiolako Herri Irratia** ere itxi egin behar izan zen. 1966ko uztailaren 31n hasi zen berriro ere emititzen, FM hargailuak erosteko konpromisoa hartu zuten 4.000 kide baino gehiagorekin. Eskuratu behar zituzten hargailu horiek Askar-Philips markakoak ziren eta Irunen egiten ziren.
1965. Uztailak 10 **Euskadi Irratia**, «*La Voz de la Resistencia Vasca*», irratiak berriro ekin zien bere emisio klandestinoei uhin ertainean. Oraingoan Venezuelako oihanetik igortzen zuen.
1969. \*\* *Iñaki Gabilondo Donostiako Herri Irrati*ko zuzendaritzaren arduradun bilakatu zen. Handik gutxira SER kateak Donostian zuen irratiak zuzentzera pasa zen. Herri Irratian *Roman Gil de Montese*k ordezkatu zuen.
1970. Maiatzak 16 **Bilboko Espainiako Irrati Nazionalaren (RNE)** lurralde-egoitza ireki zen. Irrati horrek Irrati-kate Espainiarrarena [RCE] zen antzinako *Radio Juventud de Bilbao EFJ 43* irratiak zurgatu zuen.
1970. Abenduak 24 **Jesuitak Donostiako Herri Irrati**aren kargu egin ziren. Irrati hori, lehenago, Donostiako Elizbarrutiarena zen. Horrela, bi irratiak batera hasi ziren programazio-orduak igortzen.
1972. \*\* **Segura Irratia** berriro ireki zen, 8 urtetan euskal irratiaren dialetik at egon ondoren.
1972. \*\* **La Voz de Guipúzcoa**, izen bera zuten gainerako irratiak bezala [«*La Voz de..*»], *Irrati-kate Espainiarraren* [RCE] partaide bilakatu zen REM [Mugimenduko Irratien Sarea] eta CAR [Irrati-hedakuntzako Kate Urdina] kateak fusionatu ondoren.
1972. \*\* **La Voz de Alava** irratiak frekuentzia-modulazioa instalatu zuen. Hasiera batean, bere funtzioa zen hilabete bakoitzeko lehenengo larunbatean San Migel Elizatik Arrosario Saindua ematea.
1972. Ekainak 22 Behin estatutuak onetsita, juridikoki eratu zen COPE, *Cadena de Ondas Populares de España*.
1973. Urria **Bilboko Herri Irratia** berriaz euskaraz, hots, bizkaieraz, igortzen hasi zen. Etorkizuneko Bizkaia Irratiak hastapena izan zen.
1974. Abuztuak 14 Frantziako legediak ORTF bertan behera utzi zuen. Horrekin, Legea hedapena,

- ekoizpena eta programazioaren artean be-  
reitzen hasten da. Eta funtzio horiek guz-  
tiekkin batera Ikus-entzunezko Institutua  
sortzen da. Institutu horren funtsezko hel-  
burua zen ikerkuntza, trebakuntza eta do-  
kumentazioa. Hori horrela, Frantziako  
ikus-entzunezko sare modernoa garatzea  
ahalbidetuko zuten lege-eremu berriak  
agertu ziren.
1976. Martxoak 27 **Jose Ramón Belokiren** ekimenez, Donos-  
tiako Herri Irratiak eta Loiolako Herri Irra-  
tiak 24 orduz euskarazko programazioa  
ekoiztu eta igorri zuten: «**24 orduak eus-  
karaz**». Programazioa amaitzeko, Anoetako  
Belodromoan festa handi bat ospatu zen.  
Euskarazko komunikabide publikoen al-  
darrikapenaren aldeko ekitaldi benetan  
garrantzitsua izan zen.
1977. Uztailak 11 Batallón Vasco-Español eskuin muturreko  
talde parapolizialak aldarrikatutako bon-  
ba batek **Loiola Herri Irratiak** Itxumen-  
din zuen igorgailua deuseztatu zuen. Han-  
dik gutxira, ekainaren 25ean, berriro aire-  
ratu zen, herriaren ekarpen ugariari esker.
1977. Apirilak 30 «**Euskadi Irratia, La Voz de la resitencia  
Vasca**» irratia azkeneko emisioak Vene-  
zuelatik.
1977. Urriak 30 **Madrilgo Irrati Nazionalaren** hitz egin-  
dako egunkariekin konektatzeko obliga-  
zioa bertan behera utzi zen. Legezko agin-  
du hori 1939ko urritik bete behar izan  
zuten irratik komertzial guztiak.
1978. \*\* *Alexander de la Cerda* kazetaria Loiolako  
Herri Irratiarekin harremanetan jarri zen.  
Loiolako irratia oso ondo entzuten zen  
Iparraldeko guneko askotan, eta, hori dela eta,  
Iparralderako berriazko irratia bat sortu  
nahi zuen. Horrela sortu zen **Adour-Na-  
varre Irratia**. Egutero bi programa eman  
zituen Iparralderako Loiolako Herri Irra-  
titik. Beranduago, bere transmisore pro-  
pioa instalatu zuen Cibouren. Horrela  
Frantziako lehenengo irratia libre bilakatu  
zen. Irratiak, azkenean, Luxenburgoko  
RTL katearen eskuetan bukatu zuen, Baio-  
na ingururako eskualdeko irratia gisa.
1978. \*\* Irrati-kate Espainiarraren [RCE] irratia  
Espainiako Irrati eta Telebistara [RTVE]  
pasa ziren.
1978. \*\* Donostiako kaleetan informazio-autono-  
miaren aldeko eta COPE katea **Donos-  
tiako Herri Irratiaren** eta **Loiolako Herri  
Irratiaren** aurka gauzatzen ari zen zentra-  
lizazio-prozesuaren aurkako manifestaldi  
jendetsu bat egin zen.
1979. Ekainak 20 Soinu-irratia Plan Nazionala ezartzen  
zuen 1978ko azaroaren 10eko Ministerio  
Agindua aplikatuz, **Radio Vitoria-EAJ-62**  
irratia irratia-hedakuntzako zerbitzu pu-  
blikoaren ustiapena esleitu zitzaion. Ustia-  
pen hori ondoko ezaugarri hauek zituen  
igorgailu baten bidez gauzatzen zen:  
Frekuentzia 1602 KHz –Potentzia C.B.P.–  
Esleipena P. Urte bereko irailaren 5ean  
Fmko 96,0 frekuentziaren emakida jaso  
zuen, 1 Kw-ko igorgailu bat instalatzeko  
baimenarekin.
1981. Abenduak 24 Eusko Jaurlaritzak **Radio Vitoria** erosi  
zuen. Ordura arte «Caja de Ahorros y  
Monte de Piedad de Vitoria»-ren jabe-  
tzakoa izan zen, eta 1952. urtetik SER ka-  
tera elkartuta egon zen.
1981. \*\* **Luxenburgoko RTL taldeak** Adour-Nava-  
rre Irratia eskuratu zuen, kateko irratia lo-  
kal bilakatuz.
1981. Azaroak 24 Elkartzte-irratien legearen babesean sortu  
zen **Gure Irratia**. Lehenengo 985. urtean  
Baionara lekualdatu ziren.
1982. Maiatzak 20 Eusko Legebiltzarrak **Euskal Irrati Tele-  
bista – EITB – Erakunde Autonomoa Sor-  
tzeo Legea** onartu zuen. Lege horrek Eus-  
kadiko irratia publikoen sarea sortzea era-  
gin zuen.
1982. Azaroak 23 **Euskadi Irratia** ren lehenengo emisio ofi-  
zialak, Donostiako Andía kaleko 13.eko  
estudioetan, *Jose Mari Otermin* jaunaren  
zuzendaritzapean.
1982. Abenduak 30 Jarduerarik gabeko denboraldi luze baten  
ondoren, **Arrate Irratia** berriro aireratu  
zen, oraingo honetan frekuentzia-modu-  
lazioan [FM] eta euskaraz bakar-bakarrik,  
*Bernardo Ibarnen* zuzendaritzapean.
1983. Apirilak 15 **Espainiako Irrati Nazionalako Gasteizko**  
irratia sortu zen. *La Voz de Alava* eta *RCE  
Vitoria* irratia zurgatu zituen.
1983. Martxoak 31 **Eusko Irratia S.A.** abiarazi zen ofizialki,  
Bilbon, Gran Viako 85.ean, kokatutako  
estudioetan.
1983. Maiatza **Top-Radio** 75 Watts-ekin emititzen hasi  
zen Begoñako Parrokiak utzitako lokal  
batetatik. 1987. urtean Bilboko erdigune-  
ra lekualdatu zen, zigilatua izan ondoren.  
Berriro itxi ondoren, 1995. urtean berriz  
ekin zion igortzeari, Cadena Top kateari  
elkartuta. 1996ko uztailan *Cadena Top*  
katea *Top Radio Bilbao* izatera pasa zen  
2001eko iraila arte. Orduan bere kate pro-  
pioa sortu baitzuen.
1983. Abuztuak 6 **Hala Bedi Irratiaren** proiektua 1983ko  
uztailak hasi zen garatzen, eta, ondoren,  
1983ko abuztuaren 6an hasi zen emititzen,  
Amabirjina Zuriaren Festekin batera.
1984. \*\* Iruñean jaio zen, *Iruñeko Komunikabideak*  
*S.A.* elkarteko 50 kideen ekimenez, **Eus-  
kal Herria Irratia**. Iragarpen onoren aur-  
ka, Nafarroako Foru-administrazioak,  
1998. urtean, FM frekuentziak esleitzeko  
egin zuen deialdian, ez zuten sortu zene-  
tik okupatzen ari ziren frekuentzia okupa-  
tzeko lizentzia lortu.
1985. \*\* 1975etik aurrera garatu zen irratia-he-  
dakuntzarako zerbitzuen deszentraliza-  
tze-prozesu baten ondoren, ORTF desa-  
gertu ondoren, Baionatik **Radio France  
Pays Basque** hasi zen emititzen. 1991n  
katea eduki orokorreko 38 eskualdeko ka-  
tez osatua zegoen. 2000 urtean *Radio Bleu*  
irratia aurrerantzean *France Bleu* eta koka-  
tzen zireneko eskualdearen izenarekin jar-  
dunگو ziren tokiko eta eskualdeko irratia  
guztiak bildu zituen.

1985. Azaroak 6 **Radio 80 Tudela** bezala hasi zen, eta ondoren **Radio Navarra Antena 3 – Tudela** bilakatu zen. Radio Tudela da 1994tik. Tuterako lehenengo irratia EAJ 66 izan zen, 1932an *Aurelio Hernandezi* esleitu zitzaiona. Denbora gutxi iraun zuen irrati hark. 50eko hamarraldiaren erdialdean *Sindikatu-Irratien Sareko* beste Radio Tudela bat sortu zen. Ondoren RCEn sartu zen, eta, azkenean, RNEko errepikagailu bat gehiago izaten amaitu zuen.
1986. \*\* **Radio Vitoria** behin betiko SER katetik deslotu zen, eta programazio lokal propioa emititzen hasi zen, informazio orokorreko zerbitzuekin, Euskadi irratiarekiko konexioan.
1986. Ekainak 10 Bermeon **Itsuki Irratia** sortu zen, Bizkaiko ikastolen festa, Ibilaldia 86, zela eta.
1986. Uztailak 24 Errepide Berrien Euskal Erakundeko (Busturi Ikastola – Gernika Elkartea) ikasleen lehenengo promozioaren ekimenez **Gernika Irratia** emititzen hasi zen. 1986ko iraila eta azaroa bitartean Antena 3 Irratiarekin konexioak egin zituen. 1987ko uztailaren lizentzia eskuratu zuen, eta 1987. urteko abenduan *Ibar-ondak* erositako izan zen, horrela *Cadena Ibérica* katera pasaz. 1989an *Cadena Radio - Top 40* katera pasaz, eta, ondoren, 1996ko irailaren 6an *Cadena Top Radio* katea utzi zuen SER katera elkartzeko. 2000ko urriatik aurrera Euskadiko Cadena Dial katera elkartuta dago.
1986. Otsailak 11 **Pititako Irratia** emititzen hasi zen, Santurtziko Mameriega Bizilagunen Elkarteko lokaletatik.
1986. Maiatza **Nerbioi Irratia** emititzen hasi zen, eta 1987ko uztailaren 19an lortu zuen lizentzia.
1987. Uztaila **Nerbioi Irratiak** lizentzia eskuratu zuen.
1987. \*\* Baztango Bailaran, Nafarroan, bere bideari ekin zion **Xorroxin Irratiak**. 1998. urtean dagokion lizentzia eman zion Nafarroako Foru Gobernuak.
1987. Urria **40 Principales** irratia Gasteizen entzuten hasi zen Gasteiz Irratiko FMren bitartez, hori EITB irrati-taldera saldu aurretik. Beranduago, Gasteizko entzuleek Miranda de Ebroko (Burgos) irrati mistora, eta, ondoren, **Radio SER-Vitoria** irratiara jo behar izan zuten. Azkenean, **Radio 40 Vitoria** 1987ko udazkenean abiarazi zen.
1987. Ekainak 4 **Laudio Irratiaren** lehenengo emisioak. 1989. urtean lizentzia eskuratu zuten. 1990ean SER katera elkartu zen. 2000ko irailean ohiko SER programazio misto –*40 Principales* delakoa– egiteaz utzi zuen, M-80ra pasatzeko.
1988. \*\* Euskal Herriko lehenengo COPE irratia sortu zen. 1990ean, COPE eta herri irratien arteko harremana hautsi zenean, Bilboko eta Donostiako FM frekuentziak COPE katearen parte izatera pasa ziren. Beranduago, COPEra lotuta, halaber, Euskadiko **Radio Correo Bilbao y Vitoria**, eta **Radio Diario de San Sebastián** abiarazi ziren. 2002. urtean **Radio Ontereconomia** katean sartu ziren.
1988. \*\* **40 Principales** programazio propioko musika-kate bilakatu zen, *Top 40* formatu amerikarean inspiratuta. Irrati hori teknikoki estatu osoarekin lotua zegoen satellite bidez, eta Bilbon, Gasteizen, Donostian nahiz Iruñan irrati-instalazioak zituen.
1988. Urtarrila **Getxo Irratia** emititzen hasi zen, eta 1997ko abenduaren 29an udaleko irrati gisako lizentzia lortu zuen.
1988. Urtarrilak 19 **Antena 3 Vitoria** emititzen hasi zen, eta 1988ko apirilaren 14an ireki zen ofizialki. 1992an, **Prisa Antena 3** Irratian sartu ondoren, Antena 3 Irratiaren eta **Grupo Correo** taldearen arteko elkarteak banatu egin zen, eta **Radio Correo** gisa emititzen hasi zen. 1997ko uztailaren 28 arte 102,4 frekuentzian igorri zuen, baina ondoren 105.5 frekuentziara pasa zen, Grupo Correoaren frekuentziara, **Dadena Dial Vitoria** bezala.
1989. \*\* **Irrati-hedakuntzarako Plan Tekniko Nazionala** onartu ondoren, **Onda Media de Eusko Irratia SA** elkartearen irratia abiarazi ziren. Radio Euskadiren frekuentziak [3, bat Lurralde Historiko bakoitzeko] eta Euskadi Irratiaren frekuentziak [3, bat Lurralde Historiko bakoitzeko] Radio Vitoria eskuratu zenetik [1979ko emakida] existitzen zenetik frekuentziari gehitu zitzaizkion.
1989. Urtarrilak 1 **La Voz de Alava** irratia RNEko **Radio 5-Todo noticias** izatera pasa zen.
1989. Abuztuak 9 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak zenbait enpresa eta elkartei **frekuentziak eman zizkien**.
1990. Martxoak 21 **Euskadi Gaztea** abiarazi zen programaziorako bi ildoekin: irrati-formula musikal gazte bat euskaraz eta bestea gazteleraz. 1994ko utarrilaren 1ean euskarazko irrati-formula musikal bakarrean fusionatu ziren.
1990. Urriak 1 Bilboko Elizbarrutiak Bilborako frekuentzia berri bat eskuratu zuen, eta potentzia txikiko beste lau, Lekeition, Markinan, Ondarroan eta Aramaion. Horrela sortu zen **Bizkaia Irratia**, euskara bizkaitarrez bakarrik emitituz. 1973ko urritik euskaraz bakarrik emititu zuen Herri Irrati baten, *Bilboko Herri Irratiaren* ondorengo izan zen.
1990. \*\* Gasteizen, Donostian, Eibarren eta Bilbon egoitza zuten **Onda Cero** irratia emititzen hasi ziren. Modu horretara 1989. urtean Eusko Jaurlaritzak *Sociedad de Telecomunicaciones Vascaas eta Sociedad de Telecomunicaciones Donostiarra* enpresei eman zizkien frekuentziak aktibatu ziren. Era berean, **Portugaleteko Onda 3** eskuratu zuten, Bilbotik **Onda Melodia –Bilbo** bezala emititzera pasa zelarik.
1990. \*\* Nerbioi Irratiko formulari jarraiki, Gasteizen **Gorbeia Irratia** sortu zen. Frekuentzia hori, hasiera batetan, *Arabako Gerontologia Elkarteari* eman zitzaion.

1990. \*\* Radio Artemis izenarekin emititzen hasi zen. Ondoren TRAK-FM-106.1 izena jaso zuen. Nafarroako irrati libre zaharrenetarikoa bat da. 2000ko uztailaren 1ean potentzia 500 Watt-etara areagotu zuten, eta *Track Onda Joven Elkartearen* forma hartuz.
1990. Apirilak 1 Eusko Jaurlaritzak frekuentzia eman ondoren, 1989ko abuztuaren 9an Irun Irratia emititzen hasi zen. Irrati hori *Juan Antonio Lekuonaren* jabetzakoa zen, eta hasieratik SER katera elkartuta funtzionatu zuen.
1991. \*\* Lekunberri udalerrri nafarrak Aralar Irratia udal irratiabiarazi zuen. Euskal Herriko lehenengo udal irratietakoa bat izan zen.
1991. Abenduak 20 Zumaian Itzurun Irratia ireki zen, 150 Watts-eko igorgailu batekin. Irrati librea zen.
1991. Maiatzak 11 Oñati Irratia udal irratiabiarazi zuen, 150 Watts-eko igorgailu batekin. Programazio lokala eta Euskadi irratiarekiko konexio-orduak.
1991. \*\* Radio Vertigo gisa igortzen hasi zen 97,1 frekuentzian Eibarko Urkiola Eraikinetik. 1993 eta 1996ko urtarrila bitartean jardunik gabe egon zen. 1996ko urtarrilean Eibarko Hezkuntza-egoitzaren Radio Master gisa azaldu zen. Jardunik gabeko beste denboraldi bat izan zuen 1999 eta 2000ko urriaren artean.
1991. Ekainak 19 Durango Irratia udal irratiabiarazi zuen.
1992. Apirilak 3 Iruñako Txantrea Irratia irrati librea emititzen hasi zen.
1992. Martxoak 23 Mungian kokatutako irratiabiarazi K-90 izenarekin emititzen hasi zen. 1993ko abenduan izenez aldatu zen, eta Onda Corazon izenarekin Onda Cerora elkartu zen, baina 10 egunetarako bakarrik. 1996 hasieran Mungia Irratia izena jaso zuen, eta beranduago Radio Economía.
1993. Azaroak 1 Loiolako Herri Irratia eta Donostiako Herri Irratia COPEtik deslotu ziren. Horren ondorioz, Donostian zuten FM frekuentzia galdu egin zuten COPEren alde. Katearen eta irratiaren ildo editorialak ez zetozen bat, bereziki kateak euskal Elizarerekiko zuten jarrerari zegokionez. Hori dela eta, Loiolako eta Donostiako Herri Irratiak COPE utzi zuten. Egoera berriak irratiaren programazioa nahiz langileria birdoitzea behartu zuen.
1994. Maiatzak 31 Euskal Herriko Autonomia Estatutuko Aldi Baterako Bigarren Xedapenean aurreikusten den Batzorde Mistoak, irrati-hedapenari dagozkion Funtzioak Estatuko Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora iragateari buruzko Errege Dekretu bat onartu zuen. Errege Dekretua indarrean sartu zen 1994ko uztailaren 1ean.
1994. Martxoak 22 Eusko Jaurlaritzak Dekretu bat onartu zuen. Dekretu horren arabera, irrati-hedapenerako zerbitzu publikoak, frekuentzia-modulazioko uhin metrikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Udal Erakundeek esleitzeko erregimena ezartzen zen. Dekretu horrek udal irratiak sortzea arautzen zuen.
1994. Otsaila Altzako Irrati Lantegiak [TRA] jadanik 1991tik emititzen zuen, eta 1994an Altzako Casares Kultur Etxeko eraikinera (Donostia) lekualdatu zen. Handik emititzen zuen, eta irrati-lantegiko ikastaroak ematen zituen han.
1995. Abuztua Urdin Irratia 1992an sortu zen, Pasai Antxoko Karmengo Parrokiko –Gipuzkoa– Iñaki Arzamendi apaizaren ekimenez. 1995eko abuztuan jabez aldatu zuen.
1997. Abenduak 29 Arrasate Irratia AEDE [Arrasate Euskaldundu Dezagun] elkarteak eta Arrasateko Udalak sustatu zuten, euskararen erabilera bultzatzeko. 1997ko abenduaren 29an hasi zen emititzen, eta lizentzia 1997ko abenduaren 29an lortu zuen, udal irrati bilakatu.
1997. Uztaila 102.5 frekuentziaren lizentzia hasiera bertan Radio Miramarri egokitu zitzaion. Irrati hori ondoren Cadena Cien katera atxiki zen. 1997ko uztailean. 1997ko uztailean Radio Diario itxi zenean, Cadena Cien frekuentzia erabiltzera pasa zen. Horrela, 102.5 frekuentzia Onda 10 irratiak okupatu zuen. Azkenik, 1999ko irailean bere frekuentzia Onda Cero San Sebastianen frekuentziarekin elkar trukatu zuen.
1998. Apirilak 17 Fórmula Hit – Portugalete. Onda Joven Portugalete bezala emititzen hasi zen. Hit Radio irratiara lotua egon zen Hit Radio Bilbao bezala sortu zenetik 2000ko otsailaren 1 arte. 2000ko abenduaren 15ean bere egoitza nagusia Gregorio Uzquiano kaletik egungo lekura lekualdatu zuen. Egun erabiltzen duen izena erabiltzen hasi zen 2001eko ekainaren 1ean.
1998. Uztaila Nafarroako Foru Erkidegoan FM frekuentzia berriak esleitu ziren. Nafarroako Parlamentuak esleipenetan jarraitu zen prozesua ikertzea eskatu zuen, eta Euskal Herria Irratiak azken erabakia errekurritu egin zuen, esleipenik gabe geratu zelako eta prozesuak eskatzaile guztiei ez zietela berme eta aukera berdinak eskaini ulertzen zutelako.
1999. Irailak 13 Onda 3 Barakaldo eta Onda Melodia izan zirenak Europa FM – Bilbo bilakatu ziren.
1999. Irailak 13 Frekuentzia 1989an eman zitzaion. Cadena Vasca izenarekin ekin zion emititzeari, Radio Stereo 2 desagertutako irratiaren lokala okupatu. 1999ko irailean 13an bere frekuentzia Onda 10 irratiarekin elkar trukatu zuen, Onda Melodia izatera iraganez. 2000 urtean Onda Cero Música-Vitoria bilakatu zen.
2000. \*\* Radio Euskadi eta Euskadi Irratiaren lehenengo emisioak, satellite bidez, Amerikako eta Europako lurraldeetarantz. Europako lurraldeetarantzko emisioak Via



Digitalen bidez gauzatu ziren. 2001 urtean Canal Sateliteko ASTRA satelitearen bidez emititzera pasa zen.

2000. Abenduak 27 12.00etan **Errenteria Irratia** emititzen hasi zen. Irrati hori Errenteriako Udalaren Irratia da, eta *Kubidek* kudeatzen du.
2001. Uztailak 25 **EITB-irradiaren** [Eusko Irratia] lehenengo emisioak, Donostiako Miramar Jauregian Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroei hasiera eman zitzairen egun berean..
2002. Abenduak 10 **Euskadi Irratiak** 20. urteurrena ospatu zuen, Zabalaga Baserriko Chillida-Leku Museoan egin zen erakunde-ekitaldi batekin.
2002. Abenduak 14 **Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren** irekiera-ekitaldi ofiziala. Zentro hori irradi-programak ekoizteko zentro bat da, eta An-

doingo Martin Ugalde Kultur Parkean kokatzen da. Iparraldeko euskal irratien [*Gure Irratia, Irulegiko Irratia y Xuberoko Boza*] esfortzuak batzeko esperientzian oinarrituta, Joxemi Zumalabe Fundazioak sustatutako ekimena da. Helburutzat izaera lokaleko 30 irratik Andoaingo Zentroak ekoiztutako eta zerbitzari informatiko batetara (*Miñaoko Irratsaio Bankua* – Miñaoko Parke Teknologikoan kokatua) iraulitako programazioa batera emititu ahal izateko harremanak ezartzea zuen. Andoaingo ekoizpen-zentroak egindako programa baten lehendabiziko emisioa 2002-ko urriaren 21ean gauzatu zen. Programa hori «*Ostarteko balkoia*» magazinea da.

2002. **Urtarrila** Elgoibarretik emititzen hasi zen 2001ean Top Radio Gipuzkoa bezala, eta 2002ko urtarrilan Formula Hit delakora elkartutako irradi libre izatera pasa zen.

# DIALA




**IRRATIAREN DIALA – 2002ko UDAZKENA.** Ondoren kontsulta daitezkeen dialaren okupazioari buruzko tauletan, Euskal Herriko irrati bidezko komunikazioaren esparruan irrati-emisio bidez hartuta zeuden FM eta UE-ko frekuentzia guztxi buruzko informazioa biltzeko ahalegina egin zen, emisio horien maila, neurri, formatu edo beste inongo ezaugarri kontuan hartzeke.

## UBICACIÓN DE LOS PRINCIPALES CENTROS EMISORES

● FM

● OM







GIPUZKOA				
DIALA	EMISOREA	ANTENA	MOTA	HELBIDEAK
87.6	RNE RADIO 1	DONOSTIA IGELDO	P	Foruak 2, 20005 – Donostia
88.1	SER RADIO IRUN	IRUN	C	Jaizkibel, 18, 20301-Irun
88.5	COPE SAN SEBASTIAN	DONOSTIA	C	Mirakruz, 9, 20001-Donostia
88.7	RNE RADIO 1	AZKOITIA	P	
89.2	SEGURA IRRATIA	SEGURA	C	Esteban Zurbano 20, 20214-Segura
89.7	ARRATE IRRATIA	EIBAR	C	Arrate z/g, 20600 – Eibar
90.0	RNE RADIO CLÁSICA	JAIZKIBEL	P	Madrid
90.	EUSKADI GAZTEA		P	Miramon Pasealekua, 172,20014-Donostia. <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
90.4	RADIO EUSKADI	TOLOSA	P	Miramon Pasealekua, 172,20014-Donostia. <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
90.4	RADIO EUSKADI	ZARAUZ	P	
90.5	EUSKADI IRRATIA	EIBAR	P	Miramon Pasealekua, 172,20014-Donostia. <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
90.5	RADIO EUSKADI	IGELDO MENDIA	P	
90.8	EUSKADI IRRATIA	BEASAIN	P	
90.9	EITB IRRATIA	JAIZKIBEL	P	Miramon Pasealekua, 172,20014-Donostia. <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
91.5	KISS FM	DONOSTIA	C	Askatasunaren Hiribidea 17,6.a , 20004-Donostia
91.9	RADIO PAÍS VASCO	DONOSTIA	L	Secundino Esnaola 10, 20001-Donostia
92.1	RNE RADIO 3	JAIZKIBEL	P	Madrid
92.4	EUSKADI GAZTEA	ELOSU	P	
92.5	RADIO ALDAMAR	DONOSTIA	L	Aldamar 22, 2.a ezk., 20003-Donostia
92.8	EUSKADI GAZTEA	TOLOSA	P	
92.9	RNE RADIO 1	EIBAR	P	
93.3	RNE RADIO 5	DONOSTIA – ULIA M.	P	Foruak 2, 20005 – Donostia
93.6	ARRATE IRRATIA	EIBAR - ARRATE	C	
93.6	EUSKADI IRRATIA	ELOSU	P	
94.4	EUSKADI IRRATIA	JAIZKIBEL	P	
94.9	RNE RADIO 3	BEASAIN	P	Madrid
95.2	EUSKADI IRRATIA	IGELDO MENDIA	P	
95.7	RADIO EUSKADI	ELOSU	P	
95.9	RNE RADIO 3	EIBAR	P	
96.0	RNE RADIO 3	TOLOSA	P	
96.5	RADIO EUSKADI	JAIZKIBEL	P	
97.2	LOS 40 PRINCIPALES	DONOSTIA IGELDO M.	C	Askatasunaren Hiribidea 17 – 5.a, 20004 – Donostia
97.2	TXAPA IRRATIA (97.0)	BERGARA	L	174. posta-kutxatila, 20570 – Bergara
97.5	FORMULA HIT GUIPUZCOA	EIBAR	C	Mataxaria 2, 3.a , 20600 – Eibar. <a href="http://www.hitguipuzcoa.com/">http://www.hitguipuzcoa.com/</a>
97.9	EUSKADI IRRATIA	TOLOSA	P	
98.0	CADENA 100 SAN SEBASTIAN	DONOSTIA	C	Mirakruz 9, 20001 – Donostia
98.2	RADIO EUSKADI	EIBAR	P	
98.4	RNE RADIO CLÁSICA	BEASAIN	P	
98.5	RADIO DONOSTI	DONOSTIA	L	Mirakruz 19, 1º-D, 20001- Donostia
98.7	RNE RADIO CLÁSICA	EIBAR	P	
98.8	RNE RADIO CLÁSICA	TOLOSA	P	
98.9	RNE RADIO 3	DONOSTIA – ULIA M.	P	
99.2	RADIO MASTER	EIBAR	L	«taller de radio» Otaola 29, 20600 – Eibar. <a href="http://pagina.de/radiomaster">http://pagina.de/radiomaster</a>
99.2	MOLOTOFF IRRATIA	HERNANI	L	Sagastialde 16, Hernani. <a href="http://members.es.tripod.de/sound_selektek/sound_system.htm">http://members.es.tripod.de/sound_selektek/sound_system.htm</a>
99.3	ZIRIKA IRRATIA	IDIAZABAL	L	Kultur etxea, 20213-Idiazabal
99.5	RNE RADIO CLASICA	IGELDO MENDIA	P	
99.5	MOLOTIL IRRATIA	EIBAR	L	
99.8	HERRI IRRATIA LOIOLA	LOIOLA	C	Loiola Santutegia, 20730-Azpeitia. <a href="http://www.herri-irratia.com/">http://www.herri-irratia.com/</a>
100.0	ZINTZILIK IRRATIA	ERRETERIA	L	275. posta-kutxatila, 20100-Erretereria. <a href="http://www.sindominio.net/zintzilik/">http://www.sindominio.net/zintzilik/</a>
100.2	RNE RADIO 1	BEASAIN	P	
100.3	PLANET RADIO	DONOSTIA	L	Lizardi, 7
100.7	RADIO BAHÍA	LASARTE-ORIA	L	Oriamendi Enparantza 2 behe, 20160-Lasarte-Oria. <a href="http://www.radio-bahia.org/">http://www.radio-bahia.org/</a>
101.1	ONDA CERO RADIO	EIBAR	C	Urtzailea 1, 1.a. 20600-Eibar (Aurrera eraikina)
101.9	RNE RADIO 1	TOLOSA	P	Easo 12, 20006-Donostia
102.0	RADIO OÑATI	OÑATI	M	
102.5	ONDA CERO RADIO	DONOSTIA	C	
102.7	EUSKADI GAZTEA		P	
102.9	EUSKADI GAZTEA	BEASAIN	P	
103.1	EUSKADI GAZTEA		P	
103.5	EUSKADI GAZTEA	JAIZKIBEL	P	
103.7	KAKA FLASH IRRATIA (104.4)	AZPEITIA	L	149. posta-kutxatila, 20730 – Azpeitia
103.8	BELLARI IRRATIA	OÑATI	L	
104.0	COPE RADIO ESTUDIO	EIBAR	C	Zezen bide kalea 7, 20600-Eibar. <a href="http://www.radioestudio.com/PRIN3.HTM">http://www.radioestudio.com/PRIN3.HTM</a>
104.1	RADIO JI	DONOSTIA	C	
104.7	RNE RADIO 1	JAIZKIBEL	P	
104.9	RNE RADIO CLÁSICA	AZKOITIA	P	
105.0	SORGINA IRRATIA	ARRASATE	L	
105.0	ARRASATE IRRATIA	ARRASATE	M	
105.0	ARLOTE IRRATIA	ORDIZIA	L	20240 – Ordizia
105.4	ERRETERIA IRRATIA	ERRETERIA	L	Herriko Kultur Zentroa
105.5	.ZAZPIKI IRRATIA (107.6)	ELGOIBAR	L	70. posta-kutxatila, 20870-Elgoibar
105.7	RADIO EUSKADI	BEASAIN	P	
105.9	EUSKADI IRRATIA	ZARAUZ	P	
106.2	RADIO INTERECONOMIA	DONOSTIA	C	Zuatzu Parkea1, 20009-Donostia
106.8	TTAN TLAKUN IRRATIA	DONOSTIA	L	Karmengo Ama 60, 20012 – Donostia. <a href="http://ttantakun.cjb.net/">http://ttantakun.cjb.net/</a>
106.9	RNE RADIO 3	AZKOITIA	P	
107.0	GOIKO IRRATIA	¿TOLOSA?	L	
107.0	UDAL IRRATIA	ERRETERIA	M	Parkea 4, behe, Villacristal eraikina, 20100-Erretereria
107.2	ITZURUM IRRATIA	ZUMAIA	L	Pantxika Etxezarreta 4, 20750-Zumaia
107.4	RADIO CASARES	ALTZA	L	Casares Kultur Etxea, Darieta 1, 20017-Donostia. <a href="http://pagina.de/komunicasares">http://pagina.de/komunicasares</a>
107.5	LOATZO IRRATIA	VILLABONA	L	
107.5	TXOLARRE IRRATIA	TOLOSA	L	
107.5	LIB.IRRINTZI IRRATIA	ASTIGARRAGA	L	Kultur etxea, Nagusia kalea 46, 20115-Astigarraga
107.7	TALLER RADIO	DONOSTIA	L	Buztintxulo 12 behe, eskuina, Donostia. <a href="http://www.estación.de/otxoki">http://www.estación.de/otxoki</a>
107.7	ARRASATE IRRATIA	ARRASATE	M	
107.9	URDIN IRRATIA	PASAIA	L	Nafarroa Etorbidea 4 behe, 20110-Pasai Antxo

BIZKAIA				
DIALA	EMISOREA	ANTENA	MOTA	HELBIDEAK
87.6	GETXO IRRATIA	GETXO	M	Urgull 2, 48990-Getxo
87.9	EUSKADI GAZTEA	BILBO	P	Gran Vía 85, 1.a , 48011-Bilbo <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
88.0	RADIO NERVION	BILBO	C	Hurtado de Amezaga, 27 – 17. pisua, 48008-Bilbo <a href="http://www.radionervion.com/">http://www.radionervion.com/</a>
88.3	CADENA DIAL ONDAVASCA	GERNIKA	C	Arriazuako errepidea 7 behe, 48300-Gernika
88.6	CADENA DIAL (kostarako relay)	GERNIKA	C	
88.9	EUSKADI IRRATIA	BILBO-GANETA	P	Gran Vía 85, 1.a , 48011-Bilbo <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
89.5	LOS 40 PRINCIPALES	BILBO	C	Epaiza 8, 48007 – Bilbo
90.0	MOZOILO IRRATIA	GALDAKAO	L	Gurutzeko Enparantza z/g,48960-Galdakao <a href="http://www.navegalia.com/hosting/000af/mozoiloirratia/">http://www.navegalia.com/hosting/000af/mozoiloirratia/</a>
90.1	EUSKADI IRRATIA	BERMEO	P	
90.1	LA SIEBE IRRATIA	BARAKALDO	C	Okeluri 22 behe ezkerre, 48903-Barakaldo <a href="http://www.galeon.com/siebecinemax/">http://www.galeon.com/siebecinemax/</a>
90.6	RNE. RADIO CLÁSICA	ARTXANDA	P	Madrid
91.2	EUSKADI GAZTEA	OIZ MENDIA-DURANGO	P	
91.7	RADIO EUSKADI	BILBO-GANETA	P	Gran Vía 85, 1.a , 48011-Bilbo <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
92.2	RADIO POPULAR DE BILBAO	BILBO	C	Mazarredo, 47 – 7. oina, 48009- Bilbo
92.4	RADIO EUSKADI	BERMEO	P	
92.5	BIZKAIA IRRATIA	ONDARROA	C	Fontecha y Salazar 9 – 5, 48007-Bilbo
92.7	RADIO 7	BARAKALDO	C	Karranzairu 6 – 1.a ezkerre, 48901-Barakaldo <a href="http://www.jet.es/mundo/radio7/">http://www.jet.es/mundo/radio7/</a>
93.2	CADENA DIAL EUSKADI	GETXO	C	Epalza 8, 48007-Bilbo
93.6	EUSKADI GAZTEA	BALMASEDA	P	
93.9	RNE RADIO CLÁSICA	SOLLUBE	P	
94.2	CADENA 100 BILBAO (Top Radio)	BILBO	C	Gordoniz 44, oina. 12, 8. dpta, 48002-Bilbo <a href="http://www.topbilbao.com/">http://www.topbilbao.com/</a>
94.4	Emisore librea, rock musika	¿BILBO?	L	
94.7	EUSKADI GAZTEA	BILBO-GANETA	P	
95.1	OYE RADIO	BASAURI	C	Bilbo-Donostia errepidea, 6. km, 48970-Basauri
95.2	EUSKADI IRRATIA	KARRANTZA	P	
95.4	RNE RADIO 3	SOLLUBE	P	
95.7	RADIO EUSKADI	BALMASEDA	P	
96.0	BILBO HIRIA IRRATIA	BILBO	L	San Bizente, 2 , 48001-Bilbo
96.3	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	ARTXANDA	P	Poza lizentziatua, 15 – 5.a, 48011-Bilbo
96.6	RADIO EUSKADI	KARRANTZA	P	
96.7	BIZKAIA IRRATIA	GERNIKA	C	
96.8	EUSKADI GAZTEA	BERMEO	P	
97.0	TAS-TAS IRRATIA LIBREA	BILBO	L	Prim kalea 41, 4 ez.ez, 48006-Bilbo, 5137 posta-kutxatila. <a href="http://www.tas-tas.org/">http://www.tas-tas.org/</a>
97.0	STEREO LATINO URIBE COSTA	SOPELA	C	
97.3	BIZKAIA IRRATIA	ELORRIO	C	
97.3	FORMULA HIT VIZCAYA	PORTUGALETE	C	Alonso Allende auzea 21, 48920 – Portugalete <a href="http://www.formulahit.com/">http://www.formulahit.com/</a>
97.4	BIZKAIA IRRATIA)	BERMEO, AMOROTO	C	
97.4	EUSKADI IRRATIA	BALMASEDA	P	
97.8	COPE BILBAO	BILBO	C	Jesusen Bihotza 5, 48011 – Bilbo <a href="http://www.bilbaoweb.com/cadena100/">http://www.bilbaoweb.com/cadena100/</a>
98.1	BIZKAIA IRRATIA	LEKEITIO	C	
98.4	RADIO MARCA (Europa FM)	BARAKALDO	C	Hurtado de Amezaga 27, 1., 48008-Bilbo
98.8	M 80 RADIO	BILBO	C	Epalza 8, 48007 – Bilbo
99.2	RNE RADIO 3	ARTXANDA	P	Madrid
99.7	KISS FM	BILBO	C	Hurtado de Amezaga 27, 1., 48008-Bilbo
100.1	EITB IRRATIA	BILBO	P	Gran Vía 85, 1.a , 48011-Bilbo <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
100.2	EUSKADI GAZTEA	KARRANTZA	P	Gran Vía 85, 1.a , 48011-Bilbo <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
100.4	Identifikaziorik gabeko musika	BILBO	L	
100.7	RNE RADIO 1	ARTXANDA	P	Poza lizentziatua 15, 5.a , 48011-Bilbo
101.1	BIDEBIETA IRRATIA	BASAURI	L	Arizgoiti Plaza, z/g, 48970-Basauri, 42. posta-kutxatila, 48970-Basauri
101.5	ONDA CER O RADIO	BILBO	C	Hurtado de Amezaga,27, 1.a, 48008-Bilbo
101.9	ZOPINKA IRRATIA	LUTXANA	L	Zopinpa Elkarte, Artzain Ona, 58 behe, <a href="http://www.euskalnet.net/jmsoft/zopinpa">http://www.euskalnet.net/jmsoft/zopinpa</a>
102.1	RNE RADIO 3	OIZ MENDIA-DURANGO	P	
102.6	BIZKAIA IRRATIA	BILBO	C	
102.9	GORDEXOLA AURRERA IRRATIA	GORDEXOLA	M	Santa Isabel Komentua
103.0	RADIO TROPICAL (es.102.9)	¿BILBO?	C	
103.2	RADIO EUSKADI	OIZ MENDIA-DURANGO	P	Gran Vía 85, 1.a, 48011-Bilbo <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
103.7	RADIO INTERECONOMIA	BILBO	C	
104.4	EUSKADI IRRATIA	OIZ MENDIA-DURANGO	P	
104.8	RADIO ECONOMIA	MUNGIA	C	Mazarredo 25, 48009-Bilbo <a href="http://www.radioeconomia.es/">http://www.radioeconomia.es/</a>
104.9	BIZKAIA IRRATIA	ZORNOTZA	C	
105.0	TXANTXIBIRI IRRATIA	ELORRIO	L	18. posta-kutxatila, 48230-Elorrio
105.2	ITSUKI IRRATIA	BERMEO	L	Anasagastitar Teodoro z/g, 48370-Bermeo <a href="http://www.euskalnet.net/itsuki/index.htm">http://www.euskalnet.net/itsuki/index.htm</a>
105.3	RNE RADIO CLÁSICA	OIZ MENDIA-DURANGO	P	
105.5	TOP RADIO ABANTO	ABANTO	C	El Minero 5 tarteko oina, 48500-Abanto
105.5	RADIXU IRRATIA	ONDARROA	L	Unanue Plaza 1, 4.a, 48700-Ondarroa
105.9	RNE RADIO 1	SOLLUBE	P	
106.0	ARRAKALA IRRATIA	LEKEITIO	L	Kultur etxea, Resurrección María de Azkue kalea, 48280-Lekeitio <a href="http://www.geocities.com/Heartland/Pond/5468/">http://www.geocities.com/Heartland/Pond/5468/</a>
106.4	RNE RADIO 1	OIZ MENDIA-DURANGO	P	
106.7	GRAN BILBO RADIO	BILBO	L	Navarro Villoslada 2, 48011-Bilbo
107.0	PITITAKO IRRATIA	SANTURTZI	L	Vallejo 4, 48980-Santurtzi, 113. posta-kutxatila <a href="http://www.sindominio.net/pititako/">http://www.sindominio.net/pititako/</a>
107.2	GAMBARA IRRATIA	MARKINA-XEMEIN	L	
107.2	RADIO INDAUTXU	BILBO	E	Begoñako Andre Maria Eskola, Areizla Dokorea 32, 48010-Bilbo <a href="http://www.galeon.com/rindautxu/">http://www.galeon.com/rindautxu/</a>
107.2	Udal irrati	TURTZIOZ	M	
107.2	KLARET IRRATIA	BILBO	L	Mariaren Bihotza Plaza 1, 48003-Bilbo <a href="http://www.paisvirtual.com/gente/grupos/klaret/klaret.htm">http://www.paisvirtual.com/gente/grupos/klaret/klaret.htm</a>
107.4	HIKA IRRATIA	MUSKIZ	L	
107.5	IROLA IRLA IRRATIA	BILBO	L	6172. posta-kutxatila, 48080-Bilbo <a href="http://www.sindominio.net/irola/">http://www.sindominio.net/irola/</a>
107.7	RADIO ESPERANZA	¿BILBO?	L	
107.8	DURANGO IRRATIA	DURANGO	M	Pinondo lorategiak 1, 48200-Durango
107.8	GORLIZ IRRATIA	GORLIZ	M	Taberne Aurre 1 behe, 48630 – Gorliz <a href="http://www.euskalnet.net/irratia/">http://www.euskalnet.net/irratia/</a>
107.8	ERREKA IRRATIA	BILBO	L	Gazteleku Kultur Elkarte, Altubeko Partikularra z/g,48002-Bilbo
108.0	RADIO ILOTZ IRRATIA	DERIO	L	Gorbea Kalea 2 behe, Gazteleku, 48160-Derio
¿?	TXORIERRI IRRATIA	DERIO	E	Politeknika ikastegia Txoierrri, Untzaga Ibaia kalea, 1 , 48160-Derio

NAFARROA				
DIALA	EMISOREA	ANTENA	MOTA	HELBIDEAK
87.8	RADIO NAVARRA COPE	ALTSASU	C	Kaletxiki 3, 31800-Altsasu
87.9	CADENA 100 NAVARRA	IRUÑEA	C	Amaya 2, 1.a, 31002-Iruñea
88.2	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	LEITZA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
88.3	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	TUTERA (Canraso mendia)	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
88.3	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	ZUDAIRE	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
88.3	RNE RADIO 1	GORRAMENDI	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
88.6	RNE RADIO 1	LEIRE (Arangoiti)	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
89.0	RNE RADIO 1	LIZARRA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
89.3	KISS FM PAMPLONA	IRUÑEA	C	Gaztelu Enparantza 43 bis, 5.a, 31001-Iruñea
89.5	RADIO NAVARRA COPE	LIZARRA	C	Karlos II.a Gaiztoa 7, behe, 31200-Lizarr
89.6	RNE RADIO 1	IBANETA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
89.8	RNE RADIO 3	LEITZA	P	Madril
90.3	RNE RADIO1	IZABA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
90.4	SER RADIO TUDELA	TUTERA	C	Díaz Bravo 1, 31500-Tutera
90.4	ESC.EMISORA ESCOLAR	ALTSASU	E	Iñigo Arista Ikastola
90.5	RNE RADIO CLÁSICA	LEIRE (Arangoiti)	P	Madril
90.6	RNE RADIO 1	LESAKA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
90.9	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	LIZARRA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
91.0	EUSKADI IRRATIA		P	Tomás Caballero Parkea 2, 31005-Iruñea <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
91.3	RADIO NAVARRA COPE	ELIZONDO	C	Santiago 58, 1.a, 31700 – Elizondo
91.3	RNE RADIO 3	TUTERA (Canraso mendia)	C	Madril
91.4	EUSKALERRIA IRRATIA	IRUÑEA	L	Iratxeko Monasterioa 45, 13.a, 31011-Iruñea
91.8	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	IZABA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
91.9	RNE RADIO CLÁSICA	LEITZA	P	Madril
91.9	RNE RADIO CLÁSICA	ZUDAIRE	P	Madril
92.2	LOS 40 PRINCIPALES	IRUÑEA	C	Yanguas y Mirandas 17, 31002-Iruñea
92.6	EUROPA - FM	ZANGOZA	C	
93.0	RNE RADIO 3	ELO	P	Madril
93.5	ONDA CERO RADIO	LIZARRA	C	Herreros 6, tarteko oina, 31200 – Lizarr
93.4	RNE RADIO CLÁSICA	MUSKILDA	P	Madril
93.8	RNE RADIO CLÁSICA	IBANETA	P	Madril
93.9	SER TAFALLA	TAFALLA	C	Turrumbal 1, 31300-Tafalla
94.2	ONDA CERO RADIO	IRUÑEA	C	Gaztelu Enparantza 43 behe, 31002- Iruñea
94.8	RNE RADIO CLÁSICA	LESAKA	P	Madril
94.9	RADIO NAVARRA COPE	IRUÑEA	C	Diario de Navarra eraikina, Zaragozako errepidea, 3,31101- Cordovilla
95.0	EUSKADI IRRATIA	BAZTAN	P	Tomás Caballero Parkea 2, 31005-Iruñea <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
95.1	RNE RADIO CLÁSICA	IZABA	P	Madril
95.7	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	ELO	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
95.9	RNE RADIO 3	MUSKILDA	P	Madril
95.9	Etor kizuneko emisorea	TUTERA		
96.3	CADENA DIAL NAVARRA	TAFALLA	C	Recoletos 12, 31300-Tafalla
96.7	RNE RADIO 1	SAN MIGEL, ARALAR	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
97.0	RNE RADIO 3	LESAKA	P	Madril
97.5	RNE RADIO CLÁSICA	ELO	P	Madril
97.8	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	MUSKILDA	P	Agoitz 17, 31004-Iruñea
97.8	RADIO EUSKADI	BAZTAN	P	Tomás Caballero Parkea 2, 31005-Iruñea <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
98.0	LIB.TXANTREA IRRATIA	IRUÑEA(Txantrea)	L	Etxarri Aranatz, z/g, 31015 – Auzotegi-Iruñea
98.3	RADIO UNIVE. DE NAVARRA	IRUÑEA	C	Nafarroako Unibertsitatea, Gizarte Zientzien Eraikina, Unibertsitate Campusa z/g, 31080-Iruñea
99.0	RNE RADIO CLÁSICA	GORRAMENDI	P	Madril
99.2	EUROPA FM PAMPLONA	IRUÑEA	C	Nafarroako Gorteak 1, 1.a , 31001 – Iruñea
99.4	ONDA CERO RADIO	TUTERA	C	Zaragoza Etorbidea 27, 1.a, 31500-Tutera
99.6	RNE RADIO 3	LEIRE (Arangoiti)	P	Madril
100.0	RNE RADIO CLÁSICA	SAN MIGEL, ARALAR	P	Madril
100.6	RNE RADIO 3	GORRAMENDI	P	Madril
100.7	RNE RADIO 3	ZUDAIRE	P	Madril
100.8	BERRIOZARKO IRRATIA	BERRIOZAR	M	Artekale 14 behe, 31195 – Berriozar <a href="http://www.arrakis.es/zartako/">http://www.arrakis.es/zartako/</a>
100.9	RNE RADIO 1	TUTERA (Canraso mendia)	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
101.0	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	LEIRE (Arangoiti)	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
101.2	RNE RADIO CLÁSICA	LIZARRA	P	Madril
101.6	TRAK FM	IRUÑEA	L	Bernardino Tirapu 32, 31014 – Iruñea <a href="http://www.unav.es/digilab/proyectosda/2001/trakfm/">http://www.unav.es/digilab/proyectosda/2001/trakfm/</a>
101.7	RNE RADIO 1	ZUDAIRE	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
101.9	LIB. GARRAXI IRRATIA	ALTSASU	L	102. posta-kutxatila, 31800 – Altsasu <a href="http://www.sindominio.net/garraxi/">http://www.sindominio.net/garraxi/</a>
101.9	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	IBANETA	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
102.2	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	LESAKA	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
102.2	RNE RADIO CLASICA	TUTERA (Canraso mendia)	P	Madril
102.2	RNE RADIO 1	LEITZA	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
102.3	RNE RADIO 1	MUSKILDA	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
102.5	RNE RADIO 1	LA PLANA (Kalagorri)	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
102.5	ESC.EMISORA ESCOLAR	IRUNBERRI	E	Ikastola Arangoiti
102.7	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	SAN MIGEL, ARALAR	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
103.0	RNE RADIO 3	IZABA	P	Madril
103.1	RADIO NAVARRA COPE	TUTERA	C	Pablo Sarasate 13, 31500-Tutera
103.4	RNE RADIO 3	IBANETA	P	Madril
103.9	LIB. EZTANDA IRRATIA	ITURMENDI	L	Arano Beltza Enparantza 3 , 31810-Iturmendi
103.9	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	GORRAMENDI	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
104.2	RADIO EUSKADI ¿??	¿HUARTE?	P	Tomás Caballero Parkea 2, 31005-Iruñea <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
104.3	RNE RADIO 5 TODO NOTICIAS	LA PLANA (Kalagorri)	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
104.5	LIB.EGUZKI IRRATIA	IRUÑEA	L	2105. posta-kutxatila, 31080-Iruñea <a href="http://www.eguzki.net/">http://www.eguzki.net/</a>
104.7	RADIO NAVARRA COPE	AZKOIEN	C	Angel Dabán 33, 31350-Azkoien
105.6	NET 21 RADIO	IRUÑEA	C	Nafarroako Gorteak 7, 7.a ezk., 31002-Iruñea <a href="http://www.net21radio.com/">http://www.net21radio.com/</a>
105.7	RADIO EUSKADI	TUTERA	P	Tomás Caballero Parkea 2, 31005-Iruñea <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
106.1	RNE RADIO 1	ELO	P	Agoitz 17, 31004 – Iruñea
107.0	LIB.BELEIXE IRRATIA	ETXARRI ARANATZ	L	
107.1	MUN.RADIO LEKUNBERRI	LEKUNBERRI	M	
107.2	XORROXIN IRRATIA (107.5)	LESAKA	C	Iparburu bidea z/g, 31712-Irurita
107.2	LIB.ZARATA IRRATIA	IRUÑEA	L	3272. posta-kutxatila, 31080-Iruñea

NAFARROA				
DIALA	EMISOREA	ANTENA	MOTA	HELBIDEAK
107.2	MUN.ONDA RIBERA RADIO	FONTELLAS	M	Foruen Plaza 17, 31512 – Fontellas
107.3	KARRAPE IRRATIA	LEITZA	L	
107.3	MUN.ARALAR IRRATIA	LEKUNBERRI	M	
107.4	RLG. RADIO MARIA ESPAÑA	ANDOSILLA	C	
107.4	ESC. EMISORA ESCOLAR	FONTELLAS	E	
107.5	LIB.SANDUZELAI IRRATIA	IRUÑA	L	
107.5	XORROXIN IRRATIA (107.2)	IRURITA	C	
107.7	LIB.EXTRA RADIO	IRUÑA	L	
107.7	Etorkez. Udal Irratia	SAN ADRIAN	M	
107.9	Etorkez. Udal Irratia	MARCILLA	M	
107.9	UDAL...ESAN ERRAN IRRATIA	JAUNTSARAS	M	
	ESC. ERENTZUN IRRATIA	BIANA	E	Udaletxea Erentzun ikastola <a href="http://www.ikastola.net/ikasweb/biana/radio.htm">http://www.ikastola.net/ikasweb/biana/radio.htm</a>

ARABA					
DIALA	EMISOREA	ANTENA	MOTA	HELBIDEAK	
89.9	RADIO EUSKADI	HERRERA MENDATEA	P	Domingo Martínez de Aragón 5-9, 01006 – Gasteiz <a href="http://www.eitb.com">http://www.eitb.com</a>	
88.2	SER VITORIA	GASTEIZ	C		
89.4	RNE RADIO 5	ZALDIARAN	P		
89.7	RADIO EUSKADI	AMURRIO	P		
90.1	RADIO EUSKADI	IOAR	P		
90.9	RADIO EUSKADI	ZALDIARAN	P		
92.5	RNE RADIO 1	ZALDIARAN	P		
92.8	EUSKADI IRRATIA	AMURRIO	P		
93.1	RADIO GORBEA	GASTEIZ	C		
93.3	RNE RADIO 5	SAN LEÓN	P		
94.0	EUSKADI IRRATIA	HERRERA MENDATEA	P		
95.0	EUSKADI IRRATIA	ZALDIARAN	P	Bolborategi zaharra 4, 01003 – Gasteiz <a href="http://www.radiogorbea.com/">http://www.radiogorbea.com/</a>	
96.1	EUSKADI GAZTEA	ZALDIARAN	P		
96.2	RADIO EUSKADI	ESTIBALIZ	P		
96.5	HALA BEDI IRRATIA (errepikagailua)	AIARA HARANA	L		
96.9	RNE RADIO CLÁSICA	ZALDIARAN	P		
97.3	CADENA 100 VITORIA	GASTEIZ	C		
98.0	RADIO POPULAR LOYOLA	GASTEIZ	C		
98.5	EUSKADI IRRATIA	IOAR	P		
98.8	M 80 RADIO LLODIO	LAUDIO	C		
99.1	EUSKADI GAZTEA	SAN LEÓN MENDIA	P		
99.5	RNE RADIO 3	ZALDIARAN	P		
100.4	LOS 40 PRINCIPALES VITORIA	GASTEIZ	C	Aitzogileen kalea, 83,1.a,01001-Gasteiz <a href="http://www.halabedi.org/">http://www.halabedi.org/</a> Madril	
101.0	COPE VITORIA	GASTEIZ	C		
101.7	RADIO VITORIA	AMURRIO	P		
101.9	HALA BEDI IRRATIA (errepikagailua)	SAKANA	L		
101.9	RADIO VITORIA	AMURRIO	P		
102.4	ONDA CERO RADIO	GASTEIZ	C		
102.8	RADIO VITORIA	HERRERA MENDATEA	P		
102.8	RADIO VITORIA	HERRERA MENDATEA	P		
103.4	EITB IRRATIA	GASTEIZ	P		
104.1	RADIO VITORIA	ZALDIARAN	P		
104.8	RKM VITORIA	GASTEIZ	L		
104.9	EUSKADI GAZTEA	AMURRIO	P	San Prudentzio, 8-A, 5.a ,01005-Gasteiz	
105.0	EUSKADI GAZTEA	IOAR	P		
105.6	RADIO INTERECONOMÍA	GASTEIZ	C		
105.8	R. RIOJA ALAVESA (R. VITORIA)	LAGUARDIA	C		
106.5	RADIO VITORIA	IOAR	P		
106.7	KISS FM VITORIA	GASTEIZ	C		
107.4	HALA BEDI IRRATIA	GASTEIZ	L		
107.5	M 80 RADIO (98.8ren errepikagailua)	AMURRIO	C		
107.7	HALA BEDI IRRATIA (errepikagailua)	HERRERA	L		
					Domingo Martínez de Aragón 5-9, 01006 – Gasteiz <a href="http://www.eitb.com/">http://www.eitb.com/</a>
					José Lejarreta 11, 01003 – Gasteiz <a href="http://www.remar.org/MEDIOSDECOMUNICACION.htm">http://www.remar.org/MEDIOSDECOMUNICACION.htm</a>
				Diputazio etorbidea z/g, 01300-Biastei <a href="http://www.radioriojalavesa.com/">http://www.radioriojalavesa.com/</a>	
				San Prudentzio 8-A,5.a, 01005-Gasteiz	
				Industrialdea, Zeramika eraikina, 3.a,01400- Laudio <a href="http://www.laudio.com/index2.htm">http://www.laudio.com/index2.htm</a>	

# ENTZULERIAREN BILA



## ENTZULERIAREN NEURKETA ETA MERKATU AZTERKETAK

Publizitateak eskaintzen duen finantza euskarria. Publizitateak eragindako sarrerak finantzaketa iturri sendoa diren neurrian, non eta ez diren iturri behinena edo bakarra, entzuleria neurtzeko lanabesak edukitzeko eta merkatu azterketak egiteko beharrak gora egin du, garrantziari dagokionez.

### ■ PUBLIZITATEZKO FINANTZA EUSKARRIA

Irrati-difusioko enpresetako kudeaketa eta finantzaketa metodoetan beste garai batean ezarpen, errekonozimendu eta arrakasta handia izan zuten entzule, bazkide eta abonatuak elkarrekin sortzeko ekimenen aurrean, gaur egungo irratia oinarri nagusia publizitateko sarrerak eskuratzea edo finantzaketa mistorako sistemak garatzea da, batik bat; azken hauetan, publizitateak eragindako sarrerekin batera, ustiapen-aurrekontuaren zati bat administratzeatik, erakunde publikoetatik edo enpresetatik dator, hauek kate edo irratia-emisore jakin batzuk bultzatzea erabaki dutelarik.

### ■ ENTZULERIA NEURTzea ETA MERKATU AZTERKETAK

Edonola ere, publizitateak eragindako sarrerak finantzaketa iturri sendoa diren neurrian, non eta ez diren iturri behinena edo bakarra, entzuleria neurtzeko lanabesak edukitzeko eta merkatu azterketak egiteko beharrak gora egin du, garrantziari dagokionez. Espainiar estatuan 60ko hamarkadan zehar instalatzen hasi ziren kontsumoko produktuen lehenbiziko multinazionalak heldu zirelarik, departamentu komertzialek behin eta berriz azpimarratu zuten hedabideei buruzko kontsumo azterketak eduki behar zituztela, hain zuzen beren publizitate kanpainak

eraginkortasun eta eragimen irizpideetatik antolatu ahal izateko. Izan ere dagoeneko horrelakoetara ohituta zeuden, esate baterako, Iparramerikako merkatuan, era honetako azterketetan aitzindaria baitzen hura, eta dagoeneko urte asko zeramaten eguneko irratia-kontsumoa neurtzeko metodoak aplikatzen.

#### ● O.J.D. ZABALKUNDEA JUSTIFIKATZEKO BULEGOA

Espainiar estatuan 1964an egin zuten **entzuleriari buruzko lehenbiziko azterketa**, OJD, *Oficina de Justificación de la Difusión* delakoa eratu eta hilabete gutxira. Nazioarteko elkarte hau

Frantzia sortu zuten 1922an, eta bere eginkizuna idatzizko prentsaren salmentak baloratzea eta egiaztatzea da.

Hedabideen entzuleriari buruzko azterketak zortzi agentziak eta bi iragarlek ostutako talde txiki baten bultzada izan zuten, eta ECO enpresak burutu zuen, 15.000 inkestaz osaturiko lagin baten bidez.

#### ● E.G.M. HEDABIDEEN AZTERKETA OROKORRA

**Ekimen aitzindari haren ondotik**, 1968an EGM, *Estudio General de Medios* jaio zen, entzuleriari buruzko aldian aldiko ikerkuntzarako sistema izateko asmoz.


Hasiera batean 21 enpresak sustatu eta ordaindu zuten, eta 1988an dagoeneko 68 enpresa zituela kide, Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación [AIMC] eratu zuten.

2002an guztira sektoreko 155 enpresa ziren elkarrekin kide, tartean zirela agentziak, hedabideen zentralak, gizarte edo publizitate-komunikazioko hedabideak, iragarleak eta komunikazioaren munduarekin lotutako beste hainbat erakunde.

#### IRRATI-KONTSUMOIA

Irrati-kontsumoari dagokionez, azterketak guztira 70.000 elkarriketa har tzen zituen oinarri; hauetatik 43.000 *face to face* eginikoak ziren, ordenagailuz lagundutako elkarriketa pertsonalak alegia, eta beste 27.000 horiek telefono bidezko elkarriketak ziren, ordenagailuz lagundutakoak horiek ere. Egin beharreko elkarriketa guztiak hiru multzotan banatzen ziren urtean zehar, eta urteko datu metatuak izaten ziren estatistika-balioa ematen zutenak. Espainiar estatu osoan egindako 70.000 elkarriketa horietatik, Euskal Autonomia Erkidegoari eta Nafarroari 4.384 zegozkien, 1.636 telefono bidez eginikoak eta 2.748 *face to face* eginak etxean bertan. 2002ko urteko metatuari buruzko datuen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako irratia-kontsumoari dagokionez azpimarratzekoa da Nafarroan biztanleetatik %55 baino gutxiago direla irratia egunero entzuten dutela diotenak, eta batez beste 91


### AUDIENCIA DE RADIO EN LA C.A.V. y NAVARRA



■ Total oyentes - CAV: 1.050.000
■ Total oyentes - Navarra: 241.000
□ Total oyentes en Onda Media - CAV: 416.000
□ Total oyentes en Onda Media - Navarra: 86.000
■ Total oyentes en Frecuencia Modulada - CAV: 891.000
■ Total oyentes en Frecuencia Modulada - Navarra: 216.000


### CONSUMO PROMEDIO DIARIO DE RADIO

Fuente: Estudio General de Medios - AEMC - 2001




### PENETRACION SOCIAL DE LOS MEDIOS - E.A.V. y NAVARRA

Fuente: Estudio General de Medios - AEMC - 2001



### EQUIPAMIENTO DE HOGARES

Fuente: Marco General de los Medios en España - AEMC - 2001



### Evolución audiencia grupo EITB

Fuente: CIES



EITB taldeak bere historia osoko entzule kopururik handiena eskuratu du.

ETB1 eta ETB2 telebista-kanalek eta lau irrati-emisoreek, hau da, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria eta Euskadi Gazteak, Euskadin aitzindaria den komunikazio-taldea osatzen dute.

EUSKO JAURLARITZAK 1992an EMAN ZITUEN FREKUENTZIEEN ZERRENDA		
	Eguno adierazlea	Emakidaduna
<b>SER CONVENCIONAL</b>		
	88,2 Ser Vitoria-Gasteiz	SER S.A.
	98,8 M 80 Laudio (A)15	Laudio Irratia S.A.
	88,1 Cadena Ser Irún (A)	José Antonio Lekuona Narvarte
	88,3 Onda Vasca Gernika (A)	Busturi Aldeko Irrati Ikastola S.A.
	93,2 Kosta Irratia Getxo (A)	Itxartu Komunikabideak S.A.
<b>SER MUSICA</b>		
	100,4 40 Principales (Gasteiz)	Avante Radio S.A.
	89,5 40 Principales (Bilbo)	SER S.A.
	97,2 40 Principales (Donostia)	SER S.A.
<b>ONDA CERO CONVENCIONAL</b>		
	102,4 Onda Cero Vitoria-Gasteiz	Editorial Iparragirre S.A.
	102,5 Onda Cero Donostia	Editorial Iparragirre S.A.
	101,5 Onda Cero Bilbao	Editorial Iparragirre S.A.
	101,1 Onda Cero Eibar	Sdad. Telecomunicaciones Donostiarra S.A.
	98,4 Europa FM Barakaldo	Fco. Gandoy
<b>ONDA CERO MUSICA</b>		
	106,7 Kiss Radio Vitoria-Gasteiz	Sdad. Telecomunicaciones Vasca S.A.
	91,5 Kiss Radio Donostia	Sdad Telecomunicaciones Donostiarra S.A.
	99,7 Kiss Radio Bilbao	Sdad. Telecomunicaciones Vasca S.A.
<b>COPE CONVENCIONAL</b>		
	101.0 Cope Vitoria-Gasteiz	Radio Popular S.A.
	103,7 Cope Bilbao (Correo)1	Radio Telebasconia S.A.
	104.0 Radio Estudio Eibar (A)	Iniciativas Desarrollo Comunicación S.A.
	88,5 Cope Donostia	Radio Popular S.A.
<b>COPE MUSICA</b>		
	105,6 Cadena 100 Vitoria(Correo)	Radio Telebasconia S.A.
	106,2 Cadena 100 Donostia (Correo)	Radio Telebasconia S.A.
	97,8 Cadena 100 Bilbao	Radio Popular S.A.
<b>NERVION S.A.</b>		
	88.0 Radio Nervión (Bilbo)	F.M. Nervión S.A.
	93.1 Radio Gorbea (Gasteiz)	Sdad. Geriatria y Gerontología del P.V.
<b>BIZKAIA IRRATIA</b>		
	96,7 Bizkaia Irratia (Aramaio)	Irratibide S.A.
	102,6 Bizkaia Irratia (Bilbo)	Irratibide S.A.
	98,1 Bizkaia Irratia Lekeitio	Irratibide S.A.
	96,7 Bizkaia Irratia Markina	Irratibide S.A.
	92,5 Bizkia Irratia Ondarr oa	Irratibide S.A.
<b>RADIO RIOJA ALAVESA</b>		
	105,8 Radio Rioja Alavesa (Biasteri)	Arabar Errioxako Mankomunitatea
<b>RADIO POPULAR</b>		
	98.0 Radio Popular-Herri Irratia-Araba	Loiolako Jesusen Lagundia
	99.8 Radio Popular-Herri Irratia-Loiola	Radio Popular - COPE
<b>ARRATE IRRATIA</b>		
	93.6 Arrate Irratia	Arrate Irratia S.L.
<b>SEGURA IRRATIA</b>		
	89.2 Segura Irratia	Radio Segura S.A.
<b>ORAIN S.A.</b>		
	103.0 Egin Irratia2	Orain S.A. (Footnotes)

<sup>1</sup> Grupo Correo eta COPEren arteko etena 2002ko udaberrian. Grupo Correo-ren irratiak Radio Intereconomía emititzen igaro ziren..

<sup>2</sup> 1998an utzi zion emititzeari, EGIN egunkaria itxi zutenean, Baltasar Garzón epailearen aginduz Audientzia Nazionalak emandako autoa betez.



CIES – NAFARROAKO HEDABIDEEN ENTZULERIARI BURUZKO AZTERKETAK 2002ko METATUA – GEHIEN ENTZUNDAKO IRRATIEN RANKINGA	
Entzuleak guztira:	241.000
Uhin Ertaineko entzuleak guztira:	86.000
Frekuentzia Modulatuako entzuleak guztira:	216.000
C40 Pamplona - SER - FM:	30.000
Pamplona UE/FM SER:	27.000
RNE-1 Navarra UE/FM:	27.000
Onda Cero - Pamplona FM:	26.000
COPE Navarra - Pamplona FM:	19.000
RNE-5 Navarra UE/FM:	18.000
Cadena 100 - Navarra FM:	16.000
Kiss Navarra:	15.000
Euskadi Irratia:	9.000
Tudela FM - SER:	8.000
Radio Euskadi UE/FM:	8.000
<i>Iturria: CIES - Estudios de opinión y mercado - 2002</i>	

CIES – EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEDABIDEEN ENTZULERIARI BURUZKO AZTERKETAK 2002ko METATUA – GEHIEN ENTZUNDAKO IRRATIEN RANKINGA	
Entzuleak guztira:	1.050.000
Uhin Ertaineko entzuleak guztira:	416.000
Frekuentzia Modulatuaren entzuleak guztira:	891.000
Radio Euskadi - UE/FM:	182.000
Radio Bilbao SER - UE:	138.000
Radio Nervión - FM	86.000
C40 Bizkaia - FM:	68.000
Euskadi Irratia:	62.000
Euskadi Gaztea	53.000
Radio San Sebastián SER - UE:	53.000
RNE-1 Bizkaia - UE/FM:	47.000
Onda Cero Bizkaia - FM:	42.000
C40 San Sebastián - FM:	38.000
Cpe Bilbao - FM:	36.000
Popular Gipuzkoa - FM/UE:	35.000
RNE-1 - UE/FM:	35.000
Radio popular de Bilbao:	34.000
<i>Iturria: CIES - Estudios de opinión y mercado – 2002</i>	

minutu ematen dituztela horretan; Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, berriz, eguneko batez besteko denbora 101 minutukoa da, eta 10 biztanleetatik 6 omen irradi-entzule.

■ C.I.E.S. MERKATU  
IRITZIARI BURLIZKO  
AZTERKETAK

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, gainera, baten entzuleriari buruzko beste azterketa bat 1984az gerotik, CIES, *Estudios de Opinión y de Mercado*-k urtero egina. Honetan irradiaren entzuleriari buruzko azterketa ere jasotzen zen, eta honen oinarrian oroitzen zaren metodoa zegoen, etxean ber tan *face to face* eginiko 7.564 inkestaz osatua [5.556 Euskal Autonomia Erkidegoan eta 2.008 Nafarroan], eta eskualdeen arabera laginketa-puntuaren aukeraketa aleatorioa eta udalerraren neurriaren araberako proportziokoa baliatuz.

Inkesta hauek sexu eta adin kuota batzuen arabera egiten zen, komunitate bietako 14 urtetik gorako egoiliarren artean, eta hedabide, publizitate agentzia, erosketa zentral, iragarle eta komunitate bietako erakunde asko eta askoren babesa izaten zuten.

Azterketa hau 1984an hasi ziren egiten, eta irratia 1984-2001 epean izan zuen entzuleriari buruzko urteko datuak alderatuz gero, beheranzko joera txiki bat sumatzen zen. 1984an Euskal Autonomia Erkidegoko 14 urtetik gorako pertsonetatik %64k zioen irradi-entzulea zela, eta 2001ean, berriz, kopurua %56koa zen. Beheranzko joera hori

nabarmenxeagoa zen Nafarroako Foru Komunitatean, 2001ean %50eko kopurua ematen baitzuen 1984an %64 zen bitartean.

■ U.E. ETA F.M.  
AURREZ AURRE

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, 2001ean, 14 urtetik gorako artean milioi bat berrehun eta hirurogeita bat mila pertsonak esan zuten ohiko irradi-entzule zirela, eta horietatik %84k Frekuentzia Modulatuia aukeratzeko zuten dialean irratia sintonizatzeko. Hau da, Uhin Ertaineko irradiaren entzuleriak beheranzko prozesu etengabearen segitzen du, Frekuentzia Modulatuia alderantzizko dielean abiatua delarik nabarmen.

Musika-irratien booma dagoeneko errealitate finkatu bat zenez jaiotako belaunaldi berriek apenas zuten Uhin Ertainaren izatearen berri. Gizon eta emakumezkoen artean hedabidearekiko zaletasun eta fideltasuna erdibana zegoen banatuta, eta 36 eta 55 urte bitarteko artean irradi-entzuleak askoz gehiago ziren oso gazteen edo urtetsuagoen artean baino.

Eta, halaber, ikusten zen proportzioan bazela halako joera handiago bat pertsona euskaldunen artean irratia eguneroko entzuteko, gaztelaniadun elebakarren artean baino. Datu absolutuetan, euskaraz behar adina moldatzen zirela zioten irradi-entzule guztien artean hirurehun eta hogeita mila [320.000] Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden, eta berrogei mila [40.000] Nafarroako Foru Komunitatean.

■ E.I.T.B. ETA S.E.R

Euskal Autonomia Erkidegoko irradiaren dialean finkatutako irradi-emisore guztien programa-eskaintzan, bi talde nabarmen ziren beste guztien gainetik CIES-en 2002ko azterketan, bere produktuetan guztira lortu zituzten entzule-kopuru metatuei begira.

Alde batetik, EITB-ren irradi-taldeak, izaera publikoko irratiei dagokienez, 5 produktu desberdin eskaintzen zituen [Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, Radio Vitoria eta EITB-radio].

Bestetik, SER katea zegoen, irradi komertzial eta estatu mailako estaldurako artean, nagusiki bere bi programazio ildoekin, konbentzionalarekin eta *Los 40 Principales* irradi-formularekin.

Nafarroako kasuan ere SER katearen aitzindaritzat antzematen zen; hurrenak COPE eta ONDA CERO ziren, eta RNE, berriz, erreferentziatzko emisore publikoa, RNE-1en programazio konbentzionalarekin eta soilik albisteetarako RNE-5ekin.

■ XXI. MENDERA  
BEGIRA


Mende berria heltzek ez zuten, ildo honetatik, inolako aldaketa garrantzitsurik ekarri irradi-kontsumoari buruzko azterketen panoraman, ez Euskal Herrian ez espainiar estatua orok har harturik. Telebistaren kasuan dagoeneko martxan bazeuden ere lagin soziologiko zehatz baten portaerari buruzko datu errealak jasotzen zituzten hardwar eta

software elementuen erabilera oinarritutako audiometria-sistemak, eta azterketa soziologikoen metodologiaren ikuspegitik teleikusle aktiboek buruzko datuak hartzeko sistema egokiak zirela, irradiaren entzuleriari buruzko neurketak egiteko moduak tinko heldzen zion, artean ere, 1968an *Estudio General de Medios* hura abian jarri zenean abiatutako bidari.

Estatu mailan EGM eta Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan CIES azterketa topaleku egokia ziren, 1984an, iragarle, publizitate agentzia, erakunde eta irradi-difusio hedabideentzat. Ildo honetatik, Suitzan 2001ean esperimentatutako audiometria-azterketek, erabiltzailearen esku muturreko erlojuan instalatutako minigrabagailu digitalen jasotako datuen prozesatzean oinarrituek, itxura handiagoa zuten etorkizun zalantzazko batena berehala ezartzeko moduko proiektu batena baino.

● INTERNET BIDEZKO  
IRRATIA

Osterantzean, Internet bidezko irradi-kontsumoari buruzko azterketetako datuak ez dira, XXI. mendea hasi berrian, hazkunderako igurikapen bat besterik, balio erantsi handiko eta merkatuan aurrera egiteko aukera erreala hornitutako multimedialeko produktuak egituratzeko kapaz direnentzat; dena den, etxean digitalizazio prozesu integralago batek ekar dezakeenaren mendean daude hauek guztiak.



*Irrati eta telebista aparatuek, logikoa den moduan, beste elementu batzuen aldamean agertzen dira etxeko elektrotresnen artean, nahiz komunikazio eta kultur transmisioan eginkizun berezia betetzen duten.*  
(Publizitate bineta)

# Teknologia berriak



# IRRATI TEKNOLOGIA

**ASKAR RADIO**  
PRIMERA MARCA ESPAÑOLA

SINÓNIMO DE AUDICIÓN PERFECTA. — Usa gama de fabricación que abarca la serie más completa de receptores hasta el día  
FABRICADOS POR **Industrias Radio-Eléctricas IRESA, S. A.**

**IRÚN (GUIPÚZCOA)**



MODELO 430 - A

**CARACTERÍSTICAS:** Superheterodina para corriente alterna. Cinco válvulas de la serie *Hi-Loek*. Ondas normal y pasajera y dos ensanches de banda en corte. Control de volumen y compensación de bajos. Mueble de ebanistería fina, barnizado o la celuloosa. ¡Una joya a un precio popular!

**PRECIO: Ptas. 2.241,85**  
(Incluido impuestos)

**TELÉFONO 113**



MODELO 449 - B

**CARACTERÍSTICAS:** Superheterodina para ambas corrientes. Cinco válvulas. Antena incorporada. Ondas normal, corta y pasajera. Precioso mueble de plástico.

**PRECIO: Ptas. 1.694,55**  
(Incluido impuestos)

**El Receptor Ideal de todos los Tiempos**

22 años de éxito creciente, sin más propaganda que la de nuestros propios clientes-compradores

**MODELO 431 - A**



MODELO 431 - A

**CARACTERÍSTICAS:** Superheterodina para corriente alterna. Seis válvulas incluida ojo mágico. Ondas normal abarcando la pasajera. Corta 15 a 52 metros y ensanches en 20/25 y 49 metros. Incluye para pick-up y alt. superior. Lujosísimo mueble de madera y plástico.

**PRECIO: Ptas. 3.399,55**  
(Incluido impuestos)



Vida Vasca aldizkarian 1958an argitaratutako ingarkia.

Maila komertzialeko aparatu fabrikazioa ASKAR mar-kara mugatu zen gure herrialdean. Enpresa Irunen zegoen kokatuta. Estatu mailako marka nagusietako bat izan zen.

**LEHENBIZIKO AHOTS TRANSMISIOA** Lee Forestek egin zuen 1920an Kalifornian; horixe izan zen irratia-abiapuntua, gaur egun ezagutzen dugun moduan. 1922tik aurrera irradi-difusiorako lehenbiziko emisioak hasi ziren, eta lehenbiziko irradi-aparatuak fabrikatzen hasi ziren. *Aparatu balbuladunak* 60ko hamarkadaren hasiera arte fabrikatu zituzten, baina *erdieroaleen (transistoreen)* aurkikuntzaz, laga egin zioten balbula hargailuetan jartzeari. Horrenbestez, aparatuen bolumena beherantz abiatu zen etengabe, gaur egun ezagutzen ditugun aparatuetara iritsi arte.

*José Luis García*  
(izati zaharren bildumagilea)

## ■ IRRATIAREN HASTAPENAK

## ● UHINEN PRODUKZIO ETA TRANSMISIOA

1886an **Hertz** alemaniarrek *uhinak sortzeko eta hedatzeko* dispositibo bat asmatu zuen. Egin zuen lanaren errekonozimendua gisa, frekuentzia-unitateak haren izena darama.

1890ean **Brandly** eta **Logdek** «kohesorea» asmatu zuten, hau da, barnean burdin karraskautsak zeuzkan beirazko hodi txiki bat, hertz-uhinak ehunka metroko distantzian antzemateko gai zena. Honetarako proba guztiak laborategian egin zituzten.

1890eko ekainaren 2an **Marconi** uhin bidezko *telegrafia-sistema* bat patentatu zuen; sistema hau gai zen 5 km-ko distantziara emititutako uhinak jasotzeko. Geroago *kohesore* mota eta transmisio sistema berriak garatu zituen, eta horrenbestez bere izena ageri zaigu irratia-aren lehenbiziko bultzatzailetzat.

**Thomas Edison**ek garai horretan bertan goritasun-lanpara asmatu zuen, eta bere laborategian deskubritu zituen korronte elektronikoei barnean filamentu bat eta metalezko xafla bat dauzkan lanpara batean eragiten dituzten ondorioak.

**Added Improvements**  
... LOWER PRICES  
make the 1939  
**Western Air Patrols**  
Our Greatest Radio Values in 14 Years

*When you've seen and heard these models see 1939 Western Air Patrols, you will agree that they offer everything you might desire in radio... and you'll also agree that you own "Western Auto's" top a long record of leadership in Radio Values. These 1939 all-electric and battery operated sets are superior in performance, in sound and power, and feature our make-up system... and the accessories are as beautiful as they are practical, selected models and prices designed to give you... just what you need for better enjoyment and more pleasure...!*

It's a logical advertisement too, because with more than 200 stores and nearly 100 Authorized Dealers serving an ever increasing demand for Western Air Patrols, we are able to keep our wealth of outstanding experience and your purchasing power working at "Full Speed Ahead" positively value that give you more for your money. Our ability to do this is proven by the fact that "Western Auto's" is one of the largest retailers of radios in the West.

It will pay you to See, Hear and Compare Western Air Patrol Radios before you buy any set...!

**PRICES as LOW as \$1245**  
(for 5 Tube Model No. 58)

**SAVE with SAFETY at Western Auto Supply Co.**  
More than 200 Stores in the West  
See Telephone Directory for Address of the Store Nearest You  
Everything for Your Car at a SAVING!

**Fleming** irakasleak Edison lanpara hobetu zuen, eta uhinak hartzeko egokitu gainera, kohesorea ordezkatzuz; horrelaxe sortu zen lehenbiziko osagai elektronikoa, **diodoa**.

## ● AHOTSAREN TRANSMISIOA

**Lee de Forest** doktoreak, 1906an, Fleming lanpara aldatu zuen tarteko xafla bat jarritz (saretxoa);

balbula honi «triodo» esan zioten. Xafla honen bidez posible zen filamentuaren eta xaflaren artean zirkulatu duen korronte elektronikoa erregulatzeko, eta horrenbestez bigarren osagai elektronikoa, garrantzitsua bide batez, heldu zitzaigun, **transistorea**. Honi esker dagoeneko posible zen telegrafo-seinale sinpleak har-tzetik «hitzak» transmititzeko igarotzea.

Lehenbiziko ahots transmisioa 1920an egin zuten, Kalifornian. Hauxe izan zen gaur egun ezagutzen dugun irratia-aren eta elektronikaren garapenaren abiapuntua, beraz pertsona hau jo dezakegu elektronikaren aitatzat.

## ● IRRATI-DIFUSIOAREN HASIERA. HARGAILUAK

1922tik aurrera hasi ziren lehenbiziko irradi-difusio-eko emisioak, eta estreinako irradi-aparatuak fabrikatzen hasi ziren.

*Aparatu balbuladunak* 60ko hamarkadaren hasiera arte fabrikatu zituzten, baina *erdieroaleen (transistoreen)* aurkikuntzaz, laga egin zioten balbula hargailuetan jartzeari. Horrenbestez, aparatuen bolumena beherantz abiatu zen etengabe, gaur egun ezagutzen ditugun aparatuetara iritsi arte.

## HARGAILUEN FABRIKATZAILEAK

Bere lehenbiziko urratsetan hargailuen fabrikazioari ekin zioten fabrikatzaile batzuek jarduera horretantxe jarraitzen dute gaur egun, eta dagoeneko multinazional bihurtu dira, esate baterako *Philips*

eta *Telefunken*; beste batzuk beste jarduera batzuetan murgildu dira, hala nola *General Electric*, *SIEMENS* eta *RCA* besteak beste. Izan ere, automobilarekin batera irratia XX. mendeko garapeneran motorea izan da, eta eskertzekoa da, inondik ere.

■ IRRATI-APARATUEN BILAKAERA

Aparatuak 5 talde nagusitan bil ditzakegu:

- Galena-irradiak
- Kanpo-balbulak dauzkaten irratia
- Bozgorailua bereizirik daukaten irratia
- Kapera-irradiak
- Egongelako irratia eta osagarriak.

● GALENA-IRRATIAK


Aparatu hauek bobina aldakor bat, detektagailu bat eta aurikular batzuk dauzkate. Ez dute inolako argindarrik behar, arraroa dirudien arren. Entzun ahal izateko, detektagailua sakatu eta bobina mugikorraren aginteaz sintonizatu behar zen, baina ezinbestekoa zen inolaz ere hurbil emisore bat egotea, eta 20 m inguruko antena bat edukitzea; antena hau, normalean, balkoi edo teilatu azpian kokatutako kable bat izaten zen. Irrati mota honen izena detektagailurako erabiltzen zen mineralarenetik dator. Oso hedatuta egon ziren 20ko urteetan, oso merkeak eta egiteko errazak zirelako (2 eta 3. argazkiak).

● KANPO-BALBULAK DAUZKATEN IRRATIAK

Hauen berezitasunik handiena zera da, lanparak bista-bistan daudela. Honek bazuen bere zergatia, izan ere lanparak agortu egiten ziren emisio-ordu batzuk igaro orduko, garai hartako teknologia ez baitzuen gehiagorako aukerarik ematen. Erabilitako lanparak triodoak izaten ziren. Aparatu hauetarako indarra bateria bidez lortzen zen, eta seinaleak jasotzeko berdin-berdin erabil zitezkeen bai aurikularrak bai bozgorailuak (soinua anplifikatzeko tronpeta batez hornitutako aurikularra). Aparatu modelo hauek 1922tik 1928ra arte fabrikatu zituzten, eta bildumagileen gustukoena dira (1. argazkia).

● BOZGORAILUA BEREIZIRIK DAUZKATEN IRRATIAK

1928tik aurrera oro har, balbulak aparatuan bertan sartzen hasi ziren, eta bozgorailua bereizirik jartzen, irratia zegoen gelako beste toki batean ipintzen baitzuten. Aparatu hauetako batzuek bateriak behar zituzten, eta aurreratugoko beste modelo batzuek, berriz, elektrizitate-saretik hartzen zuten zuzenean behar zuten indarra. Bozgorailuak, normalean, irradi-hargailuaz aparteko ekipa gisa saltzen ziren (4, 5, 6 eta 7. argazkiak).



Irrati eta erreproduzitzeko aparatuen eskaintza modernoa.

● KAPERA-IRRATIAK

30eko hamarkadaren hasieran, bozgorailua aparatu beraren barruan sartu zen. Aparatu mota honek elizetako leihoak imitatzen zituen, horretatik hain justu «kpera-irradi» izena, eta zurez egiten zituzten. Aparatu mota hau USAn hasi ziren fabrikatzen, eta ondoren Europan ekin zioten fabrikatzeari, nahiz apaindura gutxiagoko diseinu sinpleagoak. Aparatu hauek oso kostu handikoak ziren bere fabrikazioagatik, eta 1934 arte egin zituzten. Aipatu urte horretatik aurrera, berriz, diseinuak gero eta sinpleagoak izango ziren, eta zura erabili ordez beste material batzuk erabiliko zituzten fabrikazioan, bakelita hasieran eta erretxina eta material plastikoak gero, kostuak merkatza eta eskari handiagoa eragitera begira (8 eta 9. argazkia).

● EGONGELAKO ETA GAU-MAHAIKO IRRATIAK

Egongelako irratia bolumen handiko aparatua dira. Altzarietako beste bat izaten ziren, eta eteko bilgunean kokatzen zituzten, egongelan alegia, toki lehentasuneko batean. Aparatu hauek 1928tik aurrera fabrikatu zituzten, eta oso-oso garestiak ziren. Halatan, oso gutxi egin zituzten beste irradi-aparatuekin alderatuta. Altzariaren goiko zatian, batzuek gramofonoak eta gero tokadiskoak edukitzen zituzten (17, 18, 13 eta 29. argazkia).

Egongelako aparatu hauekin batera, eta merkatza begira, logetan irradi-aparatu txikiak jartzeko moda heldu zitzaigun USAtik 30eko urteetan zehar. Neurri txikiko hargailuak ziren, ez baitzuten 30 cm-tik gora hartzen (15, 16, 22, 23, 25 eta 26. argazkiak).

■ APARATUEN FABRIKAZIOA EUSKAL HERRIAN

Maila komertzialeko aparatu fabrikazioa, gure herrialdeari dagokionez, ASKAR markara mugatzen da. Lantegia Irunen kokatuta zegoen. Estatu mailako marka garrantzitsuenetako bat izan zen. Estatu fabrikatzaile gehienak Katalunian daude.



Irrati aparatu aspaldi bihurtu zen ezinbesteko osagarri etxeko altzarien artean. Horregatik agertzen da dekorazio proiektuetan ere.





8



9



10



11



12



13



14



15



16



17



18





19



20



21



22



23



24



25



27



26



28



29



0

<p><b>0. argazkia</b></p> <p>Marka: IBERIA Modeloa: Fabrikazio urtea: 1952 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: Zirkuitu superheterodinoaz hornitutako aparatua, 5 lanparakoa, kontratxapatuz egina eta bere goiko zatian tokadisko bat duena 45 e.m.-ko formaturako. AM eta 2 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p>Ohiko aparatua alemaniarra, oso hedatua bere garaian, zeharo merkea zelako. AM sintonizatzen du.</p>	<p>Herrialdea: HOLLANDA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, intxaur-zur kontratxapatuz egina. Aparatu honek arabieraz dauka diala, Marokon kokatua, baina ez da modeloa aurkitu. AM eta 2 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>22. argazkia</b></p> <p>Marka: TUNGSRAM Irrati modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1950 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. AM eta UM sintonizatzen ditu. (gau-mahaiko aparatua).</p>
<p><b>1. argazkia</b></p> <p>Marka: LEMAIRE Modeloa: Fabrikazio urtea: 1924 Herrialdea: FRANTZIA Iruzkina: Bistako 3 balbula dituen aparatua, zurez egina, erreazio-ziukuituaz hornitua eta aparatuan ez dagoen bozgorailua duena. Sintoniak aparatuan jartzen zen bobina-jokoaren araberakoak ziren.</p>	<p><b>8. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: 634 A Fabrikazio urtea: 1933 Herrialdea: HOLLANDA Iruzkina: 5 lanparako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. Horrelakoei, bere formagatik, «kaper» esaten zieten. AM eta UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>15. argazkia</b></p> <p>Marka: CLEARVOX Irrati modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1932 Herrialdea: Estatu Batuak. Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, kontratxapatuz egina. AM eta UM sintonizatzen ditu (Gau-mahaiko aparatua).</p>	<p><b>23. argazkia</b></p> <p>Marka: ALSTRON Irrati modeloa: 55 Fabrikazio urtea: 1950 Herrialdea: FRANTZIA Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. AM eta UM sintonizatzen ditu. (gau-mahaiko aparatua).</p>
<p><b>2. argazkia</b></p> <p>Marka: BTH Modeloa: C B Fabrikazio urtea: 1923 Herrialdea: INGALATERRA Iruzkina: Galenazko aparatua, zurez eta bakelitz egina. AM sintonizatzen du.</p>	<p><b>9. argazkia</b></p> <p>Marka: PILOT Irrati modeloa: RAINWOB Fabrikazio urtea: 1933 Herrialdea: Estatu Batuak Iruzkina: 4 lanparako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. Horrelakoei, bere formagatik, «kaper» esaten zieten. AM sintonizatzen du.</p>	<p><b>16. argazkia</b></p> <p>Marka: CROSLEY Irrati modeloa: Travo Fabrikazio urtea: 1933 Herrialdea: Estatu Batuak. Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, oso-osorik metalezko xafaz fabrikatua. AM sintonizatzen du (Gau-mahaiko aparatua).</p>	<p><b>24. argazkia</b></p> <p>Marka: LAVIS Irrati modeloa: 980 Fabrikazio urtea: 1961 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: Fabrikatutako aparatua transistoreduen arteko lehenetako bat. Zur kontratxapatuz egina da, eta AM, UM eta FM sintonizatzen ditu.</p>
<p><b>3. argazkia</b></p> <p>Marka: AUDIOLA Modeloa: A Fabrikazio urtea: 1924 Herrialdea: Estatu Batuak Iruzkina: Galenazko aparatua, zurez eta bakelitz egina. AM sintonizatzen du.</p>	<p><b>10. argazkia</b></p> <p>Marka: PILOT Irrati modeloa: 812 Fabrikazio urtea: 1934 Herrialdea: Estatu Batuak Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. ART-DECO diseinua du, modan baitzegoen urte horietan Estatu Batuetan. AM eta UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>17. argazkia</b></p> <p>Marka: LA VOZ DE SU AMO Irrati modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1939 Herrialdea: INGALATERRA Iruzkina: 7 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, zurez eta intxaur-zur kontratxapatuz fabrikatua. Bere garaian luxuzko aparatua zen. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu (Egongelako aparatua).</p>	<p><b>25. argazkia</b></p> <p>Marka: Ezezaguna Irrati modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1955 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 4 lanparako aparatua, plastikoz fabrikatua. AM sintonizatzen du. Aparatu berean giltza eman beharreko iratzargailu bat dago (diseinuko aparatua).</p>
<p><b>4. argazkia</b></p> <p>Marka: BERMILLE Modeloa: Fabrikazio urtea: 1926 Herrialdea: Estatu Batuak Iruzkina: 6 balbula dituen aparatua, zurez eta bakelitz egina, erreazio-ziukuituaz hornitua eta aparatuan ez dagoen bozgorailua duena.</p>	<p><b>11. argazkia</b></p> <p>Marka: NORA Irrati modeloa: VE 301 G Fabrikazio urtea: 1933 Herrialdea: ALEMANIA Iruzkina: Aparatu honek 3 lanpara ditu, bateria bidez funtzionatzen dutenak, eta kartoizko txasisa; zur kontratxapatuz fabrikatuta dago, eta akabera kaxkarra du. Volksenfanger (herri irati) haien lehen serieitako bat da, eta geroago bakelitzak egin zituzten, merkeago ateratzen zelako. Horrelakoak jende guztiarentzako moduko prezioan egiteko agindua «dekretuz» eman zien Josef Goebbels-ek (nazioen Informazio Ministroak) fabrikatzaileei. AM sintonizatzen du.</p>	<p><b>18. argazkia</b></p> <p>Marka: ASKAR Irrati modeloa: 442 – A Fabrikazio urtea: 1950 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, zurez eta intxaur-zur kontratxapatuz egina. Lantegia Irungo sarreran zegoen, eta Euskal Herrian marka ezagun bat izandako fabrikatzaile bakarra da. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu (Egongelako aparatua).</p>	<p><b>26. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: 44 U Fabrikazio urtea: 1940 Herrialdea: HOLLANDA Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. AM eta UM sintonizatzen ditu. Ikusi aipadura gutxiak diseinu sinplea, urte horietan nagusi izandakoa.</p>
<p><b>5. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: 2514 Bozgorailu modeloa: 2916 Fabrikazio urtea: 1928 Herrialdea: HOLLANDA Iruzkina: 5 lanparako aparatua, pegamoidez (xafari itsatsitako oihala da, larru itxura ematekoa) egina. Bozgorailua ez dago aparatuan. Hauxe da Philipsek meikatura ateratako lehenbiziko aparatua. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu. Bozgorailu modelo honi jendeak «mandarin» esaten zion.</p>	<p><b>12. argazkia</b></p> <p>Marka: CASTILLA Irrati modeloa: 38 Fabrikazio urtea: 1938 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, intxaur-zur kontratxapatuz egina. Diseinua ART-DECO da, Estatu Batuetatik inportatua. Marka hau PHILIPSEK xurgatu zuen urte batzuk geroago. AM eta 2 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>19. argazkia</b></p> <p>Marka: ASKAR Irrati modeloa: U – 426 Fabrikazio urtea: 1950 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, zurez eta intxaur-kontratxapatuz fabrikatua. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>27. argazkia</b></p> <p>Marka: MARCONI Irrati modeloa: M 49 Fabrikazio urtea: 1950 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu. Oso aparatua ohikoa urte horietan.</p>
<p><b>6. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: 2511 Bozgorailu modeloa: 2109 Fabrikazio urtea: 1929 Herrialdea: HOLLANDA Iruzkina: 5 lanparako aparatua, burdin egitura batez eta bakelitzako alboz fabrikatua. Bozgorailua ez dago aparatuan. Aparatuari «arcón» esaten zioten, eta oso ezaguna izan zen bere garaian. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>13. argazkia</b></p> <p>Marka: MENDE Irrati modeloa: 355 W GROSS SUPER Fabrikazio urtea: 1936 Herrialdea: ALEMANIA Iruzkina: 7 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, zur mazizoz eta intxaur-zur kontratxapatuz egina. Kalitate oneko aparatua zen bere garaian. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>20. argazkia</b></p> <p>Marka: INVICTA Irrati modeloa: 330 Fabrikazio urtea: 1952 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara unibertsele hor nitutako aparatua, zurez eta intxaur-kontratxapatuz fabrikatua. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu.</p>	<p><b>28. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: BE – 514 Fabrikazio urtea: 1954 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, zur kontratxapatuz fabrikatua. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu. Oso aparatua ohikoa urte horietan.</p>
<p><b>7. argazkia</b></p> <p>Marka: SIGNAL-BAU Irrati modeloa: E8 – W Bozgorailu modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1929 Herrialdea: ALEMANIA Iruzkina: 3 lanparako aparatua, burdin egitura batez fabrikatua. Bozgorailua ez dago aparatuan.</p>	<p><b>14. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1936</p>	<p><b>21. argazkia</b></p> <p>Marka: PHILIPS Irrati modeloa: BE412 – A Fabrikazio urtea: 1953 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, oso-osorik bakelitz fabrikatua. AM eta 2 UM sintonizatzen ditu. Aparatu mota hau oso hedatuta egon zen, oso merkeak zirelako.</p>	<p><b>29. argazkia</b></p> <p>Marka: INTER Irrati modeloa: Ezezaguna Fabrikazio urtea: 1950 Herrialdea: ESPAINIA Iruzkina: 5 lanpara superheterodinoz hornitutako aparatua, disko-biratzaila bat duena bere goiko partean. Zur mazizoz eta intxaur-zur kontratxapatuz egina. AM eta 3 UM sintonizatzen ditu. Egongelako aparatua da.</p>

# ETORKIZUN DIGITALA



**XX. MENDEKO AZKEN BI HAMARKADETAN ZEHAR** irratia ere buru-belarri sartuta egon zen digitalizazioaren eta informatizazioaren fenomenoan. Informatikaren eta telekomunikazioen arteko bat egiteak produkzio, errealizazio eta emisio sistemak oso garrantzi handiko berrikuntza teknologikorako prozesuan murgilduta geratzea ekarri zuen.

## ■ DIGITALIZAZIOA ETA INFORMAZIOA

XX. mendeko azken bi hamarkadetan zehar irratia ere buru-belarri sartuta egon zen digitalizazioaren eta informatizazioaren fenomenoan. Informatikaren eta telekomunikazioen arteko bat egiteak produkzio, errealizazio eta emisio sistemak oso garrantzi handiko berrikuntza teknologikorako prozesuan murgilduta geratzea ekarri zuen.

## ● BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN MUGARRIAK

Lehen une batean, disko trinkoak binilozkoak ordezkatzen hasi ziren, azken hauek zeharo baztertu eta artxibo eta dokumentazio zerbitzuetara mugarazi arte.

Bobina eta zinta irekiko magnetofoiaren eta kasete-grabagailu eramangarrien aurrian, oso denbora epe laburrean nagusituz joan ziren zinta magnetikoan eginiko grabazio digitalak [DAT] eta mini-disko eramangarriak, disko gogorreko grabazioen –baita kanpo-grabazioetarako ere– behin betiko ezarpenaren tarteko urrats gisa.

Unitate Mugikorrek kudeatzeko lotura digitalek, telefonia mugikorrek, eta baita telefono-linea digitalen [RDSI-Red Digital de Sistemas Integrados] erabilera onkorrek ere, aurrerapen teknologiko sorta garrantzitsua osatu zuten irrati bidezko jarduerari begira, batez ere informazioaren arloari dagokionez.



## ● SOINU PRODUKZIO DIGITALA

Euskal irrati-difusioaren eremuan, Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea –eta hauen atzetik EITB taldearen beste emisore guztiak– aitzindariak izan ziren soinu produkzio digitalerako sistema integratuak erabiltzeko unean. Istant batean soinuaren gestio analogikotik gestio digital integraturako jauzia gertatu zen. Grabatzea, gordetzea, artxibatzea, erreproduzitzea, editatzea, den-dena hasi ziren informatika-euskarri digitala baliatuz egiten.

Ordenagailuak magnetofoiak zeuden tokian, eta disko magneto-optikoak eta

CD-ROMak zinta irekiko artxibo sistemak ordezkatzeko.

Pixkanaka-pixkanaka, irrati-emisore guztiak administrazio, erredakzio eta irrati-errealizazioko lanetarako software egokia eskuratzen joan ziren, eta horrenbestez izugarri erraztu ziren produkzio eta errealizazio lanetako asko eta asko, bai pertsonal teknikoak bete beharreko lanen artean bai emisoreetako erredaktore eta esatarien lanen artean.

Konmutazio-matrize eta nahasketa-mahai digitalak arian-arian ageritu zirelarik, amaituz eta itxiz joan zen irrati-tako produkzio-zentroen digitalizazio prozesua.

## ● AITZINDARIAK


Esperientzia aitzindarietako bat **Radio Vitoriarena** izan zen, Gasteizko Domingo Martínez de Aragón kalean 2001eko ekainaren 21ean inauguratutako egoitza berria. Soinu-iturri guztiak konmutazio zentralerako matrize batean txertatzea eta iturri horien guztien mahai digitalen bidezko urruneko gestioa, mahai hauek ordenagailuen periferiko gisa baliatzen zuten optiko bidezko lotura bidez elkarrekin bat eginda daudela, oso esperientzia aurreratu izan zen, irrati-difusiorako jardueraren digitalizazio integralerantzko bidean.

**SER katea** eta **Radio France Pays Basque** aitzindariak izan ziren, bakoitza bere eremu geografikoan izan ere, automatismoetan oinarritutako lurralde-deskonexiorako sistemak integratzeko unean; automatismo horiek egoitza zentralerako matrizek satelite bidez igorritako seinaleen aginduak betetzen zituzten, eta horrenbestez posible egiten zuten lurralde-deskonexioak aurrera eramatea, zuzenean inolako giza baliabiderik erabili behar izateke. Estatu mailako beste kate handi batzuk antzeko sistemak aplikatzen hasi ziren, denborak aurrera egin ahala.

## ● RDS. RADIO DATA SYSTEM

Osterantzean, XXI. mendearen hasieran ia-ia irrati-emisore guztiak RDS [Radio Data System] erabiltzen ari ziren FM-ko bere emisio-sistemetan. Sistema honek, sintonizazio automatikoa eta etenik

## DIAGRAMA DE LA RED DE FIBRA OPTICA ETHERNET NTP



gabekoa ahalbidetzeaz gain mugimenduan dauden hargailuentzat, aukera ematen zuten irrati eramangarri zein finkoetako display txikietan emisorearen adierazgarri edo izena idatzita agertzeko; bide batez, beste mezu batzuk igortzeko eta informazio eta telekontrolleko zerbitzu osagarriak eskaintzeko aukera sortzen zuten.

Satelite bidezko zabalkundera egokituz, Euskal Herriatik produktutako emisioen kasuan, Radio Euskadi eta Euskadi Irratia izan ziren urunagoko entzuleengana iristeko forma berri hau 2000ko urtean bereganatu zuten irrati-emisore bakarrak; izan ere, Amerikako eremu zabaletarako eta Europarako hainbat tokitarako emisioak egin zituzten.

### ● DAB. BETETZEKO DAGOEN KONTUA

Irratiaren erabateko digitalizatorako betetzeko zegoen kontua lurreko emisioaren beraren prozesua digitalizatzea zen.

Irrati-difusoreen Europar Batasunak [UER-EBU *European Broadcasting Union*], 1950ean sortutako elkarte izaki eta europar inguruko 50 herrialde baino

gehiagotan irrati-difusore nazional publiko zein pribatuen artean 69 baino gehiago biltzen zituelarik, 2000ko maiatzean Stockholmen «DAB – the winning strategy» lelopean egin zuten bilera honako adierazpen hau sustatu eta eman zuten aditzera:

1. Irrati digitalerako migrazioa funtsezkoa da irratia errentzat. Irrati-difusore publiko zein pribatuen europar komunitatea eta hargailu-fabrikatzaileen komunitatea prest daude elkarrekin lan egiteko, ahaleginaren arrakasta ziurtatzeko helburu uaz.
2. Irrati bidezko difusioa, aldi berean entzuleria masiboarengana iristeko duen gaitasunaz, ezaugarri aparteak dituen masa-hedabide bat da, eta ezaugarri hauek ezin izango dira Internet bidez eskaintako linea-zerbitzuaren erreproduzitu. Alabaina multimedia zerbitzuen erabilera, aukerako elementu osagarri gisa betiere, elementu garrantzitsu eta erakargarria izango da irrati digitalean.
3. Irrati digitalaren eskaintzak arrakasta izan dezan, zerbitzu berriak eskaini behar ditu, eta arrazoizko denbora-epe batean, gaur egun eskura diren zerbitzu analogiko guzti-guztiak jasoz. Irrati-difusioaren komunitate osoak, hala irrati-difusore publikoek nola pribatuek, elkarrekin egin behar dute lan hori lortzeko. Zerbitzu hauek zerbitzu pilotu edo probako zerbitzu baino gehiago izan behar dute.
4. Irrati digitalaren potentzialari buruzko kontzientzia publikoa areagotu egin behar da, irrati-difusoreen eta fabrikatzaileen elkarrekiko ahaleginen bidez. Ezinbestekoak dira kontzientziatzeko kanpaina argi eta mamizkoak.
5. Europar Administrazioek oso garbi eduki behar dute behar-beharrezkoa dela analogikotik irrati-difusio digitalerako migrazioaren egutegia finkatzea. Irrati-difusoreek eta fabrikatzaileek bultzatu egin behar dituzte administrazio nazionalak, plan egokiak ezar ditzaten. Europar Komunitateak lagundu egin behar du, eta bultzada eman, prozesu horretan.
6. Administrazio nazionalak aitortu behar dute irrati digitalak ez duela inolako arrakastarik izango baldin eta

frekuentzia-espektrua zabalagoa eskaintzen ez bazaio, eta europar kulturarentzako eta ekonomiarentzako ondorioak dramatikoak izango dira, hori gertatuz ger o. Administrazio nazionalak baloratu egin behar dituzte espektrora beste erabilera batzuen aurrean irrati zerbitzuek dituzten abantaila orokorrak, bai kultura nazionalari bai ekonomiari berari begira.

7. Irrati-difusoreek indar biziz egin behar dute lan, eduki-formatu berriak aurkitzeko ahaleginean, hain zuzen irrati digitalaren eta beronek izan ditzakeen multimedia baliabideen posibilitateen erabateko erabilera gauzatzeko.

Stockholm, 2000ko maiatzaren 19an

Eskumena duten administrazioek, irrati-difusore publiko zein pribatuek eta hargailu-fabrikatzaileek asmo oneko adierazpenak egin arren, kontua da XXI. mendearen lehenbiziko urte hauetan lurreko difusioko irrati digitalaren [DAB] behin betiko ezarpena gehiago dela *desideratum* bat, atean dugun errealtate bat baino. Dena den, ate joka dago, ezin bestela izan.



**EMISIO DIGITALEKO DAB SISTEMAK** zerbitzu anitzeko difusio digitala eskaintzen du, kalitate handiz gainera irrati-seinaleari dagokionez, eta hargailu mugikorrei, eramangarriei zein finkoei begira, bai lurreko irrati-difusioan bai satellite bidezko irrati-difusioan.

## ■ EZAUGARRI NAGUSIAK

Estereoa egiten den emisio analogikoarekiko alde nagusiak honakoak dira:

- **Eraginkortasuna espektroaren eta emisio-potentiaren erabileran.**
- **Hartzeko uneko hobekuntzak.** DAB sistemaren bidez, gaintitu egiten dira egungo propagazioak hargailu geldi, eramangarri eta mugikorretan eragiten dituen ondorioak.
- **Transmisiorako frekuentzien esparrua:** DAB sistema 30 MHz eta 3.000 MHz bitarteko frekuentzietan funtzionatu ahal izateko diseinatuta dago.
- **Hedapena:** Satellite bidez edota lur bidezko transmisioak baliatuz egin daiteke, edota kablea erabiliz; izan ere,

hargailuak automatikoki detektatuak ditu erabiltako moduak.


- **Soinuaren kalitatea:** Disko trinkoaren (CD) kalitatearen parekoa da. DAB sistemak MUSICAM izeneko sistema bat erabiltzen du soinua konprimatzeko, eta honen bidez entzuten ez den informazioa kentzen du. Halaz, transmititu behar den informazio kopurua murrizten da.
- **Multiplex egitea:** DAB sistemak aukera ematen du hainbat programa eta datu zerbitzu multiplexatzeko, bloke bakarra osatu ondoren dena batean emititzearren.
- **Ahalmena:** Bloke bakoitzak (multiplex) gutxi gorabehera 1,5 Mbit/s ahalmen erabilgarria du, eta honek aukera ematen du aldi berean 6 programa


estereofoniko eroateko, bakoitzak 192 kbit/s dituela.

- **Malgutasuna:** Sistemak 8 eta 380 kbit/s bitarteko transmisio abiadurak egokitu ditzake, behar den babes egoki eta guzti.
- **Datu zerbitzuak:** Digitalizatutako soinu-seinaleaz gain, multiplexean beste informazio batzuk transmititzen dira:
  - Ø **Informazio kanal bat:** emisorearen adierazlea, data, ordua eta datu orokorretarako zerbitzuak, hala nola: irrati-bilaketa, larrialdietarako ohar sistema, trafiko informazioa, kokapen globaleko sistema [GPS], etab.
  - Ø **Programari lotutako datuak** soinu-programekin zuzenean lotutako informazioari eskaintzen zaizkio:

musika-izenburuak, egilea, kantuen hitzak, etab.

- Ø **Zerbitzu osagarriak:** erabiltzaile kopuru txiki batentzako zerbitzuak [Esate baterako: lapurtutako kreditu-txartelak baliogabetzea, irudiak eta testuak igortzea iragarki elektronikoetarako tauletara, etab.]
- **Datu hauek guztiak hargailuari erantsitako pantaila baten bidez jasotzen dira.**
- **Estaldurak** estaldura lokala, erregionala, nazionala edo nazioz gaidikoa izan daiteke. Sistema gai da transmisio desberdinetatik datozen seinaleak modu konstruktiboan biltzeko kanal berean, eta honek ahalbidetzen digu frekuentzia bakarreko sareak eratzea halako eremu geografiko jakin bat estaltzeko.





## BIBLIOGRAFIA (IRRATIA. Julián Beloki)

- CARCIA LLOVET, Enrique. «El régimen jurídico de la radiodifusión». Marcial Pons argitaletxea, Ediciones Jurídicas S.A. Madril, 1991.
- ARRIETA, Leyre. RODRÍGUEZ RANZ, José Antonio. «Radio Euskadi-La voz de la libertad». Euskal Irrati Telebista [EITB]. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1998.
- DÍAZ, Lorenzo. «La radio en España»1923-1997". Alianza Editorial. Madril, 1997.
- ONAINDIA, Alberto. «Obras Completas, Tomo IV. Charlas del sacerdote Olaso en la Radiodifusión francesa». Editorial la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1980.
- SADA, Javier M<sup>a</sup>. «Retrato de una ciudad con radio-Hiri irratidun baten erretratua». Cadena SER. San Sebastián, 2000.
- INSAUSTI, Jesús «UZTURRE». «Seis décadas de periodismo vasco». Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1993.
- Hainbat egile «En el aire. 75 años de radio en España». Cadena SER. Madril, 1999.
- MARTÍNEZ COSTA, María del Pilar. «La radio en la era digital». El País-Aguilar argitaletxea. Madril, 1997.
- AIMC [Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación]. «Marco general de los medios en España». AIMC argitaletxea. Madril, 2002.
- CIES. «Estudio de Audiencia de Medios en la Comunidad Autónoma de Euskadi-Euskadiko Komunitate Autonomikoko Komunikabideetako Entzulegoaren Ikerketa. 1984-1998». CIES. Estudios de Opinión y Mercado. Iruñea, 1998.
- GASTEIZ IRRATIA-RADIO VITORIA. «50 años en las ondas». Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca. Gasteiz, 1984.
- DEL VALLE, Julian. «La historia de Radio Bilbao». Ediciones Ercilla. Bilbo, 1972.
- Información, propaganda y guerra de ondas en el País vasco (1937-37). MUGA aldizkaria, 62. zk. Bilbao XX.
- VARIOS. «Arantzazu. Euskal Santutegi bat XX. mendean. Un Santuario Vasco en el siglo XX». Ediciones Franciscanas. Arantzazu. Oñati, 2001.
- SEGARRA, Luis. Guía de la radio en España. Paperezko edizioa. Bartzelona, 2002. Edizio digitala CD-ROMen. <http://www.guiadelaradio>.
- EITB. Euskal Irrati Telebista. 1982-1997. Iurreta (Bizkaia), 1997.
- CIES, Estudios de Opinión y Mercado. Estudio de Audiencia de Medios de Comunicación de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra. CIES. Iruñea, 2002.
- GARITAONAINDIA, C. «La radio en España (1923-1939)». Madril, 1988.
- MARQUÉS, Paco. «La radio que nos parió». IBERSAF Editores. Madril, 2002.
- VIDEO. H-EL CANAL DE LA HISTORIA. «75 aniversario de la radio en España». VHS. Pozuelo de Alarcón, 2000.








# TELEBISTA

---

*Juan Aguirre Sorondo*





# TELEBISTA EUSKAL HERRIAN



Egin, 10 urte.



**EUSKAL HERRIAN BERROGEI URTEZ TELEBISTA EZAGUTU ONDOREN,** sasoi berri baten atarian gaude, komunikabide horren protohistoriaren bukaeran. Oraintxe litzateke unerik egokiena, beraz, atzera begiratu eta euskal telebistaren alorrean bizi izan dugunaren balantzea egiteko.

## ■ SARRERA

- TELEBISTAREN HISTORIA ETA ORAINALDIA GURE ARTEAN

XX. mendeko hirurogeigarren hamarkadan izan ziren lehen telebista-emanaldiak gure herrian; hirurogeita hamargarrenean sortu ziren, aldiz, lehen euskal produkzioak, Bilboko *Centro Regional de TVE* delakoaren eskutik.

*Euskal Irmti Telebista* izeneko erakunde publikoa laurogeigarren hamarkadan sortu zen, hasieran kanal bakar bat eta gero eskaintza bikoitza eginaz: ETB 1 eta ETB 2.

Laurogeita hamargarren hamarkada hasieran, telebista pribatuak azaltzarekin batera, eskaintza aniztu egin zen.

Mendearen bukaera aldera gertatu zen *lekuan lekuko telebisten burrunba*; aldi berean, bi plataforma digitalek «*telebista kartara*» esaten zaion horri zabaldu zizkioten atak.

- TELEBISTAREN ETORKIZUNA

Hirugarren milurtekoaren hasieran, eta martxan dagoen iraultza teknologikoak eskaintzen duen aukera-sortaren ondorioz, *telebista interaktiboaren sasoi*a datorkigu. Horrek, transmisio telematikoko sareekin bat eginaz, kontsumitzaile/hartzailearen eginkizuna goitik behera aldatuko du, orain arte izan duen

pasibotasuna alde batera utzirik, edukien elementu erabakitzaile bihurtuko baita.

- TELEBISTA, GLOBALIZAZIO-BIDEA

Telebistak, XX. mendeko «Galileo» bailitzan, munduari buruz eta mundu horretan bakoitzari dagokigun lekuari buruz genuen ikuspuntua aldatzea lortu du. Telebistari esker jakin dugu mundua guk uste baino askoz txikiagoa eta homogeneoagoa dela eta mundutarrok elkarren arteko menpekotasun handiagoa dugula. Telebistak elkarkidetasuna eta enpatia bultzatu ditu baina baita kontzientzien manipulazioa ere.

Munduan oraindik egon daitezkeen gizarte arkaikoak alde batera utzita, telebista da gaur egun herri kulturaren adierazgarriarik goren, bai Ekialdean baita Mendebaldean ere. Eta, funtsezko kultur hedabidea den partetik, telebistak era paregabean islatzen du zerbitzatzen duen herri edota erkidego bakoitzeko ohiturek, pentsamoldeek, hala nola gizarte, politika zein sormen arloko bizitzak denboraren joanean izan duen bilakaera.

Euskal Herrian berrogei urtez telebista ezagutu ondoren, sasoi berri baten atarian gaude, komunikabide horren protohistoriaren bukaeran. Oraintxe litzateke unerik egokiena, beraz, atzera begiratu eta euskal telebistaren alorrean bizi izan dugunaren balantzea egiteko.



# KATEAK.

## Telebista eskaintza handiagoa

TVE 1 001		La 2 002	Arriena 3 003	Tele 5 005	Canal + 006	ETB 1 010	ETB 2 014	SÁBADO 13
<b>2 LA 2</b> <b>MAÑANA</b> <b>06.00</b> Euronews. (6874) <b>06.30</b> That's english. (5435435) <b>08.00</b> Los conciertos de La 2. Orquesta Sinfónica de Euskadi. (55077) <b>09.00</b> UNED. (9503) <b>09.30</b> Agrostera. (69226) <b>10.30</b> En otras palabras. (5110) <b>11.00</b> Endangered. (52477) <b>12.00</b> El concierto. Hoy, con la Orquesta Filarmónica de España. (7955) <b>12.30</b> Escuela de deporte. Con Estela Giménez y Carlos T. Beltrán. (44412) <b>13.30</b> Estadio-2. Esquí: Copa del Mundo, descenso masculino. Esquí: Copa del Mundo, supergigante femenino. (925400)		<b>etb 0 ETB 1</b> <b>07.50</b> Euskal Herriko altzariak. (2459058) <b>08.25</b> Documental. (3927042) <b>09.10</b> Betizu kluba. Incluye las series: Twipsy (Ver recuadro); Cliff Hanger; X-Taldea; Sam eta Max. (6470400) <b>10.55</b> Betizu arena. (48469961) <b>12.00</b> Ikusgela. (485752) <b>13.00</b> Elkartasunaren bideak. (405961) <b>13.30</b> Sustrala. (415348) <b>14.00</b> Gaur egun. (4078619) <b>14.50</b> Barre busa. (5437329) <b>15.50</b> Mundu galdua. Botoza. (1640400) <b>16.40</b> Sautrela. (4452990) <b>17.10</b> Kirolez kirol. (929176) <b>18.00</b> Futbola. Retransmisión del encuentro: Sevilla-Extremadura. (2183348) <b>20.30</b> Albisteak. Informativo. (416042) <b>20.35</b> Futbol atarikoak. (3351145) <b>20.50</b> Futbola liga. En directo, retransmisión del encuentro de Primera División: Deportivo de A Coruña-Valencia F.C. (Ver páginas 16 y 17). (25231110) <b>00.30</b> Klasikoak jatorriz. Asphait jungle. Doc es un legendario criminal que acaba de salir de la cárcel y planea un gran golpe con cuatro compañeros. (7727424)		<b>etb 0 ETB 2</b> <b>06.20</b> Del país de los vascos. (1744684) <b>06.50</b> Pintores y escultores vascos. El nacimiento de la escultura contemporánea. (5288058) <b>09.35</b> Café co-media: Ned y Stacey; Loco por ti; Celebrity; Adderly. (7648416) <b>11.55</b> Desde el gallinero. (7383416) <b>12.25</b> Empresa vasca. (428477) <b>12.55</b> Los hombres de Harrelson. (2049482) <b>13.50</b> Matar para vivir. Con Julio Salinas. (158597) <b>14.20</b> Gente diez. (679955) <b>14.58</b> Teleberri. (307347503) <b>15.45</b> Cine 2. Emisión cinematográfica por determinar. (8540329) <b>17.30</b> Cine 2. (4133965) <b>19.25</b> Edición anterior. El bebé. El ladrón biría el perro del alcalde. (7633597) <b>20.58</b> Teleberri. Con Uxue Barkos. (303911990) <b>21.45</b> El factor humano. Programa variado en contenidos pero desde un punto de vista próximo a la realidad cotidiana de Euskadi. (1829477) <b>22.35</b> Cámara acción. Sonic impact. Director: Rodney McDonald. Intérpretes: Michel Harris, Mike White. (3010226) <b>00.45</b> Más allá del límite. Serie de ciencia ficción. (1979085) <b>02.35</b> Medias de seda. A cara o cruz. (8785240) <b>04.10</b> Bugs: operaciones especiales. Los dos Beckett. Contra viento y marea. (37357171)		<b>Si hoy cambias en estas películas, consulta...</b> 		
<b>TAÑE</b> <b>15.30</b> Estadio-2. Fútbol sala: Liga, Forum Durrese FS-Industrias Garcia. Balonmano: Preparación para el Campeonato del Mundo, España-Islandia. Rallye Paris-Dakar. Vela: Regata Cádiz-Habana. (82348752) <b>16.30</b> Paraíso cercanos. Hungría, romántica y luchadora. (70394) <b>19.30</b> Informativo territorial. (874) <b>20.00</b> España en comunidad. Con Patricia Betancort. (787) <b>20.30</b> Gradia cero. Con Itaki Cano. (97435)				<b>NO SE PIERDA</b> <b>Betizu</b> <b>00.10 h.</b> <b>ETB 1</b>				
<b>ROCHE</b> <b>20.55</b> Cine. Escala en Tokio. (22005503) <b>20.55</b> Fútbol. Liga, Valencia-Dapnrtiva. (Sfido en Comunidades sin TV autonómica). (Ver páginas 16-17). (22005503)		<b>22.50 h. El cine de La 2</b> 						
<b>American Buffalo, Don</b> , el dueño de una camarilería, y su amigo Teach planean el robo de unas monedas antiguas con ayuda de un quinceañero ex drogadicto. (Ver páginas 18-21). (8573077)		<b>06.50</b> Cine Club. Matadero cinco. Un padre de familia no puede evitar que su vida se vea influenciada por los años que pasó como prisionero de los alemanes, durante la Segunda Guerra Mundial. (V.D.S.) (64193462) <b>02.30</b> Cine. Cerca de la ciudad. Director: Luis Lucía. (11958019)		<b>ETB está de estreno.</b> Hoy comienza una nueva serie de dibujos animados que tiene como protagonista a Twipsy, la mascota de la Expo de Hannover 2000 creada por Javier Mariscal. Todo comienza cuando Nick, Albert y Lissie, probando un nuevo juego de ordenador inventado por Albert, envían a Nick al ciberespacio. Allí conoce a Twipsy, un torbellino de energía que trabaja como mensajero en Internet. El nuevo amigo se encargará de mostrar a los tres chicos los secretos de la red y vivirán juntos muchas aventuras extraordinarias. También Twipsy conocerá el mundo real, viviendo por primera vez sensaciones como tener frío o calor, los gustos, los olores, etc. La serie consta de 26 episodios de media hora de duración y ha sido elaborada con técnicas innovadoras que permiten una utilización de la cámara de un modo más realista.				
				12/1/2001 EL SEMANAL TV 27				

# TELEBISTA ESPAINOLA



**TELEBISTA ESPAINOLAREN EMANALDIAK** 1956ko urriaren 28an hasi ziren ofizialki baina Sollube mendiko emisorea martxan jarri arte, hau da, 1960ko abuztura arte, bere seinalea ez zen iritsi Euskal Herriko hainbat eta hainbat lekutara. Euskal Herriko Centro Territorial de TVE delako horrek iraun zuen hogeita hamar urte luze haietan, bi garai bereiz daitezke:

**LEHEN FASEAN**, hau da, ETB sortu aurretik eta euskal telebista publikoak nola edo hala lehen pausuk hemen zituen urte haietan, eduki anitz eta handizaleko saioez jositako programazioa izan zen ezaugarri.

**BIGARREN FASEAN**, ETB behin betikoz martxan jartzearekin batera, ekoizpen propioak behera egiten du, programazioa ohikerian murgiltzen da eta euskarari ez zaio uzten testigantzazko presentzia baino.

## ■ TELEBISTA ESPAINOLA

**Telebista espainolaren emanaldiak** 1956ko urriaren 28an hasi ziren ofizialki baina Sollube mendiko emisorea martxan jarri arte, hau da, 1960ko abuztura arte, bere seinalea ez zen iritsi Euskal Herriko hainbat eta hainbat lekutara. Iruñeak gehixeko itxaron behar izan zuen, 1961. urteak aurrera egin arte, bera izan baitzen TVE seinalea jaso zuen lehen udalerrri nafarra.

## ● TELEBISTA. TELEDIARIO

Sortarazi zuen erregimenarekin zeharo bat eginez, TVEk zentralismo bizia eta eduki informatiboen gaineko kontrol zorrotza ezagutu zituen bere hastapenetan. Lehen *Telediario* haietan, gizonzko irakurle bat arduratzen zen, dekoraturik gabe eta grabatutako irudi gutxi batzuen aurrean, estatuko zein nazioarteko aktualitate gaiet buruzko bertsio ofiziala emateaz. Estilo pisutsu eta martziala dela eta, eta Gerra Zibilarekiko lutura saiheste zina dela eta, lehenengo albistegi haiei «parte» deitzen zitzairen. Horieta, noski, Espainiako errealitate anitzak isla zurbil eta folkloriko bat besterik ez zuen.

Deszentralizatzea, pixkanaka bazen ere, hirurogeita hamarreko hamarraldian hasi zen, eskualdeko zentroak sortu zirenean. Bilbo aukeratu zuten iparraldean zentro emisora eta produktore handi bat kokatzeko.



## ■ CENTRO TERRITORIAL DELAKOA EUSKAL HERRIAN

Berriak Madrileria bide elektronikoa bidaltzeko funtzioarekin, 1971 erdialdean TVEko Ordezkaritza Informatiboa ireki zen Bilbon. Bere estaldura-eremuak Nafarroa, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Santander, Logroño eta Burgos iparraldea hartzen zituen.

**Programa autonomoen ekoizpena** 1974ko urrian hasi zen, *Regional Informativo* delakoarekin. Hori 15 minutuko iraupena zuen eguneroko espazioa bat zen. Programa hori, behar bezala berregituratuta eta iraupena luzatuta, 1976an *Telenorte* bilakatu

zen. Oraindik ere emititzen da espazio hori.

**Euskarazko lehenengo produkzioak** 1976ko abenduan egin zuen salto pantailatara. *Euskal Herria* izena zuen programak asteroko informatiboen formatua jasotzen zuen: herrialdeko gai kultural eta tradizionalen hautaketa bat. 1977an Burgos eta Santanderrek beren Centro Territorial delako propioak sortu zituzten, eta berdina egin zuten 1981ean Nafarroak eta 1988an Errioxak.

## ● BI FASE

Euskal Herriko Centro Territorial de TVE delako horrek iraun zuen hogeita hamar urte luze haietan, bi garai bereiz daitezke:

Lehen fasean, hau da, ETB sortu aurretik eta euskal telebista publikoak nola edo hala lehen pausuk hemen zituen urte haietan, eduki anitz eta handizaleko saioez jositako programazioa izan zen ezaugarri. Programazio horren bidez gertuko errealitatearekiko sentikorra zen ikuslegoa telebista nazional batetarantz erakarri nahi zen. Guztiok ditugu buruan magazine kulturalak, *Beste bat* bezalako kirol-programak edo Antxon Urrosolok *Saski Naski* programan izan zuen agerraldia.



Bigarren fasean, ETB behin betikoz martxan jartzearekin batera, ekoizpen propioak behera egiten du, programazioa ohikerian murgiltzen da eta euskarari ez zaio uzten testigantzazko presentzia baino.

## EGINGO PROGRAMAZIOA

**Gaur egun** Centro Territorial delakoak egunero igortzen ditu (astelehenerik ostiralera) *Telenorte* programako bi edizio, 14,00etatik 14,20etara, eta 20,00etatik 20,15etara, lehenengo katean.

Asteazken zehar ere, 20,15etatik 20,30etara, La 2en, *Euskadi de cena* programa igortzen da. Programa horrek informazio hurbilena, alderdi sozial, kultural eta ludikoan, hala nola eguneroko bizitzako gauza bitxiak, Euskal Herriko hiri eta herrietan, jasotzen ditu.

*Astekaria* –arunbatetan La 2en 19,30etatik 20,00etara– da nazio-mailan *Informe Semanal* dena: egunerokotasuna duten gaiet buruzko erreportajeen programa bat.



Kirolari dagokionez, Euskal Herriko Centro Territorial delakoak, ostiral arratsaldeetan La 2etik bigarren B mailako partidak ematen ditu.

**Telenorte Ieko ikusleak\*:**

14,00etatik 14,20etara:

Telecinco	26,7 %
TVE 1	18,7 %
Antena 3	18,6 %
ETB 2	17,6 %
La 2	8,4 %
ETB 1	3,9 %

*D\* 2002ko lehenengo hiruhilekoko datuak*

**NAFARROAKO CENTRO TERRITORIAL DELAKOA**

1981eko San Ferminetako txupinazarekin ekin zion igortzeari TVEk Nafarroan ezarri zuen Centro Territorialak. Iruñako Avelino Alvarez klinika zaharrean kokatzen zen. Ebakuntza-gelak aprobetxatuz, albistegietarako eta programetarako set-ak ezarri ziren. Bitxikeria gisa, lekuaren altuera eskasa zela eta, grabazio guztiak zilik egin behar ziren, fokuekin ilea erretzeko arriskua baitzegeon.

Kanal propiorik gabeko Autonomia Erkidegoa zenez, TVEk Nafarroan zuen Centro Territorialak Euskadikoak baina bi ordu

gehiagoko emisioa zuen. Denbora hori Nafarroako herrietako eta eskualdeetako informazio osoa estaltzera xedatzen zen, eta baita entretenimenduko eta espektakuloko zenbait produkzioetara ere.

**Euskara ez da nabamentzen kate horretan.** Izan ere, euskararen erabilera arautzen duen foru-legeak zehazten duena zehatz-mehatz betetzera mugatzen zen. Eguneroko bost minutuko *Arin-arin* programa igortzen zen euskaraz, berri nagusiak eta kultura autoktonoko zenbait gai laburtuz.

**ALBISTEGIAK**

*Navarra* albistegiko lehenengo edizioa egunerok igortzen da (asteleheneretik ostiralera), 14,05etatik 14,20etara, eta bigarren edizioa 20,30etatik 20,40etara. Azken hori *Navarra de cerca* programarekin lotzen da. 20 minutuko programa horiek herrietako eta auzoetako geografia periferikoko gaiak jorratzen ditu. Difusio informatiboa *Informe semanal territorial* delakoarekin osatzen da. Larunbatetan ematen da, 19,30etatik 20,00etara, La 2 katean. Erreportaje-formatuan landutako eta sakontasunez garatutako berriak ematen ditu.

**KIROLAK**

TVEk Nafarroan duen Centro Territorial delakoak bere bitartekoen zati garrantzitsu bat **kirol jarduerak** ematera xedatzen du. Astelehenero, arratsaldeko 7etatik 8etara, La 2 kateak *Deportivo* izeneko magazine bat igortzen du. Programa horrek asteburuko kirol-gertaerak aztertzen ditu. Ondoren *Deporte de riesgo* programa ematen da. Kanpoaldean grabatutako programa da, Nafarroan praktikatzen diren kirol ikusgarrienei buruzkoa: izotz gaineko eskalada, ur-lasterren jaitsiera, urpekaritza, parapentea,... Espazio bera euskaraz errépikatzen da asteazkenetan arratsaldeko 19,00etan.

Asteartero, urtarrila eta ekaina bitartean, eta urria eta abendua bitartean, Huarteko Euskal Jai Berritik erreremonte-partidak ematen dira.

Asteazkenetan, *Arantza*-denboraldiaren baruan, izenburu hori duen programa bat igortzen da. Programa horretan kañaren kirolaren eta urpekaritzaren teknika eta modalitateak errepatatzen dira. Azkenik, ostiraletan, 19,00etan (denboraldian), Bigarren B mailako partidak eskaintzen dira.

**DIBULGAZIOA**

Informazioarekin eta kirolarekin batera, Nafarroako telebista publikoak bere parrillan osasun-dibulgazioko programak, gaurkotasuneko pertsonaien elkarrizketak, natura eta aisialdiari buruzko dokumentalak eta magazine kulturalak ere barne hartzen ditu.

**FESTAK**

Festa eta ekitaldi garrantzitsuen estalduraz ere arduratzen da Nafarroako TVE. Bere kamerak Xabier festan, Tuterako Aingeruaren Jaitsieran, Vianako Printzea Sariaren emanaldian, eta San Frantzisko Xabier festako Urrezko Dominaren emanaldian egon ohi dira. Baita ere, noski, San Ferminetan: txupinazotik hasi eta *Pobre de mi* delakoraino.

**Arin-Arin eta Navarra-1 programen ikusleak\*:**

14,00etatik 14,20etara:

TVE 1	37,2 %
Telecinco	23,7 %
ETB 2	11,9 %
Antena 3	9,5 %
La 2	5,7 %
ETB 1	0,4 %

*\*2002ko lehenengo hiruhilekoko datuak.*

# EUSKAL TELEBISTA



## IRAGANETIK ETORKIZUNERA

1979ko abenduaren 18an onartu zen **EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA-ESTATUTUKO** 19. artikuluan, Eusko Jaurlaritzari «bere helburuak lortzeko, bere telebista, irratia eta prentsa propioa, eta oro har, gizarte-komunikazioko bide guztiak arautzeko, sortzeko eta mantentzeko» boterea ematen zitzaion.

**EUSKAL TELEBISTA BI KATEETAN FINKATU DA.** Kate horiek euskal ikusleen lehentasunaz gozaten dute, herrialdeko ikus-entzunezko produkzio-etxe handiena izateaz gain. Etxe horren inguruan espezialitate guztietako profesionalak jarduten dira: errealizadoreak, produktoreak, gidoilariak, aktoreak, aurkezleak...

### LEHENENGO URRATSA: 80KO HAMARRALDIAN

#### ● HASTAPEN ZAILAK

1979ko abenduaren 18an onartu zen Euskal Herriko Autonomia-estatutuko 19. artikuluan, Eusko Jaurlaritzari «bere helburuak lortzeko, bere telebista, irratia eta prentsa propioa, eta oro har, gizarte-komunikazioko bide guztiak arautzeko, sortzeko eta mantentzeko» boterea ematen zitzaion. Horretan babestuz, Gasteizko Gobernuak 1982an euskal titularitate publikoko telebista eta irrati egitura bat ezarri zuen: Euskal Irrati Telebista, EITB.

Administrazio zentrala erabaki horren aurka agertu zen. Izan ere, bere ustez, autonomia erkidegoek, gai horretan oinarrizkoa zen arauaren arabera, hots, 1980ko Irrati eta Telebistaren Estatutuaren arabera, ez zuten telebistak sortzeko eskumenik. Aitzitik, titularitate estatalekoak ziren baina autonomia erkidegoek kudeatzen zituzten «hirugarren kate» autonomikoak (horrela deitzen ziren estaldura nazionaleko bi kate nagusiak osatzen zituztelako) arautzea aurreikusten zen. Interpretazio horren arabera, beraz, ez zen aurreikusten Administrazioaren kontrolatik kanpoko «laugarren telebista-kateak» existitzea.

Baina Eusko Jaurlaritzak defendatzen zuen Gernikako Estatutua, maila altuagoko arau bat izateaz gain, konologikoki ere Irrati eta Telebistaren Legeari



Ramón Labaien Kulturako Sailburua, eskuinaldean, euskal telebistaren sustatzailea. Ezkerraldean, Jose Ramon Beloki. 1981eko apirila.

ETBko egoitza Donostian.



aurretik zegoela, eta bertako artikulatua espresuki adierazten zela Euskadiko gizarte-komunikazioari buruzko oinarrizko arauak zuzenean Espainiako Konstituzioaren menpe geratzen zirela.


Autonomia jaioberririk telebistako monopolioari erronka egin zitzaion. Erronka horrek Estatuak eta bere mendeko erakundeek sustatutako boikot bat izan zuten erantzun gisa. Administrazioak ez zizkien ematen frekuentziak emititzeko zentro berriei, eta kate berria abiarazteko Estatu Batuetatik inportatu ziren ekipoei ez zitzaizkien behar zituzten lizentziak eman; aldi berean, RTVEk ez zituen lurralde barruko igorpenetarako loturak banatu nahi izan, ETBri aholkularitza teknikoa eta langileria kendu zion, eta Europako Irrati Batasunari sartzeari eragotzi zion. Hori dela eta, Iurretako katea ustiapen pribatuko sare bilakatzen zen.

Legeari eta materialei dagozkien zailtasunek euskal irrati eta telebistaren jaiotza eta garapena oztopatu zuten.

#### ● LEHENENGO XEDEAK

Gizartearen sentsibilitatea komunikabide autoktono eta kulturalki eraginkorren existentziaren aldekoa zen. Komunikabide horietan euskarak testigantzakoa baino gehiagokoa den presentzia izango luke. Euskaltzaindiak 1979an egindako inkesta batek islatzen zuen euskaldunen %90ek ezinbestekotzat edo komenigarritzat jotzen zuten





euskarazko telebista bat abiaraztea. Ideia bera zuten euskaraz hitz egiten ez zutenen %84,4. Klase politiko gobernatzaile berriaren desioa baino gehiago –horiena ere, noski-, euskal irrati eta telebista behar sozial bat zen. Baina hasieran ia denak ados bazeuden ere, adostasun horri forma eta edukia ematerakoan gauza asko konplikatu zen.

ETB «euskal hizkuntza eta kultura» sustatzeko helburuarekin jaio zen, eta espresuki alde batera uzten zuen telebista komertzialaren arloko lehiakortasuna. Jatorrian, ez zitzaion ia baliorik eman ikusle-kopuruari edo publizitate-fakturazioari. Bai, baina, eragin politikoari eta aurrerapen kulturalari. Bestalde, ETBk ikus-entzunezko euskal industria egonkor eta lehiakor bat sortzeko motore gisa balio izateko egiteko zuen.

**Hala ere, hasierako ideia horiek,** intentzio onekoak baziren ere, errealitatearekin topo egin zuten. Lehenengo, baliabide-eskasiak programazioa kanpoko produkzio bikoiztueta edo albistegietara murrizten zuelako, eta horrek

ETBren funtzio kulturala kolokan jartzen zuen. Eta, bigarrenik, audientzien presioak, ikus-entzunezko merkatuaren arauak eta diru-sarrerak publizitate eskuratzeko beharrak, euskal telebista kontsumo-programak diseinatuz publiko zabalak erakartzeagatiko lehiaketaren eremura bultzatu zuen.

Azken buruan, eskatzen zitzaion ikus-entzunezko egiturarekiko, ETBren itzalean maila ertaineko eta kanporako proiektio gutxiko produkzio-etxe ugari, eta baldintza minimoetan produzitzeko gai ziren bitartekorik gabeko profesional independenteen talde txiki bat sortu ziren. Hasieran imajinatu ziren proiektu handiak garai hobeak etorri arte atzeratu ziren.

#### SAILBURUAREN 'BOUTADEA'.

Euskal erakundearen arkitektura ez zen asko aldatu eredu espainiarretik, Gobernuaren eskuetan jarri baitzen zuzendari nagusiaren izendapena, Administrazio Kontseiluari ez baitzitzaion erabakitze ahalmenik eman, eta gizarte

eragileak presentzia garrantzitsurik gabe utzi baitziren. Zentzu horretan, euskal telebistak titularitate publikoko komunikabide guztiak jasaten dituzten baldintzapenak sufritu ditu. Altxor publikoaren mendekotasuna.

EITB sortu aurretik egin zen bilera batean, orduan RTVEko zuzendari zen Rafael Arias-Salgadok Ramon Labayen euskal Kultura Sailburuari euskal telebistaren helburuari buruz galdetu zion. Tolosar isekariak ondoko *boutade* honekin erantzun zion: «Helburua? Oso erraza: espainiarra bezain txarra izatea».

#### • ORAINALDIA ETA ETORKIZUNA

Jarri nahi zaizkion *baina* guztiak kontuan hartu gabe, Euskal Telebista euskaldunen lehentasunez gozaten duten bi kateetan finkatu dela onartu behar da. Horrez gain, herrialdeko ikus-entzunezko produkzio-etxe garrantzitsuena bilakatu da. Etxe horren inguruan espezialitate guztietako profesionalak jarduten dira: errealizadoreak,

produktoreak, gidoilariak, aktoreak, aurkezleak,...

Telebista publikoa ekonomikoki zorpekoa bada ere, gertuko eta kalitatezko informazioa eskaintzeaz gain, hizkuntzari, kulturari eta identitateari ematen dion bultzada dela eta, errentagarria da.

Lerro hauek idazten diren bitartean, EITBk *digitalizazio plan* bati aurre egiten dio. Plan hori amaitzean, EITBk bost egoitza integral eta elkarlotu edukiko ditu euskal kulturaren alorreko hiri nagusienetan kokatuta (Baiona, Bilbo, Donostia, Iruña eta Gasteiz).

Lehenengo urratsa da Gasteizko irrati eta telebista digitaleko telebista-instalazio berria irekitzea. DIGIBat programan parte hartzen du, eta bertan taldeko komunikabide guztiak kontzentratuko dira.

Era berean, bost milioi euro Donostian dagoen Miramongo Produkzio-zentroa digitalizatzea xedatuko dira.

EITBko egoitza nagusia, eta lurretan kokatzen den albistegi-zentroa, 2004. urtean Bilboko

Erakustazokak utzitako lurretara lekualdutako dira.

Une horretan EITBk bere historiako kapitulu berri bati ekiten dio.

Euskal Telebista, zifratan	
Langile-kopurua .....	684
ETB 1eko emisio-orduak ...	8.760 h
ETB 2ko emisio-orduak .....	8.300 h
Euskal Kanala-ETB Sat .....	8.760 h
Ekoizpen propioa % .....	71,4 %

Ekoizpen propioaren zatiketa generoen arabera:	
Informazioa/Kultura .....	58 %
Denetarik .....	16,4 %
Fikzioa .....	8,8 %
Kirolak .....	5,9 %
Lehiaketak/Barietateak .....	3,2 %
Musikalak .....	5,4 %
Erlijiosoak .....	1,6 %
Bestelakoak .....	0,7 %
Kanpoko ekoizpena .....	28,6 %

Kanpoko ekoizpena generoen arabera:	
Telesailak .....	30,7 %
Zinea .....	28,9 %
Fikzioko bestelakoak .....	19,9 %
Kulturalak .....	16 %
Kirolak .....	1,7 %
Denetarik .....	1,8 %
Musikalak .....	1 %

2001eko ustiapenaren aurrekontua	
	90.096.000 e

2001ean publizitateagatik lortutako diru-sarrerara garbia	
	21.241.000 e

## ■ ETB 1

Euskal telebistaren abentura 1982ko abenduaren 31n hasi zen. Urteberriko kanpaiekin batera, Elene Lizarralde kate berriaren, Euskal Telebistaren, emisioen hasiera iragarri zuen. Ondoren Carlos Garaikoetxea lehendakariaren agurra ikusi ahal izan zen.


Dudarik gabe, une hunkigarri bat izan zen. Guztiok ikusi genuen nola belaunaldi belaunaldi amestutako hori errealitate egiten zen. Eta bagenekien orduan jai berri zen etxea euskal gizartearentzat lehenengo mailako erreferente kultural eta informatzaile bilakatu zela. Eta denborak orduan iragarritakoa berretsitu du. Eta bere homologoen bertute guztiak –eta baita akatsak ere, zergatik ez?– biltzen dituen euskal telebista bat sortzea posible zela erakutsi du.

## ● TOKIKOA DENA ETA UNIBERTSALA DENA

ETB 1 Euskal Herriko errealitatea errotutako komunikabide bat da. Zifrek ez dute zalantzarako lekuri uzten. EHUk finantzaturako ikerketa batek erakutsi zuen telebista-kateko emisioen %72,2k (1998ko udaberriko programazioan) euskalduna denarekiko harreman-elementuren bat zutela. Gainera, ikusle-kopuru handieneko orduetegiaren (*prime-time*) portzentaje hori %78,3ra igotzen zen.

Tokikoarekiko erreferentzialtasun nabarmen hori, hala ere, kontrako bihurtu zen, askotan kultur berekoikeria izateaz salatua zen telebista-kate batetan. Egia da

EITBko antzinako logotipoa.



zenbait denboralditan herrikoia zenak, aldaera orotan, gehiegizko azalpena izan zuela. Hori horrela, telebista-kate euskaldunak, irudi nahiko lausoarekin, «baserri elektronikoa» deitza jasan behar izan zuen, ETB 2 «hiritarrarekiko» kontrastean.

Era berean, ikusleen adina bi muturretan aurkitu zen: haurrak, beti fidelak, eta adineko pertsonak, kirol eskaintza zabalak eragiten duen zuzenketa ororen. Hala ere, laurogeita hamarreko hamarraldiko amaieratik aurrera ETB 1ek bilakaera bat jasan du bi alderdi horietan, autoktonoagatik apustua galdu gabe, eta bere «betiko» ikusleak defraudatu gabe. Bere irudia modernizatu du, aldi berean eduki anitzago eta arriskatuagoetara, eta baita abangoardiako edukietara irekiz. Horrek ikusleak gaztetzea eragin du.

Aldi berean, Iurretako telebista-instalazioa mundu globalizatu batetako hiritarrek dituzten interesen eta kezken, errealitate mestizagoen eta zerbitzu ematen dion herrialdearen pertsonalitateari dagozkion

sentsibilitateen aniztasunaren bozeramailea bilakatu da.

Eta nahiz eta ETB titularitate publikoko baliabide informatibo orok duen kutsu ideologikoetatik at ez egon, ez dugu ahantzi behar alor horretan ibili den bidea oso garrantzitsua izan dela.

## ● EUSKARA

ETB izan den eta egun den horretara egiten ari garen hurbilketan ez dugu alde batera utzi behar euskararen normalizazioaren alde egin duen ekarpena. Agian, Erakunde sortu zutenak gehiegikerian erori ziren «euskara salbatzeko telebista» baten beharrari buruz ohartarazi zutenean, baina egia da ETB gabe

borrokatzera deitua izan da. ETB 1en bokazio publiko horrek berdin eragiten dio zehatza denari eta abstraktua denari, politika orokorreko eztabaida handiei eta errentagarritasun-irizpideetatik bakarrik gidatzen diren horiek inongo interesik edukiko ez luketen herrirka txiki horietan gertatzen dena.

Lehenengo kate publikoaren programazioa, funtsean, lau ardatzen gainean oinarritu da: haurrak, kirolak, magazineak eta dokumentalak. Lau atal horiek ETBren parrillaren %65 inguru okupatzen dute. Eta horietan guztietan, urteak iragan ahala, euskal telebista-kulturaren ondarea aberastu duten programak gauzatu dira. Euskal telebista-kulturarekin informazioko, trebakuntzako eta entrenimenduzko une asko bizi ditugu guztiok. *Bai Horixe, Bi eta Bat, Goenkale, Kirolez Kirol, Gaur Egun, Superbat, Betizu, Sorginen Laratza, Euskal Herria lau baiz eeta...* Telebista anitz eta irekiko proposamen batetarako ibilgailu eta euskarria izan da euskara ETB 1en.

## ETB 1 EKO IKUSLEEN PROFILA

Gizonak .....	57,3 %
Emakumeak .....	42,7 %
65 urtetik gorakoak .....	31,3 %
45 eta 64 urte bitartekoak ...	23,7 %
25 eta 44 urte bitartekoak ...	21,2 %
4 eta 12 urte bitartekoak .....	14,3 %
13 eta 24 urte bitartekoak .....	9,5 %

GECAk (2002) egina,  
TNS Sofres-eko datuetan oinarrituta.

## ■ ETB 2

1986ko maiatzaren 31n abiatu zen Euskal Telebistako bigarren katea. Eta bertako nahiz kanpokoentzako ezustekoa izan zen, EITBko zuzendari nagusiak, garai hartan Jose Maria Gorordo, proiektua isilpean gauzatzeko gai izan baitzen. Izan ere, horrela, nazioko Gobernuak, jakin izan balu, proiektua geldiarazteko helburuarekin ezarriko zituen oztupoak eta trabak saihesti nahi izan ziren.

Kalkulua zuzena izan zen, eta gertaerak arrazoia eman zioten: polizia-itxierarekin mehatxatu bazuten ere, eta saiatu, saiatu baziren ere, ETB 2ren sorkuntza legearen zirikituetaz baliatuz legeztatu ahal izan zen. Horrela adierazi zuen Auzitegi Konstituzionalak, kasutik inhibituz zenean.

ETB 2 sortzearen arrazoiak desberdinak izan ziren: ekonomikoak, teknikoak eta soziologikoak. Lehenengo kateak lehenengo hiru urteetan izan zituen ikusle-kopurua ez ziren nahikoak izan, eta horrek publizitateagatik diru-sarrerara oso txikietan eragina zuen. Bestalde, jadanik iragarrita zegoen handik

gauzak beste modu batetara gertatuko lirakeela. Euskara, familiarteko altxor intimoa, etxeko paretetan gordetzen zena eta gehiegitan plaza publikoetan isilarazia zena, 1983tik aurrera familia-alorretan sartu zen leiho katodiko baten bidez, eta elkarrenganako eraginaren bidez, leiho bere horretatik mundu osora zabaldu zen. Horri dagokionez esan daiteke ETB 1ek euskara gure inguruneke beste gizarteetan erabilera mediatikoa duten beste hizkuntzetara par ekotu zuela.

ETB 1ek euskara hizkuntza zaharra elementu bizi eta eguneroko den ezkutuko tokietaraino eramaten du, eta, horrela, kultura euskalduna Autonomia Erkidegoko mugez haraindian mantentzeko funtzio nagusia betetzen du.

## ● ZERBITZU PUBLIKOA ETA EDUKIAK

ETB 1 gehiago izan da zerbitzu publikoko kate, bere ahizpa txiki ETB 2 baino. Izan ere, ETB 2 komertzialtasunaren alorrean lehiatzen eta gaztelerazko antena handiekin entzule-kopuruak

urte gutxira telebista eduki berritzaileekin beteko zuten kanal pribatu mordo iritsiko zela; ikuspegi horren haurrean nahitaezkoa zen ETBk aurrera egitea, gaztelarazko espazio propio bat eratuz. Azkenik, inork ez zuen ahazten Euskadiko errrealitate soziolinguistikoak hasiera batean behintzat euskaldun ororen telebista izan behar zuen horrekin gaztelaraz hitz egiten zuten biztanleak ere identifikatu beharra eskatzen zuela.

● LEHENENGO ETAPA:  
1986-1989

ETB 2ren strategiak, hasieran, zortea frogatu zuen, eta berehala jaso zuen ikusleen babes. Telesail eta pelikulez gain –hori bai, errepikapen amaigabeekin-, ekoizpen propioaren arazoa esperientzia handiko komunikatzaileak kontratatuz konpondu zen. Izan ere, programa horietarako aurrekontu txikia zegoen, baina aurkezleen telebista-erakargarritasunak konpontzen zuten hori: José María Íñigo (*Íñigo en directo*), Andrés Aberasturi (*Cuarto creciente*) edo Fernando García Tola (*La muga*).

Aurrerago, 1988tik aurrera, ekoizpen propioen kapituluak bere eremua eta espektroa zabaldu zuten. Orduan iritsi ziren Miramonera Antxon Urrusolo, TVE territorialeko *enfant terrible* delakoa; Jose Luis Moreno, FORTAko (Telebista autonomikoen federazioa) programa nagusia izan zen *Entre amigos* programarekin; Íñaki Gabilondo, osteguneroko programarekin; edo Ramón García gaztetxo, *Tal para cual* programarekin estreinatu zena. 1989 bukaeran jadanik ETBk milioi bat ikusle baino gehiago zituen egunero. Hori bai marka.

■ BIGARREN ETAPA:  
90EKO HAMARRALDIA

● PRIBATUAK IRITSI ZIREN


Telebista pribatuak abiaraztearekin batera, laurogeita hamarreko hamarraldiaren hasieran, lehiakortasuna asko zorrotzu zen.

ETBk, oro har, *prime-tim*eko ikusle-kopuruaren %25 galdu zuen. Erantzunik berehalakoena telebista kalera ateratzea, lurraldeko bilakatzea eta ikuslearen eremura hurbiltzea izan zen. Hots, Telecinco, Antena 3 edo Canal + bezalako kateak iristen ez ziren leku horietara iristea. Albistegietako taldeak indartzeaz arduratu zen Mikel Lejarza. Mikel Lejarza, ondoren, Espainiako ikus-entzunezko panoraman gakoa izango zen.

Baina pribatuen eraginik okerrena izan zen ETB 2 –ondoren TVE bezala- Komertzialtasunarengatik lehiatzera bultzatu zutela. Funtsik

Batez besteko ikusleak katez kate Telebistako ikusleak Euskal Autonomia Erkidegoan:				
	Euskadiko bat/bes	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Batez bestekoa guztira	81,7	79,9	81,8	82,4
TVE 1	27,7	27,3	29,3	25,2
La 2	10	9,9	9,6	10,7
ETB 1	10,1	5,8	6,2	18,6
ETB 2	29,9	23,2	29,6	33
Antena 3	22,1	25,9	21,9	21
Telecinco	34,6	37,4	32,6	36,7
Canal+	4,6	4,2	3,9	5,9
Tokikoak	5,2	5,1	5,6	4,2
Digitalak/bestelakoak	1,9	2,3	2,1	2,9

*Iturria: CIES-Eustat. 2001 urtea.*



Euskal telesailtako ikusleak, 1993-1999			
Telesaila	Katea	Urtea	Ikusleak
Goenkale	ETB 1	1997	33,4 %
Jaun ta Jabe	ETB 1	1996	22,6 %
Bi eta bat	ETB 1	1993	21,3 %
A ze par ea!	ETB 1	1995	18,5 %
Ertzainak	ETB 1	1999	18,2 %
Benta Berri	ETB 1	1997	16,1 %
Gure familia eta beste piztia batzuk	ETB 1	1997	15,7 %
64	ETB 2	1993	14,8 %
Maité	ETB 2	1997	13,0 %
Duplex	ETB 1	1994	12,2 %
64	ETB 1	1993	10,2 %
Señorío de Larrea	ETB 2	1999	10,2 %
Entre dos fuegos	ETB 2	1998	9,2 %
Las memorias de Karbo Vantas	ETB 2	1995	8,9 %
Flamingo Berria	ETB 1	1993	6,8 %
Amaren etxea	ETB 1	1994	3,8 %

*Iturria: Telelilura, 1990-2000. Ainhoa Itazu.*

gabeko lehiaketak ugaldutako ziren, prentsa arrosa eta *talk-show* diareloak indarrez sartu ziren, eta zinemaren aldeko apustu bikaina egin zen Felix Linares eta bere taldearen eskutik (*Instinto básico* filma eman zenean, kateak gailurrari jo zuen ikusle-kopuari dagokionez).

Oro har sustatu zena da gainerako kateekiko programazio-mimetismoa, Estatuan arrakasta handiena zuten programen bertsio «euskaldunak».

Íñaki Zarrakoak zuzendari nagusi gisa izan zuen agintaldiaren amaiera aldean, eta Andoni Ortuzarren agintaldiaren hasieran, fikzioko ekoizpen propioa apustu solido eta interesgarri bat izan zen. Are gehiago komunikabideko profesionalen artean ETBk euskal zinea eta antzerkia sustatzeko zuen interes eskasa zela eta zegoen frustrazio orokortua kontuan hartuta. *Maité* telesailarekin hasi ziren, eta ondoren *Señorío de Larrea*, *Entre dos fuegos*, *Platos sucios*, *Alquilados*, *Campus...* eta abar bezalako produkzioekin jarraitu zen. Aitzitik, ikusle-indizeek frogatzen dute ETB 2ko publikoak fideltasunez jarraitzen dituela bere dokumentalak, lehiaketak, magazine arrosak, *talk-show* programak eta filmak.

● PROFESIONALAK  
ETA AUDIENTZIAK

17 urteko biziarekin, badirudi ETB 2 %20-25 inguruko ikusle-mailarekin finkatu dela. Edukiak nahiz helburuak kontuan hartuta, berdintasun-baldintzatan lehiatzen da gainerako kate nazionalekin, eta, hain zuzen ere, hemen nabarmentzen diren profesional ugarik Madrilerako salto egiten dute azkenik: Antxon Urrusolo, Patricia Gaztañaga, Emma García, Yolanda Alzola, Carlos Sobera, Patxi Alonso, Anne Igartiburu, Ramón García...


2002ko abuztuan ETB 2k bere historiako emaitza hoberean lortu zituen, eta Euskadin gehien ikusi zen telebista bilakatu zen, Telecinco, TVE 1 eta Antena 3 gaingiduz. Urte horretan zehar *share*aren %18,4ko marka edukitzeraz iritsi zen. Datu hori, udan, kuotaren %20 arte igo da. Horrela, Kataluniako TV3ren ondoren, bigarren potentzia autonomikoan bilakatu zen.

ETB 2ko ikusleen profila

Emakumeak ..... 58,5 %  
Gizonak ..... 41,5 %  
45 eta 64 urte bitar tekoak ... 29,8 %  
25 eta 44 urte bitar tekoak ..... 29 %  
65 urte baino gehiagokoak .. 28,1 %  
4 eta 12 urte bitar tekoak ..... 2,1 %  
13 eta 24 urte bitar tekoak ..... 11 %

*GECAk egina (2002)  
TNS Sofresen datuetan oinarrituta.*

# PRIBATUAK



## 1991N GURE ANTENEN

Espainiako lehenengo bi telebista-kate pribatuek igortzen zuten seinalea jaso zuten. Bi kate berri horiek Antena 3 eta Teletrece ziren. Egin zitzairen harrera kontraesankorra izan zen: jendea pozik zegoen azkenik kate publikoen monopolio-kontrola hautsi zelako, baina, aldi berean, desengainatuta eta harrিতuta sentitzen zen, kate berrien emisioen kalitate eskasa ikusi ondoren.

Urteak iragan ahala, irekian emititzen duten bi telebista-kateek, eta, nola ez, kodifikatutako kateak heldu eta finkatu egin dute hasiera batetan entretenimenduan oinarritutako eskaintza hori, gaur egun genero-espektrua ia guztiak estaltzen duena.

### ■ ESKAINTZA ZABALDU EGITEN DA

1991n gure antenek Espainiako lehenengo bi telebista-kate pribatuek igortzen zuten seinalea jaso zuten. Bi kate berri horiek Antena 3 eta Teletrece ziren. Egin zitzairen harrera kontraesankorra izan zen: jendea pozik zegoen azkenik kate publikoen monopolio-kontrola hautsi zelako, baina, aldi berean, desengainatuta eta harrিতuta sentitzen zen, kate berrien emisioen kalitate eskasa ikusi ondoren.

Urteak iragan ahala, irekian emititzen duten bi telebista-kateek, eta, nola ez, kodifikatutako kateak heldu eta finkatu egin dute hasiera batetan entretenimenduan oinarritutako eskaintza hori, gaur egun genero-espektrua ia guztiak estaltzen duena.

### ● TELECEINCO

Pribatizatzea ireki aurreko urteetan Espainian telebista-erreduei buruzko eztabaida handi bat bizi izan zen. Publikoa sutsuki defendatzen zutenek zituen kate berriek zabarkeria, hutsalakeria eta komertzialtasuna besterik ez zutela ekarriko.

Silvio Berlusconiaren Teletrece gure artera iragarpen horrekin betetzeko prest iritsi zen. Lehenengo urteetan ikusleen artean lekua izan zuen; profil oso baxuko gaiak eskaintzen zituen, baina asko existitzen ez zuten publiko baten artean erakargarriak ziren. Hala ere, urteak joan ahala Teletrece pixkanakako bilakaera jasan du, telebista-eredu komertzial

ANTENA 3	TELE 5	CANAL +	CANAL SATÉLITE
<b>07:00</b> Noticias Matutik. (170.00) <b>07:30</b> Club Magarín. Susurros. (160.00) <b>08:00</b> El primer café. Con Susurros. (160.00) <b>08:30</b> Desde la vida. (160.00) <b>09:00</b> Las tardes con la vida. (160.00) <b>09:30</b> Desde la vida. (160.00) <b>10:00</b> Desde la vida. (160.00) <b>10:30</b> Desde la vida. (160.00) <b>11:00</b> Desde la vida. (160.00) <b>11:30</b> Desde la vida. (160.00) <b>12:00</b> Desde la vida. (160.00)	<b>08:00</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>08:30</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>09:00</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>09:30</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>10:00</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>10:30</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>11:00</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>11:30</b> Noticias Televisión. (160.00) <b>12:00</b> Noticias Televisión. (160.00)	<b>08:00</b> Noticias. (160.00) <b>08:30</b> Noticias. (160.00) <b>09:00</b> Noticias. (160.00) <b>09:30</b> Noticias. (160.00) <b>10:00</b> Noticias. (160.00) <b>10:30</b> Noticias. (160.00) <b>11:00</b> Noticias. (160.00) <b>11:30</b> Noticias. (160.00) <b>12:00</b> Noticias. (160.00)	<b>08:00</b> Noticias. (160.00) <b>08:30</b> Noticias. (160.00) <b>09:00</b> Noticias. (160.00) <b>09:30</b> Noticias. (160.00) <b>10:00</b> Noticias. (160.00) <b>10:30</b> Noticias. (160.00) <b>11:00</b> Noticias. (160.00) <b>11:30</b> Noticias. (160.00) <b>12:00</b> Noticias. (160.00)

lehiakorrago eta inteligentego batetarako.

Euskadirekiko eta Nafarroarekiko deskonexioak daude astelehenerik ostiralera, 10 minutuko albiste berri bat eskaintzen albiste nazionalen barruan sartuta. Deskonexio horiek gain, lanunbat arratsaldeetan pilota partidu bat emititzeko beste deskonexio bat ere bada.

Teletrece da ikusle euskaldunek gehien baloratzen duten katea. Bere batez besteko ikusle-kopurua %34 ingunokoa da, eta liderra da Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan (2002ko datuak).

### ● ANTENA 3

Kanal «familiar» nagusia da, eta telebista pribatuen ahizpa pobrea da. Lehenengo hamar urteetan bere kapitalaren eraketak aldaketa handiak jasan zituen, azkenean Telefonikak bere kontrola eskuratu zuen arte. Borondatea duen kate bat da, profesional onekin eta fitxaketa handiekin, baina TVE eta Teletrece «erraldoiekin» lehiatzeko aukera gutxiarekin.

Kate pribatuetatik Antena 3 da informazio territorialera denbora gehien xedatzen duen katea:

astelehenerik ostiralera, 13.30etatik 14.00etara.

%22,1eko batez besteko ikusle-kopurua du, eta Euskal Herrian laugarren postua okupatzen du, Teletrece, ETB2 eta TVE1 kateen atzetik. Araban hirugarrena da, ETB 2ren aurretik.

### ● CANAL +

Kapital espainiar eta frantziarrarekin, ordainpeko telebista Juan Cuetoaren zuzendaritzapean abiarazi zen. Juan Cueto, telebista-kritikaren maisu eta intelektual fina, Televisión Españolaen zigorra izan zen bere monopolio-erreinuan zehar. Hori dela eta, arraroa izan zen Canal + kateko emisioei ekitean hiru oinarri komertzialen gainean zimentatuta izana: futbola, zezenak eta porno-zinema. Egia da, hala ere, bere parrillan ezkatututa benetako perla dokumental eta zinematografikoak, umore-programak eta albiste guztiak aurkitu ditugula.

Prisa enpresa zuzendariak Canal Satellite Digital plataformaren bidez satelite bidezko telebistaren alde egindako apustua dela eta Canal + kapital murriztuarekin geratu da. Lehiatzaile bakarra, Via Digital, ia osorik xurgatu ondoren, badirudi Polanco handikiari bere negozio kodifikatua txikia geratu zaiola. Ez dago batere argi «Plusak» edukiko duen etorkizuna.

Laurogeita hamarreko hamarralditik Canal + da Donostiako Zinemaldiko babesle nagusia etorkizuna, eta urte urte estaldura zabal bat eskaintzen dio Zinemaldiari.



# TELEBISTA LOKALAK



**LEHENENGO EUSKAL TELEBISTA LOKALA** Ondarruko Telebista izan zen. 1985eko abenduaren 6an abiarazi zen. Hasierako atal hark jarraikortasuna izan zuen egitura ez profesionaleko eta legeko estalduririk gabeko udal eremuko telebista-kate txikien multzo bat azaldu zenean.

**EUSKAL TELEBISTA LOKALAREN HAZKUNDEA** enpresa-kontzentrazio nabarmen baten erritmoan garatu da. Egun, Baskonia penintsularrean hogeita hamar telebista-kate lokal baino gehiagok funtzionatzen dute.

## ■ GERTUKO INFORMAZIOA

**Lehenengo euskal telebista lokalak** Ondarruko Telebista izan zen. 1985eko abenduaren 6an abiarazi zen. Hasierako atal hark jarraikortasuna izan zuen egitura ez profesionaleko eta legeko estalduririk gabeko udal eremuko telebista-kate txikien multzo bat azaldu zenean. Ia esklusiboki gertuko informazioa xedatzen ziren emisorak ziren, eta, baliabide kaskarrenekin ere, eskualdeko ikusleago lortu zuten.

1995ean Lurreko Uhinen bidezko Tokiko Telebistaren Legean onartu zenetik, telebista lokalak laguntza handia izan zuen alor horretan komunikazio-talde handienetako batzuk sartzearekin. Komunikabideen inperio horiek agertzeari esker tokiko telebisten kudeaketa profesionalizatu egin zen, horien edukia aberastu egin ziren, eta -hiritan behintzat- tokiko telebista hasieratik jasan izan zuen prekariotasunetik eta estatusunetik atera zen.

## ■ EUSKAL HERRIKO PANORAMA

Gauzak horrela, euskal telebista lokalaren hazkundera enpresa-kontzentrazio nabarmen baten erritmoan garatu da. Egun, Baskonia penintsularrean hogeita hamar telebista-kate lokal baino gehiagok funtzionatzen dute, gehienak Gipuzkoak kontzentratzen direlarik. «Pastela»,



funtsean, nukleo hiritar tuenetan ikusle-kopuru garrantzitsu bat hartzen duten hiru enpresa nazionalen artean banatzen da: **Une**, **Localia** eta **Local Media**.

**Grupo Correok**, *Uneren* bidez, *Canal 6 navarro*, *Alava 7*, *TeleDonosti* eta *Bilbovisión* kateen akzioak kontrolatzen ditu.

**Prisa** taldea *El País*, *As* eta *Cinco Días* egunkariaren eta *SER* emisora-katearen jabea da. Horrez gain, Espainia osotik *Localia TV* izeneko tokiko telebista-kateen sare bat du. Eremu nazionaleko «kateen kate» bat.

Gure artean ondoko hauek ditu *Localia TV* kateak: *Canal 4 de Pamplona* Nafarroan, *Canal Gasteiz* eta *Alto Nervión TV* Araban, eta *Localia TV Gipuzkoa* Donostian, *Txingudi Telebista* Irunen eta *Canal Bizkaia* Bizkaian.

Apezpiku-batzarraren irradi-organoa, *COPE*, *Popular TV de Pamplona* sartu zen.

Xumeagoa da **Local Media**, *Telebilbao* eta *Televitoria* kateak dituen eremu nazionaleko elkarteak. Elkarte hori, gainera, *Teledonostiren* jatorrian egon zen.

Azkenik, Madrilgo TVLk *Gran Bilbao Television* eta *MX de Vitoria* ditu. Horiek, batez ere lehiaketetan oinarritzen den programazioa dute.

Gainera, **Euskaltel** teleko munikazioen operadoreak akzioak ditu *Tele 7*, *Canal Bizkaia* eta *Canal Gasteiz*en.



## ■ EREMU LEGAL BERRIA

1995eko Legea bere garapen legegilearen zain egon zen bitartean, Espainiako telebista lokalak alegalitatean barena ibili ziren. Hala ere, 2003ko urtarrilean indarrean sartu zen *Telebista Lokalen Lege* horren aldaketa bat. Aldaketa horrek korporazio mediatiko handien mugimenduak mugatzen ditu.

Aldaketa horren arabera, «*kateak sortzea eta telebista lokaletako emisioa kontrolatzea Autonomia Erkidegoei dagokie, kateen sorkuntza nahiz emisioa autonomia erkidego bat baino gehiagorena den lurraldetik edo udalerrietatik gauzatzen denean izan ezik, kasu horretan Estatuko Administrazio Orokorrari baitagokio*».

**Kateetako emisioei dagokienez**, Autonomia Erkidegoek botere hori emisioek udalerrri bat baino gehiago eragiten duten kasuetarako kontserbatzen dute.

Bestalde, kate pribatu nazional batetako *akziodunek* ezin dute parte hartu beste motako edozein telebistatan, autonomia eremukoa edo lokala izan. Murrizketa horiek eragina dute funtsean Prisan eta Grupo Correo-Prensa Española enpresan, horiek bi alderdian interes handiak baitituzte.

Telebista lokalen etorkizuna ari batetik zintzilik dago, lizentzia eta kapital-murrizketengatik, hala nola arrazoi teknologikoengatik. Izan ere, xedapen batek 2012ko urtarrilaren 1erako *teknologia*

*digitala* erabiltzera derrigor tzen ditu irrati eta telebista-kate guztiak. Kate xumeenek ezingo dute jasan sistema berri hori aplikatzeak eragin dezakeen koste finantzarioa.

Ondorioz, trantsizio-une batetan aurkitzen gara. Eta trantsizio honen amaieran telebista lokalen panorama horien jatorrian ezagutu dugunaren oso desberdina izango da.

## ■ ZUZENAK ETA BEREHALAKOAK

Ikus-entzunezko proposamenez saturatutako merkatu batetan, kate lokalen biziraupena posible egiten duena, gertukoaren informazioa da.

Entretinemendu-produktuei, pelikulei edo umore-programei uko egin gabe, telebista lokalak berehalakotasunagatik bereizten dira: beste edozein kateetan baino lehenago ikusten dugu gertatzen dena, entzuten dugu hitz egiten

dena, eta kalean bertan, gure ingurunean, gertatzen denari buruz jakiten dugu. Eguneroko bizitza, garraioa, eskolak, lana, azokak, osasuna, kirol-jarduerak, jarduera artistikoak, politikoak, sozialak, kulturalak... Ikuslearen inguruan garatzen diren jarduerak horiek guztiak isla automatikoa dute kate lokaletan.

Telebista, horrela, hiriaren zati bilakatzen da: egunero hiritar asko biltzen dituen kale bat edo plaza bat. Ez politikoak edo gaur egungo pertsonaiek bakarrik, baita arrazoi bat edo beste dela eta zerbait esan edo erakutsi behar duten pertsona anonimo horiek ere.

Telebista lokalak arrakasta dute telebista orokorrekin porrot egiten duten alor horietan: distantzia motza, xehetasuna, zuzeneko elkarrizketa, berriaren iturriarekiko hurbiltasuna... Telebista lokalekin telebista beste modu batetara baloratzen ikasi dugu, beren intimitateagatik baloratzen.

## TELEBISTA-KATE LOKALAK

### Araba

Alto Nervión TV  
Alava 7, Alava  
Canal Gasteiz  
Tele Vitoria

### Bizkaia

Bilbovision  
Canal Bizkaia  
Canal 23  
Gran Bilbao Televisión  
Plentzia Telebista (Plentzia)  
TeleBilbao  
Tele 7 Bizkaia  
Uribe Kosta Telebista (Sopela)


### Gipuzkoa

TeleDonosti  
Localia TV Gipuzkoa  
Goiena Telebista (Arrasate)  
Ikas Telebista (Andoain)  
Jaitxiki Telebista (Zarautz)  
Kaito Telebista (Azpeitia)  
Kanal On (Andoain)  
KTB Kate Berria (Eibar)  
Mendaro Telebista (Debabehea)  
Oarso Telebista (Oiarzun)  
Telesko Udal Telebista (Eskoriatza)  
Txingudi Telebista (Irun)  
Urola Telebista (Urretxu)  
Zarautzko Telebista (Zarautz)

### Nafarroa

Canal 4  
Canal 6  
Tafalla Televisión  
Tele Cadreita  
Tele Cascante  
Popular TV  
Valtierra TV

# SATELITEA ETA DIGITALAK



## TELEKOMUNIKAZIOEN IRAULTZAK

gure esku jarri du telebista-kateen eskaintza geroz eta zabalagoa. Hori oso erakargarria da kontsumorako, baina, era berean, erronka kultural izugarri bat da. Izan ere, informazioaren kontsurtzio handien menpe dagoen ikus-entzuzekoaren merkatu globalean toki gutxi dago eduko autoktonoentzat.

**DIGITALIZAZIOA DA ETORKIZUNA.** Hemendik aurrera, uhin hertziaz lurreko digitalari lekua egingo diote. Eraldaketa tekniko horrek gure esku jarriko ditu irudi-banku izugarriak eta ehunka kanal. Arazoak, beraz, produktu horiek eskuratzeko bitartekoak edukitzea, eta hautatu ahal izateko eta hautatzen jakiteko gako kulturalak edukitzea izango da.

### ■ TELEKOMUNIKAZIOEN ARO BERRIA

**Teknologia berrien jaiotzak** uhin hertziaz bidezko sare arruntera kable eta satellite bidezko transmisioak gehitzea, eta lurreko uhinak digitalizatzea, ahalbidetu du.

Telekomunikazioen iraultzak gure esku jarri du telebista-kateen eskaintza geroz eta handiagoa. Hori oso erakargarria da kontsumorako, baina, era berean, erronka kultural izugarri bat da. Izan ere, informazioaren kontsurtzio handien menpe dagoen ikus-entzuzekoaren merkatu globalean toki gutxi dago eduko autoktonoentzat.

### ■ SATELITEA

Euskal telebista publikoak, Euskal Telebistak, satellite-bidezko nazioarteko emisioei ekin zion 1997an, bere produktuak satellite digitaleko operatzaile pribatuen zerbitzura jarri. Lau urte beranduago ETB Satek hitzarmen bat sinatu zuen *Canal satellite Digital* delakoarekin, Astra satellitearen bidez irekian emititzeko helburuarekin. Horren bidez, 87 milioi etxe europarretara ireki zen. Hala ere, EITBko nazioarteko zuzendaritzak berehala



ulertu zuen Europako eta Ameriketako ikusleak desberdinak zirela beren jatorriari nahiz beren interesei zegokienez: lehenengoak, emigratutako euskaldunak; bigarrenak, euskaldunen ondongoak, gaztelaraz hitz egiten dutenak eta euskal errealitateari dagokionez ezagutza eskasa dutenak.

Hori dela eta, berariaz amerikarra zen kate bat abiaraztea komeni zen. Kate hori *Canal Vasco* da, eta edukiak gaztelaraz, nahiz euskaraz baina azpitoluekin eskaintzen ditu –funtsean ETBren produkzioak, proportzio aldakorrean–.

Hispatat satelliteak, hala nola zenbait kable bidezko enpresak nahiz DTH amerikarrek, ETBko seinalea Amerikara igortzen du.


### ■ DIGITALAK

1997. urtean Espainiako telebistan bi plataforma digital agertu ziren aldi berean: *Canal Satellite Digital* eta *Via Digital*. Horiek ohiko telebistaren nagusitasunarekin amaitu zuten. TVEk edo Telecincok lehen lortzen zituzten milioika ikusleak, jadanik iraganeko gauza dira.

**Joerak adierazten du** emisio digitalek geroz eta publiko selektiboagoa erakarriko dute. Publiko hori prest dago ordaintzera ez







futbol partidu bat edo pelikula bat ikusteagatik bakarrik, baizik eta baita gaikako kanaletara sartzeko, eta, azken finean, aukera handiagoak dituzten telebista bat izateko.

**Digitalizazioa da etorkizuna.**

Hemendik aurrera, uhin hertziazkoak lurreko digitalari lekua egingo diote. Produktzioa, transmisioa eta, azkenik, harrera digitalizatuko da. Horrela, gure etxetatik telebista analogiko zaharra kendu eta telebista digital berria jartzen dugunean, telebistako nabigazioa jadanik errealitate bat izango da. Eraldaketa tekniko horrek gure esku jarriko ditu irudi-banku izugarriak eta ehunka kanal. Arazoa, beraz, produktu horiek eskuratzeko bitartekoak edukitzea, eta hautatu ahal izateko eta hautatzen jakiteko gako kulturalak edukitzea izango da.

■ **IPARRALDEA. WEB-TELEBISTEN FENOMENOA**


France 3, Frantziako eskualdeko kate publikoa, egunero Iparralderako edukiak programatzen dituen bakarra da. Astelehenero ostiralera, 18,53etatik 19,00etara, Akitaniako albistegiaren deskonexio bat egiten da, frantseserik nahiz euskaraz, iparraldeko gertaera nagusiak jakinarazteko. Eskualdeko estaldurarekin, zenbait astebunutan pilota partiduak ematen dira.

\*\*\*

Frantzian, laurogeiko hamarraldian telebista ekimen pribatuetara irekitzeak tokiko kateen agerpena bultzatu zuen. Kalkulatuenez, hexagono osoan udal jabetzakoak diren ehun eta berrogeita hamar bat katek funtzionatzen dute. Horietako gehienak kable bidezkoak dira, nahiz eta uhin analogikoen bidez ere emititzen diren.

Baina azken urteetako telebista-panoramako fenomenorik interesgarriena da, Internet bidezko tokiko telebista-kateak zein azkar ugaltu diren. 250 inguruk emititzen dute sarearen bidez. Zenbait udal mota horretako tokiko telebistak sustatzen ari dira. Enpresak ere modalitate berri horretara apuntatzen dira, beran dagoen hutsune legalaz baliatuz. Hori guztiz garatzeko egongo den arazoa da telebista ordenagailuaren bidez ikustera ohitu beharko dugula, betiere ordenagailuak harrera egiteko ezinbestekoak diren prezazio teknikoak dituen bitartean.

Iparralden hiru web-telebista daude: *TVPI Pays Basque*, aitzindaria, *Anglet WebTV* eta *Baiona.tv*.



● **TVPI PAYS BASQUE**  
(www.tvpi.fr)

*Michel Lamarque* harro dago Frantzian sortutako lehenengo Internet bidezko tokiko telebista pribatuaren arduraduna baita. 2000ko udan sortu zen.

Euskal eremuko telebista bat da, programazioaren %20 euskaraz emititzen delarik. Baionako eta Euskal Herri kontinentaleko bizitza sozialaz eta kulturalaz, nahiz kirolaz arduratzen da.

TVPIren proposamena bereziki erakargarri egiten duena da bere izaera interaktiboa eta parte-hartzailea. Ikusle pasiboaren eredu tradizionalarekin hausten du. Hemen, emisioak teleinternauten esku-hartze zuzenarekin gauzatzen dira. Ikusleek, gaiak eta galderak proposatzeaz gain, inudiak ere hartzen dituzte beren bideoekin. Horrek egunerokotasuneko gaiei eztabaida eta *talk-show* formatuarekin heltzea errazten du.

Programen menua edozeinen eskura dago, munduko edozein lekutan dagoen edonor uneoro TVPIko edukiez baliatu dadin, eta beran nahi duen moduan kontsulta ditzan.

Baionako web-kateak, halaber, uhin analogikoen bidez emititzen du *60 kanaletik* pal sisteman (euskal kostalde osoa estaltzen du, Landetatik Hendaia-Hossegor-Hasparren hirukiraino). Laster TVPI kable bidezko sarean sartzea aurreikusten da.

● **ANGLET WEBTV**  
(www.anglet-webtv.com)

2000 hasieran, Angletuko Udalaren osoko bilkura bat igorri zen zuzenean Internet bidez. Esperientzia hartatik zerbitzu publikoko tokiko telebista sortu zen, Angletuko hiritarrentzat hurbileko gertaerara bakarrik xedatzen dena.

● **BAIONA TV**  
(www.baiona.tv)

2001eko udan, komunikazioan, bideo-sorkuntzan eta informatikan zaletuak ziren pertsona batzuk elkartu egin ziren Baiona.tv sortzeko. Baiona-tv kooperatiba moduko web-telebista bat da. Gaur egun prestakuntza-urratsean dago, eta sare bidezko ikus-entzunezko sorkuntza eta zabalpen-foku bilakatuko da.


■ **AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

www.proyección.tv

2001eko abendutik sarean dago *www.proyeccion.tv*, Internet bidez bakarrik emititzen duen lehenengo euskal telebista, **Grupo Proyección** delakoak babesten du. Enpresa hori Bilbon dago, eta 1994. urtetik komunikazio-aholkularitzara eta ikus-entzunezkoen eta telebista-programen ekoizpena xedatzen da, Bilboko Udalaren menpe dagoen *Lan Ekintzaren*, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoko saileko *Beazen* laguntzarekin.

Ikus-entzunezko atarirako sarbidea guztiz doakoa da, eta publizitatearen eta enpresa eta erakunde-mundurako zerbitzuen promozioaren bidez finantzatzen da. Promozio hori «on line» nahiz beste euskarrietan ere gauzatzen da: ekitaldi jakinetarako berariazko kanalak, ikus-entzunezko atarien sorkuntza eta mantenimendua, informazioa ikus-entzunezko formatuan enpresa edo erakunde baten orrirako, etab. Izan ere, *www.proyeccion.tv*, batez ere, informazioa, eta zehatzago Euskadin sortzen den informazioa, lanerako baliabide bat gehiago bezala erabiltzen duten sektore horiei zerbitzu ematera orientatuta dago. Atari honen lehenengo bost kanalak dira *Berriak*, *Konferentziak*, *Turismoa*, *Bideo-sorkuntza* eta *Zabalik*.

# Telebistako EDUKIAK



# INFORMAZIOA



**TELEBISTEN ZEREGIN INFORMATIBOA** ez da eguneroko albistegietara mugatzen, asteroko albistegietara, erreportajeetara eta ezohiko gertaeretara ere zabaltzen baita (informatibo bereziak, irekiera-ekitaldiak, herri-manifestazioak eta kontzentrazioak, eta abar). Hala ere, aipatutakoa dela eta, «albistegiak» dira esfortzu tekniko eta gizatiar handiena biltzen dutenak.

## ■ ERREALITATEAREN IRUDIA SORTZEA

**Telebistak errealitatearen irudia modelatzeko eta iritziak eratzeko duen boterea izugarria da.**

Telebistaren aurretik ez da inoiz jendearen borondateetan sartzeko halako ahalmena duen komunikabiderik existitu. Logikoa da, ondorioz, telebistaren informazioa, bere kontrola, eta tratamendua etengabeko eztabaida sozialaren arrazoi izatea.

**Bazkalorduan eta afalorduan,** telebista-kate guztiek informazioa eskaintzen digute. 14.00etatik 16.00etara eta 20.00etatik 22.00etara bitarteko bi ordutegi-zatiak telebista-enpresek gehien gutzizatzen dituztenetakoak dira, informazioaren nagusitasunak ematen duen boterearen jakitun.

Sofresek Euskadirentzat eman dituen datuen arabera (2002. urtea), ikusle-kopuruek adierazten dute Teleberri-2 eta Telediario-2k ikusle-kuota antzekoa mantentzen dutela, *share*aren %22arekin. Telecincoko eta Antena 3eko albistegiak, berriz, nolabaiteko distantziara gertatzen dira, hurrenez hurren %20 eta %15ekin.

**Telebisten zeregin informatiboa** ez da eguneroko albistegietara mugatzen, asteroko albistegietara, erreportajeetara eta ezohiko gertaeretara ere zabaltzen baita (informatibo bereziak, irekiera-ekitaldiak, herri-manifestazioak eta kontzentrazioak, eta abar). Hala ere, aipatutakoa dela eta,



«albistegiak» dira esfortzu tekniko eta gizatiar handiena biltzen dutenak.


## ■ NOLA INFORMATZEN GARA, ZERTAZ INFORMATZEN GAITUZTE

**Biztanleriaren ohiturei buruzko inkestek** aditzera ematen dute biztanleen %90 inguru nagusiki telebistaren bidez informatzen dela. %50ek irratia entzuten dute, eta %36k prentsa irakurri ohi dute. Hamar biztanletatik zazpik albistegiak ikusteko ohitura dute, eta horien hiru laurdenak konfiantza asko edo dezente du bistaratzen zaizkien berrietan.

2002an Eroski Fundazioko *Consumer* aldizkariak egindako txosten batek jakinarazten zuen kirolak eta politika direla Espainian entzule-kopuru handiena duten albistegietako denboraren %45 okupatzen duten gaiak, bai kate pribatuetan eta baita publikoetan ere.

**ETBren kasuan,** portzentaje hori oraindik handiagoa da, albistegiek irauten duten denboraren %29 kirolek okupatzen baitute, eta laurden bat politikak. Bitxia da *Gaur Eguna* eta *Teleberri* izatea gizarte-gaietako albiste gutxien dituzten albistegiak.

**Telenavarra** RTVE ren eskualdeko zentroa da, eta lurralde-izaerako albisteak besterik ez ditu ematen. Kirolak %27 okupatzen du, eta, ondoren, kultura dago, %17 batekin, %16 eskas batekin



geratzen den politikaren kaltetarako.

Zergatik gertatzen da hori? Zeintzuk dira edukiak horiek eta ez beste haiek izatea eragiten duten mekanismoak? Nola hautatzen eta idazten dira telebistako albistegi batetako berriak?

#### ■ HORRELA EGITEN DA ALBISTEGI BAT

*Rosa M<sup>a</sup> Martín Sabaris* irakasleak Euskal Telebistako kazetaritza-antolamenduari eta albistegien erredakzio-lanari buruzko doktoretza-tesia egin zuen. Atal hau garatzeko bere helburuei jarraituko diegu.

ETBko albistegiak produkzioa hiru fasetan gauzatzen da: *informazioa biltzea, albistegiak hautatzea, eta albistegiak lantzea.*

a) **Berrien bilketa**, normalean, pasiboki gauzatzen da, iturrien sare bat hautatuz. Iturri horiek zuzenak izan daitezke, baina gehienak bigarren mailako iturriak izan ohi dira (albiste-agentziak, telebistako produkzio-etxeak, prentsa-departamentuak,...). Erakunde publikoak dira ETBko albisteen %41aren jatorria.

b) Ikusleei iritsiko zaien azken aurkibidea zehaztu aurretik, albistegi norabide jakin bat emango dieten erabakiak hartuko dira: agentzia eta produkzio-etxe jakin batzuk kontratatzea, erreportariak leku zehatz batzuetara bidaltzea, korrespondentziak ezartzea,... Era, noski, albistegiaren beraren diseinuan ere eragina izango du kir oren, nazioarteko informazioaren, gizarte-bizitzaren eta abaren artean denbora nola banatu erabaki beharrak.

Martin doktoreak bere azterketan azaltzen duen bezala, **albisteen hautaketa** oso hierarkizatuta dagoen jarduera bat da. Jarduera horren gailurrean dago editorea. Horri dagokionez, erredakzio bilturak ez dute *Todos los hombres del Presidente* bezalako filmetan edo *Lou Grant* bezalako telesailetan ikusi ditugun eztabaida sutsu horien antz askorik

c) Lanaren azken fasea da **albistegiak idaztea**. Denbora gutxian asko ekoiztu beharrak, milimetroz milimetro lehendik ezarritako formatura doitu, lana mugatu egiten du: «denbora-murrizketa horrek eta formatuaren beste ezaugarriek lortu duten hegemonia hain da handia, formatuaren diktadura batez hitz egin genezakeela», aitortzen du espezialistak.

Oro har, euskal telebista publikoan albistegiak idazteak,

aipatutako ikerketatik eratorritzen den bezala, indien kazetaritzarekiko komunak diren balio batzuk hartzen ditu barnean, beste batzuen artean: subjektuaren nabarmentasuna, laburtasuna, berritasuna, ikuspen-kalitatea, eta ikuslea albistegiarekin identifikatzea.

Horrekin batera, telebistako informazioan pixkanaka-pixkanakako espektakularizazio bat atzematen da. Azkenik, ideologia nagusiaren ikuspunturantzko joera nabarmena dago, telebista-proiektuaren helburuen eta bera gidatzen duten erakundeen jarraibideen arabera.

Komunikabide bakoitzaren berezitasunen haraindian, argi dago informazio-ekoizpen burokratizatuko eredu bati jarraitzen zaiola. Eredu hori da, gaur egun, titularitate publikoko komunikabideetako erredakzioetan nagusitzen dena.

# KIROLA, IKUSKIZUNETAN NAGUSI



**KIROLA-TELEBISTA BINOMIOAK** arraza nahiz erlijio, hizkuntza edo klase sozialen desberdintasunen gainetik dagoen pasio unibertsal batekin identifikatzen diren ikusle-kopuruen makinaria oso boteretsu bat eratzen du. Komunikabide honen historian ikusienak izan diren ia espazio guztiak kirol-gertaerak izan direla egiaztatu besterik ez da egin behar hori baieztatzeko. Zalantzarik gabe, ETB da kirolaren sustatzailerik garrantzitsuen Euskal Herrian. Urteroko egutegia betetzen duten proba askotan ETBko kamerak egongo ez balira, litekeena da proba horiek desagertzea: bizikleta-lasterketak, krosak, herri-kirolak.

## ■ KIROLA-TELEBISTA

**Kirola-telebista binomioak** arraza nahiz erlijio, hizkuntza edo klase sozialen desberdintasunen gainetik dagoen pasio unibertsal batekin identifikatzen diren ikusle-kopuruen makinaria oso boteretsu bat eratzen du. Komunikabide honen historian ikusienak izan diren ia espazio guztiak kirol-gertaerak izan direla egiaztatu besterik ez da egin behar hori baieztatzeko. Ikuskizunetan nagusia da kirola.

Ikuskizuna zuzenean, lehiaketaren zirrara, izarrak jokoan,... Goi-mailako lehiaketek beste inork ez bezala erakartzen ditu ikusleak.

Hemen, etxean, lehenengo kirol-emankizun garrantzitsua 1982. urteko apirilaren 25ean *Centro Territorial de Televisión Española* delakoak Atotxako zelaitik eskaini zuena izan zen. Izan ere, Ligako azken partidua jokatzeko zen, eta Real bigarren goz jarraian txapeldun izan zen, Athletic 2 eta bat irabazi ondoren.

Euskal historiako bigarren goz futbol-gertaera gogoangarria urte eta erdi beranduago iritsi zen, *Euskal Telebista* jaioberriak San Mamesetik Athleticen eta Liverpoolen arteko Europako Kopako partidua eskaini zuenean.

## ■ KIROLA SUSTATZAILE GARRANTZITSUENA

Hala ere, hasieran, RTVEk nazioarteko kirol-emankizunetarako zuen



monopolioak suposatzen zuen oztopoa gainditu behar izan zuen Euskal Telebistak. Erakundeak, batez ere J.M. Gorordoaren etapatik aurrera, kirolaren aldeko apustu tinkoa egin zuen. Horrela, urteetan zehar ETBko parrillako konstanteak izan ziren produktu «lataratuak», eta igande eguerdietako zuzeneko emankizunak eskaintzen hasi ziren.

**Zalantzarik gabe**, ETB da kirolaren sustatzailerik garrantzitsuen Euskal Herrian. Urteroko egutegia betetzen duten proba askotan ETBko kamerak egongo ez balira, litekeena da proba horiek desagertzea: bizikleta-lasterketak, krosak, herri-kirolak... Izan ere, jadanik betetera den *Kirolez Kirol* programaren bidez, ikusleak asteburuetan kirol-programazio jarraituaz gozatu dezake.

Azken denboraldietan estatu-eremuko telebistak ere aberastu dute kirol-eskaintza deskonexioan.

Kontinente aldetik, *France 3* kateak pilota-partiduak eskaintzen ditu, modalitate autoktonoan. Isurialde penintsularrean, berriz, *Telecinco* kontratu bat sinatu du liga pelotazale batekin. Horri esker *Fronton* programa eskaini dezake lar unbat arratsaldetan, eta partidua ematen ditu Euskal Herria, Nafarroa eta Errioxarentzat.

Azkenik, *Televisión Española*k, bere bigarren katearen bidez, futbol nazionalaren kategoria «txiroa», Bigarren maila B, sustatzen du, mailaren eskualdeko banaketa errespetatuz.



# HAURRAK 'TARGET' GISA



**HAURRAK INTERES MUGATUKO «TARGET» BAT DIRA.** Hau da, kontsumitzeko ahalmenik ez duen berariazko audientzia-segmentu bat da, eta horrexegatik, iragarleentzat erakargarrtasun gutxi dute. Euskal Telebista da haurrei programazio-ordu gehien eskaintzen dizkien telebista europarretako bat. Objektiboki horrela izateaz gain, datuak belaulaldi berrien garapen linguistikokoan arreta jartzen duen programazio-filosofia bat erakusten du.

## ■ HAURREKIKO ARRETA


Euskal Telebista da haurrei programazio-ordu gehien eskaintzen dizkien telebista europarretako bat. Objektiboki horrela izateaz gain, datuak belaulaldi berrien garapen linguistikokoan arreta jartzen duen programazio-filosofia bat erakusten du.

Termino teknikoetan, haurrak interes mugatuko «target» bat dira. Hau da, kontsumitzeko ahalmenik ez duen berariazko audientzia-segmentu bat da, eta horrexegatik, iragarleentzat erakargarrtasun gutxi dute (gabonetako garaian izan ezik, noski). Hori dela eta, telebista-kate komertzial gehienek alde batera utzi dute tradizionalki haurrei xedatzen den ordutegia (arratsaldeko Getatik 8etara).

**ETB1 da salbuespena.** Gainerako telebista-kateek haurrentzako programazioa asteburuko goizetan kontzentratu duten bitartean, Euskal Telebistak bakarrik eskaintzen die gaztetxoei programazioa ikastolatik iristen diren unerako.

Formatuak bilakaera bat jasan du garaiekin bat eginez: *Dotakon* (1985. urtea), *Poli* (1987. urtea), *Teletxip* (1988. urtea), *Bilin Bolonka* (1990. urtea), *Dragoi Bola* (1991. urtea), *Superbat* (1993. urtea), *Betizu* (2000. urtea).

ETB1en programazio-eskaintzaren laurden bat txikienei zuzentzen da. *Gaztetandik* eta *Don Kikilikon* izan ziren adin gazteeneko segmentura zuzendutako lehenengo espazioak.




Bigarren horretan ekin zion telebista-jarduerari irratitik zetorren hirukoteak, *Txirri, Mirri eta Txiribitonek*. Hirukote horrek hainbat eta hainbat gaztetxo euskalduni eragin dio barrea.

**Euskal telebista publikoak** haurrentzako zenbait fikzio-ekoizpenetan parte hartu du. Horien adibide dira *Fernando Amezketarna* eta *Lazkao Txiki*, Juanba Berasategirenak, edo *Ipar haizearen erronka*, Iñigo Silvaren produkzio-etxearen animazioa, Carlos Varelak eta Maite Ruiz de Austrik zuzendua. Azken horrek 1993. urtean Houstoneko Festibaleko Urrezko Domina irabazi zuen.

Beren imajinazioa eta arriskua dela eta nabarmendu diren **haurrentzako beste produkzioen artean** eta haur-produkzioen antologian azaldu behar duten ondoko hauek azpimarratu behar dira: *Marraskil Boss* eta *Pantxineta*, Bernardo Atxagak 1988ko denboraldian idatzitako programa (*Obakakoaken* autore izango zenak *Flanery* eta bere *astokiloak* egin zituen urte berean); eskola arteko *Pausoka* lehiaketa; edo jadanik gabonetako klasiko bilakatu den Gontzal Mendibilen *Olentzem*. Ez dugu ahaztu behar, ezta ere, *Euskaraokea*, denbora luzean Euskal Telebistako lehenengo kateko audientzia-liderra izan baitzen.







# EUSKAL FIKZIOA

## JAUN eta JABE

**REELEGIDO POR ACLAMACION POPULAR**

Y... (text continues in small font)



**EUSKAL FIKZIOAREN ETORKIZUNAK** ondoko bi hauek barne hartu behar ditu: profesionalak baliabide egokiagoen bidez trebatzea (agian ikus-entzunezko arteen institutu ofizial batetan pentsatzen joan beharko genuke); eta Euskal Telebistak produkzio autoktonoaren aldeko apustua egin beharko luke, benetakoko elkarrizketa arrazoituko baldintzatan eta produkzio-etxeekiko berdintasun-baldintzatan.

### ■ IKUS-ENTZUNEZKO EUSKAL INDUSTRIA BATEN BILA

Lehen ere azaldu da, **Euskal Telebistak**, bere sorrerako helburuen artean, Euskal Herrian ikus-entzunezko euskal industria bat sortu ahal izateko erakunde gisa balio izatea zuela. Xede horren mesedetan, 1984. urtean Erakundeak produktoreekin lankidetzat-hitzarmen bat sinatu zuen. Hitzarmen horren bidez, hemen produktutako filmen antena-eskubideak eta emititzeko eskubideak eskuratzeko politika baten oinarriak ezarri ziren. Hala ere, hitzarmen hori ez zen inora iritsi.

Horren ordez, ETB eta Eusko Jaurlaritzaren zuzenean produkzioan inplikatu ziren (horri esker egin ziren *Ehun metro*, *Hamaseigarrenean aidanez* eta *Zergatik panpox* bezalako telefilmak), horrela puntualki zenbait film emititzeko eskubideak erostera mugatuz. Esperientzia hark sektorea lur jota utzi zuen. Izan ere, esperantza handia –agian gehiegi– zuen ETB euskal zine berriak behar zuen motorea izango zela uste izatean (zinematografia alemaniar edo ingelesarekin aurreko hamarraldietan gertatu zen bezala).

### ■ FIKZIOKO TELESAILAK

1990etik aurrera ETBk telebista-formatua zuten fikzioko telesailak, euskaraz nahiz gaztelaniaz, ekoizteari ekin zion.



Lehenengo telesailak *Juntos y revueltos*, gaztelaraz, eta *Bi eta bat*, euskaraz, izan ziren. Telesail bi horiek «sitcom» edo egoera-komediak ziren. Hori izango da gero ere genero nagusia, baina ez bakarria. Izan ere, Miramongo estudioetan dramediak, arrakasta handiko «kulebroi» bat (*Goenkale*), gaztelarazko telesail ugari eta telesail poliziako bat ere (*Hertzainak*) egin dira.

**Ainhoa Irazu** kazetariak ETBko telesailen azterketa sakon bat egin zuen: *Teletilura 1990-2000* da Euskal Gidoigileen Elkarteak argitaratutako entseguaren izenburua. Lan horretatik hemen laburtuko ditugun ondorio ugari eta interesgarriak eratoritzen dira.

### ■ FORMATUAK, AUDIENTZIAK, GAIK

1990 eta 2000. urtean ETBk 20 telesail ekoiztu ditu: 13 euskaraz, sei gaztelaraz eta bat mutua. Euskara nagusi izatearen arrazoia da fikzioa bera ETB1eko elementu estrategikotzat hartu izan dela, baina ez dela horrela izan bigarren katean.

Ordu erdiko formatu astekaria izan da ohikoena, eguneroko telesail zehatzak eta 40 edo 50 minutuko astekariren bat salbu. Azpimarragarria da euskarazko ikastaro batzuk ikusle-kopuru nabarmenak lortu izana: *Bi eta bat*, *Jaun ta Jabe*, *Goenkale* (ia 2000 kapitulu) eta *Hertzainak*. «Telesail horiek entzule-kopuru handia lortu dute, bertan euskal umorea eta idiosinkrasia

perfektuko lotzen baitira gaur eguneko historiek. Autoreen meritua ahanzi gabe, noski.» dio Irazuk.

Aitzitik, gaztelaz egindako telesailak ez dute zorre bera izan, eta, oro har, telesail horiek izan duten onarpena espero zenaren azpitik egon da beti. Ziurrenik, elementu bereizlerik eskaintzen ez zutelako, edo kate espainiar handien homologoekiko eguneroko lehia lehiakorrek ez zirelako.

Telebista ia dena asmatuta dagoela ulertzen badugu, gehiegi izango litzake gure telebista gaztea alor horretako berrikuntzagatik nabarmenzea espero izatea. Logikoki, gidoilariak, zuzendariak eta ekoizleak apendiz-funtzioari heldu diote, fikzioko eredu tradizioaletan oinarrituz. Izan ere, eredu horiek, eraginkorrak izateaz gain, produkzio iparramerikarretan eta europarretan behin eta berriz errepikatu dira.

Hori dela eta, ia euskal telesail guztiak, argumentuari dagokionez, pertsonaia-egitura berdinez elikatzen dira: elkarren artean maite eta gorroto diren familiak, neska-mutilak apartamentu batean, landetxe bat bezero pikardatuez beteta, ezohiko lehendakari baten bizileku den jauregia, herri *arrantzale* bat,...

Orijinaltasuna ez da nabarmena izan, inolaz ere; baina produktu solido eta nahikoa landuak lortu dira, eta horiei esker euskal fikzioaren etorkizunaren itxaropena eduki daiteke.


## ■ PRODUKZIOA ETA BERE MUGAK

Produkzioaren banaketa nahiko desorekatua izan da. **Pausoka** (*Goenkale* telesailaren, *Benta Berri*, *Hasiberriak* eta *Señorio de Larrea* eguneroko telesailen eta *Gure familia* bezalako beste telesailen produkzio-etxea) izan da produkzioaren %30 hartzen duena.

Beste %20 Angel Amigoren **Igeldo Komunikazioa** enpresak egin du (*Bi eta Bat*, *Jaun ta Jabe*, *Maité*, etab.).

Gainerako erdia beste zazpi produkzio-etxeren artean banatzen da.

Ez da ia produkzio-etxe independenterik sortu, eta koprodukzioak arraroak dira funtsean «ordezkaturako produkzioak» –kateak diru-kopuru bat eta zenbait bitarteko uztea negoziatzen du, eta horren truke, enpresa produkzio osoaren kargu egiten da– nagusi diren panorama batetan. Modalitate horrek produktuaren gaineko ia kontrol osoa, eta «bere produkzio» gisa kontabilizatzeko eskubidea kateari ematen dio, baina zortasun administratiborik



gabe, eta produkzioak berekin ekartzen duen kontratazioerik gabe, aldi berean kostuak pixkanaka merketzea eragiten duelarik.

Baldintza horietan, ETB inguruan bezero hornitzaileak hazi dira, baina ez izen hori merezi duen produkzio industrialeko sare bat.

Banaketa banatzean dagoen desorekari epe luzerako plangintza jarraiturik eza gehitu behar zaio. Salbuespenak salbuespen, telesailak osatzeko denbora gutxi izan dute (13 kapitulu), eta horien arrakasta aprobetxatu nahi izan denean, bigarengo zatiak urte asko pasa ondoren itzuli izan dira telebistara (hori gertatu zen *Bi eta bat* eta *Jaun ta jabe* telesailekin).

**Jarraitortasuna** produkzio-etxeen eta profesionalen biziraupenerako funtsezko faktore bat da: aktoreak, gidoilariak, zuzendariak, produktoreak, teknikariak, ... Oro har antzerki-mundutik datorren jendea da, urteetan zehar ETBn trebatu dena, eta, askotan, ikus-entzunezko industria egonkorrik ez dagoelako estuki bizi dena, edo Madrilera ihes egitera behartuta dagoena (Espainiako telebista-kateetako kredituetan euskal telesailetatik ezagunak ditugun izen ugari ikus ditzakegu).

## ■ ETORKIZUNERAKO ITXAROPENAK

«Etorkizunari dagokionez, bide berriak bilatu behar dira, eta telebistako ateak ideiak dituzten belaunaldietara ireki behar dira. Izan badaude eta.» Dio *Teletilurra 1990-2000* liburuaen autoreak. Bere iritziz, euskal telebistako fikzioaren gaitzetako bat da kate espainiarrek egiten dutenarekiko mendekotasun handia duela. Izan ere, askotan, Espainiako kateetako arrakastak kopiatu nahi izaten dira, baina bitarteko egokirik gabe (aurrekontu ezak porrotera eramanez dituzte arrapaladan eta azkarregi egindako zenbait telesail).

«ETBk berak behin baino gehiago aitortu du: hamarraldi honetan lehenatasuna eman zaio kantitateari, eta ez kalitateari», gogorarazten du Ainhoa Irazuk. Baldintza horietan, urrutitik ere ezin da Espainiako telesailekin lehiatu.

Euskal fikzioaren etorkizunak ondoko bi hauek barne hartu behar ditu: profesionalak baliabide egokiagoen bidez trebatzea (agian ikus-entzunezko arteen institutu ofizial batetan pentsatzen joan beharko genuke); eta Euskal Telebistak produkzio autoktonoaren aldeko apustua egin beharko luke, benetako elkarrizketa arrazoituko baldintzatan eta produkzio-etxeekiko berdintasun-baldintzatan.

# ENTRETENIMENDUA ETA ZERBAIT GEHIAGO



«TELEBISTAREN NEGOZIOA publizitate-bloke baten eta beste baten artean jendea entretenituta edukitzea da». Telebistaren definizio zini hori, telebista-agintari ugariri esleitzen zaiona, komertzialtasun gordinenari jarraitzen dio. Hala ere, zerbitzu publikoko kateentzat gauzak desberdinak dira (edo desberdinak izan beharko lukete): izan ere, publizitatea, beharrezkoa izateaz gain, aberasgarria ere bada, eta entretenimendua, gaur egun maila goreneko xede dena, programazio-parrilla bat osatu beharko luketen beste osagai anitzetako bat besterik ez da.

## ■ PROGRAMAZIOKO ELEMENTUETAKO BAT

«Telebistaren negozioa publizitate-bloke baten eta beste baten artean jendea entretenituta edukitzea da». Telebistaren definizio zini hori, telebista-agintari ugariri esleitzen zaiona, komertzialtasun gordinenari jarraitzen dio. Hala ere, zerbitzu publikoko kateentzat gauzak desberdinak dira (edo desberdinak izan beharko lukete): izan ere, publizitatea, beharrezkoa izateaz gain, aberasgarria ere bada, eta entretenimendua, gaur egun maila goreneko xede dena, programazio-parrilla bat osatu beharko luketen beste osagai anitzetako bat besterik ez da. Sakonean ez bada ere, ondoren telebistako entretenimendu-genero nagusiak errepasatuko ditugu:

## ● BARIETATEAK

Entrenimendua. Barietateen programa bat, ikuspuntu klasikoak, musika eta umore-emanaldien eta, agian, elkarrizketa txiki baten edo lehiaketa baten konbinaziotik jaiotzen da.

Espanian, barietateen maisua Valerio Lazarov izan ze, hirurogeita hamarreko hamarraldian.

Egun, txapela merzei duena Jose Luis Moreno da. ETBn egin zen famatu, *Entre amigos* (1988) programarekin. Euskaraz formula bat baino gehiagorekin gauzatu dira saiakerak: *Funtzioa* (1989) edo *Herriko Plazan* (1991).



## ● LEHIAKETAK

Lehiaketa doitasun handiko programa bat da, baina abantaila bat du: behin abiarazi ondoren, funtzionatzen badu, ikusleak fidelak izan ohi dira.

Espaniako lehiaketa-arketipoa *Un, dos, tres... responde otra vez* izan zen. ETBk *Rompecabezas* lehiaketarekin asmatu zuen –euskarazko bertsioa, *Kili Kolo*–. Programa hori denboraldi ugarian egon zen antenan.

Azkenaldian *Date el bote* programa funtzionatzen ari da.

## ● GASTRONOMIA

Gurea bezalako kultura gastronomiko bikaina duen herrialde batetik ezinbestean atera behar ziren sukaldari-komunikatzaileak.

1984. urtean ETB *Zopa haundi* programarekin hasi zen, eta Urrezko Antena lortu zuen. Handik bost urtera Karlos Arguiñano estrinatzen. Beasaindarra 1991. urtean TVEra joan zenean, Pedro Subijana okupatu zuen bere lekua.

## ● DOKUMENTALAK

Azken urteetan birbalioztatu egin dira. Dokumentalen generoak ikusgarritasunean irabazi du, agian aukera didaktiko eta sentsibilizatzaileen kaltetan. Kate orokorrek geografia eta naturari buruzko inpaktua duten dokumentalen aldeko apustua egiten dute. Aldi berean, eduki historiko, antropologiko, sozial edo kulturala



duten dokumental horiek ordainpeko kanaletan babesten dira, edo telebista lokaletako tarte hutsak betetzen dituzte.

ETBk ekoiztutako dokumental nabarmenak: *La Guerra civil en Euskadi*, *La Transición en Euskadi* (historikoak); *National Geographic*, *Lau haizeetara/La mirada mágica* (natura); *Sustraiá*, *Gure Lanbide Zabarmak/Oficios tradicionales* (etnografía eta bizitza tradizionala); *Cómic 9º Arte* (1989. ean New Yorkeko Zine eta Telebista Festibalean saritutako telesaila), *Creadores vascos* (arteak).

## • UMOREA

Euskaldunok ba al dugu umore-senik? Galdera horri, euskal telebistak, erantzun anbiguoak eman dizkio. Izan ere, umoreak, kalitateko umoreak, arriskua eta lotsagabekeria apur bat inplikatzeko du. *Txoko latexen* sortzaileek 1993an izan zutena. *Txoko latex* izan zen panpina parodiko britainiar batzuen bertsio euskalduna zen (tamalez, labe politikoa ez zegoen ezer tarako, ezta *Txoko latexerako*).

Etorria azaldu zuten, halaber, Lourvier's taldekoek (*¿Qué pasa pues?*, *Louvier's express*). Horiei esker, gure buruaz barre egiten ikasi genuen.

Konplikazioak saihesteko, eta sentikortasunak ez zauritzeko, beti ondo dator *Mr Bean* bat eskura edukitzea. Edo txisteen programa bat: umorearen zero gradua.

## • ABENTURA ETA BIDAIAK

Bidaiazten duten ikusleetan pentsatzen, 1987an Miramona Alberto Oliveras ekarri zen, *El club de la aventura* aurkez zezan. Hori ahanzi egin genuen Roge Blascok *Dr. Livingstone, supongo* delakoarekin topatu zen unetik aurrera. Blascok telebista eta irratia bidaiak bururatzen eta amesteko makina bikain bilakatu zituen.

## • TALK-SHOW

Bi milako genero izarra. Formula honoko hau da: 10 minutuko gloria eman pertsona guztiz arruntei, hain arruntak ez direla demostratu dezaten. *Nire emaztearen kontura bizi naiz*; *Sexuz aldatzearekin amesten du*; *Gaztetxoak atsegin ditut*; *Ama, barkatu*; *Ni ludopata izan naiz*;...

Gai horietako edozein sakontasunez eta kazetaritza-zorroztasunez lantzeko aukera egongo balitz ere, normalena da *talk-show*ak audientzia erraza eta umore lodia bilatzea.

*Esta es mi gente*, ETB 2ko *talk-show* bertsioa, aurkezle-harrobi gisa funtzionatu du (Patricia Gaztañaga, Emma García).



## • PRENTSA ARROSA

Telebista pribatuek eragin patetikoak izan dituzten gauza mordoak ekarri zituzten. Kate publikoak, denbora batean, erresistentzia egin zuten, baina bata bestearen ondoren *sukar arrosa* sufritzen amaitu zuten.

ETBn, 1996. urtean *Lo que faltaba* jaio zen. Hasiera batean, bazkalondoko espazio labur bat zen, eta Txetxu Ugaldek eta Yolanda Alzolak beren txikieriez hitz egiten zuten bertan. Baina *share* gora egin zuten, eta programa katearen bandera-ontzi bilakatzera iritsi da.

## • LATE-NIGHT

Gaua iristean, familia lotara doa, eta telebistaren aurrean gaupasazaleak bakarrik geratzen dira. Horientzat asmatu ziren *late-night* direlakoak. Probokatzaila, morbosoa, eta «kaletik hurbila» den oro sartzen da programa horietan.

Pepe Navararren *boom*aren ondoren (*Hoy cruzamos el Mississippi*), laurogeita hamarrek hamaraldian, ETB 1ek Iñaki Beraetxe eta Klaudio Landa bildu zituen *Kale gorria* programan. Programa hori entsegu bat izan zen, ondoren, 1999an, *Sorginen lanatza* publiko gaztearentzako ordutegian lehentasuneko postuetara igotzeko.

## • KULTURA

Kate pribatuek zokoratu egin badute ere, kultura telebista-etxe publikoetako ordutegi arramenetan babestu da. Hala ere, geure burua zoriondu behar dugu, euskal telebistan berriaz arte eszenikoetara xedatutako programa bat dugulako: *Hau komerial/Desde el gallinero* (Donostiako Txema Zubia Saria, 2002).

## • LEKUKOTASUN SOZIALA

Irabazi asmorik gabeko telebistek bakarrik bete dezaketen beste gabeziako bat: indibidualki nahiz kolektiboki eragiten gaituzten arazoei buruzko sentsibilizazioa, morboa edo ikuskizun erraza bilatu gabe. Tamalez, produktu-mota hori geroz eta arraroagoak dira parrillan: *Detrás del sirimiri*, *Factor humano*, *Ciudadanos*.

## • BIZITZA PRAKTIKOA

Bi produkzio-etxe euskaldunek merezitako ospea irabazi dute Estatuan etxeko utilitarismoari buruzko programak direla eta. Gipuzkoako *Asegarge*, *Bricomania*ekin, eta Bizkaiko *Keinu*, *La Botica de la Abuelarekin*, kalitateko bi produktu izan dira. Hain izan da ona izan duten harrera, pantaila txikiaren mugak gainditu egin direla, liburu, aldizkari, kontsumo-produktu eta abarretara hedatuz.

# EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

TERTULIA EN EUSKADI IRRATIA Y ETB-1

## Lagun artean, de la radio a la televisión

**T**rás el paréntesis veraniego la tertulia vuelve a ETB-1. El espacio Fin Farán deja paso esta temporada a Lagun artean, una tertulia moderada por Antton Aranburu, periodista con una larga experiencia en prensa y radio en euskara, y que se estrena en televisión. Lagun artean no es un foro nuevo, es una tertulia de éxito en la emisora Euskadi Irratia en la que lleva tres años y que discurre como su propio nombre indica en un tono distendido y amigable. La diferencia principal con Fin Farán radica en que aquella tenía unos contenidos fijos que giraban sobre diversos temas, mientras que en esta caso semana se hablará sobre un tema de actualidad y los invitados serán distintos en cada programa», explica Aranburu.

Presentada  
por Antton  
Aranburu



**EUSKARAK, MILAKA URTEKO HIZKUNTZAK, GIZADIAREN ONDARE DENAK,** pribatua denaren eta pribatiboa denaren kultutik elikatzen denak, ez zuen komunikabide modernoen bidez proiektatzeko aukerarik izan ETB jaio zen arte. Logikoa da, ondorioz, horrek sortu zuen harridura. Nahiz eta harridura hori bera, inolaz ere ez erdeinagarria, izan zen duela bi hamarraldi baino gehiago sortu zen katearen xarmaren osagai.

### ■ EUSKARA TELEBISTAREN PLAZARA IRTETEN DA

...eta Jainkoak euskaraz hitz egin zuen. «Miraria» 1983ko martxoaren 21eko gauean gertatu zen. Gau hartan izan zen ETBren lehenengo emankizun zinematografikoa: *El Evangelio según San Mateo*, Pier Paolo Pasolinirena. Erabaki ezin hobea.

Belaunaldi gazteenei amonaren kontua dela irudituko zaie, baina gertatu zen bezala kontatu behar zaie: jende askori kosta egin zitzaion onartzea sioux indioak, Bronxeko beltzak, Humphrey Bogart eta Bette Davis bezalako aktoreak, edo JR bera, *Dallaseko* texastarra, Axularren hizkuntzan hitz egiten hastea, Idiazabalgo gaztaz, Nafarroako zainzuriz edo Lautadako patataz hazi izan balira edukiko luketen kalitate eta entonazio berarekin.

Izan ere, euskarak, milaka urteko hizkuntzak, gizadiaren ondare denak, pribatua denaren eta pribatiboa denaren kultutik elikatzen denak, ez zuen komunikabide modernoen bidez proiektatzeko aukerarik izan ETB jaio zen arte. Logikoa da, ondorioz, horrek sortu zuen harridura. Nahiz eta harridura hori bera, inolaz ere ez erdeinagarria, izan zen duela bi hamarraldi baino gehiago sortu zen katearen xarmaren osagai.

### ■ EUSKARAREN ZERBITZURA

Euskal telebistak, lehen ere esan dugu, jatorrian nagusiki justifikazio linguistiko bat izan zuen. Euskara



salbatu behar zen. Eta eduki zezakeen salbamendu-biderik eraginkorrena, XX. mendean bete-bete, komunikabide publiko boteretsuak erabiltzea zen.

Aldi berean, Euskal Telebistak euskara batuaren bateratze dialektalak suposatzen zuen lan konplexua bultzatu behar zuen. Ez zen erraza izan. «Nire amonak bizi osoan euskaraz hitz egin zu, eta

orain ez ditu telebistako albisteak ulertu ere egiten», esan ohi zen.

### ■ ESKAINTZAREN ETA ESKARIAREN LEGEA ARRETA


Laurogeiko hamarraldian, hizkuntzan bakarrik oinarritzen zen telebista-eredua krisian erori zen. Telebista bat abiaraztearen

helburuak kulturalak izatea hasieran pozgarria izan bazen ere, denborarekin ezinbesteko bilakatu zen ikusleak erakartzea. Izan ere, 625 marten gainean lan egiten duen enpresa ororen egunerokoa da behar hori. Orduan zuzendari nagusi zen Jose Maria Goñordok zalaparta handia eragin zuen esaldi batetan laburtu zuen: «ETBk ez du euskaltegi-bokazioa». Bi hilabete beranduago kate erdalduna sortu zen, eta hura hori sortzearen aurretiazko justifikazioa izan zen. Paradoxikoki, horrek eragin positiboak izan zituen eraginkortasun linguistiko handiago batetan.

### ● ESKAINTZAREN EGOKITZAPENA

Baina ETBk, hala ere, sortu zenean hartu zuen helburuari eutsi dio, hots, «euskal kulturaren sustapena eta hedapena, betiere euskararen sustapena eta garapena aurrean edukiz.»

Bertsolaritza, mundu tradizionala, adierazpen artistikoak, historia, lana, zientzia, kultura fisikoa,... horiek guztiak sartzen dira pantaila txikian. Euskal gizartearen adierazpenak, neurri askoz ere txikiagoan, Espainiako telebista publikoan ere jasotzen dira, nahiz eta euskarak presentzia marjinala duen. Hala ere, aniztasun handiago baten mesedetan, ona izango litzake RTVEk Euskadin eta Nafarroan euskaraz emititzea. Euskara euskaldun guztien hizkuntza eta Estatuarentzako ondare kultural oso baliagarria dela dioen uste zintzoan.







# Telebistako JENDEA

 **telebista**

EITBko INFORMAZIO ALDIZKARIA  
REVISTA INFORMATIVA DE EITB

2000ko IRAILA • 11 zk.  
SEPTIEMBRE 2000 • Nº 11



**Made in Euskadi**

# TELEBISTAKO PERTSONAIA BATZUK



## IZEN BEREZIAK, AURPEGI BESTERENEZINAK:

Andoni Aizpuru, Alfredo Amestoy, Karlos Arguiñano, Xabier Euzkitze, Iñaki Gabilondo, Ramon García, Anne Igartiburu, José María Iñigo, Mikel Lejarza, Antonio Mercero, Eneko Olasagasti, Carlos Zabala, Edurne Ormazabal, Iñaki Perurena, Carlos Sobera, Txirri, Mirri eta Txiribiton, Antxon Urrosolo

### ■ ANDONI AIZPURI

(Gabiria, 1964)

Irakasle-ikasketak egin zituen eta zenbait ikastur tetan zehar irakasle gisa jardun zen, aldi berean egunkari eta aldizkari desberdinetarako artikulatuak idazten zituen bitartean. 1992. urtean ETB1eko «eguraldi-gizon» bilakatu zen. Komunikatzeko zuen gaitasuna zela eta, eguerdietako albistegi labur bat eskaini zitzaion, *Gaur egun Eukal Herria*. Orduan eman zitzaion konfiantza hori berretsi egin zen 1994-95 denboraldian, Maddalen Iriarterekin batera *Euskadi Zuzenean* magazinea aurkezteko aukera izan zuenean. *Euskadi Zuzenean* eguerdiko albistegiaren osagarri gisa, tokiko informazioa eskaintzen zuen programa bat zen. 1995eko irailetik *Bentatik Bertara* eguneroko programa darama, ETBko euskarazko espazio ikusiena. Andonik izen horrekin bataiatu zuen, eta zenbait denboralditan ezin hobeki zuzendu eta aurkeztu du. Horrela, gertuko komunikatzaile atsegin, arin eta trebe gisa berretsi da. Andonik, jadanik, jarraitzaile ugari ditu.

### ■ ALFREDO AMESTOY

(Bilbo, 1941)

Kazetari Bilbotarra, Espainian eta Estatu Batuetan trebatua, *El Caso*, *La Codorniz* eta *Garba*, hala nola *ABC* aldizkarietan artikulatu-idazle gisa hasi zen. 1961. urtean irratira pasa zen, eta urtebete beranduago Espainiako Telebistan sartu zen.



Antonio Mercero.



Iñaki Gabilonda.

Andoni Aizpuru.



Bertan bi hamarraldi egin zituen.

Sortzaile arriskatua, berritzailea, eta ez beti ulertua; orijinaltasunak eta Espainiako gizartearekiko gaitasun kritikoak zehaztutako programak eratu zituen. Eta hori telebista lau eta moldakoiaren garaian. Arrakasta handienetako bat *La vida* programarekin lortu zuen. Horren ondoren beste programa batzuk egin zituen: *Nosotros* (1968), *Salud, dinero y amor* (1969), *Tele Club* (1969-1970), ... *Y ellos se juntan* (1970), *España, de costa a costa* (1970-1971), *El día de mañana* (1972), *Contrarreloj* (1972-1973), *Treinta y cinco millones de españoles* (1975) eta *La España de los Botejara* (1976). Azken hori, bere anaia Ignacio Amestoyekin batera egin zuen. Ignacio Amestoy Espainiako dramaturgo solidoenetako bat da. *La verdad de...* programak pertsonaia ospetsuen biografiak eskaintzen zituen. *Vivir para ver* (1977-1978) programarekin ordu arte Espainiako Telebistako programa batek lortutako ikusle-kopuru handiena lortu zuen.

1983an kate publikoa utzi eta Miamira joan zen. Han musika-programak, barietateak eta *Mi amo* telesaila egin zituen. Publizitate-sortzaile gisa ere jardun zen. Laurogeita hamarretako hamarraldian telebista-kate pribatuekin lankidetzan aritu zen, lehendabizi Antena 3en, eta ondoren Telecinco. Alfredo Amestoy da *El reportero*, *Ultimas voluntades* eta *Perritos calientes* liburuak, eta *El partido* antzezlanaren idatzi zituen.

■ KARLOS ARGUIÑANO

(Beasain, 1948)

Familiako beharrak bultzatuta, zartagina hartu eta sukaldeko sekretuetan barrena egin behar izan zuen. Gustukoa egin zitzaion, eta 17 urterekin Zarauzko Euomar Hoteleko Ostalaritza-eskolan izena eman zuen. Ekimen handiko gizona da, izpiritu lehiatsu batekin, eta bere jatetxe propioa sortzeko irrika zuen. Hala egitea lortu zuen, azkenik, 1978an.

1988an estreinatu zen telebistan, *Hamalau Euskal Sukaldari* programarekin ETBko lehenengo katean. Handik bi urtera ETB2ra egin zuen salto, *Menú del día* programarekin. Handik pixka batera, Madrilgo «ikuskatzaileek» sukaldari euskalduna fitxatu zuten. Karlos Arguiñanok jario handiko talentua eta etxeko sukaldaritza zapoetsu baten ikuspegi jakituna azaldu zuen. 1992an Estatuko telebistarentzat *El menú de cada día* egin zuen, eta 1997. urtean Telecincora pasa zen.

Karlos Arguiñano telebistako fenomeno bilakatu zen Argentinan ere, Buenos Aireseko Canal 13 telebista-katearen bidez. Etxera bueltan, ETB 1ean tokitxo bat izan zuen, eta, berriro ere, RTVEk fitxatu zuen, emaitza bera lortuz: *La cocina de Karlos Arguiñano* apal-apal hasi zen La 2eko eguerditan, eta zuen ikusle-kopuru bikaina ikusirik lehenengo katera pasa zen. Gaur egun ikuslego fidel bat du bertan.

Karlos Arguiñano, gainera, zien eta telebistako produktorea da. Bere enpresak, Asegarce Zinema, bi pelikula produzitu ditu, eta horietan aktore gisa parte hartu du: *Airbag* eta *Año Mariano*. Telebistan, berea da *Bricomania* programa.

Sukaldaritzako liburu ugari argitaratu ditu. Horien artean *La cocina divertida*, *1069 recetas* eta *Cocina en la Argentina* nabarmenak dira.

■ XABIER EUZKITZE

(Azpeitia, 1966)

Askogatik, euskal telebistako pertsonaiarik poliedrikoena da Xabier Euzkitze. Euskadi Irratian hasi zen kirol-esatari lanetan, eta 1987an telebistara egin zuen salto, pilota-partiduei ahotsa jartzeko xedearekin. Bederatzi urtetan zehar lehenengo kateko gaueko albistegietako aurpegia izan zen. 1999tik *Sorginen Laratza late-nighra* aurkeztzen du.

Bertsolaria, kanta-idazlea eta abeslaria, kirol-esataria,... eta beste hainbat. Ama orok nahiki lukeen suhia, mutil zintzo aurpegiarekin eta ezpain artean euskara inbidiarri batekin. Xabier nahi gabe ere konbentzitzen eta seduzitzen duen aurpegi horietako bat da. Zalantzarik gabe, Txoriaren kateko balio indartsu uenetako bat da.



José María Iñigo.



Alfredo Amestoy



Karlos Arguiñano



Xabier Euzkitze

■ IÑAKI GABILONDO

(Donostia, 1942)

Espainiako kazetaririk ohoratuenen Iruñako Eskolan lizentziatu zen Kazetaritzan. Donostiako Herri Irratiko (COPE), Cadena SEReko Radio San Sebastianeko, eta Sevillako irrati homologoko zuzendaria izan zen. 1980an kateko Informazio-zerbitzuen zuzendaritza lortu zuen.

Telebista Iñaki Gabilondoren bizitzan guntzatu zen 1981ean, arrakastarik izan ez zuen 23-Fko estatu-kolpea gertatu zen urte berean. TVEko albistegien zuzendari gisa, donostiarrak egiazko ahots bat eta sosegua eskaini zuen zalantzarik gabeko betetako gau luze hartan. Espainiako telebistaren historiako orrialde ahantzegin bat da.

Gabilondok telebistan jarraitu zuen, eta *En Familia* (TVE), *Iñaki los jueves* (Euskal Telebistan telebista autonomikoen federazioarentzat), *Gente de Primera* (TVE), eta lanbide-orientaziorako *Tú decides* (autonomikoak) programa aurkeztu zituen. Gainera, 1996. urtean Telecincoko *Las Noticias* albistegian elkarriketak egin zituen. Iñaki Gabilondo Radio Television 16-Grupo 16 delakoaren zuzendari orokorra izan zen.

1986. urtetik aurrera *Hoy por Hoy* goizetako magazinea zuzentzen du Cadena SER katean. Saio hori, zalantzarik gabe, Espainiako irratiako audientzia-liderra da.

■ RAMON GARCIA

(Bilbo, 1964)

Bere gurasoek diskoteka bat zuten Sodupen, Bilbotik gertu. Ramonek diskoteka hartan eman zituen jendaurreko lehenengo urratsak: disc-jockey, zerbitzaria, festa-animatzailea, lehiaketetako zeremonia-maisu, aurkezlea,... Hazkuntza naturaleko prozesu batetan, disc-jockeyaren kabinatik *40 Principales*eko estudioetara pasa zen, eta dantzalekutik telebistako platora.

Kamera aurreko lehenengo lan garrantzitsua *Tal para cual* izan zen, 1989. urtean, ETB 2an. Kate horietara itzuli zen handik bost urtera *El desafío de los dioses* programarekin. Euskadi Irratia utzi gabe, 1990. urtean Antena 3era joan zen *La ruleta de la fortuna* aurkeztera. Hurrengo urtean, berriz, Television Española-ren orbitan sartu zen, bi proiektuekin: *No te rias que es peor* eta *Ahora o nunca* magazinea. Ramón García aldabada eman zuen 1993. urtean *¿Qué apostamos?* programarekin. Programa horrek bost denboraldi egin zituen pantailan. *La Llamada de la suerte*, *Todo en familia*, *Grand Prix*, *El Gladiador*, Gabonetako ongintzako galak edo Urtezahar gaueko kanpaiak izan dira bilbotarraren beste lanak. Horrela, Ramon Garcia Joaquín Prats ospetsuaren ondorengo izango da lehiaketan aurkezle gisa.

## ■ ANNE IGARTIBURU

(Elorrio, 1962)

Enpresa-kudeaketako ikasketak egin zituen, eta ingeniari-tza-enpresa batetan jardun zen lanean. 1991. urtean telebista-kate lokal batetan, Arrasate Telebistan, aritu zen, bere programen ekoizle, zuzendari eta aurkezle gisa. Han, berak aitoritzen duen bezala, telebista zer zen ikasi zuen, behe-behetik. 1993ko Urtezahar gauean hasi zen ETBn, *Hau ez da serioa* festa-saioan. Fikzioko lehenengo lana *Amaren etxea* (1994) telesail zorigabea izan zen. Hala ere, arantza hura handik hiru urtera atera ahal izan zuen *Gure familia eta beste piztia batzuk* telesailarekin.

Miramongo estudioetan ekoizpen-funtzio desberdinak garatu zituen, eta beranduago *Boulevard* saioa aurkeztu zuen. Programa hura nazioarteko pertsonaiei egiten zitzaizkien elkarrizketetan oinarritzen zen (Carlos Sobera zen gidoilaria). 1994. urtean Madrilera joan zen, Telecincora. Zenbait gala aurkeztu zituen, *Una pareja feliz* programarekin ospetsu bilakatu zen arte. Programa hartan abestu, dantzatu eta aurkeztu egiten zuen.

Anne aktore gisa trebatua dago, eta hori nabarmen geratu da *Adiós Tiburón*, *Suerte* eta *Menos que cero* bezalako filmetan. Azken bi horiek Ernesto Tellería zuzendari euskaldunarenak dira. Antzerkian ere jardun da: *Odio a Hamlet* eta *Educando a Rita*.

Lehiaketak, entretenimendua, galak eta programa kulturalak aurkeztu ondoren, Annek egonkortasun solido bat aurkitu du pientza arrosako eguneroko magazine batetan, hots, TVEko lehenengo kateko *Corazón* programan.

Anne Igartibururen karrera hasi besterik ez da egin.

## ■ JOSÉ MARÍA IÑIGO

(Bilbo, 1943)

Espainiako telebistako «modernoa», eta errege katodiko baten antzekoa. Iñigo hizkuntzak ikastera dedikatzen zen eta uneko pop musika oso gogoko zuen mutil bilbotar bat zen. Bere hirian irratia egiten hasi zen, egungo «irradi-formulen» modura. Handik Londresera joan zen, eta ondoren Radio Madrid izeneko irradi-katean hasi zen. 1968. urtean Pedro Olea lagun eta herrikideak UHFn (bigarren katean) telebista-programa bat egitea proposatu zion: *Ultimo grito*. Musika-taldeak eta estetika sikodelikoa. Han beste euskaldun bikain bat ere bazebilen: Ivan Zulueta. Berak, ondoren, *Un, dos, tres... al escondite inglés* luzemetraian atera zuen Iñigo. Popetik urrundu gabe, handik gutxira Pilar Miró *Ritmo 70* aurkezteko deitu zion. Baina bere karrerako, eta telebista espainiarraren historiako unerik garrantzitsuenak *Estudio abierto*



Iñaki Perurena.



Ane Igartiburu.

Txirri, Mirri eta Txiribiton.



programarekin iritsi zen. TVEko programarik arrakastatsuenetako bat izan zen. Gainera, iraupen luzea izan zuen: ia hamar urte. Iñigo berak kontatzen duenez, mundu osoko famatuak Madrilera pezeta bat ere kobratu gabe etortzeko konbentzitzea zen formula. Bidaia, egonaldia eta Pradoko Museoa paseo bat besterik ez. Meritua, ondorioz, produkzio-ekipoaren pertsuasio-ahalmenean zegoen. *Estudio abierto*tik hiru mila famatu baino gehiago pasa ziren. Hala ere, espazio horren memoria Uri

Gellerrri lotuta dago. Izan ere, fenomeno paranormal horrek Espainia erdia bere adimenarekin koilarak tolestean eta erlojuak konpontzen hastea eragin zuen (Alex de la Igleziaren *Muertos de risa* filmean parodiatzen den une historikoa). Programak ozeanoa gainditu zuen, eta Iñigo astero joaten zen Puerto Ricora *Estudio 2* grabatzera.

Formula bera, jadanik lehenengo katean, *Hoy 14-15* izenarekin ezagutu zen, eta arrakasta berretsi egin zen. *Directísimo* (1975) programak aurrekoekiko izan zuen

berezitasun bakarra zen produkzioa askoz ere garrantzitsuagoa zela, eta gonbidatuei ordaintzeko dirurik bazegoela. 1976ko azaroran *Esta noche...Fiesta* programa estreinatu zen. Programa hori Madrilgo El Retiroko dantzaleku batetatik ematen zen zuzenean. Iñigok telebista kosmopolita, fresko eta ireki bat egin zuen, komunikatzaile bikainaren dohainak ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Euskal Telebistara iritsi zenean, 1986ko urrian, kate erdalduna ez zen guztiz onartu oraindik. Aste gutxitan, *Iñigo en directo* bi kateetan ikusle-kopuru gehien zuen programa bilakatu zen.

*Duela gutxi* (2003), kameran aurrean jarri da berriro ere kolaboratzaile gisa umore-programa batetan: *El show de Flo*.

## ■ MIKEL LEJARZA

(Bilbo, 1957)

Mikel Lejarza euskal irratian hasi zen eta ETBko albistegietara iritsi zen Josu Ortuondoren agintaldian. Laurogeita hamarreko hamarraldiaren erdialdean Telecincok fitxatu zuen. Horrela, Telecincoko zuzendari nagusi izan zen. Neurri batean, Lejarza izan zen Berlusconi handikiaren katea eraldatzea ahalbidetu zuena. Izan ere, Telecincoko komertzialtasun sinpleko kate bat izatetik jendeak gehien balioesten duen eta informazioari dagokionez interesgarriena den kate bilakatu zen.

Lejarzak Gestevision Telecincoko zuzendaritza nagusia utzi zuen, Grupo Correoren ordezkapenean kide aholkulari gisa Grupo Arbol delakoan sartzeko. Talde horrek, beste batzuen artean, Globomedia produkzio-etxea (azken denboraldietako arrakasta handienetako batzuen sortzailea) eta GECA kontsultora bezalako enpresak barne hartzen ditu.

Lejarza, halaber, *La extraña temporada* liburuaren autorea da. Bertan, teknologia berriekin, berehalako etorkizunean, Internet eta telebistaren arteko topaketa bideratuko duten aldaketak aztertzen ditu.

## ■ ANTONIO MERCERO

(Lasarte, 1936)

Maisuen maisu eta telebistako sortzaile bikain, Antonio Mercero «fikzioaren eremuan arrakastaren eta kalitatearen sinonimoa da». Hori da, 2002an, Telebistaren zientzien eta Arteen Akademiak, «pantaila txikian egindako ibilbide luzea» dela eta, Bizi Oso Baten saria eman zionean esan zena.

1962. urtean Zinematografiako Eskola Ofizialean zuzendaritzan titulatu zen. Urte berean, Donostiako Zinemaldian laburmetraia hoberenari eman

zitzaion Urrezko Maskorra, eta Kantauriko Perla Saria eskuratu zituen *Leccion de Arte* lanagatik. 1963an bere lehenengo laburmetraia zuzendu zuen, *Se necesita chico*. NO-Dotik, hirurogeita hamarreko hamarraldian Espainiako telebistarentzako errealizatzan hasi zen. Bere lehenengo arrakasta *Cronicas de un pueblo* (1971) delakoarekin iritsi zen. Hurrengo urtean, mundu osoan ospea eman zion *La cabina* (1972) telefilma egin zuen. Horri esker Estatu Batuetako Telebistaren Akademiaren Emmy bat eskuratu zuen. Ondoren *Ese señor de negro*, *Veneno azul*, *Farmacia de Guardia* eta *Turno de oficio* bezalako telesail arrakastatsuak egin zituen. Telesail horiek, publikoaz gain kritika ere alde izatea lortu zuten. Telebistarako azken lana *La habitación blanca* (2001) izan zen. Antonio Mercero Telebistaren Akademiako lehendakaria izan zen 1998 eta 2000 bitartean.

■ ENEKO OLASAGASTI (Donostia, 1960) ETA CARLOS ZABALA (Donostia, 1961)

Euskal fikzioaren arrakasta handietako zenbait sortzaile-tandem horri zor diogu. Antzerkitin, Eusko Jaurlaritzako antzerki-eskola ofizialean, trebatu ziren. Antzerkian hasi ziren antzezle eta zuzendari gisa, telebistako atea ireki zitzaizkien arte. *La traka* umore-programarekin estreinatu ziren 1987an. 1990ean *Hau da A.O.* egin zuten. Bertan Eneko zuzendari artistikoa izan zen. Fama eta ospe profesional handiena *Bi eta Bat sitcom* arekin (egoera-komedia) lortu zuten 1991. urtean. Telesail horretako protagonistak Elena Irurera, José Ramón Soroz, alias *Jose Lontxo*, eta Ane Gabarain ziren. Antzeko egitura zuen *Jaun ta Jabe* telesailak; lehendakari-sukaldari baten gorabeherak. Pantaila handian prestazio bikainak eskaini zituzten *Maité* filmarekin. Film hori, ondoren, telesail-formatura egokitua izan zen. Tentazioa produkzio-etxearekin, 1999an, handinahi handiko polizia-telesail bat sortu zuten, *Ertzainak*. Ikusle-kopuru onak bazituen ere, ez zuen aurrera egin produkzio-arazoak zirela eta.

■ EDURNE ORMAZABAL (Tolosa, 1963)

Psikologo izan behar zuen, baina zortea (Jose txo Lizartza kazetariaren pertsonifikatuta) bere bidean gurutzatu zen, eta ikus-entzunezko kazetaritzara biderarazi zuen. Dotoretasun naturaleko emakumea, komunikatzaile ona eta poliglota, Edurne 1998an, *Katu kale* izeneko musika-programan, ikusi genuen lehendabizikoz. Ondoren Antena



Ramón García.



Carlos Sobera.



Mikel Lejarza.



Antxon Urroso.

3 irratian egon zen, eta Euskadi Gazteak, erakundeko irratikate gazteak, tentatu zuen. Gaur egun irratikate hori koordinatzen du. Horrek, hala ere, ez dio eragotzi ETB 1eko aurpegi ohikoenetako bat izaten jarraitzea, askotan zinematografia eta kultura-gaietara lotua, eta Nazioarteko Donostiako Zinemaldikoa bezalako galak aurkezten.

■ IÑAKI PERURENA

(Leitza, 1956) Komunikabideetako kirolaria eta langile handia. Harakina, poeta eta harri-jasotzailea. Ez zaizkit burura etortzen Iñaki Perurena definitzeko hitz hobekak. Harri-jasotzaile nafarrak, bere espezialitatean, izerdi, lan eta sakrifizio askoren bidez, inoik inoiz amestu ez zituen markak lortu zituen. Gizatasun handi horrekin, Iñakik publikoaren simpatia lortu zuen, eta kirol aktibotik erretiratu ondoren telebistan programa-aurkezle gisa sartu zen (*Herriko plazan*, *Piratak*). Ondoren *Goenkale* ihar teinean jardun da. Agian ez da showman

bat, ezta aktore bikain bat ere, baina ez du horren beharrik ere: nahikoa du bere onestasanarekin eta sinpletasanarekin publiko zabalarekin konektatzeko.

■ CARLOS SOBERA

(Barakaldo, 1960) Zuzenbideko irakasle izan zen Deuston, baina bere zinea, eszena eta telebista da. Hori dela eta, zortea probatzea erabaki zuen eta ondo atera zitzaion, bidea erraza ez bada izan ere.

Bere hastapenak ETB 1ean izan ziren, *Boulevard* programan. Telebista Galiziarrari saldu zitzaion programa bat asmatu zuen, *La Familia Mudanza* izeneko. ETB 2an jarri zen lehendabizikoz kameraren aurrean, *Ciudadanos* programaren aurkezle «sozial» gisa. *Arde la tarde* izenarekin arratsaldetan ematen zen magazineak ez zuen arrakastarik izan, baina K-2000 euskal produkzio-etxearekin, TVEren bidez, *PC Adictos* bezalako programa berritzaile bat atera zuen.

Carlos Sobera telebistako aurpegi famatuenetariko bat da Telecincon *50x15* aurkeztu zuenetik. Izan ere, lehiaketa horrek, hemen, telebista-mundu osoan bezala, arrakasta bikaina izan zuen. ETB 2ko beste lehiaketa bat auzkezteak, *Date el bote*, ikusle-kopuruak gora egitea eragin zuen.

Aktore-lanak egin ditu zinean (*Rigor mortis*, *Lo peor de cada casa*), eta *Al salir de clase*, *Quitate tú pa ponerme yo* (Telecinco), eta *El Señorío de Larrea* (ETB) telesailetan, hala nola antzerkian.

■ TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

«Pter» Ansorena, Xabier Otaegi eta Txema Vitoria euskal telebistako legenda bizia dira. Irratitik zetozen. Irratian, beste izen batekin, asteburuetan gaztetxoak dibertitzen zituzten. 1984ko gabonetan kameraren aurrean jarri ziren. *Don Kikilikonetik* hasi eta *Aliza porru!* arte, beti egon dira larunbat edo igandeetako arratsaldetan. Azken aldian, Txirri, Mirri eta Txirribitonek antzokiak eta galak alde batera utzi dituzte telebista-ekoizpenera bakarrik xedatuz. Izan ere, gaur egun, telebistan ez dute beren neurriko lehiakiderik.

■ ANTXON URROSOLO

(Eibar, 1953) Televisión Española, Euskal Telebista, Telemadrid, Canal Sur eta Telecinco. Telebista-kate horietako ikusle orok ezagutu dute «Urrusolo touch» delakoa. Erakutsi zuen ausardiari eta erabakitasantzari esker, bere estiloa jadanik prentsa idatzian nabarmendu zen.

Luciano Rincón kazetariaren maisuarekin batera, TVEko Eskualdeko Zentzuan, Bilbon, *Saski naski* programa gidatu zuen. *Saski naski*tik atera ziren euskal bizitzaren ezohiko profilak, hiriko loriak eta miseriak. 1988an esperientzia ETBn errepikatu zuen, *Detrás del sirimiri* programarekin. *Dejame que te cuente* (1991) programa eta gero, Urrusolo zuzeneko produkzioetan sartu zen, gai polemikoei buruzko eztabaida-formatuan (ondoren telezabor bezala ezagutu denaren horretatik gertu). Ikusle-kopuruak bilatzeak emaitza oparoak eman zituzten *Toma y daca* saioan. Aldaketa gehiegirik gabe, *Rifi Rafe* aurkeztu zuen. Eta hamarraldia amaituta, *El tiempo lo dirá* programak ildo horren amaiera zehaztu zuen. Madrileko eta Andaluziako telebistetatik igaro ondoren, 2000n, berriro ere ETB 2an, *100% vascos* programarekin berriro nahi izan zen. *Moros y cristianos*, Telecincon, 2001-2002 denboraldian, da formulak berriro zituen, baina nolabait ere audientzien presioa dela eta arrunkeria erori zen sortzaile interesgarri baten azken lana.



egin egin

PRENTSA,  
IRRATIA ETA TELEBISTA  
NAFARROAN  
ETA IPARRALDEAN

---

ARGITALETXEAK

---



# PRENTSA, IRRATIA, TELEBISTA ETA INTERNET



## NAFARROAN

KOMUNIKABIDE SOZIALAK ERREFERENTE KULTURAL OSO GARRANTZITSU BAT DIRA foru erkidegoan. Orain ekingo diogun ibilbidean zehar ikusten joango garen bezala, erreferente politiko nabarmena ere izan dira. Komunikabide horietatik jaio dira gaurkotasan iragankorrek lehian idazten hasi ziren nobelista eta poetak, eta baita bokazio politiko argiko emakume eta gizonak, beren interesak sustatzen zituzten komunikabideen bidez defendatuz, edo horiek eusten zituzten enpresetan eragin nahiez.

*Luis M<sup>a</sup> Azpilikueta eta José M<sup>a</sup> Domench*

### PRENTSA

Komunikabide sozialak erreferente kultural oso garrantzitsu bat dira foru erkidegoan. Orain ekingo diogun ibilbidean zehar ikusten joango garen bezala, erreferente politiko nabarmena ere izan dira. Komunikabide horietatik jaio dira gaurkotasan iragankorrek lehian idazten hasi ziren nobelista eta poetak, eta baita bokazio politiko argiko emakume eta gizonak, beren interesak sustatzen zituzten komunikabideen bidez defendatuz, edo horiek eusten zituzten enpresetan eragin nahiez. Nafarroako komunikabide sozialen historian talde politikoek ekimen ugari egin dituzte merkatuan sartzeko eta, horrela, iritzi publikoan eragina izateko. Baina zituzten zailtasun ekonomikoak ez ziren enpresa-neurri egoki batzuen bidez ebazten, eta, azkenean, enpresen boluntarismo politikoak komunikabide-proiektu porrotera eramaten zuten, izaera profesionalarekin baino pasio gehiagorekin.

#### ■ XIX. MENDEA

Nafarroako prentsak XIX. mendean zehar eduki zuen ezaugarri orokorra bere propaganda-izaera markatua da. Horrela, Nafarroako lehendabiziko egunkaria –bizi laburrekoa– *Gazeta Oficial de la Navarra* izan zen. 1810eko



apirilaren 29an sortu zen, okupazioko agintari frantziarrek sustatuta.

Ondoren, egoera politikoak eta gerra karlistek bando bateko eta besteko egunkariak sortzea eragin zuten. Normalean, egunkari horiek eguneroko izaera zuten. Beren izenbunuek horiek sustatze zituztenen joerei eta ideologia libera edo integristei buruzko pistak ematen dizkigute.

**Bando liberalean** egunkari hauek nabarmentzen ziren: *El Patriota del Pirineo* (1820), *El Imparcial* (1820-1823), *Boletín Oficial de Pamplona* (1838-1846), *El Correo de Navarra* (1862-1864), *El Progresista Navarro* (1865), Nafarroan egunero argitaratzen zen lehenengo egunkaria, *La Prensa Imparcial* (1869-1871) eta *El Porvenir Navarro* (1898-1900 eta 1908-1911).

Erantzun gisa, **ideologia tradizionalistatik**, ondoko hauek bezalako titulu esanguratsuak agertu ziren: *La Verdad contra el Error o desengaño de incautos* (1822-1823) eta bere jarraipena zen *Gaceta Real de Navarra*, *Boletín del Ejército del Rey Nuestro Señor Don Carlos V* (1834-1836), eta *El Tradicionalista* (1886-1893) eta *La Lealtad Navarra* (1888) egunkariak, azken hori *El Pensamiento Navarro* (1897) egunkariaren aurrekaria.

Kazetaritza **lokalistagoaren** garapenari dagokionez, Tuteran *El Avisador Tudelano* (1847-1848), *La Cotorra* (1848-1849) eta *La Merindad* (1849) sortu ziren. 1885ean *El Eco de Tafalla* azaldu zen, eta, 1886an, *El Amante de la Infancia*, Lizarrako lehendabiziko argitalpena.



Egunkari **independente** gisa aurkeztu zen *El Eco de Navarra*. Egunkari hori joera liberalekoa zen, baina foruzalea eta karlisten aurkakoa zen. 1875ean jaio zen, eta egunkari bilakatu zen 1877an. 1913an itxi behar izan zen, *Diario de Navarra* delakoarekiko lehiakortasuna mantendu ezin zitean.

■ XX. MENDEA

Egunkariak XX. mendean zehar la mende osoan bizi luzeena zuten bi egunkarien presentzia eta eragina nagusitu zen. *El Pensamiento Navarro*, 1897an jaioa, ideologia karlistaren zutoihalduna izan zen eta, bere ideiak goiburukoan tituluarekin batera agertzen zen «jainkoa-aberria-erregea» esaldian laburtzen baziren ere, ideologia karlistaren gorabeherak jasan behar izan zituen. Egunkari borrokalaria eta herrikoa izan zen, denbora luzez bere etsai indartsu eta antolatuenari, *Diario de Navarra* egunkariari, aurre egin ziolarik. Bere azkeneko zenbakia, urtez urte indargabetzen egon ondore, 1981eko urtarrilaren 13an argitaratu zen.

XX. mendeko lehenengo herenean –1936. urte arte–, ideologia desberdineko egunkari ugari agertu ziren; egunkari tradizionalistak, liberalak, katolikoak, errepublikarrak, sozialistak eta euskal nazionalistak.

**Tradizionalisten** artean, *El Pensamiento Navarro* egunkariaren gain, *La Tradición Navarra* (1894-1932) egunkaria nabarmendu zen.

**Liberal monarkikoen** artean *El Demócrata Navarro* (1904-1913) eta *El Pueblo Navarro* (1916-1930) egunkariak azpimarratu ditzakegu.

**Prentsa katolikoa** *La Acción Social Navarra* (1910) egunkariak ordezkatzeko zuten. Egunkari hori oraindik ere argitaratzen da, Landako Kooperatiben Lurraldeko Elkartearen organo gisa. Orientazio berekoak ziren merindadeetako egunkariak.

Egunero argitaratzen ez ziren egunkari **sozialistak** izan ziren *La Unión Productora* (1903), Iruñako Langileen Federazioko organoa; *La Verdad* (1912) eta *Trabajadores* (1931-1936).

Ez zen egunero argitaratzen ezta ere *Napartarra* (1911) astekari **nazionalista**, ezta *Amayur* (1931-1936) ere, baina bai *La Voz de Navarra* (1923-1936), Nafarroako bigarren egunkari bilakatu zen egitura finantzario modernoko egunkaria.

Egunero ateratzen zen baita ere *La Democracia* (1932) egunkari **errepublikarra** eta *Abril* (1935) astekaria, joera azañazalekoa.

● DIARIO DE NAVARRA

1903an sortu zen. *Diario de Navarra*, bere akziodunentzako



irabazi asmorik gabea bazen ere, enpresa-izaerako lehenengo egunkari nafarra izan zen. 56 akziodunek sortu zuten. Horien artean orduko gizarte nafarreko familia garrantzitsuenak zeuden. Gertaera bitxi eta esanguratsu bat da akzioak nominatiboak zirela, eta horiek igortzeko estatutuetan zehaztutako zenbait eskakizun bete behar zituzten. Neurri horren bidez, egunkaria sortu zeneko izpiritua mantentzea eta akziodunen artean familia berdinak egotea lortu nahi zen.

Proiektu editorial berria independentzia politikoan, erlijio katolikoaren zaintzan, familiaren babesean, jabetza eta ordena sozialean, eta, batez ere, Nafarroako erregimen pribatiboan oinarritzen zen –hori islatzen zuten estatutuek–.

Nafarroako gizartearen zati handienean indarrean zeuden printzipio horiek babestuz gain, bere arrakastaren gakoetako bat zen, hasieratik, Espainiako edo nazioarteko informazio orokorra emateaz gain, Nafarroako zoko urrunenetan ere gertatzen zenaren berri ematen zuten tokiko korrespondentzen sare zurrin bat eratu zuela.

Lehenengo fase fundazionalaren ondoren (1912 arte) joandako mendeko 60ko hamarraldira arte iraun zuen finkapen batetan sartu zen. Ondoren, *El pensamiento Navarro* egunkariaren etapa progresistenarekin eta *Egin* bezalako egunkari berriak sortzearekin bat egin zuen inflexio-fase motz bat eta gero, 1984an berritu egin zen, formatua eta kolorea aldatuz.

Azken urteetan modernizazioarekin jarraitu da –edizio elektronikoa, gehigarriak, diseinu orokorra, instalazioak– eta, 1999tik, eguneroko edizio bat argitaratzen da Tuteran eta Erriberarako, eta 2000ko urritik beste bat Lizarrarako. 1999an, batezbesteko hedapena 63.803 alekoa izan zen.

● BESTE EGUNKARIAK

Denbora luzean Nafarroako prentsa hiru egunkarik islatu zuten: lehen aipatutako *El Pensamiento Navarro* eta *Diario de Navarra*, eta hirugarrenengo bat. Azken hori 1936an, gerra zibilaren hasieran, jaio zen. Egunkari falangista zen, eta azken urteetan zalantza betetako bitzta bat izan ondoren, 1975. urtean itxi zen.

Astero argitaratzen zen beste egunkari bat *Hoja de Lunes* (1936-1982) zen. Egunkari hori Kazetarien Elkartek sustatu zuen beste egunkarietako egun horretan uzten zuten hutsunea betetzeko. Izan ere, astelehena gainerako egunkarien jaieguna zen.

1964an Iruñan *La Gaceta del Norte* egunkariaren erredakzio bat ezarri zen. Horrela eskualdeko

egunkariaren modalitate berri bati ekin zitzaion, probintzia desberdinetarako berariarako edizioekin. 1984 arte iraun zuen, baina modalitate hori bereganatu zuten joera nazionalistako zenbait egunkariak: *Deia* eta *Egin* 1977tik, eta euskarazko *Egunkaria* astekaria. 1998an *Egin* itxi ondoren, bere ondorengoak, *Gamk*, Iruñako ordezkariak izaten jarraitzen du, baina ez du Nafarroarako berariarako ediziorik argitaratzen.

1982an egunkari berri bat agertu zen, *Navarra Hoy* Ildo independenteko egunkaria zen, baina lotura bat zuen euskal nazionalismoaren planteamenduekin, betiere Nafarroako ikuspegitik. Hasiera batetan oso ondo hartu zuten irakurleek, baina pixkanaka indarra galtzen joan zen, eta zenbait arazo finantzario direla eta 1994. urtean desagertu zuen.

Urtebete beranduago, instalazio berdinetan, baina kide berrieekin eta baliabide ekonomiko handiagoekin, *Diario de Noticias* jaio zen. Hasieratik irakurle-kopuru handi bat izan zuen, eta bere hedapena 13.000 aleen inguruan mantentzen da.

## IRRATIA

### ■ RADIO NAVARRA

Nafarroako irrati-hedakuntzaren historia 1933an hasi zen, Iruñian **Radio Navarra** instalatu zenean. Irrati horretan landu ziren irratiak lehendabiziko teknikari, hizlari eta kazetariak.

1937an Gerra Karlistako Batzordeak eskuratu zuen irrataria, eta izena aldatu zion **Radio Requeté de Navarra** bilakatu zuen.

1940an bere zuzendari zen *Ramon Urrizalqui*ren eskuetara pasa zen, eta urte askotan zehar Nafarroako irrati bakarra izan zen.

1958an SER (Espainiako Irrati-hedakuntzarako Elkarte) katera elkartu zen. Horrek aldaketa nabarmen bat eragin zuen bere programazioan eta edukian, eta 1984an bere izena aldatu egin behar izan zuen, **Radio Pamplona** irrataria bilakatu zuen.

### ■ BESTE IRRATIAK

XX. mendeko 50eko hamarraldian estamentu ofizial desberdinetara atxikitako irratiak agertu ziren. **Radio Tudela** 1952an hasi zen emititzen, Irrati Sindikalaren Kateko irrati gisa.

Era berean, 1957an **La voz de Navarra** jaio zen, Mugimenduko Irratien Sarekoa.

Handik gutxira, 1959an, 1955etik *Radio Requeté* irratiaren tutoretzapean Atarrabiako domingotarren komentuko estudioetatik igortzen zuen **Radio Popular** COPE kateko irrati

# Diario de Navarra



## Con el asta entre la camisa

El primer encierro fue súplico para poltroos, especialmente a la entrada de la plaza de toros



katolikoetatik laugarrena bezala eratu zen.

### ■ IRRATI-KATEAK

Hain zuzen ere sare edo irrati-kate jakin batetara atxikita egotea izan zen irrati-hedakuntza jadanik heldutasunera iritsi zela adierazten zuen ezaugarria. 1978an mugimenduko irratiak eta irrati sindikalak desagertu egin ziren, eta horiek Irrati-kate Espainiarraren parte izatera pasa ziren. Era berean, **La Voz de Navarra** eta **Radio Tudela** ere Irrati-kate Espainiarrera lotu ziren. Bestalde, frekuentzia-modulazioa azaldu zenean, aldaketa teknologikoak direla eta, legedia aldatzea, uhin ertaina ia desagertzea eta frekuentzia hori erabiltzen zuten irrati lizentzia berriak ematea bultzatu zuen.

### ■ IRRATI BERRIAK

Horrela, 80ko hamarraldian, Nafarroan irrati berriak jaio ziren.

Lehenengoa **Radio Navarra** izan zen, *Diario de Navarra* egunkaria argitaratzen zuen enpresarena. 1983an hasi zen emititzen, eta 1984an **Antena 3** katera atxiki zen. Horrela, **Radio Navarra Antena 3 Pamplona** izena hartu zuen.

Talde berekoak dira **Radio Navarra Antena 3 Estella**, **Radio Navarra Antena 3 Tafalla**, eta **Radio Navarra Antena 3 Tudela**.

**Radio Nacional de España** irratiak ere 1984. urtean irrati propioa ireki zuen Iruñian. Era, 1989. urtean **La Voz de Navarra** zurgatu zuen.

### ■ FREKUENTZIA-MODULAZIOA AGERTZEA

90eko hamarraldian benetako iraultza bat gertatu zen Nafarroako irrati-hedakuntzan: lizentzia berriak eman ziren, kateak aldatu egin ziren eta 1994an Antena 3 desagertu zen.

1990ean Nafarroako Gobernuak FMko zazpi lizentzia berri eman zituen. Horien artean ez ziren barne hartu euskaraz igortzen zuten irratiak, hala nola *Euskalerria Irratia*.

Esleipen berri horietatik 90eko hamarraldiaren hasieran irrati berriak sortu ziren. Horrela, 1991ko abenduaren erdialdean **SER Tafalla** igortzen hasi zen, eta urte bereko azkeneko egunean Iruñian **Onda Cero** irrataria, ONCEko partaidea, hasi zen.

1992an **COPE de Peralta** eta **Top 40**, eta **Cadena 100** Iruñian sortu ziren.

1993an *Diario de Navarra* taldeko irratiak Antena 3 utzi zuten eta COPEREkin igortzen hasi ziren. Hurrengo egunean aipatutako taldeak irrati-instalazio berriak ezarri zituen Elizondon eta Altsasun.

Hain zuzen ere 1994an desagertu zen Antena 3, eta, ondorioz, bere irratiak beste kateetara pasa ziren: Tuterakoa SER katera pasa zen; Tafallakoa **Cadena Dial** katera; eta **Antena 3 Pamplona** irratiak **Onda Cero** arduratu zuen.

XX. mendea amaitzeko, **Iruña**, **Tutera**, **Lizarr**a eta **Lesaka** irratiak lizentziak ematean, 1998ko uztailan, sortutako polemika dago.

Iruñian, Nafarroako Unibertsitateari **Radio Universidad** eta **Medios de Comunicación 21** taldeari **Net 21** eman zitzaizkion, 1995. urtean euskaraz igortzen zuen *Euskalerria Irratia* irrati beteteroaren kaltetan.

## TELEBISTA

Nafarroako telebista-igorpenean lehenengo aurrekaria **Televisión Española**ko **Tele-Norte** izan zen. Espazio informatibo hori, Nafarroarentzat izateaz gain, Santander, Burgos, Logroño eta Euskal Herriarentzat ere bazen.

Ondoren, autonomia erkidego bakoitza TVEko eskualdeko zentro batez hornitzeko politikak 1981ean **Tele-Navarra** sortzea eragin zuen. Hasieran ordu erdiz besterik ez zuen emititzen, eta, bigarrenengo fase batetan, ordu erdiz informazioa eta beste ordu erdi batez telediarioen aurretik ematen ziren gai kulturalak igortzen ziren. Ondoren, 1990etik aurrera, goizetan informatibo lokal bat eta arratsaldetan beste espazio alternatibo batzuk ematen hasi zen.

Gogorazi behar dugu 1991. urtera arte Nafarroan TVEko bi kateak eta ETBko beste biak besterik ez zirela ikusten. Baina 1991. urtean aurrera **Tele 5**, **Antena 3** eta **Canal Plus** kate pribatuen seinalea atzematen hasi ziren.

Gaur egun, audientzia-indizeak lehenengo postuan jartzen dute

TVE-1, ikusleen %44,4arekin. Hurrengoak dira Tele 5, %37,6arekin; Antena 3, %27,3arekin; ETB-2, %17,2arekin; TVE-2, %14,4arekin; Canal 4 %8,5arekin; eta gainerakoak, zenbateko txikiagoekin.

■ PAMPLONA TELEVISIÓN TELEBISTATIK CANAL 4 LOCALIA TELEBISTARA

1993an Pamplona Televisión telebista-kate lokala hasi zen igortzen, baina berehala itxi zuen gobernu-agintaritzak, lizentziarik ez zuelako. Hala ere, 1994ko otsailaren 28an berriro ireki zen, eta Iruñako eta eskualdeko ikusleak erakartzen hasi bazen ere, arazo finantzarioak zirela eta akziodunak aldatu egin behar izan ziren 1996an.

Orduan Canal 4 Navarra izena jaso zuen, eta Erkidego osoarentzat emititzen hasi zen. Horrek zailtasun administratiboak eragin zituen, eta, ondorioz, 1999an Prisa taldeak erosi zuen, eta Telebista lokalek Localia taldean sartu zen.

Etorkizunari dagokionez, 2000 urtean Nafarroako Legebiltzarrak -UPN eta PSNren botoei esker- lau katez osatutako eskualdeko telebista digital bat abiaraztea erabaki zuen. Telebista hori abian behar zuen izan 2001erako. Baina oraindik urrun dago egun hori.

INTERNET

Interneteko edozein nabigatzaileko bilatzailearen batetan Nafarroa idaztea nahikoa da internet fenomenoa gizarte nafarrak zein ondo hartu duen konturatzeko. Guztia sarean dagoela esan ohi da, baina bilatzen jakin behar direla. Lerro hauek Nafarroari buruzko informazioa bilatzea errazteko balioko dute.

Nafarroari buruzko Web nagusiak atal handitan bereiz daitezke. Horien artean aurkitzen dira ondoko hauek: gobernu-erakundeak edo erakunde ofizialak; tokiko administrazioa; egunkari digitalak; Unibertsitateak, ikastetxeak eta fakultateak; kultura; industria eta merkataritza; aisialdia; turismoa; kirola; elkarteak; eta abar.

■ GOBERNU-ERAKUNDEEN WEB ORRIAK

Kontsultatu beharreko lehenengoa Nafarroako Gobernuaren orria da: [www.cfnavarra.es](http://www.cfnavarra.es) Bertan kontseilaritza desberdinei eta horiekin lotutako gaietarako buruzko informazioa aurkitzen dugu. Gainera, lotura ugarietarako esker, internautak, adibidez, Aldizkari



Ofizial jakin batetik hasita ibilbide txiki edo monumentuei buruzko informazioeraino kontsultatu ditzake.

Beste web interesgarri bat Nafarroako Legebiltzarraren orria da: [www.parlamentonavarra.es](http://www.parlamentonavarra.es). Bertan, dituen atal desberdinen artean Diputatuen Batzararekiko, Senatuarekiko edo gainerako Legebiltzar Autonomikoekiko loturak ditugu.

■ TOKIKO ADMINISTRAZIOEI BURUZKO WEB ORRIAK

Nafarroako hiri eta herri gehienek, eta udal askok, beren web orria dute.

Iruñako web ofiziala da [www.pamplona.net/esp](http://www.pamplona.net/esp), eta Tuterakoa, [www.encomix.es/tudela](http://www.encomix.es/tudela). Lizarra, [www.estella.lizarra.com](http://www.estella.lizarra.com), Tafalla, [www.tafalla.net](http://www.tafalla.net), Agoitz, [www.animsa.es/navarra/agoiz](http://www.animsa.es/navarra/agoiz), Olite, [www.animsa.es/navarra/olite](http://www.animsa.es/navarra/olite), Corella, [www.animsa.es/navarra/corella](http://www.animsa.es/navarra/corella), Viana, [www.animsa.es/navarra/viana](http://www.animsa.es/navarra/viana), Cascante, [www.animsa.es/navarra/cascante](http://www.animsa.es/navarra/cascante), Elizondo, [www.elizondo.baztan.com](http://www.elizondo.baztan.com), Lekunberri, [www.animsa.es/navarra/lekunberri](http://www.animsa.es/navarra/lekunberri), Leitza, [www.jalgi.com/uelmal/leitza.html](http://www.jalgi.com/uelmal/leitza.html), Atarrabia, [www.animsa.es/navarra/villava](http://www.animsa.es/navarra/villava), Antsoain, [www.animsa.es/navarra/ansoain](http://www.animsa.es/navarra/ansoain), Barañáin, [www.baranain.com](http://www.baranain.com), Uhartea,

[www.animsa.es/navarra/huarte](http://www.animsa.es/navarra/huarte), eta abar.

Nafarroako udalen indize xehekatu bat, beren helbide elektronikoak eta web orrialdeak ondoko Gida Erabilgarrian aurkitu daitezke: [www.cfnavarra.es/WebGN/sou/navarra/arlayunta0.htm](http://www.cfnavarra.es/WebGN/sou/navarra/arlayunta0.htm)

■ ALDIZKARI DIGITALAK, TELEBISTA ETA UNIBERTSITATEAK

1998 amaieran Diario de Navarra egunkariak sarera eraman zuen bere lehendabiziko egunkari digitala. Orduetik diseinuan, abiaduran eta zerbitzuetan hobetuz joan da. Ondoko helbide honetan kontsultatu daitezke: [www.diariodenavarra.es](http://www.diariodenavarra.es). Bere orrialde propioa du baita ere Diario de Noticias egunkariak: [www.diariodenoticias.com](http://www.diariodenoticias.com).

Nafarroako RTVEko Aholkularitza-batzordeak bere informazio-orrialdea atera du: [www.consejoasesorrtvena.com](http://www.consejoasesorrtvena.com). Bertan Radio Exterior de España entzun daitezke zuzenean. Berdina egiten du Canal 4-Navarra kateak, zeinak programazioari, gaurkotasanari eta abarri buruzko informazioa ematen duen ondoko orri honetan: [www.canal4.es](http://www.canal4.es)

Unibertsitate nafarrek, helbide nagusiez gain, [www.unav.es](http://www.unav.es), Nafarroako Unibertsitatearentzat, [www.unavarra.es](http://www.unavarra.es) Unibertsitate

Publikoarentzat, eta [www.uned.es/ca/pamplona](http://www.uned.es/ca/pamplona) eta [www.uned.es/ca/tudela](http://www.uned.es/ca/tudela), UNEDek Iruñan eta Tuteran dituen ikastetxe atxikientzat, fakultateak, ikastetxeak eta horien menpeko erakundeak bisitatzeko aukera ematen dute.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak ikasketei, baliabideei, irakasleei eta ikastetxei buruzko gida bat eskaintzen dute: [www.pnte.cfnavarra.es](http://www.pnte.cfnavarra.es)

■ KULTURA, TURISMOA ETA AISIALDIA SAREAN

Gai zehatz horietara xedatutako web orrialdeen artean, beren seriotasuna eta fidagarritasuna dela eta, batzuk azpimarratu ditzakegu.

Adibidez, Nafarroako Historia, gizakiaren agerpenetik hasi eta 905. urte bitartekoa, ezagutu nahi bada, orrialde oso interesgarri eta dokumentatuak aurki ditzakegu hemen: [www.readyssoft.es/flags/indice1.htm](http://www.readyssoft.es/flags/indice1.htm) eta [www.readyssoft.es/flags/indice2.htm](http://www.readyssoft.es/flags/indice2.htm)

Turismoari eta kulturari dagokionez, [www.cfnavarra.es](http://www.cfnavarra.es) orrialdea bisitatu daitezke. Nafarroako Marketing Klubaren orrialdeko turismoa eta gastronomia kontsultatu daitezke [www.navarra.net/turismo](http://www.navarra.net/turismo) orrialdean. <http://turismo.navarra.com> orrialdea ere bisitatu daitezke. Iruñako Planetarioaren orrialdea da [www.ucm.es/info/Astrof/pamplona/pp\\_casa.html](http://www.ucm.es/info/Astrof/pamplona/pp_casa.html). Aisialdiari dagokionez <http://pamplona.viapolis.com> web orria gomendatzen dugu.

■ BESTE WEB ORRIAK

Kirolari, merkataritza, zerbitzuei, industriari, teknologiarri edo elkartei buruzko beste web orrialde asko daude.

Horien artean nabarmentzen dira CETENASAKoa ([www.cetenasa.es](http://www.cetenasa.es)), Nafarroako Industriaren Elkartearena ([www.ain.es](http://www.ain.es)), Nafarroako Merkataritzaren eta Industriaren Ganbera (<http://navarra.camerdata.es>), Erena Nafarroako Mahastizaintzaren eta Enologiaren Estazioarena ([www.cfnavarra.es/evena/index2.htm](http://www.cfnavarra.es/evena/index2.htm)), EHN Nafarroako Energia Hidraulikokoa ([www.ehn.es](http://www.ehn.es)), Nafarroako Pilota Federakuntzako ([www.iturnet.es/fnp](http://www.iturnet.es/fnp)), Nafarroako Artisauena (<http://artesanos.navarra.net>), Nafarroako Hotelen Gida (<http://turismo.navarra.com/hoteles.html>), Nafarroako Kanpinak ([www.campingsnavarra.com](http://www.campingsnavarra.com)), eta abar.

# PRENTSA, IRRATIA ETA TELEBISTA



## IPARRALDEAN

**PRENTSA.** Napoleonen inperiotik landa, XIX. mendea izan da aldizkarien mendea. Laurogei bat izen ezagutzen ditugu. Horietarik 45 badira Baionako udal liburutegian. Besteak, Paue eta Pariseko artxibotan daude.

**IRRATIA.** Hemendik ari izan den lehen irrata, *Eusko Irratia-La Voz de la Resistancia Vasca* dugu. Euskaldunek ez zutela informazio zuzenik eta Jose Antonio Aguirrek erabaki zuen irrati bat sortzea 1946an.

**TELEBISTA.** ETB sortu zenetik, Iparraldeko Euskaldunetan % 80ak har zezakeen Jaizkibeleetik.

*Xipzi Arbelbide*

### PRENTSA

#### ■ XVIII. MENDEAN

Iparraldean ezagutzen dugun aldizkari zaharrena, «Journal maritime de Bayonne» deitzen da. 1757koa, oso txikia da, 10x15 zentimetro egiten du eta bi orrialde baizik ez dauzka. Noiz sortu zen, noiz gelditu, ez dakigu. Ale bat baizik ez da ezagutzen. Itsas munduko berrietan mugatzen zen.

1793ko iraileko 5ean 'Courier de Bayonne' duelaokoak plazaratzen zuen bere 16. alea, ezagutzen den ale bakarra. Zenbatetarik agertzen zen? Noiz gelditu zen? Iraultzako gerlen berri ematen du lau orrialde txikitik (21x15).

#### ■ XIX. MENDEAN

Napoleonen inperiotik landa, XIX. mendea izan da aldizkarien mendea. Laurogei bat izen ezagutzen ditugu. Horietarik 45 badira Baionako udal liburutegian. Besteak, Paue eta Pariseko artxibotan daude. Molde guzietako aldizkariak: politikoak, ekonomikoak, literarioak... Balio du erratea, aldizkarien prezioa beti apalduz joan zela urteekin: 1830ean 36 libera balio zuen harpidetza hura bera 20tan zen 1870ean eta 18tan 1902an.



#### ● LE COURRIER DE BAYONNE

Mende aberats horretako lehen egunkari, politikoa izan zen, oposiziokoa, 1829an sortua, *Le courrier de Bayonne et de la Péninsule* (1829-33). Izenak berak erakusten duen bezala mugaz beste aldean zer pasatzen zen ere aipatu nahi zuen. Honen lehen arduradun: Martial Allemand Lavigerie, Aita Zuriak sortu behar zituen kardinalaren aitona. Inprimatzailea, Lamaignière. Egunkari horrek iraun du, zenbait aldaketa gora behera, 1960 arte.

Louis Philippe errege sartu zelaririk isildu zen, baina beste izen bat hartzeko, *Sentinelles de Bayonne*. Bigarren errepublikarekin berriz ere izenez aldatu zen eta *L'éclaircure des Pyrénées* bilakatu. Napoleon IIIrekin lehen izenera itzuli zen eta hil arte *Le Courrier* (1853-1968) deituko da. Alemaniarrak hemen zirelarik, bere baitarik gelditu zen, askatasunik ez zela iruditurik, eta haiek joan eta egundainokotan berriz agertu zen.

130 bat urte iraun duen aldizkaria gauza arrawoa daiteke. Aipa dezagun gainera beste berezitasun bat: 1847an Jean Lamaignière inprimatzaile eta aldizkariren nagusia hil zenetik, 1909 arte, Anna Lamagnière alarguntsaren esku egon zela aldizkaria,



feminismorik bazela ere aipu ez zen garaietan. 14 aldizkari irakurtzen zituen egunero andre horrek!

Le Courier astean hiru aldiz agertu zen hastapenean eta gero egunero, igandetean salbu.

● EGUNKARI DESBERDINAK

*Le Journal des Basses Pyrénées*-ren 3 zenbaki badira. Lehena 1802ko martxoaren 4koa; Ez! Barkatu! 12 ventose an 10 de la République, Iraultzako moduan ematen du eguna. Hilak eliza barnean ehorztea debekatu dela jakin arazten du.

*Journal de commerce et d'annonces de la ville de Bayonne*-ek bere 6. zenbakia plazaratu zuen 1808ko abenduko 18an. Honek badu gaurko aldizkariaren itxura gehiago, mamiaren aldetik. 1808tik 1810 arte iraun zuen.

Nola ez aipa 1808an, uztailean lean bere 587. zenbakia plazaratu zuen *Gazeta de comercio, literatura y politica de Bayona de Francia*. Baionan inprimatua, Fernando VII. erregearen propaganda aldizkaria zen, Europan Espainiaz erraten ziren «gezurrak» zuzentzeko. Erredaktore zen Alberto Lista apaiz Andaluz «frantsestua».

● EGUNKARIEN BIZITZA

Luzetasunari doakionez honi hurbil dabilza oraindik ere Donapaleun agertzen den *Le Journal de Saint Palais* astekaria, 1884az geroztik beti agertu dena, gerra garaiak barne, bai eta *Les Petites Affiches*, bere 78 urteekin.

*Le Courier*-ren ondotik agertu ziren beste aldizkari asko, gorri ala zuri, antikerikala ala eliztarra, bonapar tista, erregetiar ala errepublikazale.

*La Semaine de Bayonne* katolikoak 1868tik 1918raino iraun bazuen, *Le Phare* kontserbatzaileak 1834tik 1847raino, *Le Courier de Biarritz*-ek 1872tik 1913 arte, *L'Avenir des Pyrénées et des Landes* errepublikazaleak 1873tik 1908 arte. Gehienek bizi laburra izan zuten. Laburtasunari dagokionez, orotan txapeldun *Le Démocrate Bayonnais*, zenbaki bakar batekin!

*Le Grelot Bayonnais* (1890-94) eta *Le Brûlot*, (1893) aldizkari literarioak, eskuz idatziak ziren eta litografiaz inprimatuak.

Biziaren luzetasunari doakionaz *Le Courier*-i hurbildik jarraitzen ziona: *Eskualduna*. Etcheverry diputatu Bonapartistak sortua, lehen batean gehiena frantses ez baldin bazen, Hiriart Urrutyrekin euskarak nagusitu egin zen. 1887tik 1944 arte iraun du : gerra garaietan soberaz alemaniarren aldeko agertu zen, eta isildu egin behar izan zuen. Lafittek *Herria*



sortu zuen irakurle berentzat. Esan daiteke bi izenekin aldizkari euskaldunak 115 urte dauzkala.

Elizarentzat garai gogorak bizi izan ditu: antikerikalismoa, Eliza bere ontasun guzietaz desjabetu zuen legea 1906an....Salmenten aldetik, hori zen hedapen handiena zuen egunkaria; 1909an 6.000 bat ale saltzen zuen.

● EGUNKARIEN TIRADA

Apezpikutegiak ikerketa bat eginarazi zuenez 1909an, datu interesgarriak ditugu. 150.000 bizilagun zeuzkan Iparralde honetan 24.500 aldizkari saltzen zen, egunkari eta astekariak barne. 14.000 hemengoak, 7.000 Paue eta Bordelekoak, 3.500 Pariskoak. Orotan nagusi, beraz, bere 6.000 aleekin, *Eskualduna*. Euskal Herri barnean irakurtzen ziren aldizkari guzietatik %74 egiten zuen euskarazko astekariak. Eta horri apezpikutegiko astekaria eta Apezpikutegitik hurbil zen *Semaine de Bayonne* gehitzen badiogu, %82ra iristen gara. Ikusten da Elizak zeukan pisua Euskal Herri Euskaldunean.

Baiona, Biarritz, Bokale eta Angeluk beste itxura bat zuten. Hor saltzen ditu bere 1500 aleetatik 1400 *Le Courier*-ek, 1500etatik 1455 *Chronique de Bayonne* (1904-1914), ale guziak (1300) *Echo des Basses Pyrénées* liberal moderatuak (1908-1913). Azpimarragarria da Bordeleko egunkariak hemengoak baino gehiago erosiak zirela: 1910 *Petite Gironde*, 2285 *France Sud Ouest* hirietan, (Iparralde osoan 3155 eta 2793). Pariskoak : *Le Matin* (748) *Le Journal* ( 740), *La Croix* (533) eta *Petit Journal* (440).

● EUSKARA KAZETARITZA FRANTZIARREAN

Euskara sartu zuten aldizkari frantsesak ere izan zen. Lehenik *Ariel*, Agozti Xahordua (1844-52). 350 ale botatzen zituen egunero: bizitzeko aski zitekeen! (*L'Adour* batek 250 ale bazik ez zeuzkan!). *Ariel* dagokionez, bi aldiz atera zuen oso osoa euskaraz, *Úscal Herriko Gasetta*.

*Ariel* bezala ezkerrekoak ziren *Le Réveil Basque* (hau Pauen inprimatua, egia esan, baina honi kontra egiteko zuten Etcheverry diputatuak sortu *Eskualduna*) eta *Le Pays Basque – Eskual Herria* (1898-1914), biak ere euskara sartzen zuten. Garai batetan aste oroz orrialde oso bat izan du euskaraz *Le Courier*-ek.

Euskarazko aldizkariak Iparralde osoarentzat eginak ziren. Frantsesekoak aldiz Baiona eta Lapurdientzat. Nafarroa Beherako eta Zuberoako berriak jakiteko Paueko *Le Memorial* irakurri behar da.

● EGUNKARI KULTURALAK

Kultura munduan ezagutzen dugun aldizkari zaharrena *Le Furet* 1841ean sortua. Honen ondotik *Le Tribly* (1844) 8. zenbakiarekin itzali zen baina berriaz sortu *Revue Bayonnaise* izenarekin: 200 ale plazaratzen zituen.

Beste pisurik dauka 1873az geroz irauten duen *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* batek, urtekari bilakatua gaur egun: 4-500 orrialde dauzka zenbaki bakoitzak.

● TURISMOA

Turismoaren inguruan sortu zen Biarritzen «*Le Journal de Biarritz, journal des bains de mer*»: 1858ko irailean 81 turista bazirela hirian jakinarazten du. Gero turista horien guzien izenak agertuko ditu astez aste *La Gazette de Biarritz-ek* (1884-1944): 1892an 22.360 izan ziren horietarik 14.836; kanpotar gehienak ingeles, espainiar eta errusiarrak zirelarik... baina Hazparne edo Donapaleukoak ere bai.

● GAZTELERA ETA GASKOIA BAIONAKO KAZETARITZAN

Gaztelera eta gaskoia ere izan dute beren tokia Baionako prentsan. Lau mintzairerako prentsa gutxi daude munduan! Hasieratik, *Le Courrier* handiak berak parte bat gaztelaniaz zeukan. Eta bere bizian beste bi mintzairari ere eman die tokia. Gaur egun, frantsesez, gaskoiez eta euskaraz badituzte artikuluak, gutxi bada gutxi, *Le Journal* eta *Sud-Ouest* egunkariak.

Gaztelania hutseko egunkariak izan dira. Jadanik aipatu dugu XIX. mende hasierako «*Gaceta*».

■ XX. MENDEAN

● ESPAZIO EUSKALTZALEA

Bere lehen zenbakia 1921ean atera zuen *Gure Herria* izan da Iparraldeko euskaltzaleen alorra bi garaitan: 1921-1939 eta 1950-76. Iparraldeko izen ezagun guziak ikusten dira hor. Gehiena frantsesez zen. Gauza bitxia Barandiaranek *Eusko Jakintza* (1947-58) sortu baitzuen Saran, hemengo intelektualek nahiago izan zuten beren aldizkaria piztu ezinez eta aldizkari horretan sartu.

Euskarari dagokionez, aipatu behar ditugu *Fedearen propagacioneco urtecaria* (1877-1936) *San Frantsesen terzieren hilabetekaria* (1911-48), *San Frantsesen Deia* bai eta urtero agertzen ziren *almanakak*.



Isidore Dolhandy



Veuve Lamaignere, *Courrier* egunkariako arima 60 urtez.



● ERBESTEKO KAZETARITZA

Madrilgo gora behera politikoen ondorioz, Euskaldun eta Espainolen ihesleku izan da betitik Iparraldea. Hala nola Karlistek hemen inprimatu zituzten *Boletin oficial del ejercito del Rey M.B. Don Carlos V* (1833-36), *La Voz de la Patria* (1874-75), Primo de Riveraren kontra *Hojas libms* (1928-30) agertu zuen M. Ortega y Gassetek.

Eusko Alderdi Jeltzaleak *Aldendi* (1944-74), *Euzkadi* (1968-76), ELA sindikatuak *Lan Deya* (1972-75), Baionako Villa Izarran.

ETA-ko adar bakoitzak bere *Zutik, Berriak, Zuzen* eta beste hemen egiten zituen. Iheslariekin sortu zen ere *Zabal* (1973-75) gogoeta aldizkaria, osoki euskaraz, Ameriketara sortu zen *Euskal Gogoa* hemen desagertu ondoan.

1939-45ko gerraren ondoren oraindik ere argitalpen asko egon dira kostalde honetan: *Cote Basque Soir* (1944-1972) Jean Garat-ena, eskuindarra (Algeria Frantses izatearen alde zen), *La République du Sud Ouest* (1945-1968) erradikala, Hiriart hargin beltzarena, *La Résistance Républicaine* (1944-48) Lartigau apaizarena, Gaulixta, *Le Journal de Biarritz* (1945-64), *Le Soir de Bayonne* (1951-72), *Basque Eclair* (1952-72), hau Paueko *Eclair des Pyrénées* egunkari katolikoaren adarra, batzuk goizean agertzen zirela, besteak arratsean.

● SUD OUEST


Bat bestearen ondotik itxi ditu *Sud Ouest* Bordelekoak. Luzez egunkari bakar batekin egon da Iparraldea, 2001. urtean sortu zen *Le Journal*, hegoaldeko *Gamren* babespean, baina *Sud Ouestek* hemen saltzen dituen 38.000 aleen ondoan honen 2.500ek pisu txikia daukate.

*Sud Ouestek* bi koaderno dauzka. Bat orokorra, edizio guzientzat, bigarrena tokian tokiko edizioa eta tokiko erredakzioak egina. Hemengoa «*Pays basque*» deitzen da nahiz Zuberoako berriak Biarnoko edizioan agertzen diren. 2002 urtean Tabloid formatua hartu zuen.

Gainera *Sud Ouest* egunkariak bere igandeko edizio berezia dauka, «*Sud Ouest Dimanche*», eta berriki erosi du *Diario de Guipuzkoaren* laguntzarekin *La Semaine du Pays Basque*, 7.000ko bat aletan saltzen den astekaria.

● KAZETARITZA HEGOALDEAN

Egunkariak eta Garak bostehun ale saltzen dute hemen, Deiak, eta Diariok askoz gutxiago.



● EGUNKARI ABERTZALEAK

Era berean, aldizkari abertzale andana bat dugu. Batzuk besteak bezain gutxi saltzen direnak, 1000tik behera ale besterik ez bakoitzak. Denen aita den *Enbata* 1961ean sortua eta gaur egun Jakes Abeberry-rene esku dagoena. Gero sortu dira bat bestearen ondotik Ezkerreko mugimendu Abertzaleak, *Ekaitza*. Eusko Alderdi Jeltzaleak sortu zuen *Ager*. Beren arteko haustura baten ondotik, Ximun Haranek segitu du hilabetekari horrekin, alderdi ofizialak *Lema* sortzen zuelarik.




● ALDIZKARI KULTURALAK

Kultur munduan ere baditugu gure aldizkariak. Lehenik 1983az geroztik, Luzien Etxezaharretak bere taldearekin ateratzen duen *Maiatz* literatur aldizkaria; idazle gazteei beren lehen lanak (eta besteak gero) agertzeko parada ematen die. Oso osoa euskaraz da. Donibane edo Sarako eskola bezala, noizbait aipatuko da *Maiatzen* eskola.

Honen ondoan, 1982an, lehenagoko *Gure Herria*-ren segida bezala hartu duen *Ekaina* hiru hilabetekaria: «Revue d'études Basques» du bere azpititulua. Dena frantsesez, ez bada kantu bat.... bere itzulpenarekin. Ondoa dago beti Euskal Erakustokiaren agerkaria, *Bulletin du Musée Basque* (1924-43 eta 1964...).

Beren ikerketen berri emateko, unibertsitarioek 1996an sortu zuten urtean behin 400 bat orrialde betetzen dituen *Lapurdum*. Hasieran euskarak toki gutxi baldin bazuen, azken zenbakian erdia baino gehiago euskaraz da, hegoaldekoak betetzen dituztelarik euskarazko orrialdeak. Zenbait baizik ez ditugu aipatu. Alabaina Adolfo Ruiz de Gaunak 235 izen ematen ditu bere katalogoan... eta zenbait ahaztu zaizkio!



‘Nahiz, Frantzian Estatuaren esku zen irratia, demokrata eta kristau bezala adiskide zuen Georges Bidault kanpo arazoetako ministroarekin konpondu zen. Bigarren eskuko emisore bat etorri zen ontziz Marseillara. Mugerrera eraman zuten eta Jean Pierre Urricariet erretore abertzalearen etxean finkatu. Erredakzioa Donibanen zen. Egun oroz editorial bat bazen euskaraz eta gazteleraz, eta informazioak gazteleraz, OPE Eusko Jaurlaritzako agentziak Paristik korreoz igortzen zituen berriekin. Makinaz idatzitako orriak eramaten ziren Mugerrera eta han irakurtzen ziren arratsean eta berriz eguerditan. Ordu erdi bat irauten zuen emankizunak. Egun batez DST zerbitzu sekretuetara deitua da Durañona. Ez da gehiagorik gertatzen, baina tokiz aldatzea erabaki zuten eta Ziburuko Bordagainen finkatu zuten antena. 1954an geldi arazi zuten Mitterand, Mendes-Francenen barne ministroak: komertzio akordioak egin zituzten Francorekin...

■ CÔTE BASQUE IRRATIA

1961 arte itxaron beharko da beste irratia bat finkatzeko Iparraldean. Francok nahi zituen bereak Larren gainean finkatu, baina hari Parisetik aurrea hartu zioten. 1961ean hasi zen udako sei astez emankizunak zabaltzen *radio Côte Basque*. Ordu bat eskaini zitzairen eskaldunei, Piarres Larzabal eta Telesforo de Monzonere gaitzeko lana egiten zutela, talde eder bat beren inguruan. Azkenean igandeko meza izan zuten, beste ordu bat igandez eta ordu erdi bat ostegunaz haurrentzat. Meza euskaraz izateko borroka gogorrak izan ziren eta askotan kantuak baizik ez zir en euskaraz. Ikaragarriko arrakasta izan zuten emankizun horiek, baina hilabete bat eta erdi baizik ez zuten iraun. 1963an ordu laurden batez igorri zen; gerorago ordu erdi batez eta horietatik bost minutu euskaraz.

IRRATIA

Mende erdi bat dute Iparraldean teknika berriak baliatzen dituzten hedabideek: irratia eta telebistak. Idatzizkoetan bezala badute zer ikusirik Hegoaldekoarekin.

■ EUSKO IRRATIA

Hemendik ari izan den lehen irratia, *Eusko Irratia-La Voz de la Resistancia Vasca* dugu. Euskaldunek ez zutela informazio zuzenik eta Jose Antonio Aguirrek erabaki zuen irratia bat sortzea 1946an.



■ FRANCE BLEU IRRATIA

1981ean egun osoko programa izan zen Baionatik, eta horretan 60 minutu euskaraz eman ziren. Radio *France Bleu Pays Basque* deitzen da. Zenbait urtetan aipatu da goizean zenbait orduz euskaraz ariko den adar bat sortzea Donibane Garazin. 1968an akordio bat egin zuten *Radio Monte Carlo* eta *la Voz de Guipuscoa*: azken honek emisoreak bi orduz zabaltzen zituen frantsesez Euskal Herria eta Landetako kostaldeari buruz berri emanaz.

■ ATLANTIC 2000  
IRRATIA

1969an lau ordutara pasatu zen emankizuna. 1971ean Sud Ouest egunkaria partaide izan zen akordio horretan eta irrateria Radio Atlantic 2000 deitu zen.

Iheslariak zirela eta, geroz eta traba gehiago izan zen muga pasatzeko. Mugaz bestaldeko bezeroak galduz, publizitatea apaldu egin zen, eta nola publizitatetik bizi zen irrateria, isildu egin zen. Bestalde Antenne 2 Frantziako kateak esana zuen Falangeak kontrolatzen zuela irrati hori, eta fama horrek ez zion onik egin.

■ ADOUR NAVARRE  
IRRATIA

Alexandre de la Cerdak bere egin zuen Hegoaldetik Iparraldera emankizunak zabaltzeko ideia eta Loiolako Herri Irratiarekin zuen egin akordioa: 1978an, uztailaren 8an hasi zen *Radio Adour Navarre*, goizeko 10etatik 19,30etara, eta laster bigarren emankizun bat, arratsaldeko 6etatik 7ak arte, frantsesez euskarazko kantuekin.

1981ean irrati libreak alde guzietan sortzen hasi ziren Frantzian, legez kanpo izanagatik. *Radio Adour Navarre* bere antena Mugerren finkatu zuen eta egun osoa emititzen hasi Baionako estudioetarik. Gaitzeko arrakasta izan zuen, alde batetik euskal kantu eta musikak entzun baitzitezkeen eta bestetik, hemengo berri eta gertakariak aipatzen zituelako. Igande oroz herriz herri zabaltzen zuen mezak ezagutarazi zuen herri guzietan.

■ GURE IRRATIA

Kantuak euskaraz baziren, emankizunak frantsesez, ez bada

# SUD OUEST

GRAND QUOTIDIEN RÉPUBLICAIN RÉGIONAL D'INFORMATION

## PAYS BASQUE

egina dute beren artean eta emankizun batzuk, bereziki berriak, elkarrekin egin dituzte. 2000 urtean % 7,1eko entzulea zuten beren ahal soilekin eta euskaldunetara mugatuz, *France Bleu Pays Basque*-k Parisko Irrati Nazionalaren adarrak %12 egiten duelarik.

■ IRRATIEN BOOMA

1981-82ko sukarraren alde guzietan sortu ziren irratiak: Baiona, Biarritz, Angelu, Kanbo, Maule, Donapaleu... Erakunde publikoetarik laguntza handiak izan zituztenak desagertu egin dira, bat bestearen ondotik edo Parisko sare batek beretu ditu. Orain, hiru euskal irratiak eta Frantziako irrati nazionalaz gain gelditzen dira Arrangoitzen, La voix de l'Évangile protextanta, Uztaritzen Lapurdi Irratia katolikoa, Bonne Humeur Hazpainen, Radio Star Donapaleun eta radio Mendilili Maulen.

**le journal**  
EUSKAL HERRIEN EGUNKARIA

**Initiative pour un processus de paix**  
M. TA, Anbar, Esteban et Zuriñe ont présenté hier à Decolita un document dont le but est d'ouvrir un "processus de normalisation politique du Pays Basque". Des journalistes affirment que le droit à l'autodétermination doit être respecté par Madrid et Paris. Une trêve à ETA a été demandée.

**Double noir historique aux Oscars**  
Les deux acteurs noirs ont gagné hier à Hollywood. Cuba Gooding Jr. et Halle Berry ont remporté l'Oscar du meilleur acteur et de la meilleure actrice.

**Les ouvriers de Faure BTP veulent aussi bénéficier du 13<sup>ème</sup> mois. Comme leur encadrement et les administratifs**

**Dix personnes ont été interpellées hier en Gipuzkoa pour appartenance à ETA selon la Garde Civile**

**Les élus abertzale bayonnais dénoncent une certaine entrave au débat municipal**

**La semaine DU PAYS BASQUE**  
9,50 F - 1,44 €

**Elections en Euskadi**  
**Le 13 mai et après ?**

**Bayonne**  
La crèche de demain p 9

**Anglet**  
Les Gascons fêtent la Maïade p 10

**Biarritz**  
Trois femmes à l'affiche aux ateliers chanson p 12

**St-Jean-de-Luz**  
Polémique autour du Grand Hôtel p 14

**Cambo**  
L'Office de tourisme fait le point p 27

**La Bastide-Clairence**  
Dimanche, les 4<sup>es</sup> Foulées d'Adour-Ursula p 28

**Bidarray**  
Des étudiants nettoient la Nive p 31

**Les ballets russes font danser Biarritz** Page 21

**Gabriel Mouesca : bientôt libéré, décident les juges** Page 6

**Les trois scénarios possibles**  
**Ce que disent les sondages**  
**Les réactions des politiques français**

**Juan Jose Ibarretxe**  
**« Le PNV va gagner » p 32**





## TELEBISTA

Larrun gainaz jabetu zelarik TDF Frantziako irrati telebisten erakundea, Parisko emankizunak zabaldu zituen lehenik, eta gero, Bordeletik egun oroz emankizun labur bat egin zuen.

### ■ EUSKARAZKO MINUTUAK TELEBISTA FRANTZIARRAN

1970ean hasi ziren hilabetean bi ordu laurden zabaltzen euskaraz Iparraldearentzat. Maite Barnetxe Bidarraitarra izan dugu euskarazko lehen emankizun horien egilea. Gaitzeko arrakasta bildu zuen. Beti borrokatu da aste oroz emankizun bat izateko, ordu laurden hori ordu erdira luzatzeko, baina alferretan. Ordu laurden hori ere Bordelen muntatzen zen.

Maite hil eta FR3 telebistaren adar bat sortu zuten Baionan 1982an,

egun oroz zazpi minutuko berri sail bat egiteko Iparraldearentzat; horretatik minutu bat euskaraz. Frantziako beste tokietan egiten diren molde bereko emankizun guztien ikusle kopuru handiena dauka emankizun horrek: %60 egiten du zazpiak bost gutxiagotan, eta %30 bigarren aldiz pasatzen delarik zortzietan.

Larunbatetan zazpi minutuko magazine monografiko bat zabaltzen dute Akitania guztirako, batzutan euskaraz frantseseko azpitituluekin. Hasieran %11 ikusle zituen, %33an da orain.

Larunbat eguerditan pilota emankizun bat bada Akitania osorako: «Finki».

### ■ EUSKAL TELEBISTA

ETB sortu zenetik, Iparraldeko Euskaldunetan % 80ak har zezakeen Jaizkibeleetik. Pilota, futbol eta beste kirol emankizunek arrakasta ederra dute, bai eta igandeko mezak, lauetatik bat Iparraldetik baita. Gutxiago albistegiek, Iparraldeko munduaz beste batetakoak baitira.

### ■ IKUSLE-KOPURUAK

1996an SIADECOK egin zuen ikerketa baten arabera, euskara zekitenetan %87,3ak har zezakeen ETB. %55,5ak ikusten zuen, horietatik %27,5ak ordu erdi bat baino gutxiago, besteek gehiago: %25,6ak ordu erdi bat eta bi ordu bitartean. %2,6ak bi ordu baino gehiago.

ETB 1992ko urrian hasi zen Iparraldean Iparraldekoek Iparraldekoentzat egindako berri saila igortzen, «Iparraldearen orena». Egunduz bost minutu irauten du. Orduz aldatua izan da behin baino gehiagotan. 2002an arratseko 8.23etan zen, «Gaur Egunduz» berri saila burutzeko. Hau osorik euskaraz da. Ordu aldaketa horiek erakusten dute zein zaila den Iparraldeari toki bat aurkitzea. FR3 eta ETBk egunduz antzekoetan hasi zituzten beren emankizunak. Euskal Kultur Erakundearen ospe handitan agurtu zuten FR3ren frantseseko emankizuna. ETBren euskarazkoa inork ez zuen aipatu, ez bada Gure Irratiak. Horrek erakusten du zein zaila den Hegoaldean egiten denari interesa

ematea, Iparraldeko Euskal munduan ere.

Igandetan 11,30etan iparraldeko kirolak aipatuak dira «Zuen kintzea» emankizunean, ordu laurden batez.


### ■ TVPI

2001ean sortu da TVPI kate berria, lehenik kablez eta orain uhinez. Egunduz ordu beteko emankizuna egiten du, gehienbat gaurkotatunarekin lotutako erreportajeekin. 3 aldiz pasatzen dute gauero.

Iparraldeko berezitasun bat: irratiak berak legezkoak izan ez diren garaietan, bi astetan behin agertzen zen *Berriak* aldizkariak sortu zuen telefono berriketaria, «*Les informations téléphoniques*». Egunduz, bi edo hiru minutuz entzun zitezkeen egundeko berriak telefonoz.

Internet ere berriketari bilakatu zaigu, eta egunkari ala irrati zenbaitek erabiltzen dute jadanik. Horrela, egunduz berean munduko alde guztietan ezagutzen dira hemengo berriak.

# EUSKAL EDITOREAK



EUSKALDUNA EGUNEROKO PRENTSA GRINA HANDIZ IRAKURTZEN DUEN IRAKURLEA DA, BAINA LIBURUAK OSO ZUHURKI IRAKURTZEN DITUEN IRAKURLEA ERE BADA. Liburuak irakurtzeari asteko 5,8 ordu eskaintzen dizkio. Emakumeek gizonek baino zerbait gehiago irakurtzen dute, eta batez ere 35 eta 44 urte bitartekoak direnek. ETXEKO LIBURUTEGIAK. Etxeen %99,3an dago paper inprimatua. Hori bai, %2,3ak hamar izenburu baino gutxiago dituen bitartean, %42,6ak ehun baino gehiago dituela aitortzen du.

GAUR EGUN, MAKINETAN URTERO SARTZEN DEN titulu-kopurua 3.000 ingurukoa da. Erdia baino zerbait gutxiago euskaraz. Egun, euskal editorialen %66,8 berrehun liburuetatik beherako katalogo bizi bat dute. Horrek adierazten du editorial txikiak direla.

*Juan Aguirre*

## ■ IRAKURLEAK

### ● LIBURU ETA EGUNKARI IRAKURLEAK

Bi euskaldunetatik batek liburu bat irekitzen du irakurtzeko asmotan gutxienez hilabetean behin. Hori adierazten dute azken urteetan Euskal Editoreen Gremioaren ekimenez egindako irakurketa-ohiturei buruzko ikerketek. Liburuak irakurtzen dituztenen %52-55 kontrajarrita dago prentsa orokorra irakurtzen dutenen %71rekiko, edo gutxienez hilean behin aldizkariak edo aldizkako argitalpenak irakurtzen dituela aitortzen dutenen %50arekiko.

Gu zein posizioan gauden argitzen ere laguntzen du. Izan ere, Estatu osoan, liburuak irakurtzen dituztenen portzentajea %43 eta %52aren artean kokatzen da. Egunkariak irakurtzen dituztenak %41 eta %55en artean dauden, eta aldizkariak irakurtzen dituztenak, berriz, %34 eta 48ren artean (1999ko datuak).

Azken buuan, euskalduna eguneroko prentsa grina handiz irakurtzen duen irakurlea da, baina liburuak oso zuhurki irakurtzen dituen irakurlea ere bada. Liburuak irakurtzeari asteko 5,8 ordu eskaintzen dizkio. Emakumeek gizonek baino zerbait gehiago irakurtzen dute, eta batez ere 35 eta 44 urte bitartekoak direnek. Hiri-eremuetan bizitzea,



ikasketa-maila eta egoera soziala dira liburuen irakurketak gure artean dituen indizeetan eragina duten hiru faktoreak.

### ● GAZTELANIA ETA EUSKARA

Inkesta berak erakusten du euskaldunak funtsean oraindik ere gaztelaniaz irakurtzen jarraitzen dutela: %69,5ak gaztelaniaz bakarrik irakurtzen du, eta %13,3ak nahiago du gaztelaniaz irakurtzea.

Euskaraz nahiz gaztelaniaz irakurtzen dutela aitortzen du inkestatutakoen %15,1ek. %2,1ek bakarrik irakurtzen du euskaraz bakarrik. Azken horiek batez ere gazteak dira (16 eta 24 urte bitartekoak), ikasketa-maila onekoak, eta, bereziki, gipuzkoarrak. Euskaraz irakurtzen duten irakurleen %47ak dio beren motibazio nagusia hizkuntzaren perfektionatzea dela dio, eta %46,2ak, berriz, aisialdi edo ihesbide hutsa.

Euskaraz irakurtzen den etxeetan, batezbestekoz, euskarazko 23 liburu daude.

### ● ETXEKO LIBURUTEGIAK

Etxeen %99,3an dago paper inprimatua. Hori bai, %2,3ak hamar izenburu baino gutxiago dituen bitartean, %42,6ak ehun baino gehiago dituela aitortzen du. Logikoki, ikasketa-mailak eta estatus sozialak etxeetan liburu gehiago edo gutxiago egotea baldintzatzen dute. Hori horrela,

goi-mailako ikasketak dituztenek lehen-mailako ikasketak dituztenek baino hiru aldiz liburu gehiago irakurtzen dituzte, eta bigarren mailako ikasketak dituzten horiek baino bi aldiz gehiago.

Azkenik, adierazi behar da hiriburuak direla, etxe bakoitzeko 187 liburuko batezbestekoarekin, herriek eta tamaina txikiagoko hiriek baino liburu-hornidura askoz ere handiagoa duten nukleo gisa nabarmentzen direnak.

#### ● LIBURUTEGI PUBLIKOAK

Liburutegi publikoei dagokienez, Europako mailetatik urrun bagoaude ere, egia da aurrerapen handiak egin ditugula. Gaur egun hiritarren %32k aitortzen du gutxienez urtean behin joan ohi dela liburutegi batetara.

Horietatik %19k liburuak maileguan hartu ditu noizbait. 16 eta 24 urte bitarteko ikasleak dira establezimendu kultural horiek gehien erabiltzen dituztenak.



papereko euskarri tradizionalarentzako lehiakide nabarmena.

Edizio publikoari dagokionez, gutxitze mantso baina konstantea gertatu da. Gaur egun euskal argitalpenen %13 baino gehiago izaera instituzionalekoa da. Estatuko ia administrazio publiko guztietan ere nabarmentzen da joera hori.

**Euskal liburuaren merkaturatzeak** liburu-dendetan fokalizatuta egoten jarraitzen du. Horietan gauzatzen diren salmenta guztien erdia baino gehiago, azalera handiko saltokien %10 bakarrik errepresentatzen duten bitartean. Egoera hori irauli egin liteke, mekatuaren askatasun mehatxaria gauzatuko balitz. Izan ere, publikazio orotarako nahitaezko prezio bakarra kendu egingo litzake. Erraz aurreikusitako daiteke balizko horretan azalera handiko saltokiek ez luketela eragozpen handirik edukiko bezero berriak erakartzeko helburuarekin

#### ■ EDITOREAK


##### ● EKOIZPENA ETA MERKATURATZEA

1996tik Euskal Autonomia Erkidegoa bosgarren postuan dago argitaratutako titulu-kopuruari dagokionez, Katalunia, Madril, Valentzia eta Andaluziaren atzetik.

Gaur egun, **makinetan urtero sartzen den titulu-kopurua** 3.000 ingurukoa da. Erdia baino zerbait gutxiago euskaraz. Titulu bakoitzetik 3.500 aleak gainditzen ez dituen tiradak argitaratzen dira.

Euskaraz nahiz gaztelaniaz, hurrei eta gazteei zuzendutako liburuak dira euskal argitalpen-ekoizpenean eragin gehien dutenak (%43 inguru).

Ondoren unibertsitatekoa ez de testu-liburu dago. Poltsikoko liburuak presentzia eskasa du gure artean: urteko tituluen %10 bakarrik. Beste euskarriek, digitalak adibidez, geroz eta espazio gehiago dute merkatuan, nahiz eta oraindik ez den



kostuaren azpitik dauden prezioak aplikatzeko. Eta horrek ondorio suntsigarriak edukiko litzukete liburu-saltzaile txikiarengan.

##### ● EDIZIOA, LEHEN ZENA ETA ORAIN DENA

Euskal argitalpenaren egoerari buruzko azterketa bikain baten autore den **Joan Mari Torrealdairen** eskutik euskal editoreen mundu konplexuan sartzen gara. Autore horri zor diogu euskal argitalpenak XX. mendetik bizi duen bilakaera historikoari buruzko sarrera bikain bat.

**1936ko Gerra Zibilaren aurretik**, jadanik bazeuden Euskal Herrian argitaletxe garrantzitsuak. Adibidez, Tolosako **Lopez Mendizabal**, Zornotzako **Jaungoiko-zale**, Donostiako **Martin y Mena** edo Durangoko **Elosu**. Horiek guztiak jadanik desagertuta daude.

Editore horietako askok, autoreek bezalaxe, 1937an herrialdea utzi behar izan zuten, eta euskal

erbestea kulturalki elikatzeo argitaletxeak sortu zituzten. Horietako batzuk Ekin bezain garrantzitsuak, Buenos Airesen sortua 1942an.

Penintsulan, gatazka amaitu ondoren hirurogeiko hamarraldira arte batez ere editore erlijiosoak eta urte zailenei aurre egin zieten enpresa gipuzkoar pare bat besterik ez ziren egon: **Itxaropena**, inprenta argitaletxe zarauztarra, **Francisco Unzuurrungagak** 1932an sortua, eta **Añamendi**, *Estomés* familiakoa. Euskal kultura maitatzen duen eta 50 urteetako muga gainditu duen edonoren bagaje kulturala osatzen dute Añamendiren poltsikoko liburu txikiak. Liburu horiek azal gogorra eta aurrealde zuria zuten. Horiei esker euskaldunon antropologia eta historia, folklorea eta tradizioak ezagutu ahal izan genituen.

Tinta horien itzalpean, Jorge Oteizaren *Quousque tandem...!* (1963), J.M. Barandiaranek zuzendutako *El mundo en la mente popular vasca*, eta, noski, *Enciclopedia Geneml Ilustrada del País Vasco* bezalako liburu garrantzitsuek argia ikusi zuten.

Oroitzapen berezi bat zor diegu halaber **Gabriel Celaya** eta bere **Cuadernos de Poesía Norte** bezalako ekimenei. Gabriel Celayak 1947tik «barruko erbesteko» autoreen sorkuntza poetikoak poeta unibertsal bikainenekin batera bildu zituen. Donostiako **Agora** argitaletxea ere azpimarratu behar da. Bertan 1957tik aurrera zenbait idazle handi ezagutzera eman ziren.

**Hirurogeiko hamarraldian** eta hirurogeita hamarrek hamarraldiaren hasieran beste argitaletxe batzuk sortuz joan ziren, editore-belaunaldi berri baten ondorengo: Lur, Jakin, Irakur Sail, Etor, Gordailu, Gero, Elkar, Txertoa, Kriselu, Luis Haranburu... Batzuk bizitza motza izan zuten; beste batzuk berregituratu egin ziren, eta oraindik ere argitaratzen jarraitzen dute.

J.M. Torrealdaik dio bere azterlanean gue herriko argitalpen modernoaren historia, *estricto sensu*, hirurogeiko hamarraldiaren erdialdean hasi zela, erregimen frankistak behera egin zuenean. Alde batetik, liburu despolitizatu egiten da, edo gutxienez ideologikoa denak pisua galtzen du; beste alde batetik, argitaletxe desberdinen arteko liskarrak pixkanaka baretuz joan ziren, eta lehia askeko eremu batetan sartu ziren.

Aldi berean, saiakera krisian sartzen da, eta argitaletxeak kulturala den horregatik interesatzen hasten dira, oinarritzakoago den ikuspuntu batetik; euskara bere lekua irabaziz hasten da, mantso bada ere. Orduan, hutsune handi hori betetzeko, ikastoletarako liburuak,

irakurketak, hiztegiak eta oro har kontsulta-liburuak argitaratzen hasi ziren.

#### ● PERTSONALISTAK ETA ATOMIZATUAK

**Laurogeiko eta laurogeita hamarrek hamarraldian**, sortu ziren argitaletxe berriek, beren jardueraren substantzia eta nukleogisa espezializatu ziren. Gazteen literatura izan, edo ikasketarako materiala izan, saiakera biografikoa, balio literario berriak edo genero literario desberdinak.

Euskal argitaletxe gehienak, lehengoak eta oraingoak, pertsona bakarrek ekimenean edo borondatean lehiaketa murriztu baten ondorioz sortu ziren. Horri baten neurri eta merkatu-ikuspegi txikia gehitzen badiogu, sektoreko

zehazten dituen irizpideetan oinarrituz, Torrealdaik editoreak bete behar dituen hiru baldintza aipatzen ditu. Lehenengo, urteko ekoizpena kontuan hartuta, editore profesionala da urtero gutxienez bost liburu erregistratzen dituen. Bigarren faktorea da bizirik duen hondo editoriala –hots, salmenta-katalogoan dituen obrak–, eta horretarako hirurogeirik chunera titulu behar dira. Eta hirugarren alderdia da jardueraren jarraikortasuna. Horretarako antzinasuna konputatzen da, bosgarren urtetik aurrera.

#### ■ ARGITALPEN-ENPRESAK

1998. urtean Euskal Editoreen Gremioak egin zuen txostenaren



«Gorriko neskatua eguzkitakoarekin». Max Pechstein. 1909.

enpresak pertsonalismo nabarmen batetan murgildu ziren. Gauzak horrela, eta egungo argitaletxe gehienak beren sortzaileen eskutetan daudela kontuan harturik, inork ez daki zer gertatu daitekeen erreleboa etortzean, eta horien kudeaketaz arduratzen bigarren belaunaldi bat pasatzen denean.

#### ● ARGITALETXE PROFESIONAL ETA EGONKORRAK

Hain da nabarmena sektorearen atomizatzea, ez dela erraza bereiztea argitaletxe profesionalizatu eta egonkor baten eta beste ekimen esporadiko eta koiunturalen artean. Jose Manuel Galanek *Análisis Estructural de sector editorial español* liburuan

arabera, urte horretan 100 argitaletxe pribatu zeuden: 31 gremioak ziren; 41 gremiotik kanpo zeuden; eta 28k jarduera hori gauzatzen zuten, horien xede sozial nagusia ez bazen ere.

Argitaletxeek 420 pertsoneri lan ematen zieten: horien erdia argitalpen-ekoizpena xedatzen dira, %21,4 merkataritze-jarduerara, eta gainerakoa administratzaia.

#### ● JATORRIA

Funtzionamenduan dauden lau argitaletxe euskaldunetik bat 1970 baino lehenago jaio zen. Jatorria anitza da. Zenbait argitaletxe inprenta gisa hasi ziren. Izan ere, inprentak ziren XIX. mendeko eta XX. mende

hasierako liburu gehienak argitaratzen zituztenak.

Erro historikoko beste kasu bat zen **liburu-denda/argitaletxeena**. *Txertoa* argitaletxea (Donostiako Easko liburu-denda), *Zabaltzen* argitaletxea (Donostiako Bilintx liburu-denda) edo *Leopoldo Zugaza* argitaletxea (Durangoko Itz liburu-denda) dira eredu hori duten eta oso ezagunak diren zenbait adibide.

Liburuak saltzetik ekoiztera doan ibilbidea da baita ere liburuak banatzetik edo merkaturatzetik heldu diren argitaletxeak. Horien adibide dira adibidez Sendoa eta Ediciones Vascas (gaur egun *Lur argitaletxea*), La Gran Enciclopedia Vasca delakoaren banatzailea.

Gehiegi sakondu nahi ez bada ere, sozietate berriak eman dituzten argitaletxeak aipatuz osatuko dugu atal hau. Sozietate berri horiek argitaletxeak banatzetik nahiz elkartzetik sortuak dira. Eta, azkenik, estatu-mailako enpresen ordezkaritzak diren argitaletxeak daude: Giltza Edebé edo Zubia Santillana.

#### ● IZATEKO MODU BAT

1976 eta 1994 artean Euskal Herrian argitaratuta dauden 12.575 izenburuetatik, %45,6 argitaletxe pribatuei dagokio; %13,63 erakunde publikoei dagokio; %10,5 Euskal Herritik kanpoko argitaletxeei dagokio; %10,48 erlijio-argitaletxeei dagokie; liburu guztien %7,11 heziketa-erakundeek ekoiztu dute; %6,11 elkar teek, kulturalak nahiz beste izaera batetakoak; %2,41 finantza-etxeei dagokiek, eta, azkenik, gainerakoek –beste argitaletxeek– argitaratu zuten %4,61.

Gaur egun, euskal argitaletxeen %66,8k berrehun liburu baino gutxiagoko katalogo bizi bat dute. Horrek adierazten du argitaletxe txikiak direla, eta, horregatik, maniobra-marjina nahikoa mugatuarekin. Torrealdaiek dioen bezala: «Editorearen kasuan, tamaina ez da neurriari dagokion zerbait bakarrik, kudeatzeko modu bat ere bada, baliabide propioen gabezia, hornitzaileekin negoziatze modu bat da, merkaturatu egoteko modu bat. Horrek administrazioekiko mendekotasuna eragiten du, liburu-motak eta ekoizpen-kopuruak ere zerikusit handia dute».

#### ● LURRALDEA ETA XEDEA

**Gipuzkoa** da argitalpen-dinamismo handieneko lurraldea, eta hori errealitate bat da: Euskadin argitaratzen duten enpresen erdia baino gehiagok lurralde historiko horretan dute egoitza.

Bestalde, **Bilbok** gure artean ezarri diren argitaletxe espainiarrak erakarri ditu (S.M., Anaya, Edebé, Santillana).

**Arabian** batez ere erakunde-argitalpena kontzentratzen da.

**Nafarroak** argitaletxe gutxi baina oso interesgarriak ditu, Pamiela, Igela eta Txalaparta adibidez. Bidasoaren iparralderantz, Iparralden, egoera askoz ere apalagoa da, eta zenbait argitaletxek erakartzen dute ekoizpen guztia (nahiko maiz Bidasoaren hegoaldean argitaratutako lanetatik xarma gehiena dutenen frantseseko itzulpenetan oinarrituta).

Aktibismo politiko eta kulturala, beste garai batetan argitaletxe asko sortzeko motibazio nagusia izan zena, gaur egun ez da hainbeste kontuan hartzen, eta enpresa-izaera handiagoa duten irizpideak dira garrantzitsuenak. Irizpide horiek beste edozein sektorearen irizpideetara berdindu daitezke. Izan ere, unearen arabera, enpresa-xedeak bereiziz eta zehaztuz joan dira. Lehen, desberdintasunak ideologiak zehazten zituen, argitalpen-motak baino gehiago; gaur egun, aldiz, argitalpen-jarduera bereizi bat planteatzen da, merkatuan eskaria duen ondasun kultural batzuen ekoizpena xedatua.

Filosofia horren barruan, zenbait enpresek euskal kulturaren aldeko erronka egiten dute; beste batzuk literaturan espezializatzen dira; besteak haur literaturan; dibulgazioan; hiztegi, entziklopedia eta erreferentziako obretan; izaera zientifikokoetan edo pentsamendu-izaerakoetan; eta badaude, azkenik, argitaletxe erlijiosoak ere. Badaude, halaber, argitaletxe mistoak, zenbait jarduketara-ildo desberdin konbinatzen jakin izan dituztenak, emaitza ezin hobekin: adibide bat da, besteren artean, Ediciones Mensajero, Bilbokoa. Argitaletxe horrek, izaera erlijiosoko obrak hedatzeko helburuaz gain, funts zinematografiko garrantzitsu bat ere bildu du urte hauetan guztietan zehar (*Cine para leer* bilduma, adibidez).

#### ● ARAZOAK, ESTRATEGIAK

Euskal argitalpenak arazoak eta mugak ditu, eta horiei erantzuteko irtenbide anitzak bilatzen ditu. Noski, editoreei egiten zaizkien inkesta guztietan, lehengo postuan arazo ekonomikoak daude.

Euskal liburua –eta bereziki euskaraz idatzitakoa–, normalean, defizitarioa da. Hori nahiko logikoa da, kontuan harturik tiradek oso gutxitan gauditzen dituztela bost mila aleak, batez besteko argitalpena hiru mila alekoa dela, eta, horietatik, urtean seihun bat besterik ez direla saltzen. Urritasun hori dela eta produktua asko garestitzen da,

argitalpenaren koste orokorrak ale gutxi batzuen artean banatu behar direla kontuan hartzen bada.

Gauzak horrela, euskarazko liburuaren kostuak gaztelaniazko liburuaren antzekoak badira ere, merkatuaren mugak direla eta lehenengokoan tiradak askoz ere txikiagoak dira bigarrenekoak baino, eta, ondorioz, baita etekinak ere. Horregatik, liburu bakoitzari kostu handiagoa esleitzen zaio. Azken buruan, irabazi-marjina askoz ere txikiagoa da euskarazko liburuaren kasuan gaztelarazkoen kasuan baino.

Horri gehitu behar zaio eroslea gaztelarazko liburuaren preziora

txikiagoarekin konformatu behar da.

Hala ere, liburu guztiek ez dute arazo bera jasaten. Beste modu batekoak dira hiztegiak, entziklopediak, eta formatu handiko eta ondo ilustratutako liburuak. Horiek inbertsio handiagoa behar dute, eta salmentako arazoa dute. Ezin dira liburu-denden sarearen bidez saldu, eta kreditu-salmentako sistemetara jo behar da. Horrek banaketa-erakunde garestien bitartekaritza exijitzen du.

Azken urteetan euskal merkatuan, espainiarrean bezala, guraize-motako ekoizpenerako



ohituta dagoela, eta ez zaiola ulergarria egiten euskaraz argitaratutako liburuak garestiagoak izatea. Angel Lertxundik zioen bezala, gaur egun merkatuan milaka liburu daude gin-tonic baten prezio berean, baina gin-tonikaren «itzal soziala» liburuaren baino hedatuagoa dago. Eta liburuak, oro har, garesti izatearen ospea badu ere, euskal liburuak are gehiago. Merkatuaren logikan liburu autoktonoa desabantaila-egoeran aurkitzen da, lehiatzea zaila deneko eremu batetan jokatuz. Horrela, euskal editorea errentagarritasun-maila

joera nabari da: urteko titulu-kopurua gehitu egiten da, baina tiradak geroz eta txikiagoak dira. Horrela, arrakastarekin emateko aukerak areagotu egiten dira, eta porrota gertatuz gero arriskuak murriztu egiten dira.

#### ● PRESENTZIAK ETA GABEZIAK

Editore gehienentzat arazo nagusia merkatu mugatua bada ere, eta bigarrena arazo ekonomikoa bada ere, askok adierazten duten liburuaren politikarekiko egonezina; hau da, erakunde publikoetatik egiten den kudeaketatik gertatzen den

Arrazoi handiarekin, liburu espainolak merkatuan, komunikabideetan eta gizartearen presentzia bikaina duela argudiatzen da. Euskal irakurlea industria handi horiek eskaintzen diona kontsumitza eta horrekin bizitzera ohituta dago. Hala ere, euskal liburuak, eta bereziki euskaraz idatzitakoak, ez du presentzia hori, askoz ere pisu gutxiago du gizartearen nahiz kulturaren, eta liburu-denda askotan testigantza besterik ez den espazio bat okupatzen du.

#### ■ EDITOREEN ELKARTEAK

##### ● EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA / ASOCIACIÓN DE EDITORES EN LENGUA VASCA

1984an sortu zen. Sorrerako asanbladan helbuntzat zehaztu ziren euskal kultura euskarazko ekoizpenaren bidez sustatzea, elkarteko kideen interesak ordezkatzeko, kudeatzea eta defendatzea, eta, azkenik, euskal kulturari Estatuan eta atzerrian bide berriak irekitzea.


Kide izateko beharrezkoa da katalogoaren %25 baino gehiago euskarazko liburuak osatzea, eta jardueraren hasieratik eta azken urteetara arte euskaraz argitaratu dela ziurtatzea. Elkarteko kide atxiki izan daitezke, halaber, aurreko atalean ez badaude ere, euskarazko lan bat baino gehiago argitaratu duten editoreak.

Gaur egun Elkarteak 20 argitaletxek osatzen dute. Horien euskarazko ekoizpenak euskal liburuaren merkatuaren %95 erakartzen du.

*Euskal Editoreen Elkarteak* Liber Azokan eta Frankfurtoko Liburu-azokan parte hartzen du. Bertan, autoreak aurkezten ditu, eta euskal literatura atzerrian sustatzeko eta hedatzeko jarduerak kulturalak antolatzen ditu. Era berean, euskal literaturaren hedapena bultzatzeko helburuarekin, EEEk urtez urte argitaratzen du argitaletxeetara eta agente literarioetara zuzendutako eskubideen gida bat, Nazioarteko Azokan banatzeko. Euskal Editoreen Elkarteak, halaber, euskarazko liburua ezagutarazteko plataforma baliagarri gisa, komunikabideak nabarmentzen ditu.

##### ● EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA. GREMIO DE EDITORES DE EUSKADI

Elkarte profesional horren bokazioa da Euskadiko argitaletxeetako profesionalen interesak defendatzea eta liburuaren sustatzea da. 35 argitaletxek osatua, Elkarteak laguntza tekniko eta aholkularitza eskaintzen die bere kideei



fiskaltasunari, jabetza intelektualari, egile-eskubideei, laguntzei eta diru-laguntzei, lan-kudeaketari eta abarri buruz.

Gremioak zuzenean parte hartzen du Liber Azokan eta Frankfurtuko nazioarteko liburu-azokan, eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federakuntzaren bidez munduko zortzi azoka garrantzitsuenetan dago. Logikoki, Euskadiko Liburu Azoken Kanpainaren antolamenduan parte hartzen du zuzenean.

Era berean, Euskadiko Editoreen Elkarteak Madrilgo Editoreen Elkarteak eta Kataluniako Editoreen Elkartearen antolatzen dituzten merkataritza-egitekoetan parte hartzen du. Baita Editoreen Elkartearen Federazioak antolatzen dituen ikastaroetan ere. Tokiko eremuan ere ematen dira trebakuntza-ikastaroak, argitaletxeetako langileei zuzendutakoak.

Elkarteak urtero argitalpenari buruzko azterketa bat egiten du Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Azterketa horretan sektoreko zenbatero garrantzitsuenak jasotzen dira: salmenta-zenbateroak, argitaratutako liburuak, katalogoan dauden liburuak, argitalpen-ildoak, merkaturatzeko bideak eta abar. Era berean, Editoreen Elkartearen Federazioak urtero antolatzen duen liburuaren barruko merkataritzaren azterketan parte hartzen du.



## ONDORIOA

Euskal liburuak, oro har, ondo dabil osasunez.

Alde batetik, hasieran esan dugun bezala, irakurketa-mailak, gure artean, gainerako Estatuko mailen gainetik daude.

Irakurketa-ohiturei buruzko azterketen arabera, horiek are gehiago azpimarratzen du eskualde bateko irakurketa-indizeak eskualde horren garapen ekonomikoarekin eta bertako biztanleriaren heziketa-mailarekin duen harremana.

Bestalde, hemengo argitalpen-ekoizpena eta Europako batezbestekoa alderatzeko moduan daude. Hori kantitateari dagokionez, zeren eta kalitateari dagokionez ezin esan dezakegu gure ingurukoekiko atzeratuta gaudenik. Leku orotan bezala, hemen liburu on batzuk argitaratzen dira, erdipurdiko nahikoa liburu argitaratzen da, eta liburu eskas ugari.

Gurea, dudarik gabe, ez da argitaratze-industria handi bat. Baina autoreak ditugu –batzuk ospe handikoak–, esperientziadun editoreak dituzte, eta merkatua ere badago. Hau da, euskal liburuaren bitasunerako baldintza objektiboak ematen dira. Baina gure liburuaren merkaturatze guztiz lehiakorra izatera, eta benetan kulturarentzako plataforma gisa balio izatera iritsi dadin, oraindik lan asko geratzen da aurretik.

# 36. euskal liburu eta disko azoka **DURANGO 2001**



*Abenduaren 5etik 9ra*

**ABENDUAK 5**

10:30etatik 3:30etara ikasle eta irakasleen eguna •  
4etatik 8etara profesionalen eguna (gonbidapena behar da)

---

---

Liburu hau argitaratzeaz  
2003ko uztailaren 30ean,  
Loiolako San Inazio bezperan, amaitu zen.

---

---





